



Iturria: *Bible Saindua*, Duvoisin (faksimilea). La Gran Enciclopedia Vasca, 1973.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/D/DuvoisinBibleaIII.htm>

BIBLE SAINDUA (III) Testament Berria

Jean Pierre Duvoisin

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

BIBLE SAINDUA,
edo Testament Zahar eta Berria,
Duvoisin kapitainak latinezko Bulgatetik
lehenbiziko aldiko
Laphurdiko eskarara itzulia.

Luis-Luziano
Bonaparte printzeak
argitara emana.

«Jaunaren hitzak, hitz garbiak dira, zilhar suaz ikhartua,
lurrezko untzian frogatua, zazpi aldiz garaitua». Psal. XI. 7.

LONDRESEN



JESU-KRISTOREN EBANJELIO SAINDUA MATHIUREN ARABERA

I. KAP.

1. Jesu-Kristo, Dabiden semearen, Abrahamen semearen ethorkiaren liburua.
2. Abrahamek Isaak izan zuen seme, Isaakek berriz Jakob, Jakobek Juda eta haren anaiak;
3. Judak berriz, Thamarren ganik izan zituen Phares eta Zara. Pharesek izan zuen Efron, Efronek Aram.
4. Aramek izan zuen Aminadab, Aminadabek aldiz Naason, Naasonek Salmon.
5. Salmonek berriz, Errahaben ganik izan zuen Booz, Boozek berriz Obed Erruthen ganik, Obedek Jese, eta Jeseke Dabid erregea;
6. Dabid erregeak aldiz Salomon Uriasen emazte izatu zenaren ganik.
7. Salomonek berriz, izatu zuen Erroboam, Erroboamek berriz Abias, Abiasen Asa.
8. Asak aldiz izan zuen Josafat, Josafatek berriz Joram, Joramek Ozias.
9. Oziasek berriz, izan zuen Joatham, Joathamek berriz Akaz, Akazek Ezekias.
10. Ezekiasen berriz, izan zuen Manase, Manasek berriz Amon, Amonek Josias.
11. Josiasen berriz, izan zituen Jekonias eta haren anaiak Babilonarako desherripen irian.
12. Eta Babilonarako desherripenaren ondoan, Jekoniasek izan zuen Salathiel, Salathielek berriz Zorobabel.
13. Zorobabelek aldiz izan zuen Abiud, Abiudek berriz Eliazim, Eliazimek Azor.
14. Azorrek berriz, izan zuen Sadok, Sadokek berriz Akim, Akitnek Eliud.
15. Eliudek aldiz izan zuen Eleazar, Eleazarrek berriz Mathan, Mathanek Jakob.
16. Jakobek berriz, izan zuen Josep, Mariaren senharra, Maria ganik sorthu baitzen Jesus, Kristo deitzen dena.

17. Gizaldi guziak beraz Abrahamen ganik Dabid ganaraino dire hamalau gizaldi, eta Dabiden ganik Babilonarako desherripenaraino hamalau gizaldi, eta Babilonarako desherripenetik Kristo ganaraino hamalau gizaldi.

18. Kristoren sortzea berriz, hunela izan zen: Maria, haren ama, Josepekin hitzeman zelarrik, elkharganatu ziren aitzinetik aurkhitu zen Izpiritu saildua ganik sabelean haurdun.

19. Bada, nola Josep haren senharra, gizon prestua baitzen, eta ez baitzioen laidorik eman nahi, ixilik igorri nahi izan zuen.

20. Bainan holako gogoetak zerabilzkalarik, hara Jaunaren aingerua agertu zitzaioela ametsetan, erraten zioelarik: Josep, Dabiden semea, ez lotsa zure emaztetzat hartzera Maria, ezen hunen baithan sorthua dena Izpiritu saildua ganikakoa da.

21. Aldiz, erdiko da seme batez eta zuk izenez deithuko duzu Jesus, hura da ezen bere populua atheratuko duena bere bekhatuetarik.

22. Bada, hau guzia egin izan da, bethe zadien Jaunaz errana izan zena profetaren ahoz:

23. Huna birjina batek sabelean izanen duela seme bat, eta erdiko dela, eta haurrari emanen diotela izena Emanuel, hori erran nahi baita, Jainkoa gurekin.

24. Josepek aldiz, lotarik atzarri ondoan, egin zuen Jaunaren ainge-ruak manatu zioen bezala, eta bere ganat hartu zuen bere emaztea.

25. Eta etzuen ezagutua erdi zenean bere seme lehen-sorthuaz, zainari Josepek eman baitzioen izentzat Jesus.

II. KAP.

1. Nola beraz Jesus sorthua baitzen Bethlehem Judakoan, Herodes erregearen egunetan, hara Mago batzu ethorri zirela iguzkialdetik Jerusalemara,

2. Ziotelarik: Non da Juduen errege sorthu dena? ezen iguzkialdean ikhusi izan dugu haren izarra eta haren adoratzera gathortzi.

3. Bada, hori aditzearekin, asaldutan sarthu zen Herodes erregea, eta Jerusalemeko guzia harekin batean.

4. Eta bilarazirik aphezen buruzagiak eta populua Iskribauak, galdeka zagokioten hean non sortzekoa zen Kristo.

5. Hekiek berriz, erran zioten: Bethlehem Judakoan, alabainan hau da profetak iskribatua:



6. Eta hi, Bethlehem, Judako lurra, ez haiz segur xumeena Judako lehenbizikoen artean, ezen hire baitarik duk ilkhiren Israelgo ene populari hotsemanen dioena.

7. Orduan Magoak ixilik deithurik, Herodes ardurarekin argitu zen hekien baithan zer mugaz agertu zitzaioten izarra.

8. Eta Bethlehamera gortzen zituelarik, erran zioten: Zoazte, eta ardurarekin galda zazue haurraz; eta aurkhitu dukezuean, gaztia dizazue, nathorren ni ere haren adoratzera.

9. Entzun ondoan errege, bideari lothu ziren; eta hara iguzkialdean ikhusi izan zuten izarra, aitzinean zihoakiotela, heldurik bara zadien arteo haurra zagoen tokiaren gainean.

10. Bada ikhusi zutenean izarra, bozkario handiz ziren boztu;

11. Eta etxean sarthurik, aurkhitu zuten haurra bere ama Mariarekin, eta lurrerat eroriz adoratu izan zuten; eta beren kutzak idekirik, emaitzetan eskaini ziozkaten urhea, isentsua eta mirra.

12. Eta lotan izanik Herodesen gana ez bihurtzeko mezua, bertze bide batetarik itzuli ziren herri alde.

13. Gibelerat itzuli zirenean, hara Jaunaren aingeru bat Josepi lotan agertu zitzaioela erraten zioelarik: Jaiki zaite, har zatzu haurra eta bere ama, ihes egizu Egiptora, eta zaude han nik erran arteo; ezen gerthatzera doha Herodes ibiliko dela haurraren ondoan hura galdu beharrez.

14. Jaikirik, Josepek gabaz hartu zituen haurra eta bere ama, eta Egiptorat aldaratu zen.

15. Eta Herodes hil arteo, han egotu zen, bethe zadien Jaunak profetaren ahoz erran zuena: Egiptotik deithu izan dut ene semea.

16. Orduan Herodesek ikhustenez jokhatua zela Magoez, hasarre gaitzean sarthu zen, eta igorri zuen Bethlehemen eta hango inguru guzietan ziren bi urthetarik beheitirako haur guzien hiltzera, Magoen ganik argitu zen mugaren arabera.

17. Orduan bethe zen Jeremias profetaren arartekoz errana izan zena:

18. Deihadar bat entzuna izan da Erraman, marraska eta orrobia hainitz, Errakel marraskaz bere umeen gainean, eta gozakaririk ez du nahi izan, gehiago zeren ez diren.

19. Herodes hil ondoan bada, hara Jaunaren aingerua Josepi agertu zitzaioela Egipton, lo zagoelarik;

20. Eta erran zioen: Jaiki zaite, har zatzu haurra eta bere ama eta bihur zaite Israelgo lurrera, hilak dire ezen haurraren biziaren ondoan zabiltzanak.

21. Jaiki zen Josep, hartu zituen haurra eta ama, eta ethorri zen Israelgo lurrera.

22. Aditurik ordean Arkelao zela errege Judean, bere aita Herodesen orde, beldur izan zen harat goateko, eta lotan mezu izanik, Galileako aurkhintzetara bildu zen.

23. Eta goanik, Nazareth deitzen den hiri batean egin zuen bere egoitza, bethe zadien profeten arartekoz errana izan zena: Deithuko dute Nazaretharra.

III. KAP.

1. Bada, orduko egunetan Joanes Baptista ethorri zen Judeako mortuan erantzunez

2. Eta erranez: Egizkitzue urrikizko eginkariak, hurbildua da ezen zeruetako erresuma.

3. Hura zen ezik aiphatua Isaias profetaz, erraten zuenean: Mortuan oihuz dagoenaren mintzoa: Aphain zazue Jaunaren bidea, xuxen zatzue haren bidexkak.

4. Bada, Joanesek zuen soinekoa kamelu ilez, eta larruzko uhal bat gerrian; aldiz haren janharria zen xartalaz eta oihanetako eztiz.

5. Orduan haren ganat ilkhitzen ziren Jerusaleme guzia, Judea eta Jordane inguruak oro;

6. Eta beren bekhatuena aithorra egiten zutelarik, haren eskutik bathaiatuak ziren Jordanean.

7. Bainan ikhusirik Farisauetarik eta Saduzearretarik hainitz bathaioara ethortzen, erran zioten: Suge arraza, nork erakhutsi darotzue, jaustera dihoan hasarreari ihes egiten?

8. Athera zatzue beraz urrikizko eginkari behar-bezalakoak.

9. Eta berazue zuen baithan egitetik: Abraham dugu aita. Ezen nik derratzuet, gai dela Jainkoa harri horietarik beretarik ere umeak Abrahami sorrarazteko.

10. Ezen jadanik haizkora arbolaren erroan ezarria da. Bada, edozein arbola fruitu onik ez, dakharrena, ebakia eta surat arthikia izanen da.

11. Nik behintzat uraz bathaiatzen zaituztet, sar zaitetzen urrikitan; bainan ene ondolik ethortzekoa dena, ni baino ahaldunago da, eta ni ez naiz haren oinetakoen erabiltzeko ere; harek bathaiaturen zaituztete Izpiritu sainduaz eta suaz.

12. Eskuan daduka bere bahea eta xahuturen du bere larraina, selharrura bilduren du bere bihia; lastoak aldiz ezin iraungizko suan erreren ditu.



13. Orduan Jesus Galileatik Jordanera ethorri zen Joanesen gana, haren eskutik bathaiatua izatera.

14. Joanesek ordean gibelatzen zuen, zioelarik: Ni behar naiz zutaz izan bathaiatua, eta zu zare ene ganat ethortzen?

15. Jesusek aldiz ihardestean erran zaroen: Zaude oraiko huntan; ezen egoki da guk zuzen den guzia hunela bethe dezagun. Orduan Joanesek etzioen gehiago iharduki.

16. Bada, bathaiatu-eta, Jesus berehala ilkhi zen uretik; eta hara zeruak zabaldu zitzaizkoela, eta Jainkoaren Izpirtua usoaren itxuran jausten ikhusi zuen, eta bere gainera ethortzen.

17. Eta hara zerutikako mintzo bat, zerrana: Hau da ene seme mai-tea, zeinaren baithan ni bainaiz lakhet.

IV. KAP.

1. Orduan Izpirtuak mortura eraman zuen Jesus, debruaz tentatua izateko.

2. Eta berrogoi gau-egunez barur egin zuenean, gosetu zen gero.

3. Eta tentatzaileak, hurbildurik erran zioen: Zu balin bazare Jainkoaren semea, errazu ogi bilhaka ditezen harri horiek.

4. Jesusek ihardestean erran zioen: Iskribatua duk: Gizona ez da bak-harrik ogiz bizi, bainan Jainkoaren ahotikako hitz guziz.

5. Orduan debruak eraman zuen hiri saindura; tenploaren kaskoan ezarri zuen,

6. Eta erran zion Jainkoaren semea balin bazare, beheiti arthikazu zure burua. Iskribatua da ezen, bere aingeruei eman zaituela gomendioz, eta beren eskuetan ekharriren zaituztela, oinaz jo ez dezazun harria.

7. Jesusek ihardetsi zioen: Hau ere iskribatua duk: Zure Jainko Jauna ez duzu frogapenez behartuko.

8. Debruak eraman zuen berriz mendi guziz gora batera, eta erak-hutsi ziozkan lurreko erresuma guziak eta hekien ospea,

9. Eta erran zioen: Emanen darozkitzut horiek oro, baldin lurrerat eroriz adoratzen banauzu.

10. Orduan Jesusek erran zioen: Hoakit, Satan; iskribatua duk ezen: Adoraturen duzu zure Jainko Jauna, bai-eta hura bakharrrik duzu zerbitzaturen.

11. Orduan utzi zuen debruak; eta hara aingeruak hurbildu zitzaizkoela eta zerbitzatzan zutela.

12. Bada, Jesusek aditurik, preso hartu zutela Joanes, baztertu zen Galileara;

13. Eta Nazaretheko hiria utzirik, goan zen eta Kapharnaum itsas-bazterrekoan egin zuen bere egoitza, Zabulongo eta Nefthaliko mugan,

14. Bethen zadientzat Isaias profetaren ahoz erran izan zena

15. Zabulonen lurra eta Nefthaliren lurra, itsasorako bidea, Jordanez haindian, jendaien Galilea;

16. Ilhunbeetan zatzan populuak ikhusi du argi handi bat, eta herioaren itzaleko ephaitzetan jarriak zaudezenei ilkhi zaiote argia.

17. Ordutik Jesus abiatu zen erantzuten eta erraten: Egizkitzue urrikizko eginkariak, hurbil da ezen zeruko erresuma.

18. Bada, Galileako itsas-bazterraz zihoalarik, Jesusek ikhusi zituen bi haurride, Simon, Piarres deitzen dena, eta Andres haren anaia, itsasora sare arthikitzen hari zirela (ezen arrantzariak ziren);

19. Eta erran zaroeten: Zatozte ene ondotik, eta nik eginen dut gizon arrantzari bilhakaturen zaretela.

20. Eta hekiek berehala, sareak utzirik, jarraiki zitzaizkon.

21. Eta handik aitzinago goanik ikhusi zituen bertze bi haurride Jakobe Zebedeorena eta Joanes haren anaia, untzi batean beren aita Zebedeorekin zare antolatzen hari zirela, eta deithu zituen.

22. Hekiek ere ordu berean, utzirik sareak eta aita, ondotik jarraiki zitzaizkon.

23. Eta Jesusek inguratzen zuen Galilea guzia, hango sinagogetan irakhatsiz, erantzunez zeruko erresumaren ebanjelioa, eta populan gaitz eta eritasun guziak sendatuz.

24. Eta Siria guzira goan zen haren omena, eta ekharri ziozkatzen zer-bait eritasun zutenak oro, edozein gaitz eta oinhazez hartuak zirenak, debrudunak, ilhargi-joak eta alderdikatuak, eta sendatu zituen.

25. Eta oste handiak jarraiki zitzaizkon Galileatik, Dekapolisatik, Jerusalemetik, Judeatik eta Jordanez hainditik.

V. KAP.

1. Bada, Jesusek ikhustenez halako osteak, mendira igan zen, eta jarri zenean, hurbildu zitzaizkon bere dizipuluak;

2. Eta ideki zuen ahoa, eta irakhasten zituen, zioelarik:

3. Dohatsu izpirtuz direnak behar, zeren hekiena baita zeruetako erresuma.

4. Dohatsu emeak, zeren lurraz baitire gozaturen.

5. Dohatsu nigar egiten dutenak, emanen baitzaiote gozakari.

6. Dohatsu zuzenbidearen gosez eta egarriz daudezenak, aseak izanen baitire.



7. Dohatsu urrikalkor direnak, zeren berek ere ardietsiren baitute urrikalmendu.
8. Dohatsu bihotzez direnak garbi, hekiek ikhusiren baitute Jainkoa.
9. Dohatsu baketiarrak, zeren Jainkoaren ume izanen baitire deit-huak.
10. Dohatsu jazarpenak zuzenaren gatik egartzen dituztenak, zeren hekiea baita zeruetako erresuma.
11. Dohatsu zarete izanen, ahapaldika hariko zarozkitzuetenean, eta jazarrika erabiliren zaitzutenean, eta ene gatik zernahi gaizki gezurrez erauntsiko dutenean zuen kontra.
12. Boz zaitetzte eta jauz zaitetzte, zeren nasaia baitago zuen saria zeruetan; alabainan holakoak jasan dituzte zuen aitzinean izatu diren profetek.
13. Zuek zarete lurreko gatza. Baldin gezatzera heldu balitz gatza, zertaz hura gazi? Deusetako ez laite gehiago, baizik-ere kanporat arthikia eta gizonez oinkatua izateko.
14. Zuek zarete munduko argia; ezin itzal daiteke mendi gainean jarria den hiria.
15. Kriselu bat ere ez da bizten eta gaitzeruaren azpian ematen, baina bai ganderailuaren gainean, etxean diren guzietan egin diozoten argi.
16. Horrela argi beza zuen argiak gizonen aitzinean, ikhus detzazten zuen eginkari onak eta ospe diozoten bihur zuen Aita zeruetan denari.
17. Ez uste izan legearen eta profeten ezeztatzera naizela ethorri; ez naiz ethorri ezeztatzera, bai ordean bethetzera.
18. Ezen nik derratzuet egiaz, zeru-lurrak iragan arteraino, iota bakar bat edo tilet bat ez dela legetik galduren, guziak bethe ditezen arteo.
19. Nork-ere beraz manamendu horietarik xumeena baitu hautsiren eta halako irakhaspena gizonei baitiote emanen, haina zeruetako erresuman xumeena deithuren da; aldiz nork-ere eginen eta irakhatsiren baititu, haina izanen da zeruetako erresuman handi deithua.
20. Ezen nik derratzuet, etzaretela zeruetako erresuman sarthuren, baldinetaria zuen zuzentasunak Iskribau eta Farisauena gaingitzen ez badu.
21. Entzun duzue lehengo zaharrei errana: Ez duzu hilen; eta hiltzailea juiamenduaren jasanakizun izanen dela.
22. Nik derratzuet ordean, bere anaiari sumintzen zaion edozein, juiamenduaren jasanakizun dela; nork-ere berriz, anaiari erranen baitio, raca, haina biltzarraren meneko izanen dela; zeinak aldiz erranen baitu, erhoa, haina ifernuko suaren jasanakizun dela.

23. Baldin beraz eskaintza bat aldarera ekhartzen baduzu, eta han orhoitu bazare zure anaiak baduela zerbait zure kontra,
24. Han utzazu zure eskaintza aldarearen aitzinean, eta zure anaiari lehenik zoazkio baketzera, eta orduan ethorririk eginen duzu zure eskaintza.
25. Lasier antola zaitte zure partidarekin, harekin bidean zareno, beldurrez-eta juiearen eskuetara eman zaitzan partidak, eta juieak bere zerbizariari, eta sar zetzazten preso.
26. Egiaz derratzut, handik etzarella ilkhiren, non ez duzun azken arditeraino bihurtzen.
27. Entzun duzue, zaharrei erran izan zaitola: Bertzeren emaztearekin ez khutsa.
28. Nik derratzuet, berriz: Nork-ere emaztekoa baituke haren irrirtsa-rekin ikhusi, ordukoz harekin khutsatua dela bihotzez.
29. Baldinetaria zure begi eskuinekoa zure behaztopagarri bada, iragaz eta zure ganik urrun arthikazu; hobe da alabainan zure menbroetarik bat dadien gal, ezenez-eta gorphutza oro dadien ifernuetarat arthik.
30. Eta baldin zure esku eskuina bada zure behaztoparazteko, ebak eta arthikazu zure ganik, hobe da ezen zure menbroetarik bat dadien gal, ezenez gorphutza oro ifernura dadien goan.
31. Hau ere errana izan da: Edozeinek utz dezan bere emaztea, eman biozo uzten duelako ageria.
32. Nik derratzuet, bada: Edozeinek utz dezan bere emaztea, lekhat bertzeekin khutsatu delakoz, berak khutsarazten duela, eta utzia hartzen duenak, bere burua khutsatzen duela.
33. Entzun duzue oraino zaharrei errana izan dela: Zure zinik hautsiren ez duzu, baina Jaunari zure zinak bihurturen diozkatzu.
34. Bada, nik derratzuet: Zinik ez egin batere, ez zeruaz, hura baita Jainkoaren jarlekhua;
35. Ez lurraz, hura baita haren oinpetako alkhia; ez Jerusalem, hura baita errege handiaren hiria;
36. Eta zure buruaz ere ez duzu zin eginen, zeren ez baitzare, ile bakar baten xuri edo beltz eragiteko.
37. Baina hau izan bedi zure hizkuntza: Hola da, hola da; ez, ez; horietaz gainerakorik dena, ordean, gaizkitikakoa da.
38. Entzun duzue errana izan dela: Begia begiaren, hortza hortzaren.
39. Nik derratzuet aldiz, ez bihurtzeko gaizkiari; baina norbaitek jotzen bazaitu eskuineko mathelan, itzul biozozu bertzea ere;



40. Eta zurekin hauzitan hari, eta soina eraman nahi darotzunari utz biozozu kapa ere;
41. Eta norbaitek behartzen bazaitu mila urhatsen egitera, zoaz harekin bertze bi mila ere.
42. Eskatzen darotzunari emozu, eta ez gibelerat igor zure ganik mailagatu nahiz heldu dena.
43. Entzun duzue errana izan dela: Onhetsazu zure laguna eta gaitzets zure etsaia.
44. Nik derratzuet, berriz: Onirizkotan iduk zatzue zuen etsaiak, ongi egiozue gaitzirizkotan zaduzkatenei, eta othoitz egizue zuei jazartzen darotzuetenentzat eta zuen beltzitzen hari direnentzat;
45. Zuen Aita zeruetan denaren, prestuen eta gaixtoen gainera bere iguzkia atheratzen eta uria zuzenen eta makhurren gainera egiten duenaren ume izan zaitezentzat.
46. Alabainan maite zaituztetenak badituzte maite, zer sari izanen duzue? zerga biltzaileek ere ez othe dute hori egiten?
47. Eta zuen anaiei baizik ez badiozue agur egiten, zer egiten duzue nornahik baino gehiago? paganoek ere ez othe dute horrenbat egiten?
48. Izan zaitezte beraz perfet, zuen Aita zerukoa ere perfet den bezala.

VI. KAP.

1. Berautzue gizonen aitzinean egitetik zuen eginkari onak, hekiez ikhusiak izatea gatik; haletan saririk ez duke zue zuen Aita zeruetan denaren baithan.
2. Amoina egiten duzunean beraz, ez jo turuta zure aitzinean, itxura edertzaleek sinagogetan eta karrketan bezala, gizonez ohoratuak izatea gatik. Egiaz derratzuet, izana dute hekiek beren saria.
3. Zuk ordean amoina egiten duzunean, zure esku ezkerak ez beza jakin zer egiten duen eskuinak;
4. Itzalekoa izan dadientzat zure amoina, eta zure Aita, itzalean dakhusanak, bihurturen darotzu.
5. Eta othoitzean zaudeztenean, ez izan itxura eder egileak bezala, zeinek lakhet baitute sinagogetan eta karrika buruetan gelditurik othoitz egitea, gizonez izan ditezen ikhusiak: egiaz derratzuet nik, izena dute beren saria.
6. Zuk ordean othoitz eginen duzunean, zure gelan sar zaite, eta athea hertsirik, gordean egiozu zure Aitari othoitz, eta zure Aita, gordean dakhusanak, bihurturen darotzu.

7. Aldiz othoitz egiten duzunean, ez haintz eras, paganoek bezala; ezen hekiek uste dute erasia luzearen bidez direla entzuten.
8. Ez bezaitezte beraz jar hekien khideko; alabainan zuen Aitak, zuek galdatu baino lehen badaki, zeren beharra duzuen.
9. Zuek beraz huneletan eginen duzue othoitz: Gure Aita, zeruetan zarena, sainduki erabilia izan bedi zure izena.
10. Bethor zure erresuma. Egin bedi zure nahia, zeruan bezala lurrean ere.
11. Iguzu egun hazteko behar dugun ogia;
12. Barkha guri gure zorrak, guk ere gure zorduruei barkhatzen daroztegun bezala.
13. Ez begaitzatu tentazioneari utz; aitzitik gaizkiari itzur gaitzatu. Halabiz.
14. Alabainan gizonei barkhatzen badaroztetzue beren hobenak; zuei ere zuen Aita zerukoak barkhaturen darozkitzue zuen bekhatuak.
15. Aitzitik gizonei ez badiozue barkhatzen, zuen Aitak ere zuen bekhatuak ez darozkitzue barkhaturen.
16. Barur egiten duzunean, berriz, ez jar, itxuratiak bezala, begithartez ilhun; ezen beren begitharteak gaizten dituzte, barur jasaiten agertzea gatik gizonen aitzinean. Egiaz derratzuet nik, berekin dutela beren saria.
17. Zuk ordean, barura daramazunean, gantzu zazu zure burua eta garbi begithartea,
18. Etzaitezen gizonei ager barurik zarela, bainan bai zure Aita, toki gordean ere denari; eta zure Aita, gordean dakhusanak, bihurturen darotzu.
19. Ontasun moltzitzen ez eraunts lurrean, hemen herdoila eta biphia jaten hari baitire, eta ohoinak zilhatzen eta ebasten.
20. Bainan zeruan egizkitzue zuen ontasun murrak, han ez baitute herdoilak, ez biphiak jaten, ez-eta ohoinak zilhatzen eta ebasten.
21. Ezen non-ere baita zure ontasuntzea, han da zure bihotza ere.
22. Zure begia da zure gorputzaren aria. Lainoa badaite zure begia, argia dace zure gorputz guzia.
23. Aitzitik zure begia gaitza badaite, beltza daite zure gorputz guzia. Baldin beraz zure baithan den argia ilhunbea daite, ilhunbeak berak zenbatekoak ez daizte
24. Nihork ezin detzazke bi nausi zerbitza; alabainan edo bat izanen du higuin eta bertzea maite, edo jasanen du bat, eta bertzea arbuaituko. Ezin zerbitza detzazketzue Jainkoa eta dirua.



25. Hargatik nik derratzuet: Bizitzeko zer janen, ez-eta larrua zertaz estaliko duzuen ez izan grinatsu: Alabainan ez othe da bizia jana baino gehiago, eta gorputza, jauntzia baino?

26. Ikhusatzue zeruko hegastinak, ez baitute eraiten, ez uztatzen, ez-eta selharuetara biltzen; eta zuen Aita zerukoak hazten ditu. Zuek ez othe zarete hainitez hekiek baino gehiago?

27. Zuetarik berriz, zein da bere adin, guziekin bere irazkiari beso bat iratxik diozokeenik?

28. Eta zuen jauntziaz, zeren zarete grinati? Bazterretako liliei zaudzkiote begira, nola diren handitzen; ez dire bada ez lanean, ez iruten hari.

29. Eta nik derratzuet, Salomon ere etzela bere ospe guziaren erdian horietarik bat bezala jauntzia.

30. Baldin beraz Jainkoak honela jaunzten badu bazterretako belhar bat, egun dena eta bihar labera arthikia, zenbatenaz hobeki eginen zaitzete zuek, oi sinheste aphurreko umeak!

31. Ez beraz grinarik har, derrazuelarik: Zer janen dugu, edo zer edanen, edo zer jauntziko?

32. Paganoak dire ezen horien ondoan dabiltzanak. Alabainan zuen Aitak badaki horien ororen beharretan zaretela.

33. Bilha zazue beraz lehenbizikorik Jainkoaren erresuma eta haren alderako zintasuna; eta bertze horiek oro iratxikiren zarozkitzuete populu.

34. Ez izan beraz biharkoaz khexu; ezen biharko egunak izanen du bere grina, eta egun bakhotxak aski du bere gaitza.

VII. KAP.

1. Ez juiá, etzaitetzen izan juiatuak.

2. Ezen ekharri duzuen juiamendu beraz izanen zarete juiatuak; eta zer neurritz ere neurtu baitukezue, hartaz neurtuak zareteke.

3. Noletan berriz, zure anaiaren begian ohartzen zare phitsari, eta zurean Ikhusuten ez duzu laza?

4. Edo nolaz diozu zure anaiari: Utz nezazu khen dizazudan begitik phits bat, eta hara laz bat dagoela zurean?

5. Axalez ederra, khen zazu lehenik zure begitik laza, eta orduan abiatuko zare zure anaiaren begitik phitsaren khentzen.

6. Saindu den gauza ez eman zakhurrei, eta urdeei zuen perlak aitzinera ez arthik; beldurrez-eta ostika detzazten, eta bihurturik, zeronek phorroka.

7. Galda zazue, eta emanen zaitzue; bilha zazue, eta aurkhituren duzue; jo zazue eta idekiren zaitzue.

8. Alabainan edozeinek galda dezan, izanen du; eta bilhatzen duenak aurkhitzen; eta joileari idekiren zaio.

9. Zein da zuetan gizona, bere semeak galda baliozo ogia, harria eskain liozokeena?

10. Edo arraina galda baliozo, eskain othe liozoke sugea?

11. Zuek beraz, gaixtoak izan-eta, balin badakizue gauza onen ematen zuen hurrei; zenbatenaz ere hobeki zuen Aita zeruetan denak, onak emanen daroezte galdez dagozkiotenei!

12. Zer-ere beraz nahi baituzue zeronei egin dezazueten gizonen, hura egiozue zeronek hekiei; ezen hortan dauntza legea eta profetak.

13. Athe hertsitik sar zaitzte; zabalda da ezen athea, eta nasaia bidea, galpenerat daramana, eta hainitzak dire hartarik sartzen.

14. Ala hertxia baita athea, ala meharra bidea bizitzera daramana, eta gutiak hura aurkhitzen dutenak!

15. Begira zaitzte gezurrezko profetearik zeinak heldu baitzaizkitzue ardi larraz jauntzirik; barnean otso harrapariak dire ordean.

16. Beren fruituetarik dituzue ezaguturen. Elhorrietarik biltzen othe dire mahatsak, edo lapharretarik pikoak?

17. Horreletan, arbola onak fruitu ona dakhar; aldiz arbola tzarrak, tzarra dakhar.

18. Arbola onak ez dakharke fruitu gaixtorik, ez-eta arbola tzarrak ere fruitu onik.

19. Edozein arbola fruitu ona ematen ez duena, ebakia eta surat arthikia izanen da.

20. Beren fruituetarik ezaguturen dituzue beraz.

21. Niri, Jauna, Jauna, erraten darotan edozein ez da zeruetako erresuman sarthuren; bainan ene Aita zeruetan denaren nahia egiten duena, haina da sarthuren zeruetako erresuman.

22. Askok erranen darotade egun hartan: Jauna, Jauna, guk ez othe dugu zure izenean profetisatu, eta zure izenean debruak irazi, eta zure izenean asko sendagaila egin?

23. Eta nik orduan erranen daroet goraki: Egundaino etzaitzuet eza-gutu zuek; urrun zaitzte ni ganik, tzarkeria orhatzaileak.

24. Edozeinek beraz adi eta bethe detzan ene hitz haukiek, haina, harriaren gainean bere etxea jarri duen gizon gurbilaren khide eginen dute.



25. Eta jautsi da uria, eta ethorri dire uharrak, jauzi dire haizeak eta jo dute etxe hura, eta ez da erori, zeren harriaren gainean baitzen asentatua.

26. Eta edozeinek adi detzan ene solas haukiek eta bethe ez, haina izanen da, gizon zoro, legarraren gainean etxea egiten duenaren iduriko.

27. Eta jautsi da uria, eta ethorri dire uharrak, jauzi dire haizeak eta jo dute etxe hura, eta goan da lurrera, eta gaitza izan da haren leherpena.

28. Eta egin zen, Jesusek akhabatu zituenean solas horiek, osteak espantatuak zaudezela haren irakhasmenaren gainean.

29. Ezik irakhasten hari zitzaien esku duena bezala, eta ez hekien Iskribau eta Farisauen arara.

VIII. KAP.

1. Gero, menditik jautsi zenean, oste handiak jarraiki zitzaizkon ondotik;

2. Eta hara legentsu bat ethorri zela, eta adoratzan zuen Jesus, zerralarik: Jauna, zuk nahi baduzu, garbi nezakezu.

3. Eta eskua hedatuz, Jesusek ukitu zuen, zioelarik: Nahi dut, xahu bezedi. Eta han berean garbitu zen haren legena.

4. Eta hari erran zaroen Jesusek: Berautzu nihori ez derrozun; bainan zoaz, ager zaite aphezari, eta eskaintazu Moisesek manatu eskaintza, lekhukotasunetan dakioten izan.

5. Jesus sarthu zenean, berriz, Kapharnaumen, Ehuntari bat hurbildu zitzaioen othoizka

6. Eta erranez: Jauna, ene muthila etxean da ohatua paralitiko, eta oinhazeak ematen dio gogorki.

7. Jesusek erran zioen: Ethorriren naiz ni, eta sendaturen dut.

8. Eta Ehuntariak ihardetsi zuen: Jauna, zu ene etxera sartzeko, ez naiz din; bainan bakharrik hitz bat errazu eta ene sehia sendatua daite.

9. Ezen ni ere gizon bat naiz bertzeen manukoa, soldadoak ene azpiko ditudana; eta erraten diot bati: Habil, eta badoha; eta bertze bati: Haugi, eta heldu da; eta ene muthilari: Egizak hori, eta egiten du.

10. Bada, Jesusek aditzean ederresten zuen, eta ondotik zituenei erran zaroten: Egiaz derratzuet, hunenbateko sinhesterik ez dut Israelen aurkhitu.

11. Nik derratzuet oraino hainitzak direla iguzki haizetik eta mende-baletik ethorriko, eta Abrahamekin, Isaakekin eta Jakobekin jarriko direla zeruetako erresuman;

12. Aldiz erresumako umeak kanpoko ilhunbeetara izanen dire arthiak; han izanen baitire marraskak eta hortz karraskak.

13. Orduan Jesusek erran zioen Ehuntariari: Zoaz, eta sinhetsi bezala egin bekizu. Eta ordu berean sendatua zen muthila.

14. Eta Piarresen etxera goan, eta Jesusek ikhusi zuen haren amaginarreba etzana eta sukharrez erretzen.

15. Ukitu zioen eskua eta sukharrek utzi zuen, eta jaikirik abiatu zen hekien zerbitzatzen.

16. Arratsa egin zenean, berriz, Jesusi erakharri ziozkaten debrudun asko; eta hitzaz khentzen zituen gaixtoak, eta sendatu zituen gaizdun guziak,

17. Bethe zadientsat Isaias profetaren ahoz errana: Berak hartu ditu gure gaitzak, eta jasan gure eritasunak.

18. Bada, Jesusek oste handiak ikhustenez bere inguruan, manatu zuen eraman zezaten uraz haindira.

19. Eta hurbildurik, iskribau batek erran zaroen: Nausia, nora-nahi goan zadien, jarraikiren natzaitzu.

20. Eta Jesusek ihardetsi zioen: Hazeriek badituzte zilhoak, eta zeruko hegastinek ohantzeak; gizonaren Semeak ez du ordean non etzan burua.

21. Berriz, bere dizipuluetarik bertze batek erran zioen: Jauna, utz nezazu nohan lehenik, eta ehortz dezadan ene aita.

22. Bainan Jesusek ihardetsi zioen: Jarraik zakizkit niri eta hilak uzkitzu beren hilen ehorztera.

23. Eta untzixkan sarthu zenean, jarraiki zitzaizkon bere dizipuluak.

24. Eta hara itsasoa hasarre handitan jauzi zela; haletan non uhinez estalia baitzen untzixka; bera berriz, lo zagoen.

25. Eta hurbildu zitzaizkon bere dizipuluak eta iratzarri zuten, ziote-larik: Begira gaitzatzu, Jauna, galtzen hari gare.

26. Eta Jesusek ihardetsi zioten: Zertako zarete beldurti, sinheste aphurrekoak? Orduan jaikirik manatu zioten haizeei eta itsasoari, eta jabaldura handi bat egin zen.

27. Eta ederresten zuten orok, zerratelarik: Nor da hau, haizeek eta itsasoak entzuten baitute?

28. Uraz haindira heldu izan zenean Jerasatarren aurkhintzara, aitzinera goan zitzaizkon, hobietarik ilkhirik, bi debrudun hain gaitzak non ez baitzaitzekeen nihor bide hartaz iragan.



29. Eta hara oihu egin zutela, erranez: Jesus, Jainkoaren semea, zer da zure eta gure arteko? hunat heldu othe zare ordua baino lehen guri oinhaze ematera?

30. Bada, hekiatarik ez urrun, bazen urdalde handi bat alhan.

31. Debruek berriz, Jesus othoizten zuten, erranez: Baldin hemendik irazten bagaitutzu, urdalde hortara igor gaitzatzu.

32. Eta ihardetsi zioten: Zoazte. Eta hekiek ilkhirik goan ziren urdeen barnera, eta hara urdalde guzia tarrapataka oldarrean goan zela itsasora; eta urean itho ziren guziak.

33. Urdezainek aldiz ihes egin zuten; eta hirira goanik heldu zituzten berri horiek eta debrudunei gerthatu zitzaiotena.

34. Eta hara hiri guzia Jesusi athera zitzaioela bidera; eta ikhusi zute-nean, othoizten zuten goan zadien hekien eremuetarik.

IX. KAP.

1. Eta untzixkara iganik, iragan zuen itsasoa eta ethorri zen bere hirira.

2. Eta hara aitzinera ematen ziotela paralitiko bat ohean etzana. Jesusek ikhusirik hekien sinhestea eriarri erran zioen: Ene haurra, egiozu bihotzari, ezen barkhatuak zaizkitzu zure bekhatuak.

3. Eta hara Iskribauetarik zenbaitek beren baithan erraten zutela: Burhoa dio horrek.

4. Baina Jesusek ezagutu baitzituen hekien gogoetak, erran zuen: Zergatik asmatzen duzue gaizkia zuen bihotzetan?

5. Zer da errexago, ala erratea: Barkhatuak zaizkitzu zure bekhatuak; ala erratea: Jaiki eta ibil zaite?

6. Bada, jakin dezazuen, gizonaren Semeak baduela lurraren gainean bekhatuen bihurtzeko ahala, orduan erran zioen paralitikoari: Jaiki zaite, har zazu zure ohea, eta zoaz etxerat.

7. Eta jaiki zen eta goan zen bere etxerat.

8. Hori ikhusirik, osteak beldurtasunean sarthu ziren eta ospe bihurtzen zioten Jainkoari, holako indarra gizonari eman ziotenari.

9. Handik goatean, Jesusek ikhusi zuen zerga bildegian jarria gizon bat Mathiu deitzen zena. Eta erran zaroen: Jarraik zakizkit. Eta jaiki zen, eta jarraiki zitzaioen.

10. Eta Jesus etxe hartan mahainean jarria zagoelarik, gerthatu zen asko zergari eta lelo tzarreko gizon ethorririk jarri zirela Jesusekin eta haren dizipuluekin.

11. Eta Farisauek ikhusirik, dizipuluei erraten zioten: Zergatik jaten du zuen nausiak zergariekin eta aiphu tzarreko gizonekin?

12. Baina Jesusek aditurik, erran zuen: Sendoek ez dute sendakin beharrik, bai ordean eri direnek.

13. Zoazte beraz, eta ikhasazue zer derraken hitz hunek: Urrikalpena nahi dut eta ez sakrifizioa; ez naiz ezen prestuen deitzera ethorri, baina bai bekhatoreen.

14. Orduan Joanesen dizipuluak hurbildu zitzaizkon, zerratelarik: Nolaz gu eta Farisauek barurtzen gare maiz, eta zure dizipuluek aldiz ez dute barurik egiten?

15. Eta Jesusek ihardetsi zioten: Nigarrez othe dagozke espos lagunak, esposa berekin duteno? Baina ethorriko dire egunak, khenduko baitzaioite esposa, eta orduan egiten dute barur.

16. Bada, aldagarri zaharrari nihork ez ahal dio oihal berrizko pedaxurik ematen, ezen aldagarriari khen liozoke bere betheko zathia, eta zilhoa areago egin laite.

17. Arno berria ere ez da zahagi zaharretan ematen; bertzela leheritzen dire zahagiak, arnoa ixurtzen eta zahagiak galtzen. Baina arno berria, zahagi berrietan ezartzen da, eta biak begiratzen dire.

18. Horiek erraten ziozkatenean, hurbildu zen aitzindari bat, eta adoratzen zuen, zioelarik: Jauna, ene alaba oraixetan hil da; baina zato, gainean ezarrozu eskua, eta biziko da.

19. Eta xutiturik jarraiki zitzaioen, eta dizipuluak ere batean.

20. Eta hara emazteki bat, hamabi urthe hartan odol galtze batek hestutzen zuena, hurbildu zitzaioen gibeletik eta ukitu zioen soinekoaren litsa.

21. Ezen bere baithan egiten zuen: Uki badezaket hunen soinekoa bedere, sendatua naiteke.

22. Eta itzulirik, Jesusek ikhusi eta erran zioen: Haurra, bihotzari egiozu, zure sinhesteak sendatu zaitu. Eta ordu beretik emaztekoa sendatua gelditu zen.

23. Bada, heldu zenean Jesus aitzindariaren etxera, eta ikhusi zituztenean xirolariak eta oste bat harramantz handitan, erran zuen:

24. Zoazte gibelerat, ezen neskatxa ez da hila, baina lo dago. Eta irri egiten zioten.

25. Eta ilkhiarazi zutenean jendea, sarthu zen, hartu zuen nexkaren eskua, eta jaiki zen haurra.

26. Eta horren haroak jo zuen herrialde hura guzia.

27. Eta Jesus bazihoalarik handik, jarraiki zitzaizkon bi itu oihuka eta erranez: Dabiden semea, urrikal guri.



28. Etxera heldu izan zenean, berriz,itsuak hurbildu zitzaizkon. Eta Jesusek erraten diote: Sinhesten duzue badudala zuen sendatzeko indarra? Ihardesten dute: Zinki, Jauna.

29. Orduan ukitu ziozkaten begiak, zerralarik: Zuen sinhestearen arabera egin bekizue.

30. Eta idekiak izan ziren hekien begiak. Eta Jesusek larderiarekin erran zaroten: Begira nihork jakin ez dezan.

31. Hekiek ordean, ilkhirik, bazter hekietan orotan barraiatu zuten haren omena.

32. Hekiek atheratu-eta, berriz, erakharri zioten gizon mutu bat, debruduna.

33. Eta debrua khendu zitzaionean, mutua mintzatu zen; eta orok ederresten zuten, erranez: Egundaino holakorik ez da Israelen ikhusi.

34. Aldiz Farisauek erraten zuten: Debruen buruzagiaren bidez irazitzen ditu debruak.

35. Eta Jesusek inguratzen zituen hiri eta herri guziak, hango sinagogetan irakhatsiz, zeruko erresumaren ebanjelioa erantzunez, gaitz eta eritasun guziak sendatuz.

36. Bada, oste hekiek ikhustean, urrikaldu zen Jesus, ehoak zirelako zuten bazterretan etzanak, artzainik ez duten ardiak iduri.

37. Orduan erran zioten bere dizipuluei: Egiazki handia da uzta, aldiz langileak guti.

38. Othoitzazue beraz uztaren nausia, bere uztara igor dezan langile.

X. KAP.

1. Eta deithurik bere hamabi dizipuluak, esku eman zioten izpiritu lohien gainean, hekien iraitzeko, eta edozein gaitz eta edozein eritasunen sendatzeko.

2. Hamabi Apostoluen izenak berriz, haukiek dire: Lehenbizikoa: Simon, Piarres deitzen dena, eta Andres haren anaia;

3. Jakobe Zebedeorena, eta Joanes haren anaia; Filipe eta Bartholome; Tomas eta Mathiu zerga biltzailea; Jakobe Alpheorena, eta Thadeo;

4. Simon Kanaandarra; eta Judas Iskariot, zeinak saldu baitzuen Jauna.

5. Jesusek igorri zituen horiek hamabiak, mezutzen zituelarik, erranez: Jendaian bidera ez goan, eta ez sar Samariarren hirietara;

6. Aitzitik zoazte Israelgo etxeko ardi galduetara.

7. Zoaztelarik, berriz, erantzun zazue erranez: Ala hurbildua baita zeruetako erresuma.

8. Senda zatzue eriak, hilak bitz, legentsuak garbi, debruak irazi; urrurik izana, urrurik emazue.

9. Ez izan zuen gerrikoetan ez urhe, ez zilhar, ez diru;

10. Ez bidean murtxilarik, ez-eta bi soineko, ez-eta oinetakorik, ez-eta makhilarik; ezen langileak merezi du hazkurria.

11. Edozein hiri edo herritara sar zaitezten, galda zazue nor den han merezdunik, eta haren baithan zaudezte, goateko eguna arteo.

12. Bada, etxe batean sartzean, agur egiozue, erranez: Bakea etxe huni.

13. Eta merezdun balin bada etxe hura, zuen ganikako bakea haren gainera da jautsiren; ez balitz ordean merezdun, zuen ganikako bakea zuen ganat bihurturen da.

14. Eta edozeinek etzaitzazten ostata eta ez detzan entzun zuen solasak, etxetik edo hiritik kanporakoan iharrosazue zuen oinetako herrautsa.

15. Nik derratzuet egiaz, juiamenduko eguna Sodomarentzat eta Gomorharentzat jasan-errexagoa izanen dela hiri harentzat baino.

16. Huna non igortzen zaituztedan hala nola ardiak otsoen erdira. Izan zaitezte beraz zuhur sugea bezala, eta laino nola usoa.

17. Bainan zaudezte erne gizonen kontra; ezen eramanen zaituztete beren biltzarren aitzinera, azotaturen zaituztete beren sinagogetan,

18. Eta buruzagien eta erregeen aitzinera eramanak izanen zarete ene gatik, hekiei eta jendaiei egiteko nitaz lekhukotasun.

19. Bada, hekien eskuetara ezarriak izanen zaretenean, ez abia burutan erabiltzen nola edo zer erranen duzuen; ezen ordu berean emanen zaitzue zer erran.

20. Alabainan etzarete zuek mintzo zaretanak, bainan zuen Aitaren Izpiritua da zuen baithan mintzo dena.

21. Bada, hiltzera igorriko du anaiak bere anaia, aita bere semea, eta haurrak jauziko zatzaizkote burhasoei eta heriotzez joko dituzte.

22. Eta ene izena gatik orotaz izanen zarete gaitzetsiak: bainan zeinek-ere ihardukiren baitu bururaino, haina izanen da salbatua.

23. Noiz-ere bada, gaizki erabiliak izanen baitzarete hiri huntan, ihes egizue bertzera. Egiaz derratzuet: Ez duzue Israelgo hirietako ingurua akhabaturen, gizonaren Semea ethorri baino lehen.

24. Dizipulua ez da nausiaren gaineko, ez-eta sehia jaunaren.



25. Dizipuluari aski behar zaio bere nausia bezala izatea, sehiari bere jauna bezala. Baldin etxeko buruzagia deithu badute Beelzebub, zenbatez hobeki haren etxeoak?

26. Ez izan beraz hekien beldur. Ezen itzalean ez da deus agertuko ez denik, ez-eta gordean jakinen ez denik.

27. Nik ilhunbean derrazuedana, errazue argitara; eta beharri xokhoan entzuna, etxe kaskotarik erantzun zazue.

28. Gorputza hiltzen dutenen, eta arima ezin hil dezaketenen beldur ez izan; bainan lehenago, gorputz arimak ifernuan gal detzazketenentzat izan zaitezte beldurti.

29. Bi etxe-xori ez othe dire bi arditetan saltzen: eta bada, hekietarik bat ez da lurrerat eroriko zuen Aitaren nahia gabe.

30. Zuen buruko ileak ere, oro khonduak dire.

31. Ez beraz izan beldurrik; hainitz etxe-xorik baino gehiago duzue balio.

32. Bada, nork-ere aithor bihurturen baitarot gizonen aitzinean, nik ere aithorturen dut hura ene Aita zeruetan denaren aitzinean.

33. Aldiz nork-ere ni ukhaturen bainau gizonen aitzinean, nik ere ukhaturen dut hura ene Aita zeruetan denaren aitzinean.

34. Ez uste izan lurrera bakearen ekhartzera naizela ethorri; ez bakearen, bainan ezpataren ekhartzera naiz ethorria.

35. Ezen gizona bere aitaren ganik, alaba bere amaren ganik, erreina bere amagarrebaren ganik bereztera ethorria naiz;

36. Eta gizonak etsai bere etxeoak izanen ditu.

37. Nork-ere bere aita edo ama ni baino maiteago baitu, hura ez da enetzat egoki; eta nork-ere nitaz gainetik maite baitu bere semea edo alaba, haina ez da enetzat egoki;

38. Bere gurutzea harturik, ondotik ez darraitana, ez da enetzat egoki.

39. Bere biziaren zaintzera hari denak, galduren du, eta bizia ene gatik galduko duenak, harek aurkhituren du.

40. Zuek hartzen zaituztenek, ni naute hartzen, eta ni hartzen naute-nek, ni bidali nauena du hartzen.

41. Zeinak profeta bat, profeta delakoz baitu hartzen, hainak profeta saria izanen du; eta nork-ere prestu bat, prestu delakoz hartzen baitu, harek prestu saria du izanen.

42. Eta edozeinek xumetto haukietarik bati ur hotz xorta bat bakharrik eman diozon ene dizipulu bati bezala; egiaz derratzuet nik, ez du galduko bere saria.

XI. KAP.

1. Bere hamabi dizipuluak osoki argitu zituenean, Jesus goan zen handik, inguruetako hirietan irakhastera eta predikatzerara.

2. Bada, Joanesek presondegian aditurik Kristoren egintzak, bere bi dizipulu igorrririk,

3. Galdatu zioen: Zu zare ethortzekoa dena, ala bertzerik da igurikitzen duguna?

4. Eta Jesusek ihardetsi zioten huneletan: Zoazte, errozue Joanesi zer aditu duzuen eta zer ikhusi:

5. Itsuek ikhusten dute, mainguak badabiltza, legentsuak garbitzen dire, gorrek aditzen dute, hilak bizten dire, beharrei ebanjelioa erantzuten zaiote;

6. Eta dohatsu ene ariaz gaizbiderik hartzen ez duena.

7. Hekiek goan ondoan, Jesus abiatu zen populuari Joanesez mintzatzen: Zeren ikhustera ilkhi zarete mortura? haizeak derabilan khanabera baten?

8. Bainan zeren ikhustera ilkhi zarete? guriki jauntzia den gizon baten? Errege etxetan daude guriki jaunzten direnak.

9. Bainan zeren ikhusten izatu zarete bada? profeta baten? Bai, erraten darotzuet, profeta ere baino gehiago den baten.

10. Hura da ezen haina zeintaz iskribatua izan baita: Huna non zure aitzinean igortzen dudan nik ene aingerua, zure bidea lehenik aphainduren duena.

11. Erraten darotzuet egia, emaztekiaren umeen artean ez da jaiki Joanes Baptista baino handiagorik; eta halere zeruetako erresuman den xumeena hura baino handiago da.

12. Bada, Joanes Baptistaren egunetarik hunat, zeruetako erresumak bortxatua nahi du izan, eta daramate borrokatzen direnek.

13. Ezen Joanes agertu arteo, profeta guziek eta legeak ezagutarazi dute ethorkizuna;

14. Eta ongi hartu nahi baduzue, hori da Elias ethortzekoa dena.

15. Duenak beharri entzuteko, entzun beza.

16. Bainan noren iduriko iduk detzazket oraiko gizonak? Iduri dute plazan dauden haur batzu, beren lagunei oihu egiten diotenak,

17. Derratelarik: Xirola jo darotzuegu, eta etzarete dantzatu; deithore egin darotzuegu, eta etzarete nigarrez egotu.

18. Alabainan ethorri da Joanes, etzuelarik ez jaten, ez edaten; eta derrate: Debrua du.



19. Ethorri da gizonaren Semea, jaten duelarik eta edaten; eta derrate: Horra jale bat eta arno edale bat, zergari eta gizararren adiskidea. Bainan zuhurtziari bere umek atheratu izan diote bere aithorra.

20. Orduan, hiriei zeinen erdian egin izan baitzuen hanbat sendagaila, abiatu zitzaizoten erantzukika, etzirelako urrikitan sarthu.

21. Zorigaitz hiri, Korozain, zorigaitz hiri, Bethsaida; zeren Tirren eta Sidonen gerthatu izan balire zuen erdian egin diren sendagailak, aspaldi huntan zurdatzekin eta hauspean egin baitzituzketen urrikizko eginkariak.

22. Hargatik derratzuet nik: Tirri eta Sidoni zuei baino eztikiago eginen zaiotela juiamenduko egunean.

23. Eta hi, Kapharnaum, zeruraino iganen othe haiz? ifernuraino jau-tsiko haiz; zeren Sodomarren artean gerthatu izan balire hire erdian egin diren sendagailak, egungo eguneraino iraunen baitzuten menturaz.

24. Hargatik derratzuet: Juiamenduko egunean hiri baino Sodomarren lurrari eztikiago eginen zaio.

25. Orduan Jesusek erran zuen: Ene Aita, zeru-lurren Nausia, ospe darotzut bihurtzen, zeren gauza horiek diozkatzuten gorde zuhur eta gurbil direlakoei, eta agertu xumeei.

26. Bai, Aita, ospe darotzut bihurtzen, zure aitzinean hori izan dela-koz zure gogarako.

27. Ene Aitak ezarri ditu gauza guziak ene eskuko, eta Aitak baizik nihork ez du ezagutzen Semea; eta nihork ez du ezagutzen Aita Semeak baizik aita hainak zeinari Semeak nahi izan baitio ezagutazi.

28. Zatozte ene gana, nekhatuak eta sortatuak zaretan guziak, eta nik arinduren zaituztet.

29. Soinera har zazue ene uztarria, eta ene ganik ikhasazue eme nai-zela eta aphaltura bihotzez; eta aurkhituren duzue zuen arimen jabaldura;

30. Alabainan eztia da ene uztarria, eta arina ene sorta.

XII. KAP.

1. Ordu heketan, larunbat egun batez Jesus iragan zen ogi landa batzuetarik; haren dizipuluak berriz, gose izanez, hasi ziren ogi buru biltzen eta jaten.

2. Aldiz, Farisauek ikhusirik, Jesusi erran zioten: Horra zure dizipuluak egiten dutela, larunbatez egitea haizu ez dena.

3. Bainan Jesusek ihardetsi zioten: Ez othe duzue irakurtu zer egin zuen Dabidek bere lagunekin gose ziren batez;

4. Nola sarthu izan zen Jainkoaren etxean, eta jan zituen eskaintzako ogiak, zeinetarik jatea ez baitzitzaizoten haizu ez hari ez-eta harekilakoei, bainan bakharrrik aphezei?

5. Ala ez duzue legean irakurtu, larunbat egunetan aphezek hausten dutela larunbata, eta hoben gabe direla?

6. Bada, nik derratzuet, hemen badela tenploa baino handiagoa dena.

7. Bazinakite zer den hitz hau: Urrikalpena nahi dut eta ez sakrifizioa, etzindukete nihoiz hobengaberik kondenatu.

8. Ezik gizonaren Semea larunbataren ere nausi da.

9. Eta handik goan zenean, sarthu zen hekien sinagogan.

10. Eta han bazen gizon esku-ihardun bat; eta Jesusen kontra zerbait lopide nahiz, galdatzen zioten, hean larunbat egunean sendatzea haizu zen.

11. Bainan Jesusek ihardetsi zioten: Nor da zuetan gizona, zeinak ardi bat izan-eta, larunbat egunean zilho batera eror balakio, atzemanen eta atheratuko ez lukeena?

12. Zenbatez ez da gizona ardiak gehiago? Hargatik da larunbat egunez ongiaren egitea zilhegi.

13. Orduan erran zaroen gizonari: Heda zazu besoa. Eta hedatu zuen, eta bertzea bezain sasual egin zitzaioen.

14. Aldiz, Farisauek ilkhirik, abiatu ziren beren artean bilkhu egiten Jesusen kontra, hean nola gal othe zezaketen.

15. Orduan Jesusek baitzakien hori, aldaratu zen handik; eta hainitzak jarraiki zitzaizkon, eta sendatu zituen guziak;

16. Eta manatu zioten, bera etzezaten salha;

17. Bethe zadien Isaias profetaren ahoko hitza, erran zuenean:

18. Huna ene zerbitzari, nik hautatu dudana; ene maitea, zeinaren baithan gozo hartu baitu ene arimak; hunen gainera jautsaraziren dut ene izpiritua, eta jendaiei erantzunen diote zuzenbidea.

19. Ez du aharrarik, ez oihurik erabiliren, eta karriketan nihork ez du hunen mintzoa adituren.

20. Khanabera kraskatua ez du hautsiren, eta khea duen mitxa ez du iraugiren zuzenari garhaizia eman diozon arteo.

21. Eta jendaiek haren izenean izanen dute beren igurikimena.

22. Orduan ekharri zioten debrudun bat, itsu eta mutua; eta sendatu zuen, haletan non mintzatzen eta ikhusten baitzuen.

23. Eta guziak harritzen ziren eta zioten: Ez othe da hau Dabiden semea?



24. Farisauek berriz, hori aditurik, erraten zuten: Horrek, Beelzebubez, debruen buruzagiaren bidez baizik ez ditu debruak irazitzen.
25. Bada Jesusek, hekien gogoetak jakinez, erran zaroeten: Bere bait-han bi aldetara dagoen erresuma, xahutua izanen da; eta bi aldetara egiten duen hiriak edo etxeak, lurra joko du.
26. Eta baldin satanek satan iraz baleza, bere bait-han bi aldetara lagoke; noletan bada irauin lezake haren erresumak?
27. Eta nik, Beelzebubez irazitzen badituzte debruak, nortaz irazitzen dituzte zuen semeek? Horren gatik berak izanen dire zuen juie.
28. Aldiz, nik Jainkoaren izpirituaz khentzen badituzte debruak, zuetara ethorria da beraz Jainkoaren erresuma.
29. Nola gizon hazkarraren etxean sar ditake norbait, eta ebats detzazke haren puskak, lehenik bera estekatzen ez badu, gero biluz baiti-ro etxea?
30. Ene alde ez dena, ene kontra da; eta enekin biltzen ez duenak, barraiatzen du.
31. Hargatik derratzuet nik: Edozein bekhatu eta burho barkhaturen zaitzue; bainan Izpiritu sainduaren alderako burhoa etzaitzue barkhatu- ren.
32. Eta nor-nahi mintza dadien gizonaren Semearen kontra, barkha- kizun da; bainan Izpiritu sainduaren kontra mintzatu daitenari etzaio ez mende huntan ez ethorkizunekoan barkhaturen.
33. Egizue, edo ona dela arbola eta haren fruitua ere bai, edo dela tzarra eta fruitua ere bai; ezen fruitutik da arbola ezagun.
34. Sugekumeak, zerorrek tzarrak izan-eta, nondik derrazketzue gauza onak? ezen bihotzeko gaindiduratik ahoa da mintzo.
35. Gizon prestuak gauza onak dakharzka bildegi onetik, eta gaixta- ginak gaixtotik gaixtoak dakharzka.
36. Bada, nik derratzuet, edozein elhe alfer atheratu dukeen gizonak, hartaz beharko duela ihardetsi juiamenduko egunean.
37. Ezen zure ahotik izanen zare atheratua garbi, eta zure ahotik hobendun.
38. Orduan Iskribauetarik eta Farisauetarik zenbaitek erran zioten: Nausia, zure ganik sendagaila zerbait ikhusi nahi ginduke.
39. Jesusek ihardetsi zioten: Gaixtakeriako eta lohikeriako umeak sendagaila eskez daude; bainan Jonas profetarenaz bertzerik emanen etzaiote.
40. Ezen nola balearen sabelean hirur gau-egunez izatu baita Jonas, hala lurraren bihotzean hirur gau-egunez egonen da gizonaren Semea.

41. Juiamenduko egunean Ninibarrak atheraturen dire haukien kon- tra, eta kondenaturen dituzte, zeren berak urrikitan sarthu izan baitire Jonasek azurriatu ondoan. Eta bizkitartean hemen dena Jonas baino gehiagokoa da.

42. Hegoako erregina ere juiamenduko egunean haukien kontra ilk- hiren da, eta kondenaturen ditu, zeren bera lurraren bertze burutik etho- rri izan baita Salomonen zuhurtziaren entzutera; eta bizkitartean hemen dena Salomonez bertzerik da.

43. Aldiz izpiritu lohia, gizon baten ganik ilkhi denean, ephaitza ago- rrak behera phausuketa dabila, eta ez du aurkhitzen.

44. Ene etxe ilkhi naizenerat bihurturen naiz, dio orduan. Eta etho- rri denean, aurkhitzen du hutsa, erhaztatua eta aphaindua.

45. Orduan badoha, eta hartzen ditu bertze zazpi izpiritu bera baino gaixtoagoak; eta sarthurik, han egiten dute beren egoitza, eta gizon haren azken zoria lehena baino gaitzagoa da.

46. Ostei mintzo zelarik oraino, haren ama eta anaiak kanpoan zau- den, hari mintzatu beharrez.

47. Erran zioen bada norbaitek: Zure ama eta anaiak kanpoan daude zure galdez.

48. Bainan hori erran zioenari ihardetsi zioen: Nor da ene ama, eta zein dire ene anaiak?

49. Eta bere dizipuluen alderat hedatuz eskua, erran zuen: Huna ene ama eta anaiak.

50. Ezen nork-ere egiten baitu ene Aita zeruetan denaren nahia, haina da ene anaia, eta arreba, eta ama.

XIII. KAP.

1. Egun hartan berean, Jesus, etxetik ilkhirik, itsas-bazterrean zago- en jarria.

2. Eta haren ingurura bildu ziren oste handi batzu, haletan non, untzi batera iganik hartan jarri baitzen, eta ur hegitik zagoen populu guzia.

3. Eta paraboletan atheratu zioten asko solas, zioelarik: Adizue; erai- tera ilkhi zen erailea.

4. Eta eraiten hari zelarik, hazi liphar bat erori zen bide bazterretara, eta ethorri ziren zeruko xoriak, eta jan zuten.

5. Bertze bat erori zen toki harritsueta, zeinetan ez baitzuen lurrik aski, eta berehala sorthu zen, lurra etzelakoz lodi;

6. Bainan iguzkia ilkhitzearekin, xiphildu zen, eta errorik etzelakoz, ihartu.



7. Bertze bat berriz, erori zen lapharren artera; eta lapharrak handitu ziren, eta itho zuten.
8. Bertze bat aldiz, lur onera erori zen, eta eman zuen bihi, hemen ondoko ehun, hor hirur hogoi, han hogoi eta hamar.
9. Entzuteko beharirik baduenak, entzun beza.
10. Eta hurbildurik dizipuluek erran zioten: Zergatik mintzo zitzaizkiote hitz estalitan?
11. Jesusek ihardetsi zioten: Zuei emana zaitzuelakoz zeruetako erresumako gauza gordean ezagutzea; ez ordean horiei etzaiote eman.
12. Ezen duenari emanen zaio, eta izanen du nasai; ez duenari berriz, dukeen hura ere khenduko zaio.
13. Aria hortaz, paraboletan mintzo natzaiote horiei; zeren dakusate-larik ez baitute ikhusten, eta entzuten dutelarik ez baitute ez entzuten, ez aditzen.
14. Hola bethetzen da horien baithan Isaiasen profetia hau: Beharriz entzunen duzue eta ez adituko, begiz ikhusiko duzue eta etzarete ohartuko.
15. Alabainan thoildu da populu hunen bihotza, eta gorrarena egin dute, eta hertsu dituzte begiak, beldurrez begiz ikhus, beharriz entzun eta bihotzez adi dezaten, eta ene gana bihur ditezen, eta senda detzadan.
16. Dohatsu dire ordean zuen begiak, zeren duten ikhusten, eta zuen beharriak, zeren duten entzuten.
17. Ezen nik derratzuet egiaz, hainitz profeta eta gizon zuzen egotu direla zuek dakusazuenaren ikhusteko lehian, eta ez baitute ikhusi; zuek aditzen duzuenaren entzuteko lehian, eta entzun ez baitute.
18. Zuek adi zazue beraz erailearen parabola.
19. Nork-ere entzuten baitu erresumako hitza eta izpirituz ez ardies-ten, etsai gaixtoa heldu zaio eta badarama hainaren bihotzean eraina zena: hura da bide bazterrean eraina dena.
20. Aldiz toki harritsuan eraina dena, hura da hitza aditzen eta berehalakoan bozkarioz onhesten duena.
21. Ez du ordean bere baithan errorik eta hein bat iraunen du; hitza-zen ariaz ethorri dire-bai hestura jazargoak, behaztopatzen da berehala.
22. Berriz, lapharren artean eraina dena, hura da hitza aditzen duena; baina mende huntako ardurek eta aberastasunen liluramenduek itho dute hitza, eta fruiturik gabe alfer bilhakatzen da.
23. Baina lur onean eraina izan dena, hura da hitza entzuten eta aditzen duena, eta fruitu dakharrena; zeinek batentzat ehun, zeinek hirur hogoi, zeinek hogoi eta hamar.

24. Bertze parabola bat atheratu zaroeten, zioelarik: Zeruetako erresuma ezarria da gizon baten iduriko, zeinak bere landan erain baitzuen hazi ona.
25. Baina etxeokoa lo zaudelarik, ethorri zen haren etsaia, eta ogia-zen erdian erain zioen gainetik hiraka, eta goan zen gero.
26. Bada, belharra handitu eta burutu zenean, orduan agertu zen hiraka ere.
27. Eta etxeokoa nausiarik ethorri zitzaizkon bere sehiak eta erran zioten: Jauna, ez othe zinduen hazi ona zure landan erain? nondik du beraz hiraka?
28. Eta ihardetsi zioten: Etsai baten lana da hori. Sehiak erran zioten berriz: Nahi duzu goazen eta bil detzagun hirakak?
29. Eta ihardetsi zuen: Ez, beldurrezeta hiraken biltzean, hekiekin errotik athera dezazuen ogia.
30. Uztaraino utzatzue guziak egitera, eta uztaroan erranen diotet ephailei: Bil zazue lehenik hiraka, erretzeko Loth zazue espalka; ogia berriz, ene selharura bil zazue.
31. Atheratu zaroeten bertze parabola bat ere, zioelarik: Zeruetako erresumak iduri du mustarda bihia, gizonak hartzen eta bere landan eraiten duena.
32. Hazi guzietarik hura da xeheena; baina handitu denean, belhar guziak baino larriago da, eta arbola bilhakatzen da, haletan non zeruko xoriak ethortzen eta haren adarretan egoten baitire.
33. Erran zioten oraino bertze parabola bat: Zeruetako erresumak iduri du altxagarria, emazteki batek hartu eta hirur sato irinetan nahastekatzan duena, orhe guzia haz dadien arteo.
34. Jesusek horiek oro paraboletan erran ziozkan populuari, eta hitz estalitan baizik etzitzaioen mintzatzen;
35. Bethe zadiantzat profetaren erran hau: Paraboletan idekiren dut ene ahoa, eta agerturen ditut munduaren hastapenetik hunat gordeak zaudezen gauzak.
36. Orduan utzirik populua, Jesus ethorri zen etxerat; eta hurbildu zitzaizkon bere dizipuluak, zerratelarik: Xeha dizaguzu landako hirakaren parabola.
37. Ihardestean, Jesusek erran zioten: Hazi onaren erailea, gizonaren Semea da.
38. Landa berriz, mundua da; aldiz, hazi ona erresumako umeak dire; eta hirakak, tzarkeriako umeak.



39. Etsai, hiraka erailea berriz, debrua da; uztaroa berriz, mende hunen akhabantza; eta ustatzailleak, aingeruak dire.
40. Nola beraz biltzen baitire hirakak eta suan erretzen, halaber da gerthaturen mendeen akhabantzan.
41. Gizonaren Semeak igorriko ditu bere aingeruak, eta haren erresumatik bilduko dituzte behaztopagailu diren guziak eta gaizki egileak,
42. Eta labe khaldataura arthikiren dituzte. Han izanen dire nigarrak eta hortz karraskak.
43. Orduan prestuek argituren dute, hala nola iguzkiak, beren Aitaren erresuman. Beharirik duenak aditzeko, adi beza.
44. Zeruetao erresumak iduri du landa batean gordea den dirutze bat; hura atzematen duenak estaltzen du, eta bozkarioak badarama, eta saltzen ditu bere izate guziak, eta erosten du landa hura.
45. Zeruetao erresumak iduri du oraino perla onketa dabilan tratularia,
46. Zeinak aurkhitu duenean perla balio handitako bat, laster egiten baitu dituen guzien saltzera, eta gero erosten du hura.
47. Zeruetao erresumak iduri du oraino zare bat itsasora arthikia, eta arrain mota orotarik biltzen duena.
48. Bethea denean, atheratzen dute, eta itsas-hegian jarririk, onak borboiletara berezten dituzte, eta tzarrak kanporat arthikitzen.
49. Halaber da gerthaturen mendeen akhabantzan; ilkhiko dire aingeruak eta bereziko dituzte gaixtoak prestuen artetik;
50. Eta labe khaldataura arthikiren dituzte; han izanen baitire nigarrak eta hortz karraskak.
51. Ardietsi ditutzue horiek oro? Ihardetsi zuten: Bai, Jauna.
52. Eta erran zioten oraino: Zeruetao erresumaz argitua den iskribau batek, aria hortaz iduri du etxeko jaun bat, bere khutxetarik zahar eta berri atheratzen duena.
53. Eta parabola horiek akhabatzearekin, Jesus goan zen handik.
54. Eta bere sortherria ethorririk, beren sinagogetan jendeei hari zitzaioten irakhasten, haletan non miretsirik erratan baitzuten: Hunek nondik ditu zuhurtzia hori eta indar horiek?
55. Ez othe da hau zurginaren semea? Hunen ama ez othe da deitzen Maria, eta anaiak Jakobe, Josep, Simon eta Juda?
56. Eta hunen arrebak ez othe dire guthartean guziak? Nondik hunek dituzke beraz horiek oro?
57. Eta gaizbide hartzen zuten Jesusen baithan. Aldiz Jesusek erran zioten: Profeta ez da ohorerik gabe, bere herrian eta etxean baizik.

58. Eta etzuen egin han ikhusgarri haintzik, hekien sinhesgaiztasuna zelakoz.

XIV. KAP.

1. Ordu heketan Herodes tetrarkak aditu zuen Jesusen omena;
2. Eta erran zioten bere gizonei: Joanes Baptista da hori; hura biztu da hiletarik, eta aria hortaz sendagailak egiten dire horren bidez.
3. Ezen Herodesek harrarazi zuen Joanes, estekatu eta presondegi batera arthiki, bere anaiaren emaste Herodiasen gatik;
4. Joanesek erraten zioelakoz: Etzaitzu zilhegi emazte horren izatea.
5. Eta Herodesek, hilarazi nahi zuelarik, populuaren beldurra zuen, zeren profetatzat baitzadukaten.
6. Bada, Herodesen sorteguneko bestan, Herodiasen alaba guzien erdian dantzatu zen, eta Herodesi aurkhitu zioen.
7. Aria hortaz, zin eginez Herodesek agindu zioen, zer-nahi galda ziozon emanen zioela.
8. Eta hura aitzinetik bere amaz irakhatsia baitzen, ihardetsi zuen: Emadazu hunaxe Joanes Baptistaren burua azpil batean.
9. Ilhundu zen errege; baina bere zinaren ariaz eta berekin mahainean jarriak zituenen gatik, manatu zuen eman zakioen.
10. Eta igorri zuen presondegian Joanesi lephoaren moztera.
11. Eta ekharri zuten azpil batean haren burua, eta eman zaroten neskatxari, eta hunek eraman zioen bere amari.
12. Gero Joanesen dizipuluak ethorririk, hartu eta ehortzi zuten haren gorphutza, eta goanik Jesusi eraman zioten berria.
13. Hori aditu-eta, Jesus untzixka batean urrundu zen handik mortu baztertu batera; eta populuak aditu zuenean hori, hirietarik oinez jarraiki zitzaioen.
14. Eta untzitik ilkhitzean, Jesusek ikhusi zuen oste handi bat, eta urrikaldu zitzaioen, eta sendatu zituen haren arteko eriak.
15. Arratsa ethorri zenean, berriz, hurbildu zitzaizkon bere dizipuluak, ziotelarik: Toki basa da hau, eta ja beranta da; Bidalatzu oste haukiek, eta herrietara goanik eros bezate behar duten jatekoa.
16. Jesusek ordean erran zioten: Ez dute goateko premiarik; zeronek emozuete jatera.
17. ihardetsi zuten: Ez dugu hemen bortz ogi eta bi arrain baizik.
18. Erran zaroeten: Ekhar dizadatzuet niri hunat.



19. Eta manaturik ostea jar zadien sorropilean, hartu zituen bortz ogiak eta bi arrainak; eta zerurat goitituz begiak, benedikatu zituen; eta hautsi eta dizipuluei eman, haukiek berriz populuari.

20. Guziek jan zuten eta ase ziren. Eta ondarretarik bildu zituzten hamabi saski puskaz betheak.

21. Jan zutenak, berriz, izatu ziren bortz mila gizon, haur eta emaztekiak bertzalde.

22. Eta berehala Jesusek hertsatu zituen dizipuluak untzira igaitera, uraz haingira aitzin zezaten bera, jendea gibelerat igorriko zuen artean.

23. Eta ostea igorriarik, mendira bakharririk igan zen othoitz egitera. Bada arratsa erori zenean, ber-bera zen han.

24. Untzizka berriz, uhinek zehatua zerabilkaten itsasoaren erdian; ezen haizea bihurritza zagoen.

25. Bada gauazko laugarren beilan, Jesus goan zitzaieten, itsasoaren gainean oinez ibiliz.

26. Eta itsasoaren gainean ibiltzen ikhusi zutenean, asaldatu ziren, zerratelarik: Mamua da; eta izialdurak heia goraka abiarazi zituen.

27. Eta Jesus mintzatu zitzaieten berehala, erraten zaroetelarik: Zaudete gogoa onik; ni naiz, ez izi.

28. Ihardestean orduan erran zuen Piarresek: Jauna, zu balin bazare, mana zazu uraren gainaz nathorkizun.

29. Eta Jesusek erran zioen: Zato. Eta untzitik jautsiririk, Piarres uraren gainean abiatu zen Jesusen gana goateko.

30. Baina haizea hazkarra ikhusirik, beldurtu zen; eta ondorat abiatzen baitzen, oihera egin zuen, zioelarik: Jauna, salba nezazu.

31. Eta berehala Jesusek, eskua hedatuz, hartu zuen eta erran zioen: Zaren sinheste aphurrekoa! Zergatik zare khordokatu?

32. Eta untzirat igan zirenean, gelditu zen haizea.

33. Aldiz, untzian zirenak hurbildu zitzaizkon Jesusi, erranez: Bai egiazki Jainkoaren Semea zare zu.

34. Itsasoa iragan ondoan, goan ziren Jenesargo lurrera.

35. Toki hartako jendeek ezagutu zutenean Jesus, mezua igorri zuten inguru hekietara orotara, eta ekharri ziozkaten zerbait gaitzez joak ziren guziak;

36. Eta othoizten zuten utz ziozoten ukitzera bere soinekoaren litsa bedere. Eta hura ukitu zuten guziak, sendatuak izan ziren.

XV. KAP.

1. Orduan, Jerusalemetik heldu ziren Iskribau eta Farisau batzu hurbildu ziren Jesusi, ziotelarik:

2. Nolaz hausten dute zure dizipuluek zaharren ganikako ohitza? ezen jaterakoan ez dituzte eskuak garbitzen.

3. Aldiz Jesusek ihardestean erran zioten: Eta zuek zertako hausten duzue Jainkoaren manamendua zuen ohitzaren ariaz? Ezen Jainkoak erran izan du:

4. Ohora zatzu aita eta ama; eta hau ere: Ahapaldia aitari edo amari arthiki duena, heriotzez hila izan bedi.

5. Zuek diozue ordean: Nork-ere erranen baitio aitari edo amari: Nik Jainkoari egin eskaintza guziak baliatuko zaizkitzu;

6. Hainak ez du ohoratu beharko bere aita edo ama; eta horreletan hutsaltzen duzue Jainkoaren manamendua, zuen ohitzaren arietan.

7. Itxura eder egileak, ala ongi profetisatu baitu zuetaz Isaiasek, erran duenean:

8. Populu horrek ezpainez nau ohoratzen; horien bihotza ordean urrun dago ni ganik.

9. Baina alferretan bihurtzen darotade ohore, gizonen araberako irakhaspen eta manamenduak irakhaspen hariz.

10. Eta bere ganat deithurik ostea, erran zaroeten: Entzun zazue eta adi:

11. Ez du ahotik sartzen denak lohitzten gizona; baina ahotik ilkhitzen denak du lohitzten.

12. Orduan hurbildurik, bere dizipuluek erran zioten: Badakizu Farisauk hitz hori aditzearekin gaizbiderat hartu dutela?

13. Eta Jesusek ihardetsi zioten: Ene Aita zerukoak landatu ez duen edozein landare, erroitik izanen da atheratua.

14. Utzatzue; itsuak dire eta itsu bidari; bada, itsuak itsua badu aitzineko, biak dihoaz errekarra.

15. Eta horren gainean, Piarresek erran zioen: Xeha dizaguzu parabola hori.

16. Ihardetsi zuen: Zer! zuek ere adigarririk gabe zarete oraino?

17. Ez othe duzue ardiesten, ahoan sartzen den guzia sabelera dihoala, eta gero zokho batean uzten dela?

18. Aldiz ahotik dathorrena bihotzetik ilkhitzen dela, eta harek duela gizona lohitzten.



19. Alabainan bihotzetik dathortzi asmu gaixto, gizon hiltze, berdeen emazteekin eta neskatxekin khutsatze, ohorgo, gezurrezko lekhu-kotasun eta burhoak.

20. Horiek dire gizonaren lohigarri; bainan eskuak garbitu gabe jateak ez du gizona lohitzten.

21. Eta handik ilkhirik, Jesus aldaratu zen Tirreko eta Sidongo aurk-hintzetara.

22. Eta hara kanaandar emazteki bat, alde hekietarik ilkhia, oihuz abiatu zitzaioela, erranez: Urrikal zakizkit, Jauna, Dabiden semea; debruak gaixtoki jasanarazten dio ene alabari.

23. Jesusek etzioen hitz bat ihardetsi. Eta hurbildurik, dizipuluak othoizka hari zitzaizkon, zerratelarik: Igorrazu, ezen ondotik oihuz darraikigu.

24. Jesusek berriz, ihardetsi zioten: Ez naiz bidalia Israelgo etxetik galdu ardietara baizik.

25. Bainan hura hurbildu zen, eta adoratu zuen, zioelarik: Jauna, hel zakizkit.

26. Jesusek ihardetsi zioen: Ez da ongi haurren ogia hartu eta zak-hurrei ematea.

27. Harek erran zuen, berriz: Hala da, Jauna; bainan potxo xumeeek ere jaten dute beren nausien mahainetik erori paporretarik.

28. Orduan Jesusek ihardetsi zioen: Oi emaztekoa, handia da zure sinhestea; egin bekizu nahi duzunaren arabera. Eta haren alaba ordu beretik sendatua gelditu zen.

29. Eta Jesus goan zenean handik, ethorri zen Galileako itsas-bazterraz; eta mendi batera iganik, jarri zen han.

30. Eta oste handi batzu hurbildu zitzaizkon, berekin zerakharzkate-larik mutu, itsu, maingu, hebain eta bertze asko; eta oinetara eman ziozkaten, eta sendatu zituen;

31. Haietan non miresten baitzuten, ikhusiz mutuak mintzaten, mainguak ibiltzen, itsuak argi; eta ospe bihurtzen zioten Israelgo Jainkoari.

32. Bada, Jesusek bere dizipuluak deithurik, erran zaroeten: Urrikaltzen natzaio populu huni, zeren hirur egun huntan ja ez bainau uzten, eta ez du zer jan; eta ez ditut barurik igorri nahi, bidean ahuldurak arthik detzan beldurrez.

33. Eta dizipuluek ihardetsi zioten: Mortu huntan nondik dukegu bada ogirik aski, hunenbateko ostearen asetzeko?

34. Eta Jesusek erran zioten: Zenbat ogi ditzuzue? Eta hekiek ihardetsi zuten: Zazpi eta arrainxkila bakhar batzu.

35. Eta osteari manatu zioen, jar zadien lurraren gainean.

36. Eta harturik zazpi ogiak eta arrainak, eta eskerrak bihurtuz, hautsi zituen eta dizipuluei eman, eta haukiek populuari.

37. Jan zuten guzkiek, eta ase ziren. Eta gelditu ziren pusketarik, bildu zituzten zazpi saskitara.

38. Baziren bada jan izan zutenak lau mila gizon, haur xeheak eta emaztekiak bertzalde.

39. Eta populua igorrorik, Jesus igan zen untzixka batera, eta Maiedango aurkhintzetara egin zuen.

XVI. KAP.

1. Eta Farisauak eta Saduzearrak ethorri zitzaizkon, hura frogatu beharrez, eta othoiztu zuten erakhuts ziozoten zerutikako zerbait sendagaila.

2. Bainan Jesusek ihardetsi zaroeten: Arrasten denean, erraten duzue: Bihar egun ederra dukegu, ezen uhartzea gorrikara da;

3. Eta goizean: Egun aro gaitz izanen da, ezen gobel artetik zerua gorri dago.

4. Badakizue beraz zeruaren itxuratik jotzen; eta mugen ezagutkarien ardiesten ez dakizue? Gaixtakeriako eta galdukeriako umeak sendagaila galdez dagotzi; eta-bada etzaiote bertze sendagailarik, Jonas profetarena baizik emanen. Eta hekiek han utzirik, goan zen.

5. Eta haren dizipuluek, ura iragan zutenean ahantzi zuten ogiaren hartzea.

6. Jesusek erran zioten: Zaudezte ernerik eta zuen buruak Farisauen eta Saduzearren altxagarritik begira zatzue.

7. Eta hekiek beren artean ihardukitzen zuten, erranez: Mintzo da, zeren ez dugun ogirik hartu.

8. Bainan Jesusek ezagutzen baitzuen hekien arteko solasa, erran zuen: Sinheste aphurreko gizonak, zer derabilkazue zuen artean, ez duzelakoz ogirik hartu?

9. Ez duzue bada aditzen oraino eta etzarete orhoit bortz mila gizonentzateko bortz ogiez eta zenbat saskitara zinduzten goititu?

10. Etzarete orhoit lau mila gizonentzateko zazpi ogiez, eta zenbat saskitara goititu zinduzten?

11. Nolaz ez duzue ardiesten, ez darotzuedala ogiaz erran: Begira zaitzte Farisauen eta Saduzearren altxagarritik?



12. Orduan ezagutu zuten etzietela erran ogi altxagarritik begiratze-ko zela, baina bai Farisauen eta Saduzearren irakhasmenetik.

13. Gero Jesus ethorri zen Filiperen Zesareako aurkhintzetara eta galdegin zaroeten bere dizipuluei: Jendeek nor dela diote gizonaren Semea?

14. Eta hekiek ihardetsi zuten: Batzuek Joanes Baptista, bertzeek Elias, bertze batzuek berriz Jeremias, edo profetetarik zenbait.

15. Jesusek erran zioten: Zuek berriz, nor naizela diozue?

16. Simon Piarresek ihardetsiz, erran zuen: Zu zare Kristo, Jainko biziaren Semea.

17. Jesusek aldiz erran zioen: Dohatsu zare, Simon, Joanesen semea, zeren hori ez baitarozute haragiak eta odolak irakhatsi, baina bai ene Aita zeruetan denak.

18. Eta zuri nik darotzut erraten, zu zarela Piarres, eta harri horren gainean jarriren dudala ene eliza, eta ifernuko indarrak etzaizkoela garaituren.

19. Eta zuri emanen darozkitzut zeruetako erresumako gakoak; eta zer-nahi lurraren gainean esteka dezazun, hura zeruan ere estekatua egonen da; eta zernahi urra dezazun lurraren gainean, hura zeruan ere urratua egonen da.

20. Bere dizipuluei manatu zioten orduan, nihori etzizioten erran hura Kristo zelakorik.

21. Ordutik abiatu zen Jesus bere dizipuluei agertzen, premia zela Jerusalemara goan zadien, eta hainitz jasan zezan zaharren, eta Iskribauen, eta aphezen buruzagien ganik; hil zadien, eta berriz phitz hirugarren egunean.

22. Eta bazterrerat harturik, Piarres abiatu zitzaioen erantzunka, zio-elarik: Balin ba ez, Jauna! ez ahal da zuretzat holakorik izan.

23. Itzulirik, Jesusek Piarres erran zioen: Zoazkit, satan; eragozgailu zaizkit, zeren Jainkoaren gauzei ez baitiozute gozorik hartzen, baina bakharrak gizonenei.

24. Orduan Jesusek erran zioten bere dizipuluei: Baldin norbaitek ethorri nahi badu ene ondolik, ukho egin biozo bere buruari, eta soinera har beza bere gurutzera, eta jarraik bekit.

25. Ezen nork-ere nahiko baitu bere bizia begiratu, harek galduko du; aldiz nork-ere ene ariaz galduko baitu bizia, hainak aurkhituren du.

26. Alabainan zer balia lakioko gizonari, mundu guzia irabaz baleza ere, baina bere arimaren galtzera heldu balitz? edo zer eman dezake gizonak bere arimaren ordain?

27. Ezen gizonaren Semea ethortzekoa da bere Aitaren ospearen erdian, bere aingeruez inguratua, eta orduan bihurturen du zeini bere egiten arabera.

28. Nik derratzuet egiaz, hemen daudezenetarik badirela zenbait, heriotzea jasanen ez dutenak ikhus dezaten arteo gizonaren Semea bere erregetasunean heldu dela.

XVII. KAP.

1. Handik sei egunen buruan, Jesusek hartu zituen Piarres, Jakobe eta Joanes, hunen anaia, eta bazterrerat eraman zituen mendi gora batetara;

2. Eta itxuraldatua izan zen hekien aitzinean. Haren begithartek argitzen zuen hala nola iguzkiak, eta haren soinekoak egin ziren, xuri elhurra bezala.

3. Eta hara dizipuluen begietara agertu zirela Moises eta Elias, Jesusekin solasean.

4. Orduan mintzatuz, Piarresek erran zaroen Jesusi: Jauna, ongi gare hemen; nahi baduzu, hementxe detzagun egin hirur etxola, bata zure, bertzea Moisesen eta bertzea Eliasen.

5. Eta mintzo zelarik oraino, hara hedoi argi batek itzali zituela. Eta hara hedoietik mintzo bat, zerrana: Hau da ene Seme maitea, zeinaren baitan ezarri baitu ene gogo guzia: hau entzun zazu.

6. Eta aditzearekin, dizipuluak erori ziren ahuspeka eta izialdura handia lothu zitzaizoten.

7. Eta hurbildu zitzaioen Jesus, eta ukitu zituen, eta erran zaroeten: Xuti zaitezte, eta ez izan beldurrik.

8. Orduan, begiak goititzean, etzuten ikhusi nihor, Jesus bera bakharra baizik.

9. Eta menditik jaustean, Jesusek manatuz erran zioten: Nihori ezterrozuela zer ikhusi duzuen, hiletarik phitz dadien arteo gizonaren Semea.

10. Eta dizipuluak galdeka hasi zitzaizkon, erranez: Zer derasate bada Iskribauak Elias behar dela lehenik ethorri?

11. Eta ihardestean, Jesusek erran zioten: Egia da Elias ethortzekoa dela, eta gauza guziak ongituko dituela.

12. Nik derratzuet, ordean, Elias ethorri dela jadanik, eta ez dute eza-gutu; aitzitik, nahi zuten guzia egin izan diote. Gizonaren Semea ere orobat egartzekotan dago horien aldetik.

13. Orduan ezagutu zuten dizipuluek, Joanes Baptistaz zela mintzo.

14. Eta popularen gana ethorri zenean, hurbildu zitzaioen gizon bat, eta haren aitzinean belhauniko, erran zioen: Jauna, urrikal zakizkio



ene semeari, ilhargi-joa baita, eta oinhaze handitan; ezen erortzen da maiz surat, eta maiz urerat;

15. Eta erakharri izan diotet zure dizipuluei, eta ezin sendatu dute.

16. Jesusek aldiz ihardestean erran zuen: Oi ume sinhesgaitz eta mak-hurrak! noiz arteo izanen naiz zuekin? noiz arteo jasanen othe zaituztet? Erakhar dizadazuet hunat muthikoa.

17. Eta Jesusek larderiatu zuen debrua, eta ilkhi zen haurraren bait-harik, eta ordu beretik sendatua izan zen muthikoa.

18. Orduan dizipuluak hurbildu ziren Jesusen ganat ixilik eta erran zioten: Zergatik ezin irazi du guk debru hori?

19. Jesusek ihardetsi zaroeten: Zuen sinhesgaitzasunaren ariaz. Ezen erraten darotzuet egia, mustarda pikorra bezenbat sinheste bazindute, mendi horri erran zinrokete: Egizak hortik harat; eta goan laite, eta zuentzat deusere ez laite ezinik.

20. Bainan debru mota hori, ez da othoitzaz eta baruraz baizik irazitzen.

21. Bada, elkharrekin zirelarik Galilean, Jesusek erran zioten: Gizonaren Semea arthikia izan beharra da gizonen eskuetara;

22. Eta hilen dute, eta hirugarren egunean phiztuko da. Eta atseka-betu ziren minki.

23. Eta Kapharnaumera ethorri zirenean, Piarresi hurbildu ziren bidrakmako biltzaileak, eta erran zioten: Zure nausiak ez du bidrakmakoa pagatzen?

24. Ihardetsi zuen baietz. Eta etxean sarthu zenean, Jesus aitzindu zitzaioen, erraten zioelarik: Zer zaitzu, Simon? Lurreko erregeek noren ganik izaten ohi dute zerga edo legarra? beren umeetarik ala arrotzetarik?

25. Eta harek ihardetsi zuen: Arrotzetarik. Jesusek erran zuen: Ez dute beraz zor umeek.

26. Ez gatzazkioten ordean gaizbidetan izan, zoaz itsasora, eta atheratuko duzun lehenbiziko arraina, har zazu, eta hari ahoa idekirik, estater bat atzemanen diozu; hura hartuz, emanen daroezu enetzat eta zuretzat.

XVIII. KAP.

1. Orduan Jesusi hurbildu zitzaizkon dizipuluak, zerratelarik: Zure ustez nor da zeruetako erresuman handiena?

2. Eta Jesusek, haurtto bat deithurik, ezarri zuen hekien erdian,

3. Eta erran zioten: Nik derratzuet egiaz, ez bazarete nehortzen eta haur xumeen iduriko egiten, zeruetako erresuman sarthuren etzarete.

4. Nork-ere beraz bere burua haurtto hunen heinera baitu aphaldu-ren, haina zeruetako erresuman daite handienik.

5. Eta nork-ere ene izenean harturen baitu hulaxeko haurtto bat, hainak neroni nau hartzen.

6. Aldiz nork-ere ene baithan sinhesten duten xume haukietarik bati gaizbiderik emanen baitio, hainak hobe luke ihara harri bat lephotik ezar baliozote, eta itsasoaren zolan itho balezate.

7. Zorigaitz munduari gaizbideen ariaz; ezen premia da gertha ditezen gaizbideak; halere zorigaitz gizonari, zeinaren ganik heldu baita gaizbidea.

8. Eta zure eskua edo zure oina zure behaztopagarri balire, ebak eta arthikatzu urrun zu ganik; hobe dukezu esku-motz edo zango-motz bizitzean sartzea, ezenez bi eskuak edo bi zangoak ditutzularik bethirainoko surat arthikia izatea.

9. Eta zure begia balin baduzu zure behaztopagarri, iragaz eta arthikazu zu ganik; hobe dukezu begi bakhar batekin bizitzean sartzea, ezenez bi begiekin su osinera arthikia izatea.

10. Berautzue xumetto haukietarik batez ere axolarik ez idukitzetik; ezen nik derratzuet, zeruetan horien aingeruek dakhusatela bethi ene Aita zeruetan denaren begithartea.

11. Gizonaren Semea ezen galdua zenaren biltzera da ethorria.

12. Zer zaitzue? Norbaitek balin baditu ehun ardi, eta hekietarik bat errebelatu bada, ez othe ditu laur hogoi eta hemeretziak mendietan uzten, eta errebelatu denaren ondoan ez othe da goaten?

13. Eta gertha badadi aurkhi dezan, egiaz derratzuet, haren gatik gehiago dela bozten, ezenez laur hogoi eta hemeretzi errebelatu ez direnez.

14. Halaber ez da zuen Aita zeruetan denaren gogarako, xumetto haukietarik gal dadien bakhar bat ere.

15. Bada, hoben egin badarotzu zure anaiak, zoazkio eta buruz burutan egiozkitzu zure arrangurak. Entzuten bazaitu, irabazi dukezu zure anaia.

16. Ez bazaitu ordean entzuten, har zatzu oraino zurekin lagun bat edo bia, bi edo hirur lekhukoren erranetik dihoan egiteko guzia.

17. Hekiek ere ez baditu entzuten, elizari errozu. Bainan ez badu eliza ere entzuten, zuretzat geldi bedi hala nola pagano bat eta zerga biltzaile bat.



18. Egiaz derratzuet nik, lurraren gainean lothurik utziko duzuen guzia, lothua geldituko dela zeruan ere; eta lurraren gainean urraturen duzuen, zeruan ere urratua dela geldituren.

19. Nik derratzuet berriz, zuetarik biek elkhar aditzen badute lurraren gainean, edozein gauza galda dezaten, onhetsia izanen zaiote ene Aita zeruetan denaz.

20. Ezen non-ere bia edo hirur baitire ene izenean bilduak, ni han naiz hekien erdian.

21. Orduan Jesusen gana hurbildurik, Piarresek erran zuen: Jauna, zenbatetan ene anaiak niri bidegabe egin eta nik barkhatu beharko diot? zazpi alditaraino?

22. Jesusek erraten dio: Nik ez derratzut zazpitaraino, baina bai zazpitan hirur hogoi eta hamarretaraino.

23. Aria hortaz zeruetako erresuma hartua izan da errege baten pare, zainak nahi izan baitzituen bere sehiekin ikhustekoak xuritu.

24. Eta egitekoen garbitzen hasi zenean, erakharri zioten sehi bat, hamar mila talendu zor ziozkana.

25. Ez baitzuen ordean nondik bihur, manatu zuen nausiak sal zetzazten hura eta haren emazte, haur eta zituenak oro, eta hala garbi zezan zorra.

26. Sehi harek berriz, ahuspeka eroririk, othoizten zuen erranez: Igurik nezazu, eta bihurturen darozkitzut oro.

27. Bada, sehi haren nausia urrikaldu zen; utzi zuen eta barkhatu zioen zorra.

28. Sehi harek berriz, ilkhitzean atzeman zuen bere sehi lagunetarik bat, ehun denario zor ziozkana; eta lephotik lothurik, ithotzen zuen, erranen zioelarik: Bihur zak zor dukana.

29. Aldiz, lurrerat eroririk, sehi lagunak othoizten zuen erranez: Igurik nezazu, eta bihurturen darozkitzut oro.

30. Baina harek etzuen nahikatu; aitzitik goan zen eta preso altxarazi zuen, zorra bihur zezan arteo.

31. Bertze sehi lagunek berriz, ikhusirik zer zen gerthatzen, damu min hartu zuten; eta ethorri ziren, eta beren nausiari erran ziozkaten iragan zirenak oro.

32. Orduan nausiak deithu zuen hura, eta erran zioen: Sehi tzarra, hire zor guzia barkhatu daroat, zeren nauan othoiztu;

33. Ez othe hintzen beraz hi ere urrikaldu behar hire sehi lagunaren alderat, ni hire alderat naizen bezala urrikaldu?

34. Eta bere hasarrean nausiak eman zuen estiratzaileen eskuetara, bihur zezan arteo zor zuen guzia.

35. Ene Aita zerukoak ere halaber darotzue eginen, baldin batberak zuen anaia ez badiozue bihotz oroz barkhatzen.

XIX. KAP.

1. Eta gerthatu zen, Jesusek akhabatu zituenean solas horiek, Galileatik ilkhi zela, eta Judeako aurkhintza Jordanez haindikoetara ethorri zela;

2. Eta oste handiak jarraiki zitzaizkon, eta han sendatu ziozkaten eriak.

3. Eta Farisauak hurbildu zitzaizkon, zertan froga, erranez: Gizonari haizu othe zaio bere emaztea nola-nahiko ariaz uztea?

4. Ihardestean Jesusek erran zioten: Ez dukezue irakurtu, hastetik gizona egin duenak, gizonki eta emazteki egin izan zituela? eta erran zaroetela:

5. Aria hortaz gizonak utziko ditu bere ait-amak, eta iratxikiko da bere emazteari, eta bia izanen dire haragi batean.

6. Hargatik geroz-goiti ez dire bia, baina bai haragi bat. Beraz Jainkoak batua, gizonak ez beza berez.

7. Hekiek ihardetsi zuten: Zer manatu izan du beraz Moisesek uzpe-neko ageria ematea, eta uztea gero?

8. Jesusek erran zioten: Moisesek, zuen bihotz gogortasunaren ariaz, eman izan darotzue zuen emazteen uzteko esku; baina hastetik holarikorik etzen.

9. Nik derratzuet bada, edozeinek utz dezan bere emaztea, non ez bertzerekin khutsatu delakoz, eta bertze batekin ezkontzen dadien, haina linburtzen dela; eta utziarekin ezkontzen dena, hura ere linburtzen dela.

10. Bere dizipuluek erran zioten: Horrelakoak badire senhar-emazteen arteko ariak, ezkontzea ez da on.

11. Ihardetsi zaroeten: Solas hori ez dute guziek ardiesten, baina bai emana zaiotenek.

12. Alabainan badire ebakiak, amaren sabeletik hala sorthuak; eta ebakiak badire gizonen halakatuak; eta badire beren buruak ebaki egin dituztenak zeruetako erresumaren ariaz. Adi dironak, adi beza.

13. Orduan erakharri ziozkaten haurto batzu, eskuak hekien gainean ezar eta othoitz egin zezan. Dizipuluak berriz, gaizkika hari zitzaizkoten.

14. Jesusek ordean erran zaroeten: Uzkitzue haurtoak, eta ez debeka eneganatzetik; holakoena da ezen zeruko erresuma.



15. Eta eskuak hekien gainean ezarri ondoan, goan zen handik.
16. Eta hara gizon batek erran zioela hurbildurik: Nausi ona, ongirik zer eginen dut, bethiereko bizitzearen ardiestekotzat?
17. Jesusek ihardetsi zioen: Zergatik hari zaizkit galdeka, ona deit-huz? Ona, bat da bakharra, Jainkoa. Bainan bizitzean sarthu nahi bazare, begira zatzu manamenduak.
18. Harek erran zuen: Zein? Jesusek ihardetsi zuen: Ez duzu nihor hilen; Bertzeren emaztearekin etzare khutsatuko; Ez duzu ebatsiko; Lekhukotasun gezurrezkorik ez duzu eginen;
19. Ait-amak ohora zatzu, eta maitha zazu zure laguna zure burua bezala.
20. Gizon gazteak dio Jesusi: Horiek oro gaztedanik begiratu izan ditut; zer duket eskas oraino?
21. Jesusek derro: Itzalgabea izan nahi baduzu, zoaz, ditutzunak sal eta beharrei eman zatzu, eta zeruan ontasuntze bat dukezu; zato gero eta jarraik zakizkit.
22. Bainan gizon gazteak aditu zuenean solasa, goan zen ilhunik; ezen ontasun handien jabe zen.
23. Orduan Jesusek erran zioten bere dizipuluei: Egiaz derratzuet, aberatsa nekhez dela sarthuren zeruetako erresuman.
24. Eta derratzuet berriz: Kameluari orratz baten xilotik iragaitea errexago dakiok, ezenez aberatsari zeruetako erresuman sartzea.
25. Dizipuluak berriz, hitz horiek aditurik balditzen ziren handizki, zerratelarik: Nor da beraz salbatuko ahal denik?
26. Aldiz Jesusek begiratzen ziotelarik, erran zuen: Gizonentzat ezina da hori; Jainkoarentzat ordean eginkizun dire guziak.
27. Ihardestean Piarresen erran zioen orduan: Huna guk utzi ditugu-la guziak eta jarraiki gatzazkitzu; zer dago beraz guretzat?
28. Eta Jesusek erran zioten: Egiaz derratzuet, zuek niri jarraiki zaitetzenak, erreberitzapeneko egunean, gizonaren Semea jarriko denean bere ospezko alkhian, zuek ere jarriko zaretela hamabi alkhitan, juiatzen ditutzuelarik Israelgo hamabi leinuak.
29. Eta nork-ere ene izenaren ariaz utziko baititu etxea, edo anaiak, edo arrebak, edo aita, edo ama, edo emaztea, edo haurrak, edo lurak, hainak ehunkun izanen, eta bethiereko bizitzea ardietsiren duela.
30. Berriz, asko izanen dire, lehen zirenak azken, eta azkenak lehen.

XX. KAP.

1. Zeruetako erresuma da iduri etxeko jaun bat, zeina goiz lehenetik ilkhi baitzen, bere mahastikotzat langile hartera.
2. Bada, langileekin eguneko denario banaz hitzarturik, bidali zituen bere mahastira.
3. Eta hirugarren oreneko irian atheraturik, ikhusi zituen bertze batzu plazan alfer.
4. Eta erran zioten: Zuek ere zoazte ene mahastira, eta emanen darotzuet zuzen ditakeena.
5. Eta goan ziren. Berriz ere ilkhi zen seigarren eta bederatzigarren orenetako ingurutsuan, eta orobat egin zuen.
6. Azkenekoz, hamekagarren orenaren gainera ilkhi zen, eta bertze batzu aurkhitu zituen han zaudela, eta erraten diote. Zertan zaudezte hor egun guzia alferrik?
7. Ihardesten dute: Nihork ez gaitu hartu: Zoazte zuek ere ene mahastira.
8. Bada, arratsa ethorri denean mahastiaren jabeak erraten dio bere etxeko gizonari: Deith zatzu langileak, eta emozute beren saria, azkene-koetatik hasirik lehenbizikoetaraino.
9. Hurbildu zirenean beraz hamekagarren orenaren gainera ethorri zirenak, izatu zuten denario bana.
10. Bada, ethorri zirenean lehenbizikoak, uste izan zuten gehiago izanen zutela; bainan hekiek ere denario bana izatu zuten.
11. Eta hartzean, erasiaka hari ziren etxeko jaunaren kontra,
12. Zerratelarik: Azken horiek oren bat haritu dire lanean, eta gurekin, egun osoko beroa eta nekhea jasan dugunekin bardin egin ditutzu.
13. Bainan harek hekietarik bati ihardestean, erran zuen: Adiskidea, bidegaberik ez darotzut egiten; etzare denario batez enekin hitzegina?
14. Har zazu zurea dena, eta zoaz: bada, azken huni ere nahi diot zuri bezenbat eman.
15. Ala nahi dudanaren egitera ez othe naiz haizu? ala zure begia gaixto da, ni naizelako ona?
16. Horrela izanen dire azkenak lehen eta lehenak azken; ezen hainitzak dire deithuak, guti ordean hautatuak.
17. Eta Jerusalemara igaiten zelarik Jesus, bazterrerat hartu zituen hamabi dizipuluak eta erran zaroeten:
18. Huna non goazen Jerusalemara, eta gizonaren Semea emana izanen da aphezen buruzagien eta Iskribauen eskuetara, eta hiltzera kondemnatuak dute;



19. Eta paganoei emanen diote trufatzera, azotatzera eta gurutzefikatzaera, eta hiletarik hirugarren egunean bizturen da.

20. Orduan Zebedeoren semeen ama hurbildu zitzaioen bere semeekin, adoratzen zuelarik eta haren ganik zerbait galdutz.

21. Jesusek erran zioen: Zer nahi duzu? Eta harek: Mana zazu ene seme haukiek biak, zure erresuman jar ditezen, bata zure eskuinetik, eta bertzea zure ezkerretik.

22. Aldiz Jesusek ihardestean erran zuen: Ez dakizue zer duzuen galdutzen. Edan ahal othe dezakezue nik edan behar dudan untzian? Hekiek erran zioten: Edan dezakegu.

23. Bai, dio Jesusek, edanen duzue ene untzitik; jartzea ordean ene eskuinetarik eta ezkerretarik etzait niri ematea zuei, bainan hainei zeinentzat berezi baitu ene Aitak.

24. Eta bertze hamarrek aditurik, gaitzitu ziren bi anaien ariaz.

25. Bainan Jesusek deithu zituen bere ganat eta erran zioten: Badakizue jendaietan buruzagiak dabiltzala nausi, eta handienek manatzten diotela bertzeei.

26. Ez da horrela izanen zuen artean; bainan zuen artean handien egin nahiko dena, zuen zerbitzari jar bedi;

27. Eta zuen artean lehenbiziko izan nahiko dena, zuen sehi beharko da izan;

28. Gizonaren Semea ethorri den bezala, ez zerbitzatu izatera, bainan zerbitzatzera, eta bere bizia hainitzen erospenetan ematera.

29. Eta Jerikotik ilkhitzen zuelarik, oste handi bat jarraiki zitzaioen Jesusi.

30. Eta hara bide bazterrean jarriak ziren bi itsuk aditurik Jesus iragaiten zela, oiuhu egin zuten erranez: Jauna, Dabiden semea, urrikal zakizkigu.

31. Bada, jendea gaizkika hari zitzaioten, ixilarazi beharrez; bainan hekiek gehiago egiten zuten oiuhu, zerratelarik: Jauna, Dabiden semea, urrikal guri.

32. Orduan gelditurik, Jesusek deithu zituen eta erran zaroeten: Zer nahi duzue egin dezazuedan?

33. Ihardetsi zuten: Jauna, gure begiak ditezen idek.

34. Bada, hekiez urrikaldurik, Jesusek ukitu ziozkaten begiak. Eta ordu beretik ikhusten hasi ziren, eta jarraiki zitzaizkon.

XXI. KAP.

1. Eta Jerusalemeri hurbildu, eta ethorri zirenean Bethphaiera, Olibadietako mendi aldera, Jesusek orduan igorri zituen bi dizipulu,

2. Erraten ziotelarik: Zoazte zuen aitzinean den herrira, eta berehala atzemanen duzue asto urrixa bat bere umearekin; eta laxaturik, erakhar daroztatzue niri.

3. Eta nihork erraten badarozue zerbait, errozue Jaunak behar dituela; eta utziko darozkitzue berehala.

4. Bada, gerthatu zen hori guzia, bethe zadien profetaren ahoz errana izan zena:

5. Siongo alabari errozue: Huna non zure erregea emerik heldu zaitzun, jarria asto urrixaren gainean, eta uztarria erabiltzen duenaren umearen gainean.

6. Goan ziren beraz dizipuluak, eta egin zuten Jesusek manatu zaroeten bezala.

7. Eta erakharri zituzten astoa eta bere umea; bizkarrean ezarri ziozkaten beren soinekoak, eta gainean jarrarazi zuten.

8. Berriz, jendetze handi batek bere soinekoak hedatu zituen bidean; bertze batzuek aldiz, arboletarik adarrak hausten, eta bidera arthikitzen zituzten.

9. Eta mulkhoka aitzinean zihoazenak eta ondotik heldu zirenak oiuhuka hari ziren erranez: Hosanna Dabiden semeari: ongi-ethorri Jaunaren izenean heldu denari: hosanna zeru gorenetaraino.

10. Eta Jerusalemera sarthu zenean, hiri guzia kantitu zen, erraten zutelarik: Zein da hau?

11. Populuek zerraten aldiz: Jesus da hau, profeta, Galilea-Nazarethekoa.

12. Eta Jesus sarthu zen Jainkoaren tenploan, eta irazi zituen tenploan salerosten hari ziren guziak, eta eragotzi zituen aldatzaileen mahainak eta uso saltzaileen jarlekuak.

13. Eta erran zaroeten: Iskribatua da: Ene etxea, othoitzeko etxea deithuren da; zuek ordean ohoin zilho bat egin duzue huntarik.

14. Eta tenploan hurbildu zitzaion itsu eta maingu, eta sendatu zituen.

15. Bada, aphezen buruzagiek eta Iskribauk ikhusirik Jesusek egin zituen sendagailak, eta haurrak nola hari ziren tenploan oiuhuka, ziotelarik: Hosanna Dabiden semeari; gaitziturik jarri ziren,

16. Eta erran zioten: Aditzen duzu zer dioten? Jesusek berriz, ihardetsi zioten: Segurki. Ez duzue noizbait irakurtu: Haurttoen eta bulharrekoen ahotik atheratu duzu laudoriorik garbiena?

17. Eta hekiek utzirik, hiritik goan zen Bethaniara, eta han gelditu zen.



18. Goizean berriz, nola hirira bihurtzen baitzen, gosetu zen;
19. Eta pikondo bat bide bazterrean ikhusirik, goan zitzaion eta etzuen hartan deusere aurkhitu hostorik baizik, eta erran zioen: Hitarik ez bedi nihoiz fruiturik sor. Eta han berean ihartu zen piko.
20. Eta ikhusirik, dizipuluak harrituak zauden zerratelarik: Nola ihar-tu da bat-batean?
21. Ihardestean, Jesusek erran zioten: Egjaz derratzuet nik: Sinhestea bazindute eta khordokarik ez, egin zinezakete, ez-ezik pikoaz, bainan oraino mendi horri erran bazinezote: Egik hortik eta itsasora jauz hadi, egin lezake.
22. Eta othoitzean zer-nahi galda dezazuen sinhesterekin, ardietsiren duzue.
23. Eta tenplora ethorri ondoan, irakhasten hari zelarik hurbildu zitzaizkon aphezen buruzagiak eta populuko zaharrak, ziotelarik: Zer eskuz egiten ditutzu horiek, eta nork eman darotzu ahal hori?
24. Ihardestean Jesusek erran zioten: Nik ere galde bat eginen darotzuet; haren gainean ihardesten badarotzuet, nik halaber erranen darotzuet zer eskuz haukiek egiten ditudan.
25. Nondikakoa zen Joanesen bathaioa? ala zerutikakoa, ala gizonen ganikakoa? Hekiek ordean beren baithan ihardukitzen zuten, zerratelarik:
26. Ihardesten badugu: Zerutikakoa, erranen daroku: Zergatik beraz hari ez diozue eman sinheste? Aldiz erraten badugu: Gizonen ganikakoa, populuaren gare beldur. Alabainan Joanes profetatzat zadukaten guziek.
27. Eta Jesusi ihardestean, erran zuten: Ez dakigu. Jesusek halaber erran zioten: Ez darotzuet nik ere erraten zer eskuz egiten ditudan haukiek.
28. Bainan zuei zer zaitzue huntaz? Gizon batek bazituen bi seme, eta zaharrenari buruz erran zuen: Semea, lanera zoaz egun gure mahastira.
29. Hunek ordean ihardetsi zioen. Ez dut nahi. Bainan gero, urrikiak harturik, goan zen.
30. Berriz, bertzeari buruz, erran zioen gauza bera. Eta harek erran zuen: Banoha, Jauna. Eta etzen goan.
31. Bietarik zeinek egin othe zuen aitaren oldera? Ihardetsi zuten: Lehenbizikoak. Jesusek erran zioten: Egjaz derratzuet nik, zerga biltzaile eta lilitxoak aitzinduren zaizkitzuela Jainkoaren erresumara.
32. Ezen ethorri izan zaitzue Joanes zuzentasunaren bidez, eta hura ez duzue sinhetsi; zerga biltzaile eta lilitxoek ordean sinheste eman diote; zuek aldiz, ikhusten zinduten arren, etzarete hargatik urrikitan sarthu, haren sinhestekotzat.

33. Adi zazue bertze parabola bat: Bazen etzeko jaun bat, zeinak lantatu baitzuen mahasti bat, berroz inguratu, lako bat ere hartan egin, dorre bat altxatu, eta mahastizain batzuei etxetiargoan hura emanik, atze herri-tara bidaietan goan zen.

34. Bada, mahats aroa hurbildu zenean, bere sehiak mahastizainen gana igorri zituen, bere mahatsaren altxatzera.

35. Eta haren sehiei lothurik, mahastizainek jo zuten bat, hil bertze bat, bertzea berriz harrikatu.

36. Berritan igorri zituen bertze sehi batzu, aitzinean baino gehiago; eta mahastizainek hekiei ere lan bera egin zaroeten.

37. Azkenean berriz, bere semea igorri zuen hekien gana, zerralarik: Ene semeak ahalkaturen ditu.

38. Bainan semea ikhustearrekin, mahastizainek beren artean erran zuten: Hau da premia; zatozte, hil dezagun, eta gurea ditake horren primantza.

39. Eta harturik, mahastitik atheratu zuten eta hil.

40. Ethorriko denean beraz mahastiaren jabea, zer eginen diote mahastizain horiei?

41. Ihardetsi zuten: Heriotze gogorraz galduko ditu gaixtaginak, eta bere mahastia emanen diote bertze mahastizain batzuei, zeinek aro bak-hotxean bihurtuko baitute fruitua.

42. Jesusek erran zioten: Iskrituretan ez othe duzue egundaino irakurtu: Harginek tzartzat utzi harria, hura bilhakatu da etxe buruko izkina harri? Jaunak egin izan du hori, eta da zuen begietan ederresgarri?

43. Hargatik derratzuet nik, Jainkoaren erresuma khenduko zaitzuela, eta emanen zaiola populu bati, zeinak behar diren ondoreak atheratuko baititu.

44. Eta harri haren gainera eroriko dena, zathikaturen da; aldiz noren gainerat ere eroriko baita harri hura, leherturen du haina.

45. Aphez nausiek eta Farisauek aditu zituztenean Jesusen parabolak, ezagutu zuten hekiez zela mintzo.

46. Eta haren atzematea bilhatzen zuten arren, populuaren beldurrak jo zituen, zeren profeta bezala baitzadukaten.

XXII. KAP.

1. Oraino ere paraboletan mintzatuz, Jesusek hau eman zaroeten:
2. Zeruetako erresumak iduri du errege bat, zeinak egin baitzituen bere semearen ezteiak.



3. Eta bere muthilak igorri zituen ezteiliarren deitzera, eta etziren nahi ethorri.
4. Berriz igorri zituen bertze sehi batzu, zerralarik: Ezteiliarrei errozute: Huna non aphaindu dudan ene barazkaria; ene idi eta azienda gizenduak hilak ditut; gauza guziak xuxenduak daude; zatozte ezteietara.
5. Hekiek ordean etzuten ardurarik iduki, eta goan ziren, hau bere bazterretxera, hura bere tratuetara;
6. Bertzeek berriz, hartu zituzten erregeren muthilak, eta zer-nahi hidoi jasanarazirik, hil izan zituzten.
7. Bada, erregek aditu zuenean, hasarreak hartu zuen; eta bere armadak igorrorik, xahutu zituen gizon hiltzaile hekiek, eta erre zuen hekien hiria.
8. Orduan erran zioten bere muthilei: Ezteiak bada aphainduak daude; bainan othoiztuak zirenak, etziren egoki.
9. Zoazte beraz bide buruetara, eta ezteietara deith zatzue atzemanen dituzuen guziak.
10. Eta sheiak bideetara ilkhi ziren, eta atzemanak oro, on eta gaixto, bildu zituzten guziak; eta barazkaltiarrez bethe zen ezteietako mahaina.
11. Gero errege sarthu zen mahainean zirenen ikhustera, eta han ohartu zen batek etzuela ezteietako aldagarria jauntzi.
12. Eta erran zioen: Adiskidea nola sarthu zare hunat ezteietako soinik gabe? Eta hura hitzik gabe gelditu zen.
13. Orduan erregek erran zioten bere gizonei: zango-besoak estekaturik, arthikazue kanpoko ilhunbeetara; han izanen baita marraska eta hortz karraska.
14. Ezen hainitzak dire deithuak, gutiak ordean hautatuak.
15. Orduan Farisauk goanik, batzarre egin zuten, Jesus bere ahotik atzeman behar zutela.
16. Eta beren dizipuluak Herodestarrekin igortzen diozkate erratera: Nausia, badakigu zina zatela, eta zintasunean irakhasten duzula Jainkoaren bidea, eta nihortaz ez dadukazula ardurarik, etzarelakoz nor-nor-den begiratzen.
17. Erraguzu beraz zer zaitzun: Zesarri zergaren ematea haizu da, ala ez?
18. Jesusek ordean ezagutzen baitzuen hekien maltzurkeria, erran zioten: Itxura eder egileak, zergatik nauzue bilhatzen?
19. Erakhuts dizadazuet zergako dirua. Eta hekiek erakhutsi zioten denario bat.
20. Jesusek erran zioten: Norenak dire gaineke itxura eta iskribu hau?

21. Zesarrenak, diote. Orduan Jesusek erran zaroeten: Bihurrotzue beraz Zesarri Zesarren direnak, eta Jainkoari Jainkoaren direnak.
22. Eta aditu zutenean, baldituak gelditu ziren; eta hura utzirik, goan ziren handik.
23. Egun hartan berean hurbildu zitzaizkon Saduzearrak, zeinek baitiote hilen bizterik ez dela, eta galdeka haritu zitzaizkon,
24. Zerratelarik: Nausia, Moisesek erran izan du: Norbait haurrik gabe hiltzera heldu bada, haren anaia ezkont bedi haren emaztearekin, eta ondore eman biozo bere anaiari.
25. Bada guthartean baziren zazpi anaia; eta lehenbizikoa, ezkondu ondoan hil izan da; eta haurrik ez baitzuen, bere anaiari utzi dio bere emaztea.
26. Eta halaber bigarrenak, eta hirugarrenak, zazpigarreneraino.
27. Guzien ondotik berriz, emaztekoa ere hil da.
28. Beraz hilen bizteko egunean zazpietarik zeinen emazte izanen da? alabainan orok emaztetzat izan dute.
29. Ihardestean aldiz, Jesusek erran zioten: Makhur zabilzate, ardie-tsi gabez, Iskriturak eta Jainkoaren ahala.
30. Ezen hilak biztuko direnean, ez dute hartuko ez gizonek emazterik, ez-eta emaztekiek senharrik; bainan Jainkoaren ingeruak bezala izanen dire zeruan.
31. Bada, hilen biztearen gainean ez duzue irakurtu, zuei mintzatuz Jainkoak erran izan duena:
32. Ni naiz Abrahamen Jainkoa, eta Isaaken Jainkoa, eta Jakobena Jainkoa? Ez da hilen Jainkoa, bainan bai bizidunena.
33. Eta aditzean osteak ederresten ziren haren irakhasmenari.
34. Baina Farisauk aditurik nola ixilarazi zituen Saduzearrak, bildu ziren elkhar gana;
35. Eta hekietarik legearen irakhasle zen batek, makhurrean atzeman beharrez, egin zioen galde hau:
36. Nausia, legean manamendu handia zein da?
37. Jesusek erran zioen: Zure Jainko Jauna duzu maithaturen zure bihotz oroz, eta arima guziaz, eta gogo osoaz.
38. Hori da manamenduetan handiena eta lehena.
39. Bigarrena berriz, horren idurikoa da: Zure laguna duzu maithaturen zure burua bezala.
40. Lege guzia eta profetak, bi manamendu horietan dauntza.
41. Bada, Farisauk bilduak zaudelarik, Jesusek egin zaroeten galde bat,



42. Zerralarik: Zer zaitzue Kristoz? noren semea dela? Dabidena, derrate.

43. Jesusek erran zioten: Nola beraz Dabidek, izpirituak zerabilkalarik, deitzen du bere Jauna, erraten duenean:

44. Jaunak dio ene Jaunari: Ene eskuinean jar zaite, zure etsaiak zure oin alkhi ezar detzadan arteo?

45. Baldin beraz Dabidek Jaunetan deitzen badu, nolaz da haren seme?

46. Eta nihork ezin ihardets ziozokeen hitz bat; eta egun hartaz geroz, etzen izan hari galdeka haritzera ausartatu zenik.

XXIII. KAP.

1. Orduan Jesus osteei eta bere dizipuluei mintzatu zen,
 2. Zioelarik: Moisesen alkhian jarriak daude Iskribauak eta Farisauak.
 3. Idukatzue beraz erranen darozkitzueten guziak, eta egizkitzue; zuek ordean ez egin horien egitateen arabera, ezen baderrate, eta egiten ez.

4. Zama gaitzak eta ezin jasanezkoak dituzte tinkatzen eta gizonen bizkarrerat ematen; berek ordean erhiaz ere ez dituzte nahi higitu.

5. Beren eginkariak berriz, daramazkite guziak gizonez ikhusiak izatea gatik; ezik zabaltzen dituzte beren larruzko xerrendak, eta litsak luzatzen.

6. Afarietan aldiz, mahain buruak dituzte lakhet, sinagogetan alkhi gorenak,

7. Plazetan agurrak eta Rabbi deithuak izatea.

8. Zuek ordean ez lehia deithuak izatera Rabbi, ezen bat da bakharrik zuen Nausia; zuek aldiz, oro anaiak zarete.

9. Lurraren gainean aita ez deith nihor; ezen bat bakharra da zuen Aita, zeina baita zeruetan.

10. Ez ekhar nausi izenik; ezen bat da bakharrik zuen Nausia, Kristo.

11. Zuen artean handien dena, izanen da zuen zerbitzari.

12. Aldiz goratuko dena, aphaldua izanen da; eta aphalduko dena, izanen da goratua.

13. Zorigaitz ordean zuei, Iskribau eta Farisau itxura edertzaleak, zeren duzuen gizonen aitzinean hersten zeruetako erresuma. Zeronek etzarete sartzer, eta sartzera dihoazenak ez ditutzue barnerat uzten.

14. Zorigaitz zuei, Iskribau eta Farisau itxura eder egileak, zeren othoitz luzeak egiten ditutzuelakoan, alhargunen etxeak ditutzuen iresten; hargatik izanen duzue juiamendu zorrotzagoa.

15. Zorigaitz zuei, Iskribau eta Farisau itxura gezurtiak, zeren dituzten, proselit baten egiteko itsas-leihorak itzulikatzen, eta egin dukezuenean, bilhakarazten baituzue ifernuko seme, zeronek baino areago bietan.

16. Zorigaitz zuei, buruzagiitsuak, zeinek baiterrazue: Edozeinek tenploaz zin egin dezan, deus ez da; ordean tenploko urheaz eginen duena, zorretan sarthu da.

17. Zoroak etaitsuak! Zein da gehiago urhea, ala urhea sainduesten duen tenploa?

18. Diozue oraino: Edozeinek aldareaz zin egin dezan, deusik ez da; bainan aldare gainean den emaitzaz egin duena, zorretan sarthu da.

19. Itsuak! Zein da gehiago, ala emaitza, ala hura sainduesten duen aldarea?

20. Beraz zin egiten duenak aldareaz, hartaz eta haren gainean diren guziez egiten du zin.

21. Eta nork-ere tenploaz zin egiten baitu, hartaz egiten du zin eta hartan dagoenaz.

22. Eta zeruaz zin egiten duenak, Jainkoaren tronuz eta haren gainean jarria denaz egiten du zin.

23. Zorigaitz zuei, Iskribau eta Farisau alegia ederretakoak, mendako, anetako, eta kumineko hamarrenak ematen ditutzuenak, eta bazterrerat uzten legeko minenak zuzenbidea, eta urrikal mendua, eta sinhestea. Horiek ziren egin beharrak, eta bertzeak ez utzi.

24. Buruzagiitsuak, eltzoa iragazten eta kamelua iresten duzuenak.

25. Zorigaitz zuei, Iskribau eta Farisau, alegiakari ederrak, zeren edateko untzia eta azpila kanpotik ditutzuen garbitzen, barneak aldiz harra-pakeriaz eta likhiskeriaz ditutzuelarik betheak.

26. Farisauitsuak, lehenik barnea xahu zotek edateko untziari eta azpilari, kanpoa ere izan dadien garbi.

27. Zorigaitz zuei, Iskribau eta Farisau alegia egileak, zeren iduri baituzue hobi xurituak, kanpoz begietara eder, eta barnean hil hezur eta ustelkeriaz betheak daudenak.

28. Hala-hala zuek ere kanpoz prestu agertzen zarete gizonei, gezurrezko itxurapenik eta tzarkeriarik baizen ez duzuelarik barnean.

29. Zorigaitz zuei, Iskribau eta Farisau itxuraz ederrak, profetei hobiak altxatzen eta prestuen orhoitgailuak edertzen ditutzuenak,

30. Eta diozue: Gure arbasoen egunetan bizi izan baginade, profeten odolean phartedun ez ginen izanen.



31. Horreletan zuen buruei atheratzen diozue lekhukotasun, profeta hiltzaileen ume zaretela.
32. Zuek ere bethe zazue zuen aiten neurria.
33. Sur, bipera odolekoak, nola itzuriren zarete ifernurako juiamenduari?
34. Hargatik huna non bidaltzen darozkitzuedan profetak, eta zuhurrak, eta iskribauak, eta hekiatarik zuek hilen eta gurutzefikaturen dituzue batzu, eta zuen sinagoetan azotaturen bertze batzu, eta hiritik hirira jazarriren diozue;
35. Gainera dathortzuen lurrean ixuria izan den odol garbi guzia, Abel prestuaren odoletik, Barakiasen seme Zakarias, tenploaren eta alda-rearen artean hil duzenaren odolerraino.
36. Egiaz derratzuet nik, horiek oro orai bizi direnen gainera direla ethorriko.
37. Jerusaleme, Jerusaleme, profetak hiltzen eta hire gana bidaliak direnak harrikatzen ditunana, zenbatetan nahi izan ditinat hire umeak bildu, oiloak hegalpera xitoak biltzen dituen bezala, eta hik ez baitun nahi izatu!
38. Huna non hutsik uztera dihoakizuen zuen etxea.
39. Ezen nik derratzuet: Ez nauzue gehiago ikhusiren, erran deza-zuen arteo: ongi-ethorri, Jaunaren izenean dathorrenari.

XXIV. KAP.

1. Tenplotik ilkhirik, bazihoan Jesus; eta hurbildu zitzaizkon bere dizipuluak, tenploko leihor ederren erakhusteko.
2. Bainan ihardestean erran zioten Jesusek: Ikhusen dituzue horiek oro? Egiaz derratzuet bada, harria harriaren gainean, urratu gabe, hor ez dela geldituren.
3. Gero, Olibadietako mendian jarria zagoelarik, ixilka hurbildu zitzaizkon dizipuluak, ziotelarik: Erraguzu, noiz izanen diren horiek, eta zer izanen den zure ethorpenaren eta mendeen akhabantzaren ezagutkaria?
4. Jesusek ihardestean erran zioten: Berantzue nihork atzeman zetzazten.
5. Ezen asko ene izenean ethorriko dire, diotelarik: Ni naiz Kristo, eta hainitzak dituzte eskuraturen.
6. Adituren ere duzue gudu eta gudu haroz. Berantzue asalda; ezen gerthatu beharrak dire horiek, bainan ez daite akhabantza oraino.

7. Jaikiko zaio ezen jendaia jendaiari, erresuma erresumari; eta hainitz tokitan izanen da izurrite, gosete, lur ikharatze.
8. Bada, horiek oro minen hasteak izanen dire.
9. Orduan hesturetan ezarriko eta hilen zaituztete; eta jendaia guziei ene izenaren ariaz gaitzirizkotan izanen zarete.
10. Eta orduan asko behaztopaka, eta elkhar salduz eta elkhar gaitzetsiz ibiliko dire.
11. Eta orduan asko profeta-aizun jaikiko dire, eta hainitzak enganatu dituzte.
12. Eta nola gaindi izanen baita tzarkeria, askoren amodioa hoztuko da.
13. Bainan nork-ere azkeneraino ihardukiren baitu, haina izanen da salbatua.
14. Eta erresumako Ebanjelio hau erantzunen da lurraren hedadura guzian, jendaki guziei lekhukotasunetan; eta orduan ethorriko da ahipena.
15. Iklusiko duzuenean beraz desmasiako hasgarrikeria, Daniel profetak aiphatua, lekhu sainduan jarria: irakurtzen duenak ardiets beza.
16. Orduan Judean direnak, ihes mendietara bihoaz;
17. Eta hegaztegian dena, ez bedi jauts, etxetik zerbaiten hartzeko;
18. Eta landan dena, ez bedi bihur soinekoaren bilha.
19. Zorigaitz aldiz, egun hekietan izorra eta unhide direnei.
20. Othoitz egizue bada, zuen ihesa neguan edo larunbat egunean ez dadien gertha.
21. Alabainan izanen da hestura handia, nolakorik munduaren hastapenetik orai arteo izan ez baita, ez-etare izanen.
22. Eta baldin egun hekiek laburtuak izan ez balire, gizonik etzen salbaturen; hautetsien gatik ordean laburtuak izanen dire egun hekiek.
23. Orduan norbaitek erran balezazue: Huna, hemen da Kristo, edo hantxe da; ez sinhets.
24. Ezen jaikiko dire kristo-aizunak eta profeta-aizunak; eta eginen dituzte sendagaila handiak eta harritzeko gauzak, haletan non hautetsiak ere (ahal balitz) enganiotara erorraraz bailetzazkete.
25. Horra, erran darotzuedala aitzinetik.
26. Erran balezazuete beraz: Hara non den mortuan; ez ilkhi: Huna etxe zokhoetan; ez sinhets.
27. Ezen nola ximista iguzkialdetik ilkhitzen eta mendebaleraino agertzen baita, hala izanen da gizonaren Semearen ethortzea ere.
28. Non baititake hilikia, harako dire arranoak ere.



29. Bada, egun hekietako hesturaren ondotik berehala, ilhunduren da iguzkia, eta ilhargiak bere argia ez du emanen, eta izarrak eroriko dire zerutik, eta zeruetako ahalak khordokaturen dire.

30. Eta orduan zeru gainetik agerturen da gizonaren Semearen eza-gutkaria; eta orduan marrasketan dire egonen lurreko jendaki guziak, eta ikhusingen dute gizonaren Semea zeruko hedoien gainean dathorla indar eta maiestate handirekin.

31. Eta igorriko ditu bere aingeruak turutarekin eta harrabots handitan, eta bilduko dituzte haren hautetsiak lau haizeetarik, zeruen bazter batzuetarik bertze buruetaraino.

32. Bada, piko hondotik har zazue iduripen bat: haren adarra guritu eta hostoak sorthu direneko, badakizue uda hurbil dela.

33. Hala zuek ere ikhusingo dituztuenean horiek oro, jakizue gizonaren Semea hurbil dela athean.

34. Egiaz derratzuet, gizate hau ez dela goanen, non horiek oro ez diren gerthatzen.

35. Iraganen dire zeru-lurrak, bainan ene hitzak ez dire iraganen.

36. Egun hura ordean eta orena, nihork ez dakizki, ez-eta zeruetako aingeruek ere, Aitak bakharrik baizen.

37. Berriz, Noeren egunetan nola gerthatu baitzen, gizonaren Semearen ethortzea ere hala izanen da.

38. Ezen nola uholdearen aitzineko egunetan hari baitziren jaten eta edaten, ezkontzen eta ezkontarazten, Noe arkhan sarthu izan zen egun hartaraino;

39. Eta uholdea, ethorri arteo ez baitzuten ezagutu, eta guziak eraman baitzuten; hala izanen da gizonaren Semearen ethortzea ere.

40. Orduan bi gizon izanen dire landan; bat hartua izanen da, eta bertzea utzia.

41. Iharan bi emazteki hariko dire ehaiten; bat izanen da hartua, eta bertzea utzia.

42. Atzarririk zaudezte beraz, ez dakizuelakoz zer orduz ethortzekoa den zuen Jauna.

43. Hau jakizue bada: etxeko jauna balitz jakintsun zer mugaz ethortzekoa den ohoina, erne lagoke eiki, eta ez ahal lezake utz etxearen zilhatzera.

44. Hargatik zuek ere zaudezte goait, zeren ez dakizuen zer orduz ethorriko den gizonaren Semea.

45. Zein da, zure ustez, zerbitzari zin eta gurbila, nausiak bere etxe-koen gainean ezarria, hekiei mugetan janhariaren emateko?

46. Dohatsu zerbitzari hura, zeina nausiak, etxeratzean, atzeman baituke horrela hari.

47. Egiaz derratzuet, bere ontasun guzien buruan ezarriren duela.

48. Bainan zerbitzari gaixtoak bere baithan egiten badu: Astiz dago ene nausia ethortzeko;

49. Eta abiatzen bada bere sehi lagunen jotzen; hordizaleekin berriz, jaten eta edaten;

50. Ethorriko zaio nausia igurikitzen ez duen egunean eta ez dakien orduan;

51. Eta bereziko du, eta haren zathia ezarriko du gezur egiten dute-nekilako. Han izanen da marraska eta hotz karraska.

XXV. KAP.

1. Orduan zeruko erresuma izanen da hamar neskatxen iduriko, zeinak, beren argiak harturik, ilkhi baitziren ezkonberrien bidera.

2. Bada hekietarik erroak ziren bortz, eta bortz zuhurak;

3. Eta bortz erroek, argiak hartzean, etzuten oliorik berekin eraman;

4. Zuhurrek aldiz, kriseluekin olio hartu zuten beren untzietan.

5. Bada, nola ezkonberriak luzatzen baitzuen, logaletu ziren guziak, eta lo egin zuten.

6. Bainan gauherditan oihu bat egin zen: Huna ezkonberria dathorla, zoazkiote aitzinera.

7. Orduan neskatxa hekiek jaiki ziren guziak, eta aphaindu zituzten beren kriseluak.

8. Zoroek berriz, zuhurrei erran zaroeten: Iguzue zuen oliotik, hiltzen baitzaizkigu argiak.

9. Zuhurrek ihardetsi zioten erranez: Beldurrez-eta ez dadien izan zuen eta gure dina; hobeki egiteko, zoazte saltzailleetara, eta erosazue zuentzat.

10. Bainan eroatera zihoazen artean, ethorri izan zen ezkonberria; eta goaiten zaudezenak sarthu ziren harekin ezteietara, eta hertsu zen athea.

11. Aldiz bertzeak ere heldu dire azkenean, diotelarik: Jauna, jauna, idek dizaguzu.

12. Harek ordean ihardestean erran zioten: Egiaz derratzuet, etzaitzuet ezagutzen.

13. Zaudezte beraz atzarririk, zeren ez baitakizue ez eguna, ez orena.

14. Halaber ezen bidaietara zihoan gizon batek deithu izan zituzten bere sehiak, eta eskuetara eman ziozkaten bere ontasunak.



15. Eta bati eman ziozkan bortz talendu, bertzeari berriz bia, bertzeari aldiz bat, bakhoxari bere eginahalaren arabera; eta ordu berean lothu zen bideari.

16. Bada, bortz talendu izan zituena goan zen, bermatu zen hekiekin eta irabazi zituen bertze bortz.

17. Halaber bia izatu zituenak ere irabazi zituen bertze bia.

18. Aldiz bakhar bat izan zuena goan zen, zilho bat lurrean egin eta hartan gorde zuen bere nausiaren dirua.

19. Bada, handik arte luze baten buruan, ethorri zen sehi hekien nautia, eta hekiekin xuritu zuen bere ikhustekoa.

20. Eta bortz talendu izan zituenak, hurbildurik, atheratu ziozkan bertze bortz zioelarik: Jauna, eman izan daroztatatzu bortz talendu; huna, gaintetik irabazi ditut bertze bortz.

21. Bere nautiak ihardetsi zioen: Ederki, zerbitzari on eta zina; zeren gutian izan zaren zirritu, ezarriko zaitut hainitzen buruan: sar zaite zure nautiaren bozkarioan.

22. Aldiz, hurbildu zen bi talendu izan zituena ere, eta erran zuen: Jauna, eman izan daroztatatzu bi talendu; huna, irabazi ditut bertze bia.

23. Bere nautiak ihardetsi zioen: Ederki, zerbitzari on eta zina; zeren gauza xumean izan zaren zirritu, handien buruan zaitut ezarriren: sar zaite zure nautiaren bozkarioan.

24. Gero hurbildurik, erran zuen talendu bakharra izatu zuenak: Jauna, badakit gizon garratza zarela, uztatzen duzula erain ez duzun tokian, eta biltzen non-ere ez baituzu barriatu.

25. Eta ene beldurrarekin, goan naiz, eta luphean gorde dut zure talendua; huna non duzun zurea dena.

26. Bainan ihardestean erran zioen bere nautiak: Zerbitzari gaixto eta alferra, bahakien uztatzen dudala erain ez dudan tokian, eta biltzen non-ere ez baitut barriatu:

27. Behar huen beraz ene dirua eman irabazira; eta nik, ethortzen nintzenez, enea populurrekin altxatuko nian.

28. Talendu hori khen diozozue beraz, eta eman hamar talendu dituenari.

29. Ezen dunari emanen zaio, eta izanen du gaindi; eta gabeari, duela dirurien hura ere khenduko zaio.

30. Eta kanpoko ilhunbeetara arthikazue deusetako ez den zerbitzaria; han izanen baita marraska eta hortz karraska.

31. Bada, gizonaren Semea ethorriren denean bere maiestean, eta aingeru guziak harekin, jarriren da bere ospezko tronuan.

32. Eta jendaki guziak haren aitzinera bilduren dire, eta batzu bertzeen ganik bereziren ditu, hala nola artzainak berezten baititu ardiak akherretarik.

33. Eta ezarriren ditu ardiak bere eskuinean, akherrak berriz ezkerretik.

34. Orduan erregek erranen diote haren eskuinean izanen direnei: Zatozte, ene Aitaren benedikatuak, goza zazue munduaren hastapenetik aphaindua izan zaitzuen erresuma.

35. Alabainan gose izatu naiz, eta jatera eman darotazue; egarri izatu naiz, eta eman darotazue edatera; arrotz nindabilan, eta bildu izan nauzue;

36. Biluz nintzen, eta estali nauzue; eri, eta ikhustera ethorri zarozkide; preso, eta ene gana ethorri zarete.

37. Orduan prestuek ihardetsiko darote, diotelarik: Jauna, noiz ikhusi zaitugu goserik, eta eman izan darotzugu jatera; egarririk, eta eman darotzugu edatera?

38. Berriz, noiz ikhusi zaitugu arrotz, eta eman darotzugu atherbea; biluz, eta estali zaitugu?

39. Edo noiz ikhusi zaitugu eri, edo preso, eta ethorri gare zure gana?

40. Eta ihardestean, erregek erranen diote: Egiatz derratzuet, ene anaia xumeen haukietarik bati egin diozuenean, neroniri egin izan darotazuet.

41. Orduan erranen diote haren ezkerretarik izanen direnei: Zoazkitet urrun, madarikatuak, debruaren eta harekilako aingeruentzat biztua izan den bethirainoko surat.

42. Ezen gose izatu naiz, eta ez darotazue eman jatera; izatu naiz egarri, eta ez darotazue edaterat eman;

43. Arrotz nindabilan, eta ez nauzue bildu; biluz izatu naiz, eta ez nauzue estali; eri eta preso izatu naiz, eta ikhustera etzarozkide ethorri.

44. Orduan hekiek ere ihardetsiko dute erranez: Jauna, noiz ikhusi zaitugu gose, edo egarri, edo arrotz, edo biluz, edo eri, edo preso, eta etzaitugu lagundu?

45. Ihardetsiren diote orduan, diotelarik: Egiatz derratzuet nik, noiz-ere ez baitiozue xumeen horietarik bati egin, ez darotazue egin niri ere.

46. Eta haukiek bethirainoko estiretara goanen dire, eta prestuak bethiereko bizitzera.

XXVI. KAP.

1. Solas horiek oro akhabatu ondoan, Jesusek erran zioten bere dizipuluei:



2. Badakizue bi egunen buruan eginen dela Bazkoa, eta gizonaren Semea saldua izanen da gurutzefikatua izateko.
3. Orduan aphezetakoa aitzindariak eta populuko zaharrak bildu ziren aphez handi, Kaiphas deitzen zenaren salhara.
4. Eta batzarre egin zuten Jesusen atzematete amarruz eta haren hilarazteko.
5. Bainan erraten zuten: Ez besta egunean, populua builetan sar dadien beldurrez.
6. Bada, nola Bethanian baitzen Jesus, Simon legentsuaren etxean,
7. Emazteki bat hurbildu zitzaioen, albatrazko untzi bat eskuan, balio handitako gantzugailu batez bethea, eta buruaren gainera ixuri zioen mahainean zelarik.
8. Aldiz dizipuluek ikhusi zutenean, gaizki hartu zuten, zerratelarik: Zertako galtze hori?
9. Ezen garasti sal eta beharrei eman zitakeen.
10. Jesusek ordean baitzakien zer zerasaten, erran zaroeten: Zergatik egiten diozue damurik emazteki huni? Ezen hunek niri egin darotana, ongi da.
11. Ezen beharrak badituzte bethi zuekin, bainan ni ez nauzue izanen bethi.
12. Alabainan ene gainera ixuri duenean gantzugailu hau, ene ehorzpenaren ariaz egin du.
13. Egiaz derratzuet, edozein tokitan Ebanjelio hau erantzun dadien mundu guzian, hunek egin duena ere hunen orhoitzapenetan izanen dela aiphatua.
14. Orduan hamabietarik bat, Judas Iskariot deitzen zena, goan zen aphezen buruzagietara,
15. Eta erran zaroeten: Zer nahi darotazue eman, eta nik eskuetaraturen darotzuet? Eta hekiek agindu ziozkaten hogoi eta hamar zilharrezko.
16. Eta geroztik paradaketa zabilan, hekiei eskuetara emateko Jesus.
17. Bada, airisetako lehenbiziko egunean, dizipuluak ethorri zitzaizkon Jesusi, ziotelarik: Non nahi duzu aphain dezazugun Bazkoa jateko?
18. Jesusek aldiz ihardetsi zioten: Hirira zoazte hulakoaren gana, eta errozue: Nausiak dio: Hurbil da ene eguna; zure etxean egiten dut Bazkoa ene dizipuluekin.
19. Eta dizipuluek egin zuten Jesusek manatu bezala, eta aphaindu zuten Bazkoa.
20. Arratsa ethorri zenean beraz, mahainean jarri zen bere hamabi dizipuluekin.

21. Eta jaten hari zirelarik, erran zaroeten: Egiaz derratzuet, zuetarik batek salduko nauela.
22. Eta atsekabe handitan, abiatu zitzaizkon zein bere aldetik galdeka: Jauna ni othe naiz hura?
23. Jesusek ihardetsi zuen: Jatekoan enekin eskua buaitzen duenak, hainak nau salduko.
24. Bada, gizonaren Semea badihoa, hartaz iskribatua izan denaren arabera; bainan zorigaitz gizonaren Semea salduko duenari; hainak hobe zukeen egundaino sorthu ez balitz.
25. Judasek, saldu zuenak, erran zioen: Nausia, ni othe naiz? Ihardetsi zuen: Erran duzu.
26. Bada, afariten hari zirelarik, Jesusek hartu zuen ogia; benedikatu zuen eta hautsi, eta eman zioten bere dizipuluei, zioelarik: Har zazue eta jan, hau ene gorphutza da.
27. Eta edateko untzia harturik, eskerrak bihurtu zituen, eta eman zaroeten, zioelarik: Huntarik edan zazue guziek.
28. Hau da ezen ene odola, batasun berrikoa, hainitzentzat ixuriko dena, bekhatuen barkhamendutan.
29. Erraten darotzuet bada, aihenaren gozo huntarik ez dudala gauroz edanen egun hartaraino, zeintan zuekin berria edanen baitut ene Aitaren erresuman.
30. Eta eskerrak erranik, ilkhi ziren Olibadietako mendira.
31. Jesusek erran zioten orduan: Gau huntan jasanen duzue gaizbide guziek ene ariaz. Iskribatua da ezen: Joko dut artzaina, eta barraiatuko dire arthaldeko ardiak.
32. Bainan hiletarik biztuko naizenean, aitzinduko zaituztet Galileara.
33. Bada, Piarresek ihardetsiz, erran zioen: Bertze guziak zure ariaz behaztopaturik ere, ni behinere ez naiz behaztopaturen.
34. Jesusek erran zioen: Egiaz derratzut nik, gau huntan, oilarrak jo baino lehen, hiruretan nauzu ukhaturen.
35. Piarresek ihardetsi zioen: Zurekin hil behar banintz ere, etzintzazket ukha. Eta gauza bera erran zioten bertze dizipulu guziek ere.
36. Orduan Jesus hekiekin ethorri zen Jethsemani deitzen zen bazter batera, eta erran zioten bere dizipuluei: Zaudezte hemen, haraxe othoitz egitera nohan artean.
37. Eta harturik Piarres eta Zebedeoren bi semeak, hasi zen ilhutzen eta atsekabetan sartzen.



38. Erran zioten orduan: Beltz da ene arima hiltzeko heineraino; igurikazue hemen, eta zaudezte atzarriak enekin.
39. Eta aitzinaxago goanik, erori zen begithartez lurrera, othoitz egin zuelarik eta erraten: Ene Aita, ahal badaite, kalitza hau urrun bedi ni ganik; guzia gatik, ez nik nahi bezala, bainan zuk bezala.
40. Eta ethorri zen bere dizipuluetara, eta lo atzeman zituen, eta erran zioen Piarresi: Zer bada! oren bat ezin egon zarete enekin atzarririk?
41. Zaudezte erne eta egizue othoitz, tentazionetara sar etzaitzeten; ezik ernea da izpiritua, bainan haragia fluxa.
42. Berriz goan zen bigarren aldian, eta othoitz egin zuen, zioelarik: Ene Aita, kalitza hau ez badaite urrun, non ez dudan edaten, egin bedi zure nahia.
43. Eta berriz ethorri zen, eta atzeman zituen lo, ezen nagituak ziren hekien begiak.
44. Eta hekiek utzirik, goan zen berriz ere, eta hirugarren aldian othoitz egin zuen, hitz berak erranez.
45. Orduan heldu da bere dizipuluetara, eta erraten diote: Orai egizue lo eta phausa zaitzete; huna hurbildua dela orena, eta gizonaren Semea, gaixtaginen eskuetara ematera dihoa.
46. Jaiki zaitzete, goazen: huna non hurbildua den, ni saldu behar nauena.
47. Oraino mintzo zelarik, Judas, hamabietarik bat, ethorri zen, eta harekin gizon moltzo handi bat ezpatekin eta makhilekin, aphez buruzagiek eta populuko zaharrek igorriak.
48. Bada, Jesus saltzen zuenak eman zaroeten ezagutkari bat, erranez: Zeini-ere musu emanen baitiot, hura izanen da, loth zakizkiote.
49. Eta berehala hurbildurik Jesusi, erran zioen: Agur, Nausia. Eta musu eman zioen.
50. Eta Jesusek erran zaroen: Adiskidea, zertara ethorri zare? Orduan hurbildu ziren, eskuak eman zituzten Jesusen gainean, eta hartu zuten.
51. Eta hara Jesusekin zirenetarik batek, eskua hedaturik, atheratu zuela bere ezpata, eta aphez handiaren sehi bat jorik, moztu zioen beharria.
52. Orduan Jesusek erran zioen: Bihur zazu ezpata bere tokira; ezen ezpata hartuko duten guziak, ezpatatik goanen dire.
53. Ez duzu uste othoitz dezakedala ene Aita, eta igor letzakedala hamabi aingeru aralde baino gehiago?

54. Nola betheko dire beraz Iskribuak, haukiek hola gerthatu behar direla diotenak?
55. Ordu berean Jesusek erran zioten oste hekiei: Ohoin baten ondoran bezala, ezpatekin eta makhilekin ilkhi zarete ene hartzera; egun oroz zuen erdian jarria nindagoen, tenploan irakhasten nuelarik, eta ez nauzue hartu.
56. Bada, hori oro gerthatu izan da, bethe zadiantzat profetek iskribatu dutena. Orduan dizipulu guziek, Jesus utzirik, ihes egin zuten.
57. Berriz, Jesus hartua zadukatenek, eraman zuten Kaiphasen, aphezen buruzagiaren gana, zeinaren etxean bildu baitziren Iskribuak eta zaharrak.
58. Aldiz Piarres urrundik jarraitzen zitzaioen Jesusi, aphezen buruzagiaren ezkaratzeraino. Eta barnera sarthurik, sehiekin jarria zagoen akhabantzaren ikhustea gatik.
59. Bada, aphezetako buruzagiak eta biltzarra guzia gezurrezko lekukotasun baten bilha zabilzan, Jesusen hilarazteko;
60. Eta etzuten aurkhitu, asko lekhuko gezurti agertu ziren arren. Azkenean ethorri ziren bia,
61. Eta erran zuten: Horrek erran izan du: Jainkoaren tenploa urra dezaket, eta xuti hirur egunen buruan.
62. Eta jaikirik, aphezen buruzagiak erran zioen: Ez duzu deus ihardesten gizon haukiek zure kontra lekhukotasun egiten duten gauzei?
63. Bainan Jesus ixilik zagoen. Eta aphez handiak erran zioen: Jainko biziak errekeitzen zaitut erraguzun hean zu zaren Kristo, Jainkoaren semea.
64. Jesusek ihardesten dio: Erran duzu. Nik derratzuet hargatik, egun batez ikhusiren duzuela gizonaren Semea Jainko guzizkoaren eskuinean jarria, eta dathorla zeruko hedoiene gainean.
65. Orduan aphez handiak urratu zituen bere soinekoak, zioelarik: Burhoa arthiki du; zer behar dugu oraino lekhukorik? Horra non aditu duzuen burhoa.
66. Zer zaitzue? Eta ihardetsi zuten: Hiltzea du merezi.
67. Orduan abiatu zitzaizkon begithartera thuka; ethendu zuten ukhobil ukhaldika; bertze batzuek berriz, begithartean jo zuten zaflakoka,
68. Ziotelarik: Profetisa guk, Kristo; nor da jo hauena?
69. Bada, Piarres kanpoko aldean zagoen, ezkaratzean jarria; eta neskatxa bat hurbildu zitzaioen, zerralarik: Jesus Galilearrarekin hintzen hi ere.



70. Bainan harek ukhatu zuen guzien aitzinean, zioelarik: Ez dakit zer derrazun.

71. Eta nola athetik ilkhitzen baitzen, bertze neskatxa batek ikhusi zuen, eta han zirenei erran zioten: Jesus Nazaretharrarekin zen hori ere.

72. Eta zin eginez, berriz ukhatu zuen Piarresek zioelarik: Ez dut ezagutzen gizon hori.

73. Eta aphur baten buruan, han zaudenak hurbildu ziren, eta erran zioten Piarresi: Egiazki hi ere horietarik haiz; ezen hire hizkuntzak salhatzen hau.

74. Orduan hasi zen zinka eta arneguka, etzuela gizona ezagutzen. Eta berehala oilarrak jo zuen.

75. Eta orhoitu zen Piarres Jesusek erran hitzaz: Oilarrak jo dezan baino lehen, hiruretan nauzu ukhaturen. Eta kanporat ilkhirik, ixuri zituen nigar minak.

XXVII. KAP.

1. Bada ethorri zenean goiza, aphezetako aitzindariak eta populuko zaharrek Jesusen kontra biltzar egin zuten, haren hilaraztekotzat.

2. Eta estekatua eraman zuten, eta Ponzio Pilato gobernadorearen eskuetara eman zuten.

3. Orduan ikhusirik egina zela Jesusenaz, Judasek, haren saltzaileak, urrikiak eramanik, aphez aitzindariak eta zaharrei gibelerat ekharri ziozkaten hogoi eta hamar zilharrezkoak,

4. Zerralarik: Bekhatu egin dut, hobengabeko odola salduz. Bainan hekiek ihardetsi zioten: Guri zer dihoakigu? hire ikhustekoa duk.

5. Eta tenploan arthikirik dirua, goan zen eta urkhatu zuen bere burua.

6. Aphez aitzindariak ordean, diruak bildurik, erran zuten: Tenploko khutxan haukien ezartzea ez da zilhegi, zeren diren odolaren gana.

7. Bada, beren artean egon ondoan, diru hartaz erosi zuten baxeregile baten landa, arrotzen ehorts lekhutat.

8. Hargatik landa hura egungo eguna arteo deitzen da Hazeldama, erran nahi baita, Odol landa.

9. Orduan bethe zen Jeremias profetaren ahoko hitza, erran zue-nean: Eta hartu dituzte hogoi eta hamar zilharrezko, merkatiatua izan denaren eta Israelgo umeek erosi dutenaren saria;

10. Eta eman dituzte baxeregile baten landaren truk, Jaunak niri manatu bezala.

11. Bada, Jesus agertu zen gobernadorearen aitzinera, eta harek bilhatu zuen, zerralarik: Zu zare Juduen Errege? Jesusek ihardetsi zaroen: Diozu.

12. Eta nola asko gauzaz jazartzen baitzioten aphez aitzindariak eta zaharrek, etzuen deusere ihardetsi.

13. Orduan Pilatok erraten dio: Ez duzu aditzen zenbat lekhukotasun ekhartzen duten zure kontra?

14. Eta etzioen hitz bat ihardetsi, haletan non Pilato handizki harritzen baitzen.

15. Bada, besta-buru egunean, gobernadoreak ohi zuen populuari uztea presoner bat, nahi zutena.

16. Aldiz, orduan burdinetan zadukan gaixtagin bat aiphatua, Barrabas deitzen zena.

17. Bilduak zirelarik beraz Pilatok erran zioten: Zein nahi duzue utz dezazuedan, Barrabas ala Jesus, Kristo deitzen dena?

18. Bazakien alabainan bekhaizgoz eman ziotela eskuetara.

19. Bada, juie alkhian jarria zagoelarik, bere emazteak igorri zioen erratera: Ez bedi deusere izan zure eta gizon prestu horren artean, ezik egun ametsetan hainitz jasana nago horren ariaz.

20. Bizkitartean aphez aitzindariak eta zaharrek bildu zuten populua Barrabasen galdatzera eta Jesusen galaraztera.

21. Pilatok, hekiei mintzatuz, erran zuen: Bietarik zein nahi duzue utz dezazuedan? Eta ihardetsi zuten: Barrabas.

22. Pilatok erraten diote: Zer eginen dut bada Jesusez, Kristo deitzen denaz?

23. Orok ihardesten dute: Bedi gurutzefika. Eta Pilatok derrote: Bainan zer gaizki egin du? Hekiek ordean oiho gehiago zaramaten erranez: Gurutzefikatua izan bedi.

24. Bada, Pilatok ikhusirik etzuela deusere atheratzen, aitzitik tarpata geroago eta gaitzago zihoala, harturik ura, populua aitzinean garbitu zituen eskuak, erraten zuelarik: Ni behintzat prestu hunen odoletik garbi naiz; zuen ikhustekoa da.

25. Eta populu guziak ihardetsiz, erran zuen: Gure gain horren odola, eta gure umeen gain.

26. Orduan utzi zioten Barrabas; eta azotarazirik Jesus, eskuetara eman zaroeten gurutzean izan zadiantzat ezarria.

27. Orduan gobernadorearen soldadoek, pretoriora harturik Jesus, haren ingurura bildu zuten andana guzia;

28. Eta bilusirik Jesus, kapa gorri bat eman zioten soinera;



29. Eta elhorriz bihurturik khoro bat, ezarri zioten buruan, eta khanabera bat eskuineko eskuan; eta belhaunaz lurra joz haren aitzinean, eskarniatzen zuten, zerratarik: Agur, Juduen errege.

30. Eta gainera thu eginen, hartzen zioten khanabera Eta hartaz jotzen burua.

31. Eta burlatu zuten ondoan, kapa khendu-eta, jauntzi ziozkaten bere soinekoak, eta eraman zuten gurutzefikatzerara.

32. Bada, ilkhitzen zirelarik, atzeman zuten zirenear gizon bat, Simon deithua, eta bortxatu zuten Jesusen gurutzearen eramatera.

33. Eta ethorri ziren Golgotha deitzen den lekhura, erran nahi baita, Kalbarioko tokia.

34. Eta edatera eman zioten arnoa minarekin nahasirik. Eta dastatu zuenean, etzuen edan nahi izan.

35. Gurutzefikatu zuten ondoan, berriz, beren artean zorthera berezi zituzten haren soinekoak, bethea izan zadien profetaren erran hau: Ene soinekoak berezi dituzte beren artean, eta zortha arthiki dute ene soingainekoaz.

36. Eta jarririk, haren zain zaudezen.

37. Eta haren buruaren gaineko aldean iskribuz ezarri zuten haren heriotzeko aria: HAU DA JESUS JUDUEN ERREGE.

38. Orduan harekin gurutzefikatuak izan ziren bi ohoin, bata eskuintaririk, eta bertzea ezkerretarik.

39. Eta han iragaiten zirenak, buruak dardaratz ahapaldika hari zitzaizkon,

40. Ziotelarik: Hean! Jainkoaren tenploa urratzen eta gero hirur egunen buruan berritzen dukana, athera zak hire burua; Jainkoaren Semea balin bahaiz, jauts hadi gurutzetik.

41. Halaber, aphez aitzindariak ere, Iskribauekin eta zaharrekin trufatuz, erraten zuten:

42. Bertzeak atheratu ditu, eta bere burua ezin athera dezake; Israelgo errege bada, orai jauts bedi gurutzetik, eta sinhetsiko dugu horren baithan.

43. Jainkoaren gainean da fida, harek orai athera beza, gogarako balin badu; erran du ezen: Ni naiz Jainkoaren Semea.

44. Aldiz, harekin gurutzefikatuak ziren ohoinak ere iroi egiten zioten.

45. Bada, seigarren orenetik bederatzigarreneraino, ilhunbeak hartu zuen lur guzia.

46. Eta bederatzigarren orenaren inguruan, Jesusek hazkarki oihu egin zuen erranez: Eli, Eli, lamma sabaxtani? erran nahi baita: Ene Jainkoa, ene Jainkoa, zergatik utzi nauzu?

47. Aldiz, hori aditurik, begira zauden batzuek erraten zuten: Eliasi egiten dio dei.

48. Eta berehala hekiatarik batek laster eginik, hartu zuen esponja bat, minagrez bethe, eta khanabera baten muthurrean ezarririk, edatera ematen zioen.

49. Bertzeek berriz, erraten zuten: Bego, dugun ikhus, hean ethorriko zaioen Elias libratzera.

50. Bainan Jesusek, berriz ere oihu handi bat eginik, arthiki zuen hatsa.

51. Ordu berean tenploko bela gainetik beherera bi erdi egin zen, ikharatu zen lurra, harriak arraildu ziren,

52. Hobiak zabaldu ziren, eta hilak ziren sailduen gorphutz hainitz biztu ziren;

53. Eta beren hobietarik ilkhirik, Jesus biztu ondoan, hiri saildura ethorri ziren, eta askori agertu zitzaizkoten.

54. Bada Ehuntariak eta harekin Jesusen zain zaudezenek ikhusi zituztenean lur ikhara eta bertze gerthatzen ziren guziak, izitu ziren bort-hizki, eta zerraten: Hau egiazki Jainkoaren Semea zen.

55. Urrundik, berriz, bazagoen han emazteki moltxo bat, Jesusi Galileatik jarraikia, hura zerbitzatuz.

56. Hekien artean ziren Maria Magdalena, Maria Jakoberen ama eta Josepena, eta Zebedeoren semeen ama.

57. Berriz, arratsa egin zenean, ethorri zen arimathiar gizon aberats bat, Josep deitzen zena, zeina baitzen hura ere Jesusen dizipulua.

58. Pilatori goan zitzaioen hura, eta galdatu zioen Jesusen gorphutza. Orduan Pilatok manatu zuen eman zakioen.

59. Eta gorphutza harturik, mihise xuri batean inguratu zuen Josepek.

60. Eta ezarri zuen, bere hobi berri, harkadian egina zuen batean. Eta harri handi bat anbildu zuen hobiaren ahora, eta goan zen.

61. Maria Magdalena berriz, eta bertze Maria han zauden, hobiaren aldean jarriak.

62. Bada, biharamunean, hura baitzen larunbat eguna, aitzindariak eta Farisauak batean goan ziren Pilatoren gana,

63. Ziotelarik: Jauna, orhoitu gare enganatzaile horrek, oraino bizi zelarik, erran izan duela: Bizturen naiz hirur egunen buruan.



64. Mana zazu beraz, hobia hirugarren eguneraino izan dadien zaindua; beldurrez-eta ethortez horren dizipuluak, eta ebats dezaten eta populuari derrotan: Hiletarik biztu da. Eta hala azken enganio lehenetik areagoa lizate.

65. Pilatok ihardetsi zioten: Badituzue zaintzaileak; zoazte, zain zazue zuen gogara.

66. Goan ziren beraz, eta segurtatu zuten hobia, harria zigilatuz eta zainak ezarriz.

XXVIII. KAP.

1. Bada, larunbat gauean, astearren lehenbiziko egunaren argitzean, Maria Magdalena eta bertze Maria ethorri ziren hobiaren ikhustera.

2. Eta hara lur ikhara gaitz bat egin zela. Ezen Jaunaren aingeru bat jautsi zen zerutik, eta hurbildurik itzuli zuen harria, eta haren gainean jarria zagoen.

3. Zen haren begithartea ximista iduri, eta jaunkura elhurraren pare.

4. Haren beldurrak laztu zituen zaintzaileak, eta egin ziren hilak bezala.

5. Bainan aingeruak, emaztekiei mintzatuz, erran zaroeten: Zuek ez izan beldurrik; badakit ezen Jesus gurutzefikatua izan denaren bilha zabil-tzatela.

6. Ez da hemen; biztu da ezen, erran zuen bezala. Zatozte, ikhusa-zue tokia, zeintan ezarri baitzuten Jauna.

7. Eta berehala goanez, haren dizipuluei errozue biztu dela; eta hara Galileara aitzinduko zaitzuela; han ikhusiren duzue; aitzinetik dema-tzuet berria.

8. Eta berehala ilkhi ziren hobitiek ikhara eta bozkario handirekin, las-ter eginez dizipuluei berriaren heltzera.

9. Eta hara Jesus aitzinera ethorri zitzaioleta, eta erran zioten: Agur zuei. Eta hekiek hurbildu zitzaizkon, besarkatu ziozkaten oinak, eta ado-ratu zuten.

10. Orduan erran zioten Jesusek: Ez izi; zoazte, errozue ene anaiei Galileara dihoazela; han ikhusiren naute.

11. Emaztekiak goan ondoan, zainetarik zenbait hirira ethorri ziren, eta gerthatu ziren guzien berria eman zaroeten aphezetako aitzindariei.

12. Eta haukiek zaharrekin bildurik, eta biltzar eginik, dirutze handi bat eman zaroten soldadoei,

13. Zerratelarik: Errazue haren dizipuluak ethorri direla gabaz, eta ebatsi dutela, zuek lo zinaztutenean.

14. Eta nabari baleza gobernadoreak, eskuraturen dugu eta gerizatu-ren zaituztegu.

15. Aldiz hekiek, dirua harturik, egin zuten irakhatsiak ziren bezala; eta orduan barraiatu zen solas horrek, Juduen artean egungo eguna arteo badirau.

16. Bada, hameka dizipuluak Galileara goan ziren, Jesusek erran izan zioten mendira.

17. Eta ikhusi zutenean Jauna, adoratu zuten; bainan baziren dudatu zirenak.

18. Eta hurbildurik, Jesus mintzatu zitzaioten erranez: Edozein ahal zeru-lurretan niri zait emana.

19. Zoazte beraz, irakhats zatzue jendaki guziak, bathaiatzten dituzuelarik Aitaren, Semearen eta Izpiritu sainduaren izenean;

20. Nik zuei manatu gauza guzien begiratzen irakhatsiz. Eta huna ni zuekin izanen naizela egun oroz, mendeen azkeneraino.



JESU-KRISTOREN EBANJELIO SAINDUA MARKEN ARABERA

I. KAP.

1. [...]
8. Nik uraz zaituztet bathaiatu; harek ordean bathaiaturen zaituzte Izpiritu sainduaz.
9. Eta gerthatu zen orduko egunetan Jesus ethorri zela Nazareth Galileakotik, eta Joanesek bathaiatu zuen Jordanean.
10. Eta uretik ilkhitzearekin batean, ikhusi zituen zeruak zabalduak, eta Izpiritua, uso bat iduri, jausten eta haren beraren gainean gelditzen.
11. Eta zerutik aditu zen mintzo bat: Zu zare ene seme maitea, zure baithan baitadukat ene gozoa.
12. Eta Izpirituak berehala eragin zioen morturat.
13. Eta egotu zen mortuan berrogoi gau-egunez; eta satanez tentatua zen, eta bizi zen basabereekin, eta aingeruek zerbitzatzen zuten.
14. Bada, Joanes preso arthikia izan zen ondoan, Jesus Galileara ethorri zen, Jainkoaren erresumaren Ebanjelioa erantzunez,
15. Eta zerralarik: Egunak betheak baitire eta Jainkoaren erresuma hurbildua, urrikitan sar zaituzte, eta sinheste Ebanjelioari emozue.
16. Eta Galileako itsas-bazterraz iragaiten zelarik, ikhusi zituen Simon eta Andres, haren anaia, itsasora sare arthikitzen (ezik arrantzariak ziren),
17. Eta erran zioten Jesusek: Zatozte ene ondotik, eta nik eginen dut gizon arrantzale bilhakaturen zaretela.
18. Eta berehala, sareak utzirik, jarraiki zitzaizkon.
19. Eta aitzinaxago goanik, ikhusi zituen Jakobe Zebedeorena, eta Joanes, haren anaia, untzi batean sare ontsatzen hari zirela.
20. Eta deithu zituen berehala. Eta beren aita Zebedeo untzian sari-tako langileekin utzirik, jarraiki ziren Jesusi.
21. Eta sartzen dire Kapharnaumen: eta larunbata baitzen, sinagogan sarthurik Jesus hari zitzaioten irakhasten.
22. Eta harritzen ziren haren irakhasmenaz; ezik irakhasten hari zitzaioten esku duena bezala, eta ez Iskribauen arara.
23. Eta hekien sinagogan bazen gizon bat izpiritu lohiak zadukana, eta oihu egin zuen,

24. Zerralarik: Zer da zure eta gure arteko, Jesus Nazaretharra? gure galtzera ethorri zare? Badakit nor zaren, Jainkoaren Saindua.
25. Eta Jesusek larderiatu zuen erranez: Mutu hadi, eta gizon horren baitharik ilkhi.
26. Eta gizona phorrokatuz eta orroa handi bat eginez, izpiritu lohia ilkhi zen haren ganik.
27. Eta ederretsiak zauden oro, haletan non elkharri galdeka hari baitziren erranez: Zer da hau? irakhasmen berri hau zer da? ezen eskudantziarekin manatzten diote izpiritu lohiei ere, eta entzuten dute.
28. Eta berehala hartazko haroak jo zuen Galileako herrialde guzia.
29. Eta ordu berean, sinagogatik ilkhirik, Jakoberekin eta Joanesekin ethorri ziren Simonen eta Andresen etxera.
30. Bada, Simonen amaginarreba ohean zatzen sukharrez erretzen; eta hartaz mintzatu zitzaizkon berehala.
31. Eta hurbildurik, eskutik hartu eta jaikarazi zuen; eta han berean utzi zuen sukharra, eta zerbitzatzen zituen.
32. Gero, arratsa egin zenean eta iguzkia etzan ondoan, Jesusi ekharzten ziozkaten eri eta debrudun guziak.
33. Eta hiri guzia athera bildua zagoen.
34. Eta sendatu zituen hainitz, asko eritasunez joak zirenak, eta irazi zituen hainitz debru, eta etzituen uzten erratera bazakitela nor zen.
35. Eta goizean goizik jaikirik, ilkhi zen eta goan toki mortu batera, eta han othoitzean zagoen.
36. Eta ondotik goan zitzaizkon Simon eta harekin zirenak.
37. Eta aurkhitu zutenean, erran zioten: Oro zure bilha dabiltza.
38. Eta ihardetsi zaroeten: Goazen hurbileko herri eta hirietara, han predika dezadan; ezen hortara naiz ethorria.
39. Eta hari zen predikatzen hango sinagogetan eta Galilea guzian, eta debruen khentzen.
40. Eta ethorri zitzaioen legentsu bat othoizka, eta belhaunikaturik erran zioen: Nahi baduzu, garbi nezakezu.
41. Bada, urrikaldurik, Jesusek hedatu zuen bere eskua, eta hura ukitutuz, erran zioen: Nahi dut, zaren xahu.
42. Eta erran orduko, legena goan zen berehala haren gainetik, eta garbitua gelditu zen.
43. Eta dixidatu zuen, eta berehala igorri,
44. Eta erran zioen: Berautzu nihori erran; bainan zoaz, ager zaite aphezen buruzagiari; eta zure xahupenaren arietan eskaint zatzu Moisesek manatu dituenak, lekhukotasunetan detzazten izan.



45. Bainan hura, ilkhi zeneko abiatu zen erantzuten, eta solasaren orotan barriatzen, haletan non Jesus ez baitzitakeen gehiago ageriki sar hirian, bainan kanpoan zagoen basa bazterretan, eta alde orotarik jendeak bazihoazen haren gana.

II. KAP.

1. Zenbait egunen buruan, berriz sarthu zen Kapharnaumen,
2. Eta nabaritu zuten etxean zela, eta hanbateko ostea bildu izan zen, non ez etxeak, ez-eta athe aintzinak ezin iduk baitzezazketen; eta erantzuten zioten Jainkoaren hitza.
3. Eta haren gana ethorri ziren gizon batzu, enblai bat zakhartena, lau lagunek hagetan ekhartzen baitzuten.
4. Eta nola aitzinera ezin eman baitzizoketen jende murruren ariaz, agertu zuten hura zagoen etxeko hegaztegia; eta zilho bat eginik, beheiti jautsi zuten ohea, zeintan baizatzen enblai.
5. Bada, Jesusek ikhusi zuenean hekien sinhestea, erran zioen enblaiari: Semea, barkhatuak zaizkitzu zure bekhatuak.
6. Han baziren, berriz, Iskribauetarik zenbait jarriak, eta beren bait-han zerasatenak:
7. Hau nolaz da horrela mintzo? burho egiten du. Nor da bekhatuak barkha detzazkeenik, baizik-ere Jainkoa bakharririk?
8. Jesusek ordu berean bere izpirituaz ezagaturik nolako gogoetak zerabiltzaten beren baithan, erraten diote: Zergatik alhatzen dituzue gogoeta horiek zuen bihotzetan?
9. Zer da errexago, enblaiari erratea: Barkhatuak zaizkitzu zure bekhatuak; ala erratea: Jaiki zaite, har zazu zure ohea, eta ibil zaite?
10. Bada, jakin dezazuen gizonaren Semeak lurraren gainean badue-la bekhatuen barkhatzeko eskua (enblaiari erraten dio):
11. Nik derratzut: Jaiki zaite, har zazu zure ohea, eta zoaz zure etxera.
12. Eta hura xutitu zen berehala; eta ohea harturik goan zen guzien aitzinean; eta oro harritzen ziren, eta goersten zuten Jainkoa, ziotelarik: Egundaino ez dugu holakorik ikhusi.
13. Eta berriz ilkhi zen itsas-aldera, eta populu guzia bazihoakion, eta argitzen zituen.
14. Eta iragaiten zelarik, ikhusi zuen Lebi Alpheorena, zerga bildegian jarria, eta erran zioen: Jarraik zakizkit. Eta xutiturik, jarraiki zitzaioen.

15. Eta gerthatu zen, gizon haren etxean jaten zatzalarik, hainitz zergazale eta bekhatore Jesusekin batean eta haren dizipuluekin mahainean zirela; ezik asko hari jarraikitzen ere ziren.

16. Eta Iskribauak eta Farisauak ikhustenez zergazale eta bekhatoreekin jaten zuela, erraten zioten haren dizipuluei: Zuen nausiak zertako jaten eta edaten du zergazale eta bekhatoreen baltsan?

17. Hori aditurik, Jesusek erran zioten: Osasundunek ez dute midiku beharrik, bainan bai gaizdunek; ez naiz alabainan prestuen deitzerat ethorri, bai ordean bekhatoreen.

18. Bada, Joanesen dizipuluak eta Farisauak barur egileak ziren; eta badathortzi, eta Jesusi erraten diote: Zergatik barurtzen dire Joanesen dizipuluak eta Farisauenak, eta zure dizipuluek ez dute barur egiten?

19. Jesusek ihardesten diote: Ezteiliarek barur egin othe dezakete jaun esposa hekiekin deno? Esposa duteno berekin, barurik egin ez dirote.

20. Bainan ethorriko dire egunak, zeinetan esposa khenduko baitzaio; eta orduan, egun hekietan eginen dute barur.

21. Philda ihetxeari nihork ez dio oihal berrizko pedaxurik ematen; bertzela berriak zaharrari khentzen dio bertze puska bat, eta zilhoa handiago egiten da.

22. Eta arno berria, nihork ez du zahagi zaharretan ematen; bertzela arnoak leherraraziko ditu zahagiak, eta arnoa ixuriko, eta zahagiak galduko dire; bainan arno berria, zahagi berrietan behar da ezarri.

23. Gerthatu zen berriz, Jauna larunbat egun batez iragaiten zelarik ogi landetarik, haren dizipuluak, bide nabar, hasi zirela ogi buru bihitzen.

24. Bada, Farisauak erraten zioten Jesusi: Horra, zertako egiten dute zilhegi ez dena?

25. Eta ihardetsi zioten: Ez duzue egundaino irakurtu zer egin izan zuen Dabidek behar orduan, hura eta haren lagunak gosetuak ziren batez?

26. Nola sarthu zen Jaunaren etxean, Abiathar aphez handiaren egunetan, eta berak jan zuen eta lagunei eman eskaintzako ogietarik, zeinen jatea aphezei baizik ez baitzaioite zilhegi?

27. Eta Jesusek erran zioten: Larunbata gizona gatik da egina, eta ez gizona larunbata gatik.

28. Aria hortaz, gizonaren Semea larunbataren ere nausi da.

III. KAP.

1. Eta Jesus berriz sarthu zen sinagogan, eta han bazen gizon bat esku iharrarekilakoa.



2. Eta Farisauek begiz zadukaten, hean larunbat egunarekin senda-tuko othe zuen, hartaz jazar ziozoten gero.
3. Eta Jesusek dio gizon esku-ihardunari: Jaiki zaite guzien erdira.
4. Eta Farisauei derrote: Larunbat egunez ongi egitea, ala gaizki egi-tea da haizu? biziaren ematea, ala khentzea? Eta ixilik zauden.
5. Eta hekiei inguruan hasarrerekin begiratuz; hekien bihotzeko itsu-tasunaz atsekabetan, gizonari erraten dio: Heda zazu eskua. Eta hedatu zuen, eta ontsatu zitzaioen.
6. Bada, handik ilkhirik, Farisauek berehala Herodestarrekin batzarre egin zuten haren kontra, hean nola galaraz othe zezaketen.
7. Bainan Jesus bere dizipuluekin aldaratu zen itsas-bazterrera; eta oste handia jarraiki zitzaioen Galileatik, Judeatik,
8. Jerusalemetik, Idumeatik, eta Jordanez hainditik; eta Tirreko eta Sidongo inguruetakoez nabariturik harek egiten zituen guziak, jendetze handi bat ethorri zen haren gana.
9. Eta bere dizipuluei erran zioten, iduk ziozoten untzixka bat, har-taz baliatzeko ostearen ariaz, lehertua ez izateko.
10. Ezik hainitz sendatzen zituen, haletan non zerbait gaitz zutenak oldarrean gainera baitzihozkion, hura ukitu beharrez.
11. Eta izpiritu lohiak ahuspekatzen zitzaizkon, ikhusten zutenean, eta oihuka erraten ziotelarik:
12. Zu zare Jainkoaren Semea. Eta gogorki larderiitzen zituen, nor zen etzezaten salha.
13. Eta mendi batera igaitean, deithu zituen berak nahi zituenak, eta goan zitzaizkon.
14. Eta hamabi egin zituen berekilako, eta predikatzera igortzeko.
15. Eta eman zioten gaitzen sendatzeko eta debruen irazitako ahala:
16. Eta Simoni eman zioen izena Piarres.
17. Bertzeak ziren Jakobe Zebedeorena, eta Joanes Jakoberen anaia, eta deithu zituen Boanerjes, erran nahi baita, Ihurtzuriaren semea;
18. Eta Andres, eta Filipe, eta Bartholome, eta Mathiu, eta Thomas, eta Jakobe Alpheorena, eta Thadeo, eta Simon Kanaandarra,
19. Eta Judas Iskariot, zeinak, saldu baitzuen.
20. Eta itzuli ziren etxerat, eta berriz bildu izan zen oste bat gaitza, haletan non jateko arterik ere ez baitzuketen.
21. Eta Jesusen ahaideek aditu zutenean, ethorri ziren haren hartze-
ra, ezik zioten, burutik jauzia zela.
22. Eta Jerusalemetik jautsi ziren Iskribauek erraten zuten: Beelzebubek hartua da, eta debruen buruzagiak irazten ditu debruak.

23. Eta Jesusek deithurik, hitz estalitan erraten zioten: Nolaz satanek iraz dezake satan?
24. Eta erresuma bat bi aldetara badago, erresuma harek ez dezake iraun.
25. Eta etxe bat bere kontra bi aldetara badago, etxe harek ez deza-
ke iraun.
26. Eta baldin debrua bere buruaren kontra jauzten bada, bi aldeta-
ra dago, ez dirauke eta akhabatzera dihoa.
27. Nihork ez diotzozke gizon hazkarrari, etxean sarthurik, dituenak eraman, non ez duen lehenik estekatzen bera, eta orduan biluziren dio etxea.
28. Egiaz derratzuet nik, gizonen umeei barkhaturen zaizkotela bek-
hatu guziak eta egin dituzketen burhoak;
29. Bainan Izpiritu sainduaren kontra burho arthikitzen duenak ez du nihoiz-ere barkhamendurik izanen; bainan hobendun izanen da bethi-
rainoko hobenez.
30. Ezen hekiek zioten: Gaixtoa du berekin.
31. Eta ethorri ziren haren ama eta anaiak; eta kanpoan xutik zaude-
larik, norbait bidali zioten deitzera.
32. Eta ostea haren inguruan jarria zen, eta erran zaroten: Hor daude
zure ama eta zure anaiak athean zure galdez.
33. Eta ihardestean, erran zuen: Nor dire ene ama eta anaiak?
34. Eta bere inguruan jarriak zituenen gainean begiak erabiliz, erran
zuen: Huna ene ama eta ene anaiak.
35. Alabainan edozeinek egin dezan Jainkoaren nahia, haina da ene
anaia, eta ene arreba, eta ene ama.

IV. KAP.

1. Eta berriz ere irakhasten hasi zen itsas-bazterrean, eta bildu zen haren gana hanbateko ostea, non untzi batera iganik, itsasoan jarri baitzen eta oste guzia itsas-hegian leihorretik ziagon.
2. Eta paraboletan asko gauza irakhasten, eta bere irakhaspenean erraten zioten:
3. Adi zazue: Hara erailea eraitera ilkhi zela.
4. Eta eraiten hari zelarik, hazialde bat bide bazterrera zen erori, eta ethorri ziren zeruko xoriak eta jan zuten.
5. Bertze bat berriz, erori zen toki harritsueta, zeinetan ez baitzuen lur hanbat; eta atheratu zen berehala, lurra etzuelakotz barnatasunik.



6. Eta iguzkia ilkhi zenean, erre zuen; eta errorik ez baitzuen, ihartu zen.
7. Eta bertze bat erori zen lapharretara; eta lapharrak handitu ziren, eta itho zuten, eta etzuen fruiturik ekharri.
8. Eta bertze bat erori zen lur onera, eta ekharri zuen burua, zeina goratu eta larritu baitzen, eta erran zuen, zeinak hogoi eta hamar bihi, zeinak hirur hogoi, eta zeinak ehun.
9. Eta Jesusek erran zioten: Beharrik duenak aditzeko, adi beza.
10. Eta baxharrik izan zenean, harekin ziren hamabiek galdatu zioten zer zen parabola hori.
11. Eta ihardetsi zioten: Zuei mana izan zaitzue ezagutzea Jainkoaren erresumaren misterioa; bainan kanpokoentzat, hitz estalitan dihoaz oro;
12. Ikhusten dutelarik, egin dezaten ikhus eta ez ohar; eta aditzen dutelarik, adi eta ez ardiets, arren-eta ez ditezen onera bihur eta beren bekhatuak ez dakizkioten barkha.
13. Erran zioten gero: Ez duzue parabola hori aditzen? nola beraz ardietsiren dituzue bertze guziak?
14. Eraileak, hitza eraiten du.
15. Bide bazterrekoak, hainak dire zeinen baithan eraiten baita hitza; eta aditu duteneko, berehala dathor debrua, eta badarama hekien bihotzetan eraina zen hitza.
16. Halaber, toki harritsueta eraiten zaiotenak, hainak dire, zeinek hitza aditu bezain sarri, berehalakoan bozkarioz onhesten baitute;
17. Bainan beren baithan ez dute erroaren lekhurik, ordutiar dire; gero hitzaren ariaz hestura eta jazarpen zerbait ethorri deneko, behaztopatzen dire.
18. Eta bertzeak, elhorrietara eraiten zaiotenak, hainak dire zeinek entzuten baitute hitza,
19. Eta mendeko ardurek, eta aberastasunetarikako liluramenduek, eta bertzeen gainera, zalekeriek, barnera sarthuz, ithotzen dute hitza, eta deus ekhartzetik debekatzen.
20. Eta hainak dire lur onean erain zaiotenak, zeinek aditzen baitute hitza, eta onhesten, eta fruitu ekhartzten, batak hogoi eta hamar, bertzeak hirur hogoi, eta bertzeak ehun.
21. Eta erraten zioten: Kriselua bizten othe da gaitzerupean edo ohearen azpian ezartzeko? ala ez othe ganderailuaren gainean emateko?
22. Alabainan deus ez da gorderik agerturen ez denik; eta ixilik deus ez da egin, guzien aitzinerako ez denik.
23. Aditzeko beharrik duenak, adi beza.

24. Eta erraten zioten: Burutan har zazue entzuten duzuen. Zer-ere neurritz neurtu baitukezue, hartaz neurturen zaitzue zeroniri, eta populu-rekin.

25. Ezen dunari emanen zaio; eta ezdunari, dukeentto hura ere khenduko.

26. Eta erraten zioten: Da Jainkoaren erresumaz, lurrera hazi arthitzen hari den gizonaz bezala.

27. Dagoen lo, ala jaikirik, gau eta egun ibil dadien; hazia sortzen eta handitzen da, harek ez dakielarik.

28. Ezen lurak berenez ematen du lehenik belharra, gero burua, eta gero ogia, buruaren bethe.

29. Eta fruituak egin dukeenean bere indarra, ihitegia berehala ezartzen zaio, zeren uztaro baita.

30. Eta erraten zuen: Zeren iduriko emanen dugu zeruko erresuma, edo zer itxurapenen bardin?

31. Iduri duke mustarda bihia, zeina lurrean diren hazi guzietarik xeheena baita eraiten denean;

32. Eta erain ondoan igaiten eta bertze baratzekhari guziak baino larriago egiten baita; eta adarrak egiten ditu hain handiak, non zeruko xoriak haren itzalean egon baititazke.

33. Eta holako asko paraboletan atheratzen zioten solasa, adi zeza-keten heinean;

34. Etzizaioten ordean parabolarik gabe mintzatzen; bainan bere dizipuluei, bakhartasunean xehatzen zaroezten guziak.

35. Eta egun hartan, ilhundirian erran zioten: Goazen uraz haindira.

36. Dizipuluek igorririk populua, eta untzian zen bezala, eraman zuten; eta bertze untziak harekin baziren.

37. Eta egin zen haize xirimola handi bat, eta jauzarazten zituen uhinak untzi barnera, haletan non untzia bethetzen hari baitzen.

38. Eta bere untzi-burukitan zagoen, bururdi baten gainean lo. Eta atzartzen dute, eta erraten diote: Nausia, galtzera goaz, eta etzaitzu axola?

39. Eta jaikirik, larderiatu zuen haizea, eta itsasoari erran zioen: Ixil hadi, mutu hadi. Eta baratu zen haizea, eta jabaldura handi bat egin zen.

40. Eta erran zioten Jesusek: Zeren zarete beldurti? Ez duzue bada sinheterik oraino? Eta lastura gaitzaz hartuak ziren eta zioten elkharri: Nor othe da hau, haizeak eta itsasoak entzuten baitute?

V. KAP.

1. Eta goan ziren itsasoz haindira, Jerasatarren eremuetara.



2. Eta Jesus untzitik ilkhi orduko, hobietarik aitzinera agertu zitzaioen izpiritu lohiak zadukan gizon bat,
3. Zeinak hobietan baitzuen bere egoitza; eta nihork etzezakeen burdinaz ere estekaturik iduk;
4. Ezen oin burdinaz eta gathez askotan lothua izanik, trenkatu zituen gatheak, eta oin burdinak xehakatu, eta nihork etzezakeen zeba.
5. Eta bethi hobietan eta mendietan zabilan gau eta egun oihuka eta bere burua harriekin sakhituz:
6. Bada, urrundik ikhustearekin Jesus, laster egin zuen, eta adoratu zuen;
7. Eta heiagoraka erran zuen: Zer da zure eta ene artean, Jesus, Jainko guziz goraren Semea? Jainkoaren izenaz errekeitzen zaitut, ez nezazun oinhazta.
8. Ezen Jesusek erraten zioen: Gizon hortarik ilkhi hadi, izpiritu lohia.
9. Eta galdatzen zioen: Zer duk izena? Eta ihardesten dio: Araldea da ene izena, zeren asko garen.
10. Eta othoitz errekeika hari zaion, aurkhintzatic etzezan iraz.
11. Bada, han bazen urdalde bat alhan mendi ingurunean.
12. Eta izpirituak othoizka hari zitzaizkon erranez: Urdeetara igor gaitzatu, barnera sar gatzazkioten.
13. Eta berehala Jesusek onhetsi zioten. Eta ilkhirik, izpiritu lohiak urdeetan sarthu ziren, eta aralde guzia tarrapata gaitzean itsasora jauzi zen, bi mila bururen ingurutsua, eta itsasoan itho ziren.
14. Hekien alharazleek berriz, ihes egin zuten, eta berria heldu zuten hirira eta bazterretara. Eta jendea ilkhi zen ikhustera zer zen gerthatu;
15. Eta heldu dire Jesusen gana, eta ikhusten dute debruak oinhazetan zerabilkan hura, jarria, soinekoz jauntzia, eta adimendu onean; eta izatu ziren.
16. Eta ikhuselek erran zaroeten nola zitzaioten gerthatu debrudun izatuari eta urdeei.
17. Eta othoizka abiatu zitzaizkon, goan zadien hekien eremuetarik.
18. Eta untzira igaiten zelarik Jesus, debruaz erabilia izatu gizona hall zitzaioen errekeika utz zezan harekin.
19. Eta etzuen onhetsi, bainan erran zaroen: Zoaz zure etxera, zure ahaideetara, eta ezagutaraz diozozute zenbateko gauzak egin dituen zuretzat Jaunak, eta nola zaitzun urrikaldu.
20. Eta goan zen, eta Dekapolisean erantzuten abiatu zen nolako ongiak egin izan ziozkan Jesusek; eta guziak ederretsiak zauden.

21. Eta Jesus untzian berriz iragan zenean hunaindira, eta itsashegian zelarik oraino, oste handi bat bildu zen haren gana.
22. Eta sinagoga buruzagietarik bat, Jairo deitzen zena, ethorri zen, eta ikhusek Jesus, erori zitzaioen oinetara.
23. Eta minki zuen othoizten erranez: Azken hatsetan baitut ene alaba, zato, ezarrozu eskua gainean, senda dadien eta bizi.
24. Jesus goan zen harekin. Oste gaitza zarraikion eta hertsatzen zuten bidean.
25. Eta emazteki bat, hamabi urthe hartan odol galtze batekin zena,
26. Eta asko midikutarik hainitz jasan, eta bere izate guzia, hoberik izan gabe xahutu, eta aitzitik kalte gehiago izan zuena,
27. Jesusez aiphatzen aditurik, jendepean goan zen gibeletik, eta ukitu zioen soinekoa;
28. Bazerran ezik: Soinekoa bederen ukituko badiot, sendatua naiteke.
29. Eta han berean agortu zitzaioen odol jaria, eta bere baithan eza-gutu zuen bere gaitzetik sasualdua zela.
30. Hainbertzenarekin Jesusek bere baithan ezagaturik bere ganik ilkhi zitzaioen indarra, itzuli zen osteari buruz, eta erran zuen: Nork ukitu ditu ene soinekoak?
31. Eta bere dizipuluek ihardetsi zioten: Zure burua ikhusten duzu osteaz hertsatua, eta diozu: Nork ukitu nau?
32. Eta inguruka begira zagoen, hori egin zuenaren ikhusteko.
33. Orduan emaztekoa, beldurrez eta ikharan, baitzakien zer gerthatu zitzaioen bere baithan, ethorri eta Jesusen oinetara erori zen, eta aithortu zioen egia guzia.
34. Bainan Jesusek erran zioen: Ene haurra, zure sinhesteak salbatu zaitu; zoaz bakean eta zaren zure gaitzetik osagarritan.
35. Oraino mintzo zelarik, sinagoga buruzagiari ethorri zitzaizkon erratera: Hil da, zure alaba; zertako akhiaz gehiago Nausia?
36. Bainan Jesusek aditurik hekien solasa, erran zioen sinagoga buruzagiari: Ez izan beldurrik; bakharrak idukazu sinheste.
37. Eta berari jarraituzera etzuen nihor utzi, baizik-ere Piarres, Jakobe eta Joanes, Jakoberen anaia.
38. Eta sinagoga buruzagiaren etxera badoazi, eta Jesusek han ikhusten du buila bat, eta nigar eta heiagora handitan zaudela.
39. Eta sarthurik erraten diote: Zer ditutzue asaldu eta marraska horiek? nexka ez da hila, bainan lo dago.



40. Eta hekiek irri egiten zioten. Jesusek ordean guziak ilkhiazirik, hartzen ditu haurren aita eta ama, eta berekin zituenak, eta haurra batzuan tokira sartzen da.

41. Eta eskutik harturik haurra, erraten dio: Talitha kumi; erran nahi baita: Neskatxa, (zuri nago) jaiki zaite.

42. Eta ordu berean nexka jaiki zen eta bazabilan; ezik hamabi urthe bazituen; eta guziak harritu ziren ezin gehiago.

43. Eta zorrozki manatu zioten, nihor etzadien hortaz jakintsun izan, eta erran zuen jatera eman ziozoten haurrari.

VI. KAP.

1. Jesus, ilkhirik handik, goan zen bere herrira, eta ondotik zituen bere dizipuluak.

2. Eta larunbata ethorri baitzen, abiatu zen sinagogan irakhasen; eta entzutean, asko espantitzen ziren haren irakhasmenaz, ziotelarik: Nondik dathorzkio horiek guziak? eta nolakoak dire huni emana zaioen zuhurtzia eta hunen eskuz egiten diren sendagaila horrenbatekoak?

3. Hau ez othe da dakigun zurgina, Mariaren semea, Jakoberen, Josepen, Judaren eta Simonen anaia? horren arrebak ere ez othe dire gut-hartean? Eta gaizkira behaztopatzen ziren haren ariaz.

4. Eta Jesusek erraten zioten: Profeta ez da ohoratua izan gabe, baik-ere bere herrian, bere etxean eta bere ahaidegoan.

5. Eta han ezin egin zuen sendagailarik batere, non-ez eri bakhar batzu sendatu zituela, eskuak gainean ezarriz.

6. Eta hekien sinhesogortasunaz harritzen zen, eta bazabilan inguruetako herrietan irakhatsiz.

7. Eta deithu zituen hamabiak, eta birazka hekien igortzen abiatu zen, eta eman zaroeten izpiritu lohien gaineko eskua.

8. Eta manatu zioten deusere bidekotzat makhila baizik etzezaten eraman, ez murtxila, ez ogi, ez-eta dirurik gerrikoan;

9. Bainan goan zitezen oinetakoak soinean, eta bi xamar hartu gabe.

10. Eta erraten zioten: Edozein etxetan sar zaitezten, zaudezte hartan, tokitik ilkhi arteo.

11. Eta edozeinek etzezazten ez onhets, ez entzun, handik goatean iharrosazue zuen oinetako herrautsa, hekien kontrako lekhukotasunetan.

12. Eta ilkhirik erantzuten zuten, batbederak urrikiari ziozon eragin;

13. Eta iraitzen zuten debru hainitz, eta eri asko olioz gantzutzen eta sasualtzen zituzten.

14. Bada, Herodes erregeak nabaritu zuen Jesusez (ezik lelotan zen haren izena), eta erraten zuen: Hiletarik biztu da Joanes Baptista, eta hartatik egiten dire haren eskuz sendagailak.

15. Berriz, bertze batzuek zioten: Elias da; bertze batzuek aldiz: Profeta da, beihalako profetatarik bat bezalakoa.

16. Horiek aditurik, Herodesek erran zuen: Nik lephoa motzarazi nioen Joanes hura da hiletarik biztua.

17. Ezen Herodesek berak igorri izan zuen Joanesen hartzera eta iduki zuen preso burdinetan, Herodias, bene anaia Filiperen emaztea gatik, zeina berak hartu baitzuen andretzat.

18. Alabainan Joanesek erraten zioen Herodesi: etzaitzu zilhegi zure anaiaren emaztea idukitzea.

19. Herodias horren gatik, Joanes galdu beharrez zabilan, eta hilara-zi nahi zuen, bainan etzezazten;

20. Zeren Joanesen beldur baitzen Herodes, zakielakoz gizon prestu eta saindua zela; eta zaintzen zuen; egiten ere zituen asko gauza haren erranetik, eta gogo onez entzuten zuen.

21. Bada, egun egoki bat gerthaturik, Herodesek bere sorteguneko afaria eman zioten kargudun, aitzindari eta Galileako handi-mandiei.

22. Eta nola Herodiasen alaba sarthu baitzen eta dantzatu, eta Herodesi eta batean haren barazkaltiarrei egin baitzaroeten atsegin, erregek neskatxari erran zioen: Nahi dukezuna galda dizadazu, eta emanen darotzut.

23. Eta zin egin zioen huneletan: Edozein gauza galda dizadazun, emanen darotzut, balitz ere ene erresumaren erdia.

24. Eta ilkhirik, neskatxak erran zioen bere amari: Zer galdeginen dut? Eta hunek ihardetsi zioen: Joanes Baptistaren burua.

25. Eta berehala herresakan sarthurik erregeren aitzinera, galde hau egin zioen: Nahi dut azpil batean orai berean eman dizadazun Joanes Baptistaren burua.

26. Erregek atsekabe hartu zuen; bainan zin egin zuelakoz, eta batean bere bestaliarren ariaz, damurik etzioen egin nahi izan;

27. Aitzitik bere zainetarik bat igorri zuen manaturik azpil batean ekhar zezan Joanesen burua. Eta harek lephoa moztu zioen presondegian,

28. Eta burua ekharri zuen azpilean, eta neskatxari eman, eta neskatxak bere amari.

29. Hori aditurik, Joanesen dizipuluak ethorri ziren, eta haren gorp-hutza hartu, eta hobi batean ezarri zuten.



30. Bizkitartean Jesusen gana bildurik, Apostoluek jakintsun egin zuten egin eta irakhatsi zituzten guziez.

31. Eta Jesusek erran zioten: Bazterrerat zathozte mortu toki batera eta phausu aphur bat har zazue. Etzuten alabainan, ostearen goan-ethorrien erdian, jateko astirik ere.

32. Eta untzi batera iganik, goan ziren bakharrik mortu toki batera.

33. Bainan batzuek ikhusi zituzten goaten, eta askok nabaritu, eta oinez hiri guziatarik laster egin zuten harat, eta aitzindu zituzten.

34. Eta untzitik jaustean, Jesusek ikhusi zuen oste handi bat, eta urrikaldu zitzaioten, zeren ziren artzain gabeko ardiak iduri, eta abiatu zen hekiei asko gauzaren irakhasten.

35. Eta nola orduko, berantzen hari baitzen, dizipuluak hurbildu zitzaizkon, ziotelarik: Mortu tokia da hau, eta jadanik goan da eguna.

36. Igorratzu beraz goantezen hurbileko herri eta herrixketara, zerbait jateko eros dezaten.

37. Eta ihardestean, Jesusek erran zioten: Zuek emozuete jatera. Hekiek erran zioten: Goazen, eros dezagun berrehun denarioren ogia, eta emanen daroegu jatera.

38. Eta Jesusek galdatzen diote: Zer ogi duzue? zoazte, eta ikhusazue. Eta jakin ondoan, erraten dute: Bortz ogi eta bi arrain.

39. Orduan manatu zioten, jarraraz zetzazten guziak, zein bere lagunekin, sorropil ferdearen gainean.

40. Eta jarri ziren andanaka, ehunka eta berrogoi eta hamarka.

41. Jesusek hartu zituen bortz ogiak eta bi arrainak, eta zerura goitituz begiak, benedikatu zituen; eta ogiak hautsirik, eman ziozkaten bere dizipuluei, ezar zetzazten hekien aitzinean, eta bi arrainetarik ere eman zaroeten guziei.

42. Eta guziek jan zuten, eta ase ziren.

43. Eta ogi ondarretarik eta arrainetarik goititu ziren hamabi saskitara.

44. Bada, jale baziren bortz mila gizon.

45. Eta berehala iganarazi zituen untzira bere dizipuluak, aitzina har zezaten itsasoz haindira, Bethsaidako aldera, berak populua gibelerat igorriko zuen artean.

46. Eta hura igorri ondoan, bera mendira goan zen othoitz egitera.

47. Eta ilhundu zenean, untzia itsasoaren erdian zen, eta Jesus bakharrik leihorrean.

48. Eta ikhusirik arrau indarka nekhatzen zirela (ezik luian zen untzia), gauazko laugarren beilaren inguruan ethorri zitzaioten itsasoaren gainean ibiliz, eta aitzindu nahi zituen.

49. Bainan hekiek itsasoaren gainean ikhusi zutenean ibiltzen, uste izan zuten zerbait mamu zela, eta izkirituka hasi ziren;

50. Alabainan orok ikhusi zuten, eta asalatu ziren. Eta mintzatu zitzaioten berehala, eta erran zioten Deskantsa zaitzte, ni naiz, ez izi.

51. Eta hekien gana igan zen untzira, eta baratu zen haizea; eta are gehiago harrituak zauden beren baithan.

52. Ezik etzuten ezagutu ogietan gerthatu zena,itsu baitzen hekien bihotza.

53. Eta itsasoa iragan zutenean, jo zuten Jenesaretheko lurra, eta leihorrera igan ziren.

54. Eta untzitik atheratu zireneko, jendeek ezagutu zuten Jesus;

55. Eta ephaitza guzia gairi ibiliz, eriak beren oheetan alde orotarik inguruan ekhartzen abiatu ziren, hura aurkhitzen zela aditzen zuten tokira.

56. Eta non-nahi sar zadien, herri, herrikka edo hiri, plazetara atheratzen zituzten eriak, eta othoizten zuten, utz ziozoten bere soinekoaren litsa bederen ukitzera, eta ukitzen zutenak oro sendatzen ziren.

VII. KAP.

1. Eta Farisauak eta Iskribau zenbait, Jerusalemdik zathortzenak, bildu ziren Jesusen gana.

2. Eta ikhusirik haren dizipulu batzu, jateko ogiaren hartzen, arronteko eskuekin, erran nahi da garbitu gabeekin, erasia egin zuten.

3. Alabainan Farisauak eta Judu guziek ere, ez dute jaten, non ez dituzten eskuak maiz xahutzen, zaharren irakhaspenaren arabera;

4. Eta plazatik dathortzenean, ez dute jaten, lehenik garbitu gabe; eta badituzte bertze asko eginbide begiratzera emanak zaizkotenak; ophor, pitxer, diphina eta ohe xahuketak.

5. Eta Farisau eta Iskribauek galdatzen zioten Jesusi: Zure dizipuluak nolaz ez dabilta aitzinekoen irakhaspenaren arabera, aitzitik arronteko eskuekin jaten dute ogia?

6. Aldiz Jesusek ihardestean, erran zioten: Isaiasek ongi profetisatu du zuetaz, itxuralariak, iskribatua denaren arabera: Populu horrek ezipainez nau ohoratzen, bainan horien bihotza urrun dago ni ganik.

7. Hutsalki naute ohoratzen, gizonetarikako irakhaspen eta manamenduak irakhatsiz.



8. Ezen Jainkoaren manamendua bazterrerat utziz, gizonen ganika-ko irakhaspenari zatxeizkote, pitxer eta ophor xahutzei; eta horrelako bertze asko duzue egiten.

9. Eta erraten zioten: Bai ederki alfer eragiten duzue Jainkoaren manamendua, zuen ohitzaren begiratzeko.

10. Alabainan erran izan du Moisesek: Ohora zatzu zure ait-amak. Eta hau ere: Aitari edo amari ahapaldi arthikiren dioena, heriotzez izan bedi hila.

11. Zuek derrazue aldiz: Aski da gizon batek aitari edo amari erraten badio: Nik Jainkoari egin Corbana (erran nahi da emaitza), baliaturen zaitzu.

12. Eta ez duzue gehiago uzten deusen egitera bere aitaren edo ama-arentzat,

13. Horreletan ezeztatuz Jainkoaren hitza, zeronek ezarri duzuen aztura baten bidez; eta bertze horrelako asko duzue egiten.

14. Eta populua bere gana berriz deithurik: erraten zaroen: Entzun nezazue guziek, eta adi nezazue ongi.

15. Deusere ez da gizonaren kanpotik haren barnera sartzen denik, zeinak hura baitezake khutsa; bainan gizonaren baitharik ilkhitzen direnak, hekiek dire hura khutsatzen dutenak.

16. Aditzeko nihork balin badu beharirik, adi beza.

17. Gero, populua utzirik, etxerat sartu zenean, bere dizipuluek gal-datzen zioten, zer erran nahi zuen parabola horrek.

18. Eta ihardesten diote: Zer! zuek ere horren adimendu aphurreko-ak zarete? Ez duzue bada ardiesten zer-nahi kanpotik gizonaren barnera sar dadien, ezin khutsa dezakeela;

19. Zeren ez den haren bihotzean sartzen, baizik-ere sabelean, eta gero jan hari guzien xahukina zokho batean uzten baita?

20. Erraten zioten, berriz, gizonaren beraren ganik ilkhitzen direnek, hekiek khutsatzen dutela gizona.

21. Ezen barnetik, gizonen bihotzetik dathortzi asmu tzar, neskatxe-kin eta bertzeen emazteekin khutsatze, gizon hiltze,

22. Ohorgo, jaramankeria, gaixtakeria, zimarkhu, lohikeria, bekhaz-go, burho, burgoikeria, zorokeriak.

23. Gaizki horiek oro barnetik dathortzi, eta gizona dute khutsatzen.

24. Eta handik jaikirik, goan zen Tirreko eta Sidongo hegaletara; eta etxe batean sarthua, etzuen nahi izan nihork jakin zezan, bainan ezin gorde zen;

25. Ezen emazteki batek, zeinaren alabak baitzuen izpiritu lohia, aditu zueneko Jesus han zelako aiphua, sarthu zen eta haren oinetara erori.

26. Bada, emaztekoa paganoa zen, eta sortzez Sirophenziarra. Eta errekeitzen zuen, alabaren baitharik iraiz zezon debrua.

27. Jesusek erran zioen: Utzatu lehenik asetzera haurrak; ezen ez da ongi hurren ogiaren hartzea, eta zakhurrei arthikitzea.

28. Harek berriz, ihardetsi eta erran zioen. Hala da, Jauna; xakhur-ttoek ere ordean mahain azpian jaten dute hurren paporretarik.

29. Eta Jesusek erran zioen: Zoaz, debrua hitz horren ariaz ilkhi da zure alabaren ganik.

30. Eta etxera goan zenean, atzeman zuen neskatxa ohean etzana, eta debrua ilkhi zela.

31. Jesus, berriz atheraturik Tirreko aurkhintzetarik, Sidonen gaindi ethorri zen Galileako itsas-aldeetara, Dekapolisako eremuak barna.

32. Eta erakhartzen diote gizon bat gor eta mutua; eta othoizten zuten, eskua eman ziozon gainean.

33. Eta ostetik bazterrerat harturik, Jesusek bere erhiak beharrietan ezarri ziozkan, eta ahogozoz ukitu zioen mihia;

34. Eta zerura begiraturaz, hasgorapen batekin erran zuen: Ephphetha, erran nahi baita: Idek hadi.

35. Eta han berean haren beharriak ideki ziren, amor egin zuen haren mihiko lokharriak, eta mintzo zen garbiki.

36. Eta manatu zioten etzezatzen nihori erran; bainan zenbatenez harek debekatuago, eta hanbatenez gehiago erantzuten

37. Eta gehiago ederresten zuten, ziotelarik: Guziak ongi egin ditu, gorrei adia eman diote eta mintzarazi ditu mutuak.

VIII. KAP.

1. Orduko egunetan, nola bertze behin ostea handia baitzen, eta ez baitzuten zer jan, Jesusek deithurik bere dizipuluak, erran zioten:

2. Urrikaltzen zait populu hau; ezen huna jadanik hirur egun ez nau-tela uzten, eta jatekorik ez dute;

3. Eta barurik igor banetza beren etxetara, ahi laizteke bidean; badi-re ezen horietan urrundik ethorriak direnak.

4. Dizipuluek ihardetsi zioten: Nork eta nondik horiek ogiz ase hemen, mortu huntan?

5. Jesusek galdegin zioten: Zenbat ogi ditutzue? Ihardetsi zuten: Zazpi.



6. Orduan osteari manatu zioen jar zadien lurrean; eta harturik zazpi ogiak, eta eskerrak bihurturik, hautsi zituen eta bere dizipuluei eman, populuairen aitzinean ezartzeko, eta ezarri zituzten.

7. Eta bazituzten arraintto bakhar batzu, eta benedikatu zituen, eta emanarazi.

8. Eta jan zuten, eta ase ziren; eta gelditu pusketarik, goititu zituzten zazpi saskitara.

9. Baziren bada jan zutenak, lau milaren heina; eta etxerat igorri zituen.

10. Eta berehala, untzi batera iganik bere dizipuluekin, ethorri zen Dalmanuthako eremuetara.

11. Eta Farisauak atheratu zitzaizkon eta ihardukitzen abiatu, galdatuz, haren frogotzea gatik, zerutikako zerbait ezagutkari.

12. Jesusek barnetik hasbeherapen bat atheratuz, erran zuen: Gizalde hau zergatik dago ezagutkari galdez? Egiaz derratzuet, ala ematen bazaio gizalde huni ezagutkaririk.

13. Eta hekiek utzirik, berriz igan zen untzira, eta itsasoz haindira goan zen.

14. Bada, dizipuluei ahanzi zitzaioten ogien hartzea, eta bat bakharra baizik etzuten untzian berekin.

15. Eta Jesusek manatzen zituen, hunela mintzatuz: Zaudezte erne, eta begira zaitezte Farisauen altxagarritik eta Herodesen altxagarritik.

16. Eta beren artean gogoeta eginez, erraten zuten: Ogirik ez dugulakoz mintzo da.

17. Hori ezaguturik, Jesusek erran zioten: Zer dituzue gogoeta horiek, ogirik ez duzuela? zer, ez duzue oraino ez ezagutzarik ez adigarrik? itsu duzue oraino bihotza?

18. Begiak izan eta ez duzue ikhusten? beharriak izan eta ez duzue aditzen? eta etzarete orhoitzen ere?

19. Bortz ogi hautsi naroztenean bortz mila gizoni, zenbat saski pus-kaz betheak goititu zintuzten? Eta diote: Hamabi.

20. Eta zazpi ogi hautsi diozkatenean lau mila gizoni, pusketarik zenbat saski altxatu dituzue? Zazpi, diote.

21. Orduan erran zaroeten: Nolaz ez duzue aditzen oraino?

22. Eta goan ziren Bethsaidara, eta Jesusi erakhartzen diote itsu bat, eta othoizten zuten uki zezan.

23. Itsua eskutik hartu eta hiriz kanporat eraman zuen; eta ahogozoz haren begiak hezatzuz eta eskuak gainean emanez, galdegin zioen, zerbait ikhusten zuenez.

24. Eta harek begiratuz, erran zuen: Gizonak arbolak iduri ikhusten ditut badabiltzala.

25. Gero Jesusek berriz ezarri ziozkan eskuak begietan, eta gizona hasi zen ikhusten; eta sendatua izan zen, hala non garbiki ikhusten baitzituero.

26. Eta Jesusek bere etxerat igorri zuen erranez: Zoaz zure etxerat, eta herrian sartzen bazare, nihori ez erran hunelakorik.

27. Eta Jesus ilkhi zen handik bere dizipuluekin Filiperen Zesareako herrietara, eta bidean galdeka haritu zitzaioten bere dizipuluei erranez: Gizonek nor naizela diote?

28. Hekiek ihardetsi zuten: Joanes Baptista, bertze batzuek berriz Elias, bertzeek aldiz profetetarik bat bezalakoa.

29. Orduan berei erraten diote: Zuek berriz, nor naizela diozue? Piarresek ihardetsiz erraten dio: Kristo zare zu.

30. Eta larderiarekin debekatu zioten, hartaz etziozoten nihori holarikorik erran.

31. Eta abiatu zen hekien argitzen, nola beharko zuen gizonaren semeak hainitz egarri; zaharrez, aphez nausiez eta Iskribauetz arbiuiatua izan; heriotzea jasan, eta hirur egunen buruan berriz biztu,

32. Eta garbiki mintzo zitzaioten. Eta bazterrerat harturik, Piarres erantzukika abiatu zitzaion.

33. Jesusek, itzulirik, eta dizipuluei begiratuz, larderiatu zuen Piarres erranez: Gibelerat egik, satan; zeren Jainkoaren gauzez ez haizen zale, bainan bai gizonenez.

34. Eta dizipuluekin ostea deithurik, erran zioten: Nihor jarraiki nahi bazait, bere buruari ukho egin biozo, soinera har beza bere gurutzua, eta jarraik bekit.

35. Ezen bere burua begiratu nahiko duenak, galduko du; aldiz bere buruaz arnegatuko duenak ni gatik eta Ebanjelioa gatik, salbatuko egingen du.

36. Alabainan gizonari zer ekhar liozoke mundu guziaren irabazteak, bere arimaren galtzerat heldu balitz?

37. Edo zer emanen du gizonak bere arimaren ordain?

38. Ezen jendaki lizun eta gaixto hunen erdian, norbaitek nitaz eta ene hitzez ahalke hartzen badu, gizonaren Semeak ere hainaz ahalke izanen du, bere Aitaren ospean bere aingeru sainduekin ethorriren denean.

39. Eta erraten zaroeten: Nik derratzuet egiaz, orai hemen daudezetaririk badirela, herioaren hazta jasanen ez dutenak, non ez duten ikhusi Jainkoaren erresuma bere indarrean dathorla.



IX. KAP.

1. Handik sei egunen buruan, Jesusek hartu zituen Piarres, Jakobe eta Joanes; bakharrik eraman zituen mendi gora batetako basa bazterrera, eta itxuraldatu zen hekien aitzinean.

2. Aрги-argiak egin ziren haren soinekoak eta elhurra bezain xuri, lurrean bolazainik ez baita hain xuririk eginen duenik.

3. Eta agertu zitzaioten Elias Moisesekin, eta Jesusekin zauden solasean.

4. Eta hitza hartuz, Piarresek erraten dio Jesusi: Nausia, ongi gare hemen; detzagun egin hirur etxola, bat zure, bertzea Moisesen, bertzea berriz Eliasen.

5. Etzakien alabainan zer zerasan, ezik ikharak hartuak ziren.

6. Eta jarri zen hedoi bat, itzaltzen zituena, eta hedoietik ilkhi zen mintzo bat, zerrana: Hau da ene seme guziz maitea; hau biazazue entzun.

7. Eta berehala inguruan begiraturik, etzuten gehiago nihor ikhusi, Jesus bera baizik hekiekin.

8. Eta menditik jausten hari zirelarik, Jesusek manatu zituen nihori ere etziozozten erran ikhusi zituzten gauzak, gizonaren Semea hiletarik biztu zitakeenean baizik.

9. Eta beren baithan iduki zuten solasa, beren artean bilhatzen zirelarik hau zer othe zen: Hiletarik biztua zitakeenean.

10. Eta Jesusi galdeka hari zitzaizkon erranez: Zer diote bada Farisauek eta Iskribauek, ezen Elias lehenik ethorri behar dela?

11. Ihardestean, Jesusek erran zioten: Eliasek, lehenik ethorri ondolan, ontsaturen ditu gauza guziak; eta jasanen du hainitz eta arbuiatua izanen da, gizonaren Semeaz iskribatua izan den bezala.

12. Bainan nik derratzuet, ethorri izan dela Elias (eta nahi zuten guzia egin diotela), hartuz iskribatua denaren arabera.

13. Eta bere dizipuluetara ethortzean, ikhusi zuen oste handi bat hekien inguruan, eta Iskribauak ihardukitzen hekiekin.

14. Eta berehala populu guzia, Jesus ikhustean, harritu eta balditu zen, eta laster eginez agur egiten zioten.

15. Jesusek galdatu zaroeten: Zer ihardukitzen duzue zuen artean?

16. Eta bertzeen artetik batek ihardetsiz, erran zuen: Nausia, erakharri darotzut ene semea, izpiritu mutu batek baitaduka.

17. Non-nahi har dezan, lurrerat arhikitzen du, eta haurra jartzen da harrapoa dariola eta hortzak karraskatuz eta ihartzen hari da; eta othoiztu ditut zure dizipuluak khien diozoten debrua eta ezin egin dute.

18. Jesusek hekiei ihardetsiz, erran zuen: Oi ume sinhesgogorrek, zuekin noiz arteo izanen othe naiz? noiz arteo zaituztet jasanen? Erakhar dizadazue haurra.

19. Erakharri zioten, eta ikhusi zueneko Jesus, izpirituak nahasi zuen haurra; eta lurrerat arthikia, heldorra zariola, ihauska zabilan.

20. Eta Jesusek haren aitari galdegin zioen: Noizdanik gerthatzen zaio hau? Aldiz harek erran zuen: Haurretik;

21. Eta galarazi beharrez, gaixtoak surat eta urerat arthiki izan du askotan. Bainan nihondik ahal baduzu, gutaz urrikaldurik lagun gaitzatu.

22. Jesusek aldiz erran zioen: Sinhets ahal badezazu, sinhestedunarentzat ezinik ez da.

23. Eta berehala haurraren aitak, oihuz eta nigarrez erran zuen: Sinhesten dut, Jauna; hel zakizkio ene sinheste eskasari.

24. Eta Jesusek ikhusten baitzuen fharrastaka zathorla jendea, izpiritu lohia dixidatu zuen erranez: Izpiritu gor eta mutua, nik daiat manatzen, haur hortarik ilkhi hadi, eta gehiago ez sar horren baithan.

25. Eta orroa batekin, eta haurra zalaparta gaitzetan erabilirik, haren ganik ilkhi zen, eta haurra egin zen hila iduri, haletan non askok baitzioten hila zela.

26. Jesusek orduan eskutik hartuz, eraiki zuen, eta xutitu zen haurra.

27. Eta Jesus etxera sarthu zenean, bere dizipuluek ixilean galdatzen zioten: Zergatik guk ezin khendu dugu debru hori?

28. Eta ihardetsi zioten: Debru mota hori niholaz-ere ezin ilkhiaraz daiteke, baruraz eta othoitzaz baizik.

29. Eta abiatu handik, Galileaz haindirira zihoaten eta Jesusek etzuen nahi jakin zezan nihork-ere.

30. Bada bere dizipuluen argitzen hari zen, eta erraten zaroeten: Gizonaren Semea arthikia izanen da gizonen eskuetara, eta hilen dute, eta hil ondoan, hirugarren egunean bizturen da.

31. Hekiek ordean etzuten ardiesten solasa, eta lotsa ziren galdeka haritzeko.

32. Eta ethorri ziren Kapharnaumera, eta etxera zirenean, Jesusek galdatu zioten: Zertaz ihardukitzen zinduten bidean?

33. Bainan ixil zauden hekiek, bidean beren arteko hitzak zituztelako, zein zen hekietan gehiena.

34. Eta jartzearekin, Jesusek deithu zituen hamabiak, eta erran zioten: Batek nahi balin badu lehena izan, orotarik azkena da, eta guzien muthil.



35. Eta haur bat harturik, ezarri zuen hekien erdian, eta besarkatu zuenean, erran zaroeten:

36. Nork-ere hunelako haurttoetarik bat hartzen baitu ene izenean, ni hartzen nau; eta nork-ere hartzen bainau, ez nau ni hartzen, bainan bai ni bidali nauena.

37. Joanesek ihardetsi zioen, zerralarik: Nausia, ikhusi dugu norbait zure izenean debruak irazten zituena, haina ez baita guri jarraitzen, eta debekatu diogu.

38. Jesusek ordean erran zioen: Ez debeka hura, ezen nihor ez da ene izenean sendagaila bat egiten duenik, eta berehala nitaz gaizki mintza ditakenik.

39. Alabainan zuen kontra ez dena, zuen alde da.

40. Ezen nork-ere baso bat ur edatera emanen baitarotzue ene izenean, Kristorenak zaretelako, egiaz derratzuet ez duela hainak bere saria galduko.

41. Eta nor-ere izanen baita nitan sinheste duten xumetto haukiatarik batentzat gaizbide, hainak hobe luke, ihara harri bat lephotik estekaturik, itsasora arthik balezate.

42. Eta zure eskua balin baduzu gaizbide, ebakazu; hobe duzu esku-motz sar zaitezen bizitzean, ezenez bi eskuekin goatea ifernura, ezin iraungizko sura,

43. Zeintan hekien harra ez baita hiltzen, ez-eta sua iraungitzen.

44. Eta zure oina balin baduzu gaizbide, ebakazu; hobe duzu bethiereko bizitzean zango-motz sar zaitezen, ezenez bi zangoekin arthikia izatea ifernura, ezin iraungizko sura,

45. Zeintan hekien harra hiltzen ez baita, ez-eta sua iraungitzen.

46. Baldinetaria zure begia bada zuretzat gaizbide, iragazazu; hobe duzu okher sar zaitezen Jainkoaren erresuman, ezenez bi begiekin arthikia izatea ifernuko sura,

47. Zeintan hekien harra ez baita hiltzen, ez-eta sua iraungitzen.

48. Ezen oro suaz izanen dire gazituak, hala-nola bitima guziak gazgaz baitire gazitzen.

49. Ona da gatza, bainan geza baledi, zertaz gazi zinezakete? Zuen baitan izan zazue gatza, eta zuen artean bakea.

X. KAP.

1. Handik jaikirik, ethorri zen Judeako hegaletara, Jordanez haindian; eta berriz ere osteak bildu ziren haren gana; eta ohi zuen bezala, berriz hasi zen hekien irakhasten.

2. Eta hurbildurik, Farisauek galdatzen zioten (hura zertan khausi): Gizonari haizu othe zaio emaztearen uztea?

3. Bainan Jesusek ihardestean, erran zioten: Zer manatu darotzue Moisesek?

4. Hekiek erran zuten: Moisesek haizu egin du uzten delako ageri baten iskribatzea, eta igortzea gero.

5. Hekiei ihardestean, Jesusek erran zuen: Zuen bihotz gogortasunaren ariaz iskribatu du zuentzat manamendu hori.

6. Bainan hastetik Jainkoak gizon bat eta emazteki bat zituen egin.

7. Hargatik gizonak utziko ditu bere ait-amak, eta bere emazteari eraxtikiren da;

8. Eta haragi batean bia dire izanen. Aria hortaz ez dire ja bia, bainan haragi bat.

9. Beraz Jainkoak bildua, gizonak ez beza berez.

10. Eta etxean dizipuluek berriz galdatu zioten gauza beraz.

11. Eta Jesusek erran zioten: Norkere utzi baituke bere emaztea, eta bertze bat hartu, lohikeria darama lehenbizikoaren eretzera.

12. Eta emazteak bere senharra utzi, eta bertze bat hartu badu, lohitzen da.

13. Eta haurtto batzu erakhartzen ziotzaten, uki zetzantzat; bainan dizipuluek larderiatuz gibelatzen zituzten erakharleak.

14. Jesusek ikhusi zuenean hori, gaizki hartu zuen, eta erran zioten: Utzatzue haurttoak ene gana, eta ez debeka; ezik holakoena da Jainkoaren erresuma.

15. Egiaz derratzuet: Nork-ere ez baitu haurtto batek bezala harturen Jainkoaren erresuma, ez da bera hartarako.

16. Eta besarkaturik, eta eskuak gainean emanez, benedikatu zituen.

17. Eta goateko ilkhi zenean, gizon batek laster egin zuen haren gana, eta aitzinean belhaunaz lurra joz, othoiztu zuen, zerralarik: Nausi ona, zer eginen dut bethiereko bizitzearen ardiesteko?

18. Bada, Jesusek ihardetsi zioen: Zergatik deitzen nauzu ona? Onik ez da nihor, Jainkoa bera baizik.

19. Badakizkitzu manamenduak: Bertzeen emazterik ez uki; Ez hil; Ez ebats; Gezurrezko lekhukotasunik ez egin; Maularik ez egin; Zure ait-amak ohora.

20. Harek aldiz ihardestean erran zioen: Nausia, gaztedanik iduki ditut horiek oro.



21. Orduan Jesusek begiraturik, maithatu zuen, eta erran zaroen: Gauza bat duzu eskas: zoaz, ditutzun guziak sal zatzu eta beharrei eman, eta ontasuntze bat izanen duzu zeruan; zato gero, eta jarraik zakizkit.

22. Bainan hura, solas hortaz atsekabetan, minez goan zen, zeren-eta ontasun handien jabe baitzen.

23. Eta Jesusek ingurura begiratu, erran zioten bere dizipuluei: Ala nekez aberatsak Jainkoaren erresuman sarthuren baitire

24. Dizipuluak aldiz, solas horiez harritzen ziren. Bainan berriz mintzatuz, Jesusek erran zioten: Ene haurrak, ala baita neke, aberastasunetan beren gogoia dadukatenak sarthezen Jainkoaren erresuman!

25. Errexago da orratz xilotik iragan dadien kamelua, aberatsa Jainkoaren erresuman sar dadien baino.

26. Harritzenago ziren hekiek, zerratelarik beren artean: Eta nor salba daiteke bada?

27. Eta begiratu, Jesusek erran zioten: Ezina da gizonentzat, bainan ez Jainkoaren; ezen Jainkoarentzat oro dire eginkizun.

28. Eta Piarres abiatu zitzaion erraten: Huna guk oro utzi eta zuri jarraiki garea.

29. Jesusek ihardestean erran zuen: Egiaz derratzuet nik: Ez da nihor utziko dituenik bere etxea, edo anaiak, edo arrebak, edo aita, edo ama, edo haurrak, edo lurak, ene gatik eta ebanjelioaren gatik,

30. Zeinak ez baitu izanen ehunetan bertze hainbertze etxe, eta anaia, eta arrebak, eta ama, eta haur, eta lur, mende huntan berean, jazargo guzien artetik, eta bethiereko bizitzea ethorkizuneko mendean.

31. Hainitzak ordean izanen dire lehen zirenak azken, eta azkenak lehen.

32. Bada, bidean ziren, Jerusalemera igaiten, eta aitzinean zihuan Jesus; eta hekiek harrituak, eta izituak ondotik ziren jarraikitzen. Eta hamabiak berriz harturik berekin, Jesus hekiei abiatu zen erraten zer behar zitzaioen gerthatu.

33. Huna bagoazela Jerusalemera, eta gizonaren Semea saldua izanen da aphez nausiei, Iskribaueti eta zaharrei, eta hiltzera kondenaturen dute eta paganoen eskuetara emanen;

34. Eskarnio eta thu eginen diote, azotatuko eta hilen dute; eta hirugarren egunean biztuko da..

35. Eta haren gana hurbildu ziren Jakobe eta Joanes, Zebedeoren semeak, ziotelarik: Nausia, nahi ginduke egin bazinezagu guk galdaturen duguna.

36. Jesusek berriz, ihardets zioten: Zer nahi duzue egin dezazuedan?

37. Eta erran zuten: Iguzu bat zure eskuinean eta bertzea zure ezkerrean jar gaitezen zure ospeko lekhuian.

38. Aldiz Jesusek erran zioten: Ez dakizue zer galdatzen duzuen: Bazarete nik hustu behar dudan kalitzaren edateko, eta ni bathaiatuko naizen bathaioaz bathaiatuak izateko?

39. Eta ihardetsi zuten: Bai, bagare. Jesusek berriz, erran zioten: Egia da nik edaten dudan kalitza edanen duzuela, eta ni bathaiatzen naizen bathaioaz izanen zaretela bathaiatuak:

40. Bainan ene eskuinean edo ezkerrean jartzea, ez dago niri ematea; bainan toki hekiek haintzat dire zeinentzat aphainkuak baitire.

41. Eta aditzearekin hamarrak sumintzen abiatu ziren Jakoberen eta Joanesen alderat.

42. Bainan Jesusek deithurik erran zioten: Badakizue populuen buruan agertzen direnek nausitasunekin manatzen diotela, eta hekietako aitzindariak esku badutela hekien gainean.

43. Bainan ez da hola zuen artean; aitzitik nork-ere nahiko baitu handiena izan, haina zuen zerbitzari beharko da jarri;

44. Eta nork-ere nahiko baitu zuen artean izan lehena, guzien zerbitzari izan beharko da.

45. Alabainan gizonaren Semea ere ethorri da, ez zerbitzatua izateko; bai ordean zerbitzatzera, eta hainitzen berrerospenetan bere biziaren ematera.

46. Eta ethorri ziren Jerikora. Eta handik abiatu zenean bere dizipuluekin eta oste handi batekin, Timeoren semea, Bartimeo itsua, eske jarria zagoen bide bazterrean.

47. Harek aditu zuenean, Jesus Nazaretharra han zela, hasi zen oiheu egiten eta erraten: Jesus, Dabiden semea, urrikal zakizkit.

48. Eta larderiatzen zuten askok, ixilarazi beharrez. Bainan harek hainitz gorago egiten zuen oiheu: Dabiden semea, urrikal niri.

49. Eta gelditurik, Jesusek manatu zuen deith zezaten. Deitzen dute beraz, erraten diotelarik: Ago bihotza onik; jaik hadi, galdatzen hau.

50. Hura, bere soineko philda arthikirik, jauzi zen eta Jesusen ganat ethorri.

51. Eta Jesusek hitza harturik, erran zioen: Zer nahi duzu egin dezazudan? Itsuak berriz, erran zuen: Ikhus dezadan, Jauna.

52. Aldiz Jesusek erran zioen: Zoaz, zure sinhesteak salbatu zaitu. Eta ordu beretik ikhusi zuen, eta bidean jarraikitzen zitzaioen.



XI. KAP.

1. Jerusalemera, eta Bethaniara Olibetako mendi aldera, hurbiltzen hari baitziren, bere dizipuluetarik igorri zituen bia,

2. Eta erran zioten: Zoazte zuen aitzinean den herritto hortara, eta hor sartzean berehala, estekatua atzemanen duzue astokume bat, zeinaren gainean gizonik ez baita oraino jarri, laxa zazue eta erakhar.

3. Eta baldin norbaitek erraten badarotzue: Zer hari zarete? errozue: Jaunak hunen beharra du: eta berehala utziko du hunat.

4. Eta goanik, aurkhitu zuten astokumea athe baten aldean kanpoan estekatua bidegurutze batean, eta laxatu zuten.

5. Eta han zirenatarik zenbaitek erran zaroeten: Zer hari zarete, astokume hori laxatuz?

6. Hekiek ihardetsi zuten Jaunak manatu bezala, eta bertzeek utzi zioten astoa.

7. Jesusi erakharri zaroten; eta bizkarrean ezarri ziozkaten beren soinekoak, eta gainean jarri zen.

8. Hainitzek berriz, bidearen gainean hedatu zituzten beren soinekoak; bertze batzuek aldiz, hausten zituzten arbola hostoilak eta bidean hedatzen zituzten.

9. Eta aitzinean zihoazenek eta gibeletik heldu zirenek oihu egiten zuten erranez: Hosanna.

10. Benedikatua, Jaunaren izenean dathorrena; benedikatua, gure aita Dabiden erreinu dathorkiguna: Hosanna zeru gorenetaraino.

11. Jesus horrela sarthu zen Jerusalem tenploan; eta inguruan orotara begiratu ondoan, nola beranta baitzen orduko, Bethaniara goan zen hamabiekin.

12. Biharamunean, Bethaniatik ilkhitzen zelarik, gosetu zen.

13. Eta nola urrundik ikhusi baitzuen pikondo bat hostoekin, goan zen ikhustera hean atzemanen zioen deusere; eta hurbildu zenean atzeman zuen hostoz bertzerik deusere etzuela; etzen alabainan piko aroa.

14. Orduan pikondoari erran zioen: Oraitik egun-eta-iguzki nihork ez beza jan hitarikako fruiturik. Eta dizipuluek aditzen zuten.

15. Ethorri ziren Jerusalemera. Eta tenploan sarthu zenean Jesus, abiatu zen tenploan ziren saltzaileen eta erosleen irazitzen, eta uzkaile zituen diru aldatzaileen eta uso saltzaileen mahainak.

16. Eta nihor etzuen uzten tenploa gandi trastu erabiltzera.

17. Eta irakhasten zuen, hekiei erranez: Ez othe da bada iskribatua: Ene etxea, jendaki guzietan deithuko da othoitzeko etxea? Zuek ordean huntarik ohoin zilho bat egin duzue.

18. Hori aditurik, aphez nausiak eta Iskribauak bilha zabiltzan hean gal othe zezaketen; ezik haren beldur ziren, populu guzia haren irakhasmenaren gainean ederretsia zagoelako.

19. Arrats aphalean, ilkhi zen hiritik.

20. Biharamun goizean, iragaiten zirelarik, ikhusi zuten pikondoa erroetaraino ihartua.

21. Eta orhoiturik, Piarresek erran zioen Jesusi: Nausia, huna zuk madarikatu piko: ihartu da.

22. Jesusek ihardestean erran zioen: Jainkoaren baithan izan zazue sinheste.

23. Egiaz derratzuet nik: Edozeinek mendi horri erran diozon: Egik hortik, eta itsasora jauz hadi, eta bere bihotzean duda-mudarik erabiltzen ez badu, bainan sinhestean badago erranen duen guzia gerthaturen dela, eginen zaio.

24. Hargatik derratzuet, edozein gauza othoitzean galda dezazuen, sinhetsazue izanen duzuela, eta izanen duzue.

25. Bainan othoitzean jarriko zaretenean, norbaiten kontra balin baduzue zer bait, barkha zazue, zuen Aita zeruetan denak ere barkha detzatzuen zuen gaizkiak.

26. Zuek ez baduzue barkhatzen, zuen Aita zeruetan denak ere ez darozkitzue zuen gaizkiak barkhatuko.

27. Eta berriz ethortzen dire Jerusalemera, eta tenploan dabilalarik Jesus, hurbiltzen zaizkio aphez nausiak, Iskribauak eta zaharrak,

28. Eta erraten diote: Zer indarrez egiten ditutzu horiek eta nork eman darotzu horien egiteko ahala?

29. Ihardestean aldiz, Jesusek erran zioten: Nik ere galdeginen darotzuet hitz bat, eta ihardets darotazue, eta erranen darotzuet gero, zer eskuz egiten ditudan haukiek.

30. Joanesen bathaioa zerutikakoa othe zen, ala gizonen ganikakoa? Ihardets darotazue.

31. Bainan gogoetaka zauden beren baithan, egiten zutelarik: Baderragu: Zerutikakoa; erranen daroku: Zergatik ez diozue beraz eman sinheste?

32. Erran bagineza: Gizonen ganikakoa; populuaren beldur izateko ginduke; guziek alabainan egjazko profetatzat zadukaten Joanes.

33. Jesusi ihardetsi zioten beraz: Ez dakigu. Eta Jesusek erran zaroeten: Ez darotzuet bada erranen nik ere zer ahalez ditudan haukiek egiten.



XII. KAP.

1. Orduan Jesus abiatu zitzaioten paraboletan mintzatzen. Gizon batek landatu zuen mahasti bat, berriz inguratu, lurrean dolhare bat egin, dorre bat altxatu eta etxetiar batzuei eman zioten mahastia, eta bidaietan goan zen.

2. Eta ordua ethorri zenean, etxetiarretara bidali zuen sehi bat, mahastiko fruituetarik har zezan hari zagokiona.

3. Hekiek sehia hartu, jo eta hutsik igorri zuten.

4. Berriz bidali zioten bertze sehi bat, eta hari sakhi bat egin zioten buruan eta irainez gairitu zuten.

5. Berriz ere bidali zioten bertze bat; eta hil zuten hura; eta bertze asko, batzu jo eta bertzeak hil zituzten.

6. Beraz nola baitzuen oraino seme bakhar bat bere bihotzekoa, hura ere igorri zioten, zerralarik: Ene semearentzat herabe izanen ahal dire.

7. Baina etxetiarrek elkharri erran zuten: Hau da premia: Zatozte, dezagun hil, eta gurea izanen da primantza.

8. Eta harturik, hil zuten eta mahastitik kanporat arthiki.

9. Zer eginen du bada mahastiaren jabeak? Ethorriko da, xahutuko ditu etxetiar horiek, eta bertze batzuei emanen diote mahastia.

10. Iskribatua den hau ere ez othe duzue irakurtu: Harginek tzartzat utzi harria, egin izan da etxe buruko izkina harri:

11. Jaunak egin izan du hori, eta gure begietan ederregarri da?

12. Eta Jesusen hartzea bilhatzen zuten; ezagutu zuten ezik, hekiek zituela begitan parabola horren erratean; baina populuaren ziren beldur, eta hura han utzirik, goan ziren beren alde.

13. Gero bidaltzen diozkate Farisauetarik eta Herodestiarretarik zenbait, hura bere hitzetan atzeman beharrez.

14. Haukiek, ethorririk, erraten diote. Nausia, badakigu zina zarela; ezik etzare gizonen begitharteari begiratzen, baina zintasunean irakhasen duzu Jainkoaren bidea. Zilhegi da Zesarri zergaren bihurtzea, ala ez diogu emanen?

15. Jesusek ezagutzen baitzuen hekien maltzurkeria, erraten diote: Zergatik nauzue bilhatzen? Emadazuet denario bat, ikhus dezadan.

16. Hekiek eman zioten; eta Jesusek erran zaroeten: Norenak dire gaineko itxura hau eta iskribua? Zesarrenak, diote.

17. Orduan Jesusek ihardetsiz, erran zaroten: Bihur zatzue beraz Zesarri Zesarrenak, eta Jainkoari Jainkoarenak. Eta ederresten zuten haren errana.

18. Saduzearrak, birphizterik ez dela derratenak, ethorri ziren gero Jesusen gana, eta galdeka hari zitzaizkon, ziotelarik:

19. Nausia, iskribuz utzi izan daroku Moisesek: Norbaiten anaia hiltzera heldu bada, eta uzten badu emaztea eta haurrik ez, hainaren anaia har beza haren emaztea, eta ondore eman biozo bere anaia.

20. Baziren bada zazpi anaia: lehenbizikoak hartu zuen emazte, eta hil izan zen haurrik utzi gabe.

21. Eta bigarrenak hartu zuen emazte bere; eta hil izan zen, eta harek ere etzuen haurrik utzi. Eta hirugarrenak orobat egin zuten.

22. Halaber hartu zuten zazpiek emazte hura eta etzuten haurrik utzi. Guzien ondotik, emaztekoa ere hil izan zen.

23. Birphizteko egunean beraz, biztuko direnean, zeinen emazte izanen da hura? zazpiek alabainan emaztetzat izan dute.

24. Eta ihardestean Jesusek erran zioten: Makhur ez othe daramazue urhatsa, ardietsi gabez Iskriturak eta Jainkoaren ahala?

25. Ezen birphizteko egunean, gizonek ez dute emazterik hartuko, ez eta emaztekiek senharrik; baina izanen dire zeruetan aingeruak bezala.

26. Eta hilen biztearen gainean, ez duzue Moisesen liburuan irakurtu, nola mintzatu zitzaioen Jainkoa sasiaren erditik erranez: Ni naiz Abrahamen Jainkoa, eta Isaaken Jainkoa, eta Jakoben Jainkoa?

27. Ez da hilen Jainkoa, baina bai biziena. Zuek beraz makhur handia daramazue.

28. Eta Iskribauetarik bat, zeinak aditu baitzituen Jesusen bilhatzen, eta ikhusi baitzuen zein ongi ihardetsi zaroeten, hurbildu zen eta Jesusi galdatu zioen, zein zen manamendu guzietarik lehena.

29. Jesusek berriz, ihardetsi zioen: Manamendu guzietarik lehena da: Adi zazu, Israel: Zure Jainko Jauna, Jainko bakharra da;

30. Eta maithaturen duzu zure Jainko Jauna, zure bihotz osoaz, eta zure arima guziaz, eta zure gogo betheaz eta zure ahal oroz. Hori da lehenbiziko manamendua.

31. Bigarrena berriz, horren idurikoa da: Zure laguna maithaturen duzu zure burua bezala. Bertze manamendu bat ez da horiek baino handiagorik.

32. Eta Iskribauak erran zioen: Ongi, Nausia; egia erran duzu, bakharra dela Jainkoa, eta hartaz bertzerik ez dela;

33. Eta maithatu behar dela bihotz osoaz; eta adigarri betheaz, eta arima guziaz, eta ahal oroz; eta bere laguna bere burua bezala maithatzea, holokausta eta sakrifizio guziak baino gehiago dela.



34. Jesusek aldiz, ikhususirik zuhurki ihardetsi zuela, erran zioen: Jainkoaren erresumatik etzare urrun. Eta geroztik nihor etzitzaioen galderik egitera ausartatzen.

35. Eta tenploan irakhasten hari zelarik, erran zuen Jesusek: Noletan diote Iskribauek, Kristo Dabiden semea dela?

36. Ezen Dabidek berak dio Ispiritu sainduaren eragintzaz: Jaunak ene Jaunari erran izan dio: Jar zaite ene eskuinean, zure oinen alkhi ezar detzadan arteo zure etsaiak.

37. Beraz Dabidek berak Jaunetan deitzen du, eta nondik daiteke haren semea? Eta oste handi bat gogotik zagoen haren entzuten.

38. Eta irakhasten hari zelarik, Jesusek erraten zioten: Beratzue Iskribauetarik, zeinek aldagarri luzetan lakhet baitute ibiltzea, eta plazetan agurren izatea;

39. Eta jartzea, sinagogetan alkhi gorenen gainean, eta afarietan, mahain buruan;

40. Zeinek, othoitz luzeen aitzakian iresten baitituzte alhargunen etxeak; hargatik hartuko dute juiamendu zorrotzagoa.

41. Eta Jesus tenploko khutxaren aldean jarria baitzen, begira zagoen nola populuak khutxara arthikitzen zuen dirua, eta asko aberatsek hainitz ematen zuten.

42. Emazteki alhargun behartto bat ethorri zenean bere aldian, harek eman zituen bi kornado, erran nahi baita ardit bat.

43. Eta bere dizipuluak deithurik, Jesusek erran zioten: Egiaz derratzuet, alhargun behar horrek gehiago eman duela, ezenez khutxara eman duten guziek.

44. Alabainan bertze guziek nasai dutenetik eman dute; horrek ordean, bere eskasiatik zituen guziak, bizitzeko behar zuena oro eman izan du.

XIII. KAP.

1. Eta nola tenplotik ilkhitzen baitzen, bere dizipuluetarik batek erran zioen: Nausia, begira zer harriak eta nolako leihorak!

2. Eta ihardestean Jesusek erran zioen: Ikhusen ditutzu leihor handi horiek? Ez da harria harriaren gainean urratu gabe geldituko.

3. Gero Olibetako mendian, tenploaren parrean jarria zagoelarik, Piarres, Jakobe, Joanes eta Andres berezean haritu zitzaizkon galde hunen egiten:

4. Erraguzu noiz gerthatuko diren horiek, eta zer ezagutkari izanen den horiek oro bethetzera dihoazela?

5. Eta ihardestean, Jesus erraten abiatu zitzaioten: Beratzue nihork atzeman etzezazten;

6. Ezen asko ene izenean ethorriko dire, diotelarik: Ni naiz Kristo; eta hainitzak dituzte atzemanen.

7. Berriz, adituko ditutzuenean gerlaketa gerla haroak, ez izi; ezen gerthatu beharrak dire horiek, bainan ez da oraino izanen akhabantza.

8. Ezen jauziko da populua populuaren kontra, erresuma erresumaren gainera; eta tokika izanen dire lur-ikharak eta goseteak. Horiek izanen dire minen hastapenak.

9. Zuek ordean zuen buruen gainean zaudezte erne; ezen atheratuen zaituztete biltzarren aitzinera, eta zehatuak izanen zarete sinagogetan; buruzagien eta erregeen aitzinera agerturen zarete ene ariaz hekiei lekhu-kotasun egiteko.

10. Eta lehenik Ebanjelioak behar du jendaki orotan izan erantzuna.

11. Eta noiz-ere hekien eskuetara eramanen baitzaituztete, aitzinetik ez erabil gogoetarik hean zer erranen duzuen; bainan zer-ere burura ordu hartan emana izanen baitzaizue, errazue hura; etzarete alabainan zuek mintzatzen, bainan Izpiritu saindua.

12. Orduan berriz, heriotzeari emanen dio anaiak anaia, eta aitak semea; eta hurrak jauziko dire burhasoen gainera, eta heriotzez joko dituzte.

13. Eta guziei gaitzirizkotan izanen zarete ene izenaren ariaz. Bainan bururaino ihardukiren duena, hura izanen da salbatua.

14. Bada ikhususiren duzuenean desmasiako hasgarrikeria, behar ez den tokian jarria (irakurtzen duenak adi beza); orduan Judean direnak bihoaz mendietara ihes;

15. Eta hegaztegi gainean dena ez bedi jauts etxera, ez-eta barnera sar bere etxetik zerbaiten hartzeko;

16. Eta landetan izanen dena ez bedi gibelerat itzul bere soinekoaren bilha.

17. Zorigaitz, egun hekietan izarra edo unhide izanen direnei.

18. Othoitz egizue horiek ez ditezen neguan gertha.

19. Ezen egun hekietan izanen dire hanbateko hesturak, nolakorik Jainkoak egin munduaren hastapenetik hunat ez baita izan, ez izanen.

20. Eta Jaunak laburtu ez balitu egunak, gizon bat etzitakeen salbatuturik; bainan egun hekiek laburtu ditu, hautatu dituen hautetsien ariaz.

21. Eta orduan norbaitek erraten badarotzue: Huna Kristo, hemen da, edo hara; ez sinhets.



22. Ezen jaikiko dire kristo-aizunak eta profeta-aizunak, zeinek eginen baitituzte sendagailak eta gauza harrigarriak, enganatzeko, ahal balitz, hautetsiak berak ere.

23. Zuek beraz berautzue; horra guzietaz aitzinetik argitu zaituzteda-la.

24. Bainan egun hekietan, hestura haren ondotik, ilhunduko da iguzkia, eta ilhargiak ez du emanen bere argia;

25. Eta zeruko izarrak erortzen abiatuko, eta zeruetan diren bothe-reak khordokaturen dire.

26. Eta orduan ikhusiren da gizonaren Semea hedoiaren gainean heldu dela, indar eta ospe handiren erdian.

27. Eta orduan bidaliren ditu bere aingeruak, eta bere hautetsiak bilaziren ditu lau haizeetarik, lurraren bazterretarik zeruetako gaineraino.

28. Bada, pikondotik har zazue iduripen bat. Haren adarra guritu eta hostoak sorthu direneko, ezagutzen duzue hurbil dela uda;

29. Halaber zuek ere, horiek gerthatzen direla ikhusiko duzuenan, jakizue, hurbil, atean dela gizonaren Semea.

30. Egiaz derratzuet nik, gizate hau ez dela goanen, non horiek oro ez diren gerthatzen.

31. Iraganen dire zeru-lurrak, bainan ene hitzak ez dire iraganen.

32. Egun hura ordean, edo orena, nihork ez dakizki, ez aingeruek zeruan, ez-eta Semeak, Aitak berak baizik.

33. Berautzue, zaudezte atzarririk, othoitz egizue, ez baitakizue noiz ethorriko den ordua.

34. Izanen da hala-nola bidaietan goan zen gizona; utzi zuen bere etxea eta bere sehiei eman zioten zeini bere lana egiteko, eta athalzainari manatu zioen, zagoen erne.

35. Zaudezte beraz atzarririk (ez dakizue ezen noiz ethorriren den etxeko jauna, arratsean, ala gauaren erdian, ala oilaritean, ala goizean);

36. Beldurrez-eta ustekabea ethorritz, lotan atzeman zaitzazten.

37. Bada zuei derradana, guziei erraten daroet: Zaudezte atzarririk.

XIV. KAP.

1. Bada, bi egunen buruan ziren Bazko eta Airisak; eta aphez nausiak eta Iskribauak bilha zabiltzan hean zer amarruz atzemanen eta hilaraziko zuten Jesus.

2. Eta zioten: Ez besta egunean, populuan zerbait tarrapata egin dadien beldurrez.

3. Eta nola Bethanian baitzen Simon legentsuaren etxean, eta mahainean jarria, ethorri zen emazteki bat, albatrazko untzi bat zakharla, nardo buruzko gantzugailu balios batez bethea; eta untzia hautsirik, Jesusi ixuri zioen buruaren gainera.

4. Baziren bada, hori beren baithan gaizki khausitu zutenak, eta zerratenak: Zertako gal horrela gantzugailu hori?

5. Ezen hori, hirur ehun denario baino gehiagotan sal zitakeen eta beharrei eman. Eta emaztekiarentzat erasian hari ziren.

6. Bainan Jesusek erran zioten: Utzazue; zergatik egiten diozue damurik? Niri hunek egina, ongi egina da.

7. Ezen zuekin badituzte bethi beharrak, eta ongia egiten ahal diozue, nahi dukezuenan; ni ordean ez nazue izanen bethi.

8. Hunek egin du bere ahal guzia; aitzindu da ene gorphutzaren gantzutzerara ehortzi behar deneko.

9. Egiaz derratzuet: Ebanjelio hau erantzuna izanen den toki orotan, mundu guzian, hunek egin duena ere aiphatua izanen da hunen orhoitzapenetan.

10. Orduan Judas Iskariot, hamabietarik bat, aphez nausietara goan zen, hekiei saltzeko Jesus.

11. Aditzearekin boztu ziren hekiek, eta agindu zioten emanen ziotela diru; eta Judas arte on baten bilha zabilan hekiei eskuetara emateko Jesus.

12. Eta airisetako lehen egunean, zeintan imolatzen baitzen Bazko bildotsa, dizipuluek erraten diote Jesusi: Norat nahi duzu goan gaitezen behar denaren zuri aphaintzera, jan dezazun Bazkoa?

13. Eta bidali zituen dizipuluetarik bia, eta erran zaroten: Zoazte hirira, eta aitzinera ethorriko zaitzue gizon bat, pegar bat ur buruan; zoazkiote ondotik;

14. Eta non-ere sarthuko baita, errozue etxeko jaunari: Nausiak dio: Non da ene tokia, zeintan ene dizipuluekin janen baitut Bazkoa?

15. Eta harek erakhutsiko darotzue salha handi bat aphaindua, eta han xuxent darokuzue Bazkoa.

16. Eta dizipuluak goan ziren, hirian sarthu eta oro khausitu zituzten Jesusek erran bezala, eta aphaindu zuten Bazkoa.

17. Arratsa erori zenean berriz, Jesus ethorri zen hamabiekin.

18. Eta mahainean zirelarik eta jaten hari, Jesusek erraten diote: Egiaz derratzuet, zuetarik enekin jaten hari den batek salduko nauela.

19. Eta hekiek abiatu ziren atsekabetan sartzen, eta aldizka erraten: Nik othe?



20. Ihardesten diote: Hamabietarik batek, azpilean enekin eskua bus-titzen duenak.
21. Eta zinez-ere badoha gizonaren Semea, hartaz iskribatua izan denaren arabera; baina zorigaitz gizon hari, zeintaz saldua izanen baita gizonaren Semea; hainak hobe zukeen sorthu ez balitz ere.
22. Eta jaten hari zirelarik, Jesusek hartu zuen ogia; eta benedikatu ondoan, hautsi eta eman zioten, eta erran zuen: Har zazue, hau da ene gorphutza.
23. Eta edateko untzia harturik, hekiei eman zioten, eskerrak bihurtu ondoan; eta hartarik edan zuten guziek.
24. Eta Jesusek erran zioten: Hau da batasun berriko ene odola, hain-tzentzat ixuriko dena.
25. Egiaz derratzuet, ez dudala gaureraz edanen aihenaren gozo huntarik, Jainkoaren erresuman berria edanen dudan egun hartaraino.
26. Eta eskerrak erranik, ilkhi ziren Olibetako mendira.
27. Eta Jesusek erran zioten: Gau huntan guziek ene ariaz izanen duzue gaizbide; ezen iskribatua da: Joko dut artzaina, eta barraiatuko dire ardiak.
28. Baina hiletarik biztuko naizen ondoan, aitzinduren natzaitzue Galileara.
29. Bada Piarresk erran zioen: Bertze guziak behaztopa baleitez ere zure ariaz, ni ez bederen.
30. Eta Jesusek erran zioen: Egiaz derratzut, egun, gau huntan, oilarrak bietan jo baino lehen, zuk hiruretan ukhaturen nauzula.
31. Baina harek are gehiago ihardukitzen zuen: Behar ere banintz hil zurekin batean, etzaitut ukhaturen. Aldiz guziek ere orobat zioten.
32. Badoazi gero Jethsemani deitzen den bazter batera, eta Jesusek erraten diote bere dizipuluei: Jar zaitzete hemen, nik othoitza egin artoe.
33. Eta berekin hartu zituen Piarres, Jakobe eta Joanes, eta abiatu zen lotsatzen eta gogoz behartzen.
34. Eta erran zioten: Beltz dago ene arima hiltzeko heineraino; igurikazue hemen, eta atzarririk zaudezte.
35. Eta aitzinaxago goanik, erori zen lurrera, eta othoitz egiten zuen, oren hura, ahal bazen, urrun zadien haren ganik;
36. Eta erran zuen: Abba aita, ez da zuretzat ezinik; urrun zazu kalitza hau ene ganik; baina ez bedi egin ene nahia, bai ordean zurea.
37. Eta ethorri, eta lo atzeman zituen dizipuluak. Eta Piarresi erran zioen: Simon, lo zaude? Oren bat ezin iraun duzu atzarririk?

38. Zaudezte erne eta othoitz egizue, sar etzaitzeten lerrabidetan; ezen izpiritua gurbil da, baina haragia erorkor.
39. Eta berriz goanik, othoitz egin zuen, hitz berak erranez.
40. Eta bihurturik, bigarrenean atzeman zituen lo (alabainan nagituak zituzten begiak), eta etzakiten zer ihardets.
41. Eta ethorri zen hirugarrenean, eta erran zioten: Orain egizue lo, eta phausu har. Aski da; ethorri da ordua; huna non gaixtaginen eskuetara emana izatera dihoan gizonaren Semea.
42. Xuti zaitzete, goazen. Huna ni saldu behar nauena, hurbil da.
43. Eta mintzo zelarik oraino, agertu zen Judas Iskariot, hamabietarik bat, eta harekin batean gizon moltzo handi bat ezpatekin eta makhilekin, aphez nausi, Iskribau eta zaharrek igorririk.
44. Bada Jesusen saltzaileak ezagutkari hau eman zaroeten: Zeinari ere emanen baitiot musu, hura izanen da; loth zakizkiote eta ernerik eramazue.
45. Eta ethorri zenean, berehala hurbildurik erran zioen: Agur, Nausia. Eta eman zioen musu.
46. Eta hekiek eskua eman zuten Jesusen gainean, eta hartu zuten.
47. Berriz, harekin zirenetarik batek, ezpata atheratuz, jo zuen aphez handiaren sehi bat, eta beharria moztu zioen.
48. Eta Jesus mintzatu zitzaioten, erraten ziotelarik: Ohoin baten gana bezala ezpatekin eta makhilekin ilkhi zarete ene hartzera.
49. Egun oroz zuen erdian nintzen, tenploan irakhasten hari, eta ez nauzue hartu. Baina Iskriturak bethe behar dire.
50. Orduan bere dizipuluek utzi zuten, eta ihesari eman ziren guziak.
51. Eta gizon gazte bat jarraikitzen zitzaioen, mihise bat bizkarretik larru hutsaren gainean, eta lothu zitzaizkon hari.
52. Hainan hura, mihisea utzirik, biluzgorri itzuri zitzaioten.
53. Aphez handiaren aitzinera eraman zuten Jesus, eta bildu ziren aphez guziak, Iskribauak eta zaharrak.
54. Bada, urrundik jarraiki zitzaioen Piarres, aphez handiaren ezkaratz barneraino; eta su bazterrean sehiekin jarria, berotzen zagoen.
55. Bizkitartean aphez nausiak eta batzarre guzia Jesusen kontra lekukotasunketa zabiltzan, hura hilarazi beharrez, eta etzuten aurkitzen.
56. Ezen hainitzek gezurrezko lekukotasunak atheratzen zituzten haren kontra; baina lekukotasunak etziren hitz-batekoak.
57. Azkenean, zenbaitek, jaikirik ekharri zuten gezurrezko lekukotasun bat, ziotelarik:



58. Guk aditu diogu erraten: Nik urratuko dut eskuz eginikako tenplo hau, eta hirur egunen buruko altxaturen dut bertze bat, eskuz egina izanen ez dena.

59. Bainen hekien lekhukotasuna etzen egokia.

60. Orduan, biltzarraren erdian xutiturik, aphez handiak erran zioen Jesusi: Ez duzu deusere ihardesten haukiek zure kontra atheratzen dituzten lekhukotasunei?

61. Bainen Jesus ixilik zagoen, eta etzuen hitz bat ihardetsi. Aphez handia berriz lothu zitzaioen galdeka, eta erran zioen: Kristo zare zu, Jainko benedikatuaren semea?

62. Orduan Jesusek ihardetsi zuen: Bai, ni naiz; eta ikhusiren duzue gizonaren Semea, Jainko indardunaren eskuinean jarria, eta zeruko hedoiaren gainean heldu dela.

63. Horren gainean, aphez handiak urratu zituen bere soinekoak, eta erran zuen: Zer dugu oraino lekhuko beharrik?

64. Aditu duzue burhoa; zer zaitzue? Eta orok egin zuten, heriotzea zitzaioela zor.

65. Eta abiatu zitzaizkon, batzu thuka, eta hari begithartea estaliz, joka, ziotelarik: Errak nork jo hauen. Eta sehiak hari zitzaizkon mazelakoka.

66. Eta behereko ezkaratzean zelarik Piarres, aphez handiaren sehietarik bat ethorri zen;

67. Eta ikhusi zuenean Piarres berotzen hari zela, begiratu eta erran zioen: Zu ere Jesus Nazaretharrarekin zinen.

68. Bainen harek ukhatu zuen, zioelarik: Ez dut-eta ezagutzen, eta ez dakit zer diozun. Eta athetik ilkhi zen ezkaratz aitzinerat, eta jo zuen oilarrak.

69. Bertze neskato bat ere oharturik, han zaudenei erraten abiatu zen: Horietarik da hau ere.

70. Eta ukhatu zuen bigarren aldiko, aphur baten buruan berriz, han zirenek erran zioten Piarresi: Bai-eta horietarik baitzare zu; ezik Galilearra ere zare.

71. Orduan hura abiatu zen arneguka eta zinka erranez: Ez dut-eta ezagutzen ere zuek diozuen gizon hori.

72. Eta berehala oilarrak jo zuen bigarren aldiko. Eta orhoitu zen Piarres Jesusek erran izan zioen hitzaz: Oilarrak bietan jo baino lehen, ukhatuko nauzu hiruretan. Eta jarri zen nigarrez.

XV. KAP.

1. Eta goizean berehala aphez nausiak, zaharrekin, Iskribauekin eta biltzar guziarekin egon ziren, Jesus, estekatu zuten eta eraman, eta Pilatoren eskuetan ezarri zuten.

2. Pilatok galdatu zioen: Juduen errege zare zu? Eta ihardestean, Jesusek erran zioen: Diozu.

3. Eta aphez nausiek asko gauzaz hobendun egiten zuten.

4. Eta Pilatok berriz galdatuz, erran zioen: Ez duzu deus ihardesten? Ikhusazu zenbat gaizki jazartzen darozkitzuten.

5. Jesusek ordean etzuen gehiago deusere ihardetsi, haletan non harritzen baitzen Pilato.

6. Bada, besta egunean ohi zuen populuari uztea burdinetan zirenetarik bat, edozein, galdatzen zutena.

7. Eta bazen orduan Barrabas erraten zioten bat, bihurri egile batzuekin burdinetan zena, bihurrialdian heriotze bat eginik.

8. Eta populua ethorri zenean, abiatu zitzaioen galdatzen, egin ziozon bethi bezala.

9. Pilatok aldiz ihardetsi eta erran zioten: Nahi duzue utz dezazuedan Juduen errege?

10. Bazakien alabainan aphez nausiek bekhaizgoz ezarri ziotela hura eskuetan.

11. Aphezek ordean hizitatu zuten ostea, galdegin zezan hobeki utz ziozoten Barrabas.

12. Aldiz Pilatok berriz ihardetsiz, erran zioten: Zer nahi duzue bada egin dezadan Juduen erregeaz?

13. Bainen hekiek oiuhu egin zuten berriz: Gurutzefika zazu.

14. Eta Pilatok erraten zioten: Zer gaizki egin du bada? Bainen hekiek izkola gorago zaramaten: Gurutzefika zazu.

15. Azkenean Pilatok, populuari atsegin egin beharrez, utzi zioen Barrabas; eta Jesus, ordukoz azotatua, eman zioten gurutzefikatua izateko.

16. Aldiz soldadoek eraman zuten pretorioko ezkaratzera; bilarazten dute beren andana guzia,

17. Purpuraz jaunzten dute, eta elhorriz khoro bat bihurrikaturik, ezartzen diote buruan.

18. Eta khurka hasi zitzaizkon, erranez: Agur, Juduen errege.

19. Eta buruan jotzen zuten khanabera batez, eta thu egiten zioten, eta belhaunikatuz adoratzen zuten.

20. Eta burlatu zuten ondoan, khendu zioten purpura, jauntzi ziozkaten bere soinekoak, eta gurutzefikatuzera eraman zuten.



21. Eta handik iragaiten zen gizon bat, Simon Zirenearra, Alexandroren eta Erruforen aita, bere bazterretarik heldu zena, bortxatu zuten Jesusen gurutzearen hartzera.

22. Eta eraman zuten Golgotha deitzen den lekhura, erran nahi baita Kalbarioko tokia.

23. Eta edatera eman zioten arno mirraztatua bainan etzuen hartu.

24. Eta gurutzefikatu zutenean, haren soinekoak berezi zituzten, zortha arthikiz, nork zer eraman.

25. Bada, hirugarren orena zen, gurutzefikatu zutenean.

26. Eta haren heriotzearen aria hunela iskribatua zen: JUDUEN ERREGE.

27. Eta harekin gurutzefikatu zituzten bi ohoin, bata eskuinetarik, eta bertzea ezkerretarik.

28. Hola bethe zen iskritura, zeinak baitio: Eta gaixtaginekilako ekharria izan da.

29. Eta han iragaiten zirenak burhoka hari ziren, dardaratzuz beren buruak, eta erranez: Hean Jainkoaren tenploa urratzen, eta hirur egunez berritzen dukana,

30. Gurutzetik jautsiz, athera zak hire burua.

31. Apez nausiek ere halaber, trufatzuz, Iskribauekin elkharri erraten zuten: Bertzeak salbatu ditu, bere burua ezin.

32. Kristo, Israelgo errege, orai jauts bedi gurutzetik, ikhus eta sinhets dezagun. Harekin gurutzefikatuak zirenek ere irain zioten egiten.

33. Eta seigarren orena ethorri zenean, ilhunbeak jarri ziren lur guziaren gainean bederatzigarren oreneraino.

34. Eta bederatzigarren orenean, Jesusek oihu handi batekin erran zuen: Eloi, Eloi, lamma sabaxthani? erran nahi baita: Ene Jainkoa, ene Jainkoa, zeren nauzu utzi?

35. Eta inguruan zaudenatarik zenbaitek aditurik, erraten zuten: Horra Elias deitzen duela.

36. Eta batek laster eginik, esponja bat minagrez bethe, eta khanabera baten muthurrean ezarririk, edatera ematen zioen, erranez: Bego, ikhus dezagun hean Elias ethorriko zaion hortik khentzera.

37. Bada, Jesusek oihu handi bat eginik, eman zuen hatsa.

38. Eta tenploko bela bi erdi egin zen gainetik behereraino.

39. Aldiz Ehuntariak, zeina Jesusen parrean xutik baitzagoen, ikhusirik, hala heiahora egitean hil zela, erran zuen: Egiazki gizon hau Jainkoaren Semea zen.

40. Bada, baziren emazteki batzu ere urrundik begira zaudenak, zeinen artean Maria Magdalena, eta Maria, Jakobe xumearen eta Josepen ama, eta Salome;

41. Galilean zenean jarraitzen zitzaizkonak eta zerbitzatzen zutenak; eta baziren bertze hainitz harekin batean Jerusalemara ethorri zirenak.

42. Eta arratsa egin zeneko (nola aphainketako eguna baitzen, erran nahi da larunbat aitzinekoa),

43. Ethorri zen Josep Arimathearra, kargudun ohorezko bat, zeina bera ere Jainkoaren erresumaren iguri baitzagoen, eta bihotzoiki sarthu zen Pilatoren aitzinera, eta galdatu zioen Jesusen gorputza.

44. Pilato berriz, harritu zen hean hain laster hil othe zen. Eta Ehuntaria deithurik, galdatu zioen, hean jadanik hila zen.

45. Eta haren ganik jakin zuenean, Josepi eman zioen gorputza.

46. Josepek aldiz, mihise bat erosirik, jautsi zuen gorputza eta mihi-sean inguratu; ezarri zuen harri kotonrean egina zen hobi batean, eta hobi ahora anbidu zuen harri bat.

47. Berriz, Maria Magdalena, eta Maria Josepen ama, begira zauden hean non ezartzen zuten.

XVI. KAP.

1. Eta larunbata iragan zenean Maria Magdalenak, eta Maria Jakoberenak, eta Salomek baltsamuak erosi zituzten, Jesusen gantzutera goateko.

2. Eta asteko lehen egunean, goizean goizik ethorri ziren hobira iguzkia atheratu orduko.

3. Eta zioten beren artean: Nork aldaratuko daroku hobi sartzetik harria?

4. Gaitza zen alabainan. Eta begiratzearekin ikhusi zuten harria aldaratua.

5. Eta hobian sartzean, ikhusi zuten gizon gazte bat, eskuineko aldean jarria, soineko xuritan, eta lastu ziren.

6. Gizon gazteak erraten diote: Ez izi; Jesus Nazarethekoa, gurutzefikatu izan dena, bilhatzen duzue; biztua da, ez da hemen, huna non ezarri zuten.

7. Bainan zoazte, errozute dizipuluei eta Piarresi, aitzintzen zaituztela Galileara; han duzue ikhusiren, berak erran izan darotzen bezala.



8. Hekiek ordean ilkhitzearekin, hobitik ihes egin zuten; alabainan izialdura eta ikhara lothu zitzaizkoten; eta nihori etzioten deusere erran, ezen beldurak zaduzkan.

9. Bada, Jesus goizean bizturik, asteko lehen egunean, lehenbizikorik agertu zitzaioen Maria Magdalenari, zeinaren baitharik irazi izan baitzuten zazpi debru.

10. Hura goan zen eta berria eman zioten Jesusekin izatu zirenei, zeinak nigar eta deithoretan baitzauden.

11. Eta aditu zutenean bizi zela, eta harek ikhusi zuela, etzuten sinhetsi.

12. Geroztik bada, bertze itxura batean agertu zitzaioten hekietarik bieri, bidean zirelarik eta bazterralde batera zihoazelarik.

13. Eta goanik, bertzeei ekharri zioten berria; bainan etzituzten hekiek ere sinhetsi.

14. Azkenik agertu zitzaioten hamekei, mahainean zirelarik; eta gaizkiak erran ziozkaten beren sinhesgaiztasunaz eta bihotz gogortasunaz, zeren biztua zela ikhusi zutenei etzioten sinheterik eman.

15. Eta erran zioten: Zoazte mundu guzia gaindi eta gizon guziei erantzun diozozuete Ebanjelioa.

16. Sinhetsiko duena eta bathaiatua izanen dena, salbatua izanen da; aldiz, sinhetsiko ez duena, galdua.

17. Bada, haukiek dire sendagailak sinhetsiko dutenei jarraikiren direnak: Ene izenean iraziko dituzte debruak, eta mintzaia berriz mintzaturen dire;

18. Erabiliren dituzte sugeak, eta zerbait hiltzeko edari edan balezate ere, ez liozokete kalterik egin; erien gainean ezarriko dituzte eskuak eta osasunera bihurturen dire.

19. Eta Jesus Jauna, hekiei mintzatu ondoan, zerurat izan zen altxatua, eta Jainkoaren eskuinean jarria dago.

20. Hekiek berriz, goan ziren eta toki guzietan predikatu zuten, Jaunak lagunduz, eta gogortuz hitza ondotikako sendagailez.

JESU-KRISTOREN EBANJELIO SAINDUA LUKEN ARABERA

I. KAP.

1. Nola bermatu baitire asko iskribuz xuxentzera guthartean bethe diren gauzen solasa,

2. Erran darozkiguten bezala, hastetik beren begiz ikhusi izan dituztenek, eta hitzaren irakhasle izatu direnek;

3. Uste izan dut nik ere, orotaz hastetik ardurarekin argitu naizen ondoan, behar narozkitzula, Theofilo prestua, arrimu onean iskribuz ezarri;

4. Jakintsun izan zaitezen argitua zaren gauzen zintasunaz.

5. Herodes, Judeako erregeren egunetan, bazen aphez bat, Zakarias deitzen zena, Abiaren andanakoa; eta haren emaztea Aaronen alabetarik zen, eta Elizabeth zuen izena.

6. Bada, Jainkoaren aitzinean zuzenak ziren bata eta bertzea, estakururik gabe zabiltzanak Jaunaren lege eta manamendu guzietan.

7. Eta haurrik etzuten, Elizabeth agorra baitzen eta biak adinetan aitzinatuak.

8. Gerthatu zen bada, bere andanaren aldiari aphezgoko eginbideak bethetzen zituelarik Jainkoaren aitzinean,

9. Zortheak, aphezen arteko ohitzaren arabera, berezi zuela Jaunaren tenploan sarthurik isentsuaren eskaintzeko.

10. Eta populu guzia kanpoan zagoen othoitzean, isentsuaren eskaintzeko mugan.

11. Bada, Jaunaren Aingerua Zakarias agertu zitzaioen isentsuko aldarearen eskuinean xutik.

12. Eta ikhustean laztu zen Zakarias, eta ikhara jauzi zitzaioen.

13. Bainan Aingeruak erran zioen: Ez izi, Zakarias, ezen entzuna izan da zure othoitza, eta Elizabeth zure emazteak emanen darotzu seme bat, zeina deithuko baituzu Joanes;

14. Eta izanen da zure bozgarri eta goiheregari, eta haren sortzeaz hainitzak sarturen dire bozkariotan.

15. Ezen handi izanen da Jainkoaren aitzinean, eta ez du edanen arnorik ez-eta mozkortzeko edaririk, eta bere amaren sabeletik izanen da Izpiritu sainduaz bethea;

16. Eta Israelgo umeetarik hainitz bihurraziren ditu beren Jainko Jaunaren ganat.



17. Haren aitzinean ibiliren da Eliasan izpirituarekin eta indarrarekin, itzularazteko aiten bihotzak semeen ganat eta sinhesgogorak prestuen gurbiltasunera, Jaunari aphaian diozon populu bat osoki erratekogabea.

18. Eta Zakariasek erran zioen Aingeruari: Zertarik ezagutuko dut hori? alabainan zaharra naiz ni, eta ene emaztea adinetan goana.

19. Eta ihardestean Aingeruak erran zioen: Ni naiz Gabriel, Jainkoaren aitzinean egoten naizena, eta bidalia naiz zuri mintzatzera eta berri hunen ematera.

20. Eta orai beretik izanen zare mutu, eta haukiek gerthatu ditazkeen eguneraino ezin mintzatuko zare, zeren ez dituzun sinhetsi ene hitzak, beren orduan betheko direnak.

21. Bizkitartean populua Zakariasen begira zagoen, eta harritzen zen, luzatzen zuelako tenploan.

22. Bada, ilkhi zenean, ezin mintza zakioketen eta ezagutu zuten zer-bait ikhuspen izatu zuela tenploan; bera kheinuka hari zitzioten, eta gel-ditu zen mutu.

23. Eta bethe zirenean haren eginbideetako egunak, goan zen bere etxerat.

24. Egun horiez geroztik, Elizabeth, haren emaztea, izorra gerthatu zen, eta gordea zagoen bortz hilabetez, zioelarik:

25. Hunela egin darot Jaunak, noiz-etare begiratu baitarot, gizonen aitzinean jasaiten nuen laidoaren khentzeko.

26. Bada, seigarren hilabetean, Gabriel Aingerua Jaunaz igorria izan zen Galileako hiri, Nazareth deitzen zen batera,

27. Birjina baten gana, zeina eskontzaz emana baitzen, Josep deitzen zen Dabiden etxetikako gizon bati; eta Maria zen birjinaren izena.

28. Eta haren aitzinera sarthurik, Aingeruak erran zioen: Agur, graziaz bethea zarena: Jauna da zurekin: Emaztekien artean zare benedikatua.

29. Aditu zuenean, Maria asaldatu zen solas horietaz, eta gogoan zerabilkan zer erran nahi zuen holako agurrak.

30. Eta Aingeruak erran zioen: Ez izi, Maria, ezen esker aurkhitu duzu Jainkoaren baithan.

31. Huna sabelean amatzera zihoazela, eta erdiko zare seme batez, eta emanen diozu izena Jesus.

32. Handi izanen da, eta deithuko da Guziz-Goraren Semea, eta Jainko Jaunak emanen dio bere aita Dabiden tronua, eta bethi guzian erre-ginaturen da Jakobon etxearen gainean;

33. Eta haren erregetasunak ez du akhabatzerik izanen.

34. Bada, Aingeruari erran zioen Mariak: Nola eginen da hori, ez dut alabainan gizonik ezagutzen?

35. Eta ihardestean Aingeruak erran zioen: Izpiritu saindua jautsiren da zutara, eta Guziz-Goraren indarrak zure gainera hedaturen du bere itzala. Eta hargatik zure ganik sorthuko den Saindua, deithuko da Jainkoaren Semea.

36. Eta hara Elizabeth, zure kusia ere, bere zahartzean seme batez izorra dela; eta agorra deitzen dutenarentzat, seigarrena da hilabete hau;

37. Jainkoarentzat deus ez baita ezinik.

38. Orduan erran zuen Mariak: Huna Jainkoaren neskatoa, egin bekit zure erranaren arabera. Eta Aingerua goan zen haren ganik.

39. Bada, egun hekietan, Maria jaikirik goan zen lehiatuki basaburuetan gaindi Judako hirira;

40. Eta sarthu zen Zakariasen etxean, eta Elizabethi eman zioen egun ona.

41. Eta Elizabethek entzun zueneko Mariaren agurra, haurra sabelean jauzi zitzioten, eta Izpiritu sainduaz bethe zen Elizabeth;

42. Eta oiuhu batekin erran zuen: Ala benedikatua baitzare emazte-kien artean, eta benedikatua da zure sabeleko fruitua.

43. Eta nondik heldu zait zorion hau, ene gana dathorla ene Jaunaren ama?

44. Ezen huna zure agurra ene beharrietara heldu bezain sarri, haurra bozkarioz jauzi zaitala sabelean.

45. Dohatsu zeren duzun sinhetsi; ezen betheko dire Jaunaren izenean erran izan zaizkitzunak.

46. Eta erran zuen Mariak: Ene arimak goersten du Jauna,

47. Eta ene izpiritua goiherez jauzten da ene Jainko salbatzailearen baithan.

48. Begiratu baitio bere sehiaren aphaltasunari, huna gizate guziek gaurgero deithuren nautela dohatsua.

49. Alabainan gauza handiak ene baithan egin ditu ahaldun denak, eta haren izena da saindua.

50. Eta haren urrikalmendua mendetik mendera da hedatzen haren beldurra dutenen gainera.

51. Agertu du bere besoaren indarra, suntsiarazi ditu beren bihotzeko asmuetan goratzen zirenak.

52. Beren jarlekhituk gora zirenak jautsarazi ditu, eta iganarazi behe-ra zirenak.



53. Gosez zaudenak gainditu ditu ontasunez, eta aberatsak igorri biluz.
54. Eskutik hartu du Israel bere zerbitzaria, orhoiturik bere urrikalkortasunaz;
55. Agindu izan zioten bezala gure arbasoei, Abrahami eta haren ondokoei menderen mendetako.
56. Bada, Maria Elizabethekin egotu zen hirur hilabetheren heina, eta gero itzuli zen bere etxerat.
57. Berriz, Elizabethi ethorri zitzaioen haur izateko muga, eta erdi zen seme batez.
58. Eta haren hauzo eta ahaideek aditu zuten nola Jaunak haren gainean erakutsi zuen bere urrikalmendua, eta harekin bozkario hartu zuten.
59. Eta zortzigarren egunean ethorri ziren hauraren ingurephaitera, eta bere aitaren izenetik deitzen zuten Zakarias.
60. Bainan amak ihardesten zuelarik erran zuen: Ez; bainan Joanes izanen du izena.
61. Eta hekiek erran zioten: Nihor ez da zure ahaidegoan izen hortaz deitzen denik.
62. Aitari berriz, kheinuz galdatu zioten, hean nola nahi zuen deith zadien haurra.
63. Eta oholtto bat galdaturik, iskribuz erran zuen: Joanes da hunen izena. Eta balditu ziren guziak.
64. Bada, ordu berean ideki zen haren ahoa eta deskoropilatu haren mihia, eta Jainkoa benedikatu mintzo zen.
65. Eta lastura batek hartu zituen hekien hauzo guziak, eta Judeako basaburu guzietan barraiatzen zituzten berri horiek;
66. Eta aditu guziak hartu zituzten bihotzean barna, ziotelarik elkharri: Zer dadukazue izanen dela haur hori? Alabainan harekin zen Jaunaren eskua.
67. Eta Zakarias, haren aita, bethea izan zen Izpiritu sainduaz, eta profetisatu zuen, zioelarik:
68. Eskerrak Israelgo Jainko Jaunari, zeren den ethorri bere popularen ikhustera eta berreroster;
69. Eta zeren Salbatzaile indarduna eraiki darokun Dabid bere zerbitzariaren etxean;
70. Hastetik izatu diren profeta sainduen ahoaz agindu zarokun bezala,

71. Atheratuko gintuela gure etsaien menetik, eta gaitzirizkotan gaduzkaten guzien eskuetarik,
72. Urrikalmendutan hartuz gure arbasoak, eta orhoituz bere patu sainduaz.
73. Gure aita Abrahami egin zaroen zin emanen zarokula,
74. Gure etsaien eskupetik atheratuak izanik, beldurrik gabe zerbitza dezagun
75. Gure biziko egun oroz saindutasunean eta zuzentasunean haren begien azpian.
76. Eta zu, haurra, deithua izanen zare Guziz-Goraren profeta; ezen Jaunaren begithartearen aitzinean goanen zare haren bideen aphaintzeko;
77. Haren populuari eman dakioen salbamenduko argia, bere bekhatuen barkhamenduko,
78. Gure Jainkoaren errai urrikalmendutsuen bidez, zeinen eraginduraz zeru gainetik ikhustera baitathorkigu iguzki jaiki-berria,
79. Argitzea gatik ilhunbeetan eta heriotzearen itzalean jarriak daudezenak, bakerako bidean bidatzeko gare urhatsak.
80. Bada, handitzen hari zen haurra, eta izpirituz hazkartzen, eta mortuan zagoen Israelen aitzinera agertu beharko zen eguneraino.

II. KAP.

1. Bada, egun hekietan gerthatu zen ilkhi zela Zesar Augustoren erabaki bat, lur guziko izenen hartzeko.
2. Lehenbiziko izen hartze hori egin izan zen Zirinoz, Siriako gobernadoreaz.
3. Eta bazihoazen oro, zein bere hirira bere izenaren ematera.
4. Josep ere Galileatik, Nazaretheko hiritik, Judeara igan zen, Dabiden hirira, zeina deitzen baitzen Bethlehem, Dabiden etxetik eta odoletik zelakoz,
5. Izenen ematera bere emazte Mariarekin, zeina izorra baitzen.
6. Bada, han zirelarik gerthatu zen Mariari bethe zitzaizkola erditze-ko egunak.
7. Eta erdi zen bere seme lehen-sorthuaz, eta xatharrez inguratu eta etzan zuen hei bateko askan, zeren hekientzat ostatuan lekhurik ez baitzen.
8. Eta baziren aurkhintza berean artzain batzu gauazko mugetan aldizka ardien zain egoten zirenak.
9. Eta hara Jaunaren Aingerua aldean gelditu zitzaioleta, eta Jainkoaren argiak inguratu, eta izialdura handi batek hartu zituen.



10. Eta Aingeruak erran zioten: Ez izi, ezen huna non ekhartzen darotzuedan berri bat, populu guziarentzat bozkario handiren bide izanen dena;

11. Gaur, Dabiden hirian sorthu baitzaitzue Salbatzaile bat, zeina baita Kristo Jauna.

12. Eta huntarik ezaguturen duzue: Haurtto bat aurkhituren duzue xatharrez inguratua, eta hei bateko askan ezarria.

13. Eta ordu berean Aingeruarekin jarri ziren zeruko armadako aralde handi batzu, Jainkoa goresten eta erraten zutenak:

14. Ospe Jainkoari zeru gorenetaraino, eta lurrean bake esker oneko gizona.

15. Eta Aingeruak hekien ganik zerurat itzuli ondoan, artzainek elkharri erran zuten: Goazen Bethlehemeraino, eta dugun ikhus Jaunak gerthatu dela ezagutarazi darokun gauza hori.

16. Eta lehiaz ethorri ziren, eta aurkhitu zituzten Maria eta Josep, eta haurttoa askan etzana.

17. Eta ikhusi zutenean, ezagutu zuten egia zela haur hartaz errana izan zitzaioten solasa.

18. Eta aditu zuten guziak espantatuak zauden hortaz eta artzainek erran zaroeztenez.

19. Bada, Mariak gauza horiek oro zaduzkan, bere bihotzean erabiliz.

20. Eta itzuli ziren artzainak, Jainkoa goresten eta laudatzen zutelarik aditu eta ikhusi zituzten gauza guziez, errana izan zitzaiotenaren arabera.

21. Goan zirenean zortzi egun haurraren ingurephaiteko, eman zioten izena Jesus, zeina baitzen Aingeruak eman zioena, amaren sabelean sorth zadien baino lehen.

22. Eta bethe zirenean Mariaren garbitzapeneko egunak, Moisesen legearen arabera, haurra eraman zuten Jerusalemara, Jaunaren aitzinera haren agertzeko,

23. Jaunaren legean iskribatua den bezala: Muthilki guziak, amaren sabela lehenbizikorik idekiko dutenak, Jaunaren aitzinean izanen direla sainduetsiak;

24. Eta sakrifiziokotzat emateko, Jaunaren legean errana den bezala, bi usoaphal, edo bi etxusokume.

25. Eta Jerusalem baten orduan gizon bat, deitzen zena Simeon; eta zen gizon hura zuzena eta Jainkoaren beldurti, Israelen gozakiaren iguriki zagoena, eta Izpiritu saindua haren baithan zen.

26. Eta Izpiritu sainduak ezagutarazi zioen, etzuela heriotzea ikhusiren, non etzuen lehenik ikhusten Jaunaren Kristo.

27. Eta izpirituak erakharri zuen tenplora. Eta nola bere burhasoek baitzerarkaten Jesus haurra, harentzat egiteko legeak manatzten zuena,

28. Simeonek hartu zuen besoetara, eta benedikatu zuen Jainkoa, eta erran zuen:

29. Orantxe, Jauna, utziko duzu zure zerbitzaria bakean hiltzera, zure hitzaren arabera;

30. Ezen ikhusi dute ene begiek zure ganikako Salbatzailea,

31. Populu guzien begien aitzinera atheratu duzuna,

32. Jendaki guziak argitu behar dituen zuzia, Israelgo zure populua- ren leloa.

33. Eta ait-amak espantatuak zauden, haurraz erranak ziren solas horien gainean.

34. Eta benedikatu zituen Simeonek, eta erran zioen haren ama Mariari: Huna ezarria dela haur hau hainitzen galpenetan eta hainitzen salbamendutan Israelen; eta jomen bat bezala, zeinari alde orotarik jazarriko baitzaio;

35. Eta zeroniri ezpatak iraganen darotzu arima, ager ditezen asko bihotzetako asmuak.

36. Eta bazen profetes bat, Ana, Phanuelen alaba, Aserren leinutikakoa; adin handitan sarthua zen, eta neskaxa zelarik hartu senharrarekin bizi izan zen zazpi urthez.

37. Eta alhargun egotu zen hura laur hogoi eta laur urthetaraino, eta etzen tenplotik aldaratzen, gau eta egun Jauna zerbitzatzuz barur eta othoitzetan.

38. Hura ere ordu berean harat gerthaturik, eman zen Jaunari aithorren bihurtzen, eta haurraz mintzaten Israelen berrerospenaren iguri zauden guziei.

39. Jaunaren legearen arabera egin beharrak akhabatu ondoan, itzuli ziren Galileara, Nazaretheko beren hirira.

40. Bizkitartean haurra hari zen larritzen eta hazkartzen, zuhurtziaz bethea; eta Jaunaren dohaina haren baithan zen.

41. Eta haren burhasoak urthe oroz Jerusalemara goaten ziren Bazko besta-burutako.

42. Eta hamabi urthetan zelarik, nola Jerusalemara igan baitziren, besta eguneko ohitzaren arabera,

43. Besta egunak iragan ondoan gibelerat itzultzen zirenean, Jerusalem gelditu zen Jesus haurra, eta burhasoak etziren ohartu.



44. Ustez-eta lagunen andanan zen, egin zuten egun baten bidea, eta beren ahaide eta ezagunetan galdatzen zuten hartaz.

45. Eta ez baitzuten aurkhitzen, Jerusalemera itzuli ziren haren ondoan.

46. Eta gerthatu zen, hirur egunen buruan atzeman zutela tenploan, irakhasleen erdian jarria, hari zela hekien entzuten eta hekiei galde egiten.

47. Eta aditzen zuten guziak harrituak zauden haren umotasunari eta haren ihardesteari.

48. Hala ikhusi zutenean beraz, balditu ziren; eta erran zioen bere amak: Haurra, zertako egin darokuzu holakorik? Huna zure aita eta ni bihotzminekin ginabiltzala zure ondoan.

49. Eta ihardetsi zioten: Zertan zinabiltzaten ene bilha? etzinakiten ene Aitari dagozkieten gauzetan behar naizela aurkhitu?

50. Bainan etzuten ardietsi harek erran solasa.

51. Eta jautsi zen hekiekin eta goan zen Nazarethera; eta hekien eskupeko bizi zen. Eta haren amak bere bihotzean zaduzkan gauza horiek oro.

52. Eta Jesus aitzinatuz zihoan zuhurtzian, adinetan, eta grazian, Jainkoaren eta gizonen begietan.

III. KAP.

1. Bada, Tiberio Zesar enperadore zen hamabortzgarren urthean, Ponzio Pilato Judean gobernadore zelarik, Herodes Galilean tetrarka, haren anaia Filipe Iturean eta Trakonitako eremuan, Lisianis berriz Abilinan;

2. Ana eta Kaiphas aphez handi zirelarik, Jaunaren hitza mortuan atheratu zitzaioen Joanesei, Zakariasen semeari.

3. Eta ethorri zen Jordaneko herrialde guzira, erantzunez urrikizko bathaio bat bekhatuen barkhamendutako,

4. Iskribatua den bezala Isaias profetaren hitzetako liburuan: Mortuan oihuz dagoenaren hitza: Aphain zazue Jaunaren bidea, xuxen zatzue haren bidexkak;

5. Betheko dire haran guziak, mendiak eta aldapak beheratuko, mak-hurrak xuxenduko, eta malkharrak bide zelhai eginen,

6. Eta gizon guziek ikhusiren dute Jainkoa ganikako Salbatzailea.

7. Erraten zioten beraz haren ganik bethaioaren hartzera ilkhitzen ziren osteei: Sugekumeak, nork erakhutsi darotzue ethortzekoa den hasarreari ihes egiten?

8. Egizkitzue beraz urrikizko behar-bezalako eginkariak; ez abia erraten: Guk Abraham dugu aita. Ezen nik derratzuet, Jainkoak harri horietarik umeak eman detzozkeela Abrahami.

9. Haizkora jadanik arbolaren erroan ezarria da. Edozein arbola fruitu onik ez dakharrena, ebakia eta surat arthikia izanen da.

10. Eta osteak galdeka hari zitzaizkon, ziotelarik: Zer eginen dugu bada?

11. Aldiz ihardestean erraten zaroeten: Bi soineko dituenak, gabe denari eman biozo bat; eta jatekorik duenak, orobat egin beza.

12. Berriz, zerga biltzaileak ere ethorri ziren haren ganik bathaioaren hartzera, eta Joanesei erran zaroten: Nausia, guk zer eginen dugu?

13. Eta ihardetsi zioten: Zuek deusere ez egin manatua zaitzuenetik gehiago.

14. Berriz, soldadoek ere galdatu zioten: Eta guk zer eginen dugu? Eta erran zioten: Nihoren gainean ez erabil bortzarik, ez egin bidegabekeriarik; eta zuen soldata aski izan bedi zuren gogara.

15. Bainan nola populuak uste baitzuen, eta guziek beren baithan baitzerabilkaten hean Joanes ez othe zaitekeen Kristo:

16. Joanesei guziei ihardetsi zioten erranez: Nitaz denaz, bathaiatzen zaituztet uraz; heldu da ordean nitaz ahaldunagoa den bat, zeinari oinetako lokharrien barriatzeko dina ez bainaiz; harek bathaiaturen zaituztete Izpiritu sainduaz eta suaz.

17. Eskuan du bahea, eta garbituren du bere larraina, eta bihia bere bihitegira bilduren du; lastoak berriz, ezin iraungizko suan erreren ditu.

18. Bertze asko solas on ere populuari ematen ziozkan ongirat deitzean.

19. Bada, nola erantzuten baitzioen Herodes tetrarkari, Herodias bere anaiaren emaztea gatik eta erabili zituen bertze gaixtakerien ariaz,

20. Herodesek egin zuen oraino gehiago, eta guzien gainera preso ere ezarri zuen Joanes.

21. Bada gerthatu zen populu guzia bathaiatzen zenean, eta Jesus ere bathaiatua izanik, othoitzean zagoenean, zerua zabaldu zela,

22. Eta haren gainera jautsi zen Izpiritu saindua gorphutz itxuran, uso bat iduri; eta mintzo bat egin zen zerutik: Zu zare ene Seme maitea, zure baithan baitadukat nik ene gozoa.

23. Jesusek, abiatu zenean, bazuen hogoi eta hamar urtheren heina, zelarik, uste zutenaz, Josepen semea; Josep baitzen Heliren seme, Heli Mathatena,

24. Mathat Lebirena, Lebi Melkirena, Melki Janena, Jane Josepena,



25. Josep Mathathiasena, Mathathias Amosena, Amos Nahumena, Nahum Hestirena, Hesli Nagjerena,
26. Nagje Mahathena, Mahath Mathathiasena, Mathathias Semeirena, Semei Josepena, Josep Judasena,
27. Judas Joanarena, Joana Erresarena, Erresa Zorobabelena, Zorobabel Salathielena, Salathiel Nerirena,
28. Neri Melkirena, Melki Adirena, Adi Kosanena, Kosan Elmadanena, Elmadan Herrena,
29. Her Jesusena, Jesus Eliezerrena, Eliezer Jorimena, Jorim Mathatena, Mathat Lebirena,
30. Lebi Simeonena, Simeon Judarena, Juda Josepena, Josep Jonarena, Jona Eliakimena,
31. Eliakim Melearena, Melea Menarena, Mena Mathatharena, Mathatha Nathanena, Nathan Dabidena,
32. Dabid Jeferena, Jese Obedena, Obed Boozena, Booz Salmonena, Salmon Naasonena,
33. Naason Aminadabena, Aminadab Aramena, Aram Efronena, Efron Pharesena, Phares Judarena,
34. Juda Jakobena, Jakob Isaakena, Isaak Abrahamena, Abraham Thararena, Thare Nakorrena,
35. Nakor Sarugena, Sarug Erragaurena, Erragau Phalegena, Phaleg Heberrena, Heber Salerena,
36. Sale Kainanena, Kainan Arphatsadena, Arphatsad Semena, Sem Noerena, Noe Lamekena,
37. Lamek Mathusalereana, Mathusale Henokena, Henok Jaredena, Jared Malaleelena, Malaleel Kainanena,
38. Kainan Henosena, Henos Sethena, Seth Adamena, Adam Jainkoatena.

IV. KAP.

1. Bada Jesus Jordanetik itzuli zen Izpiritu sainduaz bethea, eta Izpirituak mortuan erabili zuen
2. Berrogoi egunez, eta debruak tentatzen zuen. Eta egun hekitan etzuen jan deusere; eta hekiek iragan ondoan, gosetu zen.
3. Bada, debruak erran zioen: Jainkoaren Semea balin bazare, errozu harri huni ogi bilhaka dadien.
4. Eta Jesusek ihardetsi zioen: Iskribatua duk, ez dela ogiz bakharrik bizitzen gizona, bainan Jainkoaren ganikako hitz guziz.

5. Eta debruak eraman zuen mendi gora baten gainera, eta begi itzuli batean erakhutsi ziozkan lurreko erresuma guziak,
6. Eta erran zioen: Emanen darotzut bothere hori guzia eta horieta-ko ospea; ezen erresuma horiek emanak izan zaizkit, eta nik nahi dudari ditut ematen.
7. Baldin beraz adoran jartzen bazare ene aitzinean, zureak izanen dire oro.
8. Eta ihardestean, Jesusek erran zioen: Iskribatua da: Adoratuko duk hire Jainko Jauna, eta hura bakharrik zerbitzatuko.
9. Eta debruak eraman zuen Jerusalemara, eta ezarri zuen tenploaren kaskoan, eta erran zioen: Jainkoaren Semea balin bazare, jauz zaite hemendik beheiti.
10. Iskribatua da ezen, zutaz manatu dituela bere Aingeruak, zu zitzazten begira;
11. Eta beren eskuez idukiko zaituztela, beldurrez-eta dinaz behaztopa zadien harrian.
12. Orduan Jesusek ihardestean erran zioen: Errana duk: Hire Jainko Jauna ez duk tentaturen.
13. Tentazione horiek oro erabili ondoan, debruak gibelerat egin zuen bertze ordu bateraino.
14. Eta Izpirituaren eragintzaz, Jesus itzuli zen Galileara, eta haren omena ilkhi izan zen aurkhintza guzira.
15. Irakhasten hari zen hango sinagogetan, eta handiesten zuten guziek.
16. Eta ethorri zen Nazarethera, hazia izan zen lekhura, eta larunbat egunean ohi zuen bezala sarthu zen sinagogan, eta irakurtzeko jaiki zen.
17. Eman zioten Isaias profetaren liburua; eta liburua zabaldu zue-neko, atzeman zuen lekhua, zeintan iskribatua baita:
18. Ene gainean da Jaunaren Izpiritua; hargatik nau gantzutu; igorri nau beharrei ebanjelioaren erantzutera, bihotz erdiratuen sendatzera,
19. Erantzutera gathibuei berrerospena, eta itsuei argiaren emaitza; zaphatuak direnen libratzera, Jaunaren urrikalmenduzko urthearen, eta sariztapeneko egunaren erantzutera.
20. Eta liburua hertsu ondoan bihurtu zioen sinagogako buruzagiari eta jarri zen. Eta sinagogan guzien begiak haren gainean zauden.
21. Eta hasi zitzaioten erraten: Egungo egunean bethetzen da zuen beharraz aditu duzuen iskritura hori.



22. Eta guziek aithor ematen zioten, eta espantatuak zauden haren ahotik ilkhitzen ziren solasen esker ederrari, eta erraten zuten: Hau ez othe da bada Josepen semea?

23. Eta erran zioten: Erantzunen darotazue naski errankizun hau: Midikua, senda zazu zure burua; hemen ere, zure herrian egizkitzu hain gauza handiak, nola entzun baitugu Kapharnaumen egin izan ditutzula.

24. Erran zioten gero: Egiaz derratzuet, profetarik ez dela bere herrian onhetsia izan denik.

25. Erraten darotzuet egiazki, Eliasen egunetan Israelen baziren asko emazteki alhargun, zerua egon zenean hirur urthe eta sei hilabetez heresia, gosete handi bat egin baitzen lur guzian.

26. Eta hekietarik baten ganat ere etzen bidalia izan Elias, baina bai Sarepta Sidoniakora, emazteki alhargun baten gana.

27. Eta baziren asko legentsu Israelen Eliseo profetaren egunetan, eta hekietarik nihor etzen garbitu, baizik-ere Naaman Siriarra.

28. Horiek aditurik, sinagogan guziak suminduraz bethe ziren.

29. Eta jaiki ziren, eta hiritik irazi zuten, eta hiria jarria zen mendiko pendoitz muthurrera eraman zuten handik beheiti arthikitzeke.

30. Baina hura hekien erditik iraganez goan zen.

31. Eta jautsi zen Kapharnaum Galileako hirira, eta han irakhasten hari zitzioten larunbat egunetan.

32. Eta harritzen ziren haren irakhasmenaz, eskudantziakoa zelakoz haren solasa.

33. Eta sinagogan bazen gizon bat debru lohi batek zadukana, eta deihadar egin zuen,

34. Zerralarik: Utz gaitzatu; zer da zure eta gure arteko, Jesus Nazaretharra? gure galtzera ethorria othe zare? Badakit nor zaren; Jainkoaren Saindua zare zu.

35. Eta Jesusek larderiatur erran zioen: Ago ixilik, eta hoa gizon horren ganik. Eta debruak gizona guzien erdira arthikirik, ilkhi zen haren baitharik, eta etzioen egin minik batere.

36. Eta ikhara jarri zen guzien gainean, eta beren artean mintzo ziren erranez: Zer da solas hau? ezen buruiopez eta nausitasunekin manatzen ditu izpiritu lohiak, eta goaten dire.

37. Eta haren omenak jo zituen aurkhintzako toki guziak.

38. Bada, sinagogatik ilkhirik, Jesus sarthu zen Simonen etxean. Simonen amaginarreba berriz, zen sukhar handi batek hartua, eta othoiztu zuten harentzat.

39. Eriaren gainera makhurturik, manatu zuen sukharra, eta sukharak utzi zuen. Eta hura, berehala jaikirik, abiatu zen hekien zerbitzatzan.

40. Bada, iguzkia etzan zenean, eririk zutenek, asko gaitzekilakoak erakhartzen ziozkaten. Eta Jesusek eskuak bakhotxari gainean ezarriz, sendatzen zituen hekiek.

41. Hainitzeti ganik berriz, debruak atheratzen ziren oihuka eta erranez: Badakigu Jainkoaren Semea zarela. Baina dixidatuz etzituen uzten holakorik erratera, bazakitela Kristo zela.

42. Egundu zenean berriz, ilkhi eta goan zen toki basa batera; eta osteak haren bilha zabiltzan, eta heldu izan ziren haren ganat; eta idukitzen baitzuten etzadien goan hekien ganik,

43. Jesusek erran zioten: Bertze hiriei ere behar diotet erantzun Jainkoaren erresumako ebanjelioa, ezen hortarako naiz bidalia.

44. Eta predikatzen zabilan Galileako sinagogetan.

V. KAP.

1. Bada, gerthatu zen osteek hertsatzen zutela Jainkoaren hitzaren aditzeko, eta zen Jenaretheko ur-maelaren aldean.

2. Eta ikhusi zituen bi untzi ur hegian geldituak; arrantzariak berriz, jautsiak ziren eta sareen garbitzen hari.

3. Simonena zen untzi batera iganik, othoiztu zuen Simon leihorretik gibela zadien aphur bat; eta jarri ondoan, untzitik hari zen osteen irakhasten.

4. Eta mintzatzetik gelditu zenean, erran zioen Simoni: Egizu zabalrat, eta sareak arthikatze arrantzatzeko.

5. Ihardestean Simonek erran zioen: Nausia, gau guzian nekhatu ondoan, ez dugu deus atzeman; baina zure erranaren gainean, hedatuko dut sarea.

6. Eta hori egin zutenean, harrapatu zuten nihonereko arrainketa, eta sarea lehertzen zitzioten.

7. Eta kheinu egin zioten bertze untziko lagunei ethor zitezen laguntzera. Eta ethorri ziren, eta bethe zituzten bi untzixkak, haletan non hondatzeko heinean baitziren.

8. Simon Piarresek ikhusi zuenean hori, erori zen Jesusen oinetara, zioelarik: Ene ganik gibela zaite, Jauna, gizon bekhatore bat bainaiz ni.

9. Alabainan lasturak hartu zituen, egin zuten arrantzaren ariaz, hura, harekilakoak,



10. Eta orobat Jakobe eta Joanes, Zebedeoren semeak, zeinak baitziren Simonen lagunak. Eta Simoni erran zioen Jesusek: Ez izi, hemendik aitzinat gizon atzemaile izanen zare.

11. Eta untziak leihorreat ekharri ondoan, guziak utzirik, jarraiki ziren Jesusi.

12. Eta gerthatu zen hango hirietarik batean zelarik, han bazela gizon bat legenez bethea; eta ikhusirik Jesus, ahuspez erori zen eta othoiztu zuen, zioelarik: Jauna, nahi baduzu, garbi nezakezu.

13. Eta eskua hedatuz ukitu zuen, zerralarik: Nahi dut, garbi zaite. Eta han berean goan zitzaioen legena.

14. Eta Jesusek manatu zioen nihori etziozon aipha, eta erran zioen: Zoaz ordean, aphezaren aitzinera ager zaite, eta zure garbitzearen ariaz eskaint zazu Moisesek manatu duena, lekhukotasunetan izan dezaten.

15. Bada, hartazko haroa bazabilan geroago eta gehiago, eta oste handiak biltzen ziren entzutera, eta beren gaitzetarik sendatzeraz.

16. Aldiz hura, mortura baztertzen eta othoitzean egoten zen.

17. Eta egun batez gerthatu zen jarririk irakhasten hari zela. Eta Farisauak eta legearen irakhasleak, Galileako eta Judeako herri guzietarik eta Jerusalemetik ethorriarik, jarriak zauden; eta Jaunaren ahalak eragiten zuen eriak sendatuz.

18. Eta hara gizon batzuek ohean zakhartela bertze gizon bat enblai zena; eta hura barnera sarthu nahiz eta Jesusen aitzinean ezarri beharrez zabiltzan.

19. Eta ez aurkhitzenez nondik hura sar ostearen ariaz, igan ziren hegaztegiara, eta handik beheiti igorri zuten bere ohearekin guzien erdira, Jesusen aitzinera.

20. Hekien sinhestea ikhusirik, Jesusek erran zuen: Gizona, barkhatzen zaizkitzue zure bekhatuak.

21. Eta Iskribauak eta Farisauak gogoetaka hasi ziren, ziotelarik: Nor da burho erraile hau? nork barkha detzazke bekhatuak, Jainkoak berak baizik?

22. Jesusek ordean ezagutu baitzituen hekien gogoetak, ihardestean erran zioten: Zer gogoeta derabilazue zuen bihotzetan?

23. Zer da errexenik, erratea: Barkhatuak zaizkitzue zure bekhatuak; ala erratea: Xuti zaite eta ibil?

24. Jakin dezazuen gizonaren Semeak baduela lurraren gainean bekhatuen barkhatzeko ahala, erran zioen enblaiari: Nik derratzut, xuti zaite, har zazu zure ohea, eta zoaz etxerat.

25. Eta berehala hekien aitzinean jaikirik, hartu zuen bere azpiko ohea; eta Jainkoa goretsiz goan zen bere etxerat.

26. Eta durduzadurak hartu zituen guziak, eta handiesten zuten Jainkoa. Eta lazturaz betherik, erraten zuten: Ala gauza espantagarriak baititugu egun ikhusi

27. Eta horien ondoan ilkhi zen Jesus, eta ikhusi zuen zerga biltzaile bat, Lebi deitzen zena, zerga bildegian jarria, eta erran zioen: Jarraik zakizkit.

28. Eta oro utzirik, jaiki eta jarraiki zitzaioen.

29. Eta Lebi barazkari handi bat eman zioen bere etxean; eta baziren zerga biltzaile moltzo handi bat eta bertze asko hekiekin mahainean.

30. Eta Farisauak eta hango Iskribauak marmaraka hari ziren, Jesusen dizipuluei erraten ziotelarik: Zergatik jaten eta edaten duzue zerga biltzaile eta bekhatoreekin?

31. Eta ihardetsiz, Jesusek erran zioten: Sasual direnek ez dute midiku beharrik, bai ordean eri direnek.

32. Ez naiz ethorri urrikira deitzera prestuak, bai ordean bekhatoreak.

33. Hekiek berriz, erran zioten: Zergatik Joanesen dizipuluek egiten dituzte barurak usu Farisauak bezala, eta othoitzetan egoten dire, eta zurek jaten eta edaten baitute?

34. Jesusek erran zioten: Barur eragin othe diozokezue ezkonberriaren lagunei, ezkonberria berekin duteno?

35. Baina ethorriren dire egunak, khenduko baitzaioete ezkonberria; orduan, egun hekietan eginen dute barur.

36. Atheratu zioten berriz, iduripen hau ere: Nihork ez dio soineko berritik ihetxeari pedaxurik ematen; bertzela hausten du berria, eta pedaxua ez dihoakio berritik zaharrari.

37. Eta nihork ez du arno berria zahagi zaharretan ezartzen; bertzela arno berriak lehertuko ditu zahagiak, eta ixuriko da bera, eta zahagiak galduko.

38. Baina arno berria zahagi berrietan da ezartzeko, eta hala batzuek eta bertzeak begiratzen dire.

39. Eta nihork arno zaharretik edaten duenean, ez du berehala berritik nahiko, dioelakoz: Hobe da zaharra.

VI. KAP.

1. Bada, gerthatu zen larunbat bigarren-lehen batez, ogi landetarik iragaiten zelarik Jesus, haren dizipuluek ogi buruak hartzen, eta eskuetan murruskatuz jaten zituztela.



2. Eta Farisauetarik zenbaitek erraten zioten: Zertako egiten duzue larunbatez haizu ez dena
3. Jesusek hekiei ihardestean, erran zuen: Ez duzue hau ere irakurtu zer egin izan zuen Dabidek, bera eta harekin zirenak ere bai, gosez zaudezen aldi batez;
4. Nola sarthu zen Jainkoaren etxean, eta hartu zituen eskaintzako ogiak, eta jan eta bere lagunei ere eman zuen, hekietarik jatea etzen arren sori, bakharrrik aphezei baizik?
5. Eta erraten zaroeten: Gizonaren Semea larunbataren ere nausi da.
6. Berriz, bertze larunbat batez gerthatu zen sinagogan sarthu zela, eta irakhasten hari zen; eta han bazen gizon bat esku eskuina iharra zuena.
7. Bada Iskribauak eta Farisauek begia zadukaten hean larunbat egunez sendatuko othe zuen, nonbatik jasarbide zerbait aurkhitu nahiz.
8. Baina Jesusek ezagutzen zituen hekien gogoetak, eta erran zioen esku iharra zuen gizonari: Jaiki zaite eta eman zaite erdi hortan. Eta xutiturik, erdian gelditu zen.
9. Aldiz hekiei buruz Jesusek erran zuen: Galdatzen darotzuet hean larunbat egunez ongi egitea, ala gaizki egitea denez haizu; biziaren ematea ala khentzea?
10. Eta guziei inguruan begiraturik, erran zioen gizonan: Heda zazu eskua. Eta hedatu zuen: eta sasualdu zitzaioen.
11. Bada, horrek erhotu zituen; eta beren artean mintzo ziren hean zer eginen zioten Jesusi.
12. Berriz, egun hekietan othoitza mendira goan zen, eta gaua iragan zuen Jainkoari othoitzean.
13. Eta eguna ethorri zenean, deithu zituen bere dizipuluak, eta hekietarik hautatu zituen hamabi (eman ere zioten Apostoluen izena),
14. Simon, zeina deithu baitzuen Piarres, eta Andres haren anaia, Jakobe eta Joanes, Filipe eta Bartholome,
15. Mathiu eta Thomas, Jakobe Alpheorena eta Simon, khartsua deitzen zena;
16. Juda, Jakoberen anaia, eta Judas Iskariot, zeinak saldu baitzuen gero.
17. Eta hekiekin jausten zelarik, baratu zen toki ordoki batean, eta harekin haren dizipulu araldea eta Judea guzitik, Jerusalemetik, eta Tirreko eta Sidongo itsas-bazterretarik populu oste handi bat,
18. Zeina ethorri baitzen haren entzutera eta bere eritasunetarik sendatzera. Eta izpirituhiek zerabilzkatenak ere sendatzen ziren.

19. Eta oste guzia zabilan hura ukitu beharrez; zeren haren ganik ilkhitzen baitzen eragindura bat, guziak sendatzen zituena.
20. Orduan bere dizipuluetara begiak goititurik, erran zuen: Dohatsu beharrak, zeren zuena baita Jainkoaren erresuma.
21. Dohatsu orai gose zaretenak, ezen aseko zarete. Dohatsu orai nigarretan zaretenak, zeren boztuko baitzarete.
22. Dohatsu zarete izanen, noiz-etare gizonak baitzaituztete gaitzetsiko, bereziko, eskarniatuko, eta zuen izena dutenean gaixtotzat arbuatuko gizonaren Semearen ariaz.
23. Boz eta jauz zaitezte egun hartan; ezen hara zuen saria handia dela zeruan; horien aitek alabainan hola-hola egiten zaroetan profetei.
24. Baina zorigaitz zuei, aberatsak; zuekin baituzue zuen gozoa.
25. Zorigaitz zuei, aseak zaretenak, zeren gosez egonen baitzarete. Zorigaitz zuei, orai irriz zaudeztenak; zeren eginen baituzue nigar eta marraska.
26. Zorigaitz zuei, laudatuko zaituztetenean gizonak, ezen hala-hala egiten zaroeten horien arbasoek profeta-aizunei.
27. Baina zuei, entzuten nauzuenei derratzuet nik: Maitha zatzue zuen etsaiak; ongia egiozute gaizki begiratzen darotzuetenei.
28. Ongi mintza zaitezte, zuetaz gaizki mintzo direnentzat, othoitzak egizkitzue zuetaz belzkeria erraten hari direnentzat.
29. Eta mathela batean jotzen zaituenari phara diozozu bertzea ere; eta soingainekoa eramaten darotzuena ez debeka hartzetik barnekoea ere.
30. Berriz, edozeinek galda dezazun, emozu; eta zurea khentzen darotzunari ez bihurraz.
31. Eta nola nahi baituzue egin dezazuten gizonak, hala zuek ere egin diozozute.
32. Eta baldin zuek maite zaituztetanak badire zuek maite dituzue-nak, zer izanen da zuen eskerra? ezik gaixtaginek ere maite dituzte beren maithatzaileak.
33. Eta baldin zuen ongi egileei egiten badiozute ongia, zer izanen da zuen eskerra? ezik gaixtaginek ere egiten dute horrenbertze.
34. Eta hainei, mailegutan ematen baduzue, zeinen ganik igurikitzen baituzue ordaina, zer izanen da zuen eskerra? ezik gaixtaginek ere gaixtaginei maileguz ematen diote, bertze hainbertzeren izatekotan.
35. Guzia gatik maitha zatzue zuen etsaiak; ongia egizue eta mailegua eman, handik deusere iguriki gabe, eta zuen saria izanen da handia, eta Guziz-Goraren seme zarete izanen; ezen ona da hura eskergabe eta gaixtaginentzat.



36. Urrikalmendutsu zaitetze beraz izan, zuen Aita urrikalmendutsu den bezala.

37. Ez juia, eta etzarete juiatuak izanen; ez kondena, eta etzarete izanen kondenatuak; barkha zazue, eta barkhaturen zaitzue;

38. Emazue, eta emanen zaitzue; neurri ona, asea, higitua eta gaindi dihoana emanen zaitzue altzora. Ezen zein neurriz ere neurtu baitukezue, hartaz beraz zuei neurturen zaitzue.

39. Atheratzen zioten oraino iduripen bat: Itsua izan othe ditake itsu bidari? ez othe dire biak erre kara eroriko?

40. Dizipulua ez da nausia baino gehiago; bainan dizipulua perfeta da, nausia bezalakoa balin bada.

41. Nolaz ikhusten duzu bada anaiaren begian izpia, eta zure begian ez ohartzen lazari?

42. Edo nola derrokezu zure anaiari: Anaia, zaude khen dezazudan phits bat begitik, etzarenean ohartzen zure begian lazari? Itxura-ederrekoa, lehenik khen zazu zure begitik laza; eta gero abia zaite zure anaiari idokitzen begitik phitsa.

43. Ez da alabainan ona, fruitu tzarrak dakharzkan arbola; ez-eta tzarra, fruitu onak dematzana.

44. Ezen arbola bakhotxa bere fruitutik da ezagun. Elhorrietarik alabainan ez da pikorik biltzen, ez-eta lapharretan mahats molkhorik.

45. Gizon onak bere bihotz onetik atheratzen du ongia; eta gaixtoak, bere bihotz gaixtotik gaizkia. Alabainan ahoa bihotzeko gaindiduratik da mintzo.

46. Nolaz bada deitzen nauzue: Nausia, Nausia; eta nik derradana ez egiten?

47. Ene gana dathorrena, ene hitzak entzun eta egiten dituen, haina noren iduriko den erakhutsiko darotzuet:

48. Harek iduri du etxe egiten hari den gizona, zeinak behera baite-rama erreka, eta asentuak harriaren gainean jartzen baititu. Uholde bat eginik, uharrak jo du haren etxea eta ez du khordokatu ahal, zeren harriaren gainean baitzen asentatua.

49. Aldiz aditzen duenak eta ez egiten, hainak iduri du, asenturik gabe lurraren gainean etxe egiten hari den gizona: ibaiak jo du etxea, eta berehala lurrera goan da, eta handia izan da etxe hartako desmasia.

VII. KAP.

1. Bada, solas horiek oro akhabatu zituenan populua aituzinean, sarthu zen Kapharnaumen.

2. Eta bazen Ehuntari baten muthila, bere nausiak hainitz maite zuena, gaitzak hartua eta hiltzekotan.

3. Eta aditurik Jesusen aiphua, Ehuntariak bidali ziozkan Juduetarikako zahar zenbait, othoiztuz ethor zadien, eta salba zezan haren sehia.

4. Eta haukiek ethorri zirenean Jesusen gana, hertsatuki othoizten zuten, zerrotelarik: Merezi du hori egin dezazun harentzat.

5. Maite du ezen gure jendakia, eta berak egin izan daroku sinagoga.

6. Jesus hekiekin zihoan beraz, eta orduko etzelarik etxetik urrun, Ehuntariak igorri ziozkan bere adiskide batzu, zioelarik: Jauna, ez har nekherik; ezen ez dut merezi sar zaitezen ene leihorrean.

7. Hargatik ere ez dut uste izatu, aski naizela neroni zure bidera ethortzeko; bainan errazu hitz bat, eta sendatuko da ene muthila.

8. Ezen ni ere bertzeen manuko naiz, ditudalarik soldadoak ene azpiko; eta erraten diot huni: Zoaz; eta badoha; eta bertze horri: Zato; eta heldu da; eta ene sehiari: Egizu hau; eta egiten du.

9. Hori aditurik, espantatu zen Jesus; eta itzuliz ondotik zarrarikon ostean aldera, erran zuen: Egiaz derratzuet, ez dudala Israelen ere horrenbertzeko sinhestea aurkhitu.

10. Eta bidaliak izan zirenak etxeratu zirenean, sendatua atzeman zuten eri izatu sehia.

11. Gero Jesus bazihoan Naim deitzen den hirira, eta harekin zihoa-zen haren dizipulua eta jendetze handi bat.

12. Bada, hiriko athera hurbildu zenean, hara hil bat ekhartzen zutela, bere amaren ume bakharra, eta alharguna zen ama; eta harekin bazen hiriko jende hainitz.

13. Jaunak ikhusi zuenean emaztekoa, urrikalmenduak harturik, erran zioen: Nigarrik ez egin.

14. Eta hurbildu, eta ukitu zuen khutxa. (Bada ekharleak gelditu ziren.) Eta erran zuen: Gizon gaztea, nik derratzut, jaiki zaite.

15. Eta hila zena jarri zen, eta mintzatzen hasi; eta Jesusek eman zioen bere amari.

16. Lazturak berriz, hartu zituen han ziren guziak; eta handiesten zuten Jainkoa erranez: Ala profeta handia jaiki baita guthartean! Jainkoak ikhusi du bere populua.

17. Eta hortazko solasak jo zituen Judea guzia eta inguruetakokiak.

18. Eta Joanesi bere dizipuluek ekharri ziozkaten berri horiek oro.



19. Eta Joanesek deithurik bere dizipuluetarik bia, Jesusen gana bidali zituen, zioelarik: Zu zare ethortzekoa zarena, ala bertze baten iguri gaude?

20. Gizon hekiek Jesusen gana ethorri zirenean, erran zioten: Joanesek igorri gaitu zure gana, dioelarik: Zu zare ethortzekoa zarena, ala bertze baten iguri gaude?

21. (Bada ordu berean sendatu zituen hainitz beren gaitz, zauri eta izpiritu gaixtoetarik, eta asko itsuri eman zioten argia.)

22. Eta ihardestean erran zaroeten: Goanik errozue Joanesi zer duzuen aditu eta ikhusi: Itsuek ikhusten dutela, mainguak badabiltzala, legentsuak garbitzen direla, gorrek aditzen dutela, hilak bizten direla, beharrei erantzuten zaiotela ebanjelioa;

23. Eta dohatsu nitaz gaizbide harturen ez duena.

24. Eta Joanesen mandatariak gibelerat goan zirenean, Joanesez osteei abiatu zen erraten: Zeren ikhustera goan zarete mortura? haizeak derabilan khanabera baten?

25. Bainan zeren ikhustera goan zarete? soineko guriz jauntzia den gizon baten? Hara, erregeen jauregietan dire ederki jauntziak eta atseginpean bizi direnak.

26. Zeren ikhusten izatu zarete bada? profeta baten? Bai segur, derratzuet, eta profeta baino handiagoaren:

27. Hura da, zeintaz iskribatua baita: Huna non zure begithartearen aitzinean dudan igortzen ene aingerua, zure aitzinean zure bidea aphainduren darotzuna.

28. Ezen nik derratzuet: Emaztekien umeen artean Joanes Baptista baino profeta handiagorik nihor ez da. Bainan Jainkoaren erresumako xumeena, hura baino handiago da.

29. Eta hori aditurik, populu eta zerga biltzaile, Joanesen bathaioaz bathaiatuak izan ziren guziek aithor bihurtzen zioten Jainkoari.

30. Bainan Farisau eta legearen irakhasle, haren eskutik bathaiatuak etzirenek, beren bihotzetan arbuaiatu zuten Jainkoaren mezua.

31. Bada, Jaunak erran zuen: Noren iduriko erranen dut direla mende huntako gizonak? eta nor dute iduri?

32. Iduri dute haur batzu, plazan jarriak eta elkharri mintzo direnak, diotelarik: Jo darotzuegu xirola, eta etzarete dantzatu; egin darotzuegu deithore, eta nigarrrik egin ez duzue.

33. Ezen ethorri da Joanes Baptista, ez duelarik ez ogirik jaten, ez arnorik edaten, eta diozue: Debrua du.

34. Ethorri da gizonaren Semea, ogia jaten duena eta arnoa edaten, eta diozue: Huna ezin asezo gizon eta arno edale bat, zerga biltzaileen eta bekhatoreen adiskidea.

35. Bainan zuhurtziak bere ume guzien aithorra badu.

36. Bada Farisauetarik batek othoizten zuen harekin jatera. Eta Farisauaren etxera sarthurik, jarri zen mahainean.

37. Eta hara, hirian zagoen emazteki lilitxo batek jakin zueneko mahainean zela Farisauaren etxean, ekharri zuen albatrazko untzi bat gantzugailuz bethea.

38. Eta gibeletik zagoelarik haren oinetan, hasi zitzaion bere nigarrez oinen bustitzen, eta xukhatzen buruko ileez, eta musu ematen zioten, eta gantzugailuz gantzutzen zituen.

39. Bada hori ikhustean, Jesus deithu zuen Farisauak bere baithan egiten zuen: Hau profeta balitz, balakike segur nor eta nolakoa den ukitzen hari zaioen emaztekia; emazteki galdu bat baita.

40. Eta Jesusek hitza hartuz, erran zioen: Simon, badut zerbait zuri errateko. Eta harek ihardetsi zuen: Errazu, Nausia.

41. Hartzedun batek bazituen bi zorduru; batek zor ziozkan bortz ehun denario, bertzeak berrogoi eta hamar.

42. Bainan nola ez baitzuten bihurtzekorik, barkhatu zioten bie. Zeinek du beraz maiteenik?

43. Ihardestean Simonek erran zuen: Ene idurira, gehienik barkhatua izan zuenak. Eta Jesusek erran zioen: Ongi mintzatu zare.

44. Eta emaztekiaren alderat itzulirik, Simoni erran zioen: Ikhusten duzu emazteki hau? Sarthu naiz zure etxean; urik ez darotazu oinentzat eman; hunek aldiz nigarrez busti eta bere ileez xukhatu darozkit.

45. Ez darotadazu musu bat eman; hau aldiz, sarthu denetik, ene oinen musukatsetik ez da baratu.

46. Olio ez darotadazu gantzutu burua; hunek ordean gantzugailuz gantzutu ditu ene oinak.

47. Aria horiez derratzut nik: Hoben hainitz zaizkio barkhatzen, zeren hainitz duen maithatu; aldiz gutiago barkhatzen zaioenak, gutiago du maithatzen.

48. Emaztekiari berriz, erran zioen: Barkhatuak zaizkitzu zure bekhatuak.

49. Eta harekin mahainean zirenak abiatu ziren beren baithan erraten: Nor da hau, bekhatuak ere barkhatzen baititu?

50. Bainan Jesusek erran zioen emaztekiari: Zure sinhesteak salbatu zaitu; zoaz bakearekin.



VIII. KAP.

1. Hau izan zen gero: Jesus hiri-herriak gaindi zabilan erantzunez eta hedatuz Jainkoaren erresumako ebanjelioa; eta harekin ziren hamabiak,
2. Eta emazteki batzu, izpiritu gaixtoetarik eta eritasunetarik sendatuak; Maria, Magdalena deitzen zutena, zeina ganik zazpi debru ilkhi baitziren;
3. Joana, Herodesen etxegizonaren, Kusaren emaztea, Susana eta bertze asko, beren ahaletarik laguntzen zutenak Jesus.
4. Bada nola jendetze handiak bildu eta lehiaka haren gana hirietarik heldu baitziren, erran zaroeten iduripenetan:
5. Erailea ilkhi zen bere haziaren eraitera; eta erraten zuelarik, liphar bat erori zen bide bazterrera; eta ostikatuia izan zen, eta zeruko xoriek jan zuten.
6. Eta bertze bat erori zen hartsu batera; eta sorthu ondoan ihartu zen, hezadurarik etzuelakoz.
7. Eta bertze bat erori zen laphardira; eta lapharrak harekin batean handiturik, itho zuten.
8. Eta bertze bat lur onera zen erori; eta sorthurik eman zuen ehunetan bertze hainbertze. Horiek erratean, oiuhu egiten zuen: Aditzeko beharriak duenak, adi beza.
9. Bada, bere dizipuluek galdatzen zioten zer erran nahi zuen parabola horrek.
10. Jesusek erran zaroeten: Eman zaitzue zuei ezagut dezazuen Jainkoaren erresumako misterioa; bainan bertzeei, iduripenetan; ikhustean ez dezaten ikhus, entzutean ez dezaten adi.
11. Hau da beraz parabola: Hazia, Jainkoaren hitza da.
12. Berriz, bide bazterreko bihiak, dire aditzen dutenak; heldu da gero debrua, eta hekien bihotzetarik khentzen du hitza, sinhetsiz ez ditezen salba.
13. Aldiz, hartura eroriak, dire, aditu ondoan, hitza gogotik onhesen dutenak; ez dute ordean errorik, aphur bateko baita hekien sinhestea, eta ukho egiten baitute tentazioneko orduan.
14. Berriz, laphardira eroriak, dire entzun dutenak, eta gero ardurek, aberastasunek, bizitzeko atseginkeriek ithotzen dituzte, eta fruiturik ez dakharte.
15. Bada, lur onerat eroriak, hainak dire zeinek bihotz on eta guziz onean hartu eta iduki baitute hitza, eta jasankortasunaren bidez fruitu ekhartzen baitute.

16. Nihor ez da, berriz, kriselua biztu eta untzi batez estaltzen, edo ohe azpian ezartzen duenak; bainan ganderailuaren gainean ezartzen du, sartzen direnek ikhus dezaten argia.

17. Ezen ez da gauza itsurik argituren ez denik, ez-eta gorderik eza-gutuko eta agerira ethorriren ez denik.

18. Ikhusazue beraz nola entzuten duzuen. Ezen duenari emanen zaio; eta gabe denari, bere ustez duena ere khenduko zaio.

19. Bada, haren ama eta anaiak ethorri ziren haren gana, eta ezin hurbil zitzaizkioken jende murruren ariaz.

20. Eta erran zioten berria: Zure ama eta anaiak, zu ikhusi nahiak daude kanpoan.

21. Jesusek ihardetsi zioten: Ene ama eta anaiak, hainak dire zeinek Jainkoaren hitza entzuten eta bethetzen baitute.

22. Gerthatu zen bada, egun batez bere dizipuluekin igan zela untzittu batera, eta erran zaroeten: Goazen uraz haindira. Eta abiatu ziren.

23. Eta bazihoazelarik, lokhartu zen; eta haizea buhunba jautsi zen urmaelara; eta urez bethetzen ziren eta galtzeko zoritan ziren.

24. Orduan hurbildurik, iratzarri zuten, ziotelarik: Nausia, galtzera goaz. Bainan harek, jaikirik larderiatu zituen haizea eta ureko phesia, eta gelditu ziren, eta jabaldura egin zen.

25. Hekiei berriz, erran zioten: Non da zuen sinhestea? Hekiek beren izialduran, harrituak zauden beren artean, ziotelarik: Nor uste duzue dela hau, haizeari eta itsasoari manatzen baitiote, eta horiek entzuten baitute?

26. Eta jo zuten Jerasatarren eremuetara, zeinak Galilearen parrean baitire.

27. Eta leihorrera jautsi zenean Jesus, aitzinera ethorri zitzaioen gizon bat, debruak hartua aspaldi hartan, soinekorik erabiltzen etzuen, eta ez etxetan, bainan hobietan zagoena.

28. Ikhusi zueneko Jesus, haren aitzinean erori zen, eta deihadar eginenez, erran zioen: Jesus, Jainko Guziz-Goraren Semea, zer da zure eta ene arteko? othoi-othoi, ez jasanaraz niri.

29. Ezen Jesusek izpiritu lohiari manatzen zioen, ilkhi zadien gizon haren barnetik. Alabainan debruak harrapatua zadukan aspaldi hartan; eta gathez tinkatzen zuten, eta oin burdinez idukia zelarik, burdinak trenkatzen zituen, eta debruak mortua gaindi erabiltzen zuen.

30. Bada, Jesusek galdatu zioen: Zer duk izena? Eta ihardetsi zuen: Andana; zeren hainitz debru baitziren gizon hartan sarthuak.

31. Eta othoizka zagozkion, etzetzan lezera mana.



32. Bainan han baitzen urde hanitz mendian alhan zirenak, debruek orhoiztu zuten utz zetzan hekietan sartzera; eta haizu eman zioten.
33. Beraz debruak gizonaren baitharik ilkhi eta urdeetan sarthu ziren; eta urdaldea tarrapatan gain-behera jauzi zen urera, eta itho ziren guziak.
34. Alharazleek ikhusi zuteneko zer zen gerthatu, ihes egin eta berria eraman zuten hirira eta bazterretara.
35. Bada, jendeak ilkhi ziren zer gerthatu zen ikhustera, eta Jesusen gana ethorri ziren, eta aurkhitu zuten, debruek utzi gizona, Jesusen oinetan jarria, soinekoz jauntzia, eta tentu onarekin; eta izitu ziren.
36. Ikhusleek berriz, erran zaroeten, nola izan zen andanatik sendatua.
37. Eta Jerasatarren lureko populu guziak othoiztu zuen urrun zadien hekien ganik; alabainan izialdura handiak hartuak ziren. Jesus beraz, untzirat iganik, gibelerat goan zen.
38. Eta debruek utzi gizona othoizka zagokon har zezan berekin; bainan Jesusek igorri zuen, zioelarik:
39. Bihur zaite zure etxerat, eta ezagutaraz zazu zein gauza handiak egin dituen Jainkoak zuretzat. Eta goan zen, hiri guzia gaindi erantzunez zenbateko gauzak harentzat egin zituen Jesusek.
40. Bada, gerthatu zen oste batek hartu zuela Jesus itzuli zenean; ezen iguri zagozkion guziak.
41. Eta hara ethorri zitzaioela Jairo deitzen zen gizon bat, eta hura sinagogako buruzagia zen: eta erori zen Jesusen oinetara, othoizten zuelarik sar zadien haren etxean,
42. Zeren alaba bakhar bat baitzuen, hamabi urtheren ingurutsukoa, eta hiltzera zihoana. Eta gerthatzen zen, Jesus zihoalarik, hertsatzen zuela osteak.
43. Eta bazen emazteki bat hamabi urthe hartan odol jauste batekin, midikutan bore izate guzia xahutu zuena, eta nihork ezin sendatu baitzuen.
44. Hurbildu zen gibeletik, eta ukitu zuen Jesusen soinekoaren litsa, eta han berean gelditu zen haren odol jaustea.
45. Eta Jesusek erran zuen: Nor da ukitu nauena? Bada, guziek ukhartzten baitzuten, Piarresek eta harekin zirenek erran zuten: Nausia, osteek hertsatzen eta nekhatzen zaituzte, eta diozu: Nork ukitu nau?
46. Eta Jesusek erran zuen: Norbaitek ukitu nau; ezen ezagutu dut indar bat ene ganik atheratzen.

47. Ikhusirik beraz ezin gorde zela, emaztekoa ikharan ethorri zen eta Jesusen oinetara erori; eta populu guziaren aitzinean ezagutarazi zuen zergatik ukitu zuen, eta nola izan zen berehala sendatua.
48. Eta Jesusek erran zioen: Haurra, zure sinhesteak salbatu zaitu; zoaz bakean.
49. Oraino mintzo zelarik, norbait ethorri zen sinagogako buruzagiaren gana, erraten zioelarik: Hil da zure alaba; ez akhiaraz gehiago Nausia.
50. Jesusek berriz, hori aditurik, ihardetsi zioen neskatxaren aitari: Ez izan beldur; bakharrik sinheste izan zazu, eta atheratuko da.
51. Etxera heldu zenean, etzuen nihor utzi berekin sartzera, baizikere Piarres, Jakobe, Joanes eta neskatxaren aitamak.
52. Bada, nigarrez eta haurraren deithoratzen hari ziren guziak. Eta Jesusek erran zuen: Nigarrik ez egin; haurra ez da hila, bainan lo dago.
53. Eta irri egiten zioten, baitzakiten hila zela.
54. Harek ordean, eskutik harturik, oiuhu egin zioen, zerralarik: Neskatxa, jaiki zaite.
55. Eta bihurtu zitzaioen hatsa, eta jaiki zen berehala. Eta Jesusek manatu zuen jatera eman ziozoten.
56. Orduan harritu ziren haren burhasoak eta Jesusek debekatu zioten nihori ere erratea zer gerthatu zen.

IX. KAP.

1. Bada, hamabi apostoluak bilarazirik, Jesusek eman zioten indar eta esku debru guzien gainean, eta eritasunen sendatzeko.
2. Eta igorri zituen Jainkoaren erresumaren erantzutera eta erien sendatzera.
3. Eta erran zioten: Ez duzue bideko deusere eramanen, ez makhila, ez murtxila, ez ogi, ez diru; eta ez ditutzue bi aldagarri izanen.
4. Eta edozein etxetan sar zaitezten, zaudezte han, eta handik ez ilkhi.
5. Eta nonbaitko jendeek ez bazaituzte nahi; hiri hartarik ilkhirik, iharrosazue zuen oinetako herrautseraino, lekhukotasuntzat hekien gain.
6. Goanik beraz, inguruka zabiltzan herriz herri, ebanjelioa erantzunez eta orotan eriak sendatuz.
7. Bada, Herodes tetrarkak, aditzen zituen Jesusen egintza guziak, eta etzakien zer sinhets, baitzioten
8. Batzuek, Joanes zela hiletarik biztu; bertzeek, Elias zela agertu; bertzeek berriz, beihalako profetarik bat zela biztu.



9. Eta zioen Herodesek: Joanesi moztu diot lephoa: Nor da beraz hau zeintaz aditzen baititut horrelako gauzak? Eta hura ikhusi beharrez zabilan.

10. Apostoluak gibelerat itzuli ziren, eta Jesusi erran zioten zer-eta-zer egin zuten; eta hekiek berekin harturik, aldaratu zen Bethsaidako eremuetako basa bazter batera.

11. Jendeek jakin zutenean hori, goan zitzaizkon ondotik; Jesusek ongi hartu zituen, eta Jainkoaren erresumaz mintzatu zen hekiei eta sendatzen zituen osasun beharretan zirenak.

12. Baina aphaltzen hasia zen eguna; eta hurbildurik, hamabiek erran zioten: Igor zazu jendea, inguruetan diren herri eta bazterretxeetara goanez, aurkhi dezaten atherbe eta jateko; ezik hemen toki basan gare.

13. Jesusek ordean erran zioten: Zeronek emozuete jatera. Hekiek aldiz ihardetsi zuten: Ez dugu gehiago bortz ogi eta bi arrain baizik; non ez garen goaten jendetze horren guziarentzat jateko erostera.

14. Baziren bada bortz mila gizonen heina. Erran zioten gero bere dizipuluei: Jarrarazkitzue jaleak berrogoi eta hamarrekotan andanaka.

15. Eta hala egin zuten, eta jarrarazi zituzten oro.

16. Orduan bortz ogiak eta bi arrainak harturik, Jesusek zerura begiratuz, benedikatu zituen; hautsi eta eman ziozkaten bere dizipuluei, ezar zetzazten populuaren aitzinean.

17. Eta jan zuten guziek eta ase ziren; eta gelditu zenetik, goititu ziren hamabi saski puskaz betheak.

18. Eta gerthatu zen, bakharrik othoitzean zen batez, dizipuluak ere harekin zirela; eta galdegin zaroeten: Nor naizela dio jendeak?

19. Eta hekiek ihardetsi eta erran zioten: Joanes Baptista, bertze batzuek Elias; bertze batzuek diote berriz, aitzineko profetetarik bat biztu dela.

20. Berei aldiz erran zioten: Zuek berriz, nor naizela diozue? Simon Piarresek ihardetsiz erran zuen: Jainkoaren Kristo.

21. Bada, nihori etziozoten aipha larderiarekin manatu zituen Jesusek,

22. Zioelarik: Premia da alabainan gizonaren Semeak hainitz jasan dezan, arbuiatua izan dadien zaharrez eta aphezeta aitzindarietz eta Iskribaez, hila izan eta hirugarren egunean bitz dadien.

23. Aldiz guziei erraten zaroeten: Norbait ene ondotik ethorri nahi bada, egin biozo bere buruari ukho, har beza egun oroz soinera bere gurutzea, eta jarraik bekik.

24. Ezen nork-ere bere bizia nahiko baitu zaindu, galduren du; eta bere bizia ene ariaz galduko duenak, begiraturen du.

25. Izatez, zer luke gizonarentzat balio, mundu guzira irabaz baleza ere, bainan bere burua gal eta bere zorigaitza egin baleza?

26. Alabainan nitaz eta ene hitzez ahalkatuko dena, gizonaren Semea ere hartaz ahalkaturen da, ethorriko denean bere osperean erdian, eta Aitarenean eta Aingeru dohatsuean.

27. Bada, nik derratzuet egiaz, hemen daudezenetarik badire heriotzea jasanen ez dutenak, ikhusi dezaten arteo Jainkoaren erresuma.

28. Bazen zortzi egunen heina solas horiek iduki zituela, eta hartu zituen Piarres, Jakobe eta Joanes, eta mendira igan zen othoitze egitera.

29. Eta gerthatu zen, othoitzean zagoelarik, haren begithartea bertze bat egin zela, eta haren soinekoa xuri eta argi-argia.

30. Eta hara bi gizon harekin solasean zaudela. Hekiek ziren Moises eta Elias,

31. Eta ospez inguratuak agertu ziren; eta solas zuten haren mundutik ilkhitzeaz, zeina Jerusalemen egin behar baitzuen.

32. Bizkitartean Piarres eta haren lagunak loak arthikiak zauden. Eta atzartzearekin ikhusi zuten Jesusen maiestatea, eta harekin zaudezen bi gizonak.

33. Eta nola Jesusen ganik baitzihoazen, Piarresek erran zuen: Nausia, ongi gare hemen; egin detzagun hirur etxola, bat zure, bertzea Moisesen eta bertzea Eliasen: etzakien alabainan zer zerasan.

34. Bada, hola mintzo zelarik, egin zen hedoi bat, eta estali zituen, eta hekiek hedoiean sartzen ikhustearrekin, izitu ziren.

35. Eta hedoietik ilkhi zen mintzo bat, zioena: Hau da ene seme mai-tea; hau entzun zazue.

36. Eta hitz horiek egiten zirelarik, bakharrik aurkhitu zen Jesus. Eta dizipuluak ixilik egotu ziren, eta orduko egunetan etzuten, ikhusi zituzte-netarik hitz bat ere atheratu.

37. Bada, biharamunean, menditik jausten hari zirelarik, gerthatu zen jendeketa handi bat ethorri zitzaioleta bidera.

38. Eta hara ostetik gizon batek oiuhu egin zuela, zioelarik: Nausia, othoi, ene semeari begira diozozu, ezen ene haur bakharra da;

39. Eta hara izpiritu gaixtoa lotzen zaiola, izkolaka abiarazten du, lurrerat arthikitzen, eta zalapartaka erabiltzen, harrapoa dariola, eta ez da errexi goaten phorrokatu duen ondoan.

40. Othoiztu ditut zure dizipuluak iraz zezaten, eta ezin egin dute.



41. Aldiz Jesusek ihardestean erran zuen: Oi ume sinhesgaitz eta tzarrak, noiz arteo izanen naiz zuekin eta jasanen othe zaituztet? Erakhar zazu zure semea hunat.

42. Eta hurbildu zenean, debruak arthiki zuen, eta zalapartaka ezarri.

43. Jesusek dixidatu zuen izpiritu lohia, eta haurra sendaturik bihurtu zioen bere aitari.

44. Eta guziak espantatzen ziren Jainkoaren ahal handiaz; eta Jesusek egiten zituen guziez ederretsiak zirelarik, bere dizipuluei erran zioten: Solas hau har zazue ongi gogoan: Gizonaren Semea gizonen saldua izatekoa da.

45. Bainan hekiek etzuten aditzen solas hori, eta hekien begiei itzalia zen, haletan non ez baitzuten ardiesten; eta lotsa ziren solas horren gainean Jesusi galderik egitera.

46. Bada, gogoeta bat ethorri zitzaioten burura, hekiatarik hean zein othe zen handiena.

47. Bainan Jesusek ikhustenez hekien bihotzeko gogoetak, hartu zuen haurtto bat, ezarri zuen bere aldean,

48. Eta erran zioten: Nork-ere haurtto hau ene izenean hartzen baitu, ni hartzen nau; eta nork-ere hartzen bainau, ni bidali nauena hartzen du. Ezen zuen ororen artean xumeen dena, handiena huraxe da.

49. Bada Joanesek hitza harturik, erran zuen: Nausia, ikhusi dugu gizon bat zure izenean debruak irazitzen dituen, eta debekatu diogu, zeren ez baita gurekin jarraikitzen.

50. Eta Jesusek ihardetsi zioen: Ez debeka; ezen zuen kontra ez dena, zuen alde da.

51. Bada, bethetzen hari ziren egunak zeinen buruan lurretik erama-na izan behar baitzen, eta begithartea biphilik jarri zen, Jerusalemera goateko.

52. Eta mandatariak igorri zituen bere aitzinean, eta haukiek bidean sarthu ziren Samariarren hiri batean, Jesusi behar zirenen aphaizteko.

53. Eta hangoek etzioten atherberik eman, zeren Jerusalemera zihonaren urhatsa baitzaraman.

54. Bada, haren dizipulu Jakobek eta Joanesek ikhusi zutenean hori, erran zuten: Jauna, nahi duzu dei egin dezagun, sua zerutik jauts dadien, eta erre detzan horiek?

55. Eta itzuliz azurriatu zituen, zioelarik: Ez dakizue zer izpiritutako zareten.

56. Gizonaren Semea ez da nihoren galtzera ethorri, bainan bai salbatzera. Eta bertze herri batera goan ziren.

57. Bidean zihoazelarik, norbaitek erran zioen: Norat-nahi goan zaitezen, jarraikiren natzaitzu.

58. Jesusek ihardetsi zioen: Hazeriek badituzte beren zilhoak, zeruko hegastinek ere beren ohantzeak; gizonaren Semeak ez du ordean non etzan burua.

59. Bertze bati berriz, erran zioen: Jarraik zakizkit. Eta harek ihardetsi zuen: Jauna utz nezazu lehenik goan nadien ene aitaren ehorztera.

60. Jesusek erran zioen: Utzatzu hilak beren hilen ehorztera; zu ordean, zoaz eta Jainkoaren erresuma erantzun zazu.

61. Eta bertze batek ere erran zioen: Jauna, jarraikiren natzaitzu; bainan lehenik utz nezazu xeda dezadan etxean ditudan gauzez.

62. Eta Jesusek ihardetsi zioen: Goldearen gainean eskua ezartzen eta gibelerat begiratzen duenik nihor ez da Jainkoaren erresumakotzat on.

X. KAP.

1. Bada, horiez geroz, Jaunak berezi zituen oraino bertze hirur hogoi eta hamabi dizipulu; aitzinerat igorri zituen birazka, bera goatekoa zen hiri eta toki guzietara.

2. Eta erraten zioten: Handia da uzta, langileak ordean dire guti: Othoitzazue beraz uztaren jabea, bere uztara igor detzan langileak.

3. Zoazte: huna non igortzen zaituztedan nik bildots batzu otsoen artera bezala.

4. Ez eraman ez moltsa, ez murtxila, ez oinetakorik, eta bidean nihori agurrik ez egin.

5. Edozein etxetan sar zaitetzen, errazue lehenik: Etxe huni bakea;

6. Eta han bakezko umerik balin bada, haren gainean jarriko da zuek eman bakea; bertzela bada, zuetara da bihurturen.

7. Berriz, etxe ber-batean egon zaitetze, hangoen baithan denetik janez eta edanez: ezen langileari zor zaio bere saria. Ez ibil etxe batetik bertzera.

8. Eta edozein hiritan sar zaitetzen, eta ongi har zetzazten, jan zazue aitzinera ematen zaitzuenetik.

9. Senda zatzue han diren eriak, eta errozute: Hurbildua duzue Jainkoaren erresuma.

10. Aldiz edozein hiritan sar zaitetzen, eta etzaitzuten onhesten; hango karriketara ilkhirik, errazue:

11. Zuen hiritik lothu zaikun herrautsa ere iharrosten dugu zuen kontra; guzia gatik, hau jakizue, hurbildua dela Jainkoaren erresuma.



12. Nik derratzuet egiaz, egun hartan eztikiago erabilia izanen dela Sodoma hiri hura baino.

13. Zorigaitz hiri, Korozain, zorigaitz hiri, Bethsaida; ezik Tirren eta Sidonen gerthatu izan balire zuen erdian egin diren sendagailak, aspaldi zukeen zurdatz-hautsetan urrikiz jarri zitazkeela.

14. Hargatik eztikiago jazarriren zaiote Tirreri eta Sidoni zuei baino juiamenduko egunean.

15. Eta hi, Kapharnaum, zeruetaraino goratua, ifernuetaraino izanen haiz hondatua.

16. Zuek entzuten zaituztenak, ni entzuten nau; zuek arbuiaitzen zaituztenak, ni arbuiaitzen nau. Bada, ni arbuiaitzen nauenak, arbuiaitzen du ni bidali nauena.

17. Bozkariotan gibelerat itzuli ziren bada hirur hogoi eta hamabiak, ziotelarik: Jauna, zure izenean debruei berei nausitzen gatzaizkote.

18. Eta ihardetsi zuen: Ikhusten nuen satan, ximista bezala zerutik erortzen.

19. Huna eman darotzuedala sugeen, harrobien eta etsaiaren indar guziaren oinkatzeko ahala; eta deusek-ere ez darotzue hobenik eginen.

20. Halarik-ere ez huntaz bozkaria, izpirituak garhaitzen ditutzuela, bainan boz zaitetze zeren zuen izenak zeruetan diren iskribatuak.

21. Eta ordu berean goiheretu zen Izpiritu sainduaren eragintzaz, eta erran zuen: Eskerrak darozkitzut, Aita, zeru-lurren Jauna, zeren diozkatzuten horiek gorde zuhurrei eta umoei, eta xumeei agertu. Bai, Aita, zeren horrela izan den zure aitzinean gogaragarri.

22. Ene Aitak gauza guziak eman darozkit eskuetara. Eta nihork ez daki nor den Semea, Aitak baizik; eta nor den Aita, baizik-ere Semeak eta hainak zeinari Semeak nahi izan baitio ezagutarazi.

23. Eta bere dizipuluen aldera itzuliz erran zuen: Dohatsu begiak zuek ikhusten dituzuen gauzak dakhuskitzatenak.

24. Ezen nik derratzuet, profeta eta errege hainitzek nahi izan dituztela ikhusi zuek dakhuskitzuenak, eta ez baitituzte ikhusi; eta entzun zuek entzuten dituztuenak, eta ez baitituzte entzun.

25. Eta hara legearen irakhaste bat jaiki zela, hura zertan khausi, eta erranez: Nausia, zer eginez ardietsiren dut bethiereko bizitzea?

26. Jesusek berriz, erran zioen: Legean zer da iskribatua? zer irakurtzen duzu?

27. Harek ihardetsiz erran zuen: Zure Jainko Jauna duzu maithaturen zure bihotz oro, zure arima guziaz, zure indar osoaz, zure gogo betheaz; eta zure laguna zure burua bezala.

28. Eta Jesusek erran zioen: Ederki duzu ihardetsi; hori egizu, eta biziko zare.

29. Harek ordean, bere burua edertu beharrez, erran zioen Jesusi: Eta nor da ene laguna?

30. Horren gainean aldiz, Jesusek erran zuen: Gizon bat Jerusalemetik jausten zen Jerikora, eta erori zen ohoinen eskuetara; biluzi zuten, sakhiz estali, eta erdi-bizi utzirik goan ziren.

31. Aphez bat gerthatu zen bada bide beraz jaustera; eta hura ikhusririk, jo zuen aitzina.

32. Lebitar bat ere, ondo hartan zelarik, eta hura ikhusi zuen arren, iragan zen orobat.

33. Samariar bat aldiz, bidean zihoalarik, ethorri zen harat; eta gizonari oharturik, urrikalmenduak eragin zioen.

34. Eta hurbildurik, olio eta arno ixuriz lothu ziozkan bere sarraskiak; ezarri zuen bere aberearen gainean, ostatu batera eraman eta han arthatu.

35. Biharamunean atheratu zituen bi denario, ostalerari eman ziozkan, eta erran zaroen: Huntaz izan zazu artha, eta zer-ere gehiagorik xahuturen baituzu, gibeleratekoen nik bihurturen darotzut.

36. Hirur horietarik, zure ustez, zein izatu da ohoinen artera orori gizonaren laguna?

37. Eta harek ihardetsi zuen: Urrikaldu izan zaioena. Jesusek berriz, erran zioen: Zoaz, eta zuk ere orobat egizu.

38. Bada, bidean zihoazelarik, Jesus gerthatu zen herri batean sartzera, eta Martha deitzen zen emazteki batek hartu zuen bere etxerat.

39. Eta hunek bazuen ahizpa bat, Maria deitzen zena, zeina Jaunaren oinetan jarririk, baitzagoen haren hitzaren entzuten.

40. Martha berriz, lehiatuki zabilan bere lan handien erdian; eta Jesusen aitzinean gelditurik, erran zioen: Etzaitzu deusere, ene ahizpak bakharrik uzten bainau lan guziei buruz? Errozu bada lagunt nezan.

41. Eta ihardestean, Jaunak erran zioen: Martha, Martha, arduratsu zare, eta hainitz gauzaz khexatzen.

42. Bada, bat da bakharrik premiazkoa. Mariak hautatu du eskualderik hoberena, eta etzaio khendua izanen.

XI. KAP.

1. Behin, nola othoitzean baitzagoen toki batean; othoitza utzi zue-nean, bere dizipuluetarik batek erran zioen: Jauna, irakhats dizaguzu othoitz egiten, Joanesek ere bere dizipuluei irakhatsi izan dioten bezala.



2. Jesusek erran zioten: Othoitz egiten duzuenean, errazue: Aita, sailduets bedi zure izena; ethor bedi zure erresuma;
3. Iguzu egunean eguneko ogia;
4. Eta barkha dizagutzu gure bekhatuak, geronek ere gure zordun diren guziei barkhatzen diotegun bezala, eta ez begaitzatzu tentazioneari utz.
5. Eta erran zioten: Zuetarik norbaitek badu adiskide bat, eta haren gana badoha gau minean, eta erraten dio: Adiskidea, maileguz emadatzut hirur ogi,
6. Zeren bidetik ene adiskide bat ene gana ethorri baita, eta ez dut hari zer eman aitzinera;
7. Eta adiskideak barnetik ihardestean, erraten dio: Ez nezazula khe-xaraz; oraiko hertsia dut athea, haurrak ere enekin ohean dire; ez naiteke jaik deuseren ematera:
8. Baldin bertzeak ihardukitzen badu joka, nik derratzuet, ez badio jaikirik ematen adiskidea duelakoz, jaikiko dela bederen haren nabarmen-keriaren ariaz, eta emanen diozkala behar dituenak oro.
9. Halaber derratzuet nik: Galda zazue, eta emanen zaitzue; bilha zazue, eta aurkhituren duzue; jo zazue, eta idekiren zaitzue.
10. Nor-nahik galda dezan, eta izaten du; bilha dezan, eta aurkhitzen du; jo dezan, eta idekitzen zaio.
11. Alabainan zein da zuen artean aita bat, semeak ogia galdatzen-eta, harek harria emanen dioena: edo arraina galdegiten badu, emanen othe dio sugea:
12. Edo arroltzearen galdea badu, harrobia eskainiren othe dio?
13. Baldin beraz zuek, zaretan gaixtoek, badakizue zuen haurrei gauza onen ematen, zenbatez are hobeki zuen Aita zerukoak galdatzen diotenei emanen diote izpiritu ona?
14. Eta abiatu zen debru baten irazitzen, eta debru hura mutua zen; eta debrua irazi zuenean, mintzatu zen mutua, eta jendeak ederretsiak zauden.
15. Bainan hekiarik batzuek erran zuten: Beelzebubez, debruen buruzagiaz, irazitzen ditu debruak.
16. Eta bertze batzuek, hura zertan froga, galdatzen zioten zerutika-ko sendagaila zer bait.
17. Bainan Jesusek ikhusi baitzituen hekien gogoetak, erran zioten: Bi aldetara dagoen erresuma, xahutua izanen da; eta bere buruari jazar-tzen dioen etxeak, leher eginen du.

18. Eta satan bere baithan bi aldetara zeiber badago, nola dirauke haren erresumak? Diozue ezen Beelzebubez irazitzen ditudala debruak.
19. Beraz nik Beelzebubez irazitzen badituz debruak, nortaz irazitzen dituzte zuen haurrek? Hargatik berak izanen dire zuen juie.
20. Bainan nik Jainkoaren erhia irazitzen badituz debruak, ezagun da zuetaraino heldua dela Jainkoaren erresuma.
21. Hazkarrak harmekin zaintzen duenean etxe sartzea, segurean dire haren onak.
22. Bainan hazkarrago batek, ethorririk garhaitzen badu, eramanen diozka harma guziak, zeinen gainean baitzen fida, eta haren buluzkinak emanen ditu bertzeei.
23. Enekilako ez dena, ene kontra da; eta enekin biltzen hari ez dena, barriatzen hari da.
24. Izpiritu lohia gizon baten ganik ilkhi denean, lekhu agorretan gaindi dabila phausu eske; eta ez aurkhituz, erraten du: Itzuliko naiz ene etxera, zeintarik bainaiz ilkhi.
25. Eta heldu denean, kausitzen du garbitua jatsaz eta aphaindua.
26. Orduan badoha; berekin hartzen ditu bertze zazpi izpiritu bera baino gaixtoagoak, eta barnera sarthurik, han egiten dute beren egoitza. Eta gizon haren azken zoria egiten da lehenbizikoa baino gaitzagoa.
27. Bada, horiek erraten zituelarik, emazteki batek, mintzoa goratuz jendeen erditik, erran zuen: Zorionezkoak zu ekharri zaituen sabela eta zuk egoski dituzun bulharrak.
28. Eta Jesusek ihardetsi zuen: Dohatsuago Jainkoaren hitza entzuten eta begiratzen dutenak.
29. Bainan nola osteak murruka biltzen hari baitziren, abiatu zen erraten: Gizate hau, gizate tzarra: sendagaila eske dabila, eta sendagailarik etzaio emanen, Jonas profetarenaz bertzerik.
30. Ezen nola Ninibarrei Jonas izan baizitzaioten ikuskari, hala izanen zaio gizate huni ere gizonaren Semea.
31. Hegoako erregina juiamenduko egunean jaikiko da gizalde hunen kontra eta kondenaturen ditu, zeren bera lurraren bertze bazterretik den ethorri Salomonen zuhurtziaren entzutera; eta huna hemen Salomonez gehiagokoa dena.
32. Ninibako gizonak juiamenduko egunean jaikiko dire gizalde hunen kontra eta kondenaturen dute; zeren Jonasen erantzukiari urrikitan baitziren sarthu; eta huna hemen Jonasez gehiago dena.



33. Nihork ez du kriselua bizten, gero zokho batean edo gaitzeruaren azpian ezartzeko, bainan bai ganderailuaren gainean, sartzen direnek ikhus dezaten argia.

34. Zure begia da zure gorphutzeko kriselua. Baldin begia garbi baduzu, gorphutza ere argi izanen duzu; tzarra baduzu ordean, gorphutza ere ilhunbetan izanen duzu.

35. Ikhusazu beraz, zure baithan den argia ez dadien izan ilhunbe.

36. Arren zure gorphutza dena argitan bada, nihon ilhunberik gabe, argi-argia izanen da, eta kriselu distirantak bezala argituren zaitu.

37. Eta mintzo zelarik, Farisau batek bere etxera othoiztu zuen barazkaltzera; eta sarthurik, Jesus mahainean jarri zen.

38. Bada, Farisaua, bere baithan gogoetaka, hasi zen erraten, zertako Jesus ez othe zen garbitu onthuruntzaren aitzinean.

39. Eta Jaunak erran zioen: Orai zuek, Farisauak, baso eta untziei kanpoko aldea diozute garbitzen; bainan zuen barneko aldea, harrapakeriaz eta gaixtakeriaz da bethea.

40. Zoroak, kanpoko aldea egin duenak, ez othe du egin barneko aldea ere?

41. Guzia gatik, zuenetik egizue amoina, eta hola gauza guziak izanen ditutzue garbi.

42. Bainan zorigaitz zuei, Farisauak, hamarrena mendatik, erruatik, eta baratze-kari orotarik ematen baituzue, eta zuzenbidea eta jainkotiartasuna baititutuzue bazterrerat uzten: horiek ziren bada egin beharrak, eta bertzeak ez utzi.

43. Zorigaitz zuei, Farisauak, zeren lakhet ditutzuen sinagogetan lehenbiziko jarlekuak, eta agurrak karrketan.

44. Zorigaitz zuei ageri ez diren hobiak bezala zaretelakoz; eta gaitetik ibiltzean, gizonak ez baitire ohartzen.

45. Bada ihardetsiz erran zioen lege irakhasle batek: Nausia, horiek erranez guri ere laido egiten darokuzu.

46. Aldiz Jesusek erran zioten: Zuei ere zorigaitz, lege irakhasleak; zeren ezin jasanezko sorthak bertzei bizkarrera ematen baititutuzue, eta zerorrek erhi batez ere ez ukitzen.

47. Zorigaitz zuei, hobi altxatzen hari zaretelakoz profetei, zuen aitek dituztelarik hilarazi.

48. Ongi ematen duzue aithor zuen aiten egintzak onhartzen dituzuela, hekiek profetak hil, eta zuek hobiak egiten dituzuenaz geroz.

49. Hargatik-ere erran izan du Jainkoaren zuhurtziak: Bidaliren diozkatet profetak eta apostoluak; eta batzuen hiltzen eta bertzei jazartzen hariko dire;

50. Jendaki hunen gainean bilha dadien profeta guzien odola, munduaren hastapenetik ixuria izan dena,

51. Hasi Abelen odoletik, eta Zakarias, aldarearen eta tenploaren artean galdu zenaren odolera. Horrela, nik derratzuet, jendaki hunen gainean izanen dela bilhatua.

52. Zorigaitz zuei, lege irakhasleak, zeren hartu baituzue jakitateko gakhoa; etzarete zerorrek sarthu, eta sartzera zihoazenak ditutzue debekatatu.

53. Bada, horien erraten hari zitzaioetelarik, Farisauak eta lege irakhasleak abiatu zitzaizkon biziki hertsatzen, eta galdeka ithotzen,

54. Maltzurkerian mintzatuz, eta haren ahotik zerbait atzeman beharrez, gero gainerat emateko.

XII. KAP.

1. Bizkitartean, nola jendeak murruka ingurura bildu baitziren, haitan non elkhar lehertzen baitzuten, Jesus abiatu zen bere dizipuluei erraten: Berautzue Farisauen altxagarritik, zeina ez baita alegiarik baizen.

2. Bada, estalirik ez da deus, agerturen ez denik; ez-eta gorderik, jakinen ez denik.

3. Ezen ilhunbean erran dukezuen, argitan erranen da; eta gela zokhoan beharrira erasi dukezuen, hegaztegi gaitetik izanen da erantzuna.

4. Zuei beraz, ene adiskideei, nik derratzuet: Gorphutza hiltzen, eta gero zuei zer egin ez dutenen beldur ez izan.

5. Bainan erakhutsiren darotzuet noren beldur izan behar zareten: Hainarentzat izan zaitezte beldur, zeinak hil dukeen ondoan, ifernurat art-hikitze ahala baitu. Bai, nik derratzuet, harentzat izan zaitezte beldur.

6. Bortz etxe-xori ez othe dire bisoseko batean saltzen? eta bada, hekiatarik bat bakharra ez da Jainkoaren aitzinean ahantzia.

7. Zuen ileak ere khondatak dire guziak. Ez izan beraz beldurti: asko etxe-xorik baino gehiago balio duzue.

8. Bada nik derratzuet: Edozeinek aithor nezan gizonen aitzinean, gizonaren Semeak ere aithorturen duela haina Jainkoaren aingeruen aitzinean.

9. Bainan gizonen aitzinean ni ukhaturen nauena, bera ukhatua izanen da Jainkoaren aingeruen aitzinean.



10. Nor-nahi gizonaren Semearen kontra mintza dadien, barkhaturen zaio; baina Izpiritu sainduaren kontra burho eginen duenari etzaio barkhaturen.

11. Berriz, eramanak izanen zaretenean sinagogetara, kargudunen eta buruzagien aitzinera, ez khexa zer edo nola ihardetsiko diozueten, edo zer erranen duzuen;

12. Ezen Izpiritu sainduak irakhatsiren darotzue orduan berean zer behar duzuen erran.

13. Orduan gizon batek jendeen artetik erran zioen: Nausia, errozu ene anaiari enekin zathi dezan gure primantza.

14. Eta Jesusek ihardetsi zioen: Gizona, nork ezarri nau zuen gainean juie edo zuzen berezle?

15. Gero erran zioten guziei: Berautzue, eta zuen buruak zain zatzue jaramankeriaren khutsutik; ezen gizonaren bizia ez dago gozutzen dituen ontasunketan.

16. Gero parabola bat erran zioten huneletan: Gizon aberats baten bazterrek ekharri zuen uzta gorria.

17. Eta bere baithan gogoetan zagoen, zioelarik: Zer eginen dut? ezen ez dut norat bil ene uzta.

18. Eta erran zuen: Hau eginen dut: Urratuko ditut ene bihitegiak, eta handiagoak eginen ditut; eta harat bilduko ditut ethorri zaizkitan uztak eta ene bertze ontasunak;

19. Eta ene buruari erranen diot: Baduk hainitz ontasun, asko urterentzat bildurik: phausa hadi, jan zak, edan zak, egik ase onik.

20. Baina erran zioen Jainkoak: Zoroa, gaurko gauean izanen duk arimaren galdea: hik bilduak beraz, norentzat izanen dire?

21. Hola-hola da bere buruarentzat ontasun moltzatzen hari dena, eta Jainkoaren baithan aberats ez dena.

22. Eta bere dizipuluei erran zioten: Hargatik derratzuet nik: Ez izan khexu zuen biziak, hean zer janen duzuen; ez-eta gorphutzaz, hean zertaz estaliko duzuen.

23. Hazkurria baino gehiago da bizia, eta gorphutza jaunzkura baino.

24. Begira beleei: ez dute ez eraiten, ez uztatzen; ez dute ez soto, ez bihitegirik, eta Jainkoak hazten ditu. Zenbatez etzarete zuek hekiez gehiagokoak?

25. Nor da, berriz, zuetan bere asmu guziekin bere irazkia beso batez luzatuko duenik?

26. Baldin beraz gauzarik aphurrenak ez badire zuen ahaleko, zertan khexa bertzeez?

27. Begira liliei, nola diren handitzen; ez lanean, ez iruten ez dire hari: nik derratzuet bada, Salomon etzela bere ospe guziaren erdian horietarik bat bezala jaunzten.

28. Baldin beraz egun landan den belharra eta bihar surat arthikitzen dena, Jainkoak horrela jaunzten badu, zenbatenaz zuek hobeki, sinheste aphurrekoak?

29. Eta zuek, ez ibil zer janen, zer edanen duzuen; ez heda goregi;

30. Ezen horien guzien ondotik, mundutiarrak dabilta. Bada, zeren eskasa duzuen badaki zuen Aitak.

31. Arren lehenbizikorik bilha zatzue Jainkoaren erresuma eta zuzena, eta bertze horiek oro emanen zaizkitzue populu.

32. Ez izan lotsa, arthalde xumettoa, ezen zuen Aitaren gogorako izatu da zuei bere erresumaren ematea.

33. Ditutzuena sal eta amoinetan emazkitzue; egizkitzue ihetxetzen ez diren moltsak, zeruetara bil zatzue ahituko ez diren ontasunak, han ez baita ohoinik hurbiltzen, eta biphiak ez baitu xahutzen.

34. Alabainan non-ere baita zuen ontasuna, han izanen da halaber zuen bihotza ere.

35. Idukatzue gerriak tinkatuak eta argi biziak eskuetan,

36. Iduri sehi batzu, nausiaren iguri daudezenak, noiz itzuliko den esteietarik, ethortzen denean eta jo orduko idek diozoten athea.

37. Zorionezkoak sehi hekiek, nausiak, ethorri-eta, ermerik atzemanen dituenak. Egiaz derratzuet, gerria tinkatuko duela, mahainean jarraziko dituela eta bere ibiliko dela hekien zerbitzatzen.

38. Eta ethor dadien, nahiz gau lehenean, nahiz goizaldera, eta hala atzeman detzan, dohatsu dire sehi hekiek.

39. Hau jakizue bada: etxeko jaunak balaki zer mugaz ethortzekoa den ohoina, atzarririk lagokeela eiki, eta ez lezakeela bere etxea zilhatzerat utz.

40. Erne zaudezte beraz zuek ere, zeren uste ez duzuen orduan ethorriko baita gizonaren Semea.

41. Orduan Piarresen erran zioen: Jauna, guretzat derrazu parabola hori, ala guzientzat ere bai?

42. Jesusek ihardetsi zuen: Zein da, zure ustez, etxegizon zirritu eta gurbila, nausiak etxeko buruzagi ezarria, batbederari bere orduan emateko bere ogi neurria?

43. Zorionezkoa sehi hura, nausiak, ethorri-eta, hala hari dela atzemanen duena.

44. Egiaz derratzuet, dituen ontasun guzien kargua dioela emanen.



45. Bainan sehi horrek bere baithan egiten badu: Nausia ez dago berehalakoan ethorririk; eta abia badadi muthil-neskatoei joka, eta jaten, edaten eta horditzen;

46. Haren nausia itzuliko da igurikitzen ez duen egunean, harek ez dakien orenean; eta bereziko du bertzeetarik, eta ezarriko du sehi engatzaileekilako.

47. Sehi hura berriz, zeinak baitzakien bere nausiaren nahia, eta ez baitu atzartasunik iduki, ez-eta egin nausiak nahi bezala, gogorki joa izanen da.

48. Aldiz etzakiena eta ukhaldiak merezi dituzten gauzen egilea, gutiago izanen da joa. Alabainan hainitz eman zaioenari, hainitz zaio galdeginen; eta hainitzen kargua zuenari galdaturen zaio gehienik.

49. Lurrera suaren arthikitza naiz ethorri, eta zer-nahi dut, baizik-ere bitz dadien?

50. Bathaio batez naiz bathaiatzekoa; eta nolako lehietan naizen, akhaba dadien arteo?

51. Uste duzue lurrean bakearen ezartzera naizela ethorri? Ez egiazki, bainan zein bere alde bihurraztera;

52. Ezen oraidanik, bortz direnean etxe batean, bereziko dire hirur bien kontra eta bia hiruren kontra;

53. Makhur jarriko dire, aita semearekin, eta semea aitarekin; ama alabarekin, eta alaba amarekin; amaginarreba erreinarekin, eta erreina amaginarrebarekin.

54. Berriz, populuari ere erraten zioen: Hedoia mendebaletik ikhusten duzuenan ilkhitzen, berehala diozue: Uria dathor; eta hala gerthatzen da.

55. Eta hegoak jotzen duenean, diozue: Bero izanen da; eta halaxe da gerthatzen.

56. Maltzurak, badakizue zeruaren eta lurraren itxuratik usnatzen, nolaz bada ez duzue denbora hau ezagutzen?

57. Zer den zuzen, nolaz berriz, zuen burutarik ez duzue ezagutzen?

58. Bada zihoazinean buruzagiaren aitzinera zure partidarekin, bidean egizu harekin akhabatzera, beldurrez-eta bortxa zaitzan juiearen aitzinera, eta juieak ezar zaitzan manu bethetzailearen eskuetan, eta hunek presondegian.

59. Nik derratzut, etzarella ilkhiko handik, non ez duzun bihurtzen azken arditeraino.

XIII. KAP.

1. Orduan han ziren batzuek Jesusi eman zioten Galilear zenbaiten berria, Pilatok nahasi zuela bekien odola egiten hari zituzten sakrifizioekin.

2. Eta ihardestean erran zioten: Uste duzue Galilear horiek Galilear guziak baino areagoak zirela, zeren duten horrelako heriotzea jasan?

3. Nik derratzuet ezetz; bainan zuek, ez bazarete urrikitan sartzen, orobat galduko zarete guziak.

4. Halaber hemezortzi gizon hekiek zeinen gainera erori baitzen Siloen dorre bat, eta hil izan baitzituen, hobendunagotzat daduzkatzue Jerusalem dar guziak baino?

5. Nik derratzuet ezetz; bainan zuek urrikizko obrarik ez baduzue egiten, orobat galduko zarete guziak.

6. Berriz, atheratu zuen parabola hau ere: Gizon batek pikondo bat zuen bere mahastian landatua, eta hartara ethorri zen pikoketa, eta etzuen aurkhitu.

7. Bada, mahastizainari erran zioen: Huna hirur urthe pikondo huntara abiatu naizenetik pikoketa, eta ez dut aurkhitzen: motzazu beraz; zertako poxelatzen ere du lurra?

8. Eta harek ihardetsiz erraten dio: Jauna, utzazu urthe huntan ere, haintzur dezadan inguruan eta eman diozodan ongarrri;

9. Eta beharbada emanen ditu pikoak; bertzela mozturen duzu gero.

10. Bada, larunbat egun batez, Jesus hari zen hekien sinagoga batean irakhasten.

11. Eta hara emazteki bat izpiritu gaixto batek hemezortzi unhe hartan eri zadukana; eta makhurtua zen eta etzezakeen batere goiti begira.

12. Jesusek ikhusi zuenean, deithu zuen bere gana, eta erran zioen: Emaztekoa, khendua zaitzu zure gaitza.

13. Eta eskuak ezarri ziozkan gainean, eta berehala xuxendua izan zen, eta ospe bihurtzen zioen Jainkoari.

14. Bainan sinagogako buruzagiak, suminduran, zeren Jesusek sendatu zuen larunbat egunean, hitza harturik erran zioen jendeari: Badire sei egun laneko, hekietan zatozte, eta senda zaitezte, eta ez larunbat egunez.

15. Bainan hari ihardetsiz Jaunak erran zuen: Itxura eder egileak, zue-tarik bakhotxak ez othe du larunbat egunean aberetegitik laxatzen bere idia edo astoa, eta edaratera eramaten?

16. Aldiz Abrahamen alaba hau, hemezortzi urthe huntan satanek estekan zadukana, ez othe zen behar esteka hortarik laxatu larunbat egunarekin?



17. Eta horiek erraten zituenean, ahalkatzen ziren haren ixterbegi guziak; eta populu guzia bozten zen, Jesusen eginkari ospetsu guziez.

18. Erraten zuen oraino: Zer dirudi Jainkoaren erresumak, eta zeren iduriko harturen dut?

19. Iduri du mustarda bihia, gizonak hartzen eta bere baratzean eraiten duena; eta larritzen da, eta arbola handi bat bezala egiten; eta zeruko xoriak gelditzen dire haren adarretan.

20. Eta erran zuen berriz: Zeren iduriko harturen dut Jainkoaren erresuma?

21. Iduri du altxagarria, emaztekiak hartzen eta hirur sato irinetan nahastekatzen duena, orhe guzia haz dadien arteo.

22. Eta irakhatsiz zihoan hiri-herriak gaindi, eta Jerusalemeri buruz bide eginez.

23. Bada, norbaitek erran zioen: Jauna, gutiak izanen othe dire salbatuko direnak? Jesusek aldiz ihardetsi zioeten:

24. Berma zaitzete athe hertsitik sartzera; ezen nik derratzuet hainitzak ibiliko direla sarthu beharrez, eta ezin sarthuko direla.

25. Bada etxeko jauna sarthu-eta, athea hertsu dukeenean, kanpoan xutik geldituko zarete eta hasiko zarete joka erranez: Jauna, idek dizaguzu; eta ihardetsiz erranen darotzute: Ez dakit nongoak zareten.

26. Orduan hasiko zarete erraten: Jan izan dugu eta edan zure aitzinean, eta irakhasten haritu zare gure plazetan.

27. Eta ihardetsiren darotzue: Ez dakit nongoak zareten; egizue ni ganik urrun, tzarkeria egile guziek.

28. Han izanen dire nigarrak eta hortz karraskak, ikhusiko ditutzue-nean Abraham, Isaak, Jakob eta profeta guziak Jainkoaren erresuman, zuek aldiz kanporat iraziak.

29. Iguzki haizetik eta mendebaletik, ipharretik eta hegoatik izanen dire ethorriko eta Jainkoaren erresuman jarriko direnak.

30. Eta huna azken direnak izanen direla lehen, eta lehen direnak izanen direla azken.

31. Egun berean Farisauetarik zenbait hurbildu zitzaizkon, zerrotelarik: Ilkhi zaitte, zoaz hemendik; ezen Herodesek hilarazi nahi zaitu.

32. Eta ihardetsi zioten: Zoazte, errozue azeri hari: Iraizten ditut debruak eta sendarazten eriak egun eta bihar, eta etzi akhabaturen naiz.

33. Bizkitartean ibili behar naiz egun, bihar eta etzi; zeren ez baita profeta bat Jerusalemetik kanpo galtzekoa.

34. Jerusaleme, Jerusaleme, profeta hiltzailea, eta bidali zaizkinanen harrikatzailea, zenbat aldiz nahi izan ditinat hire haurrak bildu, hala-nola hegastinak bere umealdea hegalen azpira, eta ez dun nahi izatu?

35. Huna non gelditzera dihoakizuen zuen etxea hutsik. Bada, nik derratzuet, ez nauzuela gehiago ikhusiren, erran dezazuen arteo: Ongi ethorri Jainkoaren izenean dathorrenari.

XIV. KAP.

1. Larunbat egun batez Jesus gerthatu zen jatera goan zela Farisauetarikako buruzagi baten etxera, eta idukitzen zioten begia.

2. Eta hara aitzinean zuela gizon bat uheri zena.

3. Eta hitza harturik, Jesusek erran zioten lege irakhasleei eta Farisaueti: Haizu othe da larunbat egunean sendatzera?

4. Bainan hekiek ixilik gelditu ziren. Jesusek aldiz hartu zuen gizona, sendatu eta igorri zuen.

5. Eta hekiei mintzatuz, erran zioten: Zein da zuetarik, astoa edo idia erortzen zaionean putzura, berehala atheratuko ez duena, nahiz larunbat egunean?

6. Eta horren gainean etzizoketen ihardets.

7. Bada, ikhustenez barazkaltiarak lehenbiziko tokien hautatzen zabiltzala, parabola bat atheratu zioten, erraten zaroetelarik:

8. Ezteietara deithua izanen zarenean, ez jar mahain buruan, beldurrez-eta zu baino ikhusiagoa den bat gertha dadien jaun esposaz deithua,

9. Eta hura eta zu deithu zaituztena ethor dadien eta erran dezazun: Huni utzozu tokia; eta orduan, ahalke gorritan goan zadien azken tokia- ren hartzera.

10. Bainan deithua izanen zarenean, zoaz, jar zaitte azken lerroan, deithu zaituenak, dathorrenean, erran diezazun: Adiskidea, zato gorago. Orduan ohore izanen duzu zurekin mahainean diren guzien aitzinean;

11. Ezik geratzen dena izanen da aphaldua, eta aphaltzen dena goratua.

12. Deithu zuenari, berriz, erraten zaroen: Barazkari bat edo afari bat ematen duzunean, ez deith, ez zure adiskideak, ez anaiak, ez ahaideak, ez hauzo aberatsak, beldurrez-eta hekiek ere deith zaitzaten beren aldian, eta horrela bihur dakizun ordaina.

13. Bainan, barazkari bat egiten duzunean, deith zatzu beharrak, herbalak, mainguak eta itsuak.

14. Eta zorian izanen duzu, zeren ez baitute zuri bihurtzekorik; ezik izanen duzu zure saria, prestuak biztuko diren egunean.



15. Mahainean harekin zirenetarik batek horiek aditu ondoan, erran zuen: Dohatsu Jainkoaren erresuman ogja janen duena!

16. Eta Jesusek erran zioen: Gizon batek egin zuen afari handi bat, eta hartara deithu zituen asko.

17. Eta afaltzeko orduan, sehi bat bidali zioten deithuak zirenei erratera ethor zitezela, gauza guziak ja xuxenduak zirelako.

18. Eta guziak orobat abiatu ziren estakuruka. Lehenak erran zuen: Bazterretxe bat erosi dut; premia dut ilkhitzea, eta haren ikhustera goatea; onhetsazu othoi ene aria.

19. Bigarrenak erran zuen: Erosi ditut bortz idi pare; hekien ikhartzera noha; othoizten zaitut, behar darotadazu barkhatu.

20. Bertze batek erran zuen: Ezkontzetik heldu naiz, eta horrela ezin nathorke.

21. Eta sehiak, itzulirik, berri horiek ekharri ziozkan bere nausiarri. Orduan hasarreturik, etxeko jaunak erran zioen bere sehiari: Zoaz berehala hiriko plaza eta karriketara, eta sarrarazkitzu hunat erromesak, ezinduak,itsuak eta mainguak.

22. Gero sehiak erran zioen: Egina da. zuk manatua, eta oraino toki bada.

23. Eta nausiarri ihardetsi zioen: Zoaz bideetara eta berro bazterretara, eta atzemanak sartzera bortxa zatzu, bethe dadien ene etxea.

24. Ezen nik derratzuet, deithuak ziren horietarik batek-ere ez duela dastaturen ene afaria.

25. Bada, jendeketa handia zihuan Jesusekin; eta hekien alderat itzulirik, erran zioten:

26. Baldin norbait heldu bada ene gana, eta higuintzen ez baditu bere aitamak, emazte, alabak, seme, anaia eta arrebak, eta oraino bere burua ere, ez daiteke izan ene dizipulu.

27. Eta bere gurutzea soinean, ene ondotik heldu ez dena, ez daiteke izan ene dizipulu.

28. Ezen zuetarik zein da, dorre bat altxatu nahi-eta, lehenik hasiko ez dena jarrikeri atheratzen zenbat gastu behar othe den, eta hean othe duen lanaren akhabatzekorik;

29. Beldurrez-eta asentuak jarri ondoan, eta ezin akhabatu dukeenean, ikhusle guziak abia dakizkion trufatzen,

30. Diotelarik: Gizon hau etxe egiten hasi zaiku, baina ezin akhaba?

31. Edo non da erregea, zeina bertze errege bati gerla ematera goaterakoan, lehenik jarrikeri ez dena gogoetan, hean hamar mila gizonekin aitziner athera othe dakiokkeen hogoi milekin heldu zaioenari?

32. Eta gai ez bada, bidalkinak igorritz, hura urrun denean oraino, bakezko solasetara othoizten du.

33. Horreletan beraz, zuetarik edozein, dituen guziei ukho egiten ez duena, ez daiteke izan ene dizipulu.

34. Ona da gatza; ilhauntzen bada ordean, zertaz hura gazi?

35. Ez da on ez lurreko, ez ongarriko, baina kanporat arthikiren da. Aditzeko duenak beharrikeri, adi beza.

XV. KAP.

1. Bada, zerga biltzaileak eta bekhatoreak Jesusen ganat hurbiltzen ziren, haren entzuteko.

2. Eta Farisau eta Iskribauak erasten zuten, ziotelarik: Horrek onhesten ditu bekhatoreak eta hekiekin jaten du.

3. Eta Jesusek parabola hau atheratu zioten:

4. Zuetarik zein da ehun ardi dituen gizona; eta hekietarik bat galtzen badu, laur hogoi eta hemeretziak ez othe ditu mortuan uzten, eta galdu denaren ondotik ez othe da goaten, atzeman dukeen arteo?

5. Eta atzeman duenean, bozik hartzen du soin gainera;

6. Eta etxeratu denean, adiskideak eta hauzoak biltzen ditu, derrotearik: Enekin har zazue bozkario, aurkhitu baitut ene ardi galdu zena.

7. Nik derratzuet, zeruan horrela izanen dela, urrikitan sartzan den bekhatore batentzat bozkario gehiago, ezenez laur hogoi eta hemeretzi prestu urrikitze beharrik ez dutenen gatik.

8. Edo zein emaztekeri, hamar drakma izan-eta, hekietarik bat galtzen badu, ez du bizten argia, garbitzen etxea, eta bilhatzen artharekin, atzeman dezan arteo?

9. Eta khausitu dukeenean, deitzen ditu adiskideak eta hauzoak, diotelarik: Enekin har zazue bozkario, aurkhitu baitut galdu nuen drakma.

10. Horrela, derratzuet, Jainkoaren aingeruen artean izanen dela bozkario, urrikitan sartzan den bekhatore baten gatik.

11. Erran zioten oraino: Gizon batek bazituen bi seme;

12. Eta hekietarik gazteenak erran zioen aitari: Aita, indazu ontasunetik heltzen zaitan zuzena. Eta aitak berezi zioten zeini bere ontasuna.

13. Eta handik egun luzerik gabe, seme gazteena, zituen guziak bildurik, bidaietan goan zen urrungo tokitara, eta han galdukeria xahutu zuen bere izate guzia.

14. Eta guziak ahitu zituenean, gosete handi bat gerthatu zen herrialde hartan, eta bere hasi zen eskasiaren jasaiten.



15. Eta goan zen eta jarri zen hango etxeko jaun batekin. Eta harek igorri zuen urdezain bere bazterretxera.

16. Eta han nahi zukeen sabela bethe xerriek jaten zituzten leketarik; eta nihork etzioen ematen.

17. Orduan bere baithara itzulirik, erran zuen: Zenbat sehi ene aitareren etxean ogia nasai dutenak, eta ni hemen gosez hiltzen hari!

18. Jaikiko naiz eta goanen ene aitaren gana, eta erranen diot: Aita, gaizkia egin dut zeruaren kontra eta zure aitzinean;

19. Ez dut gehiago merezi zure semearen izena; ezar nezazu zure sehien lerroko.

20. Eta jaikirik goan zen bere aitaren gana. Bada, urrun zelarik oraino, ikhusi zuen bere aitak; eta bihotzak eginik, eta lasterrari emanetz, jauzi zitzaioen lephora, eta besarkatu zuen.

21. Eta semeak erran zioen: Aita, gaizkia egin dut zeruaren kontra eta zure aitzinean, eta ez dut gehiago merezi zure semearen izena.

22. Aitak ordean erran zioten bere sehiei: Ekharrazue aldagarri hauta, eta jauntzozue; ezarrotzue eskuan erreztuna eta oinetakoak zangoetan;

23. Erakharrazue aratxe gizendua, hil zazue, eta dugun jan eta egin besta;

24. Zeren hil baitzen ene seme hau, eta biztu da berriz, galdu zen, eta aurkhitu da. Eta hasi ziren besta egiten.

25. Bizkitartean bazterretan zen seme zaharrena; eta heldu zelarik, nola etxerat hurbiltzen hari baitzen, aditu zituen kantu eta dantzak;

26. Eta deithu zuen sehietarik bat, eta galdatu zioen zer ziren hekiek.

27. Eta harek erran zioen: Ethorri da zure anaia, eta zure aitak hil du aratxe gizendua, zeren osagarritan itzuli zaioen.

28. Hura berriz, gaitziturik, etzen sarthu nahi. Aita ilkhi zen beraz, eta abiatu zitzaioen othoizka.

29. Bainen harek ihardetsiz erran zioen aitari: Huna zenbat urthe zerbitzatzen zaitudala, eta egundaino zuk manatu gauzarik ez dut bazterrerat utzi, eta behinere ez darotadazu pittika bat eman, ene adiskideekin egin dezadan besta.

30. Bainen ethorri deneko zure Seme hori, lilitxoekin janik bere izonak, aratxe gizena hil diozu.

31. Eta ihardetsi zioen aitak: Semea, zu bethi zare enekin, eta nik ditudanak zureak dire;

32. Bainen behar ginduen egin bazkari, eta bozkario hartu; zeren zure anaia hau hil baitzen, eta berriz biztu baita; galdu zen, eta aurkhitua da.

XVI. KAP.

1. Bada, Jesusek bere dizipuluei ere erran zioten: Gizon aberats batek bazuen etxegizon bat, eta hau bere nausiaren baithan beltzatua izan zen, xahutu ziozkala bere ontasunak.

2. Eta deithu zuen nausiak, eta erran zioen: Zer aditzen diat hitaz? Hire etxegizongoaz athera dizadak garbitasun, ezen holako kargurik etzukek hiretzat gehiago.

3. Orduan etxegizonak erran zuen bere gogoan: Zer eginen dut, nausiak khentzen darotanaz geroz ene kargua? haitzurreko, ez naiz; eskatze-ko, ahalke.

4. Badakit zer egin beren etxeetara hartuko nautenen izateko, kargutarik khendua izanen naizenean.

5. Deithurik beraz bere nausiaren zorduru bakhotxa, lehenbizikoari erran zioen: Zenbat zor diozu ene nausiari?

6. Eta harek ihardetsi zuen: Ehun hordi olio. Eta erran zioen: Orizu zure zorraren ageria, jar zaite hor berehala, eta bertze bat egizu berrogoi eta hamarrekoa.

7. Gero galdatu zioen bertze bati: Zuk berriz, zenbat duzu zor? Ihardetsi zuen ehun erregu ogi. Erran zioen hari Har zazu zure ageria, eta iskriba zazu laur hogoieko bat.

8. Eta nausiak ederretsi zuen bere etxegizon tzarra, ohartuki zuelakoz egin; ezen mendeko umeak atzarriago dire beren egitekoetan argiaren umeak baino.

9. Eta zuei derratzuet nik: Adiskideak egizkitzue bide makhurretikako ontasunetarik, har zaitzazten, hil zaretekeenean, bethiereko egoitzetara.

10. Gauza xumean zin dena, handiagoan ere zin da; eta xumean tzar dena, handiagoan ere tzar da.

11. Baldin beraz, ez bazarete izatu makhurreko ontasunaren erabile on, nork zuei fida egiazkoak?

12. Eta bertzeena gaizki erabili baduzue, nork zuei eskuetara emanen darotzue zerorrena?

13. Ez da sehirik bi nausi zerbitza detzazkeenik; ezen edo basa higuinduko du, eta bertzea maithatuko; edo batari josiko da eta arbiuatu-ko du bertzea Jainkoa eta aberastasuna, ez detzazketzue biak zerbitza.



14. Aditzen zituzten bada horiek oro Farisauek, zeinak jaramanak baitziren, eta irri egiten zioten.

15. Eta Jesusek erran zaroeten: Zuek zarete, gizonen aitzinean zuen buruak prestu egiten dituztuen batzu; Jainkoak ezagutzen ditu ordean zuen bihotzak; ezik gizonen begietan eder dena, hasgarri da Jainkoaren aitzinean.

16. Joanes ethorri arteo ziren legea eta profetak; ordutik da erantzuten Jainkoaren erresuma, eta hartan sartzeko, bakhoxari zaio indar egitea.

17. Bada, erraxago da zeru-lurra urmaria ditezen, ezenez gal dadien legeko tilet bakhar bat.

18. Nork-ere bere emaztea utzi eta bertze bat hartzen baitu, linburkeria darama; eta nork-ere senharrak utzi emaztea hartzen baitu, linburutzen da hura ere.

19. Gizon bat aberats zen; haren soinekoak ziren purpuraz eta liho hautaz; eta egun oroz barazkari ederrenen erdian bizi zen.

20. Eta bazen eskale bat, Lazaro deitzen zena, haren arhean zatzana, oro zauri,

21. Ase nahi baitzitakeen aberatsaren mahainetik erortzen ziren paporretarik; eta nihork etzioen ematen; bainan xakhurrak heldu zitzaizkon eta milikatzen ziozkaten bere zauriak.

22. Bada eskalea ethorri zen hiltzera, eta aingeruek eraman zuten Abrahamen besoetara. Aldiz aberatsa ere hil zen, eta ifernua izan zuen ehorz-lekhu.

23. Eta oinhazeen erdian zelarik, begiak goititu, eta urrundik ikhusi zuen Abraham eta Lazaro haren besoetan;

24. Eta oihu eginez erran zuen: Aita Abraham, urrikal zakizkit, eta bidalazu Lazaro, urean busti dezan erhi mokoa, ene mihiaren hezatzeko, zeren oinhaze gaitzetan bainaiz gar hunen erdian.

25. Eta ihardetsi zioen Abrahamek: Semea, orhoit zaite, zure bizian onak izan dituztula, eta Lazarak gaitzak hala-hala; orai aldiz hau gozoetan dago, eta zu oinhazeetan.

26. Bertzalde, zuen eta gure artean badago nihonereko leze bat, hanbatean non hemendik zuetara goan nahi luketenek, ezin baitezakete, ez-eta hortik hunat ethorri nahi luketenek ere.

27. Eta aberatsak erran zuen: Othoizten zaitut beraz, aita, Lazaro igor dezazun ene aitaren etxera

28. (Baditut ezen bortz anaia), egin diozoten haukiez lekhukotasun, hekiek ere ez ditezen ethor oinhazezko toki huntara.

29. Eta Abrahamek ihardetsi zioen: Han dituzte Moises eta profetak; hekiek entzun betzazte.

30. Harek berriz, erran zioen: Ez, aita Abraham; bainan hiletarik norbait goan balakiote, urrikitan sar laizteke.

31. Abrahamek ordean erran zioen: Baldin ez badituzte entzuten Moises eta profetak; hiletarik norbait bitz baledi ere, ez dute sinhetsiren.

XVII. KAP.

1. Jesusek erran zioten bere dizipuluei: Gertha ditezen gaizbideak, ezinbertzea da; bainan zorigaitz hainari, zeinaren egitez gaizbideak gertatzen baitire.

2. Hainak hobe luke, ihara harri bat lephotik ezar eta itsasora arthik balezate, ezenez xumetto haukietarik gaizbidetan erorraraz baleza.

3. Begira huni: Baldin, zure anaiak huts zerbait egiten badarotzu, erantzun biozozu berari; eta urrikitzen bazaio, barkha hari.

4. Eta egunean zazpitan huts egiten badarotzu, eta egunean zazpitan zure gana itzultzen bada, dioelarik: Damu dut; barkha biozozu.

5. Eta Apostoluek Jaunari erran zioten: Berha zazu gure baithan sinhestea.

6. Bada, erran zioten Jaunak: Mustarda pikorraren bezenbateko sinhestea bazindute, martzoka ondo horri erran ziniozokete: Erroetarik ilkhi eta itsasoan landa hadi; eta egin lezake zuen errana.

7. Eta zuetarik zein da, sehi bat duenean iraulden edo abere alhatzen hari, erranen dioena, hura landatik itzuli denean: Zato berehala, mahainean jar zaite;

8. Eta erranen ez dioena: Xuxent dizadazu afaria, tinka zazu gerria eta zerbizta nezazu, jan eta edan dukedan arteo, eta gero janen eta edanen duzu?

9. Sehi hari zor othe dioke eskerrik, zeren manatua egin izan duen?

10. Ez dut uste. Zuek halaber, egin dituzketzuenean manatuak zaizkitzuenak oro, errazue: Sehi ezdeusak gare; egin behar ginduena egin dugu.

11. Eta Jerusalemera zihoalarik, gerthatu zen Samariaren eta Galilearen erditik iragaitera.

12. Eta nola herrixka batean sartzera baitzihoan, bidera atheratu zitzaizkon hamar legentsu, zeinak urrundik gelditu baitziren;

13. Eta oihu egin zuten, ziotelarik Jesus, gure nausia, urrikal guri.

14. Ikhusi zitueneko, erran zuen Zoazte, aphezen aitzinera ager zaitzte. Eta zihoazelarikan, garbituak aurkhitu ziren.



15. Bada, hekiarik batek ikhusi zuenean bere burua garbitua, giberat egin zuen, goraki handietsiz Jainkoa.

16. Eta ahuspez erori zen Jesusen oinetara, eskerrak bihurtzen ziozkielarik eta haina Samariarra zen.

17. Aldiz, Jesusek ihardetsiz erran zioen: Ez dire hamar sendatu? eta non dire bertze bederlatziak?

18. Arrotz hau baizen ez da aurkhitu, itzuli eta Jainkoari ospe eman dioenik.

19. Eta erraten dio: Jaiki zaite eta zoaz, zure sinhesteak salbatu baitzaitu.

20. Farisauek galdaturik aldi batez Noiz ethorriren da Jainkoaren erresuma? ihardestean hekiei, erran zuen: Jainkoaren erresuma ez da ohartgarriki ethorriren;

21. Eta ez dute erranen: Huna, hemen da; edo: Hara, hantxe da. Alabainan huna zuen erran dela Jainkoaren erresuma.

22. Eta erran zioten bere dizipuluei: Ethorriren dire egunak, zeinetan nahiko baituzue ikhusi gizonaren Semearen egun batentzat, eta ez baituzue ikhusiko.

23. Eta erranen darotzue: Huna hemen, hara hantxe. Ez goan, ez jarraik.

24. Ezik, nola zeru bazter batetarik dirdirutzen duen ximistak, zeruaren azpiko toki guzietan argitzen baitu; hala-ber izanen da gizonaren Semea bere egunean.

25. Lehenik ordean, behar du hainitz egarri eta gizate huntaz arbuaitua izan.

26. Eta nola gerthatu baita Noeren egunetan, hala izanen da gizonaren Semearen egunetan ere.

27. Jaten zuten eta edaten; gizonak emazteak, emazteek senharrak hartzen zituzten, Noe arkhan sarthu zen eguneraino; eta ethorri zen uholdea, eta xahutu zituen guziak.

28. Loten egunetan ere gerthatu zen halaber: Jaten zuten eta edaten, saltzen eta erosten, landatzen eta etxeak egiten;

29. Bainan Lot Sodomatik ilkhi zen egunean, suzko eta sufrezko uria jautsi zen zerutik, eta galdu zituen oro;

30. Hala-hala, gerthaturen da, gizonaren Semea agertuko den egunean.

31. Ordu hartan hegaztegian dena, eta bere tresnak etxe barnean, ez bedi jauts hekien hartzera; eta landan dena, hala-ber ez bedi gibelerat itzul.

32. Loten emazteaz orhoit bekizue.

33. Nor-ere hariko baita bere biziaren salbatzera, hainak galduko du; eta nork-ere galduko baitu, hainak du aurkhituren.

34. Nik derratzuet: Gau hartan, bi lagun ohe batean balin badire, bat izanen da hartua eta bertzea utzia;

35. Irin ehotzen hari diren bi emaztekietarik, bat izanen da hartua eta bertzea utzia: bi gizon badire landan, bat izanen da hartua eta bertzea utzia.

36. Dizipuluek ihardetsiz erran zioten: Non izanen da hori, Jauna?

37. Jesusek erran zioten: Non-nahi izan dadien hilikia, arranoak ere harat bilduko dire.

XVIII. KAP.

1. Bada, bethi othoitz egin behar baita, eta ez unhatu, parabola bat ere atheratu zaroeten,

2. Zioelarik: Bazen hiri batean juie bat, Jainkoaren beldurrik, ez gizonen axolarik etzuen.

3. Zen, berriz, hiri hartan alharguntsa bat, eta goaten zitzaioen erratera: Ene etsaiaren ganik asper nezazu.

4. Eta luzez egotu zen egin nahi gabez. Bainan azkenekoz bere buruari erran zioen: Ez badut ere Jainkoaren beldurrik ez-eta gizonen axolarik,

5. Halarik-ere, khexagarri baitzait alharguntsa hori, emanen diot bere zuzena, beldurrez-eta azkenean ethorririk egin dezadan laido zerbait.

6. Orduan erran zuen Jaunak: Adi zazue juie gaixtoaren solasa:

7. Eta Jainkoak, gau eta egun hari oihuz dagozkion bere hautetsiei ez othe diote asperkunde emanen, eta hekien alde khexatu gabe egonen othe da?

8. Nik derratzuet, asperturen dituela laster. Bainan dathorreanean gizonaren Semea, atzemanen othe du, zuen ustez, sinhesterik lurraren gainean?

9. Gero, saindu balire bezala beren baithako sinhestean bizi, eta bertzeak erdeinatzen zituzten batzuentzat ere atheratu zuen parabola hau:

10. Bi gizon igan ziren tenplora, othoitz egitera, bata Farisaua eta bertzea zerga biltzailea.

11. Farisauak, xutik, bere baithan hunela egiten zuen othoitz: Ene Jainkoa, eskerrak darozkitzut, zeren ez naizen bertze gizonak iduri; harra-
pari, bidegabe egile, emakoi baitire, hala-nola horrako zerga biltzaile hori ere.



12. Barur egiten dut astean bietan, eta ene izan guzien hamarrenak ematen ditut.
13. Aitzitik zergariak, urrundik zagoelarik, etzituen altxatu ere nahi begiak zerurat; bainan bulharrak jotzen zituen, zioelarik: Jainkoa, jabal zakizkit naizen bekhatoreari.
14. Nik derratzuet, hau barkhatua jautsi zela bere etxerat, eta bertzea ez; zeren goratzen diren guziak izanen baitire aphalduak, eta aphaltzen direnak goratuak.
15. Berriz, haurtto batzu ere erakhartzen ziozkaten, uki zetzan. Dizipuluak ohartu zirenean, larderiaka abiatu zitzaizkoten.
16. Bainan Jesusek haurttoak deitzen zituelarik, erran zuen: Utzatzue haurrak ene ganat, eta ez debeka; ezik bulatxekoena da Jainkoaren erresuma.
17. Egiaz derratzuet, nork-ere hartuko ez baitu zeruko erresuma haur batek bezala, ez da hartarako.
18. Orduan aitzindari batek egin zioen galde hau: Nausi ona, zer egin ez ardietsiren dut bethiereko bizitzea?
19. Aldiz Jesusek erran zioen: Zen deitzen nauzu ona? Nihor ez da onik, Jainkoa bera baizik.
20. Ezagutzen ditutzu manamenduak: Ez hil; Ez khutsa bertzeen emazteekin; Ohointzarik ez egin; Gezurrezko lekhukotasunik ez athera; Ait-amak ohora.
21. Harek ihardesten dio: Gaztedanik begiratu ditut horiek oro.
22. Hori aditurik, Jesusek erraten dio: Oraino gauza bat eskas duzu: ditutzun guziak sal eta beharrei ematzu, eta zeruan aberastasun handiak izanen dituzu; zato gero, eta jarraik zakizkit.
23. Horiek aditu zituenean, ilhundu zen gizona, aberats handi baitzen.
24. Jesusek berriz, hura ikhususirik ilhundua, erran zuen: Ala nekhez sarthuko baitire Jainkoaren erresuman aberatsak
25. Ezen erraxago da kamelua orratzaren xilotik iragan dadien, ezezen diruduna sar dadien Jainkoaren erresuman.
26. Eta aditzaileek erran zuten: Eta nor da salba daitekeenik?
27. Jesusek ihardetsi zioten: Gizonentzat ezin eginezko gauzak, egin-kizun dire Jainkoarentzat.
28. Piarresek erran zuen orduan: Huna guk oro utzi eta jarraiki gatzazkitzula.

29. Jesusek erran zaroeten: Egiaz derratzuet, nihor ez da utzi dituenik etxea, edo burhasoak, edo anaiak, edo emaztea, edo haurrak, Jainkoaren erresumaren gatik,

30. Eta hainitz gehiago izaten ez duenik mende huntan berean, eta bethiereko bizitzea ethorkizuneko mendean.

31. Gero Jesusek hartu zituen hamabiak, eta erran zioten: Huna non igaiten garen Jerusalemera, eta gizonaren Semeaz profetek iskribatu guziak bethetzera dihoazela.

32. Ezen jendaien eskuetara arthikia, eta eskarniatua, eta azotatua, eta thuztatua izanen da;

33. Eta azotatu ondoan, hilen dute, eta hirugarren egunean bizturen da.

34. Bainan hekiek etzuten horietarik deusere ardietsi; solas hori hekientzat, solas itsu bat zen; eta etzuten aditzen haren errana.

35. Bada, erthatu zen, Jesus hurbiltzen zelarik Jerikora, itsu bat bide bazterrean eske jarria zagoela.

36. Eta nola aditzen baitzuen ostea iragaiten, galdatu zuen zer zen harramantz hura.

37. Eta ihardetsi zioten: Jesus Nazaretharra zela iragaiten.

38. Eta oiuhu egin zuen, zioelarik: Jesus, Dabiden semea, urrikal zakizkit.

39. Eta aitzinean zihoazenak, gaizkika hari zitzaizkon, ixilarazi beharrez. Harek orduan hainitz gorago egiten zuen oiuhu: Dabiden semea, urrikal niri.

40. Gelditurik orduan, Jesusek manatu zuen erakhar ziozoten. Eta hurbildu zenean, erran zioen:

41. Zer nahi duzu egin dezazudan? Eta harek ihardetsi zioen. Ikhus dezadan, Jauna.

42. Eta Jesusek erran zioen: Ikhusazu, zure sinhesteak salbatu zaitu.

43. Eta ordu berean ikhusi izan zuen; eta Jesusen ondotik zihoan, ospe Jainkoari bihurtuz. Eta populu guziak ere ikhusi zuenean hori, esker eman zioen Jainkoari.

XIX. KAP.

1. Jerikon sarthurik, Jesus hiria gaindi zihoan.

2. Eta han bazen Zakeo deitzen zen gizon bat; eta hura zergarien aitzindaria zen eta aberatsa.

3. Eta zabilan, Jesus ikhusi beharrez nor othe zen; eta etziron jendeztearen gatik, bere heinean ttipia zelakoz.



4. Eta aitzinerat laster eginik, igan zen sikomora ondo baten gainera, Jesusen ikhusteko; zeren handik iragaitekoa baitzen.
5. Eta harat heldu zenean Jesus, begiak goititu eta ikhusi zuen, eta erran zaroen: Zakeo, jauts zaite laster, egun zure etxean egon behar bainaz.
6. Eta herresaka jautsirik, Zakeok bozkarioz hartu zuen bere etxerat.
7. Eta hori ikhusi zutenean, guziak erasiaka hari ziren, ziotelarik gizon tzar baten gana aldaratu zela.
8. Zakeok berriz, Jaunaren aitzinean gelditurik, erran zioen: Jauna, huna non demadan ene ontasunen erdia jende beharrei; eta norbaiti egin izan badiot zerbait bidegabe, laurkun bihurtzen diot.
9. Jesusek erran zioen: Salbamendua etxe huntan sarthu da egun, zeren gizon hau ere Abrahamen umea baita.
10. Alabainan gizonaren Semea, galdua zenaren bilhatzera eta salbatzera da ethorria.
11. Horiek aditzen zituztenei, erran zioten parabola bat, Jerusalemetik hurbil zelako ariaz, eta zeren guziek uste baitzuten Jainkoaren erresuma orduan agertzera zihoala.
12. Erran zuen beraz: Sortze handiko gizon bat goan zen urrungo herrialde batera erregetasunaren hartzera, gero itzultzekotan.
13. Eta hamar sehi deithurik, eman ziozkaten hamar mina, eta erran zioten: Irabazian erabil zatzue, ni ethorri arteo.
14. Bada, higuintzetan hartua zuten bere herritarrek, eta ondolik igorri ziozkaten bidalkinak, erranez: Ez dugu nahi gizon hori gure erregetzat.
15. Eta gerthatu zen itzuli zela, errege jarri ondoan; eta manatu zuen deith zetzazten dirua izan zuten sehi hekiek, ikhusteko zer irabazi egin zuen bakhotxak.
16. Lehenbizikoa ethorri zen beraz, zioelarik: Jauna, zure minak irabazi ditu bertze hamar.
17. Eta ihardetsi zioen: Ederki, zerbitzari ona; zeren gauza aphurrean zin izatu zaren, izanen duzu hamar hiriren gaineko manamendua.
18. Eta bertze bat ethorri zen zioelarik: Jauna, zure mina bertze bortzez onthu da.
19. Eta erran zioen hari: Eta zu, izan zaite bortz hiriren buruan.
20. Eta bertze bat ethorri zen, zioelarik: Jauna, huna zure mina; oihal batean altxaturik iduki dut;
21. Ezik zure beldur nintzen, gizon zorrotza zarelakoz; altxatzen baituzu phausatu ez duzuna, eta biltzen erain ez duzuna.

22. Hari erraten dio: Hire ahotik hartzen haut, zerbitzari gaixtoa; bahakien gizon zorrotza naizela, phausatu gabe altxatzen, eta erain gabe biltzen dudana;
23. Eta zertako ez duk eman ene dirua mailegura, nik, ethortzen nintzenez, athera nezan bere irabaziekin?
24. Eta han zirenei erran zioten: Khen zazue horren eskutik mina, eta hamar dituenari emozuete.
25. Eta hekiek ihardetsi zuten: Jauna, baditu jadanik hamar.
26. Nik derratzuet ordean, duenari emanen zaiola, eta nasai izanen duela; eta gabe denari, duena ere khenduko zaiola.
27. Ene etsaiak berriz, ni erregetzat nahi izatu ez nautenak, erakhar zatzue hunat, eta hil zatzue ene aitzinean.
28. Horiek erran ondoan, Jesus guzien buruan abiatu zen Jerusalemgo bideari gora.
29. Eta hurbildu zenean Bethphaieko eta Bethaniako ondora Olibadieta deitzen den mendira, bere bi dizipulu igorri zituen,
30. Erranez: Zoazte zuen aitzinean den herrira: hartan sartzearekin, estekatua aurkhituren duzue astokume bat, zeinaren gainera ez baita igan egundainogizonik; laxa zazue eta erakhar niri.
31. Eta nihork galdatzen badarotzuete: Zergatik laxatzen duzue asto hori? erranen diozue: Jaunak nahi baitu zerbitzatu.
32. Goan ziren beraz igorriak zirenak, eta aurkhitu zuten astokumea zagoela, harek erran bezala.
33. Berriz, astokumea estekatik hartzen zutelarik, haren jabeak erran zioten: Zer hari zarete astoaren laxatzen?
34. Eta ihardetsi zuten: Jaunak baitu hunen beharra.
35. Eta erakharri zioten Jesusi. Gero beren soinekoak astoari bizkarrrera emanik, jarrarazi zuten Jesus haren gainean.
36. Eta hala zihoalarik, soinekoak hedatzen zituzten haren bidean.
37. Eta ordukoz Olibadietako mendi jaustera hurbiltzen zelarik, dizipulu osteak bozkariotan abiatu ziren oro Jainkoaren goraki laudatzen, ikhusi izan zituzten sendagaila guzien gainean,
38. Ziotelarik: Benedika bekio Jaunaren izenean dathorren erregeari; bake zeruan, eta ospe zeru goretan.
39. Eta Farisauetarik zenbaitek jendepetik erran zioten: Nausia, ixil-larazatu zure dizipuluak.
40. Jesusek ihardetsi zioten: Nik derratzuet, haukiek ixil baleitez, harriek oihu eginen dutela.



41. Eta hurbildu zenean, hiria ikhustearekin, haren gainean nigar egin zuen, zioelarik:

42. Ai bederen, hire egun huntan, ezagut baheza zerk ekhar lezakean bakea! Bainan orai estalia dun hire begientzat.

43. Hargatik ethorriren ditun hire gainerat egunak, eta hire etsaiek inguraturen haute errekez, eta alde orotarik hertsaturen haute;

44. Eta lurrerat arthikiren zaitzute hi eta barnean ditunan hire umeak, eta harria harriaren gainean ez diton hitan utziko, zeren ez dunan ezagutu hire Jainkoa ikhustera ethorri zinan eguna.

45. Gero tenploan sarthurik, abiatu zen han saltzen eta erosten hari zirenen kanporat irazitzen,

46. Zerrotelarik: Iskribatua da: Ene etxea, othoitzeko etxea da. Zuek ordean ohoin zilho bat egin duzue huntarik.

47. Eta egun oroz hari zen tenploan irakhasten. Bada aphez nausiak, eta Iskribauak eta populuko aitzindariak hura galdu beharrez zabilzan.

48. Eta ezin aurkhi ziozoketen zer egin. Ezen populu guzia ederretsia zagoen haren entzutean.

XX. KAP.

1. Eta egun hekietarik batez, populuari tenploan irakhasten eta ebanjelioaren ematen hari zelarik, gerthatu ziren aphez nausiak eta Iskribauak zaharrekin ethortzera.

2. Eta hari buruz hau erran zuten: Erraguzu zer ahalez egiten dituzun horiek? edo: Nork eman darotzu ahal hori?

3. Jesusek berriz, ihardestean erran zioten: Nik ere zuei galde bat eginen darotzuet. Ihardets darotazue:

4. Zerutikakoa, ala gizonen ganikakoa othe zen Joanesen bathaioa?

5. Bainan hekiek gogoeta egiten zuten beren baithan, zerratelarik: Zerutikakoa zela badiogu, erranen daroku: Zergatik beraz ez duzue sinhetsi?

6. Aldiz erraten badugu: Gizonen ganikakoa, populu guziak harriakuteren gaitu; ezen gerthu dadukate profeta zela Joanes.

7. Eta ihardetsi zuten, etzakitela nondikakoa zen.

8. Jesusek ere erran zioten: Ez darotzuet erranen nik ere zer ahalez egiten ditudan horiek.

9. Orduan populuari abiatu zitzaioen parabola hunen erraten: Gizon batek landatu zuen mahasti bat, eta ezarri zuen etxietarretan, eta egon zen bidaietan luzez.

10. Eta mahats aroan, sehi bat bidali zioten etxietarrei, hari eman zioten mahastitik hartzeko zuen fruitua. Hekiek ordean jo zuten eta hutsik igorri.

11. Bidali zioten berriz bertze sehi bat. Hekiek aldiz hura ere jo zuten, laidoztatu eta hutsik igorri.

12. Eta bidali zioten oraino hirugarren bat, eta hura ere sarraskitan irazi zuten.

13. Orduan mahastiaren jabeak erran zuen: Zer eginen dut? igorriko dut ene seme maitea; beharbada, hau ikhusten dutenean, herabe izanen dire.

14. Etxietarrek ikhusi zutenean, beren baithan egin zuten eta erran: Hau da premua; dezagun hil, geldi dakigun ondoregoa.

15. Eta mahastitik khendurik, hil izan zuten. Zer eginen diote beraz mahastiaren jabeak?

16. Ethorriko da, eta galduko ditu etxietar hekiek, eta mahastia bertze batzuei emanen diote. Hori aditurik, ihardetsi zuten: Agjan ez!

17. Bainan Jesusek begiratzen ziotelarik, erran zuen: Zer da bada iskribatua den hitz hau: Etxe egileek tzartzat utzi harria, hura da izkina harri bilhakatua?

18. Nor-ere harri haren gainera eroriko baita zathikaturen da; aldiz edozeinen gainera eror dadien, xehakatuko du haina.

19. Eta aphez nausiek eta Iskribauak han berean nahi zuketzen eskua Jesusen gainean ezarri, ezagutu baitzuten berentzat atheratu ziotela idurikantza hura; bainan populuaren beldurrak iduki zituen.

20. Eta nola begiz baitzadukaten, igorri ziozkaten zelatari batzu, prestuarena egiten zutenak, bere hitzetan harrapa zezaten, gero aitzindarien eta gobernadorearen eskuetan ezartzeko.

21. Eta haukiek galdeka haritu zitzaizkon, ziotelarik: Nausia, badakigu zuzen mintzo zarela eta halaber irakhasten duzula; eta etzarella begiratzen nor nor den, bainan zintasunean irakhasten duzula Jainkoaren ganako bidea.

22. Zesarri zergaren ematea haizu zaiku, ala ez?

23. Ikhusten baitzuen ordean hekien maltzurkeria, Jesusek erran zioten: Zertako zabilzate ni zertan khausi?

24. Erakhuts dizadazuet denario bat. Norenak dire huntako itxura eta iskribua? Ihardestean, erran zuten: Zesarrenak.

25. Eta Jesusek erran zioten: Beraz Zesarrenak Zesarri bihur zatzue, eta Jainkoari Jainkoarenak.



26. Eta ezin jazarri zioten bere hitza populuaren aitzinean; eta haren ihardesteaz balditurik, gelditu ziren ixilik.

27. Bada, Saduzearretarik (zeinek ukhatzen baitute hilen phiztea) hurbildu ziren zenbait, eta galde bat egin zioten,

28. Ziotelarik: Nausia, Moisesek iskribatu daroku manamendu hau: Baldin norbaiten anaia hiltzera heldu bada, emazte duelarik eta haurrik gabe, anaiak har beza anaiaren emaztea, eta ondore eraik biozo bere anaiari.

29. Baziren bada zazpi anaia; eta lehenbizikoa ezkondu, eta haurrik gabe hil izan zen.

30. Eta ondokoak hartu zuen haren emaztea, eta hura ere haurrik gabe hil izan zen.

31. Eta hirugarrenak hartu zuen emazte hura. Eta halaber zazpiek, eta etzuten ondorerik utzi, eta hil izan ziren.

32. Guzien ondotik hil zen emaztekoa bera ere.

33. Beraz, hilak bizten direnean, zeinen emazte izanen da, ezik zazpiek izan dute emaztetzat?

34. Eta Jesusek erran zioten: Mende huntako umeak ezkontzen dire, eta ezkontzaz emanak dire.

35. Bainan dathorren mendeko eta hiletarik bizteko merezdun aurkituak izanen direnak, ez dire ezkonduko eta ez dute emazterik hartuko;

36. Alabainan ezin hilen dire gehiago; ezik izanen dire aingeruekin bardin eta Jainkoaren ume, bigarren bizitzearen ume diren ber.

37. Berriz, hilak biztuko direla, Moisesek berak erakhusten du, sasi ondoan deitzen duenean Jauna, Abrahamen Jainkoa, eta Isaaken Jainkoa, eta Jakoben Jainkoa.

38. Alabainan Jainkoa, ez da hilen Jainkoa bainan bizidunena, ezik haren aitzinean bizidun dire guziak.

39. Horren gainean, Iskribauetarik zenbaitek ihardetsiz, erran zioten: Nausia, ongi erran duzu.

40. Eta gehiago etzitzaizkon deuseren galdatzera ausartatzen.

41. Bainan berak erran zioten: Nolaz diote Dabiden seme dela Kristo?

42. Eta Dabidek berak Psalmoetako liburuan erran du: Jaunak ene Jaunari erran dio: Jar zaite ene eskuinean,

43. Zure etsaiak ezar detzadan arteo zure oinen-peko alkhi?

44. Dabidek beraz Jauna deitzen du hura; eta nola da haren seme?

45. Gero populu guziak aditzen zuelarik, bere dizipuluei erran zioten:

46. Berautzue Iskribauetarik, zeinek soin luzetan nahi baitute ibili, eta lakhet baitutuzte agurrak plazetan, lehenbiziko alkhiak sinagogetan eta mahain buruak barazkarietan;

47. Zeinek alhargunaren etxea iresten baitute beren othoitz luzean aitzakietan. Horiek kondenamendu garratzagoa jasanen dute.

XXI. KAP.

1. Bada, begira zagoelarik, Jesusek ikhusi zituen aberatsak beren emaitzen arthikitzen tenploko khutxara.

2. Ikhusi zuen, berriz, alharguntsa behartto bat ere kobrezko bi dirutoren ematen.

3. Eta erran zuen: Egiaz derratzuet alhargun behar hunek, bertze guziek baino gehiago eman du.

4. Ezen horiek orok nasai dutenetik egin diozkate Jainkoari emaitzak; hunek aldiz, eskas duenetik, bizitzeko zuen guzia eman izan du.

5. Eta tenploaz zioten batzuei, harri ederrez egina eta emaitza aberatsez aphaindua zela, erran zaroten:

6. Ethorriko dire egunak, zeinetan ikhusten dituzuen horietarik harria harriaren gainean ez baita urratu gabe geldituko.

7. Orduan galdatu zioten: Nausia, noiz gerthatzekoak dire horiek, eta zertarik ezagutuko da gerthatzera dihoazela?

8. Jesusek ihardetsi zuen: Berautzue nihork engana zaitzazten; ezik asko ene izenean ethorriren dire, diotelarik: Ni naiz Kristo. Orduan hurbil da muga, berautzue beraz hekiei jarraikitsetik.

9. Entzunen dituzuenen arren gudu eta bihurrialdi otsak, ez izi; holakoak behar dire lehenik gerthatu, bainan ez da oraino berehalakoan akhabantza.

10. Eta erraten zioten: Jaikiko dire jendaia jendaiaren kontra, erresuma erresumaren kontra;

11. Eta izanen dire tokika lur ikhara gaitzak, eta izurriteak, eta gose-teak, eta zerutik ikharagarrikeriak eta sendagaila lazgarriak.

12. Bainan horiek oro baino lehen, gaixtaginek ezarriko darozkitzute eskuak gainean, eta jazarriko darotzute, sinagoga eta presondegietara eramanez, errege eta gobernadoreen aitzinera herrestatuz, ene izenaren ariaz.

13. Bada, horiek gerthaturen zaizkitzue, nitaz lekhukotasun bihur dezazuentzat.

14. Beraz har zazue burutan, ez duzuela aitzinetik egon behar zer ihardetsiko duzuen orduan.



15. Ezen nik emanen darotzuet mihia eta zuhurtasun bat zeinari zuen etsai guziek ezin ihardukiko baitute, ez-eta ihardetsiko.
16. Berriz, zuen burhasoak, eta anaiak, eta ahaideak, eta adiskideak izanen dire galarazle, eta zuetarik asko izanen dire heriotzez joak;
17. Eta ene izenaren ariaz izanen zarete guziei hasgarri;
18. Eta zuen burutik ile bat ez da galduko.
19. Zuen pairakortasunaz izanen zarete zuen arimen nausi.
20. Berriz, ikhusiko duzuenean armadek inguratzen dutela Jerusalem; jakizue orduan hurbil dela haren desmasia.
21. Orduan Judean direnek, ihes egin bezate mendietara; hirian direnak, ilkhi beitez, eta bazterretan direnak ez sar barnerat.
22. Ezen hekiek dire asperreko egunak, bethe ditezen iskribatuak diren guziak.
23. Aldiz, zorigaitz izarra eta unhide direnei egun hekietan: ezen hestura gaitzak idukiko du lekhua eta hasarrea jautsiko da populu hunen gainera.
24. Eta gizonak eroriko dire ezpataren azpira, eta jendaki guzietara izanen dire eramanak gathibu, eta Jerusalem oinen azpian jendaiez izanen da erabilia, hekien egunak bethe ditezen arteo.
25. Eta izanen dire sendagailak iguzkian, eta ilhargian, eta izarretan, eta lurlean jendaiak hesturretan, itsasoaren eta uhinen orroak lastuko baititu.
26. Gizonak ihartuko dire izialdurarekin, eta mundu guziari gerthazera dihoakionaren igurikimenean; ezen zeruetako armadak khordokan izanen dire.
27. Eta orduan ikhusiko da gizonaren Semea, hedoen gainean dat-horla bothere eta maiestate handitan.
28. Bada, horiek gerthatzen hasiko direnean, begira zazue, eta goiti zatzue buruak, hurbil baita zuen berrerospena.
29. Eta iduripen bat erran zioten: Ikhusatzue pikondoa eta arbola guziak:
30. Ninika beren baitharik arthikitzen duten orduan, badakizue uda hurbil dela.
31. Halaber zuek ere ikhusiko duzuenean horiek gerthatzen direla, jakizue hurbil dela Jainkoaren erresuma.
32. Egiaz derratzuet ez dela gizate hau iraganen, non ez diren horiek oro gerthatzen.
33. Zeru-lurrak iraganen dire, bainan ene hitzak ez dire iraganen.

34. Begira beraz zuen buruei, thoil ez ditezen zuen bihotzak aseetan, hordikerian eta bizitze huntako arthetan, eta egun hura batbatean gainera ez dakizuen eror;
35. Ezen sare bat bezala jautsiko da lurraren hedaduran daudenen guzien gainera.
36. Hargatik zaudezte atzarriak, ordu oroz othoitz eginez, merezdun aurkhituak izan zaitezten gerthatzekoak diren horiei orori itzurtzeko, eta gizonaren Semearen aitzinera agertzeko.
37. Horrela egunaz tenploan hari zen irakhasten; gauaz berriz, ilkhirik egoten zen Olibadieta deitzen den mendian.
38. Eta populu guzia goiztiar heldu zen haren gana tenplora, haren entzuteko.

XXII. KAP.

1. Bada, hurbil zen Airisetako besta eguna, zeina deitzen baita Bazko;
2. Eta aphez nausiak eta Iskribauak bilha zabiltzan nola hilaraz Jesus; bainan populuaren ziren beldur.
3. Orduan satan sarthu zitzaioen Judasi, zeina Iskariot deitzen baitzuten; eta hura hamabietarik bat zen.
4. Eta goan zen, eta aphezen buruzagiekin eta kargudunekin mintzatu zen hean nola eskuetaratuko zioten Jesus.
5. Eta hekiek boztu ziren, eta egin zuten emanen ziotela hunenbertzeko bat.
6. Judasek eman zuen bere hitza. Eta arte on baten bilha zabilan hura hekien eskuetara emateko harramantzik gabe.
7. Ethorri zen bada Airisetako eguna, zeintan behar baitzen imolatu bazkoa.
8. Eta Jesusek bidali zituen Piarres eta Joanes, zioelarik: Zoazte, xuxent zazue bazkoa, jan dezagun.
9. Hekiek berriz, erran zuten: Zein tokitan nahi duzu egin dezagun?
10. Eta ihardetsi zioten: Hara, hirian sarthuko zaretenean, aitzinera ethorriko zaitzue gizon bat, pegar bat ur buruan, eta jarraik zakizkiote zein etxetara ere sarthuko baita,
11. Eta erranen diozue hango etxeko jaunari: Hau dio nausiak: Non da tokia, zeintan ene dizipuluekin jan baitezaket bazkoa?
12. Eta harek erakhutsiko darotzue salha handi bat aphaindua, eta han xuxent zazue behar dena.
13. Goan ziren beraz; Jesusek erran bezala aurkhitu zituzten oro, eta xuxendu zuten bazkoa.



14. Eta ethorri zenean ordua, jarri zen mahainen, eta hamabi Apostoluak harekin.
15. Eta erran zioten: Lehia handia izatu dut zuekin bazko hunen jateko, jasan dezadan baino lehen.
16. Erraten darotzuet ezen, gaugerroz ez dudala janen bazkorik, Jainkoaren erresuman bethe dadien arteo.
17. Orduan harturik edateko untzia, eskerrak bihurtu, eta erran zuen: Har zazue eta huts zuen artean.
18. Derratzuet ezen, gehiago ez dudala aihenaren gozotik edanen, Jainkoaren erresuma ethor dadien arteo.
19. Gero, ogia harturik, eskerrak bihurtu zituen; hautsi zuen eta erran zaroeten, zioelarik: Hau ene gorphutza da, zuentzat ematen dena; hau egizue ene orhoitzapenetan.
20. Halaber, afaldu ondoan, hartu zuen edateko untzia, zioelarik: Kalitza hau da batasun berria ene odolaren bidez, zeina izanen baita zuentzat ixuria.
21. Bizkitartean, huna saltzen nauenaren eskua enekin mahainen dela.
22. Alabainan gizonaren Semea badoha, iskribatua denaren arabera; zorigaitz ordean gizonari, zeintaz izanen baita saldua.
23. Eta beren artean abiatu ziren, zein othe zen holakorik eginen zuena.
24. Gero makhur bat atheratu zen hekien artean, hean zein iduki behar othe zen hekietan handientzat.
25. Bainan Jesusek erran zioten: Jendaien erregeek hekien gainean derabilkate nausitasuna; eta hekien gainean baitute indarra, ongiegiletzat dituzte deitzen.
26. Zuek ordean ez duzue hola eginen: aitzitik zuen arteko handiena, biz ttipiena bezala; eta aitzindari dena, biz zerbitzatzen duena iduri.
27. Alabainan zein da handiena, mahainen jartzen dena, ala mahaina zerbitzatzen duena? ez othe da mahainen jartzen dena? Ni bizkitartean zuen erdian naiz zerbitzatzen duena bezala.
28. Aldiz zuek zarete enekin egon zaretenak ene ordu gaitzetan;
29. Eta nik aphaintzen darotzuet ene erresuma, niri Aitak aphaindu izan darotan bezala,
30. Ene erresuman jan eta edan dezazuen ene mahainen, eta tro-nuen gainean jar zaitezten, Israelgo hamabi leinuen juiatzeko.
31. Gero erran zuen Jaunak: Simon, Simon, hara satanek galdatu duela zuen bahatzea ogia bahean bezala;

32. Eta nik zuretzat egin dut othoitz, zure sinhesteak ez dezan egin amor; eta zuk, egun batez, itzulirik, gogor zatzu zure anaiak.
33. Piarresek ihardetsi zioen: Zurekin banago, Jauna, bai presondegi-ra, bai heriotzera goatera.
34. Bainan Jesusek erran zioen: Piarres, nik derratzut, gaur ez du oilarrak joko, non ez duzun hiruretan ukhatu, ez nauzula ezagutzen. Gero erran zaroeten:
35. Igorri zaituztedanean, ez moltsa, ez murtxila, ez oinetakorik gabe, izan othe duzue deusen eskasik?
36. Eta ihardetsi zuten: Ez batere. Erran zaroeten beraz: Bainan orai duenak moltsa, har beza, eta halaber murtxila ere; eta ezpata gabe denak, sal beza soina, baten erosteko.
37. Ezen nik derratzuet, ene gainean bethe behar dela iskribatua den hitz hau: Eta gaixtaginekilako ezarria izan da. Akhabantzan dire alabainan nitaz iskribatuak diren guziak.
38. Hekiek berriz, erran zioten: Jauna, huna hemen bi ezpata. Eta harek ihardetsi zuen: Aski da.
39. Orduan ilkhirik bazihoan ohi zuen bezala Olibetako mendira. Berriz, dizipuluak ere jarraiki zitzaizkon.
40. Eta tokira heldu izan zenean, erran zioten: Egizue othoitz, gaitzerat eror etzaitezten.
41. Eta bere hekietarik baztertu zen harri besagain batean; eta belhaunikaturik, othoitzean zagoen,
42. Zioelarik: Aita, nahi baduzu, urrun zazu kalitza hau ene ganik; ez bedi hargatik ene nahia egin, bainan bai zurea.
43. Orduan zerutik agertu zitzaioen aingeru bat, indar ematen zioena. Eta azken hesturara eroria, are gehiago hari zen othoitzean.
44. Eta izerdi lekak atheratu zitzaizkon, iduri odol xortak, lurreraino zariotenak.
45. Eta othoizetik jaiki, eta bere dizipuluetara ethorri zenean, aurk-hitu zuen, beren bihotzetako ilhunduran loak hartu zituela.
46. Eta erran zioten: Zertako zaudezte lo? Jaiki zaitezte; egizue othoitz, etzaitezten gaitzerat eror.
47. Oraino mintzo zelarik, hara gizon oste bat; eta Judas deitzen zena, hamabietarik bat, hekien aitzinean heldu zen, eta Jesusi hurbildu zitzaioen musu emateko.
48. Eta Jesusek erran zioen: Zer, Judas! musu batez saltzen duzu gizonaren Semea?



49. Haren inguruan zirenek berriz, ikhusirik zer zihoan gerthatzera, erran zioten: Jauna, ezpatarekin hasiko gare joka?
50. Eta hekiatarik batek jo zuen aphez handiaren muthil bat, eta moztu zioen eskuineko beharria.
51. Bainan Jesusek hitza harturik, erran zuen: Utzatzue hunat. Eta ukiturik haren beharria, sendatu zuen.
52. Gero Jesusek erran zioten haren hartzera ethorri ziren aphez nausiei, tenploko aitzindarietara eta zaharrei: Ohoin baten ondoan bezala, ezpatekin eta makhilekin ilkhi zarete.
53. Egun oroz zuekin tenploan nintzenez, ez duzue ene gainera eskurik hedatu: bainan hau da zuen ordua eta ilhunbeek indar dutena.
54. Hekiek aldiz, harturik eraman zuten aphez handiaren etxera: Piarres berriz, jarraitzen zen urrundik.
55. Bada, sua ezkaratzaren erdian biztu-eta hekiek inguruan jarriak zirelarik, hekien artean zagoen Piarres.
56. Neskato bat oharturik suaren aitzinean jarria zagoela, begiratu zioen, eta erran zuen: Hau ere horrekin zen.
57. Bainan harek ukhatu zuen, zioelarik: Emaztekoa, ez dut-eta eza gutzen.
58. Eta aphur baten buruan, bertze norbaitek ikhusirik, erran zioen: Eta zu ere horietarik zare. Bainan Piarresek ihardetsi zuen: Ez, gizona, ez naiz hala.
59. Oren baten heina iragan zenez, bertze batek oraino kautuki erran zuen: Hau ere segurki horrekin zen; ezik Galilearra ere da.
60. Eta Piarresek ihardetsi zuen: Gizona ez dakit zer diozun. Eta berehala, hura mintzo zelarik oraino, jo zuen oilarrak.
61. Orduan itzulirik, Jaunak begiratu zioen Piarresi. Eta Piarres orhoitu zen Jaunaren hitzaz, nola erran izan zioen: Oilarrak jo baino lehen, hiruretan ukhatuko nauzu.
62. Eta kanporat goanik, nigar minak ixuri zituen Piarresek.
63. Eta Jesus zadukatenak, eskarnioka eta joka hari zitzaizkon.
64. Begiak estali ziozkaten eta jotzen zuten begithartean, eta galda-zioten gero: Errak, nork jo hauen?
65. Eta bertze asko ahapaldi atheratzen zuten haren gainean.
66. Argitu zeneko, bildu ziren populuko zaharrak, aphez nausiak eta Iskribauak, eta beren biltzarren erdira eramanik, Jesusi erran zioten: Zu balin bazare Kristo, erraguzu.
67. Ihardetsi zioten: Erraten badarotzuet, ez nauzue sinhetsiko.

68. Aldiz, ni ere galdeka abiatzen balin banaiz, ez darotzuet iharde-tisiko, eta ez nauzue utziko.
69. Bainan huntarik lekhora, gizonaren Semea jarria izanen da Jainkoaren indarraren eskuinean.
70. Orduan guziek erran zioten: Zu zare beraz Jainkoaren Semea? Ihardetsi zuen: Zeronek diozue, hala naiz.
71. Eta hekiek erran zuten: Zer dugu gehiago lekhukotasun beharrik? ezen geronek beraren ahotik dugu entzun.

XXIIL KAP.

1. Eta moltzoan jaikirik guziak, eraman zuten Pilatoren gana.
2. Han jazarka abiatu zitzaizkon, ziotelarik: Gizon hau atzeman dugu hari zela gure jendakiaren makhurrarazten, Zesarri zergaren ematetik debekatzen, eta erraten ezen bera dela Kristo errege.
3. Bada, Pilatok galdegin zioen: Zu zare Juduen errege? Eta iharde-tsi zuen: Zeronek diozu.
4. Pilatok berriz, aphez nausiei eta popuolari erran zioten: Ez dut aurkhitzen gizon hunen baithan lopiderik batere.
5. Bainan hekiek muthiritzenago ziren, ziotelarik: Subermatzen du populua, irakhasten hariz Judea guzia gaindi, Galileatik hasirik eta hunaraino.
6. Pilatok entzun zuenean Galileazko aiphua, galdegin zuen hean Galilearra zen gizona.
7. Eta jakin bezain sarri Herodesen eskukoetarik zela, bidali zioen Herodesi, zeina orduan Jerusalem gerthatzen baitzen.
8. Bada, Herodes boztu zen Jesusen ikhustez, alabainan aspaldi zuen haren ikhusteko lehian zagoela, hartaz aditu baitzituen hainitz gauza, eta phekiza baitzuen sendagaila zerbaiten egiten ikhusiko zuela.
9. Hainitz solasez bilhatu zuen beraz. Bainan Jesusek etzioen deuse-re ihardesten.
10. Bizkitartean aphez nausiak eta Iskribauak han zauden Jesusi bethi jazarka.
11. Aldiz Herodesek berekilakoekin erdeinutan iduki zuen Jesus; eta trufatzeko, soin xuri bat jauntzarazirik, gibelerat igorri zioen Pilatori.
12. Egun hartan adiskidetu ziren Herodes eta Pilato; ezen elkharren etsai ziren aitzinean.
13. Pilatok bada, bilarazirik aphez nausiak, kargudunak eta populua,



14. Erran zioten: Erakharri darotadazue gizon hau, populu bihurrazle bat bezala; eta huna zuen aitzinean bilhatu dudanean, ez dudala hunen baithan aurkhitu zuek jazartzen diozuen hobenetarik batere;

15. Ez-eta Herodesek ere; ezen igorri zaituztet haren aitzinera, eta hara ez dela hunen gainean heriotzea galdatzen duen erabakirik eman batere.

16. Igorriren dut beraz azurrialdi batekin.

17. Bada, besta egunean populuari utzi behar zioen preso zirenetarik norbait.

18. Bainan oste guziak batean oihu egin zuen, zerralarik: Hilarazazu hori, eta iguzu Barrabas:

19. Zeina preso ezarria izan baitzen hirian egin zen bihurrialdi baten ariaz eta gizon hiltze baten gatik.

20. Bada, Pilato, Jesus atheratu nahiz, berriz ere mintzatu zitzaioten.

21. Bainan hekiek marrumaka hari ziren erranez: Gurutzefika, gurutzefika zazu hori.

22. Harek berriz, hirugarren aldiko erran zioten: Hunek zer gaizki egin du bada? Hilarazteko ariarik hunen baithan ez dut aurkhitzen: azurriaturen dut beraz, eta utziko dut gero.

23. Hekiek ordean hertsatzen zuten oihu patarraka galdatuz, izan zadien gurutzefikatua, eta nausitzen ziren hekien izkolak;

24. Eta Pilatok manatu zuen, egin zadien galdatzen zutena.

25. Utzi zioten beraz hiltzeketaren eta bihurrialdiaren ariaz preso ezarria izan zena, zeina baitzuten galdatzen, eta hekien oldera eman zuen Jesus.

26. Eta bazaramatelarik, hartu zuten Simon, Zirenear gizon bat, bere bazterretxetik heldu zena, eta bortxatu zuten, Jesusen ondotik gurutzearen eramatera.

27. Bada, populu eta emazteki oste handi bat bazarraikion ondotik, hura deithoraturaz eta auhendatuz.

28. Bainan hekien alderat itzulirik, Jesusek erran zioten: Jerusalemeko alabak, ene gainean nigarrak ez egin, bainan zuen buruen eta zuen umeen gainean egizue nigar.

29. Ezen hor heldu dire egunak, zeinetan erranen baitute: Dohatsu agorrrak eta amatu ez diren sabelak, eta hazi ez duten bulharrak.

30. Orduan abiaturen dire erraten mendiei: Eror zaitetze gure gainera; eta aldapei: Estal gaitzatzue.

31. Alabainan hunela egiten badiote egur hezeari, zer etzaio eginen iharrari?

32. Bada, Jesusekin bertze bi gizon ere, bi gaixtagin bazaramatzaten hiltzera.

33. Eta heldu izan zirenean Kalbarioa deitzen den tokira, han gurutzefikatu zuten Jesus; eta ohoinak, bata eskuinetarik, eta bertzea ezkerretarik.

34. Jesusek berriz, erraten zuen: Aita, barkha biozozute, alabainan ez dakite zer hari diren. Bada, zorthea arthikiz phartitu zituzten haren soinekoak.

35. Eta populua xutik zagoen begira, eta buruzagiek burlatzen zuten Jesus hekiekin batean, ziotelarik: Atheratu ditu bertzeak; bere burua athera beza, hori balin bada Kristo, Jainkoaren hautetsia.

36. Aldiz, soldadoek ere trufa egiten zioten hurbilduz eta minagrea eskaintzean,

37. Eta erranez: Hi balin bahaiz Juduen erregea, salba zak hire burua.

38. Bada, iskribu bat ere bazen haren gaineko aldean greziaraz, latinez eta hebrearaz: HAU DA JUDUEN ERREGA.

39. Habeetarik dilindan zauden ohoinetarik bat halaber burhoka hari zitzaion erranez: Hi bahaiz Kristo, salba zak hire burua, eta gu ere bai.

40. Bertzeak ordean ihardetsiz, gaizkiak erraten zarozkan, zioelarik: Hik ez duk Jainkoaren beldurrik ere, heroni heriotze berera kondenatua haizelarik.

41. Eta zinez ere gurea zuzena duk, ezen gure egintzek merezitu saria izaten diagu; hunek ordean gaizkirik ez dik egin batere.

42. Eta Jesusi erraten zioen: Jauna, orhoit zaitenitaz, zure erresumara heldu zaretekeenean.

43. Eta Jesusek ihardetsi zioen: Egiaz derratzut, egun parabisuan enekin izanen zare.

44. Bada, sei orenetako heina zen, eta ilhunbeak lur guziaren gainean jarri ziren bederatzietaraino.

45. Eta itsutua izan zen iguzkia, eta tenploko bela bi erdi egina.

46. Eta oihu handi batekin, Jesusek erran zuen: Aita, zure eskuetan ezartzen dut ene arima. Eta hori erratearekin, hatsak egin zioen.

47. Bada, ehuntariak gerthatu zena ikhusirik, aithor bihurtu zioen Jainkoari, erraten zuelarik: Egiazki zuzena zen gizon hau.

48. Eta ikhuskari hortara ethorriak elkharrekin zaudezen guziak, eta gerthatu ziren gauzen lekhuko zirenak, beren bulharrak joz zihoazen gibelerat.

49. Berriz, Jesusen ezagunak oro, eta Galileatik jarraiki zitzaizkon emaztekiak, urrundik zauden horiei begira.



50. Eta bazen gizon bat, Josep deitzen zena, kargutakoa, gizon pres-
tu eta zuzena;

51. Harek etzuen bere aithorrik eman ez bertzeen xedeei, ez egintzei;
Arimathea deitzen den Judeako hiri batetakoa zen, eta harek ere iguriki-
tzen zuen Jainkoaren erresuma.

52. Hura goan zitzaioen Pilatori, eta galdatu zioen Jesusen gorphu-
tza:

53. Eta gurutzetik jautsi zuenean, inguratu zuen mihise batez eta eza-
rri zuen harrian zilhatua zen hobi batean, zeintan ez baitzen oraino nihor
izan emanik.

54. Bada, egun hura, aphainketako eguna zen, eta larunbata hastera
zihoan.

55. Galileatik Jesusekin ethorri ziren emaztekiek berriz, Josepi jarrai-
kirik, ikhusi zuten hobia, eta nola ezarria zen Jesusen gorphutza.

56. Gero gibelerat itzulirik, aphaindu zituzten baltsamuak eta gan-
tzugailuak, eta larunbat eguna iragan zuten geldirik, legearen arabera.

XXIV. KAP.

1. Bainan astearen lehenbiziko egunean, goizean goizik argi zirrintan
ethorri ziren hobira, zakharztelarik aphaindu zituzten baltsamuak;

2. Eta aurkhitu zuten harria hobitik anbildua.

3. Sarthu zirenean, etzuten atzeman Jesus Jaunaren gorphutza.

4. Eta gerthatu zen, hortaz gogohurrituak zaudezelarik, bi gizon
aldean agertu zitzaizkotela soineko argi batzuekin.

5. Bada, nola emaztekiak laztuak baitziren eta begitharteak lurrera
beheititzen baitzituzten, hekiek erran zioten: Zertako bilhatzen duzue
hilen artean bizi dena?

6. Ez da hemen, bainan biztua da: orhoit zaitezte nola mintzatu izan
zitzaiztuen, noiz-etare Galilean baitzen oraino,

7. Zionean: Premia da gizonaren Semea, gaixtaginen eskuetara izan
dadien emana, eta gurutzefikatua, eta bitz dadien hirugarren egunean.

8. Eta orhoitu ziren Jaunaren hitzez.

9. Eta hobitik itzulirik, berri horiek oro eman ziozkaten hamekei eta
bertze guziei.

10. Bada, horiek Apostoluei erran ziozkatenak ziren Maria
Magdalena, Joana eta Maria Jakoberena, eta bertze hekiekin zirenak.

11. Bainan solas horiek hekien begietan izan ziren burtzoraldi baten
iduriko, eta etzituzten sinhetsi.

12. Piarresek ordean jaikirik laster egin zuen hobira; eta makhurtu
zen eta oihalak ikhusi zituen bakharrik lurtean, eta itzuli zen, gerthatu
zena ederretsiz bere baithan.

13. Eta hara egun berean hekiatarik bia zihoazela Emaus deitzen den
herri batera, zeina Jerusalemetik hirur hogoi estadiotan baita,

14. Eta beren artean mintzo ziren gerthatu ziren horiez orotaz.

15. Eta gerthatu zen, solasean hari eta beren artean gauzak iragaiten
zituztelarik, hurbildu zitzaioleta Jesus bera, eta hekiekin zihoan;

16. Bainan poxelatuak zituzten begiak, etzezatentzat ezagut.

17. Eta erran zioten Jaunak: Zer ditutzue bidean zuen artean dera-
bilzkatuzen solas horiek, eta zergatik zarete ilhun?

18. Eta batek, Kleophas deitzen zenak, ihardetsiz erran zioen:
Bakharra othe zare Jerusalemen hunenbat arrotz, non ez baititzu jakin ere
hor egun haukietan iragan direnak?

19. Jaunak erran zioten: Zer gerthatu da? Eta ihardetsi zuten: Mintzo
ginen Jesus Nazaretharraz, zeina izatu baita profeta bat, eginkariz eta
hitez ahalduna, Jainkoaren eta populu guziaren aitzinean;

20. Eta nola aphez nausiek eta gure buruzagiek igorri duten herio-
tzera kondenaaraztera, eta nola gurutzefikatu duten.

21. Bada, gu igurikitzen ginen harek zuela berrerosiren Israel; eta orai
horien guzien gainera huna egun hirugarren eguna horiek egin izan direla.

22. Halabadere, harritu gaituzte gurekilako emazteki batzuek, zeinak
argi aitzinean izatu baitire hobian;

23. Eta ez atzemanik haren gorphutza, ethorri dire diotelarik, agertu
zaizkotela aingeru batzu, zeinek erran baitiote bizi dela.

24. Eta guthartekoetarik zenbait hobira goan izan dire; eta nola emaz-
tekiek erran, hala atzeman dituzte oro; bainan bera ez dute aurkhitu.

25. Eta Jaunak erran zioten: Oi zoroak, eta bihotzez uzkur zaudez-
tenak sinhestera profetek erran izan darozkitzueten guziak!

26. Ez othe zen premia Kristok egar zetzan horiek, eta horreletan sar
zadien bere ospean?

27. Eta Moisesen ganik hasirik, eta profeta guziak iraganez, erakhus-
ten ziozkaten Iskritura guzietan hartaz ziren solasak.

28. Zihoazen herrira hurbildu ziren, eta harek urruriago goateko ale-
gia egin zuen.

29. Eta hekiek gelditzera behartu zuten, erratan ziotelarik: Zaude
gurekin, ezen beranta dihoa eta ja beheratua da eguna. Eta sarthu zen
hekiekin



30. Eta mahainean hekiekin jarria zelarik, hartu zuen ogia, eta benedikatu, eta hautsi, eta eskaintzen zioten.
31. Eta orduan ideki ziren hekien begiak eta ezagutu zuten; bainan hura suntsitu zitzaioten begietarik.
32. Eta elkharri erran zuten: Gure bihotza ez othe zagoen sutan gure baithan, bidean mintzo zenean, eta Iskriturak agertzen zarozkigunean?
33. Eta ordu berean jaikirik, bihurtu ziren Jerusalemara, eta bilduak aurkhitu zituzten hamekak eta hekiekilakoak,
34. Eta erraten zuten: Egiazki biztu da Jauna, eta Simoni agertu zaio.
35. Eta haukiek ere erran zuten zer gerthatu zitzaioten bidean, eta nola ezagutu zuten ogiaren haustetik.
36. Eta gauza horiez solas dutelarik, Jesus agertzen zaiote erdira, eta erraten diote: Bakea dela zuekin; ni naiz, ez izi.
37. Bainan hekiek, nahasiak eta izituak, uste zuten izpiritu bat ikhusten zutela.
38. Eta Jesusek erran zioten: Zergatik zarete asaldatuak, eta nolaz heldu zaizkitzue holako gogaramenduak bihotzera?
39. Ikhusatzue ene eskuak eta oinak, ni neroni naizela; uki zazue eta begira; ezen izpiritu batek ez du haragirik eta hezurrik, hala-nola ikhusten baituzue nik baditudala.
40. Eta horiek erranik, erakutsi ziozkaten eskuak eta oinak.
41. Bainan ez baitzuten oraino sinhesten, eta bozkarioz jauziak baitziren, erran zaroeten: Baduzue hemen jateko zerbait?
42. Eskaini zioten arrainki errea eta erle orraze batetarik.
43. Eta hekien aitzinean janik, gainerakoak hartu eta eman ziozkaten.
44. Erran zioten gero: Haukiek dire zuei erran narozkitzuen hitzak, zuekin nintzenean oraino, premia zela ezen Moisesen legean, profetetan eta psalmoetan nitaz iskribatuak diren guziak bethe zitezen.
45. Orduan ideki zioten adimendua, ardiets zetzazten Iskriturak.
46. Eta erran zaroeten: Horrela da iskribatua; horrela ere zen premia, jasan zezan Kristok, eta hiletarik bitz zadien hirugarren egunean,
47. Eta haren izenean erantzun ditezen Jerusalemetik hasirik jendaki guzietan bekhatuen urrikia eta barkhamendua.
48. Bada, zuek zarete haukien lekhuko.
49. Eta nik igortzera dohakizuet ene Aitak agindu darotzuena; zuek aldiz zaudezte hirian, gaineke indarraz jauntziak izan zaiteztezen arteo.
50. Eraman zituen gero Bethaniara, eta eskuak altxaturik, benedikatu zituen.

51. Eta benedikatzten zituelarik, goan zen hekien ganik eta zerurat altxatu zen.
52. Eta hekiek adoratzten zutelarik, bozkario handitan itzuli ziren Jerusalemara.
53. Eta tenploan zauden bethi, Jainkoa laudatuz eta benedikatuz. Halabiz.



JESU-KRISTOREN EBANJELIO SAINDUA JOANESEN ARABERA

I. KAP.

1. Hastapenean zen Hitza, eta Hitza Jainkoaren baithan zen, eta Hitza Jainko zen.
2. Hastapenean Jainkoaren baithan zen.
3. Gauza guziak harek eginak dire, eta egina denik ez da hura gabe egin deusere.
4. Haren baithan zen. bizia, eta bizia gizonen argia zen.
5. Eta argiak ilhunbeetan argitzen du, eta ilhunbeek ez dute ezagutu.
6. Jainkoak igorria, gizon bat izatu da Joanes deitzen zena.
7. Hura ethorri zen lekhukotzat, argiari eman ziozon lekhukotasun, orok haren ariaz har zezaten sinheste.
8. Hura etzen argia, bainan zen argiari lekhukotasun bihurtzeko.
9. Hau zen argi egiazkoa, mundu huntara dathortzen gizon guziak argitzen dituen.
10. Munduan zen, eta berak egin zuen mundua, eta munduak ez du ezagutu.
11. Ethorri da bere izateetara eta bereek ez dute onhetsi.
12. Bainan zenbatek-ere onhetsi baitute, hainei eman diote Jainkoaren ume bilhakatzeko ahala, hainei zeinek haren izenean sinheste baitute;
13. Zeinak ez odoletik, ez haragiaren nahitik, ez gizonaren oldetik, bainan Jainkoaren ganik baitire sorthu.
14. Eta Hitza haragi egin izan da, eta egotu da gure artean, graziaz eta egiaz bethea, eta ikhusi izan dugu haren ospea, Aita ganikako seme bakharraren ospea bezala.
15. Joanesek hartaz bihurtzen du lekhukotasun, eta oihi egiten du, dioelarik: Hau zen nik erraten nuena: Ene ondotik ethortzekoa dena, ene gaineko ezarria da, zeren ni baino lehenagokoa baitzen.
16. Eta guk izatu dugu guziek haren bethetasunetik, eta grazia graziaren ordain.
17. Alabainan Moisesez emana izan da legea; grazia eta egia Jesu-Kristoz dire egin.
18. Egundaino nihork ez du Jainkoa ikhusi; Seme bakharrak, Aitaren galtzarrean denak, harek du ezagutarazi.

19. Eta hau da Joanesen lekhukotasuna, Jerusalemdik Juduek aphez eta lebitar batzu bidali ziozkatenean galdegitera: Nor zare zu?
20. Eta aithortu zuen, eta ez ukhatu, eta aithor hau eman zuen: Ez naiz ni Kristo.
21. Eta galdatu zioten: Zer zare bada? Elias zare zu? Eta erran zuen: Ez naiz hura. Profeta zare zu? Eta ihardetsi zuen: Ez.
22. Erran zioten beraz: Nor zare, ihardets diozotegun bidali gaituztenei? Zer diozu zure buruaz?
23. Erran zuen: Ni naiz hainaren mintzoa, zeinak mortuan oihi egiten baitu: Aphain zazue Jaunaren bidea, Isaias profetak erran izan duen bezala.
24. Eta haren ganat igorriak zirenak, Farisauetarik ziren.
25. Eta galdatu eta erran zioten: Zer hari zare bathaiatzen, ez bazare ez Kristo, ez-eta Elias, ez-etare profeta?
26. Joanesek ihardetsi zaroten, zioelarik: Nik urean dut bathaiatzen; bada ordean zuen erdian bertze bat, zuek ezagutzen ez duzuen.
27. Hura da ene ondotik ethortzekoa dena, ene gaineko ezarria dena; ni ez bainaiz haren oinetakoen lokharriaren urratzeko ere.
28. Haukiek gerthatu ziren Bethanian, Jordanez haindian, non, hari baitzen Joanes bathaiatzen.
29. Biharamunean Joanesek ikhusi zuen Jesus heldu zitzaioela, eta erran zuen: Huna Jainkoaren bildotsa, huna munduaren bekhatua khentzen duena.
30. Hau da haina, zeintaz erran baitut: Ene ondotik dathor gizon bat, nitaz gorago ezarria dena, zeren ni baino lehenago baitzen.
31. Eta nik ez nuen ezagutzen; bainan Israelen ezagutua izan dadien, hartatik ethorri naiz ni urean bathaiatzera.
32. Eta Joanesek lekhukotasun bihurtu zuen, zioelarik: Ikhusi dut nik Izpiritua uso bat iduri zerutik jausten, eta hunen gainean gelditu da.
33. Eta nik ez nuen ezagutzen; bainan urean bathaiatzen haritzera bidali nauenak, hainak erran izan darot: Zeinaren gainerat ere ikhusiren baituzu Izpiritua jausten eta haren gainean gelditzen, hura da Izpiritua sainduan bathaiatzen duena.
34. Eta ikhusi dut nik, eta lekhukotasun bihurtu dut, hau dela Jainkoaren Semea.
35. Ondoko egunean, Joanes han jarri zen berriz, eta haren bi dizipulu ere bai.
36. Eta ikhustearekin Jesus bidez zihoala, erraten du: Horra Jainkoaren bildotsa.



37. Bi dizipuluek aditu zuten mintzatzen, eta jarraiki ziren Jesusi.
38. Eta itzulirik, eta jarraikitzen zitzaizkola oharturik, Jesusek erraten diote: Zeren ondoan zbiltzate? Hekiek ihardetsi zioten: Rabbi (erran nahi baita Nausia), non egoten zare?
39. Erraten diote: Zatozte eta ikhusazue. Goan ziren eta ikhusi zuten non zagoen, eta haren baithan egotu ziren egun hura; ezen hamar orene-tako heina zen.
40. Bada, Andres, Simon Piarresen anaia, Joanesen ganik aditu zuten, eta Jesusi jarraiki ziren bietarik bat zen.
41. Harek atzematen du lehenbizikorik Simon, bere anaia, eta erraten dio: Aurkhitu dugu Mesias (erran nahi baita Kristo).
42. Eta erakharri zuen Jesusen gana. Jesusek begiratu ondoan, erran zioten: Zu, Simon zare Joanesen semea; deithuko zare Zephas (horrek erran nahi baitu Harria).
43. Biharamunean Jesusek nahi izan zuen Galileara ilkhi, eta aurkhitu zuen Filipe, eta erran zioen: Jarraik zakizkit.
44. Bada, Filipe Bethsaidako zen, Andresen eta Piarresen hiri berekoa.
45. Filipek atzematen du Nathanael eta erraten dio: Aurkhitu dugu Moisesek legean iskribuz eta profetek aiphatu dutena, Jesus Nazarethekoa, Josepen semea.
46. Eta Nathanaelek erraten dio: Zer bait onik athera othe diteke Nazarethetik? Filipek ihardesten dio: Zato eta ikhusazu.
47. Jesusek ikhusten du Nathanael heldu zaiola, eta hartaz erraten du: Huna zinez Israeldar bat, zeinaren baithan maltzurkeriarik ez baita.
48. Nathanaelek erraten dio: Nondik ezagutzen nauzu? Jesusek ihardesten eta erraten dio: Filipek deith zintzan baino lehen, piko azpian zinaudelarik, ikhusi zaitut.
49. Nathanaelek ihardesten eta erraten dio: Rabbi, zu Jainkoaren Semea zare, zu zare Israelgo Errege.
50. Jesusek ihardesten eta erraten dio: Sinhesten duzu, zeren erran darotzudan: Piko azpian ikhusi zaitut; hori baino handiagorik ikhusiren duzu.
51. Eta erraten dio; Egiazki, egiazki derratuet nik, ikhusiren dituzuela zerua idekia eta Jainkoaren ingeruak igaiten eta jausten gizonaren Semearen gainera.

II. KAP.

1. Handik hirugarren egunean, eztei batzu egin ziren Kana Galileakoan, eta han zen Jesusen ama.
2. Bada, Jesus ere eta bere dizipuluak ezteietara deithuak izan ziren.
3. Eta arnoa eskastera baitzihoan, Jesusi erran zioen bere amak: Arnorik ez dute.
4. Eta Jesusek erran zioen: Emaztekoa, zer da ene eta zure arteko? ene ordua ez da ethorria oraino.
5. Haren amak erraten diote sehiei: Zer-ere erranen baitarotzue, eta hura eta hura egizue.
6. Bada, han baziren sei untzi harrizko, Juduen xahualdietakotzat ezarriak, bizpahiruna metreta zadukatenak.
7. Jesusek erraten diote: Urez bethe zatzue untziak. Eta bethe zituzten gaineraino.
8. Eta Jesusek erraten diote: Erautsazue orai, eta eremozue mahain arthatzaileari. Eta eraman zuten.
9. Bada, mahain arthatzaileak dastatu zueneko arno bilhakatua zen ura, (nola ez baitzakien nondik heldu zen, bainan ura ekharri zuten sehiek bazakiten), deitzen du jaun esposa,
10. Eta erraten dio: Nor-nahik hastetik mahainean ezartzen du arno ona, eta txarragoa, jendea edana denean; zuk aldiz, orai arteo iduki duzu arno ona.
11. Hori egin zuen Jesusek bere lehenbiziko sendagaila, Kana Galileakoan, eta ezagutarazi zuen bere ospea, eta haren baithan sinhetsi zuten haren dizipuluek.
12. Gero jautsi zen Kapharnaumera eta harekin batean haren ama, anaiak eta dizipuluak, eta han etzuten eman hanbat egun.
13. Hurbil zen Juduen Bazko, eta Jesus igan zen Jerusalemara;
14. Eta tenploan atzeman zituen idi, ardi eta uso saltzaile batzu, eta diru aldatzaileak jarriak.
15. Eta azotea bezalako bat eginik sokatto batzuz, tenplotik irazi zituen oro, ardiak eta idiak ere, eta ixuri zituen aldatzaileen diruak eta mahainak uzkaile.
16. Eta uso saltzailei erran zioten Khen zatzue horiek hemendik, eta ene Aitaren etxeaz ez egin tratuko etxe bat.
17. Orhoitu ziren orduan haren dizipuluak nola den iskribatua: Zure etxearen alderako kharrak erretzen hari nau.
18. Jabetu ziren beraz Juduak, eta erran zioten: Zer ezagutkariz erak-hutsiko darokuzu, baduzula horien egiteko eskua?



19. Jesusek ihardetsi eta erran zioten: Urra zazue tenplo hau, eta xutituko dut hirur egunik barnean.

20. Horren gainean Juduek erran zuten: Berrogoi eta sei urthe eman dituzte tenplo hunen egiten, eta zuk hirur egunez egingen baituztu?

21. Jesus mintzo zen ordean bere gorphutzeko tenploaz.

22. Hiletarik biztu zenean beraz, haren dizipuluak orhoitu ziren hori erran izan zuela, eta sinhetsi zituzten Iskrittura eta Jesusek erran hitza.

23. Bada, nola Jerusalemen baitzen Bazko bestetan, askok, ikhusirik harek egiten zituen sendagailak, sinheste hartu zuten haren izenean.

24. Bainan Jesus etzagoen hekien gainean, zeren-eta ezagutzen baitzituen oro,

25. Eta beharrik ez baitzuen, nihork lekhukotasunik egin ziozon nihoren gainean; alabainan bazakien berak zer zagoen gizonaren barnean.

III. KAP.

1. Bada, bazen Farisauen arteko gizon bat, Nikodemo deitzen zena, Juduetan aitzindari.

2. Hura Jesusen gana ethorri zen gabaz, eta erran zioen: Nausia, badakigu irakhaste zarela Jainkoaren ganik ethorria; alabainan zuk egiten duzun holako sendagailarik nihork ez dezake egin, non ez den Jainkoa harekin.

3. Jesusek ihardetsi eta erran zioen Zin-zinez derratut nik, nihork ezin ikhus dezakeela Jainkoaren erresuma, berritan sort ez badadi.

4. Nikodemok erraten dio: Gizona nola sor daiteke berriz, behin zahartua denean? bigarreanean sar othe daiteke bere amaren sabelean, eta berritan sort?

5. Jesusek ihardesten du: Egiazki, egiazki darotzut erraten, uretik eta Izpiritu sailduti sortzen ez dena, ezin sar daitekeela Jainkoaren erresuman.

6. Haragitik sorthua, haragi da: eta izpiritutik sorthua, izpiritu.

7. Ez harri, zeren erran darotzudan: Premia da berritan sor zaitezten.

8. Haizeak nahi duen alde jotzen du, eta aditzen duzu haren harabotsa, bainan ez dakizu nondik heldu den, ez norat dihoan; hala-hala da izpiritutik sorthua denaz.

9. Nikodemok ihardetsi eta erran zioen: Nola egin daizteke horiek?

10. Ihardetsi zuen Jesusek eta erran zioen: Irakhasle zare Israelen, eta etzare horietaz jakintsun?

11. Egiazki, egiazki erraten darotzut, dakigunaz garela mintzo, eta ikhusi dugunaz egiten dugula lekhukotasun, eta gure lekhukotasuna ez duzue onhesten.

12. Baldinetaria, ni zuei lurreko gauzez mintzatu, eta ez baduzue sinhesten; nola sinhetsiren duzue, zerukoez mintzatzen banatzaitzue?

13. Nihor ez da zerurat igan, zerutik jautsi dena baizik, gizonaren Semea, zeina zeruetan baita.

14. Eta nola Moisesek mortuan altxatu baitzuen sugea, hala gizonaren Semea behar da izan goratua;

15. Edozein, haren baithan sinheste duenik gal ez dadien, aitzitik izan dezan bethiko bizitzea.

16. Alabainan Jainkoak haletan du mundua maithatu, non bere Seme bakharra eman baitu, hunen baithan sinhesten duen nihor ez dadien gal, aitzitik izan dezan bethiko bizitzea.

17. Ezen Jainkoak mundurat igorri du bere Semea, ez munduaren juiatzera, bainan haren bidez salba dadien mundua.

18. Hunen baithan sinheste duena ez da juiatua; bainan sinhesten ez duena, oraitik juiatua da, sinhesterik ez duelakoz Jainkoaren Seme bakharraren izenean.

19. Bada, huna juiamendu horren aria: argia ethorri da lurrera, eta gizonak argia baino nahiago izan dituzte ilhunbeak maithatu; ezik egitate tzarrak zituzten.

20. Alabainan gaizki egiten hari denak higuin du argia, eta ez da argirat hurbiltzen, ager ditezen beldurrez haren eginkariak.

21. Bainan egia bethetzen duena, argira heldu da, ager ditezen haren egintzak, zeren Jainkoa baithan eginak baitire.

22. Haukien ondoan, ilkhi zen Jesus, eta haren dizipuluak ere, Judeako lurrera; eta han zagoen hekiekin, eta hari zen bathaiatzten.

23. Bada, Joanes ere bathaiatzten hari zen Enonen, Salimgo ondoan, ur hainitz bazelakoz aurkhintza hartan, eta jendea ethortzen zen eta bathaiatua izaten zen;

24. Ezik Joanes etzen preso ezarria izan oraino.

25. Bada, Joanesen dizipuluek Juduekin makhur zerbait izatu zuten xahupenaren gainetik.

26. Eta ethorri ziren Joanesen gana, eta erran zioten: Nausia, Jordanez haindian zurekin zena, zeinari lekhukotasun bihurtu baitiozu, hara hura ere bathaiatzten hari dela, eta haren gana doazi guziak.

27. Joanesek ihardetsi zuen eta erran: Deusere ez dezake izan gizonak, zerutik ematen ez bazaio.



28. Zerorrek lekhukotasun bihurtzen darotadazue, erran dudala: Ez naiz ni Kristo, baina haren aitzinean izan naiz bidalia.

29. Andre esosa duena, hura da jaun esosa; baina jaun esposaren adiskidea, haren lagun ethorria eta haren entzuten dagoena, bozkarioz da bozten, aditzen duelakoz jaun esposaren mintzoa. Beraz halaxeko bozkarioa bethea da ene baithan.

30. Hura behar da berhatu; ni berriz, gutitu.

31. Gainetik dathorrena, guzien garai da. Lurretikako dena, lurrekoa da, eta lurtiar hitzak ditu; zerutikakoa dena, ororen gaineko da.

32. Eta zer-ere ikhusi eta aditu baitu, hartaz lekhukotasun egiten du; eta nihork ez du onhesten haren lekhukotasuna:

33. Haren lekhukotasuna onhetsi duenak, aithor bihurtzen du zina dela Jainkoa.

34. Ezen Jainkoak bidalia denak, Jainkoaren hitzak erraten ditu; Jainkoak alabainan ez du neurtuz ematen izpiritua.

35. Aitak maite du Semea, eta haren eskuetara eman ditu gauza guziak.

36. Semearen baithan sinhesten duenak badu bethiereko bizitzea; aldiz Semearen alderat sinhestegabe denak ez du bizitzea ikhusiren, baina Jainkoaren hasarrea haren gainean dago.

IV. KAP.

1. Jesusek nabaritu zuenean beraz, nola Farisauak entzunak ziren, Joanek baino dizipulu gehiago egiten eta gehiago bathaiatzan zuela Jesusek,

2. (Nahiz Jesus etzedin bathaiatzan hari, baina bai haren dizipuluak),

3. Utzi zuen Judea, eta goan zen berriz Galileara.

4. Bada, Samaria barna iragan behar zen.

5. Ethorri zen beraz Samariako hiri, Sikar deitzen den batera, Jakobek bere seme Josepi eman izan zioen lurretik hurbil.

6. Han zen ere Jakobek ithurria. Jesus beraz bidez nekhatua, jarria zagoen hala ithurri gainean. Sei orenetako iria zen.

7. Samariako emazteki bat urketa ethorri zen. Jesusek erraten dio: Indazu edatera.

8. (Dizipuluak ezen jateko erostera goanak ziren hirira.)

9. Samariar emazteki harek erraten dio beraz: Zu, Judua izaki, eta nolaz galdatzen darotadazu edatera naizen bezalako emazteki Samariarrari? Juduek alabainan ez dute Samariarrekin ihardukitzen.

10. Jesusek ihardetsi eta erran zioen: Ezagutzen bazindu Jainkoaren dohaina, eta nor den zuri erraten darotzuna: Indazu edatera, zu abiatuko zinarozkion beharbada galdeka, eta emanen baitzarotzun ur bizi batetarik.

11. Emaztekiak erraten dio: Jauna, ez duzu-eta zertaz athera ere, eta putzua barrena da; nondik zinuke beraz ur bizia?

12. Ala gehiago othe zare gure aita Jakob baino, zeinak eman izan baitaroku putzua, berak ere huntarik edan izan baitu, eta haren umeek eta haren aziendek ere?

13. Jesusek ihardetsi eta erran zioen: Edozeinek edan dezan ur huntarik, egarrituren da berriz; nik emanen diodan uretik edanen duena ordean, ez da behinere egarrituren;

14. Baina nik emanen diodan ura, bilhakaturen da ithurri bat bethiereko bizitzearaino joko duena.

15. Emaztekiak erraten dio: Ur hartarik indazu niri, Jauna, gehiago ez nadienzat egarri, ez-eta ethor hunat urketa.

16. Jesusek erraten dio: Zoaz, deith zazu zure senharra, eta zato hunat.

17. Emaztekiak ihardetsi eta erran zioen: Ez dut senharrik. Jesusek erraten dio: Ongi diozu: Ez dut senharrik;

18. Ezen izan ditutzu bortz senhar, eta orai duzuna, ez da zure senharra; hori egia erran duzu.

19. Emaztekiak erraten dio: Jauna, ikhusten dut profeta zarela zu.

20. Gure arbasoak mendi horren gainean haritu dire adoratzen; eta zuek diozue, Jerusalem dela tokia, zeintan behar baita aduratu.

21. Jesusek erraten dio: Emaztekoa, sinhets nezazu, zeren heldu baita ordua, non ez baituzu ez mendi hortan ez-eta Jerusalem adoraturen Aita.

22. Zuek ezagutzen ez duzuen adoratzen duzue; guk ezagutzen duzuna adoratzen dugu; alabainan Juduetarik dathor salbamendua.

23. Baina heldu da ordua, eta orai da, non egiazko adoratzaleek, izpirituz eta zintasunean baitute adoraturen Aita; halabedera Aitak hola-ko adoratzaleak ditu galdatzen.

24. Jainkoa izpiritu da, eta hura adoratzen dutenek, izpirituz eta zintasunean behar dute aduratu.

25. Emaztekiak erraten dio: Badakit badathorla Mesias (erran nahi da Kristo); hura dathorkeenean, orotaz argituren gaitu.

26. Jesusek erraten dio: Hura, ni naiz, mintzo natzaitzun ber-bera.



27. Eta hanbatekin ethorri ziren dizipuluak, eta harritzen ziren emazteki batekin zelakoz mintzo. Guzia gatik, nihork etzuen erran. Zer galdatzen duzu, edo nolaz mintzo zare horrekin?

28. Bada, emaztekiak utzi zuen bere pegarra, jo zuen hirira, eta erraten diote hango gizonei:

29. Zatozte, eta ikhusazue gizon bat, zeinak erran baitarozkit egin izan ditudan guziak: hura othe da bederen Kristo?

30. Ilkhi ziren beraz hiritik, eta Jesus gana zihoazen.

31. Bizkitartean dizipuluek othoizten zuten, ziotelarik: Nausia, jan zazu.

32. Bainan harek ihardesten diote: Zuek ez dakizuen janhari bat badut nik hartzeko.

33. Hargatik dizipuluek zerasaten batak bertzeari: Norbaitek jatera ekharri othe dio?

34. Jesusek erraten diote: Ene janharia da, egitea bidali nauenaren nahia, osoki bethe dezadan haren ganikako lana.

35. Zuek ez othe duzue erraten, oraino badirela lau hilabete, eta orduan ethorriren dela uzta? Huna non erraten darotzuedan nik: Goiti zatzue begiak, eta ikhusazue bazterrak jadanik xuhailduak direla uztaren egiteko heineraino.

36. Eta uzta biltzen duenak izaten du saria, eta fruitu altxatzen du bethiereko bizitzerako; eraileak eta biltzaileak, biek batean har dezaten bozkario.

37. Ezen hortan egia gerthatzen da erran hau: Bertzerik dela erailea, eta bertzerik biltzailea.

38. Zuek bidali zaituztet nik, lanthu ez duzuen lurtean biltzera; bertze batzu haritu dire lantzen, eta zuek hekien lanetan zarete sarthu.

39. Bada, hiri hartarik Samariar askok Jesusen baithan sinheste hartu zuten, lekhukotasun bihurtzen zuen emaztekiaren hitz hunen gainean: Baizik-eta erran baitarozkit egin izan ditudanak oro.

40. Samariarrak ethorri zirenean beraz haren gana, othoiztu zuten hekien tokian egoteaz; eta han egotu zen bi egun.

41. Eta hainitz gehiagok sinhetsi zuten haren baithan, egin zituen solasen ariaz.

42. Eta emaztekiari erraten zioten: Oraikotik ez dugu zure erranaren gainean sinhesten; ezen geronek entzun dugu, eta badakigu hau dela munduaren Salbatzailea.

43. Bada, bi egunen buruan ilkhi zen handik, eta goan zen Galileara.

44. Ezen Jesusen beraren ahoko hitza da, profeta batentzat ez dela ikhustaterik haren herrian.

45. Ethorri zenean beraz Galileara, ontsa hartu zuten Galilearrek, zeren ikhusi baitzituzten Jerusalemen besta egunean egin zituen guziak; ezik berak ere bestan izatuak ziren.

46. Goan zen beraz berritan Kana Galileakora, ura arno egin zuen tokira. Eta han bazen aitzindari bat, zeinaren semea eri baitzen Kapharnaumen.

47. Harek aditu zuenean Jesus heldu zela Judeatik Galileara, goan zitzaioen, eta othoiztu zuen jauts zadien eta senda zezon bere semea, ezen hiltzera zihoakon.

48. Jesusek erran zioen beraz: Ez duzue sinhesten, non ez duzuen sendagailarik eta mirakulurik ikhusten.

49. Aitzindariak erraten dio: Jauna, zato ene semea hil baino lehen.

50. Jesusek ihardesten dio: Zoaz, zure semea ongi da. Gizonak sinhetsi zuen Jesusek erran hitza, eta bazihoan.

51. Bada, hura orduko jausten hari zelarik, buruz buru egin zuten bere sehiek, eta berria eman zioten osagarritan zuela semea.

52. Galdegin zuen hekien ganik zer mugaz hobekitu zen haurra. Eta ihardetsi zioten: Atzo, zazpi orenetan, sukharrak utzi du.

53. Aitak ezagutu zuen beraz, hura zela ordua, non erran baitzioen Jesusek: Ongi da zure semea. Eta sinheste hartu zuten harek eta haren etxe guziak.

54. Sendagaila hori berriz, bigarrena egin zuen Jesusek, Judeatik Galileara ethorri zenean.

V. KAP.

1. Horiez geroz ethorri zen Juduen besta, eta Jesus igan zen Jerusalemara.

2. Bada, berriz, Jerusalemen ardi urtegi bat, hebrearaz Bethsaida deitzen zena, bortz lorioekilakoa.

3. Eri, itsu, maingu, alderdi ihardun hainitz, hekietan etzanak egoten ziren, uraren higitzeari iguri.

4. Ezik Jaunaren aingerua noizetik noizera jausten zen urtegiara, eta higitzen zuen ura. Eta urtegiara lehenbizikorik jausten zena, ura hipitua izan ondoan, sasualtzen zen, edozein eritasunek zadukan arren.

5. Bada, han bazen gizon bat, hogoi eta hemezortzi urthe hartan bere gaitzarekin zena.



6. Jesusek ikhusi zuenean etzana, eta jakin zuenean, ordukoz aspaldian hala zela, erraten dio: Nahi zare sasualdu?
7. Eriak ihardesten dio: Jauna, nihor ez dut urtegira igorriko naue-nik, ura higitua izaten denean; eta ni nohan artean, bertze bat jausten da ni baino lehen.
8. Jesusek erraten dio: Jaiki zaite, har zazu zure ohea, eta ibil zaite.
9. Eta han berean sasualdua izan zen gizon hura; eta hartu zuen bere ohea, eta bazabilan. Bada, larunbata zen egun hura.
10. Hargatik Juduek sendatua izan zenari erraten zioten: Larunbata da, etzaitzu zillhegi zure ohearen eramatea.
11. Ihardetsi zioten: Nork-ere sendatu bainau, hainak erran izan darot: Har zazu zure ohea, eta ibil zaite.
12. Galdatu zioten beraz: Nor da gizon hura, zeinak erran baitarotzu: Har zazu zure ohea, eta ibil zaite?
13. Bainan etzakien nor zen sendatua izan zenak; ezen Jesus aldaratu zen hara bildua zen jende murrutik.
14. Geroago Jesusek aurkhitu zuen tenploan, eta erran zioen: Horra sendatua zarena; bekhatuik ez egin gehiago, zerbait gaitzagorik gertha dakizun beldurrez.
15. Goan zen gizon hura eta erran zioten Juduei, Jesus zela hura sendatua zuena.
16. Aria hortaz Jesusi jazartzen zioten Juduek, horiek egiten zituelako larunbat egunean.
17. Bainan Jesusek ihardetsi zioten: Bethi hari da ene Aita, eta hari naiz ni ere.
18. Hargatik beraz are gehiago bilhatzen zuten Juduek haren hiltzea, ez ezik hausten zuelako larunbata, bainan zioelako Jainkoa zuela Aita, bere burua Jainkoaren bardin eginez. Aria hortaz Jesusek ihardetsi eta erran zioten:
19. Egiazki, egiazki derratzuet nik: Semeak bere baitharik ez dezake egin deusere, egiten ikhusten dioena baizik bere Aitari; ezen Aitak egiten dituenak oro, Semeak ere halaber egiten ditu.
20. Alabainan Aitak maite du Semea, eta erakhusten diozka berak egiten dituen guziak; eta haukiek baino handiagorik ere erakhutsiko dio, zeronek ederresten egonen baitzarete.
21. Ezen nola Aitak bizten baititu hilak eta bizia baitaroe ematen, halaber semeak ere nahi duenari ematen dio bizia.
22. Alabadore ez du nihor juiatzen Aitak, bainan Semeari eman dio juiamendua oro;

23. Guziek ohora dezaten Semea, Aita ohoratzen duten bezala: ohoratzen ez duenak Semea, Aita ere, hura bidali duena, ez du ohoratzen.
24. Egiazki, egiazki derratzuet nik, ene hitza entzuten eta ni bidali nauenaren baithan sinhesten duena, bethiereko bizitzearen jabe dela, eta ez dela juiamenduaren azpira erortzen, bainan heriotzetik bizitzera dela iragaiten.
25. Egiazki, egiazki erraten darotzuet, heldu dela ordua, eta orantxetan dela, non hilek entzunen baitute Jainkoaren Semearen mintzoa; eta entzunen dutenak, biziko dire.
26. Alabainan nola baitu Aitak bere baithan bizia, hala Semeari ere eman dio bizia bere baithan izatea.
27. Eta eman dio juiatzeko eskua ere, gizonaren Semea delakoz.
28. Hortaz ez baldi, zeren heldu baita ordua non hobietan diren guziek entzunen baitute Jainkoaren Semearen mintzoa;
29. Eta ongi egin dutenak bizitzera bizteko dire ilkhiren; gaizki egin dutenak berriz, juiamendura bizteko.
30. Nik ez dezaket ene burutarik egin deusere; nola aditu, hala juiatzen dut, eta zuzena da ene juiamendua, ez baitut ene nahia bilhatzen, bainan bai bidali nauenaren nahia.
31. Ene buruaz neronek egiten badut lekhukotasun, ene lekhukotasuna ez da egiazkoa.
32. Bertze bat da nitaz lekhukotasun egiten duena, eta badakit egiazkoa dela nitaz dakharren lekhukotasuna.
33. Zuek bidali duzue Joanesen gana, eta harek egiari lekhukotasun bihurtu izan dio.
34. Nik ez dut ordean gizon lekhukotasunik atheratzen; bainan hunela mintzo naiz, zuek salbarazi beharrez.
35. Hura zen zuzi suduna eta argia; zuek berriz, aphur bat haren argitara nahi izan zarete boztu.
36. Bainan nik lekhukotasun bat badut Joanesena baino handiagoa; ezen egitera Aitak eman darozkidan lanek, nik egiten ditudan lanek berek, nitaz lekhukotasun dakharte, ene Aitak bidali nauela.
37. Eta Aitak, ni bidali nauenak, berak egin du lekhukotasun nitaz; eta zuek ez duzue haren mintzoa entzun behinere, ez-eta haren begithar-tea ikhusi;
38. Eta ez dadukazue haren hitza zuen baithan gelditua; zeren norere bidali baitu, haina ez baituzue sinhesten.
39. Ikhar zatzue Iskriturak, uste duzuenaz geroz hekien bidez izan bethiereko bizia; hekiek dire bada, nitaz lekhukotasun dematenak.



40. Eta ez duzue ene ganat ethorri nahi, biziaren izateko.
41. Ez dut ene ospea gizonetarik atheratzen.
42. Bainan ezagutzen zaituztet, zuen baithan Jainkoaren amodiorik ez duzuela.
43. Ni ene Aitaren izenean ethorri naiz, eta ez nauzue onhesten; bere izenean ethor balitzaitzue bertze bat, hura onhets zinezaketek.
44. Nola sinhets dezakezue zuek, zeinek zuen ospea batzuek ber-
tzeen ganik atheratzen baituzue eta ez bilhatzen Jainko bakharraren ganik dathorrena?
45. Ez uste izan nik eraxikiren darotzuedala Aitaren aitzinean; zuen kontra jazartzen duena, Moises da, zeintan baituzue zuen phekisza.
46. Ezen sinhets bazindezate Moises, ni ere sinhets nidezakezue eiki; harek alabainan nitaz iskribatu izan du.
47. Bainan harek iskribatuak ez badituzte sinhesten, ene hitzak nola sinhetsiren dituzte?

VI. KAP.

1. Jesus goan zen gero Galileako (erran nahi Tiberiasako) itsasoaz haindira;
2. Eta bazarraikion jendetze handia, eri zirenen gainean egiten zituen sendagailak ikhusten baitzituzten.
3. Aldaratu zen beraz mendi batetara, eta han jarria zaioen bere dizipuluekin.
4. Bada, hurbil zen Bazko, Juduen besta eguna.
5. Jesusek begiak goititu eta ohartu zenean oste bat gaitza heldu zitzaioela, erran zioen Filiperi: Nondik erosiko dugu ogia, jan dezaten horiek orok?
6. Bada, haren frogatzeko erraten zuen hori, bazakien ezik zeren egi-
tera zihoan.
7. Filipek ihardetsi zioen: Berrehun denarioren ogia ere ez lukete aski, bakhotzak izpi baten izateko.
8. Bere dizipuluetarik bertze batek, Andres, Simon Piarresen anaiak, erraten dio:
9. Bada hemen muthiko bat, bortz garagar ogi eta bi arrain dituena; bainan zer da hori hunenbat gizonen arteko?
10. Jesusek erran zuen beraz: Jarrazkitzue. Bada, toki hartan ederra zen belharra; eta jarri zen bortz mila gizonen heina.

11. Jesusek hartu zituen beraz ogiak, eta eskerrak bihurtu ondoan, zathitu ziozkaten jarriak zirenei, eta arrainetarik halaber nahi zuten bezenbat.

12. Ase zirenean, berriz erran zioten dizipuluei: Bil zatzue soberatu diren puskak, gal ez ditezen.

13. Bildu zituzten beraz, eta bortz garagar ogietarik jaleei soberatu puskez bethe zituzten hamabi saski.

14. Gizon hekiek beraz, ikhusi zutenean Jesusek egin sendagaila, erraten zuten: Hau da egiazki mundurat ethortzekoa den profeta hura.

15. Jesusek ezagutu baitzuen ordean, ethortzekotan zirela haren hartzera eta errege egitera, berriz mendirat ihes egin zuen bakharrik.

16. Bada, arratsa egin zeneko, haren dizipuluak jautsi ziren itsasora.

17. Eta untzi batera iganik, itsasoz haindira hari ziren Kapharnaumgo aldera; eta orduko ilhun beltza zen, eta Jesus etzen hekien ganat ethorria.

18. Bizkitartean, haize handi batek ematen baitzuen, hasarretzen hari zen itsasoa.

19. Beraz hogoi eta bortz edo hogoi eta hamar estadio bezala arrauka egin zituztenean, ikhusten dute Jesus itsasoaren gainean dabilala, eta untzirat hurbiltzen, eta izitu ziren.

20. Bainan harek erran zioten: Ni naiz, ez izi.

21. Nahi izan zuten beraz untzirat hartu, eta berehala untzia heldua gerthatu zen hekiek zihoazen leihorraren aldera.

22. Biharamunean, itsasoz hunaindian zagoen osteak ikhusten zuen han etzela gerthatu bertze untzirik bat baizen, eta Jesus etzela bere dizipuluekin untzira sarthu, bainan bakharrik goan zirela haren dizipuluak.

23. Bainan, Jaunak eskerrak bihurtu ondoan, ogia jan zuten tokiko bazterrera ethorri ziren orduan Tiberiastik bertze untzi batzu;

24. Ikhusirik beraz etzirela han Jesus ez-etare haren dizipuluak, untzietara igan eta Kapharnaumera goan ziren Jesusen ondoan.

25. Eta itsasoz haindian aurkhiturik, erran zioten: Nausia, noiz ethorri zare hunat?

26. Jesusek ihardetsi eta erran zaroeten: Zin-zinez erraten darotzuet, bilhatzen nauzue, ez sendagailak ikhusi ditutzuelakoz, bainan zeren jan duzuen ogitik eta ase zaretan.

27. Berma zaitezte, ez galtzen den janhari baten gatik, bainan behiereko bizitzeraino dirauenaren ariaz, zeina gizonaren Semeak emanen baitarotzuet; hau da ezen Jainko Aitak bere zigiluaren hatzaz berezi izan duena.



28. Hekiek erran zioten beraz: Zer eginen dugu Jainkoaren arabera-ko eginkarietan haritzeko?
29. Jesusek ihardetsi eta erran zioten: Hau da Jainkoaren araberako lana, sinhets dezazuen ni bidali nauenaren baithan.
30. Haletan, Jesusi erran zioten: Eta zer sendagaila egiten duzu, hura ikhus eta zure baithan sinhets dezagun? zer egiten duzu?
31. Gure arbasoek mortuan jan izan dute mana, iskribatua den beza-la: Jaterat eman diotet zerutikako ogia.
32. Jesusek erran zioten beraz: Egiazki, egiazki derratzuet nik: Ez darotzue Moisesek eman zerutikako ogia, bainan ene Aitak ematen darotzue zerutikako ogi egiazkoa.
33. Ezen Jainkoaren ogia da zerutik jausten dena eta munduari bizia ematen dioena.
34. Horren gainean, erran zioten hekiek: Jauna, iguzu bethi ogi har-tarik.
35. Jesusek aldiz ihardetsi zioten: Ni naiz bizitzerako ogia: ene gana dathorrena ez da goseturen, eta ene baithan sinhesten duenak ez du behi-nere egarririk ezaguturen.
36. Bainan erran darotzuet, bai ikhusi nauzuela eta ez sinhetsi.
37. Aitak niri ematen daroztan guziak, ene ganat ethorriko dire; eta ene gana dathorrena ez dut kanporat iraziren;
38. Zeren jautsi bainaiz zerutik, egiteko ez ene nahia, bainan bai bidali nauenaren nahia.
39. Huna bada, Aitaren, ni igorri nauenaren nahia, eman darozkidan guzietarik ez dezadan batere gal, bainan bitzaraz detzadan azken egunean.
40. Bada, ene Aita bidali nauenaren nahia hau da, Semea ikhusten eta sinhesten duten guziek, izan dezaten bethiereko bizitzea; eta nik bitzara-ziren ditut azken egunean.
41. Erasiaka zauden bada Juduak haren kontra, zeren erran zuen: Ni naiz ogi bizia, zerutik jautsi naizena.
42. Eta zioten: Hori ez da Jesus, Josepen semea, zeinaren ait-amak ezagutzen baititugu? Nolaz dio beraz horrek: Zerutik jautsi naiz ni?
43. Horren gainean, Jesusek ihardetsi eta erran zioten: Zuen artean ez erabil erasiarik:
44. Ene gana nihor ezin dathorke, non ene Aita ni bidali nauenak ez duen erakartzen; eta nik hura bitzaraziren dut azken egunean.
45. Profetetan iskribatua da: Eta guziak izanen dire Jainkoaren irak-hasmenaren menea; Aita entzun duten guziak, eta argitu direnak, enega-nako dire.

46. Ez bada hori, nihork ikhusi duelakoan Aita, non ez Jainkoa gani-kakoa denak; harek ikhusi du Aita.
47. Egiazki, egiazki derratzuet nik: Nitán sinhesten duena da bethie-reko bizitzearen jabe.
48. Ni naiz bizirako ogia.
49. Zuen arbasoek mortuan jan izan dute mana, eta hil izan dire.
50. Bainan huna zerutik jausten den ogia, huntarik janen duena, ez dadientzat hil.
51. Ni naiz ogi bizia, zerutik jautsi naizena.
52. Norbaitek ogi huntarik jaten badu, biziko da bethiere; eta nik emanen dudán ogia, da ene haragia munduaren biziarentzat.
53. Bada, Juduek elkharren artean jazartzen zuten: Horrek nola eman diazakegu jatera bere haragia?
54. Jesusek beraz erran zioten: Egiazki, egiazki derratzuet nik: Non ez duzuen jaten gizonaren Semearen haragia eta edaten haren odola, bizi-tzea ez duzue zuen baithan izanen.
55. Ene haragia jaten eta ene odola edaten duenak, badu bethiereko bizitzea; eta nik bizturen dut hura azken egunean.
56. Ezen egiazki ene haragia janhari da, eta ene odola edari da egiazki.
57. Ene haragia jaten eta ene odola edaten duena, ene baithan dago, eta ni haren baithan.
58. Nola Aita bizi denak igorri bainau, eta ni bizi bainaiz Aitaren ari-atik, haina ere ene ariatik biziko da.
59. Hau da zerutik jautsi den ogia. Ez da zuen arbasoek jan duten mana iduri, eta gero hil izan baitire. Ogi huntarik jaten duena, bethi guzian da biziko.
60. Kapharnaumen erran zituen horiek, sinagogan irakhasten hari zelarik.
61. Beraz nola bere dizipuluetarik hainitzek entzuten baitzuten, erran izan zuten: Gogorra da solas hori, eta nork entzun ere dezake?
62. Jesusek ordean bere baithan baitzakien, hortaz erauntsian hari zirela haren dizipuluak, erran zaroeten: Hortaz gogoan behartzen zarete?
63. Ikhusten bazindute bada gizonaren Semea lehenago zen tokirat igaiten?
64. Izpiritua da bizia demana; haragia deusetako ez da batiatzen. Nik zuei erran hitzak, bizi eta izpiritu dire.
65. Badire ordean zuetarik batzu sinhesten ez dutenak. Ezen haste-tik bazakien Jesusek zein ziren sinhesten etzutenak, eta nork salduko zuen bera.



66. Eta erraten zuen: Aria hortaz erran darotzuet, nihor ez dathorkeela ene gana, non etzaioen ene Aita ganik emana.

67. Ordutik haren dizipulu askok gibelerat egin izan zuten, eta etzi-
ren gehiago harekin ibiltzen.

68. Horren gainean Jesusek erran zioten hamabiei: Zuek ere goan
gogo othe zarete?

69. Simon Piarresek ihardetsi zioen beraz: Jauna, noren gana gindo-
hazke? Zuk ditutzu bethiereko bizitzeko hitzak.

70. Eta guk sinhetsi eta ezagutu dugu, zu zarela ezen Kristo
Jainkoaren Semea.

71. Jesusek ihardetsi zioten: Zuek hamabiak ez othe zaituztet nero-
nek hautatu? Bizkitartean debru bat da zuetarik bat.

72. Judas Iskariot, Simonen semea zuen aiphatzen, hura zen ezik
haren saltzaile izan behar zena, hamabietarik bat zen arren.

VII. KAP.

1. Handik harat Galilean zabilan Jesus; etzuen alabainan Judean ibili
nahi, Juduek haren hiltzea bilhatzen zutelakoz.

2. Bada, hurbildua zen Juduen besta, Tabernakleetakoa deitzen dena.

3. Bere anaiek erran zioten beraz: Ilkhi zaite hemendik eta zoaz
Judeara, hango zure dizipuluek ere ikhus detzazten zuk egiten dituzun
gauzak.

4. Nihork du alabainan zerbait egiten gordeka, bere burua agerira
beharrez hari denean. Horiek egiten dituzunaz geroztik, munduari age-
rrozu zure burua.

5. Ezen haren anaiek berek etzuten haren baithan sinhesten.

6. Jesusek erran zioten beraz: Ene ordua ez da oraino ethorria; noiz-
nahi da ordean zuen muga.

7. Munduak ez lezake izan zuentzat gaitzirizkorik; ni gaitzets nau
ordean, zeren lekhukotasun haren kontra bihurtzen baitut, tzarrak direla
haren eginkariak.

8. Zoazte zuek besta hortara; ni ordean ez naiz hortara goaten, zeren
ene eguna ez baita oraino bethea.

9. Horiek erranik, bera Galilean gelditu zen.

10. Bainan goan zireneko haren anaiek, bera ere bestara goan zen, ez
ageriki, bainan ixilka bezala.

11. Beraz besta egunean, Juduak haren bilha zabilan, eta erraten
zuten: Non othe da hura?

12. Eta haren gainean erasia handia zabilan ahapetik jendeetan. Ezik
batzuek zioten: Prestua da. Bertzeek berriz, erraten zuten: Ez da hala, bai-
nan jende amainatzaile bat.

13. Guzia gatik nihor etzen, Juduen beldurrez, hartaz agerian mintzo.

14. Bada, ordukoz besta erditsutara ethorria zelarik, Jesus igan zen
tenplora, eta irakhasten abiatu zen.

15. Eta baldituak zauden Juduak, ziotelarik: Hunek nondik ditu jaki-
tate horiek, ikhasten egotu gabetarik?

16. Jesusek ihardetsi eta erran zaroeten: Ene irakhasmena ez da enea,
bainan ni bidali nauenarena.

17. Hainaren nahia egin nahi badu norbaitek, ezaguturen du hean irak-
hasmen hau Jainkoaren ganikakoa den, ala ene baitharik naizen mintzo.

18. Bere burutarik mintzo dena, bere buruari lelo ematera darraikio;
nork-ere ordean bilhatzen baitu bera igorri duenaren gorestea, haina zina
da, eta zuzen ez denik haren baithan ez da.

19. Ez darotzue Moisesek eman legea, eta zuetarik legea ez baitu bet-
hetzen nihork-ere?

20. Zertan zabilzate ni hil beharrez? Populuak ihardetsi eta erran
zuen: Debruak zabilzate; nork nahi zaitu hil?

21. Jesusek ihardetsi eta erran zaroeten: Gauza bat egin dut, eta
guziak harrituak zarete.

22. Bada, Moisesek eman izan darotzue ingurephaitza; (ez Moisesen
ganikakoa delakoz, bainan arbasoetarikakoa,) ingurephaiten duzue gizon-
kia larunbat egunean ere.

23. Baldin ingurephaiten bada gizona larunbat egunez, Moisesen
legearen ez haustea gatik, nolaz sumintzen zakizkidate, zeren larunbat
egunarekin sasualdu dudan gizon bat bere gorphutz guzian?

24. Ez juia itxuratik, bainan juiamendu zuzen bat arthikazue.

25. Bada, Jerusalem darretarik zenbaitek erraten zuten: Ez othe da
hau hiltzeko bilhatzen duten hura?

26. Huna non mintzo den guzien aitzinean, eta ez diote deusere erra-
ten. Buruzagiek egiazki ezagutu othe dute Kristo dela hau?

27. Bainan badakigu nongoa den hau; Kristo ethorriko denean
ordean, nihork ez du jakinen nongoa den.

28. Jesusek beraz, tenploan irakhasten hari zelarik, oihu egiten zuen:
Eta badakizue nor naizen, eta badakizue nondik heldu naizen; eta bada,
ez naiz ene burutarik ethorria; bainan zina da ni bidali nauena, hura ez
baituzue ezagutzen.



29. Nik ezagutzen dut hura, zeren haren ganikakoa bainaiz ni, eta harek berak bainau igorri.
30. Juduak beraz hura hartu beharrez zabiltzan; bainan nihork etzioen eskua gainera ezarri, zeren oraino haren ordua ez baitzen ethorria.
31. Bizkitartean populutik askok sinhetsi zuten haren baithan, eta erraten zuten: Kristo ethorri ditekeenean, eginen othe du hunek egiten duen baino sendagaila gehiago?
32. Farisauek aditu zuten populua Jesusez horien erasten hari zela; eta buruzagiek eta Farisauek beren gizonetarik igorri zituzten haren hartzera.
33. Orduan Jesusek erran zioten: Oraino aphur bat zuekin naiz, eta gero banoha bidali nauenaren gana.
34. Bilhaturen nauzue, eta ez aurkhituren; eta ni izanen naizen tokira, zuek ezin ethor zaitezket.
35. Juduek beraz zerasaten beren artean: Norat goanen da, guk ezin aurkhituren baitugu? Ala orotan barraiatuak diren jendaietara goatekoa eta hekiei irakhasten haritzekoa othe da?
36. Zer da erran duen hitz hau: Bilhaturen nauzue, eta ez aurkhituren; eta ni izanen naizen tokira, zuek ezin ethor zaitezket?
37. Bada, bestako azken egun handian, han zen Jesus, eta oihu egiten zuen, zioelarik: Nihor bada egarri, bethor ene gana, eta edan beza.
38. Ene baithan sinhesten duenari, Iskriturak dioen bezala, ur bizizko ibaiak jarioko zaizko barnetik.
39. Bada, erraten zuen hori, haren baithan sinheste zutenak izatekoa zuten Izpirituaaren ariaz; ezik oraino Izpiritua etzen emana, zeren Jesus ez baitzen oraino ospetan jarria.
40. Askok beraz jendetze hartarik, solas horiek aditu ondoan, erraten zuten: Egiazki profeta da gizon hori.
41. Bertze batzuek erraten zuten: Kristo da hori. Zenbaitek berriz, zerraten: Galileatik ethorriren othe da Kristo?
42. Ez othe dio Iskriturak: Dabiden odoletik ethortzekoa dela Kristo, eta Bethlehemgo herritik, zeintakoa baitzen Dabid?
43. Jesusen gainetik horrelako eskatima altxatu zen beraz jendeen artean.
44. Bada, hekietarik zenbaitek hartu nahi zuket; bainan nihork etzuen eskua haren gainean ezarri.
45. Hartako igorri gizonak itzuli ziren beraz aphez nausietara eta Farisauetara. Haukiek erran zaroeten: Nolaz ez duzue erakharri?

46. Hekiek ihardetsi zuten: Gizon hori bezala, egundaino ez da gizonik mintzatu.
47. Farisauek jazarri zioten: Atzemanak othe zarete zuek ere?
48. Buruzagietan, edo Farisauetan othe da nihor horri sinhesterik eman izan dioenik?
49. Ordean jende purruska, legea ezagutzen ez duten horiek, mada-rikatu batzu dire.
50. Beren artekoetarik batek, Nikodemok, Jesusen gana gauaz ethorri izan zen haretzek erran zioten:
51. Gure legeak juiatzen othe du gizona, non ez den lehenik entzuna, eta zer egin duen argitu gabe?
52. Nikodemori ihardetsi eta erran zioten: Galilearra othe zare zu ere? Ikhar zatzu Iskriturak, eta jakizu Galileatik ez dela profetarik atheratzen.
53. Eta itzuli ziren zein bere etxera.

VIII. KAP.

1. Bada, Jesus goan zen Olibadietako mendira;
2. Eta argitzean, berriz ethorri zen tenplora, eta populu guzia ethorri zitzaioen, eta jarririk irakhasten hari zitzaien.
3. Orduan Iskribauek eta Farisauek erakharri zuten emazteki bat, bere senharraz bertzeekin lohikerian atzema; eta guzien erdian ezarri zuten xutik,
4. Eta erran zioten Jesusi: Nausia, emazteki hau orantxe atzema izan da lohikerian.
5. Bada, Moisesek legean manatu izan daroku harrika detzagun hola-koak. Zuk beraz, zer diozu?
6. Hori erraten zuten bada, hura zertan khausi, gero zertaz jazar iza-tea gatik. Bainan Jesus, beheiti bere burua makhurtuz, erhiaz hari zen lurrean iskribatzen.
7. Nola beraz aitzina galdez baitzagozkion, xuxendu zen, eta erran zioten: Zuetarik bekhatu gabea denak arthik biozo lehenbiziko harria.
8. Eta berriz ere makhurturik, iskribatzen zuen lurrean.
9. Bainan hekiek aditu zutenean, bat bertzearen ondolik ilkhi ziren, zaharretarik hasirik; eta bakharrik gelditu zen Jesus; eta emaztekoa erdian xutik.
10. Bada, xuxendurik, Jesusek erran zioen: Emaztekoa, non dire zuri jazartzen zutenak? nihork kondenatu zaitu?



11. Harek ihardetsi zuen: Nihork, Jauna. Aldiz Jesusek erran zioen: Nik ere etzaitut kondenatuko. Zoaz, eta gehiago bekhaturik ez egin.

12. Jesus oraino ere mintzatu zen populuari, zioelarik: Ni naiz munduaren argia; niri darraitana, ez dabila ilhunbeka, eta izanen du bizitzeko argia.

13. Horren gainean, Farisauek erran zioten: Zure buruari zeroni atheratzen zatzaizkio lekhuko; zure lekhukotasuna ez da zina.

14. Jesusek ihardetsi eta erran zioten: Ene buruari lekhukotasun neronek egin diozadan arren, zina da ene lekhukotasuna, zeren baitakit nondik heldu naizen, eta norat nohan; zuek berriz, ez dakizue nondik nat-horren edo norat nohan.

15. Zuek haragiaren arabera juiatzen duzue; nik, nihor ez dut juiatzen;

16. Eta egiten badut, zina da ene juiamendua; zeren ez bainaiz bak-harririk; bainan ni eta ni igorri nauena, Aita.

17. Eta zuen legean iskribatua da, zina dela bi gizonen lekhukotasuna.

18. Ni naiz ene buruari lekhukotasun egiten dudana; eta Aitak, ni bidali nauenak ere lekhukotasun ematen darot.

19. Hekiek erraten zioten beraz: Non da zure Aita? Jesusek ihardetsi zuen: Ez gaituzue ezagutzen ez ni ez ene Aita; ezagutzen baninduzue ni, ene Aita ere ezagut bide zinezakete.

20. Jesusek khutxategian erran zituen solas horiek, irakhasten hari zelarik tenploan; eta nihor etzitzaioen lothu, zeren haren ordua ez baitzen oraino ethorria.

21. Berriz ere erran zioten Jesusek: Ni banoha, eta bilhaturen nauzue, eta zuen bekhatuan hilen zarete. Ni nohan tokira, zuek ezin ethor zaitez-kete?

22. Juduek beraz erraten zuten: Berak hilen othe du bere burua; dio ezen: Ni nohan tokira, zuek ezin ethor zaitez-kete?

23. Eta Jesusek erraten zioten: Zuek, beheretikakoak zarete; ni, gai-netikakoa naiz. Zuek, mundu huntarikakoak zarete; ni ez naiz mundu huntarikakoa.

24. Aria hortaz erran darotzuet: Zuen bekhatuan hilen zaretela; ala-bainan sinhesten ez baduzue nor naizen ni, zuen bekhatuan zarete hilen.

25. Erraten zioten beraz: Nor zare zu? Jesusek ihardetsi zaroeten: Guzien hatsarrea, ni orai zuei mintzo natzaitzuena.

26. Hainitz nuke zuetaz errateko eta zuetan azurriatzeko; bainan zina da ni bidali nauena; eta nik, zer-ere baitut haren ganik entzun, hura derrat munduan.

27. Eta hekiek etzuten ezagutu erraten zuela Jainkoa zela haren Aita.

28. Jesusek erran zioten beraz: Goititu dukezuenean gizonaren Semea, orduan ezaguturen duzue nor naizen ni, eta deusere ez dudala ene burutarik egiten, bainan nola irakhatsi baitarot Aitak, eta hala naizela min-tzo;

29. Eta ni igorri nauena, enekin da; eta ez nau bakharrik utzi; zeren nik haren gogarako dena egiten baitut bethi.

30. Horiek erraten zituenean, askok sinheste hartu zuten haren baithan.

31. Jesusek beraz, sinhetsi zuten Juduei erraten zaroeten: Baldin zuek gogor egoten bazarete ene hitzean, egiazki ene dizipulu izanen zarete;

32. Eta ezaguturen duzue egia, eta egiak ezarriren zaituzte zuen buruen jabe.

33. Ihardetsi zioten: Abrahamen odoletik gare, eta egundaino niho-ren meneko ez gare izatu; nolaz diozu: Zuen eskuko izanen zarete?

34. Jesusek ihardetsi zioten: Egiazki, egiazki derratuet nik, bekhatu egiten duena ezen, bekhatuaren gathibu dela.

35. Bada, gathibua ez dago bethi etxe batean; semea ordean etxean dago bethiko.

36. Baldin beraz zuen eskukotasuna bademazue Semeak, egiazki zuen eskuko izanen zarete.

37. Badakit Abrahamen umeak zaretela; bainan ene hiltzea bilhatzen duzue, zeren ene hitzak zuen baithan ez baitu hartzen.

38. Nik erraten dut ene Aitaren baithan ikhusi dudana; eta zuek, zuen aitaren baithan ikhusi duzuen egiten duzue.

39. Ihardetsi eta erran zioten: Abraham da gure aita. Jesusek erraten daroe: Baldin Abrahamen seme bazarete, Abrahamen egintzak egizkitzue.

40. Orain ordean ni hil beharrez zabilzate, ni, gizon bat, Jainkoaren ganik aditu egia erran darotzuedana; Abrahamek holakorik ez du egin.

41. Zuen aitaren lanak egiten ditutzue. Ihardetsi zuten: Ez gare lik-hiskeriatik sorthuak; aita bakhar bat dugu, Jainkoa.

42. Jesusek erran zioten beraz: Jainkoa balitz zuen aita, eiki onhets nindezakezue. Ezen ni Jainkoaren ganik ilkhi naiz eta ethorri; ez naiz ala-bainan ene burutarik hunatu, bainan harek nau bidali.

43. Zergatik ez duzue ardiesten ene hizkuntza? Zeren ezin dezake-zuen entzun ene hitza.

44. Zuek, debruaren umeak zarete eta zuen aitaren nahikarien egite-ra zarete aiher. Hura gizon hiltzaile zen hastapenetik, eta ez du egian iraun, zeren egia ez baita haren baithan. Gezurrez mintzo denean, bere beretik mintzo da ezen gezurtia da, eta gezurraren aita.



45. Nik berriz, erraten badut egia, ez nauzue sinhesten.
46. Nork zuetarik frogaturen darot bekhatu bat? Baldin egia erraten badarotzuet, zergatik ez nauzue sinhesten?
47. Jainkoaren ganikakoa denak, Jainkoaren hitzak entzuten ditu. Hargatik ez ditutzue zuek entzuten, etzaretelakoz Jainkoaren ganikakoak.
48. Horren gainean, Juduek ihardetsi eta erran zioten: Gure hitza ez othe da ongi errana, Samariar bat zarela, eta debrua duzula zurekin?
49. Jesusek ihardetsi zuen: Ez da debrurik enekin; bainan ohore bihurtzen diot nik ene Aitari, eta zuek niri desohore.
50. Ni ordean ez nabila enetzat ospeketa; bainan bada dabilana eta juiatzen duena.
51. Egiazki derratzuet, egiazki, nork-ere begiraturen baitu ene hitza, hainak ez du nihoiz-ere ikhusiren herioa.
52. Juduek erran zioten beraz: Orai ezagutzen dugu debrua duzula. Hil izan da Abraham, eta profetak ere bai eta diozu zuk: Norbaitek ene hitza begiratzen badu, harek ez du nihoiz heriotzea jasanen.
53. Ala gehiago zare zu, ezenez Abraham gure aita, zeina hil izan baita? Hil izan dire profetak ere. Nor egiten duzu zure burua?
54. Jesusek ihardetsi zuen: Ospe ematen badiot ene buruari, deusik ez da ene ospea: niri ospe ematen darotana, da ene Aita, zeina baiterrazue zuen Jainkoa dela,
55. Eta ez duzue ezagutu halere; nik bai ordean, ezagutzen dut. Eta erran baneza ez dudala ezagutzen, zuen iduriko ninteke, gezurti. Bainan ezagutzen dut, eta begiratzen dut haren hitza.
56. Abraham, zuen aita, lehiatu izan da ene egunaren ikhustera; ikhusi du, eta bozkariotan sarthu da.
57. Horren gainean, Juduek erran zioten: Ez dituzu oraino berrogoi eta hamar urthe, eta zuk ikhusi baituzu Abraham?
58. Jesusek ihardetsi zaroeten: Egiazki derratzuet, egiazki; ni banaiz, Abraham izan den baino lehenagodanik.
59. Orduan Juduek hartu zituzten harriak, Jesusi arhikitzeko; bainan itzali zen Jesus, eta ilkhi zen tenplotik.

IX. KAP.

1. Eta iragaiten zelarik, Jesusek ikhusi zuen gizon bat, sortzetik itsua.
2. Eta galdegin zioten bere dizipuluek: Nausia, zeinek egin izan dute bekhatu, horrek ala horren burhasoek, hola itsu sorthu baita?

3. Jesusek ihardetsi zuen: Ez horrek, ez horren burhasoek ez dute bekhatu egin; bainan hola da, horren baithan ager ditezen Jainkoaren lanak.

4. Ni bidali nauenaren lanak egin behar ditut, egunak diraueno; heldu da gaua, zeintan nihor ez baititake lanean hari.

5. Munduan naizeno, munduaren argia naiz.

6. Horiek erran ondoan, thu egin zuen lurrerat, eta ahogozoarekin egin zuen lohi izpi bat, eta lohia hedatu itsuaren begien gainean.

7. Eta erran zioen: Zoaz, garbi zaite Siloeko mainhatokian (Siloek erran nahi baitu Bidalia). Goan zen beraz, eta garbitu, eta itzuli zen begiak argiturik.

8. Hargatik hauzoek, eta lehenago eske ikhusi zutenek, erraten zuten: Ez othe da hau jarriarik eske zagoen hura? Zioten batzuek: Hura da.

9. Bertze batzuek berriz: Ez, bainan haren iduriko bat. Harek zioen ordean: Ber-bera naiz.

10. Galdatzen zaroeten beraz: Nola ideki zaizkitzu begiak?

11. Ihardetsi zuen: Jesus deitzen den gizon harek egin izan du lohi izpi bat, ferekatu ditu ene begiak, eta erran darot: Zoaz Siloeko mainhatokira eta garbi zaite. Eta goan naiz, eta garbitu, eta ikhusten dut.

12. Eta erran zioten: Non da hura? Ihardetsi zuen: Ez dakit.

13. Orduan Farisauetara eraman zuten itsu izatu gizona.

14. Larunbat eguna zen bada, Jesusek lohia egin eta itsuaren begiak argitu zituenan.

15. Farisauak ere huni galdeka hari zitzaizkon, hean nola argitu zen. Harek aldiz erran zioten: Lohi izpi bat ezarri izan darot bekien gainean, eta garbitu naiz, eta ikhusten dut.

16. Erraten zuten beraz Farisauetarik batzuek: Ez da Jainkoaren ganikakoa gizon hura, larunbata ez duenaz geroz begiratzen. Zioten, berriz, bertze batzuek: Gizon bekhatore batek nola egin detzazke horrelako sendagailak? Eta eskatima zen hekien artean.

17. Berritan beraz erraten diote itsu izatuari: Hik zer diok hire begiak argitu dituenaz? Harek ihardetsi zioten: Profeta dela.

18. Juduek ordean etzuten sinhetsi, gizon hori itsu izatua eta gero argitua izan zela, deithu zituzten arteo argitua izan zenaren burhasoak;

19. Eta hekiei galdatu zioten: Hau da zuen seme itsu sorthu dela dio-zuen hura? Nolz bada ikhusten du orai?

20. Haren burhasoek ihardetsi eta erran zioten: Guk dakiguna da, hau gure semea dela, eta itsu dela sorthu;



21. Bainan nolaz duen ikhusten, hori ez dakigu, ez-etare nork ideki diozkien begiak; berari galdegiozue; adinak baditu, bera mintza bedi bere buruaz.

22. Horreletan mintzatu ziren haren burhasoak, Juduen beldur zire-lakoz; alabainan Juduak hitzartuak ziren orduko, baizik-eta nihork aithor bihurtzen bazuen Jesus Kristo zela, haina sinagogatik kanpo ezarria izanen zela.

23. Hargatik erran zuten ait-amek: Badu adina, berari galdegiozue.

24. Berriz deithu zuten beraz itsu izatu gizona, eta erran zioten: Aithor Jainkoari bihurrok; bazakiagu bekhatore bat dela gizon hura.

25. Ihardetsi zioten harek: Bekhatore bada ere, nik ez dakit; gauza bat dakit; itsu izan ondoan, orai ikhusten dudala.

26. Hekiek erran zioten: Zer egin darok? begiak nola ideki darozkik?

27. Ihardetsi zioten: Erran darotzuet oraikoz, eta aditu duzue: zertako nahi duzue berriz entzun? Ala zuek ere haren dizipulu jarri nahi zarete?

28. Orduan madarikatu zuten gizona, eta erran zioten: Hi, izan behe-di haren dizipulu; gu, Moisesen dizipulu gaituk.

29. Bazakiagu Moisesi mintzatu dela Jainkoa; bainan hau, etzakiagu nongo den.

30. Gizon harek ihardetsi eta erran zioten: Hortaz da bada harritze-kok, zuek ez baitakizue nondikakoa den, eta harek niri begiak ideki.

31. Bada, guk badakigu ez dituela Jainkoak gaixtaginak entzuten; bainan norbait haren zerbitzari bada, eta haren nahia egiten badu, entzuten du hura.

32. Egundaino ez da aditu, norbaitek itsu sorthuari begiak ideki dioz-kiela.

33. Hura ez balitz Jainkoa ganikakoa, ez laiteke deuseren egiteko gai.

34. Hekiek ihardetsi zioten eta erran: Bekhatutan ithoa sortu haiz, eta guri irakhatsi nahi darokuk? Eta kanporat eman zuten.

35. Aditu zuen Jesusek, kanporat eman zutela; eta batu zuenean, erran zioen: Sinhesten duzu Jainkoaren Semearen baithan?

36. Ihardetsi eta erran zuen: Zein da hura, Jauna, sinhets dezadan haren baithan?

37. Eta Jesusek erran zioen: Ikhusi duzu bada, eta zurekin mintzo dena hura bere da.

38. Orduan gizonak erran zuen: Sinhesten dut, Jauna. Eta lurrerat eroriz adoratu zuen.

39. Eta Jesusek erran zioen: Zuzenari bere bidearen ematera naiz mundu huntarat ehorri, argiak itsu ditezen eta itsuak argi.

40. Aditu zuten harekin ziren Farisau batzuek eta erran zioten: Eta gu, itsuak othe gare?

41. Jesusek ihardetsi zioten: Itsuak bazinezte, bekhaturik etzindukete. Diozue ordean orai: Bai-eta ikhusten baitugu. Zuen bekhatuak ere badirau.

X. KAP.

1. Egiazki derratzuet, egiazki: Arditegian athetik sartzen ez dena, bainan bertze nonbaitik igaiten, haina ebasle eta ohoin bat da.

2. Athetik sartzen dena ordean, hura da arthaldeko artzaina.

3. Huni idekitzen dio athezainak, eta ardiek ezagutzen dute hunen mintzoa, eta bere ardiak deitzen ditu beren izenez, eta alhara badaramatza.

4. Eta ilkhiazi ditueanean bere ardiak, badoha hekien aitzinean, eta jarraitzen zaizko ardiak, ezagutzen baitute haren deia.

5. Ez darraizkio ordean arrotz bati; aitzitik ihes egiten diote, zeren ez baitute arrotzen mintzoa ezagutzen.

6. Jesusek idurikantza hori atheratu zioten; hekiek ordean etzuten ezagutu zer erraten zuen.

7. Jesusek beraz erran zioten oraino ere: Egiazki, egiazki derratzuet nik, ni naizela ardien athea.

8. Ethorri izan diren guziak oro ebasleak ziren eta ohoinak, eta ardiek ez dituzte entzun izan.

9. Ni naiz athea. Nitarik sartzen bada norbait, salbaturen da; sar-ilkhiak bere eskuko izanen ditu, eta aurkhituren du alhapide.

10. Ohoina ez da ethortzen, baizik-ere ebastera, hiltzera eta xahutze-ra: ni ethorri naiz izan dezaten bizia eta nasaia go izan dezaten.

11. Ni naiz artzain zana. Artzain onak bere bizia ematen du bere ardientzat.

12. Bainan saritako gizonak, eta artzain ez denak, zeinak ez baititu ardiak bereak, ikhusten du otsoa dathorla, eta uzten ditu ardiak, eta ihes badihoa; eta otsoak ardiak harrapatzen eta barraiatzen ditu.

13. Bada saritako gizona ihesari ematen da, sarizale delakoz, eta ardiez ez baitihoaio.

14. Ni naiz artzain ona: eta ezagutzen ditut ene ardiak, eta eneek ezagutzen naute,

15. Hala-nola ezagutzen bainau ene Aitak, eta nik ezagutzen baitut ene Aita, eta ene ardien gatik demat ene bizia.



16. Baditut bertze ardi batzu ere, hespil huntakoak ez direnak; hekiek ere erakharri behar ditut; eta entzunen dute ene mintzoa, eta arthalde bakhar bat eta artzain bakhar bat izanen da.

17. Hargatik nau Aitak maite; nik ematen baitut ene bizia, gero hartzeko berriz.

18. Nihork ez darot khentzen; aitzitik nik ematen dut ene oldetara; eta badut haren uzteko ahala, eta badut haren berriz hartzeko ahala. Hori da ene Aitaren ganik izatu dudan manamendua.

19. Makhurra berriz ere Juduen artean atheratu zen solas horien ariaz.

20. Zioten bada hekietarik askok: Debrua du, eta erhotua da; zergatik entzuten duzue?

21. Bertzeek zioten: Horiek ez dire debrudunaren solasak; debruak itsuen begiak idek ahal othe detzazke?

22. Bada, Dedikazioneko besta egiten zuten Jerusalem, eta negua zen.

23. Eta Jesus tenploan zabilan, Salomonen lorioan.

24. Juduak bildu ziren beraz haren ingurura, eta erran zioten: Noiz arteo idukiren ditutzu gure arimak gogoetaka? Baldin zu bazare Kristo, erraguzu garbiki.

25. Jesusek ihardetsi zioten: Mintzo natzaitzue, eta ez duzue sinhesten. Ene Aitaren izenean nik daramatzadan eginkariek berek nitaz lekhu-kotasun bihurtzen dute;

26. Zuek ordean ez duzue sinhesten, ez baitzarete ene ardiatarik.

27. Ene ardiek entzuten dute ene mintzoa; eta nik ezagutzen ditut hekiek, eta niri jarraikitzen dire;

28. Eta nik demotet bizitze bethierekoa; eta nihoiz ez dire galduko, eta nihork ez ditu ene eskutik eramanen.

29. Ene Aitak niri eman darotana, gauza guziak baino handiagoa da, eta nihork ez dezake ene Aitaren eskutik eraman.

30. Ni eta ene Aita, biak gauza bat gare.

31. Orduan Juduek harriak hartu zituzten Jesusen harrikatzeko.

32. Jesusek erran zioten: Ene Aitaren ganik dathortzen egintza on askoren lekhuo egin izan zaitzudet; hekietarik zeinen ariaz nauzue harrikatzen?

33. Juduek ihardetsi zioten: Ez ongi eginaren, bainan burhoaren ariaz harrikatzen zaitugu; eta zeren, gizon bat zarelarik, zure burua Jainko egiten baituzu.

34. Jesusek ihardetsi zioten: Ez da iskribatua zuen legean: Nik erran dut: Jainkoak zarete?

35. Baldin jainko deithu baditu hainak zeineri atheratu baitzaiote Jainkoaren hitza, (eta Iskritura ezin urmariatuzkoa da);

36. Aitak saindu egin eta mundura bidali duenari nolaz derrozue: Burho arthiki duzu erran duzulakoz: Jainkoaren Semea naiz ni?

37. Baldin ez baditut ene Aitaren eginkariak egiten, ez ni sinhets.

38. Egiten baditut ordean, eta ez banauzue sinhetsi nahi, egintzak sinhetsatzue, ezagut dezazuen eta sinhets ene baithan dela Aita, eta ni Aitaren baithan.

39. Hura hartu beharrez zabiltzan beraz, bainan hekien eskuetarik atheratu zen.

40. Berriz ere Jordanez haindira goan zen, Joanes lehenago bathaia-tzen haritu tokira, eta han egotu zen.

41. Eta jende asko goan ziren haren gana, eta erraten zuten: Joanesek hala badere ez du sendagailarik egin batere.

42. Joanesek ordean huntaz erran guzi-guziak egiak ziren. Eta hainitez sinhetsi zuten Jesusen baithan.

XI. KAP.

1. Bazen, berriz, gizon bat eri, Lazaro deitzen zena, Bethaniakoa, Mariaren eta haren ahizpa Martharen herrikoa.

2. (Maria zen bada, Jaunaren gainera gantzugailua ixuri eta haren oinak bere ileez xukhatu izan zituen emaztekoa, eta haren anaia Lazaro zen eri).

3. Haren arrebek igorri zuten beraz Jesusi erratera: Jauna, huna zuk maite duzuna eri dela.

4. Jesusek berriz, aditzearekin erran zioten mandatariei: Gaitz hori ez da heriotzerakoa, bainan Jainkoaren ospagarri, eta horren bidez gorets dadientzat Jainkoaren Semea.

5. Bada, Jesusek maite zituen Martha, haren ahizpa Maria eta Lazaro.

6. Eta aditu zuenaz geroztik eri zela Lazaro, bi egun egotu zen hale-re toki berean.

7. Gero hekien buruan, erran zioten bere dizipuluei: Goazen berriz Judeara.

8. Dizipuluek erraten diote: Nausia, Juduak oraietan zabiltzan zu harrikatu beharrez, eta oraino ere harat hari zare?



9. Jesusek ihardetsi zioten: Egunak ez othe ditu hamabi oren? Egunaz dabilanak ez du behaztoparik egiten, zeren-eta ikhusten baitu mundu huntako argia;

10. Gauaz badabila ordean, behaztopatzen da, argia ez delakoz harekin.

11. Horiek erran zituen, eta horien ondoan erran zuen berriz: Lo datza Lazaro gure adiskidea, bainan banohakio lotarik iratzartzera.

12. Dizipuluek ihardetsi zioten beraz: Lo badago, osasunerako da.

13. Haren heriotzeaz mintzatu zen ordean Jesus; hekiek aldiz, uste izan zuten lo egiteaz zuela aiphu.

14. Orduan beraz Jesusek garbiki erran zioten: Hil da Lazaro.

15. Eta zuen gatik atsegin dut ez bainintzen han, sinheste har deza-zuen; bainan goazen haren gana.

16. Tomasek beraz, Didimo deitzen zutenak, erran zioten dizipulu lagunei: Goazen gu ere, hil gaitezen hunekin.

17. Haletan ethorri zen Jesus, eta aurkhitu zuen Lazarak ordukoz lau egun bazituela hobian zela.

18. (Bada, Bethania Jerusalemetik hurbil zen, hamabortz estadiotan bezala.)

19. Baziren, berriz, Juduetarik asko, Marthari eta Mariari beren anaia- ren gaineko zerbait gozakari ematera ethorriak.

20. Marthak nabaritu zueneko beraz Jesus hurbiltzen hari zela, goan zen haren bidera; aldiz Maria gelditu zen etxean.

21. Eta Marthak erran zioen Jesusi: Jauna, hemen izan bazine, etzen hilen ene anaia.

22. Bainan oraino ere badakit, ezen Jainkoari galdaturen diozkatzun guziak, Jainkoak emanen darozkitzula.

23. Jesusek ihardesten dio: Biztuko da zure anaia.

24. Bai, dio Marthak, badakit biztuko dela azken eguneko biztean.

25. Jesusek erran zioen: Ni naiz biztea eta bizitzea: ene baithan sinhesten duena, hila balitz ere, biziko da.

26. Eta bizi den eta ene baithan sinhesten duen edozein, ez da hilen behinere. Sinhesten duzu hori?

27. Ihardetsi zioen: Bai, Jauna; sinhesten dut nik Kristo zarela, Jainko biziaren Semea, mundu huntara ethorri zarena.

28. Horiek erran ondoan, goan zen, eta ixilik deithu zuen Maria, bere ahizpa, zioelarik: Nausia hemen da, eta zure galdea du.

29. Aditu zueneko, hura jaiki zen berehala, eta goan zen Jesusen gana;

30. Ezik Jesus etzen oraino herrira ethorria, bainan Martha atheratu zitzaioen toki berean zen.

31. Mariarekin etxean ziren Juduak, eta hari gozakari ematen hari zirenak, ohartu zirenean nola batbatean jaiki eta ilkhi zen, ondotik abiatu zitzaizkon, zerratelarik: Hobira doha, han nigar egitera.

32. Bada, Maria heldu izan zenean Jesus zagoen tokira, hura ikhustearekin oinetara erori zitzaioen, eta erraten dio: Jauna, hemen izan bazine, etzen hilen ene anaia.

33. Jesusek beraz ikhusi zuenean nigarrez eta harekin ethorri Juduak ere nigarrez, barnea lastu zitzaioen, eta kantitu zen,

34. Eta erran zuen: Non ezarri duzue? Ihardetsi zioten: Jauna, zato eta ikhusazu.

35. Eta nigar egin zuen Jesusek.

36. Horren gainean, Juduek erran zuten: Begira nola zuen maite.

37. Aldiz hekietarik zenbaitek erran zuten: Sortzetikako itsuaren begiak ideki dituenak, ez othe zezakeen bada hau hiltzetik debeka?

38. Jesus berriz ere bere baithan lazten zelarik, ethorri zen hobira. Hura zen har-zilo bat, eta lauza bat zuen gainetik.

39. Jesusek erran zuen: Khen zazue harria. Jauna, dio Marthak, hil zenaren arrebak, usaindua da oraikoz, ezen hau laugarren eguna da.

40. Jesusek ihardesten dio: Ez othe darotzut erran, ezen sinhestea balin baduzu, ikhusiren duzula Jainkoaren indar ospetsua?

41. Khendu zuten beraz harria. Jesusek berriz, begiak zerura goitituz, erran zuen: Aita, eskerrak darozkitzut bihurtzen, zeren entzun bainauzu.

42. Nik bada banakien, entzunen nauzula bethi; bainan mintzatu naiz inguruan dagoen populu hunen ariaz, sinhets dezaten zuk bidalia naizela.

43. Horiek erran ondoan, gora egin zuen oiuhu: Lazaro, kanpora zato.

44. Eta berehala hila ilkhi zen, oinak eta eskuak xerrendez lothuak, eta hil oihala begithartean: Jesusek erran zuen: Khen diozotzue lokharriak; eta bego goatera.

45. Hainitzek beraz, Mariaren eta Martharen gana ethorri, eta Jesusek egina ikhusi zuten Juduetarik, sinhetsi zuten haren baithan.

46. Bainan hekietarik batzu Farisauetara goan ziren, eta erran zioten zer egin zuen Jesusek.

47. Apezhe nausiek eta Farisauek bildu zuten beraz batzarra, eta zioten: Zer hari gare, ezen hainitz sendagaila egiten du gizon horrek?

48. Hola uzten badugu, guziek sinheste emanen diote; eta ethorriko dire Erromarrak, eta xahutuko dituzte gure lekhua eta gure jendakia.



49. Bada, hekiarik Kaiphas deitzen zen batek, nola urthe hartakotzat aphez handi baitzen, erran zuen: Zuek deusik ez dakizue;

50. Eta etzaitzue bururatzan, egoki zaitzuela hil dadien gizon bakhar bat populuarentzat, ezenez gal dadien jendaki guzia.

51. Etzuen bada bere baitharik erran hori; bainan nola urthe hartako aphez handi baitzen, profetisatu egin zuen, Jesus hiltzekoa zela jendakia-arentzat,

52. Eta ez bakharrik jendakia-arentzat, bainan oraino Jainkoaren ume barraiatuak zirenen batera biltzeko.

53. Egun hartaz goeroztik burutan hartu zuten beraz hilarazi behar zutela.

54. Hargatik Jesus etzen gehiago ageriki Juduen artean ibiltzen, bainan mortu aldera egin zuen, Efrem deitzen den hirira, eta han zagoen bere dizipuluekin.

55. Bada, hurbildua zen Juduen Bazko, eta aurkhintza hartarik hainitzak Jerusalemara igan ziren Bazko aitzinean, beren buruen garbitzera.

56. Bilhatzen zuten beraz Jesus, eta tenploan zaudelarik, zioten elkharri: Zer zaitzue, besta egun huntara ez baita ethorri? Bada aphez nausiek eta Farisauek emana zuten manua, norbaitek jakiten bazuen non zen, erran zezan, gero haren hartzea gatik.

XII. KAP.

1. Bazkora sei egun, Jesus ethorri zen Bethaniara, non hil izan baitzen Lazaro, gero biztu zuena.

2. Han egin zioten afari bat; Martha hari zen zerbitzatzan; Lazaro berriz, Jesusekin mahainean zirenetarik bat zen.

3. Mariak aldiz, hartu zuen nardo hoberenetikako gantzugailu balios batetik libera bat; Jesusen oinak gantzutu zituen eta bere ileez xukhatu; eta gantzugailuaren usainaz bethe zen etxea.

4. Orduan dizipuluetarik batek, Judas Iskariot Jesus saldu behar zue-nak erran zuen:

5. Zergatik gantzugailu hori ez da hirur ehun denariotan saldu, eta beharrei erran?

6. Bada, erran zuen hori, ez beharrez khexu zelakoz, bainan zeren ohoina baitzen, eta nola harek baitzuen moltsa, berak baitzerabilzkan har-tan ezartzen zirenak.

7. Jesusek ihardetsi zuen beraz: Utzazue, ene ehortz eguneko begira-tu baitu hau.

8. Alabainan bethi zuen artean izanen ditutzue beharrak, ni ordean ez nauzue izanen bethi.

9. Bada, Juduetarik oste handi batek jakin zuen han zela Jesus; eta ethorri ziren, ez-ezik haren ariaz, bainan ikhustea gatik Lazaro, hiletarik biztu zuena.

10. Aphez nausiek aldiz, burutan erabili zuten hilarazi behar zutela Lazaro ere,

11. Zeren Juduetarik hainitzek uzten baitzituzten haren ariaz, eta Jesusi sinheste ematen baitzioten.

12. Biharamunean berriz, bestara ethorriak ziren osteek aditu zute-nean Jesus heldu zela Jerusalemara,

13. Palma adarrak hartu zituzten, eta bidera goan zitzaizkon, eta oi-hu egiten zuten: Hosanna, ongi-ethorri Israelgo erregeri, Jaunaren izenean dathorrenari.

14. Eta Jesusek aurkhitu zuen astokume bat, eta gainean jarri zitzaio-en, iskribatua denaren arabera:

15. Ez izan beldurrik, Siongo alaba; huna zure erregea asto baten umearen gainean jarririk dathorla.

16. Dizipuluek etzuten lehenbizian ezagutu gauza; bainan gero, noiz-ere Jesus sarthu izan baitzen bere ospean, orduan ohartu ziren horiek har-taz zirela iskribatuak, eta berak izatu zitzaizkiola egile.

17. Bada, Lazaro hobitik deithu eta hiletarik biztu zuenean Jesusek, harekin zen osteak lekhukotasun bihurtzen zuen.

18. Aria hortaz ere populua ethorri zitzaioen bidera, aditu baitzuten nola egin zuen sendagaila hori.

19. Farisauek erran zuten beraz elkharri: Ikhusten duzue ez duguna deusik atheratzen? horra ondotik dihoakiola mundu guzia.

20. Bada, besta egunean adoratzerara ethorri zirenetan baziren pagano zenbait.

21. Hekiek beraz hurbildu zitzaizkon Filiperi, zeina Bethsaida Galileakoa baitzen, eta othoizten zuten, ziotelarik: Jauna, ikhusi nahi gin-duke Jesus.

22. Badoha Filipe, eta erraten dio Andresi; Andresek berriz eta Filipek erran zioten Jesusi.

23. Jesusek aldiz hunela ihardetsi zioten: Ethorria da ordua, zeintan goretsiko baita gizonaren Semea.

24. Egiazki, egiazki darotzuet erraten: ogi bihia lurrerat erori ondoan hiltzen ez bada, bera dago bakharrik; baldin ordean hil izan bada, fruitu hainitz dakhartzi.



25. Bere bizia duenak maite, galduren du; eta bere bizia mundu huntan gaitzets duenak, bethiko bizitzerako du begirutzen.

26. Baldin norbaitek nahi banau zerbitzatu, jarraik bekik, eta non izanen bainaiz ni, ene zerbitzaria ere han izanen da. Baldin zerbitzatzan banau norbaitek, ohore hainari emanen dio ene Aitak.

27. Orai nahasia dago ene arima. Eta zer derraket? Aita, begira neza-zu ordu huntarik. Baina huntakotzat, oren huntarako naiz ethorria.

28. Aita, zure izenari emozu ospe. Eta mintzo bat ethorri zen zerutik: Eman diot, eta emanen diot berriz ere.

29. Han zagoen osteak entzun zuen, eta zioen ihurtzuria egin zela. Bertze batzuek zioten: Aingerua mintzatu zaio.

30. Jesusek ihardetsi eta erran zioten: Ez da ene gatik jautsi mintzo hori, baina bai zuen ariaz.

31. Orai dihoa munduaren juiamendua; orai da iraziren kanporat mundu hunen buruzagia.

32. Eta nik, lurretik goratua izanen naizean, oro bilduren ditut ene gana.

33. (Zioen bada hori, erakhustekotzat zer heriotzez zen hil beharra).

34. Populuak ihardetsi zioen: Gu entzunak gure legetik, Kristok bethi guzian duela iraunen; eta zuk, nolaz diozu: Gizonaren Semea behar da goititua izan? Nor da gizonaren Seme hura?

35. Jesusek erran zioten beraz: Aphur batentzat oraino zuekin da argia. Ibil zaitezte argia duzueno, etzaitzazten ilhunbeek harrapa. Ilhunbeka dabilanak, norat hari den ez daki.

36. Argia duzueno, izan zazue argian sinheste, argiaren ume zaitezten izan. Horiak erran zituen Jesusek, eta goan, eta hekien ganik gorde zen.

37. Bada, hekien aitzinean hanbateko sendagailak egin zituen arren, etzuten haren baithan sinhesten,

38. Bethi zadiantzat Isaias profetak hunela erran hitza: Jauna, nork sinhetsi du guk erantzun duguna, eta noientzat izan da Jaunaren besoa ageri?

39. Hargatik ezin sinhets zezaketen, Isaiasek erran izan baitu oraino:

40. Itsutu ditu hekien begiak eta gogortu hekien bihotza, ez dezentzat begiz ikhus, ez bihotzez adi; beldurrezeta itzul ditezen eta senda detzadan.

41. Isaiasek erran ditu horiek, ikhusi izan zuenean haren ospea, eta hartaz mintzatu izan denean.

42. Guziaz gatik buruzagietarik ere hainitzek sinhetsi zuten haren baithan; baina Farisauen ariaz etzuten aithortzen, sinagogatik iraziak ez izatea gatik;

43. Alabainan gogoanago izatu zuten gizonen arteko ospea, ezenez Jainkoarena.

44. Bada, Jesusek oiheru egin eta erran izan zuen: Ene baithan sinhesten duenak, ez du ene baithan sinheste, baina bai ni bidali nauenaren baithan;

45. Eta ni ikhusten nauenak, ni bidali nauena du ikhusten.

46. Ni, argia naiz mundu huntarat ethorri, ene baithan sinhesten duenik nihor ez dadien ilhunbeetan geldi.

47. Eta baldin norbaitek baditu ene hitzak entzuten eta ez begirutzen, ez dut nik juiatzen hura. Ez naiz alabainan munduaren juiatzera ethorri, baina bai munduaren salbatzera.

48. Ni arbuiatzen, eta ene hitzak onhesten ez dituenak badu nork juiaturen baitu. Nik ekharri dudana hitza, harek juiaturen du azken egunean.

49. Ezen ni, ez naiz ene burutarik mintzatu; baina Aita, ni bidali nauenak, harek darot manatu zer erran eta zertaz mintza.

50. Eta badakit haren manamendua bethiereko bizitzea dela. Nik derratzadanak beraz, nola Aitak erran, hala-hala derrazkit.

XIII. KAP.

1. Bazko besta egunaren aitzinean, Jesusek zakielarik ethorria zuela, mundu huntarik Aitaren gana goateko ordua; nola maite izan baitzuten bereak, munduan zirenak, azkeneraino izan zituen maite.

2. Eta afaldu zirenean, nola ordukoz debruak Judas, Simon Iskarioten semeari bihotzera eman baitzioen Jauna sal zezan;

3. Zakielarik Jesusek Aitak gauza guziak eskuetara eman zioizkiela, eta Jainkoaren ganik zela ilkhitzen, eta Jainkoaren gana zihoala;

4. Jaikitzen da mahainetik, eraunzten ditu soinekoak, hartzen du oiher bat, eta tinkatzen du gerrian.

5. Gero untzi batera ixurtzen du ura eta abiatzen da dizipuluen oinen garbitzen eta gerrian zuen oiheralaz xukhatzen.

6. Heldu da beraz Simon Piarresen gana. Eta Piarresen erraten dio: Zer, Jauna, zuk niri oinak xahu?

7. Jesusek ihardesten dio eta erraten: Orai ez dakizu zer hari naizen; baina geroago jakinen duzu.



8. Piarresék erraten dio: Egun-eta-iguzki ez darotadazu oinik garbituko. Ihardesten dio Jesusek: Ez bazaitut xahutzen, enekin ez duzu ikhus-tekorik izaneren.

9. Simon Piarresék erraten dio: Jauna, ez-ezik oinak, bainan eskuak eta burua ere.

10. Xahutua denak, dio Jesusek, oinen garbitzea baizik ez du eskas, bertzenaz garbi da guzia. Zuek ere garbi zarete, bainan ez guziak.

11. Bazakien alabainan zein zen salduko zuena; hargatik ere erran zuen: Etzarete guziak garbi.

12. Beraz oinak xahutu eta soinekoak hartu ondoan, berriz mahainean jarri zenean, erran zioten: Badakizue zer egin darotzuedan?

13. Zuek deitzen nauzue Nausia eta Jauna, eta ongi mintzo zarete, ezen hala naiz ere.

14. Baldin beraz nik, Jaunak eta Nausiak, garbitu baditut zuen oinak, zuek ere batak bertzeari oinak garbitu behar diozkatzue.

15. Alabainan eman darotzuet irakhasbidea; nik nola, zuek ere egin dezazuen hala.

16. Egiazki derratzuet, egiazki: Sehia ez da nausia baino gehiago, ez-eta apostolua bidali duena baino.

17. Balin badazkitzatzue horiek, dohatsu zareteke, baldin egiten baditutzue.

18. Ez natzaitzue zuek guziez mintzo (badakit ezen zein ditudan hautatu), bainan Iskritura bethe dadientzat: Ogia enekin jaten duenak, ene kontra du altxaturen hindagora.

19. Oraidanik darotzuet erraten, gertha dadien baino lehen, arren-eta egin daitekeenean, sinhets dezazuen nor naizen ni.

20. Egiazki, egiazki derratzuet nik: Nork-ere nik bidali dukedana baitu hartzen, ni neroni nau hartzen; berriz, ni hartzen nauenak, ni bidali nauena du hartzen.

21. Horiek erran ondoan, Jesusi kantitu zitzaioen tentua; mintzatu zen goraki eta erran zuen: Egiaz derratzuet egiaz, zuetarik batek salduko nauela.

22. Dizipuluak beraz elkharri begira zauden, ez jakinez zeintaz othe zen mintzo.

23. Bada, dizipuluetarik bat, Jesusek maite zuena, etzana zagoen Jesusen bulharren gainera.

24. Simon Piarresék kheinu egin zioen beraz, eta erran zioen: Zeintaz da mintzo?

25. Hargatik, Jesusen bulharren gainera makhurturik, dizipulu harek erraten dio: Nor da, Jauna?

26. Jesusek ihardetsi zuen: Baina zeinari ogi bustia eskainiko baitiot. Eta ogia bustirik, Judas Iskarioti, Simonen semeari eman zioen.

27. Eta ahamenaren ondotik, satan sarthu zitzaioen barnera. Eta Jesusek erran zioen: Egiten hari duzuna, lehen-bai-lehen egizu.

28. Bainan mahainean zirenetarik nihork etzuen ezagutu zertako erran zioen hori.

29. Ezik, Judasek zuelakoz moltsa, batzuek uste izan zuten Jesusek erraten zioela: Besta eguneko behar ditugunak erosatzu; edo jende beharrei zerbait eman ziozoten.

30. Poxia hartu-eta, Judas ilkhi zen berehala. Bada, gaua zen ordukoz.

31. Ilkhi zenean beraz, Jesusek erran zuen: Orantxe goretsia da gizonaren Semea, eta Jainkoa goretsia da haren baithan.

32. Baldin haren baithan goretsia bada Jainkoa, Jainkoak ere bere baithan goretsiko du hura; eta laster goretsiko du.

33. Haurttoak, aphur bat naiz oraino zuekin; bilhatuko nauzue, eta Juduei erran izan diotedan bezala: Ni nohan tokira zuek ezin ethor zaitzekete; zuei ere halaber derratzuet orai.

34. Ematen darotzuet manamendu berri bat: Elkhar maitha dezazuen; nik maite izan zaituztedan bezala, zuek ere maitha dezazuen Ekhar.

35. Hortan ezagutuko dute guziek ene dizipuluak zaretela, maitetasunik balin baduzue elkharrentzat.

36. Simon Piarresék erraten dio: Norat zoaz, Jauna? Jesusek ihardesten du: Ni nohan tokira, zu ezin jarraik zakizket orai; bainan geroago jarraikiko zare.

37. Zertako, dio Piarresék, ezin jarraik nakikezu orai? Zuretzat eman dut ene bizia.

38. Jesusek ihardesten dio: Enetzat emanen duzu zure bizia? Egiazki, egiazki derratzut nik, oilarrak ez du joko, non ez nauzun hiruretan ukhatu.

XIV. KAP.

1. Ez bedi nahas zuen bihotza. Jainkoaren baithan sinhesten duzue, sinhetsazue ene baithan ere.

2. Asko egon-lekhu dire ene Aitaren etxean. Hala ez balitz, erran narokezuen, ezen banoha zuei tokiaren aphaintzera.

3. Eta goan naitekeenean eta tokia aphaindu darotzuedan ondoan, berriz banathor, eta hartuko zaituztet ene gana, ni naizen tokian izan zaitzetzen zuek ere.



4. Eta nora nohan badakizue, eta badakizue bidea.
5. Tomasek erraten dio: Jauna, ez dakigu nora zoazen; eta nola daki-kegu bidea?
6. Jesusek ihardesten dio: Ni naiz bidea, eta egia, eta bizia; nihor ez da Aitaren ganat ethortzen, baizik-ere ene bidez.
7. Ezagutzen baninduzue, ezagut zinezakete ene Aita ere; eta ezagutuko duzue laster, eta ikhusi duzue.
8. Filipek erraten dio: Jauna, erakhuts dizaguzu Aita, eta aski zaiku.
9. Jesusek ihardesten dio: Hain aspaldian zuekin naiz, eta ez nauzue ezagutzen bada? Filipe, ni ikhusten nauenak, ikhusten du Aita ere. Nolaz diozu beraz: Erakhuts dizaguzu Aita?
10. Ez duzue sinhesten ni Aitaren baithan naizela, eta Aita ene baithan? Nik erraten darozkitzuedan solasak, ez derrazkitzuet ene burutarik. Bainan ene baithan dagoen Aitak, berak egiten ditu gauzak.
11. Ez duzue sinhesten ni Aitaren baithan naizela, eta Aita ene baithan?
12. Egintzen ariaz bederen sinhetsazue. Egiazki derratzuet, egiazki: Ene baithan Egiazki duenak, nik egiten ditudan eginkariak eginen ditu hark ere, eta haukiek baino handiagorik eginen du; alabainan ni Aitaren gana banoha.
13. Eta edozein gauza Aitari galda diozozuen ene izenean, eginen dut hura, Aita goretsia izan dadien Semearen baithan.
14. Zerbait eskatzen badarotadazue ene izenean, eginen dut hura.
15. Ni maite balin banauzue, ene manamenduak begira zatzue.
16. Eta nik othoizturen dut Aita, eta bidaliren darotzue, zuekin dagoentzat bethi guzian, bertze Sosegatzaile bat,
17. Izpiritu egiazkoa, munduak ezin izan dezakeena, zeren ez baitu ez ikhusten ez ezagutzen. Zuek ordean ezagutuko duzue, zuekin egonen eta zuetan izanen baita.
18. Etzaitzuet utziko umezurtz; ethorriko naiz zuen gana.
19. Oraino aphur bat, eta ez nau gehiago ikhusiko munduak. Bainan zuek, ikhusiko nauzue, zeren ni bizi bainaiz, eta zuek ere biziko baitzarete.
20. Egun hartan ezagutuko duzue, ni ene Aitaren baithan naizela, eta zuek ene baithan, eta ni zuen baithan.
21. Nork-ere ene manamenduak izan, eta begiratzen baititu, hura da ni maite nauena. Bada, ni maite nauena, ene Aitaz maithatua izanen da, eta maite izanen dut nik ere, eta hari agertuko diot ene burua.
22. Erraten dio Judasek, ez Iskariot deitzen zen harek: Jauna, zer aria da, guri agertuko baituzu zure burua, eta munduari ez?

23. Jesusek ihardetsi eta erran zioen: Norbaitek maite balin banau, begiratuko du ene hitza; ene Aitak ere maithatuko du hura, eta haren sana ethorriko gare, eta haren baithan eginen dugu gure egoitza.

24. Ni maite ez nauenak ez ditu ene hitzak begiratzen; eta entzun duzuen hitza ez da enea, bainan bai ni bidali nauen Aitarena.

25. Haukiek erran darozkitzuet zuekin naizelarik.

26. Sosegatzaileak ordean, Izpiritu sainduak, zeina ene izenean igorriren baitu Aitak, harek irakhatsiren darozkitzue guziak, eta orhoitaraziren zaitzute nik erran darozkitzuedan guziez.

27. Uzten darotzuet bakea, ematen darotzuet ene bakea; nik ematen darotzuet, ez munduak deman arara. Zuen bihotza ez bedi ez nahas ez ikhara.

28. Aditu duzue nola erran darotzuedan: Banoha, eta heldu natzaitzue. Maite baninduzue, bai bozkariotan sar zintezkete, zeren Aitaren gana nohan, Aita ni baino handiagoa baita.

29. Eta orai darotzuet erraten, gertha dadien baino lehen, gerthatu ditekeenean, eman dezazuen sinheste.

30. Ez naiz gaurgeroz zuekin hanbat mintzatuko; ezik heldu da mundu hunen buruzagia, nahiz ez duen ene gainean ikhustekorik batere.

31. Bainan hola da, ezagut dezan munduak, nik maite dudala Aita, eta nola niri Aitak manatu, hala egiten dudala. Jaiki zaitetze, goazen hemendik.

XV. KAP.

1. Ni naiz aihen egiazkoa, eta ene Aita mahastizaina da.
2. Nitán fruiturik ez dakharten adar guziak khenduko ditu, eta fruitu ekhartzen dutenak oro xederraturiko ditu, ekhar dezaten gehiago oraino.
3. Zuek jadanik garbi zarete, nik zuei erran izan darotzuedan solasaren ariaz.
4. Zaudezte nitán, eta ni zuetan. Nola adarrak fruiturik ezin eman baitezake, non ez dagoen aihenaren gainean; ezen zuek ere, non etzaretan nitán egoten.
5. Ni naiz aihena, zuek adarrak; zein-ere baitago nitán, eta ni hartan, hainak ekharriren du fruitu hainitz; ezen ni gabe, ezin egin dezakezue deusere.
6. Nitán ez dagoena, kanporat arthikia izanen da adar ezdeusa bezala, eta ihartuko da, eta bilduko dute gero, eta surat arthikiko; eta erreko da.
7. Baldin nitán egoten bazarete, eta ene hitzak zuetan badaudezi, edozein gauza nahi izan dezazuen, galdaturiko duzue, eta egina izanen zaitzue.



8. Huntan goersten da ene Aita, fruitu hainitz ekhar dezazuen, eta egin zaitetzten ene dizipulu.

9. Aitak ni maithatu nauen bezala, nik ere zuek zaituztet maithatu. Zaudezte ene onhesgoan.

10. Baldin ene manamenduak begirutzen badituzte, ene onhesgoan egonen zarete, hala-nola nik ere ene Aitaren manamenduak begiratu baititut, eta haren onhesgoan bainago.

11. Horiek erran darozkitzuet, ene bozkarioa zuetan egon, eta zuena bethea izan dadien.

12. Hau da ene manamendua, elkhar maitha dezazuen, nik maite izan zaituztedan bezala.

13. Nihork ez dezake erakhuts amodio handiagorik, nola bere bizia bere adiskideentzat ematean.

14. Zuek ene adiskideak zarete, baldin nik manatzen darozkitzuedanak egiten badituzte.

15. Etzaituztet gaugeror zerbitzariak deithuko, zeren ez baitaki zerbitzariak zer hari den haren nausia. Deithu zaituztet ordean adiskideak, zeren ene Aitaren ganik entzun ditudanez jakintsun egin baitzaituztet guziez.

16. Zuek ez nauzue ni hautatu, baina nik zuek hautatu zaituztet; eta ezarri zaituztet, goan zaitetzten, eta fruitu ekhar dezazuen, eta zuen fruituak irauan dezan; ene Aitak eman dezazuen, ene izenean galdatuko duzuen edozein gauza.

17. Nik manatzen darotzuedana da, elkhar maitha dezazuen.

18. Gaitzesten bazaituzte munduak, jakizue ni zuek baino lehen gaitzetsi nauela.

19. Mundutikakoak bazinete, munduak berea maitha lezake; zeren ordean etzaretzen mundutikakoak, baina nik mundutik hautatu zaituztedan, hargatik gaitzets zaituzte munduak.

20. Orhoit bekizue nik zuei erran hitza: Sehia ez da nausia baino gehiago. Jazarri badarotet niri, jazarriren darotzue zuei ere; begiratu badute ene hitza, zuena ere begiraturen dute.

21. Baina gaizki horiek oro eginen darozkitzue ene izenaren ariaz, zeren ni igorri nauena ez baitute ezagutzen.

22. Baldin ethorri izan ez banintz eta ez banintzaiote mintzatu, hobe nik etzuket; baina orai beren hobenarentzat aitzakiarik ez dute.

23. Ni higuin nauenak, higuin du ene Aita ere.

24. Baldin hekien erdian egin ez banitu bertze nihork egin ez dituen eginkariak, bekhatu etzuket; baina orai, eta ikhusi dute, eta higuin gaituzte bai ni eta bai ene Aita,

25. Baina hori izatu da, bethe zadiantat hekien legean iskribatua den hitza: Ariarik gabe izan naute higuinzetan.

26. Ordean, noiz-ere ethorriko baita nik Aitaren ganik bidaliko dudana Sosegatzailea, egiazko izpiritu, Aitaren ganik iraulgitzen dena, harek bihurturen du lekhukotasun nitaz.

27. Zuek ere lekhukotasun bihurturen duzue, zeren hastetik enekin baitzarete.

XVI. KAP.

1. Erran darozkitzuet horiek, gaizbidetan etzaitetzten eror.

2. Sinagogetarik khenduko zaituztete, eta heldu da ordua, non edozeinek hil zaitzazten, usteko baitu Jainkoari gogara egiten dioela.

3. Eta horiek eginen darozkitzue, zeren ez baikaituzte ezagutzen ez Aita, ez ni.

4. Bada, haukiek erraten darozkitzuet, orhoit zaitetzten ordua ethorri ditekeenean, nola erran izan darozkitzuetan.

5. Hastetik ordean ez darozkitzuet erran, zeren zuekin bainintzen. Eta orai banoha bidali nauenaren gana, eta batek-ere zuetarik ez darot galdegiten: Nora zoaz?

6. Baina erran darozkitzuedalako, ilhundurak bethe du zuen bihotza.

7. Bizkitartean egia derratzuet: zuen ona da goan nadien; ezen goan ez banindedi, Sosegatzailea ez litzaitzueke ethor; aldiz balin banoha, igorriko dut zuen gana.

8. Eta ethorri ditekeenean, mundua agerraraziko du hobendun bekhatuaz, zuzenbideaz eta juiamenduaz;

9. Bekhatuaz behin, zeren ez duten ene baithan sinhetsi;

10. Zuzenbideraz aldiz, zeren ene Aitaren gana bainoha, eta ez bainauzue gehiago ikhusingen;

11. Juiamenduaz gero, zeren juiatua baita jadanik mundu huntako buruzagia.

12. Oraino baditut bertze asko zuei errateko, baina etzarete orai egartzeko gai.

13. Noiz-ere ordean ethorriren baita egiazko Izpiritu hura, irakhatsiren darotzue egia guzia; ez da ezen bere baitharik mintzaturen, baina zer-ere entzun baituke, hura erranen du, eta ethorkizuneko gauzez argituzte.



14. Harek nau goretsiren, zeren enetik hartuko baitu, eta ezagutara-ziko baitarotzue.

15. Aitak dituenak oro eneak dire. Hargatik erran darotzuet: Enetik hartuko du eta zuei ezagutaraziko darotzue.

16. Oraino aphur bat, eta ez nauzue gehiago ikhusiren, eta berriz bertze aphur bat, eta ikhusiko nauzue, zeren Aitaren gana bainoha.

17. Dizipuluetarik batzuek erran zuten beraz elkharren artean: Zer othe da guri derragun hau: Oraino aphur bat, eta ez nauzue ikhusiko; eta berriz bertze aphur bat, eta ikhusiko nauzue, zeren Aitaren gana bainoha?

18. Zioten beraz: Zer da aiphatzen duen Aphurra? Ez dakigu zertaz den mintzo.

19. Bada, Jesusek ezagutu zuen, galdeka abiatu nahi zitzaizkola, eta erran zioten: Zuen artean hortaz bilhatzen zarete, zeren erran baitarotzuet: Oraino aphur bat eta ez nauzue ikhusiko; eta berriz bertze aphur bat, eta ikhusiren nauzue.

20. Egiazki, egiazki derratzuet nik: Zuek auhen eta nigar eginen duzue, eta mundua boztuko da; zuek aldiz atsekabetuko zarete, bainan zuen atsekabea bozkariotara bihurtuko da.

21. Emazteki batek erditzean atsekabe du, zeren ethorria baita haren ordua; bainan seme batez erdi denean, ez da orduan bere hesturaz orhoitzen bozkarioaren ariaz, zeren gizon bat mundura sorthu baita.

22. Zuek ere beraz orai atsekabetan zarete, hala da; bainan ikhusiren zaituztet berriz, eta bozturen da zuen bihotza, eta zuen baitharik nihork ez du khenduko zuen bozkarioa.

23. Eta egun hartan deusetaz etzarozkidate galdeka hariko. Egiaz derratzuet egiaz, baldin zerbait galdegiten badiozue Aitari ene izenean, emanen darotzue.

24. Orai arteo deus ez duzue galdegin ene izenean; galda zazue, eta izanen duzue, zuen bozkarioa izan dadien bethea.

25. Haukiek iduripenetan erran darozkitzuet. Heldu da ordua, non ez bainatzaitzue gehiago iduripenetan mintzatuko, bainan ene Aitaz garbiki eginen baitarotzuet solas.

26. Egun hartan ene izenean galdeginen duzue, eta nik ez darotzuet erraten zuentzat othoizturen dudala Aita;

27. Alabainan Aitak berak maite zaituzte, zeren zuek maithatu bainauzue, eta sinhetsi baituzue ni Jainkoaren ganik ilkhi naizela.

28. Aitaren ganik ilkhi naiz, eta mundurat ethorri; berriz uzten dut mundua, eta Aitaren gana banoha.

29. Dizipuluek erraten diote: Huna, orai garbiki mintzo zare, eta zure solasetan ez da itxurapenik batere.

30. Orai ikhusten dugu gauza orotaz jakintsun zarela, eta beharrik ez duzuna nihor hari dakizun galdeka: horren gatik sinhesten dugu Jainkoaren ganik ilkhia zarela.

31. Jesusek ihardesten diote: Sinhesten duzue orai?

32. Huna, heldu da ordua, eta jadanik ethorria da, non barraiatuak izanen baitzarete zein zuen alde, eta bakharrrik utziko bainauzue. Ez naiz bada bakharrrik, ezen Aita enekin da.

33. Horiek erran darozkitzuet, bakea izan dezazuen ene baithan. Munduan izanen duzue hestura; bainan zaudezte gogoak sendorik, nik garhaitu dut mundua.

XVII. KAP.

1. Jesusek hitz horiek egin zituen, eta begiak zerura goititurik, erran zuen: Aita, ethorri da ordua; goretsazu zure Semea, gorets zaitzan zure Semeak ere;

2. Gizon guzien gainean esku eman diozun bezala, berak eman diozoten bethiereko bizitzea zuk haren eskuan ezarri dituzun guziei.

3. Hau da bada bethiereko bizitzea: Ezagutzea zu, egiazko Jainko bakharra, eta Jesu-Kristo zuk bidali izan duzuna.

4. Nik lurraren gainean goretsi zaitut; akhabatu dut zuk egitera eman izan darotazun lana.

5. Eta orai, Aita, zure baithan gorets nezazu, nik, mundua sorthu baino lehen, zure baithan izatu dudan ospeaz.

6. Zure izena ezagutarazi dut niri mundutik eman darozkidatzun gizonen aitzinean. Zureak ziren, eta eman izan daroztadatzu, eta begiratu dute zure hitza.

7. Orai ezagutu dute, zuk niri eman gauza guziak zure ganik heldu direla;

8. Zeren zuk niri eman hitzak eman baitiozkatet haukiei; eta onhetsi dituzte berek, eta zin-zinez ezagutu dute zure ganik ilkhi naizela, eta sinhetsi dute zuk bidali nauzula.

9. Ni haukientzat nagotzu othoitzez; ez darotzut othoitz egiten munduarentzat, bainan bai niri eman izan daroztadatzunentzat, zureak direlako.

10. Eta eneak diren gauza guziak, zureak dire; eta zureak, eneak dire, eta hekietan naiz goretzia.

11. Ez naiz ja gehiago munduan, eta haukiek munduan dire, eta ni zure ganat heldu naiz. Aita saindua, zure izenean zain zatzu niri eman izan daroztadatzunak, izan ditezen guziak bat, zu eta ni garen bezala.



12. Haukiekin nintzeno, begiratzen nituen zure izenean. Zaindu ditut eman daroztadatzunak; eta haukietarik nihor ez da galdu, galdu behar zena baizik, bethe zadien Iskritura.

13. Orai bada, zure ganat heldu naiz, eta hunela mintzo natzaiote munduan, beren baithan izan dezaten ene bozkarioaren bethetasuna.

14. Eman diotet zure hitza, eta gaitzetsi ditu munduak, zeren ez baitire mundutikakoak, hala-nola ez bainaiz ni ere mundutikakoa.

15. Etzaitut othoizten eraman detzatzun mundutik, bainan begira detzatzun gaizkitik.

16. Ez dire mundutikakoak, ni ere mundutikakoa ez naizen bezala.

17. Egian egin zatzu saindu. Zure hitza egia bera da.

18. Zuk ni mundura igorri nauzun bezala, nik ere haukiek mundura igorri ditut.

19. Eta nik haukien gatik saindu egiten dut ene burua, haukiek ere egian izan ditezen saindu eginak.

20. Eta ez-ezik haukientzat egiten darotzut othoitz, bainan oraino haukien hitzaren bidez ene baithan sinhetsiko dutenentzat;

21. Guziak bat izan ditezen, hala-nola, Aita, zu ene baithan, eta ni zure baithan, haukiek ere bat izan ditezen gure baithan; sinhets dezan munduak zuk bidali nauzula.

22. Eta zuk niri eman ospea, nik ere erran diotet haukiei, bat izan ditezen, gu bat garen bezala.

23. Ni haukietan naiz, eta zu ene baithan, batasunean izan ditezen urthuak, eta ezagut dezan munduak zuk bidali nauzula, eta maithatu ditutzula, ni maithatu nauzun bezala.

24. Aita, nahi dut izan ditezen enekin ni izaten naizen tokian, niri eman daroztadatzunak ere, ikhus dezaten ene ospea, zuk niri emana, maithatu nauzulakoz mundua egina izan den baino lehenagodanik.

25. Aita zuzena, munduak etzaitu ezagutu; nik ordean ezagutu zaitut, eta haukiek ere ezagutu dute zuk nauzula bidali.

26. Eta ezagutarazi, eta ezagutaraziren diotet zure izena; haukien baithan izan dadien amodioa zeintaz ni maithatu bainauzu, eta ni ere haukien baithan.

XVIII. KAP.

1. Horiek erran ondoan, Jesus bere dizipuluekin atheratu zen Zedrongo erreka haindira, han baitzen baratze bat, eta hartan sarthu zen, eta dizipuluak ere bai.

2. Bada, Judasek ere, zeinak saltzen baitzuen, ezagutzen zuen tokia, zeren maiz harat bildu izan baitzen Jesus bere dizipuluekin.

3. Beraz, harturik soldado andana bat eta aphez nausien eta Farisauen ganik muthil batzu, Judas harat ethorri zen lanternekin, zuziekin eta harmekin.

4. Hargatik, Jesusek baitzakizkien bere gainean gerthatu behar zitzaizkon guziak, aitzinatu zen eta erran zioten: Nor bilhatzen duzue?

5. Ihardetsi zioten: Jesus Nazaretharra. Jesusek erraten diote: Ni naiz. Bada, Judas haren saltzailea ere han zen hekiekin.

6. Beraz Jesusek erran orduko: Ni naiz, gibelka goan eta lurrerat erori ziren.

7. Bigarreanean galdatu zioten beraz: Nor bilhatzen duzue? Hekiek aldiz erran zuten: Jesus Nazaretharra.

8. Jesusek ihardesten diote: Erran darotzuet ni naizela; baldin beraz ene ondoan bazabiltzate, uzkitzue haukiek goatera.

9. Bethe zadien erran zuen hitza: Eman daroztadatzunetarik ez dut batere galdu.

10. Orduan Simon Piarresen, ezpata bat baitzuen, hura atheratu eta aphez handiaren muthil bat jo zuen, eta moztu zioen eskuineko beharria. Eta muthil hura Malko deitzen zen.

11. Bainan Jesusek erran zioen Piarresi: Emazu zure ezpata maginan. Ala Aitak niri eman kalitza ez othe dut edanen?

12. Soldadoek beraz, eta hekien aitzindariak eta aphez handiaren muthilek hartu zuten Jesus eta estekatu;

13. Eta eraman zuten lehenik Anasen aitzinera, ezen Kaiphasen aita-ginarreba zen hura, eta Kaiphas zen urthe hartakotzat aphez handi.

14. Hura zen bada Juduei kontseilu han eman ziotena: Mengoa da gizon bakhar bat hil dadien populuarentzat.

15. Simon Piarres berriz, eta bertze dizipulu bat ere jarraitzen zitzaizkon Jesusi. Dizipulu hura aldiz, aphez handiaren ezaguna zen, eta Jesusekin sarthu zen aphez handiaren ezkaratzean.

16. Piarres berriz, athearen kanpoko aldean zagoen xutik. Ilkhi zen beraz bertze dizipulu, aphez handiaren ezagun hura, eta neskato athalzainari erranik, sarrarazi zuen Piarres.

17. Neskato athalzainak erraten dio Piarresi: Zu ere etzare gizon horren dizipuluetarik? Harek ihardesten dio: Ez naiz hala.

18. Bada, sehiak eta soldadoak suaren aitzinean zauden, hotz zelakoz, eta berotzen hari ziren; berriz, Piarres ere hekiekin zen, eta berotzen zagoen.



19. Bizkitartean aphez handia Jesusi galdeka hasi zitzaioen bere dizipuluena eta irakhasmenaren gainean.
20. Jesusek ihardetsi zioen: Ni agerian mintzatu natzaio jendeari; sinagogan eta tenploan, Juduak biltzen diren tokian irakhatsi izan dut, eta ez dut gordeka deusik erran.
21. Zertako hari zakizkit galdatzen? Entzun dutenei galdegiozute zer erran diotedan; hara hekiek badakite nola mintzatu naizen ni.
22. Hitz horiek atheratu orduko, hekiekin ziren sehietarik batek mazelako bat eman zioen Jesusi, zerralarik: Horrela ihardesten diok aphez handiari?
23. Jesusek ihardetsi zioen: Gaizki mintzatu banaiz, erakhutsazu erran izan dudana gaizkia; aldiz ongi mintzatu banaiz, zergatik jotzen nauzu?
24. Eta Anasek estekatua igorri zuen Kaiphase aphez handiaren aitzinera.
25. Bizkitartean Simon Piarres xutik zagoen eta berotzen. Erran zioten beraz: Zu ere etzare horren dizipuluetarik? Ukhatu zuen harek eta erran: Ez naiz hala.
26. Aphez handiaren sehietarik, Piarresek beharria moztu zioenaren ahaide zen batek, erraten dio: Nik ez othe zaitut horrekin baratzean ikhusi?
27. Berriz ere ukhatu zuen Piarresek, eta oilarrak jo zuen berehala.
28. Baderamate beraz Jesus Kaiphase ganik gobernadorearen jauregira. Goiza zen orduko; eta berak etziren eregian sarthu, ez khutsatzea gatik, Bazkoaren jateko ariaz.
29. Pilato kanporat ilkhi zen beraz hekietara, eta erran zioten: Zer hoben ekhartzen duzue gizon hunen kontra?
30. Ihardetsi eta erran zioten: Gaixtagin bat izan ez balitz, ez ahal ginarotzun eskuetara emanen.
31. Pilatok erran zioten beraz: Harzazue zuek, eta jua zazue zuen legearen arabera. Juduek horren gainean ihardetsi zioten: Guri etzaiku haizu nihoren hiltzea.
32. Bethen zadien Jesusek erran hitza, erakhustera eman zuenean zer heriotzez zen hil behar.
33. Pilato berriz sarthu zen beraz jauregira, deithu zuen Jesus eta erran zioen: Zu zare Juduen errege?
34. Jesusek ihardetsi zioen: Zure baitharik diozu hori, ala bertzeek erran darotzute nitaz?
35. Pilatok ihardetsi zuen: Judua othe naiz ni? Zure jendakiak eta aphez handiek ezarri zaituzte ene eskuetan: zer egin duzu?

36. Jesusek ihardetsi zuen: Ene erre-suma ez da mundu huntarikakoa; baldin mundu huntarikakoa izan balitz ene erresuma, ene azpikoak gudukatu zitezkeen segurki, ni Juduen eskuetara ez uzteko; bainan ene erresuma ez da hemendikakoa.

37. Hargatik Pilatok erran zioen: Beraz errege zare zu? Jesusek ihardetsi zuen: Zuk diozuna, hala naiz. Hortako naiz sorthu eta hortara naiz mundurat ethorri, lekhukotasun bihur diozodan egia; egiatik dathortzen guziek entzuten dute ene mintzoa.

38. Pilatok erraten dio: Zer da egia? Eta hori erran ondoan, berriz ilkhitzen da Juduetara, eta erraten diote: Nik ez dut gizon hunen baithan lophiderik batere aurkhitzen.

39. Bainan nola aztura baita, Bazkoz utz dezazuedan norbait; nahi duzue bada eman dezazuedan Juduen errege?

40. Eta berriz abiatu ziren guziak oihuka, ziotelarik: Ez hori, bainan Barrabas bai. Bada, ohoin bat zen Barrabas.

XIX. KAP.

1. Orduan beraz Pilatok hartu zuen Jesus, eta azotarazi zuen.
2. Eta soldadoek elhorrizko khoro bat bihurturik, ezarri zioten buruan, eta purpurazko soin batez inguratu zuten bera.
3. Eta bazihoazkion, eta erraten zuten: Agur, Juduen errege, eta beharrondokoka hari zitzaiakon.
4. Pilato berriz ere ilkhi zen beraz kanporat, eta erraten diote Juduei: Huna non erakhartzen darotzuedan kanporat, jakin dezazuen ez dudala hunen baithan niholazko lophiderik aurkhitzen.
5. Jesus atheratu zen beraz elhorrizko khoroarekin eta purpurazko soina jaunzia, eta Pilatok erraten diote: Huna gizona.
6. Eta, ikhusi zuteneko, aphez nausiak eta hekien gizonak izkolaka hasi ziren, ziotelarik: Gurutzefika zazu, gurutzefika. Pilatok erraten diote: Har zazue zuek, eta gurutzefika zazue, ezen nik ez diot ariarik aurkhitzen.
7. Juduek ihardetsi zuten: Guk badugu lege bat, eta legearen arabera hil behar da, zeren duen egin bere burua Jainkoaren Seme.
8. Pilato, hitz horiek aditu-eta, lotsatu zen are gehiago.
9. Eta berriz jauregira sarthu zen, eta erran zioen Jesusi: Nongoa zare? Aldiz Jesusek etzioen ihardetsi.
10. Pilatok erraten dio beraz: Niri etzaizkit mintzatzen? Ez dakizu ene eskuan dela zure gurutzefikaraztea, eta ene eskuan dela zure libratzea?



11. Jesusek ihardetsi zuen: Etzinduke ene gainean ahalik batere, baldin ez balitzaitzu gainetik eman. Hargatik du bekhatu handiagoa ni zure eskuetan ezarri nauenak.

12. Geroztik-ere Pilatok bilhatzen zuen haren libratzea; bainan Juduak garrasika hari ziren, ziotelarik: Uzten baduzu hori, etzare Zesarren adiskide, ezen bere burua erregetzat ematen duenak, bihurri egiten dio Zesarri.

13. Bada, Pilatok aditu zituenean solas horiek, kanporat ilkhiarazi zuen Jesus, eta jarri zen juie alkhian, Lithostrotos deitzen den tokian, hebrearaz aldiz, Gabbatha.

14. Hura zen bada Bazkoaren aphaintzeko eguna, seietako mugatsuan; eta erran zioten Juduei: Huna zuen errege.

15. Hekiek berriz, oihu egiten zuten: Khen, khen, gurutzefika. Pilatok erraten diote: Gurutzefikaturen othe dut zuen erregea? Aphez nausiek ihardetsi zuten: Guk ez dugu Zesarrez bertze erregerik.

16. Orduan beraz eman zioten gurutzefika zezaten. Hekiek berriz, hartu eta eraman zuten Jesus.

17. Eta beretzat gurutzea bizkarrean, ilkhi zen Kalbarioa erraten dioten tokira, hebrearaz aldiz Golgotha;

18. Non gurutzefikatu baitzuten, eta harekin bertze bia, hainditik eta hunainditik, Jesus berriz erdian.

19. Pilatok bada, egin zuen iskribuzko ageri bat, eta ezarrarazi zuen gurutzearen muthurrean. Hartan hau zen iskribatua: Jesus Nazaretharra, Juduen Errege.

20. Ageri hura beraz Judu hainitzek irakurtu zuten, zeren hiritik hurbil baitzen Jesus gurutzefikatu zuten tokia. Eta ageria ezarria zen hebrearaz, greziaraz eta latinez.

21. Pilatori erraten zioten beraz Juduen aphez nausiek: Ez ezar Juduen Errege; bainan berak erran duela: Juduen Errege naiz.

22. Pilatok ihardetsi zioten: Iskribatu dudana, iskribatu dut.

23. Soldadoek beraz, gurutzefikatu zutenean Jesus, hartu zituzten haren soinekoak eta soingainekoa, eta berezi zituzten lau aldetara, soldado bakhotxarentzat zathi bat. Soingainekoa ordean josturagabea zen, gainetik beherera batean ehoa.

24. Beren artean erran zuten beraz: Ez dezagun hauts, bainan zort-he arthik dezagun, hean norena izanen den; bethe zadien Iskritura, zeinak baitio: Phartitu dituzte ene soinekoak beren artean, eta zorthera arthiki dute ene soina. Eta hala egin ere zuten soldadoek.

25. Bada, Jesusen gurutzearen aldean zauden haren ama, eta haren amaren ahizpa, Maria Kleophasena, eta Maria Magdalena.

26. Jesusek ikhusirik beraz ama, eta aldean maite zuen dizipulua, erraten dio bere amari: Emaztekoa, horra zure semea.

27. Gero dizipulari erraten dio: Horra zure ama. Eta ordudanik hartu zuen dizipulua bere ganat.

28. Gero, Jesusek baitzakien gauzak oro betheak zirela, Iskritura ere bethe zadientzat erran zuen: Egarrri naiz.

29. Bada han bazen unti bat minagrez bethea. Soldadoek berriz, hisopozko makhila baten muthurrean xuxendurik esponja bat minagrez asea, Jesusi eman zioten ahora.

30. Jesusek hartu ondoan beraz minagretik, erran zuen: Akhabo da. Eta burua makhurturik, eman zuen azken hatsa.

31. Bada Juduek (aphainketa eguna baitzen), gorphutzak etzitezen larunbatarekin gurutzean egon (ezik handia zen larunbat egun hura), othoiztu zuten Pilato, hautsaraz ziotzoten zangarrak eta khenaraz zetzan handik.

32. Ethorri ziren beraz soldadoak, eta karraskatu zituzten lehenbizikoaren zangarrak, eta harekin gurutzefikatua zen bertzearenak orobat.

33. Bainan Jesusen gana ethorri zirenean, ikhusirik ordukoz hila zela, etzituzten trenkatu haren zangarrak.

34. Bainan soldadoetarik batek bere lantzaz ideki zioen sahetsa, eta ilkhi zen berehala ur eta odol.

35. Eta ikhusi izan duenak egiten du lekhukotasun, eta egiazkoa da haren lekhukotasuna. Eta harek badaki egia dioela, sinhets dezazuentzat zuek ere.

36. Ezen horiek gerthatu dire, bethe zadien iskribatua dena: Hezurrik phorroskatu ez diozue.

37. Eta bertze aldi batean iskribatua da: Ikhusiren dute itzatu dute-naren barnea.

38. Horien ondoan berriz, Josep Arimathearrak (Jesusen dizipulua baitzen, bainan ixilikakoa, Juduen beldurrez) Pilatori galdatu zioen utz ziozon eramatera Jesusen gorputza. Eta Pilatok utzi zioen eskua. Ethorri zen beraz eta eraman zuen Jesusen gorputza.

39. Aldiz Nikodemo ere, lehenbizian gauaz Jesusen gana ethorri zen hura bere, ethorri zen ekhartzen zuelarik mirra aloesarekin baltsaturik ehun liberaren heina.

40. Hartu zuten beraz Jesusen gorputza eta oihaletan tinkatu zuten baltsamuekin, Juduek ehorzteko duten ohitzaren arabera.



41. Bada, Jesus gurutzefikatu zuten tokian bazen baratze bat, eta baratzean hobi berri bat, zeintan ez baitzen oraino nihor ezarri izan.

42. Juduen aphainketako eguna baitzen, hobia hurbil zelakoz hartan ezarri zuten Jesusen gorphutza.

XX. KAP.

1. Bada, larunbat biharamun goizean, ilhun zelarik oraino, Maria Magdalena hobira goan zen, eta ikhusi zuen harria hobitik khendua.

2. Lasterrari eman zen beraz eta ethorri zen Simon Piarresen gana eta Jesusek maite zuen bertze dizipuluaren gana, eta erraten diote: Eraman dute Jauna hobitik, eta ez dakigu non ezarri duten.

3. Ilkhi ziren beraz Piarres eta bertze dizipulu hura eta goan ziren hobira.

4. Bada, biak lasterka zihoazen batean, eta bertze dizipulu hura aitzinean goan zen Piarres baino lehenago, eta lehenbizikorik heldu izan zen hobira.

5. Eta makhurtu zenean ikhusi zituen oihalak lurrian; etzen hargatik sarthu.

6. Simon Piarres ethorri zen beraz haren ondotik eta hobira sarthu zen, eta ikhusi zituen oihalak lurrian;

7. Eta Jesusen buruan izatu burukoa etzen bertze oihalekin, bainan berez bazter batean biribilkatua.

8. Orduan beraz bertze dizipulu lehenbizikorik hobira heldu izan zen hura ere sarthu zen, eta ikhusi eta sinhetsi zuen;

9. Ezen etzakiten oraino Iskriturak dakharrena, Jauna behar zela hiletarik biztu.

10. Dizipuluak berriz, goan ziren beraz etxerat.

11. Bada, Maria kanpoan zagoen hobiaren aldean nigarrez. Nigarrez zagoelarik beraz, makhurtu zen eta begiratu zuen hobi barnera;

12. Eta ikhusi zituen bi aingeru soineko xuritan, jarriak, bat buruko eta bertzea oinetako aldetik, Jesusen gorphutza ezarria izan zen tokian.

13. Aingeruek erraten diote: Emaztekia, zergatik egiten duzu nigar? Ihardesten du: Zeren eramán baitute ene Jauna, eta ez dakit non ezarri duten.

14. Hori erranik, gibelerat itzuli eta ikhusten du Jesus xutik, eta etzuen ezagutzen Jesus zela.

15. Jesusek erraten dio: Emaztekia, zergatik egiten duzu nigar? nor bilhatzen duzu? Harek, ustez baratzezaina zela ihardesten dio: Jauna, zuk khendu baduzu, erradazu non ezarri duzun, eta eramánen dut nik.

16. Jesusek erraten dio: Maria. Harek, itzulirik ihardesten du: Rabboni, erran nahi baita Nausia.

17. Ez ni hunki, dio Jesusek, ezen ez naiz oraino igan ene Aitaren gana; bainan zoaz ene anaietara eta erroezute: Igaiten naiz ene Aitaren eta zuen Aitaren gana, ene Jainkoaren eta zuen Jainkoaren gana.

18. Maria Magdalena goan zen, dizipuluei berriaren eramatera: Ikhusi dut Jauna, eta hunelako solasak erran darozkit.

19. Egun hartan beraz, larunbat biharamunean, arratsa zelarik, eta Juduen beldurrez atheak hertsia zirelarik dizipuluak bilduak zauden tokian, ethorri zen Jesus, eta erdian baratu eta erran zioten: Bakea zuei.

20. Eta hori erran ondoan, erakhutsi ziozkaten eskuak eta sahetsa. Dizipuluak beraz bozkariotan sarthu ziren Jauna ikhusirik.

21. Eta erran zaroeten berriz: Bakea zuei. Ni Aitak bidali nauen bezala, nik ere bidaltzen zaituztet zuek.

22. Horiek erranik, haize egin zuen hekien gainera, eta erran zioten: Har zazue Izpiritu saindua.

23. Bekhatuak barkhatuko diozkatzuetenei, barkhatuak izanen zaizkiote, eta idukiko diozkatzuetenei, izanen zaizkiote idukiak.

24. Bada, Tomas, hamabietarik bat, Didimo deitzen zutena, etzen hekiekin Jesus ethorri zenean.

25. Erran zioten beraz bertze dizipuluek: Ikhusi dugu Jauna. Harek aldiz ihardetsi zuen: Non ez ditudan ikhusten haren eskuetan itzeen zilhoak, eta ez dudán ene erhia ezartzen itzeen tokian, eta ematen ez dudán ene eskua haren sahetsean, ez dut sinhetsiren.

26. Eta handik zortzi egunen buruan, Jesusen dizipuluak barnean ziren berriz ere, eta hekiekin zen Tomas. Jesus ethorri zen atheak hertsia zirelarik, eta eman zen hekien erdian, eta erran zioten: Bakea zuei.

27. Gero erraten dio Tomasi: Ekhar zazu hunat zure erhia, eta ikhusatu ene eskuak, hurbil zazu zure eskua eta ezar zazu ene sahetsean; eta ez izan sinhetsgaitz, bai ordean zin.

28. Tomasek ihardetsi eta erran zuen: Ene Jauna, eta ene Jainkoa.

29. Jesusek erran zioen: Ikhusi nauzulakoz, Tomas, sinhetsi duzu: dohatsu ez ikhusi, eta sinhetsi dutenak.

30. Bada, Jesusek egin izan du bere dizipuluen aitzinean bertze asko sendagaila, liburu huntan emanak ez direnak.

31. Haukiek aldiz iskribatuak izan dire, sinhets dezazuentzat ezen Jesus dela Kristo, Jainkoaren Semea; eta sinhetsirik, haren izenean izan dezazuen bizitzea.



XXI. KAP.

1. Geroztik Jesus agertu zitzaioten berriz dizipuluei Tiberiasgo itsas-hegian. Bada, huna nola agertu zen:

2. Elkharrekin ziren Simon Piarres, eta Tomas, Didimo deitzen zutena, eta Nathanael, zeina Kana Galileakoa baitzen, eta Zebedeoren semeak, eta haren dizipuluetarik bertze bia.

3. Simon Piarresek erraten diote: Banoha arrantzatzera. Hekiek ihardesten dute: Heldu gare gu ere zurekin. Eta ilkhi ziren eta igan unti bate-tara, eta gau hartan etzuten deusere harrapatu.

4. Bada, goiza ethorri zenean, Jesus agertu zen ur hegian; dizipuluek hargatik etzuten ezagutu Jesus zela.

5. Jesusek erran zioten beraz: Haurrak, baduzue jatekorik batere? Ihardetsi zioten ezetz.

6. Jesusek erraten diote: Arthikazue sarea untzitik eskuin, eta atzemanen duzue. Arthiki zuten beraz, eta etziren gehiago haren biltzeko gai, arrainketaren handiz.

7. Orduan Jesusek maite zuen dizipulu harek erran zioen Piarresi: Jauna da hori. Simon Piarresek aditu zuenean Jauna zela, jauntzi zuen soina, ezen biluzia zen, eta jauzi egin zuen itsasora.

8. Bertze dizipuluak berriz, sarea arrainekin herrestatuz, ethorri ziren untzian, ezik etziren leihorretik urrun, bainan berrehun besotan bezala.

9. Lurrera jautsi zirenean beraz, ikhusi zituzten ikhatzak biztuak, arraina suan, eta ogia.

10. Jesusek erran zioten: Ekharrazue orai hartu duzuen arrainetarik.

11. Simon Piarres goan zen, eta leihorrera herrestatu zuen sarea, zazpitan hogoi eta hamahirur arrain handiz bethea. Eta hanbat zen arren, sarea etzen lehertu.

12. Jesusek erraten diote: Zatozte, jan zazue. Eta jaten hari zireneta-rik nihor etzen ausartatzen galdatzera: Nor zare zu? baitzakiten Jauna zela.

13. Hurbiltzen da Jesus, hartzen du ogia eta ematen diote, eta arrainkia orobat.

14. Hau izan zen hirugarren aldia Jesus bere dizipuluei agertu zitzaio-tena, hiletarik biztu zenaz geroztik.

15. Jan dutenean beraz, Jesusek erraten dio Simon Piarresi: Simon, Joanesen semea, maite nauzu haukiek baino gehiago? Ihardesten du: Bai, Jauna, badakizu maite zaitudala. Jesusek erraten dio: Alha zatzu ene bildotsak.

16. Erraten dio berriz: Simon, Joanesen semea, maite nauzu? Harek ihardesten du: Bai, Jauna, badakizu maite zaitudala. Jesusek erraten dio: Alha zatzu ene bildotsak.

17. Hirugarrenengan erraten dio: Simon, Joanesen semea, maite nauzu? Piarresek minean hartu zuen, zeren hirugarren aldiko galdatzen zioen: Maite nauzu? eta ihardetsi zioen: Jauna, gauza guziz jakintsun zare; badakizu maite zaitudala. Jesusek erran zioen: Alha zatzu ene ardiak.

18. Egiazki, derratzut, egiazki, gazteago zinenean, zeronek tinkatzen zinduen zure gerria, eta bazinoazen nahi zinduen alderat; bainan zahartu izanen zarenean, hedatuko ditutzu eskuak, eta bertze batek tinkatuko eta nahi ez duzun tokirat eramanen zaitu.

19. Bada, erran zuen hori, adiarazteko zer heriotzerean bidez beharko zioen Jainkoari ospe atheratu. Eta hitz horiek egin-eta, erran zioen: Jarraik zakizkit.

20. Itzuli zen Piarres eta ikhusi zuen ondotik heldu zela Jesusek maite zuen dizipulua, azken afarian Jesusen bulharren gainera egotu zen hura, eta zeinak erran baitzuen: Jauna, nor da salduko zaituena?

21. Piarresek hura ikhusi zuenean beraz, erran zioen Jesusi: Hau berriz, Jauna, zer egingen da?

22. Jesusek erraten dio: Hori nahi dut hola egon dadien, ni ethor nadien arteo; zer dihoakizu zuri? Zu behintzat, jarraik zakizkit.

23. Solas hau atheratu zen beraz anaien artean, etzela hilen dizipulu hura. Jesusek ordean etzioen Piarresi erran: Ez da hilen; bainan: Hori nahi dut hola egon dadien, ni ethor nadien arteo; zer zaitzu zuri?

24. Dizipulu hura da, haukietaz lekhukotasun bihurtzen duena, eta haukiek iskribatu dituen; eta badakizu zina dela haren lekhukotasuna.

25. Bada, oraino badire bertze hainitz gauza ere Jesusek eginak; zeinak iskriba baleitez bat banazka, ez baitut uste munduak berak ere iduk ahal letzazkeela iskribatzeko litazkeen liburuak.



APOSTOLUEN EGINTZAK

I. KAP.

1. Lehenbiziko solas bat atheratu izan dut, oi Theofilo, Jesusek egin eta irakhatsi dituen guziez,
2. Zerurat altxatua izan zen eguneraino, Izpiritu sailduaz argitu zituen ondoan berak hautatu Apostoluak;
3. Zeinei, bere pairamenaz geroztik, asko frogantzaz erakhutsi baitzioten bizirik zela, hekiei berrogoi egunez agertzen eta Jainkoaren erresumaz mintzatzen zitzaioetelarik.
4. Eta hekiekin jaten zuen, eta manatu zioten etzitezen goan Jerusalemetik, bainan igurik zezaten Aitarene agintza, zeina (zioen) ene ahotik entzun baituzue;
5. Ezen Joanesez uraz bathaiatu izan du; zuek ordean, egun laburrik barnean, Izpiritu sailduaz izanen zarete bathaiatuak.
6. Bilduak ziren dizipuluek egin zioten galde hau: Jauna orduan berrituko duzu Israelgo erresuma?
7. Horren gainean ihardetsi zioten: Ez da zuei jakitea Aitak bere botherean berezi dituen mugak eta orduak;
8. Bainan zuen gainera jautsiko den Izpiritu sailduaren indarra hartuko duzue, eta ene lekhuko izanen zarete Jerusalem, Judea guzian, Samarian eta lurraren bertze bazterreraino.
9. Eta horiek erran ondoan, hekiek ikhusten zutelarik altxatu izan zen, eta hedoi batek itzali zuen hekien begietarik.
10. Eta begira zagozkiolarik nola igaiten hari zen zerurat, hara hekien aldean gelditu zirela bi gizon, xuriz jauntziak,
11. Zeinek erran ere baitzioten: Galilear gizonak, zertan zaudezte zerurat begira. Zuen ganik zerurat altxatua izan den Jesus hori ethorriko da, zerurat goaten ikhusi duzuen bezala-bezala.
12. Orduan Jerusalemera itzuli ziren, Olibadieta deitzen den menditik, zeina Jerusalemetik hurbil baita, larunbat egunez egin daitekeen bide-tan bezala.
13. Eta etxean sarthurik, igan ziren, Piarres eta Joanes, Jakobe eta Andres, Filipe eta Tomas, Bartolomeo eta Mathiu, Jakobe Alpheorena, Simon Khartsua eta Juda Jakoberena egoten ziren tokira.
14. Hekiek guziak bihotz batez jarraituz ziren othoitzari emaztekiekin, eta Maria Jesusen amarekin, eta haren anaiekin.

15. Egun hekietan, xutiturik anaien erdian (bada gizonak baziren sei hogoiengurutsua), Piarresek erran zuen:

16. Anaiak, bethe behar zen Izpiritu sailduak Dabiden ahoz Iskrituran aitzinetik erran zuena Judasez, zeina izatu baita Jesus hartu dutenen aitzinekoa.

17. Hura gure arteko khondatua zen, eta eginbide haukietan harek ere pharte izatu du.

18. Eta hura, gaixtakeriaren saritik egin izan da landa baten jabe; eta urkhaturik bere burua, lehertu da erditik, eta barraiatu dire haren hertzeak.

19. Eta hori ezagutua izan da Jerusalemen egoten diren guziez, halletan non hekien mintzaietan landa hura deithua izan baita Hazeldama, erran nahi da odolaren landa.

20. Iskribatua da ezen Psalmoetako liburuan: Moral bilhaka bedi hekien egoitza, eta nihor ez bedi izan han egonen denik, eta bertze batek har beza haren kargua.

21. Beraz gizon haukietarik, gurekin bilduak egotu direnetarik Jesus Jauna gure artean ibili den ephe guzian,

22. Joanesez bathaiotik eta gure ganik eramana izan den eguneraino, haukietarik bat gurekin behar da haren birphizteaz lekhuko jarri.

23. Eta aitzinera atheratu zituzten bia, Josep, Barsabas deitzen zena eta izengoitiz Zuzena, eta Mathias.

24. Eta othoitzean jarriarik, erran zuten: Jauna, zuk, guzien bihotzak ezagutzen ditutzuna, erakhutsazu haukietarik bietarik zein duzun hautatu,

25. Eginbide haukien eta Apostolu karguaren hartzeko, Judas huntarik makhurtu baita bere tokira goateko.

26. Eta zortheak eman ziozkaten, eta zorthea Mathiasen gainera erori zen, eta hameka Apostoluekilako egina izan zen hura.

II. KAP.

1. Mendekosteko egunak bethe zirenean, guziak elkharrekin ziren toki berean;

2. Eta bat-batean zerutik egin zen harrabots bat, haize muthiri heldu den batena iduri, eta bethe zuen hekiek jarriak zauden etxea.

3. Eta agertu zitzaizkoten mihi batzu barraiatuak, suak iduri, eta bat jarri zitzaioen bakhotxari gainean;

4. Eta guziak Izpiritu sailduaz betheak izan ziren, eta hasi ziren asko mintzaiatzaz mintzatzen, Izpiritu sailduak mintzarazten zituenaren arabera.

5. Bada orduan Jerusalem baziren Judu jainkotiarrik, zeruaren azpiko jendaki guzietarikakoak.



6. Gauza horren haroa hedatu zenean beraz, oste handi bat bildu zen, eta harridurak hartu zuen, batbederak bere mintzaiaz aditzen zituelakoz mintzatzen.

7. Balditzen ziren guziak eta miresten zuten, ziotelarik: Mintzo diren haukiek oro ez othe dire Galilearrak?

8. Eta nolaz aditzen ditugu mintzatzen, bakhotxak sortzetik dugun mintzaian?

9. Parthiarrek, Mediarrek, Elamdarrek, eta Mesopotamian, Judean, Kapadozian, Pontoan, Asian,

10. Frisian, Pamsilian, Egipton, eta Libiako aurkhintza Zireneko inguruan direnetan egoten garenek; eta Erromar arrotzek;

11. Juduek ere, eta proselitek, Kretarrek eta Arabiarrek, guziek gure mintzaietan erantzuten aditzen diozkategu Jainkoaren sendagaila handiak.

12. Harritzen ziren guziak; eta ederretsiz, batak bertzeari egiten zioen: Zer erran nahi du hunek?

13. Bertze batzuek aldiz, burlaz erraten zuten: Bai, limurretaz aseak baitire.

14. Orduan Piarres hameka Apostoluekin atheratu zen guzien aitzinera; altxatu zuen mintzoa, eta erran zioten: Judear gizon eta Jerusalemen zaudezten guziak, huntaz jakintsun egin bezaitzete, eta zuen beharriek ardiets betzate ene hitzak.

15. Ezen gizon haukiek ez dire, zuek uste duzuen bezala mozkorrak, oraino ez direnaz geroztik egungo hirur orenak baizik.

16. Bainan orai gerthatzen dena da Joel profetaren ahoz errana izan dena:

17. Ixuriko dut azken egunetan ene Izpiritutik gizon guzien gainera, eta profetisaturen dute zuen semeek eta zuen alabek, eta ikhuspenak izanen dituzte zuen gizon gazteek, eta ametsak zuen zaharrek.

18. Eta egun hekietan ene Izpiritutik ixuriko dut ene muthilen eta ene neskatoen gainera, eta profetisaturen dute.

19. Eta agerraraziko ditut, gainean sendagailak, eta behean, lurra- ren gainean, ezagutkariak, odol, su eta khe hatsak.

20. Iguzkia ilhunbetara bihurturen da, eta ilhargia odoletara, Jaunaren egun handi eta ageria ethor dadien aitzinean.

21. Eta hau izanen da: Dei Jaunaren izenari egin diozon edozeinek, haina salbatua izanen da.

22. Israeldar gizonak, adi zatzue hitz haukiek: Jesus Nazaretharra, zuen artean Jainkoaz aithortua zen gizona, Jainkoak haren bidez zuen

erdian egin izan dituen gauza harrigarri, sendagaila eta ezagutkarietz, zero- rrek ere dakizuen bezala;

23. Hura Jainkoaren berariazko erabakiz eta aitzinetikako jakintasun- ez zuen eskuetara emana izanik, hilarazi duzue gaixtaginen eskuz jorik.

24. Jainkoak, urmariaturik hobiko hesturak, bitzarazi du, ezina zen bezala hura iduk zezan hobiak.

25. Ezen hartaz dio Dabidek: Begien aitzinean nadukan bethi Jauna, zeren ene eskuinetik baitago, khordoka ez nadien ariaz.

26. Hargatik da boztu ene bihotza, eta ene mihiak bozkarioz du kan- tatu, eta bertzalde pheskiza ederrean da phausaturen ene gorphutza;

27. Zeren ez baituzu ifernuan utziko ene arima, eta usteldura zure Sainduari ez baitiozu utziko ikhustera.

28. Ezagutarazi daroztadatzu zure bideak, eta zure begithartearekin goiheretasunez nauzu betheko.

29. Anaiak, onhets biazazuet zuei heraberik gabe Dabid patriarkaz erratea, hil izan dela eta ehortzi; eta egungo eguneraino gure erdian da haren hobia.

30. Beraz, nola profeta baitzen, eta baitzakien Jainkoak zin eginez agindu zioela haren sabeleko fruitutik jarriko zela haren jarlekhuian;

31. Aitzinetik ikhusiz mintzatu izan da Kristoren bizteaz, zioelarik ez dela hobian utzia izan, eta haren haragiak ez duela usteldura ezagutu.

32. Jesus hura du Jainkoak hiletarik biztu, hortaz gu lekhuko baikare guziak.

33. Beraz Jainkoaren eskuinaz altxatua izan ondoan, eta Aitaren ganik Izpiritu sainduaren agintza izanik, ixuri izan du ikhusten eta aditzen duzuen Izpiritu hau.

34. Ezen ez da zerurat igan Dabid: halere berak erran izan du: Jaunak ene Jaunari erran dio: Jar zaite ene eskuinean,

35. Zure etsaiak ezar detzadan arteo zure oinetako alkhi.

36. Segurtasun osotan jakin beza beraz Israelgo etxe guziak, eta Jaun eta Kristo egin izan duela Jainkoak zuek gurutzefikatu duzuen Jesus hura.

37. Bada, horiek aditu zituztenean, bihotzez urrikitaro erori ziren, eta erran zioten Piarresi eta bertze Apostoluei: Anaiak, zer eginen dugu?

38. Aldiz Piarresek erran zioten: Penitentzia egizue, eta Jesu- Kristoren izenean zuetarik batbedera bathaiatua izan bedi bere bekhatuen barkhamendutan, eta hartuko duzue Izpiritu sainduaren dohaina.

39. Alabainan zuentzat da agintza, eta zuen haurrentzat, eta urrun direnentzat, gure Jainko Jaunak deithuko dituen guzientzat.



40. Bertze asko solasez ere lekhukotasun egin zuen: eta berotzen zituen, erraten ziotelarik: Gizate galdu hortarik itzur zaitetze.

41. Haren hitza onhetsi zutenak beraz, bathaiatuak izan ziren, eta bildu ziren egun hartan hiru mila arimen ingurua.

42. Bazirauten bada Apostoluen irakhasmenean, eta ogiaren hauspe-neko bat-khidantzan, eta othoitzetan.

43. Beldurra berriz, arima guzietan jartzen zen; hainitz sendagaila eta mirakulu Jerusalemen egiten ere ziren Apostoluen bidez, eta guzien bait-han handia zen ikhara.

44. Sinhestun guziak halaber elkharri iratxikiak zauden, eta baltsako zituzten gauzak oro.

45. Saltzen zituzten beren ontasan, izateak, eta bakhotxak zuen behararen arabera, guziei phartitzen zituzten.

46. Egun oroz halaber gogo batekin jarraikiak zauden tenploan, hausten zuten ogia etxeetan eta bozkarioz eta bihotzeko lainotasunean hartzen zuten beren jana,

47. Batean laudatuz Jainkoa, eta populu guziaren ganik begitharte zutelarik. Jaunak berriz, egun oroz berhatzen zituen, batasun hartan sal-bamendura heldu behar zirenak.

III. KAP.

1. Bada, Piarres eta Joanes bederatzigarren oreneko othoitzera igai-ten hari ziren tenplora;

2. Eta gizon bat, bere amaren sabeletik maingu zena, ekhartzen zuten etxeok, egun oroz ezartzen baitzuten tenploko athe, Ederra dei-tzen denean, tenplora sartzen zirenei amoinaren eskatzeko.

3. Gizon harek ikhusi zituenean Piarres eta Joanes tenploan sartzera zihoazela, othoizka abiatu zen amoinaren izateko.

4. Piarresek aldiz, Joanesekin begiak haren gainera emanik, erran zioen: Begira dizaguzu.

5. Eta hura begira zagokioten, ustez hekien ganik zerbaiten izatera zihoala.

6. Piarresek erran zion ordean: Ene baithan ez da ez urherik, ez zil-harrik; bainan dudana ematen darotzut: Jesu-Kristo Nazaretharraren ize-nean jaiki eta ibil zaite.

7. Eta haren esku eskuina harturik, xutitu zuen, eta hanbatean gogortu ziren haren hindagorak eta oin zolak.

8. Eta jauzian zangoen gainean gelditu zen eta bazabilan; eta tenplo-an hekiekin sarthu zen, bera ibiliz, eta jauzika, eta Jainkoa laudatuz.

9. Eta populu guziak ikhusi zuen nola zabilan eta laudatzen zuen Jainkoa.

10. Ezagutzen zuten bada, tenploko athe Ederrean eskatzeko jartzen zen hura bera zela; eta hari gerthatu zitzaioenaz, oro harrituak zauden eta espantatuak.

11. Eta nola Piarresi eta Joanesi lothua baitzagoen gizona, ederretsiz populu guziak hekien gana laster egin zuen Salomonen izenetik deitzen den loriora.

12. Hori ikhusririk, populuari erran zioen Piarresek: Israeldar gizonak: Zergatik harritzen zarete, edo zertako zaudezte guri begira, guk gure indarrez edo ahalez ibilarazi bagindu bezala gizon hau?

13. Abrahamen Jainkoak, Isaaken Jainkoak, Jakoberen Jainkoak, gure arbasoen Jainkoak ospe atheratu dio Jesus bere semeari, zeina zuek Pilatoren aitzinean ezarri eta ukhatu baituzue, Pilatok juiatzen zuelarik libro igorri behar zela.

14. Zuek ordean ukhatu duzue saindua, prestua, eta galdegin duzue gizon hiltzaile bat eman zakizuen;

15. Hilarazi duzue aldiz biziaren egilea; Jainkoak ordean hiletarik biztu du, hortaz gu lekhuko baikare.

16. Eta haren izenaren gaineko sinhestearen ariaz, haren izenak got-hortu du zuek ikhusi eta ezagutzen duzuen gizon hau; eta haren bidezko fedeak egin du sendapen oso hau zuen guzien aitzinean.

17. Eta orai, anaiak, badakit ez-jakinkeriaz egin duzuela, hala-nola zuen buruzagiek ere.

18. Bainan Jainkoak horreletan bethe du, aitzinetik profeta guzien ahoz erantzun zuena Kristok izanen zuela jasaiteko.

19. Sar zaitetze beraz urrikitan eta bihur zaitetze, zuen bekhatuak izan ditezen ezeztatuak,

20. Ethorriko direnean gozakarizko egunak, Jaunak berekin ekharriko dituenak, eta bidaliren duenean Jesu-Kristo, aitzinetik agindua zaitzuena,

21. Zeina bizkitartean zeruak behar baitu iduki, gauza guziak berri-tan xuxenduak izanen diren eguneraino, Jainkoak hastetik bere profeta sainduen ahoz ezagutarazi duen bezala.

22. Moisesek ezen hau erran du: Nola zuen Jainko Jaunak ni bezala-ko profeta bat eraikiren baitarotzue zuen anaien artetik, hura entzunen duzue erranen darozkitzuen gauza guzietan.

23. Hau izanen da berriz: Edozeinek ez dezan entzun profeta hura, populuaren erditik xahutua izanen da.



24. Eta Samueleen ganik hasirik eta geroztik mintzatu diren profeta guziek ezagutarazi dituzte egungo egunak.

25. Zuek zarete profeten haurrak eta batasun hartakoak, zeina Jainkoak zuen arbasoekin baitzuen egin, Abrahami erran zionean: Lurreko jendaki guziak izanen dire zure ganikako iraulgiaren bidez benedikatuak.

26. Jainkoak zuei eraikiz bere Semea, zuen gana bidali izan du zuen benedikatzera, batbedera bere tzartasunetik ilkhi dadientzat.

IV. KAP.

1. Bada, populuari mintzo zirelarik, ethorri ziren aphezak, eta tenploaren kargua zuena, eta Saduzearrak;

2. Min baitzuten zeren Apostoluak hari ziren populuari irakhasten, eta Jesusen baithan entzuten zutelakoz hilen arrebiztea;

3. Eta eskuak arthiki ziozkaten gainera, eta presonegi batean ezarri zituzten biharamuna arteo, ezen arratsa zen orduko.

4. Bada, hitza entzun zutenetarik hainitzek sinheste hartu zuten, eta halakoak izatu ziren bortz mila.

5. Biharamunean berriz, Juduen aitzindariak, zaharrak eta Iskribauak Jerusalem bildu ziren,

6. Eta hekiekin Anas aphez handia, Kaiphas, Joanes eta Alexandro, eta aphez odoletik ziren guziak.

7. Eta beren erdira erakharririk Apostoluak, galdatu zioten: Zer aha-lez, edo zer izenetan egin duzue hori?

8. Orduan, Izpiritu sainduaz bethea, Piarresek erran zioten: Populuko buruzagiak, eta zaharrak, adi zazue:

9. Egun bilhatuak garenaz geroztik gizon errezelatu bati egin ongia-
ren gainean, eta noletan izan den sendatua;

10. Zuek orok eta Israelgo populu guziak jakizue: Nazaretheko Jesu-Kristo gure Jaunaren izenean, zuek gurutzefikatu eta Jainkoak hiletarik biztu duenaren izenean, horra nola den gizon hau sasualik zuen aitzinean.

11. Zuek, etxegileek, bazterrerat utzi harri hura da izkina buruko harri egina;

12. Eta bertze edozeintaz ez da salbamendurik. Alabainan ere zerua-
ren azpian ez da bertze izen bat gizonei emanik, zeinaren bidez salbatuak izan behar baikare.

13. Bada, ikhustearekin Piarresen eta Joanesen sendotasuna, nola ere baitzakiten gizon eskolagabe eta jakitategabeak zirela, harritzen ziren; bazakiten hala-ber Jesusekin izatuak zirela;

14. Eta sendatua izan zen gizona ere ikhusten baitzuten hekiekin, deusere ezin jazar zezaketen.

15. Manatu zioten beraz biltzarretik kanporat athera zitezen, eta beren artean zauden,

16. Ziotelarik: Zer eginen diotegu gizon horiei? alabainan horien bidez egin izan da sendagaila bat, Jerusalem dauden guziez ezagutua dena; gauza ageria da, eta ezin ukha dezakegu.

17. Bainan populuaeren baithan ez dadien gehiago barraia, larderia detzagun ez ditezen hemendik aitzina izen hortan mintza nihori.

18. Eta deithurik debekatu zioten den-gutiena mintzatzea eta Jesusen izenean irakhatea.

19. Bainan Piarresek eta Joanesek ihardestean erran zioten: Zerorrek ikhusazue hean Jainkoaren aitzinean zuzen denetz, zuek lehenago entzutea Jainkoa bera baino;

20. Ezen gu ez gaudezke ikhusi eta aditu ditugunak erran gabe.

21. Hekiek ordean dixidurekin igorri zituzten, ez aurkhitzenez nola gaztiga, populuaeren ariaz, zeren guziek gerthatu zenaz Jainkoari aithor ematen baitzioten;

22. Alabainan berrogoi urthez goitiko zen gizona zeinaren baithan gerthatu baitzen sendagailazko sendatze hura.

23. Utzi zituztenean beraz; goan ziren beren anaietara, eta jakintsun egin zituzten aphez nausiek eta zaharrek erran ziozkaten guziez.

24. Hekiek, aditu ondoan, bihotz batez altxatu zioten Jainkoari mintzoa, ziotelarik: Jauna, zu zare zeru-lurren eta hekietan diren guzien egile;

25. Gure aita Dabid zure zerbitzariaren ahoz, Izpiritu sainduaren bidez erran duzuna: Zertako suharto dire jendaiak eta asmu alferrak erabili dituzte populuek?

26. Jaiki dire lurreko erregeak, eta elkharrretara bildu dire buruzagiak. Jaunaren kontra eta haren Kristoren kontra?

27. Hiri huntan ezen, Jesusen kontra, zure ume saindu gantzutu duzunaren kontra, egiazki bildu izan dire Herodes eta Ponzio Pilato jendaiekin eta Israelgo populuekin,

28. Egitekotzat zer-ere zure ahalak eta zure gogoak xedatu baitzuen egin beharrik zela.

29. Eta orai, Jauna, ikhusatzu horien dixiduak, eta zure zerbitzariari emozute, lotsarik gabe zure hitzaren erantzuteko indarra;

30. Zure eskua hedatuz, sendatze, sendagaila eta mirakulu egiteko, Jesus zure seme sainduaren izenean.



31. Eta othoitz egin zuten ondoan, iharrosi zen hekiek bilduak zauden tokia, eta Izpiritu sailduaz bethe ziren oro, eta lotsarik gabe erantzuten zuten Jainkoaren hitza.

32. Bada, sinhestunen osteak bihotz bat eta arima bat baizik etzuen; eta hekiatarik nihork, jabe zen ontasunetarik etzuen deusere berea zuela erraten, bainan baltsako zituzten gauza guziak.

33. Apostoluek khabu handirekin lekhukotasun bihurtzen zuten Jesu-Kristo gure Jaunaren bizteaz, eta grazia handia zen hekien ororen baithan.

34. Ezen hekien artean beharrik nihor etzen. Alabainan zenbat-ere baitziren lur edo etxeen jabe zirenik, salduz ekhartzen zuten saldu zutenaren balioa,

35. Eta Apostoluen oinetan ezartzen zuten. Batbederari gero phartitzen zitzaioen, bakhotxak zuen beharraren arabera.

36. Josepek ere, Apostoluek Barnabas deithu zutenak (horrek erran nahi baitu Gozakarizko umea), zeina lebitarra baitien eta sortzez Ziproarra,

37. Bazter bat izan-eta, saldu zuen hura, eta ekharri zuen balioa, eta Apostoluen oinetan ezarri zuen.

V. KAP.

1. Aldiz, Anapias deitzen zen gizon batek, bere emazte Saphirarekin saldu zuen bazter bat,

2. Eta lurraren baliotik, emaztearen jakinean gorde zuen; eta zerbait ekharririk, ezarri zuen Apostoluen oinetan.

3. Bainan erran zioen Piarresek: Debruak nolaz eragin dio zure bihotzari, Izpiritu sailduari gezur egiteko eta lurraren baliotik gordetzeko?

4. Lurra idukiz, ez othe zitzaizun zuretzat gelditzen; eta salduz, dirua ez othe zen zure eskuko? Zertako ezarri duzu zure bihotzean hola-koxe bat? Ez duzu gezurrik erran gizonari, bainan-bai Jainkoari.

5. Bada, hitz horiek aditzearekin, Ananias erori zen eta eman zuen azken hatsa. Eta izialdura handia jarri zen aditu zuten guzien gainean.

6. Orduan gizon gazte batzuek, jaikirik altxatu zuten, eta eramanik ehortzi.

7. Berriz, handik hirur orenen heina bezala iragan zen, eta haren emaztea sarthu zen jakin gabe zer zen gerthatu.

8. Erran zioen aldiz Piarresek: Erradazu, emaztekoa, hean hunenbertzetan saldu duzuen bazter hura? Eta harek ihardetsi zuen: Bai, horrenbertzetan.

9. Piarresek erran zioen orduan: Zertaz hitzartu zarete bada, frogetan ezartzeko Jaunaren Izpiritua? Horra athirian zure senharra ehortzi dutenen urhatsak, eta eramanen zaituzte zu ere.

10. Han berean erori zen haren oinetan, eta hatsak egin zioen. Gizon gazteek berriz, sartzearekin atzeman zuten hila, eta eraman eta bere senharraren aldean ehortzi zuten.

11. Eta izialdura handia jarri zen eliza guzian, eta horiek aditu zituzten guzien baithan.

12. Bada, Apostoluek sendagaila eta mirakulu handiak egiten zituzten populuaren artean. Eta guziak batasunean egoten ziren Salomonen lorioan.

13. Berteetarik berriz, nihor etzen ausartatzen hekiekin batzera; populuak ordean laudorio handiak zituen hekiertzat.

14. Bainan gizon eta emazteki, Jaunaren baithan sinhesten zutenen ostea, geroago eta berhatuagoz zihoan;

15. Haletan non karriketara atheratzen baitzituzten eriak; eta ohe eta lastairetan ezartzen zituzten, Piarres iragaitean haren itzala bederen eror zadien hekiatarik zenbaiten gainera, eta senda zitezen beren gaitzetarik.

16. Hauzo hirietarik berriz, osteak Jerusalemera laster egiten zuen, ekharriz eriak eta izpiritu lohiez oinhaztatuak zirenak, zeinak sendatzen baitziren oro.

17. Bainan jaikirik aphez handia eta harekin ziren guziak, zeinak Saduzearren aldebandakoak baitziren, suminduraz bethe ziren,

18. Eta eskuak arthiki zituzten Apostoluen gainera, eta hiriko presondegian ezarri zituzten.

19. Bainan Jaunaren Aingeruak, gabaz presondegiko atheak idekirik eta ilkhiazirik, erran zioten:

20. Zoazte, ager zaitzte tenplora eta populuaren aitzinean erantzun zatzue bizitze huntako hitzak oro.

21. Hori aditu ondoan, haukiek tenplora sarthu ziren argitzean, eta irakhasten hari ziren. Aphez handiak berriz, eta harekin zirenek, ethorri-rik bildu zituzten biltzerra eta Israelgo umeen arteko zahar guziak, eta presondegira igorri zuten Apostoluen bilha.

22. Bainan bilhariak goan zirenean, eta presondegia idekirik etzituztenean aurkhitu, itzulirik ekharri zuten berria,

23. Ziotelarik: Presondegia khausitu dugu behar zen artha guziarekin hertsia, eta zainak athe aitzinetan zaudela; bainan ideki-eta, nihor ez dugu barnean atzeman.



24. Tenploko aitzindariak berriz, eta aphez nausiek aditu zituzteneko solas horiek, gogoak alhatzen zituzten hean zer behar othe zen hortarik atheratu.

25. Bainan ethorri zen norbait, eta eman zioten berria: Hara zuek preso ezarri gizonak tenploan daudela eta populuari irakhasten hari direla.

26. Goan zen orduan tenploko aitzindaria bere gizonekin, eta erakharri zituen bortxarik gabe; populuaren lotsa ziren ezik, harrika zetzan beldurrez.

27. Eta erakharririk Apostoluak, ezarri zituzten biltzarraren aitzinean. Eta aphez handia galdeka abiatu zitzaioten,

28. Zioelarik: Hertsiki darotzuegu debekatu izen hortan irakhasten haritzea; eta horra bethe duzuela Jerusalemene zuen irakhasmenaz, eta gure gain nahi duzuela egin gizon haren odola.

29. Piarresiek aldiz eta Apostoluek ihardestean erran zuten: Premiago da jainkoari begiratzea, ezenez gizoni.

30. Gure arbasoen Jainkoak biztu du Jesus, zuek, zur batetarik urkhatuz hilarazi izan duzuen.

31. Hura altxatu du Jainkoak bere eskuinaz, Israeli ekhartzea gatik urrikia eta bekhatuen barkhamendua.

32. Eta gauza horien lekhuko gare gu, gu eta Izpiritu saindua, Jainkoak ethordun zatzaizkonei eman izan diotena.

33. Horiek aditu zituztenean, ihartzen zauden, eta hekien hilarazteko asmuak zerabilzkaten.

34. Bainan Gamaliel deitzen zen Farisau bat, legearen irakhasle, populu guziak ohoratzen zuena, jaiki zen biltzarrean, eta manatu zuen aphur batentzat kanporat ilkhiaz zetzazten Apostoluak.

35. Eta bertzeei erran zioten: Ohart-emazue zeren egitera zihoztzen gizon horien gainean.

36. Ezik egun haukiek baino lehen jaiki izan da Theodas, bere burua norbaitentzat aiphatuz; haren alde atheratu dire lau ehun gizon bezala; hila izan da hura; eta haren baithan sinheste zutenak, oro izan dire barraiatuak eta ezdeusetaratuak.

37. Hartaz geroztik atheratu da Judas Galilearra, jendearen khondatzeko egunetan; eta bereganatu du populua, eta galdu da bera; eta hari batu ziren guziak, barraiatuak izan dire.

38. Orai nik erraten darotzuet beraz: Aldara zaitezte gizon haukietarik eta utzatzue; ezen gizonetarikakoa balin bada asmu edo lan hori, urmariaturen da.

39. Ordean Jainkoaren ganikakoa balin bada, ezin urraturen duzue, eta beldur izateko duzue Jainkoaren beraren kontra gudutan aurkhi zaitztezen. Ba-da, harekilako jarri ziren.

40. Eta beren aitzinera deithurik Apostoluak, joarazirik debekatu zioten Jesusen izenean etzitezen den-gutienekorik mintza, eta igorri zituzten.

41. Eta hekiek biltzarraren aitzinetik boztuz zihoztzen, doi aurkhituak izan zirelako Jesusen izenaren gatik hidoi jasaiteko.

42. Etziren bada baratzen egun oroz tenploan eta etxeetan irakhasten eta Jesu-Kristoren erantzuten haritzetik.

VI. KAP.

1. Bada, egun hekietan, nola dizipuluen moltzoa hari baitzen berhatzen, Hebrearren kontra erasia bat atheratu zen Greziarren ganik, haukien alhargumentzat ikhustaterik etzela egun orozko jateemateetan.

2. Orduan hamabiek bilarazirik dizipulu guziak, erran zuten: Ez da bide utz dezagun Jainkoaren hitza, mahainen zerbitzatzeko.

3. Anaiak, zuen artetik beraz ikhusatzue aithor oneko zazpi gizon, Izpiritu sainduaz eta zuhurtziaz betheak, zeinak ezarriko baititugu lan horren buruko.

4. Gu aldiz, othoitzari eta hitzaren erantzuteari jarraikiko gare.

5. Solas hori oste guziaren gogarako izatu zen. Eta hautatu zituzten Eztebe, sinhestez eta Izpiritu sainduaz bethea zen gizona, Filipe, Prokoro, Nikanor, Timon, Parmenas eta Nikolas, Antiokiako arrotza.

6. Erakharri zituzten Apostoluen aitzinera; eta haukiek, othoitzean egonik, eskuak ezarri ziozkaten gainean.

7. Eta Jaunaren hitza hedatzen hari zen, eta hainitz berhatuz zihoztzen dizipuluak Jerusalemene.

8. Eztebek berriz, graziaz eta indarrez bethea baitzen, sendagaila eta mirakulu handiak egiten zituen populuaren artean.

9. Bada, Libratuen eta Zirenearren eta Aletsandriarren, eta Ziliziako eta Asiako direnen deitzen den sinagogatik ilkhi ziren gizon batzu, Ezteberen kontra hizkatzen zirenak;

10. Eta ezin iharduk ziozoketen haren ahoz mintzo zen zuhurtzia eta Izpirituari.

11. Orduan atheratu ziozkaten gizon batzu, erranen zutenak hura aditu zutela Moisesen eta Jainkoaren kontra burhozko solasen arthikitzen.

12. Builan ezarri zituzten beraz populua, zaharrak eta Iskribauak; eta laster eginik, bortxaka eraman eta biltzarraren aitzinera erakharri zuten.



13. Eta atheratu zituzten gezurrezko lekhukoak, ziotenak: Gizon hau toki sainduaren eta legearen kontra mintzatzetik ez da baratzen.

14. Ezik aditu diogu erraten, Jesus Nazarethar harek urratuko duela toki hau eta aldatuko dituela Moisesek eman darozkigun legeak.

15. Eta biltzarrean jarriak ziren guziek haren gainean baitzaduzkaten begiak, ikhusi zuten haren begithartea Aingeru batena iduri.

VII. KAP.

1. Bada, aphez handiak erran zioen: Hola dire horiek?

2. Ihardetsi zuen: Anaiak eta aitak, adi zazue. Gure aita Abrahami, Mesopotamian zagoenean Karanen egon baino lehen, agertu zitzaioen ospezko Jainkoa,

3. Eta erran zioen: Ilkhi zaitte zure lurretik eta zure ahaideen artetik, eta zato nik erakhutsiko darotzudan lurrera.

4. Orduan ilkhi zen Kaldearren lurretik, eta egotu zen Karanen. Eta haren aita hil zenean, Jainkoak erakharri zuen handik, orai zuek zaudezten lur huntara.

5. Eta hemen etzioen bererik eman, urhats baten eremurik ere; bainan agindu zioen hau gozamenetan emanen zioela, eta haren ondotik haren ganikako iraulgiari, haurrik etzuen arren orduan.

6. Bainan erran zioen Jainkoak, haren umeak lur arrotz batean egoiliar izanen zirela, sehi eginen eta gaizki erabiliko zituztela lau ehun urthez.

7. Eta Jaunak erran zuen: Hekiek zerbitzatuko duten jendakia juiaturren dut nik; eta gero ilkhiko dire, eta ni zerbitzatuko naute toki huntan.

8. Eta eman zioten ingurephaitza batasuneko seinaleztat; eta haletan Abraham aitatu zen Isaakez, eta ingurebaki zuen zortzi arren egunean; eta Isaakek izan zuen Jakob, eta Jakobek hamabi Patriarkak.

9. Bekhaizgotan sarthurik, Patriarkek Egiptora saldu zuten Josep, eta harekin zen Jainkoa:

10. Eta hestura guzietarik atheratu zuen, eta eman zioen zuhurtzia, eta Egiptoko errege Faraonen gogarako izatea; eta hunek ezarri zuen Egiptoaren eta bere etxe guziaren buruko.

11. Bada, gosetea eta hestura gaitz bat ethorri ziren Egipto guzira eta Kanaanera, eta etzuten gure arbasoek jatekorik aurkhitzen.

12. Jakobek ordean, aditurik Egipton ogia bazela, harat lehen aldiko igorri zituen gure aitak.

13. Eta bigarren aldian, Josep ezagutua izan zen bere anaiez; eta haren ethorkiaz Faraon jakintsun egina izan zen.

14. Orduan Josepek igorri zuen bere aita Jakobena eta etxeko guzien bilha, hirur hogoi eta hamabortz baitziren.

15. Eta Jakob Egiptora jautsi zen eta han hil izan ziren hura eta gure arbasoak.

16. Eta ekharriak izan ziren Sikemera eta ezarriak Abrahamek dirutan Hemorren umeei, Sikemen arresemeei, erosi hobian.

17. Bada, nola hurbiltzen hari baitzen Jainkoak Abrahami egin agintzaren ordua, populua berhatu eta ostetan igan zen Egipton,

18. Josep ezagutu etzuen bertze errege bat Egipton jaiki zen eguneraino.

19. Harek gure jendakiari jazarriz, hestutu zituen gure arbasoak bortzatzeraino bide bazterretan bere haurren uztera, galarazteko zat hiekien odola.

20. Muga berean sorthu zen Moises; Jainkoaren gogarako izan zen hura, eta hirur hilabetez bere aitaren etxean hazia izan zen.

21. Gero utzia izan baitzen, Faraonen alabak altxatu eta bere semeztat hazi zuen.

22. Eta Moises argitua izan zen Egiptoarren jakitate guziez, eta ahal-dun zen bere solas eta egintzetan.

23. Bainan berrogoi urthetako adina bethe zuenean, bururara ethorri zitzaioen bere anaiei, Israelen umeen ikhusten ibili behar zuela.

24. Eta nola ikhusi baitzuen hekietarik bat zerbait bidegaberan jasaiten, aspertu zuen; eta Egiptoar bat hilik asperkunde eman zioen bidegabea egartzen zuenari.

25. Uste zuen bada haren anaiek ezagutzen zutela, Jainkoak haren eskuz emanen ziotela librantza; bainan hekiek etzuten ezagutu.

26. Biharamunean berriz, eskatiman hari ziren batzuetara agertu zen, eta baketzen zituen, erranez: Gizonak, anaiak zarete, elkharri zertako gaizki egin?

27. Bainan bere lagunari bidegabe egiten hari zenak hastandu zuen, zerralarik: Hi gure gainean nork ezarri hau buruzagi eta jui?

28. Ni ere hil nahi othe nauk, atzo Egiptoarra hil dukan bezala?

29. Moisesek aldiz, hitz horren gainean, ihes egin zuen, eta Madiango lurrean arrotz egotu zen, non izan baitzituen bi seme.

30. Handik berrogoi urtheren buruan, Aingeru bat agertu zitzaioen Sina mendiko mortuan, sutan zen sasi bateko garrean.

31. Bada, Moises ohartzearekin harritu zen horren ikhustez, eta begiratzeko hurbiltzen zelarik, Jauna mintzatu zitzaioen, erraten ziolarik:



32. Ni naiz zure arbasoen Jainkoa, Abrahamen Jainkoa, Isaaken Jainkoa eta Jakoben Jainkoa. Moises berriz, ikharan, begiratzera etzen ausartatzen.

33. Aldiz Jaunak erran zioen: Soinetik khen zatzu zure oinetakoak, ezen zu zauden tokia, lur saildua da.

34. Ene begiz ikhusi dut ene populu Egiptoan denaren hestura, eta aditu dut hekien auhena, eta hekien atheratzera jautsi naiz. Eta orai zato, eta bidaliko zaitut Egiptora.

35. Hekiek ukhatu zuten Moites hura, erranez: Nork ezarri hau buruzagi eta juie? hura igorri zuen Jainkoak buruzagi eta atheratzaile, sasia agertu zitzaioen Aingeruaren eskuz.

36. Harek erakharri zituen, sendagailak eta ezagutkariak eginez Egiptoko lurrian, itsaso Gorrian eta mortuan berrogoi urthez.

37. Moises hura da, Israelen umeei erran diotena: Profeta bat eraiki- ren darotzue Jainkoak zuen anaien artetik, ni bezala; hura entzun zazue.

38. Hura da baldarnan zena mortuan, Sina mendian mintzatzen Aingeruarekin, eta gure aitekin; bizitzerako hitzak harek izatu zituen guri emateko.

39. Gure arbasoak etziren hari begiratu nahi izan; bainan arbuio zio- ten egin, eta bihotzez Egiptora itzuli ziren,

40. Aaroni erraten ziotelarik: Gure aitzinean goanen diren jainkoak egizkigutzu; alabainan ez dakigu zer gerthatu zaioen, Egiptoko lurretik erakharri gaituen Moises hari.

41. Eta orduko egunetan egin izan zuten aratxe bat, eta bitima eskaintzen haritu ziren jainko-moldeari, eta bozkario zuten beren eskue- tako lanetan.

42. Aldiz Jainkoa aldaratu zen, eta utzi zituen zeruetako armadaren zerbitzatzaera, Profeten liburuan iskribatua den bezala: Israelen etxea, mor- tuan berrogoi urthez niri eskaini othe ditutzu bitimak eta holokaustak?

43. Eta hartu ditutze Moloken tabernaklea, eta zuen jainko Errenphamen izarra, adoratzeko egin dituzuen molde batzu. Eta nik Babilonaz haindirat eramanen zaituztet.

44. Lekhukotasuneko tabernaklea mortuan izatu da gure arbasoekin, Jainkoak manatu zioten bezala, Moisesi erran zionean, egin zezan hura, ikhusi izan zuen moldearen arabera.

45. Gure arbasoek harturik, Josuerekin eraman zuten jendaiek goza- tzen zuten lurrera, eta Jainkoak hekiek gure arbasoen aitzinean irazi zituen, eta han egotu da tabernaklea Dabiden egunetaraino.

46. Dabidek esker aurkhitu zuen Jainkoaren aitzinean, eta Jakoben Jainkoari egoitza baten altxatzea galdatu zuen.

47. Salomonek ordean egin zioen tenploa.

48. Bainan Guziz-Gora ez dago eskuz eginikako egoitzetan, profetak dioen bezala:

49. Zerua da ene jarlekhoa; lurra berriz, ene oinetako alkhia. Zer etxe eginen darotadazue, dio Jaunak? edo zein izanen da ene phausuko toki hura?

50. Ez othe ditu ene eskuak egin haukiek oro?

51. Buru gogorreko gizonak, bihotz eta beharri ingurebakigabeoak, zuek Izpiritu sailduari gogor egiten diozue bethi; nola zuen arbasoek, hala zuek ere.

52. Profetearik zein da zuen aitek hainari ez baitiote jazarri? Hil izan dituzte Zuzenaren ethortzeaz aitzinetik berri ematen zutenak, orai zuek izatu baitzarete haren saltzaile eta hiltzaile;

53. Zuek, Aingeruen eskutik legea izatu-eta, begiratu ez duzuenak.

54. Bada, horiek aditzean, bihotzez ihartzen eta haren kontra hor- tzez karraskaka hari ziren.

55. Ordean, Izpiritu sailduaz bethea baitzen, zerura begiratzean ikhusi zituen Jainkoaren ospea, eta Jesus xutik zagoela Jainkoaren esku- nean. Eta erran zuen: Hara, ikhusten ditut zeruak zabalduak, eta gizon- ren Semea Jainkoaren eskuinean dagoela.

56. Hekiek aldiz, marrumaka hasirik, tapatu zituzten beharriak, eta guziak batean jauzi zitzaizkon gainera.

57. Eta hiriz kanporat herrestaturik, harrikatu zuten; eta lekhukoek utzi zituzten beren soinekoak Saul deitzen zen gizon gazte baten oinetan.

58. Eta harrikatzen zuten Eztebe, zeinak dei eginez erraten baitzuen: Jesus Jauna, har zazu ene arima.

59. Gero belhaunikaturik, gora egin zuen oihi, zioelarik: Jauna, ez horien gain ezar bekhatua. Eta hori erran zuenean lohakhartu zen Jaunaren baithan. Saul berriz, gogoz haren heriotzean barne zen.

VIII. KAP.

1. Orduan bada, gogorki jazarri izan zitzaioen Jerusalemen zen Elizari; eta guziak, Apostoluak lekhat, barraiatuak izan ziren Judeako eta Samariako eremuak gandi.

2. Bainan Jainkoaren beldur ziren gizon batzuek artha izan zuten Eztebez, eta deithore handi bat egin zuten haren gainean.



3. Saulek berriz, desmasiatzen zuen Eliza; etxeetan sarthuz, eta gizon eta emaztekiak herrestatuz, preso ezartzen zituen.
4. Bazterretara barraiatuak zirenak beraz, bazabiltzan Jainkoaren hitza erantzunez.
5. Berriz, Samariako hirira jautsirik, Filipek Samariarrei erantzuten zaroeten Kristo.
6. Jendeak aldiz atzarriak zauden Filiperen erranei, bihotz batean entzuten egonez eta ikhusten baitzituzten harek egiten zituen sendagailak.
7. Ezen izpiritu lohiak deihadarka ilkhitzen ziren asko debrudunen baitharik.
8. Sendatuak izan ziren, berriz, hainitz enblai eta maingu.
9. Hargatik bozkario handi bat egin zen hiri hartan. Bazen bada gizon bat, Simon deitzen zena, hirian lehenago azti izatua, eta Samariako jendea zorutzen zuena, bere burua norbait handirentzat emanetz;
10. Eta guziak, xumeenetik handieneraino, hari begiratzen ziren, zio-telarik: Hau da Jainkoaren indar, handia deitzen dena.
11. Bada, haren ondotik zabiltzan, zeren aspaldi hartan tentua galazari baitzioten bere gaizkinkeriez.
12. Bainan sinheste eman ziotenean Filiperi, zeinak erantzuten baitzioten Jainkoaren erresuma, gizonak eta emaztekiek bathaioa hartzen zuten Jesu-Kristoren izenean.
13. Orduan Simonek berak ere sinhetsi zuen; eta bathaiatua izan zen ondoan, Filiperi iratxikia zagoen. Ikhusten baitzituen halaber egiten ziren sendagaila eta mirakulu handiak, harriturik espantatzen zen.
14. Bada, Jerusalem ziren Apostoluek aditu zutenean Samariarrek onhetsi zutela Jainkoaren hitza, hekien gana bidali zituzten Piarres eta Joanes,
15. Zeinek, ethorri-eta, hekientzat othoitz egin baitzuten, izan zeza-tentzat Izpiritu saildua;
16. Ezik etzen oraino hekietarik nihoren gainera jautsi, bainan bathaiatuak ziren baxharrik Jesus Jaunaren izenean.
17. Orduan Apostoluek eskuak ezartzen zituzten hekien gainean, eta izaten zuten Izpiritu saildua.
18. Aldiz Simonek ikhusi zuenean, Apostoluen esku ezartzearen bidez ematen zela Izpiritu saildua, eskaini zioten diru,
19. Zioelarik: Niri ere indazue ahal hori, edozeinek, nik eskuak gainean ezarri ondoan, izan dezan Izpiritu saildua. Piarresek ordean erran zioen:

20. Hire dirua galtzapenatarako izan bedi hirekin, zeren uste izan dukan dirutan izan daitekela Jainkoaren dohaina.
21. Ez haiz phartedun eta ikhustekorik ez duk gauza hortan, ezen hire bihotza ez duk Jainkoaren aitzinean zuzena.
22. Tzarkeria hortaz urrikitan sar hadi beraz eta othoitz egiok Jainkoari, hean bederen barkhatuko deraian hire bihotzeko asmu hori.
23. Ikhusten diat alabainan khelderraren kharastasunean eta gaixta-keriaren lokharrietan hagoela.
24. Simonek aldiz ihardestean erran zuen: Zuek enetzat Jaunari egio-zue othoitz, zuek erran horietarik ez dakidan deusere gertha.
25. Eta hekiek, lekhukotasun eginik eta Jaunaren hitza erantzunik, Jerusalemara bihurtzen ziren, eta Samariarren aurkhintza askotan hedatzen zuten ebanjelioa.
26. Bada Jaunaren Aingerua Filiperi mintzatu zitzaioen, erraten zue-larik: Jaiki zaite eta zoaz hegoaldera, Jerusalemetik Gazara jausten den bidera; xahutua baita hiri hura.
27. Eta jaikirik goan zen. Eta hara Ethiopiar gizon ebaki bat, Ethiopiako erregina Kandazen azpiko handietarik, erreginaren khutxa guzietako kargua zuena, adoratzera ethorri zela Jerusalemara.
28. Eta bere orga-lasterrean jarria itzultzen zen, Isaias profetaren irakurtzen hari zelarik.
29. Izpirituak berriz, Filiperi erran zioen: Aitzina zaite eta hurbil zakizkio orga-laster horri.
30. Orduan laster eginik, Filipek aditu zuen Isaias profetaren irakurtzen hari zela, eta erran zioen: Uste duzu ardiesten duzula irakurtzen duzuna?
31. Harek ihardetsi zuen: Eta noletan dezaket, baldin ez badarot norbaitek erakhusten? Eta othoiztu zuen Filipe igan eta jar zadien harekin.
32. Hau zen bada, irakurtzen hari zuen Iskriturako aurkhintza: Ardi bat bezala hiltzera eramana izan da; eta nola ixilik baitago bildotsa murrizten hari duenaren aitzinean, hala da egotu ahorik ideki gabe.
33. Beheramenduan, hautsia izan da haren kontrako juiamendua. Nork erranen du haren ethorkia, ezen lurretik khendua izanen da haren bizia?
34. Horren gainean ebakiak erran zioen Filiperi: Erradazu othoi, nortaz dio profetak hori? bere buruaz, ala bertze norbaitez?
35. Orduan Filipek hitza harturik, eta Iskriturako aurkhintza hortan hasirik, ezagutarazi zioen Jesus.



36. Eta bidean zihoazelarik, ethorri ziren ur batetara, eta ebakiak errian zuen: Zer traba da ni bathaia nadien?

37. Aldiz Filipek erran zuen: Egin daiteke, baldin bihotz oroz sinhesten baduzu. Eta ihardetsi zuen: Sinhesten dut Jesu-Kristo Jainkoaren semea dela.

38. Eta geldiarazi zuen orga-lasterra; Filipe eta ebakia jautsi ziren biak urera, eta bathaiatua izan zen ebakia.

39. Gero uretik igan zirenean Jaunaren Izpirituak eraman zuen Filipe, eta ebakiak etzuen gehiago ikhusi, bainan bozkariotan goan zen bere bidean.

40. Filipe berriz, Azoten khausitu zen, eta iragaitean ebanjelioa erantzuten zaroten hiri guziei Zesareara heldu arteo.

IX. KAP.

1. Bada, Saul, Jaunaren dizipuluentzat dixidu eta sarraskiz bertzerik burutan gabe, aphez handiaren gana goan zen,

2. Eta Damaserako gutunak galdatu ziozkan sinagogentzat; arren-eta khausitzen bazuen urhats hortako gizonik eta emaztekerik, preso ekhar zetzan Jerusalemara.

3. Eta bidean zihoalarik, gerthatu zen Damasera hurbiltzearekin, argi batek zerutik bat-batean alde orotarik jo zuela.

4. Eta lurrerat erortzean, aditu zuen mintzo bat erraten zioena: Saul, Saul, zertako darotak jazartzen?

5. Harek ihardetsi zuen: Nor zare, Jauna? Eta mintzoak: Ni nauk Jesus, hik jazartzen diokan hura; gogor zaik hiri akhuloari uztarka haritzea.

6. Eta ikharan eta laztua, erran zuen: Jauna, zer nahi duzu egin dezadan?

7. Jaunak ihardetsi zioen: Jaiki hadi eta sar hirian, eta han errana izanen zaik zer dukan egin beharrik. Harekilako lagunak aldiz, harrituak zauden, mintzo bat aditzen baitzuten, nihor ordean ez ikhusten.

8. Saul berriz, lurretik jaiki zen, eta begiak ideki, eta deusere etzuen ikhusten. Eta eskutik eramanez sarrarazi zuten Damasena.

9. Eta han zen hirur egun hartan, etzuelarik ikhusten, eta etzuen ez jan ez edan.

10. Bazen bada Damasena dizipulu bat, Ananias deitzen zena; eta ikhuspen batean Jaunak erran zioen: Ananias. Eta harek ihardetsi zuen: Huna ni, Jauna.

11. Eta Jaunak hari: Jaiki zaite eta zoaz karrika Zuzena deitzen dute-nera, eta Judasen etxean bilha zazu Saulen izena duen Tarsoar bat; hara ezen othoitzean hari dela.

12. (Eta Saulek ikhusten zuen Ananias deitzen zen gizon bat sartzen, eta eskuak gainean ezartzen ziozkala, argia bihur zakion begietara.)

13. Ananiasek berriz, ihardetsi zuen: Jauna, gizon hortaz askoren ganik aditua naiz zenbateko gaizkiak Jerusalemen egin dituen zure sainduei.

14. Eta badu harek aphez buruzagietarik, zure izenari dei egiten diotenen preso hartzeko eskua.

15. Jaunak ordean erran zioen: Zoaz, zeren hura baita ene hautuko gizona, ene izenaren atheratzeko jendaien, erregeen eta Israelgo umeen aitzinera.

16. Ezen erakhutsiko diot nik zenbat beharko duen ene izenaren ariaz egarri.

17. Eta goan zen Ananias, sarthu zen etxean, eta Sauli eskuak gainean ezartzen ziozkalarik, erran zioen: Saul anaia, heldu zinelarik bidean agertu zaitzun Jesus Jaunak bidali nau, ikhus dezazun, eta Izpiritu sainduaz bethe zadiantzat.

18. Eta han berean haren begietarik erori ziren ezkatak bezalako batzu, eta argia itzuli zitzaioen begietara; eta jaikirik, bathaiatua izan zen.

19. Eta zerbait jan ondoan, indar hartu zuen. Gero zenbait egunegotu zen Damasena ziren dizipuluekin.

20. Eta berehala abiatu zen Jesusen erantzuten, hura zela ezen Jainkoaren Semea.

21. Bada, hura aditzen zuten guziak harritzen ziren eta erraten zuten: Ez othe da bada hau, izen horri dei egiten ziotenak Jerusalemen eragotzen zituen hura; eta ez othe da hunat ethorria halakoan preso eramateko aphez nausien aitzinera?

22. Bainan Saul geroago eta hainitez nausituzago zihoan, eta Damasena egoten ziren Juduak ahalketan ezartzen zituen, Jesusi aithor emanez, hura zela Kristo.

23. Asko egun holetan bethe ziren ondoan, Juduek elkharren artean iragan zuten hilarazi behar zutela.

24. Bainan Saulen jakinera ethorri ziren hekien zelatak. Bada, gau-egun zaintzen zituzten atheak ere, hura hil beharrez.

25. Dizipuluek ordean, gabaz harturik, saski batean jautsiz harrasien gainetik igorri zuten.



26. Gero, Jerusalemara etorri zenean, dizipuluekin batu beharrez zabilan, eta guziak haren beldur ziren, ez baitzuten sinhesten dizipulu zela.

27. Bainan Barnabasekin harturik, Apostoluetara eraman zuen, eta erran zaroeten nola bidean ikhusi izan zuen Jauna eta mintzatu zitzaioela, eta nola Damasen heraberik gabe haritu zen Jesusen izenean.

28. Eta Jerusalemen egotu zen, hekiekin erabiliz bere sar-ilkhiak, eta heraberik gabe mintzatuz Jaunaren izenean.

29. Mintzaten zen halaber jendaiei, eta ihardukika haritzen zen Greziarrekin; hauiek berriz, hura hil beharrez zabilzan.

30. Anaiek ezagutu zutenean hori, Zesareara eraman, eta Tarsora igorri zuten.

31. Bizkitartean Elizak bakea zuen Judea guzian, Galilean eta Samarian, eta altxatzen hari zen, Jaunaren beldurrean ibiliz; eta Izpiritu sainduaren gozakariek bethetzen zuten.

32. Bada, dizipulu guzian baithan gaindi iragaiten zelarik Piarres, gerthatu zen Lidan zauden sainduetara etorri zela.

33. Han aurkhitu zuen, berriz, Eskas deitzen zen gizon bat, zortzi urthe hartan enblai ohean zatzana.

34. Eta Piarresekin erran zioen: Eskas, Jesu-Kristo Jaunak sendatzen zaitu. Jaiki zaite eta egizu zure ohea. Eta jaiki zen berehala.

35. Eta ikhusi zuten Lidan eta Saronan egoten ziren guziek eta hartu zuten Jaunaren legea.

36. Jopen berriz, dizipulen artean emazteki bat bazen, Tabitha deitzen zena, bertzenaz erran nahi baita Dorkas. Haren bizia egintza onez eta egiten zituen karitatez bethea zen.

37. Gerthatu zen bada egun hekietan eriturik hil zela. Garbitu zuten ondoan, ezarri zuten gaineko gelan.

38. Eta nola Lidatik hurbil baitzen Jope, dizipuluekin aditurik han zela Piarres, igorri zituzten bi gizon othoitz hunekin: Ez berant gure gana ethortzera.

39. Aldiz Piarres, jaikirik hekiekin goan zen; eta heldu izan zenean, eraman zuten gaineko gelara, eta alharguntsa guziak ingurura bildu zitzaizkon, erakhusten zaroztelarik Dorkasekin egiten ziozkaten soinak eta aldatzekoak.

40. Orduan guziak ilkhiazirik, Piarres belhaunikatuz othoitzean egotu zen, eta gorphutzaren alderat hurbildurik erran zuen: Tabitha, jaiki zaite. Eta harek ideki zituen begiak, eta ikhuzirik Piarres, jarri zen.

41. Piarresekin berriz, eskua emanez xutiarazi zuen; eta deithu ondoan sainduak eta alhargunak, bizirik bihurtu zioten.

42. Bada, sendagaila hori Jope guzian jakina izan zen, eta hainitzek Jaunaren baithan hartu zuten sinheste.

43. Piarres berriz, asko egun egotu zen Jopen, Simon deitzen zuten zurratzaile baten etxean.

X. KAP.

1. Bada, Zesarean bazen gizon bat, izena baitzuen Kornelio, Italiarra deitzen den ezkardan Ehuntari,

2. Gizon jainkotiarra, eta bere etxe guziarekin Jainkoaren beldur zena, jendeari amoina hainitz egiten eta bethi Jainkoari othoitzean zagoena.

3. Behin, bederatzi orenen gainera, ikhuzpen batean garbiki ikhusi zuen Jainkoaren Aingerua haren aitzinera ethortzen eta erraten zioela: Kornelio.

4. Eta Aingeruari begiratzean, izialdura lothurik, erran zuen: Zer da, Jauna? Aingeruak aldiz ihardetsi zioen: Zure othoitz eta amoinak orhoitzgarri igan dire Jainkoaren aitzinera.

5. Eta orai Jopera igor zatzu gizonak, eta erakharraraz zazu Simon, izengoitiz Piarres deitzen den bat.

6. Hura ostatatua da zurratzaile baten etxean, Simonen baithan, zainaren etxea itsas-aldean baita: harek erranen darotzu zer egin behar duzun.

7. Eta hari mintzo zen Aingerua goan zenean, deithu zituen bere bi muthil eta Jainkoaren beldur zen soldado bat, bere azpikoetarik.

8. Hekiei gauza guziak erranik, Jopera bidali zituen.

9. Bilharamunean berriz, hekiekin bidean zihoazelarik eta hirirat hurbiltzen hari, Piarres othoitz egitera gaineko selharura igan zen seietako heinean.

10. Eta gosetu baitzen, nahi izan zuen jan. Bainan jatekoa aphaintzen zioten artean, izpiritu jauzte batekin hartu zuen;

11. Eta ikhusi zituen zerua idekia eta halako oihal bat, saihal handi bat iduri, jausten zena, eta lau mokoetarik zerutik lurrera beheititzen zutena.

12. Hartan baziren lau hatzetako abere, lurreko zierpe eta zeruko hegastin guzietarik.

13. Eta mintzo bat egin zitzaioen Piarres: Jaiki hadi, Piarres; hil eta jan zak.

14. Piarresekin ordean erran zuen: Ez holakorik, Jauna; ezen arrontekorik eta lohi denik ez dut egundaino jan izan.



15. Eta bigarren aldia mintzoak erran zioen: Arrontzat ez aipha Jainkoak xahu egin duena.
16. Bada, hiruretan egin izan zen hori; eta berehala gero, oihala zerurat bildua izan zen.
17. Eta duda-mudaka zabilalarik Piarres zer othe zen izatu zuen ikhuspena, hara Korneliok bidali gizonak, Simonen etxeaz galdeka, athera agertu zirela.
18. Eta hela egin ondoan, galdatzen zuten hean harat biltzen zen Simon, izengoitiz Piarres.
19. Aldiz ikhuspenez gogoetaka zagoelarik Piarres, Izpirituak erran zioen: Horra hirur gizon zure galdez.
20. Xuti zaite beraz, jauts zaite, eta deblauki zoaz horiekin, zeren nik bidaliak baitire.
21. Orduan gizonetara jautsirik, Piarresek erran zioten: Huna, ni naiz zuek bilhatzen duzuen; zer ariak zerakharzte?
22. Hekiek ihardetsi zuten: Kornelio Ehuntariak, gizon zuzen eta Jainkoaren beldur denak, eta Juduen jendaki guziaren aithor ona duenak, Aingeru saindu baten ganik izatu du mezua erakharraraz zaitzan bere etxera, eta entzun detzan zure ganikako hitzak.
23. Barnera sarrarazirik beraz, Piarresek leihorrera hartu zituen. Biharamunean berriz, jaikirik bideari eman zen hekiekin; eta anaietarik zenbait Jopetik goan ziren haren lagun;
24. Eta biharamunagoan sarthu ziren Zesarean. Bada, hekien iguri zagoen Kornelio, bere ahaideak eta adiskide minenak bildurik.
25. Eta Piarres sarthu zenean, Kornelio aitzinera goan zitzaioen, eta haren oinetara eroririk, adoratu zuen.
26. Baina Piarresek xutiarazi zuen, zerralarik: Jaiki zaite, gizon bat naiz ni ere.
27. Eta harekin mintzo zelarik, sarthu zen, eta hainitz jende atzeman zituen bilduak;
28. Eta erran zaroeten: Zuek badakizue zein hasgarri den Judu batentzat arrotzari iratxikitzea edo hurbiltzea; baina irakhatsi izan darot Jainkoak, gizonetarik ez dela nihor arront edo lohitzat iduki behar.
29. Hargatik, deithua izan naizen ber, ethorri naiz deblauki. Galdegiten dut beraz, hean zer ariaz bidali duzuen ene bilha?
30. Korneliok ihardetsi zuen: Orai duela laur egun, bederatzia orene-tan, othoitzean nindagoen etxean; eta hara gizon bat gelditu dela ene aitzinean, soineko xuritan, eta erran izan darot:

31. Kornelio, entzuna da zure othoitza, eta zure amoinak orhoituak izan dire Jainkoaren aitzinean.
32. Bidalazu beraz Jopera eta erakharraraz zazu Simon, izengoitiz Piarres deitzen dena; Simon zurratzailearen etxean itsas-aldean dago.
33. Hargatik berehala igorri dut zure bilha, eta ongi-ethorri zarela. Orai beraz hemen gare zure aitzinean guziak, Jaunak manatu darozkitzun guzien entzutekotzat.
34. Orduan Piarresek, ahoa idekirik erran zuen: Zin-zinez ikhusten dut, nor-nor-den ez duela Jainkoak begiratzen;
35. Baina haren beldur dena eta zuzenbidean dabilana haren gogarako dela edozein jendakitan.
36. Jainkoak Israelgo umeei igorri diote hitza, bakea erantzunez Jesu-Kristoren arartekoz: (hau da guzien Jauna.)
37. Zuek badakizue zer den gerthatu Judean, Galileatik hasirik, Joanesek erantzun izan duen bathaioaren ondoan;
38. Nola Jainkoak Izpiritu sainduaz eta indarraz gantzutu izan duen Jesus Nazarethkoa, zeina iragan baita eginez ongia eta sendatuz debruak hestutzen zituenak oro, zeren harekin baitzen Jainkoa.
39. Eta gu, Juduen herrialdean eta Jerusalemen egin izan dituen guziez lekhuko gare; eta hil izan dute habe batetik dilindan.
40. Jainkoak hura biztu du hirugarren egunean, eta ager zadien nahi izan du,
41. Ez populu guziari, baina Jainkoak aitzinetik berezi lekhukoei, guri, zeinek hiletarik biztu den ondoan harekin jan eta edan izan baitugu.
42. Eta manatu daroku populuaren aitzinean erantzun eta lekhukotasun bihur dezagun, hura dela Jainkoak hilen eta bizien juie ezarri duena.
43. Profeta guziek lekhukotasun ekhartzen diote, haren baithan sinheste duten guziek, haren izenaren bidez ardietsiko dutela bekhathuen barkhamendua.
44. Piarresek hitz horiek ahoan zituelarik oraino, Izpiritu saindua jautsi zen hitza entzuten zuten guzien gainera.
45. Eta Piarresekin ingurebakietarik ethorriak ziren fededunak harritu ziren, Izpiritu sainduaren grazia hedatu zelakoz paganoen gainera;
46. Aditzen zituzten ezik asko mintzaietan solas egiten eta Jainkoaren handiesten.
47. Piarresek erran zuen orduan: Nihork debeka othe dezake ura, guk bezala Izpiritu saindua izatu duten haukiek ez ditezen bathaia?



48. Eta manatu zuen izan zitezen Jesu-Kristo Jaunaren izenean bat-haiatuak. Orduan hekiek othoiztu zuten egon zadien zenbait egun hekien baithan.

XI. KAP.

1. Bada, Judean ziren Apostoluek eta anaiek aditu zuten jendaiek ere izatu zutela Jainkoaren hitza.

2. Berriz, Jerusalemera igan zenean Piarres, ingurebaketarik zirenak, haren kontra hari ziren ihardukika,

3. Ziotelarik: Ingurebakigabeetara zertako sarthu zare eta hekiekin jan izan duzu?

4. Piarresek aldiz, hasirik xehatu ziozkaten gauzak lerroan, zioelarik:

5. Jopeko hirian nintzen othoiztean hari, eta izpirituko altxapen batean izatu nuen ikhuspen bat, jausten zen halako oihal bat, sailhal handi bat iduri, lau mokoetarik zerutik beheitzen baitzuten, eta ene alderaino ethorri zen.

6. Hartara begiak emanik, begira nindagoen, eta ikhusi izan nituen lau hatzetako aziendak, eta lureko basabereak, eta zierpeak eta zeruko hegastinak.

7. Bada, mintzo bat ere aditu izan nuen zerratana: Jaiki hadi, Piarres; hil eta jan zak.

8. Aldiz ihardetsi nuen: Ez, Jauna, zeren arrontekorik edo lohirik egundaino ez baita ene ahoan sarthu.

9. Baina bigarren aldia zerutikako mintzoak erran izan zarodan: Jainkoak xahu egin duena, hik ez deith arronteko.

10. Bada, hori hirur aldiraino gerthatu izan zen; eta gero guziak zerurat bilduak izan ziren.

11. Eta hara ordu berean, hirur gizon Zesareatik ene gana bidaliak baratzen direla ni nindagoen etxean.

12. Izpirituak berriz, erran zarodan, deblauki nindohala bekiekin. Aldiz sei anaia haukiek ere enekin ethorri ziren, eta sarthu ginen gizonaren etxean.

13. Harek berriz, erran zarokun nola ikhusi izan zuen Aingeru bat bere etxean xutik eta erraten ziona: Bidalazu Jopera eta erakharraz zazu Simon, izengoitiz Piarres deitzen dena,

14. Harek erraten baitarozkitzu hitzak zeinen bidez salbaturen baitzarete, zu eta zure etxe guzia.

15. Bada, mintzatzan abiatu nintzenean, hekien gainera jautsi zen Izpiritu saildua, hala-nola hatsarreen gure gainera.

16. Orduan orhoitu nintzen Jaunaren hitzaz, nola erraten zuen: Joanesez urez bathaiatu izan du; zuek ordean Izpiritu sailduaz izanen zarete bathaiatuak.

17. Baldin beraz Jainkoak hekiei eman izan badiote grazia bera nola guri, Jesu-Kristo Jaunaren baithan sinhetsi dugunei, nor nintzen ni Jainkoari bihurri egiteko?

18. Horiek entzunik ixildu ziren, eta goretsi zuten Jainkoa, ziotelarik: Jainkoak jendaiei ere eman izan diote beraz bizitzerako urrikia.

19. Eta-bada, Ezteberen egunetan egin izan zen hesturak barraiatu dizipuluak ibili ziren Phenizia barna, Ziproa eta Antiokia gaindi, Juduei baizik bertze nihori erantzun gabe hitza.

20. Baina heketarik zenbait Ziproarrak ziren eta Zirenearrak, eta Antiokiara sarthu ondoan, Greziarrei ere mintzatzan ziren erantzunetz Jesus Jauna.

21. Eta hekiekin zen Jaunaren eskua, eta sinhesten zuten haintz Jaunaren ganat itzuli ziren.

22. Bada, berri horrek jo zuen Jerusalemen zen elizara, eta Antiokiaraino bidali zuten Barnabas.

23. Ethorri eta Jaunaren grazia ikhusi zuenean, boztu zen eta hizitatzan zituen oro, Jaunarekin gogo hazkarrez egotera;

24. Ezik gizon prestua zen, fedez eta Izpiritu sailduaz bethea. Eta oste handia iratxiki zen Jaunari.

25. Gero Barnabas Saulen bilha goan zen Tarsora; eta aurkhiturik, Antiokiara erakharri zuen.

26. Eta urthe osoa eman zuten hango Elizan, eta oste handia argitu zuten, haletan non Antiokiako dizipuluak lehenak izatu baitziren Kristau izenez deithuak.

27. Orduko egunetan berriz, Jerusalemetik Antiokiara ethorri ziren profeta batzu;

28. Eta heketarik Agabo deitzen batek, jaikirik, Izpiritu sailduaren argiz erantzuten zuen gosete handi bat lureko bazter orotara ethortzekoa zela, gerthatu zen bezala Klaudioren egunetan.

29. Orduan dizipuluek burutan hartu zuten, bakhotxak zuenaren araber laguntzak igortzea Judean egoten ziren anaiei;

30. Hala ere egin izan zuten, zaharrei Barnabasen eta Saulen eskuz bidaliz.



XII. KAP.

1. Ordu hekietan beretan abiatu zen Herodes erregea Elizaren ume batzuei hestura ematen.

2. Ezpatatik hilarazi zuen beraz Jakobe, Joanesen anaia.

3. Ikhusirik, berriz, Juduen gogara egiten zuela, harrarazi zuen Piarres ere. Bada, Airisetako egunak ziren.

4. Hartu ondoan, preso ezarri zuen, eta lau soldado andanei eman zioten zaintzera, Bazko ondoan populuairen aitzinera nahi baitzuen ilkhiazari.

5. Piarres beraz presondegian zaindua zen. Elizatik berriz, othoitza harentzat baratu gabe egiten zen Jainkoari.

6. Bada, noiz-ere Herodesek atheratzera baitzaramakan, aitzineko gaeuan berean Piarres lo zagoen bi soldadoren artean, bi gathez tinkatua; eta zainak athe aitzinean zauden presondegiairen begiratzen.

7. Eta hara agertu zela Jaunaren Aingerua, eta argi batek dirdiratu zuen toki hartan; eta sahetsean jorik Aingeruak atzarrarazi zuen Piarres, erraten zioelarik: Jaiki zaite laster. Eta burdinak erori ziren haren eskuetarik.

8. Aingeruak erran zioen orduan: Ezar zazu gerrikoa eta jauntz oinetakoak. Eta hala egin zuen. Eta Aingeruak erran zioen: Ezar zazu soingainekoa eta jarraik zakizkit.

9. Eta ilkhirik jarraitzen zitzaioen; eta etzakien zinezkoa zela Aingeruaren bidez egiten zen gauza; baina uste zuen idurikunde bat ikhusten zuela.

10. Iraganik ordean lehenbiziko eta bigarren zain araldeak, heldu ziren hirira daraman burdinazko athera, zeina bere baitharik ideki baitzitzaioten. Eta ilkhirik goan ziren karrika bat gaindi, eta bat-batean Aingerua galdu zen haren ganik.

11. Eta bere baithara itzulirik, Piarresek erran zuen: Orai ikhusten dut zinez, bere Aingerua igorri duela Jainkoak, eta itzurrazki nauela Herodesen aztaparrei eta Judu populuairen igurikitza guziari.

12. Eta gogoeta horietan ethorri zen Mariaren etxera (Maria hura zen, Joanes izengoitiz Mark deitzen zutenaren ama); eta han baziren asko bilduak eta othoitzean zaudezenak.

13. Bada, etxe sartzeko athea jo zuenean, Erhode deitzen zen neskatxa bat ethorri zen entzutera.

14. Eta Piarresen mintzoa ezagutu zueneko, bozkarioaren bozkarioz etzuen athea ideki, baina barnera laster eginez berria eraman zuen, athean zagoela Piarres.

15. Baina hekiek erran zioten: Burutik goan zare. Aldiz hura thematzen zen, hala zela. Hekiek zioten ordean: Haren Aingerua da.

16. Piarres, berriz, aitzina hari zen joka. Eta ideki zutenean, ikhusi zuten eta harritu ziren.

17. Baina ixil zitezen eskuz kheinu eginik, erran zioten noletan presondegitik atheratu zuen Jaunak, eta erran zuen oraino: Berria eremozue-te Jakoberi eta anaiei. Eta ilkhirik goan zen bertze toki batetara.

18. Bada, argitu zenean, etzen nahastura xumea soldadoren artean, hean zer egin othe zen Piarres.

19. Herodesek berriz, bilharazi eta khausitu etzuean, estiran erabilirik zainak, manatu zuen hiltzerat eraman zetzazten; eta Judeatik Zesareara jautsirik, han egotu izan zen.

20. Bada Tiriarren eta Sidondarrentzat hasarre zen. Baina hekiek gogo ber-batean ethorri zitzaizkon; eta amainaturik Blasto, erregeren gelazaina, galdatu zuten bakea, zeren erregeren lurretarik hazten baitziren hekien tokiak.

21. Egun berezian beraz, errege soinekotan Herodes tronuan jarri zen, eta pergario bat egiten zioten.

22. Populuak berriz, oihu egiten zuen: Jainkoaren hitzak dire horiek, eta ez gizon batenak.

23. Baina Jaunaren Aingeruak jo zuen han berean, zeren etzioen Jainkoari aithor bihurtu; eta harrek iretsia hil izan zen.

24. Bada, Jaunaren hitza aitzinatuz eta hedatuz zihoan.

25. Berriz, Barnabas eta Saul Jerusalemetik itzuli ziren, beren eginbidea betherik, eta berekin harturik Joanes, izengoitiz Mark deitzen zutena.

XIII. KAP.

1. Baziren orduan Antiokiako Elizan profetak eta irakhasdunak, zeinen arteko baitziren Barnabas, eta Simon, Beltza deitzen zutena, Luzio Zirenearra, eta Manahen, Herodes tetrarkaren unhithaurridea, eta Saul.

2. Bada Jaunaren eginbideetan eta barurean bizi zirelarik, Izpiritu sainduak erran zioten: Berezkidatatzue Saul eta Barnabas, nik hartu ditudan lanekotzat.

3. Orduan, barur eta othoitz eginik, eta eskuak gainean ezarririk, igorri zituzten.

4. Izpiritu sainduak bidali zituen bezala, Seleuziara goan ziren, eta handik itsasoz Ziprora.

5. Eta Salaminara ethorri zirenean, Juduen sinagogetan erantzuten zuten Jainkoaren hitza. Joanes berriz, han zuten beren zerbitzuko.



6. Eta irla guzian Paphoseraino ibili ondoan, aurkhitu zuten Barjesu deitzen zen halako Judu gizon azti eta profetaizun bat,
7. Zeina baitzagoen Serjio Paulo, kontsulorde, gizon zuhurrarekin. Hunek, Jainkoaren hitzaren lehiarekin, galdatu zituen Barnabas eta Saul.
8. Bainan Elimas aztiak (ezen hori erran nahi zuen haren izenak) zeiber egiten zuen, fedetik gibelarazi beharrez kontsulordea.
9. Orduan Saul, zeina Paulo ere deitzen baita, Izpiritu sainduaz bethea, begira jarri zitzaioen,
10. Eta erran zuen: Oi gizon zimarkhuz eta zer-nahi maltzurkeriaz bethea, debru semea, zuzentasun guzien etsaia, ez haiz baratzen Jaunaren bide zuzenen makhurraraztetik.
11. Eta orai huna Jaunaren eskua hire gainean, eta itsu izanen haiz, noizbait arteo ez baituk ikhusiren iguzkiaren argia. Eta han berean lanbro bat eta ilhunbeak jautsi ziren haren gainera, eta inguruka ibiliz bilhatzen zuen hean, nork emanen zioen eskua.
12. Orduan, gerthatu zena ikhusirik, sinhetsi zuen kontsulordeak eta ederresten zuen Jaunaren irakhasmena.
13. Paphosetik ilkhi zirenean Paulo eta bere lagunak, Perje Panphiliakora goan ziren. Joanes aldiz, hekiek utzirik, Jerusalemara bihurtu zen.
14. Bertzeak berriz, Perje gaindi iraganik ethorri ziren Antiokia Pisidiakora, eta larunbat batez sinagogan sarthu eta jarri ziren.
15. Bada, legea eta profetak irakurtuak izan zirenean, sinagogako aitzindariak hekien gana bidali zuten erratera: Anaiak, zuetarik nihor balin bada populuarentzat solas on zerbait duenik, errazue.
16. Orduan, xutiturik eta ixil zitezen eskuaz kheinu eginik, erran zuen Paulok: Israeldar gizonak, eta Jainkoaren beldur zaretanak, adi zazue.
17. Israelgo populuaren Jainkoak hautatu zituen gure arbasoak, eta altxatu populua, Egiptoko lurrian egoiliar ziren egunetan, eta handik bere eskuaren indarraz zituen erakharri;
18. Eta mortuan berrogoi urthez jasan zituen hekien aztura tzarrak.
19. Eta zazpi jendaki zahaturik Kanaango lurrian, zorthera berezi ziozkaten hekien lurrak,
20. Lau ehun berrogoi eta hamar urtheren buruan bezala; eta gero juieak eman ziozkaten, Samuel profetara dino.
21. Ordutik galdatu zuten errege bat; eta Saul, Zisen semea, Benjaminen leinukoa eman zioten Jainkoak berrogoi urthez.

22. Eta hura khendurik, erregetzat eraiki zioten Dabid, zeinari lekukotasun bihurtu baitzion, zioelarik: Ene bihotzaren araberako gizona aurkhitu dut Dabid, Jeferen umea, zeinak egiten baititu ene nahi guziak.
23. Hunen ganikako iraulgitik Jainkoak, bere agintzaren arabera, Israeli salbatzaile atheratu dio Jesus,
24. Hura ethortzeko aitzinean, Joanesek populu guziari erantzun ondoan urrikizko bathaioa.
25. Bada, bere aldia akhabatzerakoan Joanesek erraten zuen: Ez naiz ni zuek uste nauzuena, bainan huna ene ondotik dathorren bat, dina ez bainaiz haren oinetako lokharrien barraiatzeko.
26. Anaiak, Abrahamen odoletikako umeak, eta zuen artean Jainkoaren beldur direnak, salbamenduzko hitz hori zuei zaitzue bidalia.
27. Ezen ezagutu gabez hura, eta larunbatetan irakurtzen diren profeten hitzak, bethe dituzte Jerusalemgo egoiliar eta buruzagiek, juiatu dutenean Jesus;
28. Eta heriotzerako ariarik batere haren baithan aurkhi etzezaten arren, Pilatori galdegin diote hilaraz zezala.
29. Eta hartaz iskribatuak diren guziak bethe dituzten ondoan, habetik jautsirik hobian ezarri dute.
30. Bainan Jainkoak hirugarren egunean hiletarik biztu du; eta asko egunez hura ikhusi izan dute
31. Harekin Galileatik Jerusalemara ethorriak zirenek, zeinak orai arteo lekhuko baitire populuaren aitzinean.
32. Eta guk zuei ekhartzen darotzuegu berria, gure arbasoei egina izan den agintza hura,
33. Gure hurrei bethe diotela Jainkoak, biztu duenean Jesus, halanola ere baita bigarren Psalmoan iskribatua: Ene Semea zare zu, egun zaitut nik munduratu.
34. Eta nola hiletarik biztu baitu, ez dadien gehiago usteltzera bihur, hunela mintzatu da: Betheko darozkitzuet Dabidi egin diozkadan agintza zinak.
35. Eta oraino bertzerik ere baderra: Usteldura zure Sainduari ikhus-tera ez diozu utziko.
36. Ezen Dabid, bere mendean Jainkoaren nahien bethetzen haritu ondoan, lokhartu izan da; eta bere arbasoen aldean ezarri dute, eta ikhusi izan du usteldura.
37. Zeina ordean Jainkoak hiletarik biztu baitu, ez du harek usteldura ikhusi.



38. Jakizue beraz, anaiak, haren bidez zaitzuela erantzuten bekhatuen barkhamendua; eta Moisesen legeaz ezin garbitu izan zaitezten gauza guziez,

39. Hortaz dela garbitzen sinhesten duen bakhotxa.

40. Begira beraz zuei ez dakizuen gertha profetetan errana dena:

41. Iklusazue, arbuariak, harri eta urth zaitezte; zeren lan bat eginen baitut zuen egunetan, lan bat sinhetsiko ez duzuen, norbaitek erran balezazue ere.

42. Bada, ilkhitzen zirelarik, othoiztu zituzten, ondoko larunbatean mintza zekizkioten gauza horietaz.

43. Eta sinagoga hustearekin, Juduetarik eta Jainkoa adoratzan zuten arrotzetarik moltzo bat jarraiki zen Paulori eta Barnabasi, zeinek beren solasez ekhartzen baitzituzten Jainkoaren grazian gogor egotera.

44. Ondoko larunbatean berriz, hurran hiri guzia bildu zen Jainkoaren hitzaren entzutera.

45. Baina Juduek ikhusi zituztenean gizon murru hekiek, bekhazgoz bethe ziren, eta burhoka hariz zeiber egiten zioten Pauloren erranei.

46. Orduan Paulok eta Barnabasek heraberik gabe erran zioten: Zuei behar zitzaizuen lehenik adiarazi Jainkoaren hitza; baina hastantzen duzuenaz geroztik, eta ezagutzen duzuenaz geroz etzaretela bethiereko bizitzeaz merezdun, huna non jendaien gana itzultzen garen.

47. Jaunak alabainan huneletan gaitu manatu: Ezarri zaitut jendaien argitzat, izan zaitezten hekien salbagarri lurraren bazterretaraino.

48. Paganoak aldiz, hori entzunik, bozkariotan sarthu ziren, eta gorensten zuten Jaunaren hitza; eta sinheste hartu zuten Jainkoaz aitzinetik bethiko bizitzerako hautetsiak ziren guziek.

49. Horreletan aurkhintza guzia gaindi barriatzen zen Jaunaren hitza.

50. Baina Juduek subermatu zituzten emazteki jainkotiar eta handietarikako. batzu, eta hiritar lehenbizikoak, eta jazarketa bat bitzarazi zuten Pauloren eta Barnabasen kontra, eta beren eremuetarik irazi zituzten.

51. Hekiek berriz, oinetako herrautsa hekien kontra jorik, Ikoniora goan ziren.

52. Dizipuluak bizkitartean, bozkarioz eta Izipiritu sainduaz betheak ziren.

XIV. KAP.

1. Bada, Ikonion gerthatu zen, Juduen sinagogara sarthu zirela biak batean, eta haletan mintzatu zirela, non Judu eta Greziar aralde handi batek hartu baitzuen sinheste.

2. Baina sinhesgogor gelditu ziren Juduek jauzarazi zituzten paganoen gogoak eta sumindu zituzten anaien kontra.

3. Luzez egotu ziren beraz, heraberik gabe harituz Jaunaren eginbideetan, eta Jaunak bere hitzari lekhukotasun egiten zioen, hekien bidez sendagailak eta mirakuluak eginez.

4. Hiriko jendea berriz, bi aldetara jarria zen, batzu Juduen alde, eta bertzeak Apostoluentzat.

5. Baina nola paganoak eta Juduek baitzabiltzan hekiei irain egin nahiz eta harrikatu beharrez;

6. Nabariturik, Apostoluek ihes egin zuten Likaoniako hirietara, Listrara, Derbera, eta inguruan aurkhintza guzira, eta han erantzuten zuten ebanjelioa.

7. Listran bazen gizon bat, oinetarik hebain izanez, bethi jarririk egoten zena, amaren sabela danik maingu zelakoz, egundaino ez baitzen ibili.

8. Harek aditu zuen mintzatzan Paulo. Paulok begiratu zioen, eta ikhusirik sinhesten zuela sendatuko zela,

9. Erran zioen goraki: Jaiki zaite oinen gainera xuxen. Eta jauzi zen, eta bazabilan.

10. Jendeek berriz, ikhusi zutenean Paulok egin zuena, altxatu zituzten mintzoak, likaonaraz erraten zutelarik: Jainkoak, gizon itxuraren azpian, gure gana jautsi dire.

11. Eta Barnabas, Jupiter deitzen zuten; eta Paulo, Merkurio; zeren hunek ekhartzen baitzuen hitza.

12. Jupiterren apheza ere, zeina hiri buruan baitzen, athearen aitzinera ethorri zen, zezenak eta khoroak ekharriz, eta populuarekin sakrifizioak nahi zituen egin.

13. Baina Apostoluek, Barnabasek eta Paulok, hori aditu zuteneko, beren soinekoak urratuak jendearen erdira jauzi ziren, oiher eginez

14. Eta erranez: Gizonak, zer hari zarete? Gu ere hilkizun gare, zuek bezalako gizonak, zuei erantzuten hari garenak, auza hutsal horietarik bihur zaitezten Jainko biziaren ganat, zeinak egin izan baititu zeru-luritsasoak, eta hekietan diren guziak;

15. Zeinak iragan mendeetan utzi baititu jendaiak oro beren bideetan ibiltzera.

16. Halabadere, ez du bere burua lekhukotasunik gabe utzi, ongia zerutik eginez, uriak eta fruitu aroak igorritz, hazkurria nasai emanez, eta bozkarioz bethez gure bihotzak.

17. Eta horrela mintzatu, etzuten nekhez baizik bitimak beren buruei imolatzetik baratu populua.



18. Bada, Antiokatik eta Ikoniotik ethorri ziren Judu batzu; eta bere-
turik populua, Paulo harrikaturik, hila zelakoan hiriz kanpora herrestatu
zuten.

19. Bainan dizipuluak ingurura bildurik, jaiki eta hirira sarthu zen, eta
biharamunean Derbera goan zen Barnabasekin.

20. Eta hiri hari erantzunik ebanjelioa, eta hainitz jende argitu ondo-
an, itzuli ziren Listrara, Ikoniora eta Antiokiara.

21. Dizipuluak gogoak hazkartuz, eta fedean irautera berotuz, zeren-
eta asko hesturen artetik Jainkoaren erresuman behar baikare sarthu.

22. Eta eliza bakhotxean aphezak ezarri ondoan, eta barur eta othoi-
tzetan egonik, gomendatu zituzten Jaunari, zeinaren baithan hartu bai-
tzuten sinheste.

23. Gero Pisidia gaindi ethorri ziren Panphiliara,

24. Eta Perjen erantzunik Jaunaren hitza, jautsi ziren Ataliara.

25. Handik itsasoz goan ziren Antiokiara, hiri hartara zeintarik igo-
rriak izan baitziren Jainkoaren graziara, egin zuten lanerakotzat.

26. Haratu ondoan berriz, eta Eliza bilarazirik, erran zituzten zenba-
teko gauzak egin zituen Jainkoak hekiekin bidez, eta nola jendaiei ideki
zuen fedearan athea.

27. Eta han dizipuluekin egotu ziren ez ephe laburra.

XV. KAP.

1. Bada, Judeatik jausten ziren batzuek, irakhasmen hau ematen zio-
ten anaiei: Baldin Moisesen legearen arabera ingurephaiten ez bazarete,
ezin salba zaitezket.

2. Nola beraz hazkarki ihardetsi baitzioten Paulok eta Barnabasek,
xedatua izan zen Paulo eta Barnabas, eta bertzeetarik ere zenbait, gauza
hortaz goanen zirela Jerusalemera Apostoluen eta aphezen gana.

3. Elizakoek beraz hiritik lagundurik, Phenizia eta Samaria gaindi ira-
gaiten ziren, jendaien bihurpenaren berria emanez, eta bozkario handitan
ezartzen zituzten anaia oro.

4. Aldiz, Jerusalemera ethorri zirenean, berria emanez zenbateko
gauzak egin zituen Jainkoak hekiekin, beren ganat hartu zituzten Elizak,
Apostoluek eta zaharrek.

5. Bada, Farisauen aldebandatikako sinhestun zenbait jaiki ziren, zio-
telarik, premia zela ingurebak zitezen paganoetarikakoak, eta manatu
behar zitziotela halaber iduk zezaten Moisesen legea.

6. Apostoluak eta zaharrak bildu ziren ikhusteko zer egin behar zen
gauza horren gainean.

7. Eta hortaz ongi bilhatu zirenean, Piarresak xutiturik erran zioten:
Anaiak, badakizue Jainkoak aspaldi danik gure artean hautu egin duela,
jendaiek ene ahotik adi dezaten Ebanjelioko hitza, eta har dezaten sin-
heste.

8. Eta bihotzetako berri dakien Jainkoak, lekhukotasun egin izan du,
hekiei guri bezala emanez Izpiritu saildua;

9. Eta hekiekin bihotzak fedeaz garbituz, ez du egin hekiekin eta gure
artean niholazko berezkuntzarik.

10. Orain beraz, zergatik frogetan ezartzen duzue Jainkoa, ez gure
arbasoek ez guk ezin jasan dugun uztarri bat dizipuluak lephoetara ema-
nez?

11. Bainan Jesu-Kristo Jaunari esker, salba uste dugu, hala-nola
hekiekin ere.

12. Bada, bilkhua oro ixilik gelditu zen, eta entzuten zituzten
Barnabas eta Paulo, zeinek ezagutarazten baitziozkaten nolako mirakulu
eta sendagailak jendaien artean hekiekin bidez egin zituen Jainkoak.

13. Eta ixildu zirenean, Jakobe mintzatu zen zioelarik: Anaiak,
entzun nezazue.

14. Simonek xeheki erran du, nola Jainkoak begiratu duen hastetik,
bere izenari jendaien artetik bereztekotzat populu bat.

15. Eta hortara bat daude profeten erranak, iskribatua den bezala:

16. Bihurturen naiz gero, eta berriz altxaturen dut Dabiden etxe ero-
ria; osaturen ditut zathi urratuak, eta altxaturen dut hura;

17. Bilha dezaten Jauna gainerako gizonek eta jendaia guziek zeinen
gainera deithua baita ene izena, dio horiek egiten dituen Jaunak.

18. Jaunak egundainotik ezagutzen du bere obra.

19. Hargatik dadukat nik; khexurik ez dela emateko jendaietarik
Jaunaren ganat itzultzen direnei;

20. Bainan iskribatu behar zaiotela, begira ditezen idoletan khutsatze-
tik, lohikeria, haragi itho eta odoletarik.

21. Alabainan beihala danik Moisesek hiri bakhotxean baditu ezagu-
tarazten dutenak sinagogetan, zeinetan irakurtzen baita larunbat oroz.

22. Orduan Apostolu eta zaharren gogarako izatu zen Eliza guziare-
kin, beren artean gizon zenbaiten hautatzea, eta Paulorekin eta
Barnabasekin Antiokiara bidaltzea Juda, izengoitiz Barsabas, eta Silas,
anaien artean lehenbizikoak zirenak,

23. Hekiekin hau iskribatzen zutelarik: Apostoluek eta anaia zaharrek
Antiokian, Sirian eta Zilizian diren jendaietarikako anaiei, agur.



24. Nabarituak baikare, gutarikako anaia batzuek nahasi zaituztetela beren solasez, asaldaturaz zuen arimak, guk manatu izan gabetarik;
25. Elkhar gana bildurik egotu ondoan, gure gogarako izatu da hautatzea gizonak eta zuen gana bidaltzea hekiek, Paulo eta Barnabas xitezkoekin,
26. Zeinak baitire gizon batzu beren biziak eskaini dituztenak Jesu-Kristo gure Jaunaren izena gatik.
27. Bidali darozkitzuegu beraz Juda eta Silas, zeinek gauza berak hitzez erranen baitarozkitzue.
28. Alabainan iduritu zaio Izpiritu sainduari eta guri ere bai, bertze eginbiderik gainera etzaitzuela eman behar, baizik-ere premiazko haukiek:
29. Begira zaitezten idolei imolatu gauzetarik, odoletik, haragi ithotik eta lohikeriatik, zeinetarik zuen buruak zainduz ontsa eginen baituzue. Izan ongi.
30. Bidaliak zirenak beraz Antiokiara jautsi ziren, eta sinhestunak bilarazirik, eman zioten gutuna.
31. Bozkarioz eta gozakariz bethe ziren, hura irakurtu zutenean.
32. Aldiz Judak eta Silasek, zeinak berak ere profetak baitziren, anaiei asko solas onez gozakari eman zioten, eta hazkartu zituzten.
33. Hein bat han egotu ziren ondoan berriz, anaiek bakean igorri zituzten beren bidaltzaileen gana.
34. Bada, Silasi ongi iduritu zitzaioen han gelditzea; Juda beraz Jerusalemara bihurtu zen baxharrik.
35. Paulo berriz eta Barnabas Antiokian zaudezen, Jaunaren hitza irakhasten eta bertze asko lagunekin irakhasten zutelarik.
36. Bada, handik zenbait egunen buruan, Barnabasi erran zioen Paulok: Goazen berriz anaiei ikhustera Jaunaren hitza erantzun izan dugun hiri guziak gairi, hean nola othe diren.
37. Barnabasek aldiz berekin hartu nahi zuen Joanes, Mark deitzen zutena.
38. Paulok ordean erraten zioen etzena laguntzat onhesteko hekien ganik Panphilia danik gibelerat egin zuen gizona, eta hekiekin lanera goan etzena.
39. Horren gainean makhurtu ziren, haletan non elkharren ganik berezi baitziren; eta Mark harturik, Barnabasek itsasoz egin zuen Ziprora.
40. Aldiz, Paulok hautatu zuen Silas, eta bideari eman zen, anaiek Jainkoaren graziara igorririk.
41. Holetan Siria eta Zilizia gairi bazabilan, Elizak gogortuz, eta Apostoluen eta zaharren manamenduak begiratzea manatu.

XVI. KAP.

1. Bada, Derbera eta Listrara heldu izan zen. Eta hara dizipulu bat han bazela, Timotheo deitzen zena, emazteki Judu fededun baten eta aita pagano baten semea.
2. Listran eta Ikonion ziren anaiek aithor ona egiten zuten hartaz.
3. Paulok nahi izan zuen berekin eraman; eta harturik ingurebaki zuen, aurkhintza hekietako Juduen ariaz; bazakiten ezik orok paganoa zela haren aita.
4. Bada, hiriz hiri ibiliz, hangoei begiratzera ematen ziozkaten Apostoluen eta Jerusalemen ziren zaharren ganikako erabakiak.
5. Eta horreletan fedean gogortzen ziren Elizak, eta egunetik egunera usutzenago ziren.
6. Bainan Frisia eta Galaziako aurkhintzak iragaiten zituztelarik, Izpiritu sainduak debekatu zioten Asian erantzutea Jaunaren hitza.
7. Bada, Misiara ethorri ondoan, Bithiniara hari ziren, eta Jesusen Izpirituak etzituen utzi.
8. Misia iragan zutenean beraz, Troadera jautsi ziren;
9. Eta gabaz ikhuspen bat agertu zitzaioen Paulori: Mazedoniar gizon bat xutik zagokion, othoizka, eta erranez: Mazedoniara iraganez, iguzu laguntza.
10. Ikhuspen hori izatu zueneko beraz, berehala bilhatu ginduen Mazedoniara goatea, Jainkoak hangoei ebanjelioaren ematera deithu gintuelakoan.
11. Horren gainean, Troadetik itsasoz xuxen ethorri ginen Samothraziara, eta biharamunean Naplesera;
12. Eta handik Filipesera, zeina baita Mazedoniako aurkhintza hartako lehenbiziko hiria eta kolonia. Hiri hartan berriz, zer egin elkharren artean egotu ginen zenbait egunez.
13. Larunbat egunean aldiz, ilkhi ginen athez kanpo ibai aldera, iduri baitzuen han zela othoitzeko lekhu; eta jarririk solasean ginaudezen bildu ziren emaztekiekin.
14. Thiatirako emazteki purpuragin bat, Lidia deitzen zena, eta Jainkoa ohoratzen zuena, aditzen egotu zen; Jainkoak ideki zuen haren bihotza Pauloren solasen entzuteko.
15. Bathaiatuak izan zirenean beraz hura eta haren etxeokak, othoitz hau egin zarokun: Iduri bazaitzue Jainkoaren alderat zin nagoela, sar eta egon zaitezte ene etxean. Eta bortxatu gintuen.



16. Bada, othoitzera gindoazelarik, gurekin buruz buru egitera gertatu zen ithon izpiritua zuen neskatxa bat, zeinak, asmatzen hariz, irabazi handia bere nausiei ematen baitzioten.

17. Pauloren eta gure ondotik jarraiki zen, oihu egiten zuelarik eta erraten: Gizon haukiek dire Jainko guziz goraren zerbitzari batzu, salbamenduko bidea erantzuten darotzuetenak.

18. Bada, asko egunez egin zuen hori. Bainan khexatzen baitzen Paulo, itzulirik izpirituari erran zioen: Jesu-Kristoren izenean manatzen daiat ilkhi hadien horren baitharik. Eta ordu berean ilkhi zen.

19. Neskatxaren nausiek ordean ikhusten baitzuten galdu zirela hekien irabaziko pheskizak, Paulori eta Silasi lothurik, plazara eraman zituzten buruzagien aitzinera;

20. Eta kargudunei erakharririk, erran zuten: Gizon haukiek nahastentzute gure hiria, Juduak ere dire;

21. Eta bizi molde bat erantzuten dute, hartzea eta begiratzea haizu etzaikuna, Erromarrak garen bezala.

22. Eta populuak hekien kontra laster egin zuen; kargudunek urrara zi zaroetzten soinekoak, eta azota zetzazten eman zuten manua.

23. Eta zauriz bethe ondoan, preso igorri zituzten, eta zainei manatu, ongi zaint zetzazten.

24. Holako manuaren ganean, presondegizainak barneko xoxan ezarri zituen, eta oinak zur batez tinkatu ziozkaten.

25. Bada, gauherdi ganean, Paulok eta Silasek, othoitzean hariz, laudatzen zuten Jainkoa; eta presondegian zirenek aditzen zituzten.

26. Bat-batean berriz, lur ikhara handi bat egin zen, haletan non presondegiaren asentuak khordokatzen baitziren. Eta hanbatekin zabaldu ziren atheak oro, eta guzien lokharriak zartatu.

27. Aldiz, presondegizaina atzarri zen, eta ikhustearekin presondegiako atheak zabalduak, ezpata biluzirik, hil nahi zuen bere burua, presonierek ihes egin zutelakoan.

28. Bainan Paulok oihu handi bat eginez erran zioen: Minik ez egin zure buruari, ezen hemen gare guziak.

29. Eta argia galdaturik, sarthu zen gizona; eta guzia ikharan, Pauloren eta Silasen oinetara erori zen;

30. Ilkhiarazi zituen kanporat, eta erran zaroeten: Jaunak, zer egin behar dut salbatua izateko?

31. Eta ihardetsi zuten: Jesus Jaunaren baithan sinhetsazu, eta zu eta zure etxeakoak salbatuak izanen zarete.

32. Eta hari eta haren etxeo guziei erantzun zaroeten Jaunaren hitza.

33. Eta presondegizainak hartu zituen gabazko oren berean, garbitu ziozkaten beren zauriak, eta berehala bathaiatua izan zen bere etxeo guziekin.

34. Gero, bere etxerat eramanik, mahaina ezarri zioten aitzinean; eta boztu ziren hura eta haren etxeoak, Jainkoaren baithan sinheste harturik.

35. Argitu zenean, kargudunek guardiak erratera bidali zituzten: Utzatu, gizon horiek.

36. Presondegizainak aldiz, Paulori eman zioen berri hori: Kargudunek igorri dute zuen uzteko manua; orai beraz ilkhirik zoazte bakean.

37. Bainan guardiei erran zioten Paulok: Agerian jorik, preso ezarri gaituzte gu Erromar gizonak; eta orai ixilean atheratzen gaituztete? Ez holakorik; bainan ethor beitez,

38. Eta berek athera begaitzazte. Guardiek beraz kargudunei eraman ziozkaten solas horiek. Eta hekiek izitu ziren, Erromarrak zirela aditurik;

39. Eta ethorri ondoan, errekeitu zituzten, eta kanporat ematean othoiztu zituzten hiritik goan zitezen.

40. Orduan presondegitik atheraturik, Lidiaren etxera sarthu ziren; ikhusi zituzten anaiak, gozakari eman zaroeten, eta gero abiatu ziren.

XVII. KAP.

1. Bada, Anphilipolisen eta Apolonian gaindi ibili ondoan, ethorri ziren Thesalonikara, eta han bazen Juduen sinagoga bat.

2. Ohi zuen bezala hekietara sarthu zen Paulo, et hirur larunbatez Iskriturez solas eman zioten,

3. Erakhutsiz eta adiaraziz Kristok jasan behar zuela: eta nik ezagutarazten darotzuedana, hura da Kristo.

4. Eta hekietarik, Paulori eta Silasi iratxiki ziren sinheste hartu zuten zenbait, eta Jainkoa adoratzen zuten paganoetarikako oste handi bat, eta emazteki aitoren alabetarik ere ez guti.

5. Bainan bekhaizgotan sarthurik, eta aphaleko jendetik gizon tzar batzu harturik, Juduek bildu zituzten murruka eta asaldu eman zioten hiriari; eta Jasonen etxera ethorriarik, Paulo eta Solas populuaren aitzinera eraman beharrez zabilizan.

6. Bainan nola ez baitzituzten atzeman, Jason eta anaietarik zenbait zaramatzaten hiriko buruzagien aitzinera, oihu eginez: Haukiek dire hiria asaldatzen dutenak; haukiek dire hunat ethorri,



7. Jasek bere ganat hartu ditu, eta haukiek oro Zesarren erabakien kontra dabilta, erranez badela bertze errege bat, Jesus.

8. Horrela subermatu zituzten populua eta horiek aditzen zituzten hiriko aitzindariak.

9. Eta Jasonen eta bertzeen ganik bermeak hartu-eta, utzi zituzten.

10. Anaiek berriz, berehala gabaz Bereara igorri zituzten Paulo eta Silas. Harat heldu izan zirenean, haukiek sarthu ziren Juduen sinagogan.

11. Bada, Bereako Juduak gizonagoak ziren Thesalonikan direnak baino; lehia handirekin onhetsi zuten hitza, Iskriturak egun oroz ikhar-tzen zituztelarik, hean hala othe ziren gauzak.

12. Eta sinheste eman zuten hekietarik, eta emazteki pagano abera-tsetarik haitzek, eta gizonetarik ez gutik.

13. Bainan Thesalonikan diren Juduek jakin zutenean, Paulok Berean ere erantzun zuela Jainkoaren hitza, harat goan ziren populua suber-matzera eta nahastera.

14. Orduan berehala anaiek igorri zuten Paulo, zihoala itsas-bazte-rreaino; han gelditu ziren berriz, Solas eta Timotheo.

15. Aldiz Paulo laguntzen zutenek, Atheneseraino eraman zuten; eta haren ganik Silasentzat eta Timotheorentzat mezua harturik, ahalik laste-rena ethor zitezela haren gana, gibelerat goan ziren.

16. Bada, Athenesen hekien begira zagoelarik, Paulori bere baitan khexatzen zitzaioen gogoa, hiri hura ikhustean jainko-aizunei mana.

17. Sinagogan beraz Juduekin eta Jainkoa adoratzeko zutenekin, eta plazan, han gerthatzen zirenekin hari zen egun oroz ihardukika.

18. Baziren berriz, zenbait filosofo Epikurotiar eta Estoiziar harekin ihardukika haritzen zirenak; eta batzuek zioten: Zer derasa elhuntu zi horrek? Bertze batzuek aldiz: Jainko berri erantzule bat iduri du; zeren Jesus eta hiletarik biztea ezagutarazten baitzuten.

19. Eta harturik, Areopagora eraman zuten erraten zutelarik: Jakin dezakegu zer den zuk aiphatzen duzun irakhaspen berri hori?

20. Ezen gure beharrietara ekhartzen ditutzu halako gauza berri batzu: nahi ginduke beraz jakin zer diren.

21. (Bada, Athenestar guziek eta han egoten ziren arrotzek etzuten deusere bertze lanik egiten, berri erraten edo aditzen haritzea baizik.)

22. Paulok beraz Areopagoaren erdian xutik, erran zuen: Athenestar gizonak, gauza guzietan jainkozaleegi bezala iduritzen zarozkidate.

23. Iragaitan ezik eta zuen jainkomoldeak ikhustean, aldare bat ere aurkhitu izan dut, zeintan iskribatua baitzen: Ezagutugabeko Jainkoari.

Beraz ezagutu gabe adoratzeko duzuen hura ezagutarazten darotzuet orai nik.

24. Mundua eta munduan diren gauza guziak egin dituen Jainkoa, zeru-lurren Jauna den bezala, ez da eskuz eginekako tenploetan egoten,

25. Ez-eta ez da gizonen lanez ohoratzen, zer baiten eskas balitz bezala noiz-ere berak guzietan ematen baitiozkate bizia, hatsa eta gainera-koak oro.

26. Baten ganik gizate guzia sorrarazi du, lurraren hedadura guzian egon dadientzat, xedatzen ziozkatelarik beren iraupeneko mugak, eta egon-lekhuetako zedarriak,

27. Bilha dezaten Jainkoa, hean atzemanen eta aurkhituen duten, nahiz ez dugun bakhotxaren ganik urrun;

28. Ezen haren baitan gare bizi, eta higitzen, eta gare geroni; zuen bertsulari batzuek erran duten bezala: Jainkoaren beraren ganikako iraul-gia gare.

29. Beraz Jainkoaren ganikako iraulgia garen ber, ez dugu uste izateko, gizonaren antzeak eta asmuak moldatu urhe, zilhar edo harri baten iduriko dela Jainkoaren izantza.

30. Eta horrelako jakitate eskaseko mendeez nardaturik, Jainkoak orai gizonen erantzuten diote, toki orotan guziak urrikitako eginkarietara ditezten eror;

31. Zeren berezi baitu eguna, zeintan zuzentasunaren arabera juiatu-ren baitu mundua, hortakotzat hautatu duen gizonaren bidez, sinhesteko aria guzietan eman ondoan, hura hiletarik biztuz.

32. Bada, hilen bizteko solasa aditu zutenean, irriz abiatu ziren batzu; bertzeek berriz, erran zuten: Horren gainean bertze aldi batez entzun zaitugu.

33. Horrela ilkhi zen Paulo hekien erditik.

34. Bainan gizon zenbait haren gana bildu ziren, sinheste hartu baitzuten; hekietan zen Denis Areopagotarra ere, eta Damaris deitzen zen emazteki bat, eta bertze batzu hekiekin.

XVIII. KAP.

1. Paulo ilkhi zen gero Athenesetik, eta Korinthora goan zen.

2. Eta aurkhiturik Akila deitzen zen Judu bat, ethorkiz Pontoarra, eta Italiatik berriki ethorria bere emazte Prizilarekin (Klaudiok Erromatik manatu baitzuten Judu guziak) hekien gana bildu zen.

3. Eta nola hekien ofizio berekoa baitzen, hekien etxean egoten eta lanean hari zen: bada, olhaginak ziren ofizioz.



4. Eta larunbat oroz sinagogan mintzaten zen, Jesus Jaunaren izena aiphatuz, eta sinhestetan sarrarazten zituen Juduak eta Greziarrak ere.
5. Aldiz, Mazedoniatik ethorri zirenean Solas eta Timotheo, hitzari jarraiki zen Paulo, Jesus Kristo zela Juduei lekukotasun eginez.
6. Baina bihurtzen baitziren Juduak eta burhoka hari, Paulok bere soinekoak iharrosiz, erran zioten: Zuen gain zuen odola, garbi naiz ni, oraidanik paganoetara banoha.
7. Eta handik goanik, sarthu zen Tito Justo deitzen zen Jainkoaren adoratzaile baten etxean, zeina baitzen sinagogari iratxikia.
8. Sinagogako buruzagiak berriz, Krispok, bere etxe guziarekin sinhetsi zuen Jaunaren baithan; eta Korinthoar hainitzek ere aditurik sinhesten zuten eta bathaiatzen ziren.
9. Bada, Jaunak gabaz ikhuspen batean erran zioen Paulori: Ez izan beldurrik, baina mantza zaitte, eta ez egon ixilik;
10. Zeren ni zurekin bainaiz; eta nihor etzaitzu bidegabe egitera ethorriko, hiri huntan baitut populu handi bat enea.
11. Han egotu zen beraz hemezortzi hilabete, irakhatsiz Jainkoaren hitza.
12. Bada, Galion zelarik Akaiako kontsulorde, Juduak gogo batean jaiki ziren Pauloren kontra, eta haren tribunalaren aitzinera eraman zuten,
13. Ziotelarik: Hunek jendeak biltzen ditu legearen kontra den bezala Jainkoaren adoratzera.
14. Aldiz ahoaren idekitzera abiatzarekin Paulo, Galionek Juduei erran zioten: Baldin zerbait bidegabe edo egitate gaixtoz solas balitz, oi Judear gizonak, entzun zintzazketet ongi.
15. Baina hitzez, izenez eta zuen legeaz balin bada, zeronek ikhuspen duzue; ez dut ezen holakoen juie izan nahi.
16. Eta tribunaletik eragin zioten.
17. Orduan guziek batean harturik Sosthenes sinagogako buruzagia, jotzen zuten tribunal aitzinean, eta Galionek etzuen hekietaz batere ardurarik.
18. Paulo berriz, han egotu ondoan asko egun oraino, anaiei agur eginik, itsasoz Siriara goan zen (eta Prizila eta Akita harekin ziren); eta burua murriztu zuen Zenkreatan, ezen hala zuen botua.
19. Eta Ephesorat ethorri, eta hekiek han utzi zituen. Aldiz berak, sinagogara goanez, Juduekin ihardukitzen zuen.
20. Othoiztu zuten bada luzekiago hekiekin egon zadien; etzuen onhetsi ordean,

21. Baina agurrak eginik eta erranik: Berriz zuen ganat itzuliko naiz Jainkoak nahi balin badu; goan zen Ephesotik.
22. Eta Zesarean leihorrera jautsirik, Jerusalemara igan zen, eta Elizari agur eginik, Antiokiara goan zen.
23. Han denbora aphur bat eman ondoan, bideari lothu zen, lerroan Galaziako eta Frisiako eremuak gaindi ibiliz, dizipulu guziak fedean gogortuz.
24. Bada, Apolon deitzen zuten Judu bat, ethorkiz Aletsandriara, eta Iskrituretan jakina, ethorri zen Ephesora.
25. Jaunaren bidean argitua zen; izpiritu khartsuarekin mintzaten zen, eta arhatsuki irakhasten zituen Jesusi darontzonak, Joanesen bathaioaz baizik etzelarik oraino jakintsun.
26. Heraberik gabe abiatu zen beraz sinagogan mintzaten. Prizilak eta Akilak aditu zutenean, hartu eta hobeki argitu zuten Jaunaren bidez.
27. Eta nola Akaiara goan nahi baitzen, anaiek berotu zuten eta iskribatu zioten dizipuluei, Apoloni egin zezoten ongi-ethorri. Heldu izan zen ondoan, sinhestunei hainitz baliatu zitzaizoten.
28. Ezik guzien aitzinean indar handirekin Juduei garaia eramaten zioten, Iskrituretarik erakhutsiz Kristo zela Jesus.

XIX. KAP.

1. Bada, Korinthon zelarik Apolon, gerthatu zen Ephesora ethorri zela Paulo gainaldeko ephaitzak iraganik, eta atzeman zituela dizipulu zenbait,
2. Eta erran zioten: Sinheste hartu duzuenek izatu duzue Izpiritu saindua? Hekiek berriz, ihardetsi zioten: Ez dugu entzun badenez ere Izpiritu saindua.
3. Harek aldiz erran zuen: Zer bathaioz zarete beraz bathaiatuak? Ihardetsi zuten: Joanesen bathaioaz.
4. Orduan Paulok erran zuen: Joanesek bathaiatu izan du populua urrikizko bathaioaz, zioelarik, sinhets zezatela haren ondolik ethortzekoa zenaren baithan, erran nahi Jesusen baithan.
5. Horiek aditu ondoan, bathaiatuak izan ziren Jesus Jaunaren izenean.
6. Eta Paulok eskuak ganean ezarri ziozkatenean, Izpiritu saindua hekien gainera jautsi zen, eta mintzo ziren asko mintzaiaz, eta profetisatzen zuten.
7. Bada, oro hamabi gizonen ingurua ziren.



8. Berriz, sinagoga goanez, Paulo heraberik gabe mintzatu zen hirur hilabetez, Juduekin ihardukiz eta Jainkoaren erresumari darontzotenen sinheste harraraziz.

9. Bainan nola gogortzen baitziren zenbait, eta ez baitzuten sinhesten, guzien aitzinean Jaunaren bidez ahapaldika mintzatuz, hekietarik gibelatu zen Paulo, dizipuluak berezi zituen, eta egun oroz Tirano deitzen zen baten etxean irakhasten hari zen.

10. Bada, horrek irauñ zuen bi urthez, haletan non Asian egoten ziren Judu eta pagano guziek aditu baitzuten Jaunaren hitza.

11. Eta Jainkoak Pauloren bidez egiten zituen sendagaila handienak;

12. Hartarainokoa non, haren gorphutzetik mokanesak eta gerrikoak erien gainera eramaten baitzituzten, eta hekien ganik goaten ziren gaitzak, eta izpiritu gaixtoak ilkhitzen.

13. Bada, tokiz toki zabiltzan Judu debru irazleatarik ere zenbait abiatu ziren izpiritu gaixtoak zituztenen gainera deitzen Jesus Jaunaren izena, erraten zutelarik: Paulok erantzuten duen Jesusez errekeitzen zaitzuten.

14. Horren egileak berriz, Seba Juduaren, aphez nausi baten zazpi semeak ziren.

15. Bainan izpiritu gaixtoak ihardestean, erran zioten: Ezagutzen dut Jesus, eta Paulo nor den badakit; zuek ordean nor zarete?

16. Eta gizona, zeinaren baithan baitzen debru bat guziz gaixtoa, hekien gainera jauzi zen, eta bia atzemanik, hain ongi hezi zituen, non biluzgorririk eta odoletan ihes egin baitzuten etxe hartarik.

17. Bada, Epheson egoten ziren Judu eta pagano guziez jakina izan zen hori, eta izialdura erori zen hekien orenen gainera, eta goresten zuten Jesus Jaunaren izena.

18. Eta sinhestunetarik hainitz heldu ziren beren eginkarien erratera eta aithortzera.

19. Berriz hekietarik, gaizkinkeriez argitu nahiz ibili ziren hainitzek, beren liburuak ekharri eta guzien aitzinean erre zituzten; eta khondaturik liburu hekien balioa, atzeman zen berrogoi eta hamar mila denariotara igaiten zela.

20. Horreletan hazkarki hedatzen eta gogortzen zen Jainkoaren hitza.

21. Bada, horiek egin ondoan, Paulok, Izpirituaren eragintzaz burutan hartu zuen, Mazedonia eta Akaia gaindi Jerusalemara goatea, zioelarik: Hango itzulia eginik, Erroma ere ikhusi behar dut.

22. Mazedoniara igorri zituen beraz bere zerbitzarietarik bia, Timotheo eta Erasto, eta bere Asian gelditu zen oraino behin.

23. Egun hekietan berriz, gerthatu zen nahasmendu bat ez aphurra Jaunaren biderei darontzoten gauzetan.

24. Ezik Demetrio deitzen zen zilhargin batek, Dianari zilharrezko tenplotto batzu eginez, ofizialei ematen zioten irabazbide bat handia.

25. Hekiek eta ofizio berekoak bilarazirik, erran zioten: Gizonak, badakizue ofizio huntarik dugula gure irabazia;

26. Ikhusten eta aditzen duzue, Paulo horrek oste gaitza duela gibelatzen, ez Epheson bakharririk, bainan oraino Asia guzian abantzu, erranez: Eskuz egiten diren gauzak ez dire jainko.

27. Bada, ez da bakharririk beldur izateko arbuio tara eror dadien gure ofizioa, bainan oraino ezdeusentzat idukia izan dadien Diana handia; eta Asia guziak eta munduak ohoratzen duenaren maiestatea ere ezeztatzen hasiko da.

28. Hori aditurik, hasarrez bethe ziren, eta oihuka hasi, ziotelarik: Ephesoarren Diana handia.

29. Eta asalduz bethe zen hiri guzia; eta harrapaturik bi Mazedoniar Pauloren lagunak, Gaio eta Aristarko, guziek batean triatura oldarrean jo zuten.

30. Paulok berriz, populuaren erdira nahi baitzuen sarthu, dizipuluek etzuten utzi.

31. Asiako buruzagietarik ere haren adiskide zuen batzuek othoizka gaztatu zioten etzadien ager triatura.

32. Bizkitartean batzuek hula egiten zuten oihu eta bertzeek hala; ezen bilkhu nahasia zen, eta gehienek zertaz bilduak zuen etzakiten.

33. Juduek orduan, sorka aitzinaraziz Alexandro, builaren erditik atheratu zuten. Alexandrok berriz, esku kheinuka galdatzen zuen ixil zitezten, populuari nahi baitzioen eman garbitasun zerbait.

34. Judua zela ezagutu zuteneko, guziak batean oihuka haritu ziren bi orenen heina: Ephesoarren Diana handia.

35. Eta iskribauak eztiarazi zuenean jendea, erran zuen: Ephesoar gizonak, nor da ez dakiena, Ephesoko hiria Diana handi eta Jupiterren umearen adoratzaile dela?

36. Hori ezin ukhatua denaz geroztik, premia da geldirik egon zaitzeten eta zuhur ez denik ez dezazuen egin deusera.

37. Alabainan erakharri dituzue gizon haukiek ez direlarik hobendun ez sakrilioz ez burhoz zuen jainkosaren kontra.



38. Norbaitekin xuritzeko zerbait balin badute Demetriok eta horrekin diren langileek, juie bilkhuak egiten dire, badire kontsulordeak ere; hekien aitzinean jazar biozote batzuek bertzeei.

39. Aldiz, bertze zerbaiten ondoan bazabiltzate, zuzenbidezko bilkhu batean xuri daiteke.

40. Ezen orakoan beldur izateko dugu erran dizaguten bihurrialdi bat daramagula, estakururik batere ez dugunaz geroztik ekhar dezakegunik tarrapata hunen ariatzat. Eta horiek erran ondoan, igorri zuen bilkhu.

XX. KAP.

1. Bada, tarrapata gelditu ondoan, Paulok deithu zituen dizipuluak, eta solas onez beroturik hekiek, Mazedoniara goateko bideari lothu zen.

2. Gero, aurkhintza hekiek iragan zituenean, eta anaiak asko solasal-diz berotu, Greziara ethorri zen.

3. Han hirur hilabete eman ondoan, Siriara itsasoz goatekotas zelarrik, Juduek hedatu ziozkaten zelatak, eta burutan hartu zuen Mazedonia gandi bihurtzea.

4. Bada, lagun goan zitzaizkon Sopater, Pirho Berearraren semea; Aristarko eta Sekundo, Thesalonikarrak; Gaio Derbearra; Timotheo, Tikiko eta Trophimo Asiarrak.

5. Aitzinean goan baitziren horiek, iguriki gintuzten Troaden.

6. Guk berriz Airisetako egunen ondotik, itsasoa hartu ginduen Filipesen, eta bortz egunen buruko hekien gana heldu ginen Troadera, han egotu baikin zazi egun.

7. Bada, larunbatetik lehenbiziko egunean, ogiaren hausteko bilduak ginelarrik, Paulok ihardukitzen zuen dizipuluekin, eta biharamunean goatekoa baitzen, solasari gauherditaraino irauarazi zioen.

8. Eta argi hainitz baziren gu bilduak ginauden salhan.

9. Berriz, Utiko deitzen zuten gizon gazte bat, leiho baten gainean jarria zagoelarrik, logale handiak arthikitzen baitzuen Paulo mintzo zen artean, loak eramanik erori zen hirugarren selharutik beheiti, eta hila altxatu zuten.

10. Haren gana jautsirik, Paulo etzan zitzaioen gainera, eta besarkatu ondoan erran zuen: Ez asalda nihor, ezen berekin du bizia.

11. Gero, iganik hautsi zuen ogia, jan zuen eta argitzeraino solas egirik, horreletan abiatu zen bideari.

12. Bada, bizirik erakharri zuten gizon gaztea, eta hekien baithako gozakaria etzen aphurra izatu.

13. Guk berriz, untzirat iganik Asonera jo ginduen, handik hartu behar baikinduen Paulo; ezen hala manatu zuen, berak leihorrez nahi baitzuen egin bidea.

14. Asonen gutaratu zenean beraz, hura harturik Mitilenera goan ginen,

15. Eta handik urez Kioko parrera heldu izan ginen biharamunean; biharamunagoan jo ginduen Samosera, eta ondoko egunean Miletora ethorri ginen.

16. Ezen Paulok Epheso bazterrerat uzteko asmua zuen, Asian trikabiderik etzakioen gertha. Higitzen zen alabainan Jerusalem eman beharrez, ahal bazuen, Mendekoste eguna.

17. Miletotik beraz Ephesora igorririk, deithu zituen Elizako aphezak.

18. Haren ganat ethorri eta batera bildu zirenean, Paulok erran zioten: Asian sarthu naizen egunetik badakizue nola zuekin izatu naizen bethi,

19. Jauna zerbitzatu aphalguratasun osotan, nigarrekin, era Juduen zelatarrik gerthatu zaizkitan frogapenen erdian;

20. Nola ez dudan gorde zuentzat on zenik deusere, non ez darotzuedan ezagutarazi eta etzaituztedan argitu kanpoan eta barnetan;

21. Juduei eta paganoei erantzunez goraki Jainkoaren alderat urrikia, eta Jesu-Kristo gure Jaunaren ganat sinhestea.

22. Eta orai huna non izpirituaren lokharriaz hertsatua, Jerusalemeha nohan, jakin gabe han zer behar zaitan gerthatu,

23. Baizik-ere bideko hiri guzietan Izpiritu sainduak garbiki darotala erraten, burdinak eta hesturak daudela Jerusalemene goait.

24. Bainan den-gutienik ez naiz hekien beldur; ez dadukat ere ene bizia ene burua baino guphideago, bururatuko ditudan ber-bai ene urhatsa, bai-eta Jesus Jaunaren ganik hartu dudan hitzeko kargua, hura baita Jainkoaren graziazko Ebanjelioari lekhukotasun egitea.

25. Eta orai huna, nik badakit zuek orok zeinen erditik iragan bainaz erantzunez Jainkoaren erresuma, ene begithartea ez duzuela gehiago ikhusiren.

26. Hargatik egungo egunean zin egiten darotzuet, zuen guzien odoletik garbi naizela.

27. Ez naiz alabainan gibelatu zuei erantzutetik Jainkoaren xede osoa.

28. Atzarriak zaudezte beraz zuen buruei eta zuen arthalde guziari, haren gainean aphezpiku ezarri baitzaituzte Izpiritu sainduak, hotseman



diozozuen Jainkoaren Elizari zeinaren jabe bere odolaren gostuz egin izan baita.

29. Nik badakit, ni goan ondoan, arthaldea urrikari izanen ez duten otso harrapariak zuen artera sarthuko direla.

30. Zuetarik beretarik ere jaikiko dire gizonak, dizipuluak berengana beharrez tzarkerian mintzatuko direnak.

31. Hargatik erne zaudezte, gogoan idukiz, hirur urthez gauaz eta egunaz ez naizela baratu zuetarik bakhotxari nigarrekin atzar ematetik.

32. Eta orai gomendatzen zaituztet Jainkoari eta haren graziazko hitzari, Elizaren altxatzeko eta bere primantzan saildu guziekin pharte emateko ahala duenari.

33. Nihoren zilhar, urhe edo philden lehiarik ez dut izatu.

34. Zeronek lekhuko zarete, esku haukiek ni eta enekin zirenak behar ginduenaz mantenatu gaituztela.

35. Orotaz argitu zaituztet; mengoa delakoz hola lanean hariz herba-len laguntzea; eta Jesus Jaunaren hitzaz orhoitzea, harek erran du ezik: Emateaz zorion gehiago da ezenez hartzeaz.

36. Eta horiek erran-eta, belhaunikaturik othoitz egin zuen hekiekin orekin.

37. Orduan nigar marraskaz jarri ziren guziak, eta Paulori lephotik lothurik musu ematen zioten,

38. Bihozmin handia baitzuten, erran zaroten hitzaz, gehiago etzute-la ezen haren begitharterik ikhusiren. Eta untziraino lagundu zuten.

XXI. KAP.

1. Bada, hekien ganik berezi ginenetik, bide zuzenaz itsastatu ginen Kosera, biharamunean Erhodesera, eta handik Patarara.

2. Eta han aurkhitu baikinuden Pheniziara zihoan untzi bat, hartara iganik itsasoari eman ginen.

3. Zipro gainera agertzearekin, hura ezker utziz, Siriari buruz goan eta Tirrera heldu ginen; ezen untziak han utzi behar zuen karga.

4. Bada, dizipulu batzu aurkhiturik, han egotu ginen zazpi egun; hekiek, Izpirituaren eragintzaz Paulori erraten zioten, Jerusalemara etzadiela goan.

5. Egun hekien buruan abiatu bagindoazen, guziek lagunduz hiriz kanporaino beren haur eta emazteekin; eta itsas-hegian belhaunikaturik othoitz egin ginduen.

6. Eta elkharri osagarri on erranik, untzira igan ginen gu; hekiek berriz, etxalde itzuli ziren.

7. Itsasoko aldia eginik, jautsi ginen Tirretik Ptolemaidara; eta anaiei agur egitera goanik, egun bat egotu ginen hekiekin.

8. Biharamunean berriz, abiatu eta Zesareara heldu ginen. Eta Filipe ebanjelistaren etxean sarthurik (Filipe zazpietarik bat zen), haren baithan egotu ginen.

9. Bazituen lau alaba birjina, profetisatzen zutenak.

10. Eta nola luzatu baikinuden zenbait egun, Judeatik ethorri zen Agabo deitzen zuten profeta bat.

11. Gure ganat ethorri-eta, hartu zuen Pauloren gerrikoa, eta bere zangoak eta eskuak estekaturik, erran zuen: Hau dio Izpiritu sailduak: Juduek hunela estekatuko dute gerriko hunen jabea, eta paganoen eskue-tara emanen dute.

12. Hori aditu ginduenean, Paulo othoizten ginduen guk eta toki hartan zirenek etzadien Jerusalemara goan.

13. Orduan ihardetsi eta erran zuen: Zer hari zarete nigarrez eta ene bihotzari min ematen? Banago ezen, ez ezik estekatu izatera, bainan Jerusalem hiltzera ere Jesus Jaunaren izenaren gatik.

14. Eta nola ezin sinhetsaraz baikiniozokeen, baratu ginen, erraten ginduelarik: Jaunaren nahia egin bedi.

15. Egun hekien buruan xuxendurik Jerusalemara igan ginen.

16. Zesareako dizipuletarik ere gurekin ethorri ziren zenbait, berekin zakhartelarik aspaldiko dizipulu bat, Mnason Ziproarra, zeinaren etxean izan behar baikinuden leihorra.

17. Eta Jerusalemara ethorri ginenean, begithartez hartu gintuzten anaiek.

18. Biharamunean berriz, Paulo gurekin sartzen zen Jakoberen etxean, eta bildu ziren zahar guziak.

19. Paulok agurrak egin izan ziozkaten ondoan, xeheki erran zioten zer eta zer egin zituen Jainkoak haren ararteko z jendaien erdian.

20. Horiek aditurik handiesten zuten Jainkoa, eta Paulori erran zioten: Anaia, ikhusten duzu zenbat mila diren Juduen artean sinhetsi dutenak, eta guziak legearen aldera khartsu dire.

21. Bada, zutaz denaz adituak dire, jendaietan gaindi daudezen Juduei irakhasten diozutela Moisesi ukho egin diozoten, erranez ez dituztela beren semeak ingurebaki behar, eta berek ere ez dutela zeren bizi ohitzaren arabera.

22. Zer egin beraz? hoberenik da guzien bilaraztea; alabainan jakinen dute ethorria zarela.



23. Egizu bada guk erraten darotzuguna. Baditugu laur gizon botu bat beren gainean dutenak.

24. Hekiek harturik, hekiekin sainduets zaitezi, eta hekien gastuak egizkitzu, murriz detzazten beren buruak; eta guziek jakinen dute gezurak direla zutaz aditu dituztenak, baina legea begiratu zabiltzala zu ere.

25. Paganotarik sinheste hartu duten hekiez denaz, iskribatu diotegu, gure erabakia dela begira ditezen idoletarik, haragi imolatuetarik, odolletik, haragi ithotik eta lohikeriatik.

26. Paulok orduan lau gizonak harturik, biharamunean hekiekin bere burua xahutu ondoan, egin zuen tenploko sartzea, erantzuten zuelarik zein egunez akhabatuko ziren xahuketak, eta noiz egingen zen bakhotxarantzateko eskaintza.

27. Baina zazpi egunak iragaiten zirelarik, Asiako ziren Juduek, tenploan ikhusi zutenean, sumindu zuten populu guzia, eta eskua gainera eman zioten, oihu egiten zutelarik:

28. Hel, Israeldar gizonak; hau da populuaren, legearen eta toki hunen kontra orotan irakhasten hari den hura; eta gehiago denik, paganoak ere tenplora erakharririk, toki saindu hau khutsatu duena.

29. Ezen hirian harekin ikhusi baitzuten Trophimo Ephesoarra, uste zuten tenplora erakhari zuela Paulok.

30. Eta asalduen jarri zen hiri guzia, eta murruka bildu zen populua. Eta Paulo harturik, tenplotik kanporat herrestatzen zuten, eta atheak heresi ziren berehala.

31. Bada, hura hil beharrez zabiltzalarik, berria heldu zioten ezkar-dako buruzagiari, gainazpikatzen hari zela Jerusaleme guzia.

32. Harek berehala soldadoak eta ehuntariak harturik, Juduetara laster egin zuen. Hekiek ikhusi zutenean aitzindaria soldadoekin, Pauloren jotzetik baratu ziren.

33. Orduan hurbildurik hartu zuen aitzindariak; bi gathez amarra zezatela manatu zuen, eta galdatzen zuen hea nor zen eta zer egin zuen.

34. Baina jendepetik, batzuek hula, bertzeek hala oihu egiten zuten. Eta nola ez baitzezakeen argudioaren ariaz gerthurik jakin deusere, manatu zuen gaztelura eraman zezaten.

35. Eta mailetara heldu izan zenean Paulo, gerthatu zen soldadoek besoetan eraman behar izan zutela populutze gaitzaren ariaz.

36. Alabainan populu murrua jarraitzen zen oihu eginez: Hil zazu.

37. Eta gaztelura sartzerakoan, Paulok erran zioen buruzagiari: Haizu zait zuri hitz baten erratea? Harek ihardetsi zuen: Badakizu greziaraz mintzatzen?

38. Etzare zu, aitzin hortan buila bat jauzarazi eta mortura lau mila manduler eraman dituen Egiptoar hura?

39. Eta Paulok erran zioen: Judua naiz zinez, Tarso Ziliziakoa, hiri ezagutuko hiritarra. Baina utz nezazu othoi populuari mintzatzera.

40. Eta nola haizu eman baitzioen, Paulok mail burutik populuari eskuz kheinu egin zioen; eta oro ixildurik, hebrearaz hunela mintzatu zen:

XXII. KAP.

1. Anaiak eta aitak, adi zatzue, orai ematen darozkitzuedan ariak.

2. Aditu zutenean bada, hebrearaz mintzaten zitziatela, ixilago gelditu ziren oraino.

3. Eta erraten du: Ni naiz Judu bat, Tarso Ziliziakoan sorthua, hiri hartan hazia, Galamielen oinetan arbasoen, legeko garbitasunean argitua, legearen alderat khartsu, zuek oro egungo egunean bezala.

4. Heriotzeraino sinheste huni jazarri izan diot, gizonak eta emaztekiak estekatuz eta presondegieta arthikiz,

5. Lekhukotasun egiten darotadetan bezala aphez handiak eta zahar guziek, zeinen ganik gutunak izanik, Damaseko anaietara bainindohan, handik burdinetan erakhar netzan gaztigaraztekoztat.

6. Baina bidean nindohalarik, eta ordukoz Damasera hurbildua, eguerdirian gerthatu zen argi handi batek bet-betan inguratu ninduela;

7. Eta lurrerat eroririk aditu nuen mintzo bat erraten zarodana: Saul, Saul, zertako darotak jazartzen?

8. Nik berriz, ihardetsi nuen: Nor zare zu, Jauna? Eta erran zarotan: Ni nauk Jesus Nazarethkoa, zeinari jazartzen baitiok.

9. Eta enekin zirenek ikhusi zuten argia, baina etzuten aditu enekin ihardukitzen zuen mintzoa.

10. Eta erran nuen: Zer egingen dut, Jauna? Orduan Jaunak erran zarotan: Jaikirik hoa Damasera, eta han erranen zaik egin behar dukan guzia.

11. Eta nola ez bainuen ikhusten, itsutu ninduelakoz argi haren dir-dirak, lagunek eskutik eramanez heldu izan nintzen Damasera.

12. Bada, Ananias deitzen zen bat, legearen arabera gizona, hango Judu guziek lekhukotasun ematen ziotenaz,

13. Ethorri zen ene gana, eta hurbildurik erran zarotan: Saul anaia, begira zazu. Eta ordu berean begiratu nioen.

14. Eta erran zarotan: Gure arbasoen Jainkoak aitzinetik berezi zaitu, haren nahia ezagut, zuzena ikhus eta haren ahotikako hitza adi dezazun.



15. Ezen ikhusi eta aditu ditutzunez izanen zare gizon guzien aitzinean haren lekhuko.
16. Eta orai zertan zaude hor? Jaiki, bathaia, eta zure bekhatuetarik, Jaunaren izena deithuz, garbi zaitezi.
17. Bada, Jerusalemara bihurtu ondoan, eta tenploan othoitzean nindagoelarik, izpiritu jauzte bat gerthatu zitzaitan;
18. Eta ikhusi nuen Jauna, zeinak erraten baitzarodan: Higi zaita eta Jerusalemetik laster ilkhi; zeren ez baitute onhetsiko nitaz egiten duzun lekhukotasuna.
19. Eta erran nuen nik: Jauna, berek badakite ni nintzela, zure bait-han sinhesten dutenen preso ezarle eta sinagoetan zehatzaile;
20. Eta Eztebe zure lekhukoaren odola ixurtzen zenean, han nintzela ni, onhesten nuela haren heriotzea, eta haren hiltzaileen soinekoak nik zaintzen nituela.
21. Eta erran zarodan: Zoaz, zeren nik jendaietara bidaliko baitzaitut urrun.
22. Bada, hitz hortaraino entzuten bazauden, eta altxatu zuten mintzoa, ziotelarik: Khen lurretik horrelako gizona, ez du ezen bizia zilhegi.
23. Eta marrumaka, eta beren soinekoen arthikitzen, eta goiti herrauts igortzen hasi baitziren,
24. Buruzagiak manatu zuen gaztelura sar zezaten Paulo, azota eta estiran ezar zezaten, jakitekotzat zergatik egiten ziozkaten halako pata-rak.
25. Eta nola hede z tinkatu baitzuten, Paulok aldean zuen ehuntari bati erraten dio: Haizu othe zaitzue azotatzea Erromar hiritar bat eta kon-denatugabea?
26. Hori aditu zuenean, buruzagiari goan zitzaioen ehuntaria, eta jakintsun egin zuen, zioelarik: Zertara zoaz? ezen gizon hori Erromako hiritar da.
27. Orduan hurbildurik, Paulori erran zioen buruzagiak: Erradazu hean Erromako hiritar zaren? Eta harek ihardetsi zuen: Bai, hala naiz.
28. Eta buruzagiak erran zuen: Dirutze ederrari esker ardietsi dut hiritargo hori. Eta Paulok ihardetsi zuen: Ni berriz, sortzez naiz hala.
29. Haren estiratzeraz zoazenak beraz urrunduz zitzaizkon berehala. Buruzagia ere beldurtu zen jakin zuenean Erromako hiritarra zela, eta zeren hede z tinkatu baitzuen.
30. Biharamunean berriz, hobeki jakin nahiz hean zer ariaz jazartzen zioten Juduek, khendu ziozkan burdinak, eta manatu zuen bil zitezen

aphezak eta biltzar guzia; eta erakharririk Paulo, ezarri zuen hekien erdian.

XXIII. KAP.

1. Bada, Paulok biltzarraren gainera emanez begiak, erran zuen: Anaiak, orai arteo ene barneko zuzentasun bethean ibili naiz Jainkoaren aitzinean.
2. Horren gainean Ananias aphez handiak aldean zituenei manatu zioten mazelako bat eman ziozoten Paulori.
3. Paulok erran zioen orduan: Zu, Jainkoak joko zaitu, harrasi zuri-tua. Zer! legearen arabera ene juiatzeko jarria zare, eta legearen kontra manatzen duzu jo nezaten?
4. Eta han zirenek erran zuten: Jainkoaren aphez handia madarika-tzen duk?
5. Aldiz Paulok ihardetsi zuen: Anaiak, ez nakien aphez handia zela. Iskribatua da ezen: Ez duzu madarikaturen zure populuko buruzagia.
6. Bada, Paulok baitzakien, Saduzearrak zirela batzu, eta bertzeak Farisauak, biltzarraren erdian oi-hu egin zuen: Anaiak, Farisaua naiz eta Farisau semea, eta geroko igurikimenaren eta hilen biztearen ariaz naiz juiamendutan.
7. Eta horiek erran zituenean, makhurra sorthu zen Farisauen eta Saduzearren artean, eta bi aldetara jarri ziren guziak.
8. Saduzarrek diote ezen, ez berrizbiterik, ez Aingerurik, ez Izpiriturik ez dela; Farisauak aldiz aithortzen dute bata eta bertzea.
9. Bada argudio handi bat biztu zen. Farisau batzuek, jaikirik jazartzen zuten eta erraten: Gaizkirik gizon hunen baithan ez dugu aurkhi-tzen batere. Nork daki hean Izpiritu edo Aingeru bat mintzatu zaionez?
10. Eta nola gaiztu baitzen borroka, soldado buruzagiak, Paulo xeha-ka zezaten beldurrez, soldadoei manatu zioten, jautsirik har zezaten hekien erditik Paulo eta gaztelura eraman zezaten.
11. Ondoko gauean berriz, Paulori agerturik erran zioen Jaunak: Zaude sendorik; ezen nola Jerusalemen nitaz lekhukotasun bihurtu baitu-zu, hala egin behar duzu Erroman ere.
12. Bada, argitu zenean, elkharretara bildu ziren Juduetarik zenbait, eta botuz beren buruak lothu zituzten, ziotelarik, etzutela ez janen, ez edanen, Paulo hil zezaten arteo.
13. Eta zin-hartze horren egileak baziren berrogoiez goiti.



14. Apez nausietara eta zaharretara goan ziren, eta erran zaroeten: Botuz hartu ditugu gure buruak, Paulo hil dezagun arteo ez dugula deusere dastaturen.

15. Biltzarrarekin beraz orai zuek, zerbait gerthuagorik haren ganik jakiteko itxuran, soldadoen buruzagiari gaztia diozue, zuen aitzinera agerraraz dezan. Gu aldiz, haren hiltzera jarriak gaude zuetaratuko den baino lehen.

16. Nola ordean Pauloren arrebaren semeak jakin baitzuen zimarkua, goan eta gaztelura sarthurik, jakintsun egin zuen Paulo.

17. Paulok berriz, ehuntariarik bat deithurik, erran zioen: Buruzagiaren aitzinera eramazu gizon gazte hau, badu ezen argitasun zerbait hari emateko.

18. Ehuntariak harturik eraman zuen buruzagiaren gana, eta erran zuen: Paulo preso denak othoiztu nau zure aitzinera erakhar dezadan gizon gazte hau, zerbait baduelakoz zuri erran beharrik.

19. Buruzagiak eskutik bazterrerat eraman eta galdatu zioen: Zer argitasun duzu niri emateko?

20. Aldiz muthikoak ihardetsi zioen: Juduak hitzartuak dire zure othoizteko, Paulo biltzarraren aitzinera agerraraz dezazun bihar, zerbait gerthuagorik haren ganik jakin behar balute bezala.

21. Zuk ordean ez biatzatu sinhets; ezen hekietarik berrogoi gizon baino gehiago badire Paulo zelatatzen dutenak, beren buruak botuz harturik ez dutela ez janen ez edanen hura hil dezaten arteo; eta orai zuri agintzaren iguri, xuxenduak daude.

22. Buruzagiak igorri zuen beraz gizon gaztea, manaturik nihori etziotzon aipha ezagutarazi ziozkan gauzak.

23. Deithu zituen bi ehuntari eta erran zioten: Gabazko hirugarren oreneko aphain zatzue berrehun oinezko, hirur hogoi eta hamar zaldizko eta berrehun lantzadun, Zesareara goateko;

24. Eta zaldia xuxenatzue, Paulo gainean ezarririk, minik gabe eraman dezaten Feliz gobernadorearen gana.

25. (Beldurrak hartu zuen alabainan. Juduek etzezaten bedere ebats eta hil, eta berak jasan zezan gero bidegabe zerbait, diru izateko haritu balitz bezala.)

26. Eta gutun bat iskribatu zuen, hau zadukana: Klaudio Lisiasek, Feliz gobernadore guziz onari, agur.

27. Erromarra zela jakinik gizon hau, soldadoekin goanez atheratu dut Juduek atzeman eta hiltzera zaramatelarik.

28. Eta jakin nahiz zertaz jazartzen zioten, hekien biltzarrera eraman izan dut.

29. Aurkhitu dut beren legeko aria batzuez jazartzen ziotela, bainan heriotzea edo burdinak merezi duketen hobenetarik garbi.

30. Eta nola salhatua izan baitzait zelatak hedatzen diozkatela, zure gana igorri dut, jazarleei ere ezagutaraziz zure aitzinera athera dezaten beren erratekoa. Izan ongi.

31. Soldadoek beraz, manatua zutenaren arabera, Paulo harturik, gabaz eraman zuten Antipatridera.

32. Eta biharamunean, zaldizkoei utzirik, goan zitezen harekin, gaztelura itzuli ziren.

33. Zesareara heldu eta gutuna gobernadoreari eman ondoan, Paulo ere ezarri zuten haren aitzinean.

34. Gobernadoreak irakurtu eta galdatu ondoan zein herrialdetako zen, eta Ziliziarra zela jakinik,

35. Erran zioen: Zure jazarleak ethorri diren ondoan entzunen zaitut. Eta manatu zuen, Herodesen jauregian zain zezaten.

XXIV. KAP.

1. Bada, bortz egunen buruan jautsi zen Ananias aphez handia, zahar batzuekin, eta Tertulo zelako hizdun batekin, eta gobernadorearen aitzinera agertu ziren Pauloren kontra.

2. Eta Paulo deithua izanik, jazartzen abiatu zen Tertulo, zioelarik: Nola bake handitan zuri esker bizi baikare, eta makhur asko zure atzarritasunari esker baitire xuxentzen,

3. Hori aithortzen dugu bethi eta bazter orotan, oi Feliz guziz ona, eskerrik handienak bihurtuz.

4. Bainan etzaitzadan luzez iduk, othoizten zaitut aphurtto bat entzun gaitzatzun zure ohiko gozotasunarekin.

5. Gizon izurritzari hau atzeman dugu, lurreko bazter orotan builetan Judu guzien ezartzen hari, eta Nazarethiarren aldebandako itxindi.

6. Tenploa khutsatu beharrez ere ibili da; hartu eta gure legearen arabera nahi izan dugu juiatu.

7. Bainan Lisias, soldado ez kardako buruzagia, ethorri da, eta mut-hiritasun gaitzean khendu daroku eskuetarik,

8. Manatuz zure aitzinera ethorztezen horren jazarleak; horren beraren ganik, guk eratxikitzen diozkagun guziez argitu ahalko zare.

9. Horren gainera berriz, erran zuten Juduek ere hola zirela horiek oro.



10. Bada, gobernadoreak kheinu eginik mintza zadiela, Paulok ihardetsi zuen: Nola baitakit urthe asko haukietan populu hunen juie zarela, gogo sendoagoz xurituko dut ene burua.

11. Jakin dezazuke ezen ez duela hamabi egun baino gehiago, adoztera ethorri naizela Jerusalemara;

12. Eta ez naute tenploan atzeman nihorekin eskatimatzten, edo jende murrut biltzen ez sinagogetan,

13. Ez-etare hirian: eta ez dire gai, orai ene gain ematen dituztenen frogatzeko zure aitzinean.

14. Hau aithortzen darotzut ordean, horiek aldebandakeria deitzen duten sinhestearen arabera zerbitzatzten dudala Aita eta ene Jainkoa, legean eta profetetan iskribatuak direnak oro sinhetsiz;

15. Jainkoaren baithan dudalarik horiek duten igurikimen bera, egun batez prestuen eta gaixtaginen arrebiztea ethorriko dela.

16. Aria hortaz bermatzen naiz, Jainkoaren eta gizonen alderat ene barnea notharik gabe idukitzera bethi.

17. Bada, zenbait urtheren buruan ethorri naiz amoina batzuen egitera ene herritarrei, eskaintza eta botuak ene Jainkoari.

18. Eginkari horietan aurkhitu naute tenploan garbitua, eta ez jende murrut baten eta argudioen erdian.

19. Asiatik ethorri Judu batzu ziren zure aitzinerat agertu behar zutenak eta iratxikile jarri, ene kontra balin bazuten zerbait errateko;

20. Edo erran bezate haukiek berek, hean biltzarraren aitzinean nintzenezan tzarkeriarik atzeman duten ene baithan;

21. Non ez darotedan jazartzen, guzien aitzinean nindagoelarik, goraki erran dudana solas bakhar huntaz: Hilan biztearen ariaz egun juiatzen nauzue.

22. Bada, Felizek baitzakien ongi zer erran nahi zuen solas horrek, bertze aldi batetaraino igorri zituen, zioelarik: Lisias ezkardaria ethorri den ondoan, entzunen zaituztet.

23. Eta ehuntari bati manatu zioen zain zezan Paulo, eta utz zezon phausua, eta haren lagunetarik nihor etzezan debeka haren zerbitzatzetik.

24. Zenbait egunen buruan berriz, Feliz ethorri zen bere emazte Drusilarekin, zeina Judua baitzen. Deithu zuen Paulo, eta haren ganik entzun zuen nolakoa den Jesu-Kristoren baithako fedea.

25. Baina garbitasunetan sartzen baitzen justiziaz, eta xahutasunaz, eta ethortzekoa den juiamenduaz, lotsaturik Felizek erran zioen: Aski aldi huntako, zoaz; baina ordu onean deithuko zaitut.

26. Hanbatekin ere, Paulok diru zerbait emanen zioelako ustekerian, aria hortaz ere maiz deithuz, solasean egoten zen harekin.

27. Bada, bi urthe iragan zirenean, Felizek bere ordain izatu zuen Porzio Festo. Berriz, Juduen gogara egin nahiz, Felizek preso utzi zuen Paulo.

XXV. KAP.

1. Festo ethorri zenean beraz tokiaren gainera, hirur egunen buruan Zesareatik Jerusalemara igan zen.

2. Apez nausiak eta Juduetarik lehenbizikoak Pauloren kontra goan zitzaizkon, eta othoizten zuten,

3. Haren kontra begitharte eskatuz, mana zezan hura Jerusalemara erakharria izan zedin, zelatak hedatzen baitzituzten haren hiltzeko bidean.

4. Baina Festok ihardetsi zioten, Zesarean zaindua zela Paulo; bera berriz, laster goatekoa zela.

5. Eta erran zioten: Zein-ere baitire beraz zuetan lehenbizikoak, hekiek jauts beitez enekin, eta gizon haren baithan gaizki zerbait balin bada, jazar biozote.

6. Bada, hekien artean, zenbait egun egonik, ez zortzi edo hamar baino gehiago, Zesareara jautsi zen, eta biharamunean jarri zen bere tribunalean eta manatu zuen erakhar zezaten Paulo.

7. Agertu zenean, inguruan jarri zitzaizkon Jerusalemetik ethorri Juduak, gainera ematen ziozkatararik hoben hainitz eta gaixtoak, baina ezin frogatzeketen.

8. Paulok hunela garbitu zuen bere burua: Ez dut hutsegini ez legearen, ez tenploaren, ez Zesarren kontra.

9. Festok ordean, Juduen gogara egin beharrez, Paulori erran zioen: Nahi duzu Jerusalemara igan, eta han gauza horietaz ene aitzinean juiatua izan?

10. Paulok berriz, ihardetsi zuen: Zesarren tribunalaren aitzinean naiz, hemen behar dut izan juiatua; ez diotet Juduei bidegaberik egin, zerrorek arras ontsa dakizun bezala.

11. Bidegaberik egin badut ezen, edo heriotzea zor zaioenik zerbait, hiltzea onhesten dut; baina horien jazarrietan egirik deusere ez bada, nihork ez nezake horien eskuetarar eman. Zesarri hel egiten diot.

12. Orduan bere biltzarrarekin mintzaturik, Festok erran zuen: Zesarri hel egin diozu, Zesarren aitzinera goanen zare.

13. Handik zenbait egunen buruan, Festori agur egitera Agripa erregea eta Berenize jautsi ziren Zesareara.



14. Eta nola han egun aphur bat egotu baitziren, Festok erregeri aipatu zioen Pauloz, zerralarik: Gizon bat bada Felizek preso utzia,

15. Zeintaz, Jerusalemen nintzenean, ethorri baitzarozkitan Juduetako aphez nausiak eta zaharrak, haren kondenamenduaren eske.

16. Ihardetsi nioten: Ez da Erromarren ohitza gizon baten kondentzea, eratzikimenduen azpian denak aitzinera izan detzan baino lehen bere jazarleak, eta izan dezan hoben eratzikietarik garbitzeko bidea.

17. Hunat ethorri zirenean beraz, luzamendurik batere gabe, biharamunean jarri nintzen tribunalean eta manatu nuen erakhar zezaten gizona.

18. Eratzikitzailak haren aitzinean jarri ondoan, etzioten deusere jazartzen nik uste nuen bezalako hobenik;

19. Bainan haren kontra halako errateko batzu zituzten beren erliyoneko sino batzuez eta Jesus zelako hil baten gainean, zeintaz Paulok ihardukitzen baitzuen bizi zela.

20. Nik horrelako ikhustekotan ez jakinez zer egin, galdatu nioen, hean Jerusalemera goan nahi zuenez, eta han izan hekien gainean juiatua.

21. Paulok ordean hel eginik, Augustori utz zekion egitekoaren eza-gutza, manatu dut zain dezaten Zesarren aitzinera igor dezadan arteo.

22. Orduan Festori erran zioen Agripak: Neronek ere nahi nuke aditu gizona. Ihardetsi zioen: Adituko duzu bihar.

23. Biharamunean beraz, Agripa eta Berenize faza handitan ethorri, eta aditokira sarthu zirenean militariekin eta hiriko lehenbizikoekin, Festok manaturik erakharri zuten Paulo.

24. Eta erraten du Festok: Agripa erregea, eta zuek oro gurekin hemen zaretenak ikhusten duzue gizona, zeintaz Juduen populu guziak Jerusalemen bilhatu bainau, galdatuz, eta oiuhu eginez ez dela gehiago bizi-tzera utzi behar.

25. Nik ordean ez dut aurkhitu, heriotzea zor zaioen gaizkirik egin duela batere. Bainan nola berak Augustori hel egin izan baitio, erabaki dut igorria izanen zaiuela.

26. Gauza garbirik ez dut horren gainean gure Jaunari iskribatzeko. Hargatik agerrarazi dut zuen aitzinera, eta guziz zure aitzinera, errege Agripa, bilhatu ondoan, izateko zertaz iskriba.

27. Iduritzen zait alabainan kanorik ez dela presonier baten igortzea, eta haren gaineko ariak ez ezagutaraztea.

XXVI. KAP.

1. Bada, Paulori erran zioen Agripak: Haizu zaitzu zure alde mintzatea. Orduan Paulok, eskua hedaturik, hasi zuen egitekoa xuritzen:

2. Dohatsu dadukat ene burua, oi errege Agripa, zeren zure aitzinean behar naizen garbitu egun Juduek jazartzen darozkidaten gauzetarik;

3. Ezen arras ontsa argitua zare gauza guziez eta Juduen arteko ohitza eta gora-beherez.

4. Behintzat ene bizia gazte danik nolakoa izatu den hastetik ene herritarren erdian Jerusalemen, jakintsun dire Judu guziak;

5. Badakite, baldin lekhukotasun bihurtu nahi badute, hastetik bizi izan naizela Farisau arara, gure erliyoneko aralde ikhusionaren arabera.

6. Eta orai, juiamendu baten menean nago, Jainkoak gure arbasoei egin agintzaren igurikitza gatik,

7. Hartara heltzeko pheskizan bizi direlarik gure hamabi leinuak, gau eta egun zerbitzatuz Jauna. Igurikimen hortaz Juduek hoben egiten darotade, oi errege.

8. Jainkoak bizturen dituela hilak, hortan zer dadukazue ezin-sinhe-tsizkorik?

9. Nik halabedere uste izan nuen, ahalaz zeiber egin behar niuela Nazaretheko Jesusen izenari.

10. Hala egin dut ere Jerusalemen, eta aphez nausietarik eskuak izanik, preso ezarri ditut sainduetarik asko; eta hiltzen zituztenean, onhesten nuen erabakia.

11. Eta sinagoga guzietan gaztigatzen nituelarik, bortxatzen nituen burho egitera; eta geroago eta gehiago erhotua hekien kontra, hiri arrotzetaraino jarraikitzen nintzaioteten.

12. Horrelako urhatsean Damasera nindohalarik egun batez, aphez nausiek eman indar eta eskuekin,

13. Eguerdi bethean, oi errege, bidean ikhusi nuen zerutikako argi batek, iguzkiarena baino dirdirigarriagoa zenak, inguratu gintuela ni eta enekin batean zirenak.

14. Eta nola guziak lurrerat erori baikin, aditu nuen mintzo bat, hebrearaz erraten zarotana: Saul, Saul, zertako jazartzen darotadak? Gogor zaik akhuloari utzar egitea.

15. Aldiz nik erran nuen: Nor zare zu, Jauna? Eta Jaunak ihardetsi zuen: Ni nauk Jesus, hik jazartzen diokana.

16. Bainan jaiki hadi eta oinen gainera xuti; ezen huna zertako agertu natzaikan, ezar hezadan kargudun eta lekhuko ikhusi ditukan eta ikhusaraziren darozkian gauzen gainean,

17. Atheratuko baihaut populuaren aztaparretik eta jendaienetarik, zeinen gana bidaltzen baihaut orai,



18. Hekiei begien idekitzera, ilhunbeetarik argira eta satanen eskupe-tik Jainkoaren gana bihur ditezen, izatekotzat bekhatuena barkhamendua eta sailduen artean pharte ene baithako fedearen bidez.

19. Aria hortazi errege Agripa, zerutikako ikhuspenari ez nintzaioen sinhetsgaitz egotu;

20. Aitzitik, Damasena, Jerusalem eta Judeako eremu guzian daudezenak, eta paganoak ere deitzen nituen urrikitan sartzera eta Jainkoaren gana bihurtzera urrikizko eginkariei lothuz.

21. Horra zer ariaz Juduek, tenploan nintzenez harturik, ni hil beharrez zaramatzaten beren egin-ahalak.

22. Bainan oraidinokoa, Jainkoaren laguntza heldurik, badiraukat, ttipi-handien aitzinez lekhukotasun eginez, deusere erran gabe bertzerik, profetek eta Moisesek gerthatzekoak zirela aiphatu dituztenak baizik,

23. Kristok jasan behar zuela, hiletarik lehenbizi bizturik populuari eta jendaiei argia ezagutaraziren ziotela.

24. Horien erraten eta gauzen xuritzen hari zelarik, gora-gora erran zioen Festok: Zoratzen zare, Paulo; zure jakitate handiak burzoratzen zaitu.

25. Eta Paulok ihardetsi zioen: Ez noha burutik, Festo guziz ona, bainan egiazko eta zuhurtziazko solasak atheratzen ditut.

26. Ezen horietaz jakintsun da errege, zeinari ere uzkurtsunik gabe mintzo bainatzaio; ez dut alabainan uste deusere badela horietan ezagutzen ez duenik; ezen hor ez da deusere zokhotan gerthaturik.

27. Profetetan sinhesterik baduzu, errege Agripa? Badakit baduzula.

28. Agripak aldiz Paulori erraten dio: Guti batik barnean sinhetsarazten darotadazu Kristau egin nadien.

29. Eta Paulok: Oxala ez gutirik barnean, bainan xahuki, ez zu bakarrik, bainan entzuten dauden guziak ere egiten bazinezte egun, ni nai bezala, gathe haukiez lekhat.

30. Eta jaiki ziren errege, gobernadorea, Berenize eta hekiekin jarriak zirenak.

31. Eta aldaratu zirenean, elkarren artean mintzo ziren, zerratelarik: Ez du gizon horrek egin deusere heriotzea edo burdinak merezi dukeenik.

32. Agripak berriz, Festori erran zioen: Utz zaitekeen gizon hori, Zesarri hel egin ez balio.

XXVII. KAP.

1. Bada, erabakia izan zen bezain laster, Paulo Italiara itsasoz igorria izanen zela, eta hura bertze presonierekin emanen zela, Julio deitzen zen, Augustoren ezgardako ehuntari baten eskuan,

2. Adrumetar untzi batera iganik, itsastatzen abiatu ginen Asiako leihorren bazterraz, gurekin jarraituz zelarik bethi Aristarko, Thesalonikako Mazedoniarra.

3. Biharamunean berriz, Sidonera heldu ginen. Bada, Juliok Pauloren alderat gizatiarki egiten baitzuen, onhetsi zioen adiskideen ikhustera eta egitekoen xuxentzera goan zadien.

4. Eta handik abiatu ginenean, luia baikinduen Ziproko gerizaz iragan ginen.

5. Eta Ziliziako eta Panphiliako itsasoa gaindi ethorri ginen Listrara, zeina Liziako baita;

6. Eta han, Italiara zihoan Aletsandriar untzi bat aurkhiturik, ehuntariak hartara aldatu gintuen.

7. Asko egunez emeki ibili eta nekhe handirekin Gnidoko parrera ethorri ondoan, haizeak zeihar egiten zarokulakoz, Kretari buruz Salmonen aldera jo ginduen;

8. Eta hegiz hegi, nekherekin ethorri ginen Portuona deitzen den toki batetara, zeinari hurbil baita Thalasa hiria.

9. Bada, nola hainitz denbora goan baitzen, eta itsas-aroa ordukoz gaiztua, ezen ordukoz iragana zen barura, Paulok solas eman zioten untzian zirenei,

10. Erraten ziotelarik: Gizonak, ikhusten dut itsasketa gaitz eta kalte handiren bide izaten hasten dela, ez ezik kargaren eta untziarentzat, bainan oraino gure bizientzat.

11. Ehuntariak ordean hobeki sinhesten zituen lemazaina eta mais-trua, ezenez Pauloren erranak.

12. Eta nola portua neguaren iragaiteko ez baitzen ona, handik itsasoari lotzeko asmua hartu zuten gehienek, hean nihondik negutearen egitera goan ahal othe zitazkeen Pheniziara, zeina Kretako portu bat baita, hegoaren eta ipharraren arteko haizeei dagoena.

13. Bada, hegoak ematen zuelakoz, beren asmua bururaturen zutelako ustean, Asondik abiatu bazihoazen Kretako leihor bazterraz.

14. Bainan handik laster irlari buruz jo zuen iphar-iguzki deitzen duten haize buhunba batek.

15. Eta nola boliaka eramana baitzen untzia, eta haizeari ezin ihardetsu baitzozokeen, haizeen gogara utzirik, harekin eramanak ginen.

16. Berriz, Kauda deitzen den irla batetara erortzen hari baikinena, nekhez bildu ahal izan ginduen xalupa.



17. Hura goititu ondoan, untzian zirenek baliatzen zituzten laguntza guziak, untzia tinkatuz, legar metetara erortzeko beldurrarekin; eta masta jautsirik, hala ziren eramanak.

18. Phesiak aitzinat gogorki jotzen gintuelakoz, untzia itsasora hustu zuten biharamunean;

19. Eta hirugarren egunean, berek arthiki zituzten untziko tresnak.

20. Berriz, zenbait egun hartan ez baitzen ageri ez iguzki ez izar, eta phesia ez baitzen xumeterat hari, orduko galdua zen gure salbatzeko pheskiza guzia.

21. Eta nola barur baikinaudezen aspaldian, guzien erdian jaiki zen orduan Paulo, eta erran zuen: Gizonak, ni entzunik, etzen Kretatik higitu behar, horrelako bidegabe eta arthikitzeen egiteko.

22. Aldiz orai erraten darotzuet, hazkarrik iduk dezazuen bihotza, ez da ezen zuetarik nihorentzat izanen biziaren galtzerik; ez da galduko untzia bera baizen.

23. Ezen gau huntan, Jainkoaren aingeru bat, zeinarena bainaiz ni, eta zeina zerbitzatzen baitut, gelditu da ene aitzinean,

24. Dioelarik: Ez izan beldurrik, Paulo; Zesarren aitzinera agertu behar zare; eta huna Jainkoak eman darozkitzula zurekin itsasoan dihoazen guziak.

25. Aria hortaz, gizonak, zaudezte gogoak hazkarrik; Jainkoaren bait-han badut sinhestea, nola errana izan baitzait hala gerthaturen dela.

26. Bainan irla batera erori behar gare.

27. Bada, hamalagarren gaua jautsi ondoan, Adriatiko itsasoan gina-biltzalarik, itsasturuak nabarmendu ziren leihor zenbaiti hurbiltzen hari zirela.

28. Eta beruna arthikirik, atzeman zituzten hogoi braza; eta handik aphur bat haratago, aurkhitu zituzten hamabortz braza.

29. Orduan, zenbait toki gaitzetara eror gintezen beldurrez, untziaren gibeletik lau aingura arthikirik, argiaren iguri gelditu ginen.

30. Bada, itsasturuek untzitik ihes goatea bilhatzen baitzuten, xalupa itsasora jautsi ondoan aingurak burukitatik hedatzera abiatzeko itxuran;

31. Ehuntariari eta soldadoei erran zioten Paulok: Horiek untzian ez badire gelditzen, zuek ezin salba zaitezket.

32. Orduan soldadoek ebaki zituzten xaluparen lokharriak, eta erortzera utzi zuten.

33. Eta argia hasi zenean, Paulok jatera hertsatzen zituen oro, zioelarik: Gaur hamalagarren eguna da barurik zaudeztela iguri, deusere hartu gabe.

34. Hargatik hertsatzen zaituztet zuen onetan jan dezazuen zerbait, ezen ez da zuetarik nihoren burutik ile bat galduko.

35. Hori erran ondoan, ogia harturik, guzien aitzinean Jainkoari esker bihurtu zioen, eta hautsirik jaten hasi zen.

36. Orduan jabalago egin ziren guzien barneak, eta jatekoa hartu zuten hekiek ere.

37. Bada, untzian orotara baginen hamahirutan hogoi eta hamasei arima.

38. Eta jatekoz ase ondoan, itsasorat bihia arthikiz arindu zuten untzia.

39. Argia zabaldu-eta berriz, etzuten leihorra ezagutzen; bainan hegi ona zuen golkho bati ohartu ziren, hartara asmu baitzuten, ahal bazen untziaren erorraraztea.

40. Eta aingurak altxatu ondoan, lemako lokharri guziak batean laxatuz, itsasoari utzi zituzten beren buruak; eta behereko bela haizeari emanik, leihorrera jokhatu ziren.

41. Eta nola erori baikinen, bi alderetarik ura duen lur zerrenda batera, ondartu zuten untzia; eta aitzineko muthurra sarthua gogor zagoen; itsasoaren indarrak ordean urratzen zuen gibelaldea.

42. Bada, soldadoen asmua zen presonieren hiltzea, beldurrez-eta igerika atheraturik itzur zadien zenbait.

43. Bainan, Paulo salbatu nahiz, ehuntariak debekatu zuen holakorik egitea; eta manatu zuen igerika zitazkeenek, lehenik arthik zetzazten beren buruak, eskapa zitezen eta leihorrerat athera.

44. Eta gainerakoak, batzu oholen gainean, eta bertzeak unti pusken gainean eramanak ziren; eta horrela gerthatu zen, guziak leihorrera itzuri zirela.

XXVIII. KAP.

1. Itzuri ginenean, orduan jakin ginuen Malta deitzen zela irla hura. Basatarrek berriz, erakhutsi zarokuten gizatiartasun ez xumea.

2. Ezen egur zama bati su emanik berotu gintuzten guziak, uri dixiduak baitziren eta hotz hari.

3. Paulok berriz, aihen zamaxka bat bildu eta suan ezarririk, beroak ilkhiazi zuen bipera bat, eta eskutik lothu zitzaioen.

4. Basatarrek ikhusi zutenean zierpe hura haren eskutik dilindan, elkharri erraten zuten: Gizon hori heriotzegin zenbait ahal da, itsasoari itzuri ondoan, zeruko asperrak bizitzera uzten ez duenaz geroztik.

5. Paulok ordean, surat iharrosirik zierpea, minik etzuen izatu batere.



6. Basatarrek aldiz uste zuten hantuko eta bat-batean eroririk hilen zela. Bainan luzez iguri egonik, ikhusi zutenean gaitzagorik etzitzaioela gerthatzen, gogoz aldatuz, Jainko bat zela zerasaten.

7. Bada, aurkhintza hartan ziren irlako buruzagiaren ontasunak; Publio zuen izena, eta bere etxerat harturik, begitharterekin iduki gintuen hirur egunez.

8. Berriz, gerthatu zen Publioren aita sukharrekin eta beheitkoarekin eri ohean. Ikhustera goan, zitzaioen Paulo; eta othoitz eginik eta eskuak haren gainean ezarririk, osagarritara bihurtu zuen.

9. Hori gerthatu ondoan, irlan gaitz zer bait zuten guziak hurbiltzen eta sendatzen ziren.

10. Halabadore ohore handiak egin zarozkiguten, eta itsasoari lotzean, behar zen guzia harrarazi zarokuten:

11. Bada, hirur hilabetheren buruan hartu ginduen itsasoa Aletsandriar untzi batean, zeinak irlan egin baitzuen negutea, eta Kastor zuen ezagutkaritzat.

12. Sirakusara heldu izan ginenean, han baratu ginen hirur egunez.

13. Handik leihor hegiz ethorri ginen Erheiora; eta biharamunean hegoak emanik, ethorri ginen bigarren egunean Puzolera,

14. Non anaia batzu aurkhiturik, othoiztuak izan baikinien hekiekin egotera zazpi egun; eta gero hartu ginduen Erromako urhatsa.

15. Aditu zutenean hango anaiek, bidera ethorri zarozkigun Apioren plazaraino eta Hirur-Ostatueta. Hekiek ikhustearrekin, Paulok eskerrak bihurtu ziozkan Jainkoari eta onthu zitzaioen gogoa.

16. Bada, Erromara heldu izan ginenean, haizu utzi zioten Paulori bere gain egotea zaintzen zuen soldadoarekin.

17. Hirur egunen buruan berriz, Juduetarik lehenbizikoak deithu zituen Paulok. Eta ethorri zirenean, erran zioten: Anaiak, deusere ez nuelarik egiten nik, ez populuaren ez arbasoen ganikako azturen kontra, Jerusalem hartu eta Erromarren eskuetan ezarri naute.

18. Ene gainean garbitasunak egin ondoan, haukiek igorri nahi izan naute, zeren ene baithan ez baitzen heriotzezko ariarik batere.

19. Bainan zeihar egiten zutelakoz Juduek, Zesarri hel egitera borxtatua izatu naiz, ez bada ene jendakiari zer bait eratxikitze gogoz.

20. Hargatik beraz galdatu dut zuen ikhustea eta zuei mintzatzea. Alabainan Israelen igurikimenari esker naiz gathe huntaz inguratua.

21. Eta hekiek ihardetsi zioten: Judeatik ez dugu zutazko gutunik izatu; eta anaietarik nihor ez da ethorri zure kontrako berriekin edo zer bait gaizkiren erratera.

22. Galdatzen dugu beraz zerorren ganik aditzea zer duzun bihotzean, ezen nabarituak gare aldebanda hortaz, orotan zeihar egiten diotela.

23. Bada, Paulori berezi baitzioten egun bat, moltzo handitan ethorri zitzaizkon egoten zen tokira; eta Paulok, erakhusten zioten Jainkoaren erresuma lekhukotasunak atheratuz, eta goizetik arrats hariz Moisesen legetik eta profetatarik hekiei Jesusen gaineko sinhestea harrarazi beharrez.

24. Eta batzuek sinhesten zituzten haren erranak; bertzeek berriz, etzituzten sinhesten.

25. Eta nola ez baitziren beren artean batera erortzen, gibelerat goan ziren, Paulok atheratzen ziotelarik hitz bakhar hau: Ala ongi mintzatu baita gure arbasoei Izpiritu saindua, Isaias profetaren ahoz,

26. Erran duenean: Zoaz populu horren gana, eta errozute: Behariz entzunen duzue eta ez adituko, begiz ikhusions duzue, eta etzarete ohar-tuko.

27. Thoildua da ezik populu horren bihotza; eta beharri gortuekin entzun, eta begiak hertsu dituzte, beldurrez ikhus begiz, ardiets behariz, adi bihotzez, itzul ditezen eta senda detzadan.

28. Jakizue beraz jendaiei bidalia zaiotela Jainkoaren ganikako salbamendu hori, eta onhetsiko dutela hekiek.

29. Eta horiek erran zituenean, haren ganik goan ziren Juduak, eskatima handitan beren artean.

30. Bada, bi urthe oso eman zituen hartu zuen etxean, eta haren gana ethortzen ziren guziei begitharte egiten zioten,

31. Erantzunez Jainkoaren erresuma, eta Jesu-Kristo Jaunari darontzok irakhatsiz, heraberik batere gabe, eta nihork debekatu gabetarik.



ERROMARREI JAUN DONE PAULOREN GUTUNA

I. KAP.

1. Paulo, Jesu-Kristoren zerbitzaria, deithua Apostolutzat, berezia Jainkoaren Ebanjelioko,

2. Hura Jainkoak lehenago agindu baitzuen bere profeten arartekoz Iskritura sainduetan,

3. Aiphatzean bere Semea, zeina, haragiaren arabera Dabiden ethoritikik sorthu baitzaio;

4. Zeina aitzinetik hautetsia izan baita indarrean Jainkoaren Semetzat, sainduespeneko izpirituaren arabera, hiletarik Jesu-Kristo gure Jaunaren biztearen bidez;

5. Zeintaz ardietsi baitugu grazia eta apostolutasuna, haren izenean fedeari ethordun eragiteko jendaia guziak,

6. Zeinen arteko baitzarete zuek ere Jesu-Kristok deithurik;

7. Erroman diren guziei, Jainkoaren maite, saindu deithuei. Grazia zuei eta bakea Jaiño gure Aitaren ganik, eta Jesu-Kristo Jaunaren ganik.

8. Lehenbizikorik zuen guzientzat Jesu-Kristoren arartekoz Jainkoari eskerrak diozkat bihurtzen, zeren mundu guzian erantzuten hari den zuen fedea.

9. Alabainan ene gogo guziaz, haren semearen Ebanjelioa erantzunez, zerbitzatzan dudan Jainkoa lekhuko dut, zuetaz hutsarterik gabe orhoitzapen egiten dudala;

10. Ene othoitzetan galdatuz bethi, hean nolazbait bide onik ez othe dudan Jainkoaren nahiarekin noizbait bedere zuen ganat ethortzeko;

11. Ezen zuen ikkusteko lehietan nago, zerbait grazia ispiritual zuen gainera jautsaraztea gatik, hazkar zaiteztentzat,

12. Erran nahi da, elkharrekin zuen baithan gozakari har dezagun zuek eta nik batasunean dugun fedearen bidez.

13. Ez dut bada nahi, anaiak, egon zaitezten jakin gabetarik, ardura gogoan hartu dudala zuen ganat ethortzea (eta gibelamenduak ditut orai arteo); zerbait fruitu atheratu nahiz zuen artean ere hala-nola bertze jendakien artean.

14. Greziarren eta Basatarren, jakintsunen eta jakingabeen alderat zordun naiz.

15. Horrela (nitan den bezenbatean) Erroman zaretan zuei ere Ebanjelioaren erantzutera ekharria nago.

16. Ez naiz ezen Ebanjelioaz ahalke. Hura da alabainan Jainkoaren indarra salbatzeko sinhestun edozein, lehenik Judua, Greziarra gero.

17. Ezen hartan da agertzen Jainkoaren zuzentasuna, fedetikakoa federa, iskribatua den bezala. Fedeaz da bizi gizon zuzena.

18. Agertzen da ezen Jainkoaren hasarrea zerutik jautsiko dena ere hainen gogorkeria eta gaixtakeria guziaren gainera, zeinek bidegabekeriarren azpian baitadukate Jainkoaren egia;

19. Zeren Jainkoaren gainean ezagutua dena, hekientzat ageri baita, Jainkoak ezen agertu diote berak.

20. Alabainan mundua kreatu denetik eginak diren gauzen bidez ageri dire haren baithako indar ezin-ikhusizkoak; halaber haren bethiereko ahala eta Jainkotasuna; haletan non aitzakiarik gabe baitire gizon hekiek.

21. Zeren ezagutzen zutelarik Jainkoa, ez baitute Jainko bezala ospatu, edo beren eskerrak bihurtu ez baitiozkate; bainan beren asmuetan ilhaundu baitire, eta ilhundu baita hekien bihotz zoroa.

22. Alabainan beren buruak zuhur zerraztelarik, erhotu egin dire.

23. Eta ezin-andeatuzko Jainkoaren ospea, gizon andeakor, hegastin, lau hatzetako abere eta zierpeen itxuretara aldatu dute.

24. Hargatik utzi ditu Jainkoak beren zalekerietara, lohikeriara; beren buruak desohora detzaztela

25. Jainkoaren egia gezurretara aldatu dutenek eta nahiago izan dutenek kreatura adoratu eta zerbitzatu, ezenez mendeetan benedikatua den kreatzailea. Halabiz.

26. Hargatik utzi ditu Jainkoak lehia laidotsuenetara. Hekien emazteek ezik, ethorkiaren araberrako erabilkuntza, ethorkiaren kontra den hartara aldatu dute.

27. Halaber aldiz, emazteekilako erabilkuntza bere bidezkoa utzirik, gizonkiak ere elkharrentzateko lehiez khaldatu dire, gizonen gizonen gainean itsuskeriak erabiliz, eta beren baithara bilduz hekien erhokeriari zor zitzaioen saria.

28. Eta erakhutsi ez duten bezala, badutela Jainkoaren ezagutzarik, Jainkoak ere beren usna tzarretara utzi ditu, eder ez diren gauzak egin detzaztela,

29. Zer-nahi bidegabekeriaz, maltzurkeriaz, lohikeriaz, jaramankeriaz, tzarkeriaz betheak; bekhaizgoz, hiltzeketaz, aharraz, zimarkhuz, gaixtakeriaz gaindituak; salhatari,



30. Mihi-gaixto, Jainkoaki hasgarri, irainti, hanpurutsu, burgoi, gaizki asmatzaile, burhasoentzat bihurri,
 31. Zoro, nahasi, bihozgabe, fedegabe, urrikalmendugabe.
 32. Jainkoaren zorrozatasuna ezagutu-eta, ez dute aditu heriotzea dutela merezi horrelakoan egileek; eta ez ezik horrelakoak egiten dituztenek, baina oraino egileak ongi hartzen dituztenek.

II. KAP.

1. Hargatik, oi gizon juiatzen hari haizena, nor-nahi izan hadien, ez haiz aitzakiadun. Alabainan zertan-ere juiatzen baituk laguna, hartan kondatzen duk hire burua, ezen herorrek egiten dukan gauza beraren juiatzen hari haiz.
 2. Bazakiagu alabainan, halakoak egiten dituztenen gainean egia erabera arabera dela Jainkoaren erabakia.
 3. Uste othe duk bada, oi gizona, halakoan egileak juiatzen ditukana, eta herorrek berak halakoak egiten, itzuriko haizela hi Jainkoaren erabakia?
 4. Ala erdeinu duk haren ontasun, jasankortasun eta luzakortasuneko aberastasunentzat? Ala ez duk ezagutzen Jainkoaren ontasunak urriki-ra hauela deitzen?
 5. Eta halere hire gogortasunaz eta bihotz damugabeaz hire gainera murrukatzen duk Jainkoaren hasarrea, haren hasarreko eta erabaki zuzenaren agerpeneko egunekotzat;
 6. Harek baxhotxari bere eginen arabera bihurturen baitio,
 7. Bethiereko bizitzea hainei, zeinek eginkari onetan ihardukiz, bilhatzen baitituzte zeruko ospe, ohore, ezin-andeatzeak;
 8. Hasarrea aldiz eta gaitzirizkoa eskatimari, egia ez onhesten eta tzarkeria sinhesten dutenei;
 9. Ondiko, hesturak gaixtakerian dabilzan gizon guzien arimei, Juduari lehenbizikorik, Greziarrari gero;
 10. Baina ospe, ohore eta bake ongia egiten duten guziei, Juduari lehenik, gero Greziarrari.
 11. Ezen nor-nor-den begiraterik ez da Jainkoaren baithan.
 12. Izatez-ere, edozeinek legea gabe egin dukeen bekhatu, legea gabe galduko da; eta legean bekatu egin dukeen edozein, legeaz juiatuko da.
 13. Ez dire alabainan legearen entzuleak Jainkoaren aitzinean zuzen, baina bethetzaileak atherako dire zuzentzat.
 14. Holetan jendaiek, legea ez dutelarik, berenez egiten dituztenean legeko gauzak, legerik ez duten arren, beren burua dute lege;

15. Hekiek legeko eginbideak bihotzean iskribatuak dituztela erakusten dute beren barneak ematen dioten lekhukotasunaz eta beren gogotez, zeinek elkhari jazartzen edo bertzenaz elkar garbitzen baitute,
 16. Agertuko den bezala, Jainkoak egun batez Jesu-Kristoren ahoz juiatuko dituenean gizonen gauza gordeak ene Ebanjelioaren arabera.
 17. Baina, zu, Judu deitzen, eta legearen gainean egoten, eta Jainkoaz buruiopetsu zarena;
 18. Eta haren nahia ezagutzen, eta legeaz argitua zarelakoz zer den hoberenik ikhusten duzuna;
 19. Zure burua dadukazu itsu bidari, ilhunbetan direnen argi,
 20. Ez dakitenean irakhasle, haurren nausi, legetik jakitate eta egia arien jabe.
 21. Bizkitartean, bertzean argitzaile zarena, ez duzu argitzen zure burua; ez dela ebasi behar erantzuten duzuna, ohointzan hari zare;
 22. Ez dela bertzean emazteekin ibili behar diozuna, zeror khutsatzen zare; jainko-aizunak hasgarri daduzkatzuna, sakrifioak egiten ditutzu;
 23. Legeaz khe duzuna, legea hautsiz laidoztatzen duzu Jainkoa.
 24. (Zuen ariaz alabainan, iskribatua den bezala, jendaian artean burhoztatzen da Jainkoaren izena.)
 25. Ingurephaitza izatez on da, begiraten baduzu legea; lege hausle balin bazare ordean, ezeztatzen da zure ingurephaitza.
 26. Baldin beraz ingurebakia ez denak legeko eginbideak begiraten baditu, haren ingurebakitasuna ez othe da ingurephaitzat idukiko?
 27. Eta berenez ingurebakigabea denak, eta legea bethetzen, ez othe zaitu kondatuko zu, legearen hitza eta ingurephaitza ditutzularik, legea hausten duzuna?
 28. Ezen Judua ez da ageri denetik Judu, ez-etare ingurephaitza haragian ageri denetik.
 29. Baina Judu da, barnez hala dena; eta bihotzeko ingurephaitza, izpiritutikakoa da, eta ez hitzetikakoa; eta halako Juduak, ez gizonetarik, baina Jainkoaren ganik du bere aithorra.

III. KAP.

1. Zer da beraz gehiagorik Judua, edo nolakoa da ingurephaitzaren ona?
 2. Handia alde orotara. Behintzat Juduei emana izan zaiote Jainkoaren hitza zaintzera.
 3. Ezen hekietarik batzuek sinhetsi ez badute ere, halakoan sinhets gogortasunak ezeztaturen othe du Jainkoaren zintasuna? Urrun dago.



4. Jainkoa egiati da bada, gizona berriz gezurti, iskribatua den bezala: Zin ezagutuko zare zure hitzetan, eta garaitiar zutaz atherako diren juiamenduetan.

5. Aldiz, gure tzartasunak argitanago erakhusten badu Jainkoaren zuzentasuna, zer erranen dugu? Ez othe da bidegabestia gaitzirizkoa derabilan Jainkoa?

6. (Gizonaren arabera diot). Urrun dago. Bertzenaz Jainkoa nola laiteke mundu hunen juie?

7. Bainan ene gezurraz Jainkoaren zintasuna haren ospetara bihurtzen bada, zertako bekhatoretzat ni kondena oraino?

8. Eta zertako ez egin gaizkia ongiaren eraikhitzeko (hori derragula, zenbaitek gure belzteko dioten bezala)? Zuzena da hekien kondenamendua.

9. Zer beraz, jendaiak baino hobeak othe gare? Batere. Erakhutsi dugu ezen, Judu eta Greziar, oro bekhatuaren azpian direla;

10. Iskribatua den bezala: Garbi denik nihor ez da;

11. Adigarria duenik ez da, Jainkoa bilhatzen duenik ez da.

12. Oro zeihertu, oro alfer bilhakatu dire; ongia egiten duenik ez da, ez bakhar bat ere.

13. Hobi zabaldu bat da hekien zintzurra; maltzurkerian erabili dituzte beren mihiak, aspikaren phozoina dute ezpain-pean;

14. Madarizionez eta uherduraz bethea da hekien ahoa;

15. Odolaren ixurtzera arin dituzte oinak;

16. Xahutze, asturugaitzak dire hekien bideetan.

17. Eta bakerako bidea ez dute ezagutzen.

18. Jainkoaren beldurra ez dago hekien begien aitzinean.

19. Badakigu bada, legeak diozkanak oro, legearen azpian direnei mintzo direla, tapatuak gelditi ditezten aho guziak eta mundu guziak ezagutuz dezan Jainkoaren azpiko dela;

20. Zeren nihor ez baita legeko eginkarien bidez Jainkoaren aitzinean garbi atheratuko. Ezen legetik dathorrena, bekhatuaren ezagutza da.

21. Orain aldiz, legea gabe Jainkoaren ganikako zuzentasuna agertua zaiku; legeak eta profetek lekhukotasun egiten diote.

22. Jainkoaren ganikako zuzentasuna berriz, Jesu-Kristoren baithako fedearen bidez dathor haren baithan sinhesten duten guzietara eta guzien ganera; ezen berezgorik ez da;

23. Orok alabainan egin dute bekhatu, eta Jainkoa ganik indar beharretan dire.

24. Haren graziaz, Jesu-Kristoren ganikako berrerospenaren bidez, dohainik zuzen eraginak dire;

25. Jainkoak hura eman baitu, jahal garri izateko haren odolaren gaineko fedear, bere zuzentasunaren erakusteko aitzineko bekhatuaren barkhamenduaren arietan,

26. Bere jasankortasunaren ondotik oraiko egunetan erakustekotzat ber zuzentasuna; bera zuzena baita eta zuzen eragiten baitu Jesu-Kristoren fedeari atxikitzen dena.

27. Non dire zure espantagailuak? Bazterrerat emanak dire. Zein legez? Eginkarietakoaz? Ez, bainan-bai fedeko legez.

28. Hartzten dugu alabainan, fedear zuzentzat dela gizona, legeko eginkariarik gabe.

29. Ala Juduena da bakharrik Jainkoa? ez othe da jendaiena ere? Segurki, jendaiena ere da.

30. Alabainan bakharra da Jainkoa, fedearen bidez zuzentzat atheratzen dituen ingurebakiak, eta fedear ingurebakigabeak.

31. Fedear ezeztatzen othe dugu bada legea? Urrun dago; aitzitik gogortzen dugu.

IV. KAP.

1. Zer aurkhitu duela erranen dugu beraz Abrahamek, haragiaren araberako gure aitak?

2. Alabainan eginkariez zuzen bilhakatu bada Abraham, ospe badu, ez ordean Jainkoaren aitzinean.

3. Zer dio ezen Iskriturak? Abrahamek sinhetsi zuen Jainkoa, eta hori zuzentasunerako iratxikia izan zitzaioen.

4. Bada, lanean hari denari etzaio saria ematen grazia bezala, bainan zor bezala.

5. Aldiz lanik egiten ez duenari, bainan bekhatorea garbitzen duenaren baithan sinhesten duenari, bere fedea iratxikitzen zaio zuzentasuntzat, Jainkoaren graziazko erabakiaren arabera.

6. Hala-nola Dabidek ere baitio, dohatsu dela gizona, zeinari Jainkoak iratxikitzen baitio zuzentasuna eginkariarik gabe:

7. Dohatsu hainak zeinen gaizkiak barkhatuak baitire, eta bekhatuak estaliak.

8. Dohatsu gizona, zeinari Jainkoak bekhaturik ez baitio iratxiki.

9. Bada, dohatsutasun hori ez othe dago ingurebakientzat baizik, ala ingurebakigabeentzat ere? Diogu bada, Abrahami zuzentasuntzat iratxikia izan zaiola bere fedea.



10. Bainan noiz izan zaio iratxikia? Ingurebaki ondoan, ala aitzinean? Ez ondoan, bainan aitzinean.
11. Eta ingurephaitzako ezagutkaria izatu zuen, ingurebakia etzelarik fedez merezitu zuzentasunaren zigilutzat, izan zadien ingurebakigabeak direlarik sinhesten duten guzien aita, hekiei ere beren fedea zuzentasunerako iratxikia izan dakioten;
12. Eta izan zadien ingurephaitzako aita, ez bakharrik ingurephaitzatikakoentzat, bainan oraino, Abraham gure aitak ingurebakigabea zuen fedearen hatzei jarraitzen direnena.
13. Ezen Abrahami edo haren ganikako iraulgiari etzaio legerari esker agindua izan munduko primantza, bainanbai fedetikako zuzentasunaren ariaz.
14. Primantza, legetikakoena balin bada, hutsal eragiten da fedea, ezeztatua agintza.
15. Alabainan hasarrea dakhar legeak. Ezen legerik ez denean, lege hausterik ere ez.
16. Horreletan beraz fedearen burutik gure premu; iraulgi guziari egin agintza, graziari esker gogor egon dadien, ez bakharrik legetikakoarentzat, bainan oraino Abrahamen fedetikakoarentzat, hura baita gure guzien aita
17. (Iskribatua den bezala: Egin zaitut asko jendakiren aita) Jainkoaren aitzinean, zeina sinhetsi izan baitu, zeinak hilei bizia ematen baitiote, eta ez direnak bezala deitzen baititu.
18. Abrahamek sinheste eman zioen igurikimenaren kontrako igurikimenari, eginen zela asko jendakiren aita, errana izan zitzaioen bezala: Hala izanen da zutarikako iraulgia.
19. Eta etzuen amor egin haren fedea, eta etzuen begiratu ezindua zuela gorputza, ordukoz ehun urtheren heina zuenaz geroztik, eta ezindua zela Sararen sabela.
20. Halaber Jainkoaren agintzan sinhesgaiztasunak etzuen khordokan erabili; bainan fedez hazkarturik, ospe bihurtu zioen Jainkoari,
21. Sinheste osoa izanez, edozein gauza agin dezan Jainkoak, haren egiteko ahala baduela.
22. Hargatik zuzentasunerako izan zitzaioen iratxikia.
23. Ez da bada haren ariaz iskribatua bakharrik, zuzentasunerako iratxikia izan zitzaioela,
24. Bainan gure gatik ere, zeinei iratxikia izanen baitzaiku, sinheste ematen diogularik hiletatik biztu duenari Jesu-Kristo gure Jauna,

25. Zeina izan baita gure bekhatuen gatik heriotzeari emana, eta arrebitzu baita gure garbitzea gatik.

V. KAP.

1. Beraz fedearen bidez zuzen atheratuak, dugun Jainkoarekin bakea, Jesu-Kristo gure Jauna ararteko,
2. Haren bidez ere baitugu fedearen ariaz helbide grazia huntara, zeintan gogor baikau, eta gure buruak Jainkoaren umeentzateko ospearen igurikimenean goستن ditugu;
3. Eta ez hartan bakharrik, bainan oraino hesturetan goستن gare, dakigulakoz hesturak dakharla jasankortasuna,
4. Jasankortasunak frogapena, frogapenak berriz pheskiza.
5. Bada, ez da enganati pheskiza hura, zeren guti emana izan zaikun Izpiritu sainduaren eragintzaz gure bihotzetara ixuria baita Jainkoaren amodioa.
6. Izatez-ere, eri ginenean oraino, hil izan da Kristo ginen gaixtaginentzat?
7. Ezen prestu batentzat nekhez hil laiteke norbait; alabainan nor edo nor beharbada baleiteke prestu baten gatik hiltzeko gai laitekeenik.
8. Bainan argitanago erakhusten du Jainkoak gure alderako amodioa, zeren bekhatore ginelarik oraino, muga berezian,
9. Gure gatik hil izan baita Kristo. Orai beraz, haren odolari esker zuzentzat atheratuak, hainitez hobeki haren bidez izanen gure Jainkoaren hasarretik begiratuak.
10. Alabainan etsai ginenean, Jainkoarekin baketuak izan bagare haren Semearen heriotzearen bidez; hainitez hobeki, baketuak garenean, izanen gare salbatuak haren beraren bizitzeaz.
11. Eta ez ezik gure baketuak, bainan oraino Jainkoaren baithan goستن gure Jesu-Kristo gure Jaunaren bidez, zeinari esker orai ardietsi baitugu baketuak izatea.
12. Hargatik, nola gizon baxhar baten bidez mundu huntara sarthu baita bekhatua, eta bekhatuaren bidez heriotzea, hala ere gizon guzietara iragan da heriotzea gizon haren bidez zeinaren baithan orok egin izan baitute bekhatu.
13. Bekhatua ezen legea ethortzeko aitzinean ere munduan zen; bainan legea ez baitzen oraino, bekhatua etzen iratxikia.
14. Bizkitartean Adamen ganik Moisesen ganaraino erreginatu da heriotzea bekhatu egin izan dutenen gainean, bekhatu hala-nola Adamek, zeina baitzen ethortzekoa zenaren itxura.



15. Bainan bekhatua nolakoa, dohaina ez da halakoa. Ezen bakhar baten bekhatuaz hil izan badire hainitzak, are gaindikiago hainitzen bait-hara Jainkoaren grazia eta dohaina nasaitu dire gizon bakhar bati esker, hura baita Jesu-Kristo.

16. Eta bekhatu bakhar harek ekharri ondorioa ez da dohainaren eragintzaren bethe; ezen bekhatu bakhar baten gatik izan da kondenamenduko erabakia; graziak ordean hainitz bekhatutarik garbitzen du.

17. Alabainan baten bekhatuaren gatik erreginatu balin bada heriotzea gizon bakhar bati dagokola, are hobeki, Jesu-Kristo bakharrari esker, bizitzean erreginaturen dire, graziatzko, eta dohainezko, eta zuzentasunezko nasaizia izaten dutenak.

18. Beraz nola baten bekhatuaren bidez kondenamenduaren azpira erori badire gizon guziak, hala ere baten zuzentasunak zuzen eragin ditu guziak.

19. Ezik baten bihurtzeak hainitzak bekhatore egin dituen bezala, baten ethorkortasunak zuzenduren ditu hainitzak.

20. Bada ethorri da legea, eta haletan nasaitu bekhatua. Bainan non-ere nasaitu baita bekhatua, gainditu da grazia;

21. Arren-eta, nola heriotzerako erreginatu baita bekhatua, hala bet-hiko bizitzerako erregina dadien grazia zuzenespenaz, Jesu-Kristo gure Jaunaren bidez.

VI. KAP.

1. Zer erranen dugu beraz? Bekhatutan egonen gare, nasai dadiantzat grazia?

2. Urrun hortarik. Ezen bekhatuari hil garenak, hartan nola biziko gare oraino

3. Ala ez dakizue Jesu-Kristoren baithan bathaiatuak izan garenak, haren heriotzean gara bathaiatu?

4. Ezik bathaioaz harekin ehortziak izan gare bekhatuari hiltzeko; arren-eta, Kristo Aitaren ospez hiletarik biztu den bezala, hala guk ere bizitze berri batean erabil detzagun gure urhatsak.

5. Alabainan haren heriotzearen idurikundean harekin ehortziak izan balin bagare, haren arrebiztearen idurikundean ere batean jaikiko gare;

6. Dakigunaz geroztik, harekin batean gurutzefikatua izan dela gure gizon zaharra, ezeza dadiantzat bekhatuaren izatea, eta ez dezagun gehi-ago bekhatua zerbitza.

7. Ezen hila dena, bekhatutik garbitua da.

8. Bada Kristorekin hilak bagare, sinhesten dugu, Kristorekin batean halaber biziko gara;

9. Baitakigu, hiletarik biztu denetik Kristo, ez dela gehiago hilen, gehiago herioa etzaiola nausituren.

10. Alabainan bekhatuarentzat hil denaz, behin hil da; bizi denaz ordean, Jainkoarentzat bizi da.

11. Halaber zuek ere idukatzue zuen buruak bekhatuari hiltzat, Jainkoarentzat ordean bizi Jesu-Kristo gure Jaunaren baithan.

12. Ez bedi beraz erregina bekhatua zuen gorputz hilkizunetan, haren zalekeriei amor egiteko.

13. Zuen alderdiak ere tzarkeriako tresnatzat bekhatuari ez eman; bainan hiletarik biztuak zareten bezala, Jainkoari eskain diozotzue zuen buruak eta zuzenbidezko tresnatzat zuen alderdiak.

14. Ezen etzaitzue bekhatua nausituko, etzaretelakoz legearen azpian, bainan-bai graziarenean.

15. Zer bada! bekhatu eginen othe dugu zeren ez garen legearen azpian, bainan-bai graziarenean? Urrun holakorik.

16. Norbaiten zerbitzuan, haren manuko jartzen zaretenean, ez othe dakizue hainaren gathibu zaretela zeinaren manuak egiten baitituzte, edo bekhatuarenak heriotzerako, edo ethorduntasunarenak zuzentasunerako?

17. Bainan Jainkoari eskerrak, zeren zareten, bekhatuaren gathibu izanik, besarkatu duzen irakhasmeneko legeari ethordun.

18. Horreletan bekhatuaren lokharrietarik atheraturik, zuzenbidearen zerbitzari jarri zarete.

19. Gizon arara mintzo naiz, zuen haragiaren herbaltasunaren gatik: ezen nola lohikeriaren eta tzarkeriaren zerbitzuan tzarkeriakotzat erabili baitituzte zuen alderdiak, orobat zuzenaren zerbitzuan zuen sainduespe-nerako balia zatzue orai.

20. Ezen bekhatuaren gathibu zinetenean, zuzenaren lokharririk gabe zinabiltzaten.

21. Zer on izatu duzue bada orduan eginkari hekiatarik, zeinetaz ahalke baitzarete orai? Alabainan heriotzea da hekien azken burua.

22. Orai aldiz, bekhatutik libratuak eta Jainkoaren gathibu eginak, sainduespena da atheratzen duzuen ona, azken burutzat berriz, bethiereko bizitzea.

23. Heriotzea da ezen bekhatuaren saria; aldiz, Jesu-Kristo gure Jaunaren bidez bethiereko bizitzea da Jainkoak deman grazia.



VII. KAP.

1. Anaiak, ez othe dakizue (ezen legeaz jakintsun direnei naiz mintzo), legeak azpian ez dadukala gizona, bizi deno baizik?
2. Alabainan senharraren meneko den emaztekoa, senharra bizi deno legearen lokharrietan da; hiltzera heldu bada ordean senharra, haren legearen azpitik atheratzen da emaztea.
3. Beraz senharra bizi duelarik, lohi deithua izanen da, bertze batekin egon bada; bainan senharraren legetik atheratu da, hiltzera ethorri bada hura, haletan non ez baita lohi bertze batekin ezkondurik ere.
4. Horreletan, anaiak, Kristoren gorphutzaren bidez legeari hilak zarete, hiletarik biztua den bertze batenak izateko, athera detzagun Jainkoarentzateko fruituak.
5. Ezik haragiaren manuko ginenean, legearen burutik zathortzen lehia tzarrek, heriotzerako fruitu ekharraztera hari zitzaizkoten gure alderdiei.
6. Bainan orai heriotzearen lege, idukitzen gintuenaren azpitik atheratuak gare; haletan non Jainkoa zerbitzatzen baitugu izpirituaren berritasunean, eta ez hitzaren zahartasunean.
7. Zer erranen dugu beraz? Bekhatu da legea? Urrun dago. Bainan legearen bidez baizik ez dut ezagutu bekhatua; ezen ez nukeen zalekeria ezagutu, legeak ez balarot erran: Ez zale.
8. Manamendutik ordean bide harturik, bekhatuak ene baithan sorrarazi ditu zalhekeria guziak. Ezen legea gabe, hila zen bekhatua.
9. Bada, lehen ni legea gabe nintzen bizi; bainan manamendua ethorri denean arrebiztu da bekhatua.
10. Eta ni hila naiz; eta gerthatu zait hiltzerako, bizitzerako zen manamendua.
11. Bekhatuak alabainan, manamendutik bide harturik, enganatu eta manamenduaz hil nau.
12. Halarik-ere saildua da legea; eta manamendua, saildu, zuzen eta ona.
13. Zer beraz, ona dena ene hilgarri egin othe da? Urrun dago. Bainan zena zenarentzat agertzeko, bekhatuak gauza onaz eman darot heriotzea; haletan non bekhatua manamenduaz baliatu baita gaizkiari gairi eragiteko.
14. Badakigu ezen izpirituzkoa dela legea; ni ordean haragizkoa, bekhatuaren meneko saildua.
15. Alabainan egiten dudana ez dut aditzen, zeren nahi dudana ongi hura ez baitut egiten; ordean higuin dudana gaizkia, hura egiten dut.

16. Bada, nahi ez dudana egiten badut, legeari ona dela aithor emant diot.
17. Orai ordean ez naiz ni haren egilea, bainan-bai ene baithan dagoen bekhatua.
18. Badakit alabainan onik ez dela ene baithan, erran nahi da ene haragian; ene baithan da ezen nahia, ez dut ordean aurkhitzen nola egin ongia.
19. Ez dut alabainan egiten nahi dudana ongia; ordean nahi ez dudana gaizkia, hura egiten dut.
20. Baldin beraz nahi ez dudana gaizkia egiten badut, ez naiz ni haren egile, bainan-bai ene baithan dagoen bekhatua.
21. Ongia egin nahi dudanean beraz, kontrako lege bat aurkhitzen dut, ene baithan delakoz gaizkia;
22. Ezen Jainkoaren legeari gozo hartzen diot, gizon barrenkoiaeren arabera;
23. Bainan ene alderdietan ikhusten dut bertze lege bat, ene izpirituko legeari borroka egiten dioena, eta ene alderdietan den bekhatuaren legean gathibu nadukana.
24. Naizen gizon dohakabea, nork libratuena nau gorphutz hilgarri huntarik?
25. Jainkoaren graziak, Jesu-Kristo gure Jaunaren bidez. Gogoz beraz zerbitzatzen dut Jainkoaren legea; haragiz ordean, bekhatuarena.

VIII. KAP.

1. Orai beraz kondenamendurik ez da batere Jesu-Kristoren baithan bizi eta haragiaren arabera ibiltzen direnentzat.
2. Alabainan Jesu-Kristoren baithan den bizizko izpirituaren legeak atheratu nau bekhatuaren eta herioaren legepetik.
3. Ezen haragiak erkhitzen zuelakoz legearentzat ezin-zena, Jainkoak egin izan du, bekhatuzko haragia bezalako batean igorritz bere Semea, eta bekhatuaren ariatik haragian kondenatu du bekhatua;
4. Legeak galdatzen duen zuzenpena bethe zadien gutan, ez haragiaren, bainan izpirituaren arabera gabiltzanen baithan.
5. Izatez-ere, haragiaren arabera bizi direnek, haragiaren gauzei gozo hartzen diote; aldiz, izpirituaren arabera bizi direnek, izpirituari dagozkiotenak dituzte lakhet.
6. Bada haragiaren oldea heriotzea da; izpirituarena berriz, bizitzea eta bakea;



7. Zeren haragiaren oldea Jainkoaren etsai baita, ez dago ezik Jainkoaren legearen azpian, alabainan-ere ezin dagoke.
8. Bada, haragiaren arabera bizi direnak ezin daitezke Jainkoaren gogarako.
9. Zuek ordean etzarete haragiaren arabera bizi, bainan-bai izpirituaren arabera; baldin bizkitartean zuen baithan badago Jainkoaren Izpiritua. Aitzitik norbaitek ez badu Kristoren Izpiritua, hura ez da harena.
10. Bainan zuen baithan balin bada Kristo, bekhatuaren gatik hila da bai gorphutza, izpiritua ordean bizi da zuzenpenaren ariaz.
11. Jesu hiletarik biztu duenaren Izpiritua zuen baithan balin bada, Jesu-Kristo hiletarik biztu duenak, zuen gorphutz hilkitzuneire emanen diote bizia, zuen baithan dagoen Izpiritu haren ariaz.
12. Horreletan, anaiak, ez gare haragiaren alderat zordun, haragiaren arabera bizitzeko.
13. Alabainan bizitzen bazarete haragiaren arabera, hilen zarete; aldiz izpirituaz hiltzen badituzte haragiaren izinkariak, biziko zarete.
14. Ezen Jainkoaren Izpirituak derabiltzanak, hekiek dire Jainkoaren umeak.
15. Ez duzue alabainan gathibusuneko izpiritua izatu, oraino ere beldurrean ibiltzeko, bainan izatu duzue semeordegoako izpiritua, zeinaren ariaz oihu egiten baitugu: Abba (Aita).
16. Ezen Izpirituak berak gure izpirituari lekhukotasun egiten dio, Jainkoaren ume garel.
17. Aldiz, ume bagare, halaber ondore gare; bada Jainkoaren ondore, Kristoren ondorekhide berriz; baldin bizkitartean, harekin ospatuak izateko, harekin badugu jasaiten.
18. Dadukat bada mende huntako jasankizunak, egun batez gure baithan agertu behar den ospearen bethe ez direla.
19. Ezen kreatura guzien irritsa Jainkoaren umeen agertzapenari dago iguri;
20. Zeren hutsalkeriaren azpiko baitire, ez beren nahitara, bainan hai-naren gatik zeinak pheskizan ezarri baititu,
21. Kreatura bera ere galkortasunaren azpitik Jainkoaren umeen libertatera atheratua izanen dela.
22. Ezen badakigu kreatura guziak orai arteo auhen eta erdiminetan direla.
23. Ez dire bada bakharrak, bainan gu geror-ere, zeinek baititugu izpirituko pikainak; geror-ere gure baithan auhenetan gaudezi, Jainkoaren semeordegoaren eta gure gorphutzeko berrerospenaren iguri.

24. Ezen ustez gare salbatuak. Bada, ikhusten den ustea ez da uste; ezen gauza ikhusten duenak, nola uste izan dezake?
25. Bada, ikhusten ez dugunaren ustetan balin bagaudezi, ephez iguri egoten gare.
26. Halaber aldiz Izpirituak ere laguntzen du gure herbaltasuna; ez dakigu ezen othoitzean zer galda behar bezala, bainan Izpirituak berak ezin-erranezko auhenez galdegiten du guretzat.
27. Bihotzen ikharleak berriz, Izpirituaren nahikaria ezagutzen du, zeren Jainkoaren arabera baitu sainduentzat galdatzen.
28. Badakigu bada, Jainkoa maite dutenei, haren erabakiaren arabera saindu izatera deithuak direnei, gauza guziak onerat zaizkotela atheratzen.
29. Alabainan bere egundainotikako jakitatean ezagutu dituenak, aitzinetik ere ditu berezi, izan ditezen haren Semearen iduriko, Semea izan dadien asko anaien arteko lehen-sorthua.
30. Bada, aitzinetik berezi dituenak, deithu ere ditu; eta deithu dituenak, zuzen ere egin ditu; zuzen egin dituenak berriz, goretsi ere ditu.
31. Horien gainera zer erranen dugu? Jainkoa gure alde balin bada, nor izanen da kontra?
32. Bere Semea bera guphidetsi ez duenak, bainan gu guzientzat eman, nolaz harekin batean ez darozkigu gauza guziak emanen?
33. Nork jazarriren diote Jainkoaren hautetsiei? Jainkoa denean garbi atheratzaile,
34. Nor izanen da hekien kondenatzeko? Jesu-Kristo hil dena, eta oraino arrebiztu ere dena, Jainkoaren eskuinean dagoena, hura da halaber gure alde mintzatzen dena.
35. Nork beraz gu gibela Kristoren amodiotik? Nahigabeak, ala hesturak, ala goseak, ala buluztasunak, ala galmentak, ala jazartze, ala ezpatek?
36. (Iskribatua den bezala: Egun oroz zure ariaz hiltzen gaituzte; hiltzeko ardi batzuentzat gaduzkate.)
37. Bainan horien orenen erdian, gu maithatu gaituenari esker, garaitiar gare atheratzen.
38. Segur naiz ezen, ez herioak, ez biziak, ez aingeru, ez buruzagi, ez bothereek; ez oraino, ez geroko gauzek, ez indarrak,
39. Ez goratasunak, ez barnatasunak, ez-eta bertze edozein kreaturak, ezin gibelatuko gaituztela Jainkoaren amodio, Jesu-Kristo gure Jaunaren baithan denetik.



IX. KAP.

1. Jesu-Kristoz, egia diot, ez dut gezurrik erraten, ene barneak lekukotasun egiten baitarot Izpiritu sailduaz,
2. Ilhundura handitan nagoela, eta baratzen ez den bihozminean.
3. Nahi nukeen ezik Kristok neroni anathema egin nintzan, ene anaia, haragiaren arabera ene odolekoak direnentzat,
4. Hekiek baitire Israeldarrak, zeinek baitituzte seme ordegoa, ospea, lekukotasuna, adoratzeko moldea eta agintzak;
5. Zeinen aitak, patriarkak baitire, eta zeinetarik ilkhi baita haragiaren arabera Kristo, Jainko dena, gauza guzien gaineko, mendeetan benedikatua. Halabiz.
6. Ez da bada erori ere Jainkoaren hitza. Ezen Israelen ganik ilkhirikako guziak ez dire Israeldar,
7. Eta Abrahamen ganikako guziak ez dire haren seme; baina Isaaken baithan deithuko zaizkitzu zure odolekoak;
8. Erran nahi da haragitik ume direnak, ez direla hekiek Jainkoaren haur; baina agintzako umeak, hekiek direla iraulgizat idukiak.
9. Huna ezen agintzako hitza: Urthe mugan ethorriko naiz, eta Sarak izanen du seme bat.
10. Eta Sara etzen bakharra; baina Errebekak ere etzanaldi batetik izan zituen bi seme gure aita Isaaken ganik.
11. Ezen oraino sorthuak etzirelarik, egin baino lehen zerbait ongi edo gaizki, (Jainkoaren erabakia gogor egon zadien, haren hautuaren arabera.)
12. Ez egintzen ariatik, baina deitzen duenaren ariatik errana izan zitzaioen,
13. Zaharrenak gazteena zerbitzatuko zuela, iskribatua den bezala: Maithatu dut Jakob, aldiz gaitzetsi Esau.
14. Beraz zer erranen dugu? Zuzen ez denik othe da Jainkoaren baitan? Ez horrelakorik.
15. Ezen Moisesi erraten dio: Urrikaltzen natzaioena izanen dut urrikari, eta urrikaltzen natzaioenari erakhutsiren diot urrikalmendu.
16. Hori ez da beraz ez nahi duenaren ez laster egiten duenaren eskuan, bainanbai Jainko urrikalmendu hartzen duenarenean.
17. Ezen Iskirituran Faraoni erraten dio: Huntako berekotzat eraiki haut, hire gainean erakhuts dezadan ene indarra, eta aipha dadien ene izena lurreko bazter orotan.
18. Nahi duenaz urrikaltzen da beraz, eta nahi duena gogortzen du.

19. Hargatik erraten darotadazu: Geroztik zertako arrangurutzen da, ezen nork enferra egiten dio haren nahari?
20. Oi gizona, nor haiz hi Jainkoari ihardesteko? Lurrezko untziak, egin duenari erraten othe dio: Hula zergatik egin nauzu?
21. Ala ez othe da baxeregilearen eskuko orhe beretik egitea ohoretako untzi bat, bertze bat berriz ahalkerietako?
22. Nork zer errateko du, Jainkoak erakhutsi nahiz bere hasarrea eta agerrarazi bere ahala, jasankortasun handirekin jasaiten baditu hasarrezko untzi, galdu behar batzu?
23. Bere ospeko aberastasunen erakhusteko bere ospekotzat aphaindu dituen urrikalpenezko untzi batzuen gainean,
24. Gure gainean, ez Juduetarik bakharrrik, baina jendaietarik ere deithu dituen gainean,
25. Oseeren ahoz dioen bezala: Ene populu deithuko dut ene populu etzena; ene maitea, maite ez nuena; eta urrikalmendu ardietsia, urrikalmendurik ardietsi etzuen.
26. Eta gerthatuko da toki berean zeintan errana izan baitzaioe: Etzarete zuek ene populua, han berean deithuak izanen direla Jainko biziaren ume.
27. Isaiasek berriz, Israelen gatik oiher egiten du: Israelen semeak, balire ere itsasoko iegar izpiak bezenbat, ondar bat da salbatua izanen denik.
28. Jaunak alabainan, bere zuzentasunean xahutuz eta gutituz, gutitze handi bat eginen du.
29. Eta Isaiasek aitzinetik erran zuen bezala: Armadetako Jaunak utzi ez balaroku hazia, Sodoma bezala eginak eta Gomorharen iduriko gintezkeen.
30. Zer erranen dugu beraz? Zuzenbideari jarraitzen etziren jendaiek besarkatu dute zuzenbidea, eta fedetik dathorren zuzenbidea.
31. Israel berriz, zuzenbideko legeari jarraituz, zuzenbideko legera ez da heldu.
32. Zergatik? Zeren ez fedetik, baina eginkarietarik bilhatu baitute; ezen behaztopa harria jo dute,
33. Iskribatua den bezala: Huna non Sionen ezartzen dudana behaztopa harria eta gaizbideko harria, eta hartan beren sinhestea ematen dutenetarik nihor ez da ahalketara eroriko.

X. KAP.

1. Anaiak, egia da, ene bihotzeko nahikaria eta Jainkoari ene othoitzak hekien salbamenduarentzat daude.



2. Izatez-ere, lekhukotasun bihurtzen diotet, Jainkoaren alderat khar badutela, bainan ez da jakitatearen arabera.
3. Alabainan ezagutu gabez Jainkoaren zuzentasuna, eta berena ontzat ilkhiaztea bilhatuz, Jainkoaren zuzentasunari ez diote amor ekharri.
4. Ezen Kristo da legearen azken burua, haren baithan sinhesten duten guziak zuzen eragin behar dituena.
5. Moisesek legetik dathorren zuzentasunaz iskribatu du ezen, legea bethetzen duenak, hartan aurkhituren duela bizitzea.
6. Bainan huna nola den mintzo fedetik dathorren zuzentasunaz: Zure bihotzean ez erran: Nor iganen da zerura? erran nahi, Kristoren bilha.
7. Edo nor jautsiko da lezera? erran nahi, hiletarik Kristoren deitzera.
8. Bainan zer dio Iskriturak? Hurbil da hitza, zure ahoan da eta zure bihotzean. Hori da, guk erantzuten dugun fedeko hitza;
9. Zeren aithortzen badu zure ahoak Jesus Jauna, eta Jainkoak hiletarik biztu duela sinhesten baduzu bihotzez, salbatua izanen baitzare.
10. Alabainan zuzentasunera heltzeko, bihotzez sinhetsi behar da; eta ahoko aithorrak ardiesten du salbamendua.
11. Hargatik dio Iskriturak: Edozeinek haren baithan sinhetsi dezan, ez da ahalketarako.
12. Hortan ez da bada Judutik Greziarrera berezkuntzarik; ezen orozentzat Jaun bera da, dei egiten dioten guzientzat bardin aberatsa.
13. Salbatuak izanen dire alabainan Jaunaren izenari dei egiten dioten guziak.
14. Nola ordean dei egiten dute sinheterik ematen ez diotenari? Edo nabaritu ez dutenari nola emanen diote sinheste? Berriz, nola aiphatzen adituko dute, erantzulerik gabe?
15. Haukiek aldiz, nola erantzunen dute, bidaltzen ez badire? iskribatua den bezala: Zein diren eder bakea erantzuten, egiazko ontasunak erantzuten dituzteen oinak!
16. Bainan ez dire guziak Ebanjelioari ethordun. Hargatik dio Isaiasek: Jauna, guk erantzunari nork eman dio sinheste?
17. Fedea beraz entzutetik heldu da; entzutea aldiz Kristoren hitzaren erantzutetik.
18. Diot ordean: Ez othe dute entzun? Segurki, erantzuleen mintzoa lur guziaren gainera, eta hekien hitzak lurraren bazterretaraino hedatu dire.

19. Diot oraino: Israelek ez othe ditu ezagutu? Moisesek dio lehenik: Enea ez den populu batez bekhaitz eraginen zaituztet; jendaki zoro batentzat suminduretara erorraraziko zaituztet.
20. Isaias berriz, ez da uzkur, eta dio: Bilhatzen ez nindutenek aurkhitu naute; ene galderik etzutenei garbiki agertu natzaiote.
21. Aldiz Israeli buruz erraten du: Ene besoak egun guzian hedatuak iduki diozkat populu sinhesgogor eta bihurri egile horri.

XI. KAP.

1. Diot beraz: Jainkoak hastandu ez othe du bere populua? Urrun da. Ezen neroni ere Israeldarra naiz, Abrahamen odoletik, Benjaminen iraulgitik.
2. Jainkoak ez du hastandu bere populua, zeina bere baithan egundainotik ezagutzen baitzuen. Ala ez dakizue zer dioen Iskriturak Eliasez, Jainkoari nola egin zioen Israelen kontra deihadar?
3. Jauna, hil dituzte zure profetak eta eragotzi zure aldareak; eta ni bakharra naiz gelditua, eta ene biziaren ondoan dabilta.
4. Bainan zer ihardesten dio Jainkoak? Enezat utzi ditut zazpi mila gizon, Baalen aitzinean belhauna lurrerat eman ez dutenak.
5. Horreletan beraz ordu hekietan ere, ondar batzu, haren hautuaren graziaz, izan dire salbatuak.
6. Bada, graziaz balin bazen, etzen eginkariei esker; bertzela, grazia ez da gehiago grazia.
7. Zer gerthatu da beraz? Israelek bilhatzen zuena ez duena ardietsi; hautetsiek aldiz, ardietsi dute; bertzeak berriz, itsutu egin dire,
8. Iskribatua den bezala: Jainkoak egun arteo eman diote loheriazko izpiritu bat; begiak, ikhus ez dezaten, eta beharriak, ez dezaten adi.
9. Eta dio Dabidek: Arte, eta harrapagailu, eta bebaztopagailu, eta beren sari bilhaka bekiote beren mahaina.
10. Lanbro beitez hekien begiak, ikhus ez dezaten, eta bethi makhur biozozute bizkarra.
11. Diot beraz: Eroriak egoteko behaztopatu othe dire horrela? Urrun da. Bainan hekien hutsa jendaien salbagarri bilhakatu da, hekien ikhustek ernaraz detzan.
12. Juduen hutsa munduarentzat aberastasun balin bada, eta hekien gutitzea jendaiantzat aberastasun, zenbatez hobeki hekien bethetasuna?
13. Ezen, jendaiak, zuei erraten darotzuet: Jendaien apostolu izanen naizeno, ohore emanen diot ene karguari,
14. Bermatuz hean nolazbait bekhaitzera ekhar othe detzazkedan ene odolekoak, eta salbatuko othe dudan hekietarik zenbait.



15. Ezik hekien galpena munduarentzat bakebide izatu bada, zer izanen da hekien bihurpena, non ez hiletarik biziratzea?
16. Pikaina saildu bada, orhea ere bai; erroa saildu bada, adarrak ere bai.
17. Baldin adarretarik zenbait hautsiak izan badire, zu berriz, basaka zinelarik, hekien erdian xerthatua izan bazare, eta erroan eta olibaren urinean phartedun egina;
18. Adarren gainean ez har buruioperik. Ezen hartzen baduzu, etzare erroaren jasaile, bainan erroak egartzen zaitu zu.
19. Erranen duzu beraz: Ene xerthatzeko, adarrak izan dire hautsiak.
20. Ongi diozu; beren sinhesgogortasunaren ariaz hautsiak izan dire. Zu aldiz fedez zaude sendorik; berautzu hant, bainan beldur izan zaitezi.
21. Ezen baldin Jainkoak ez baditu berebidezko adarrak guphidetsi, zu ere ez ahal zaitu guphide izanen.
22. Iklusatu beraz Jainkoaren ontasun, garraztasunak; garraztasuna erori direnen alderat; aldiz Jainkoaren ontasuna zure alderat, baldin pres-tutasunean irauten baduzu; zu ere bertzenaz moztua izanen zare.
23. Bainan hekiek ere beren sinhesgaiztasunean egoten ez badire, xerthatuak izanen dire; Jainkoak ezen badu hekien berriz xerthatzeko ahala.
24. Zu alabainan ekharri zaituen olibondo basakatik ebakia izan bazare, eta olibondo onean zure ethorkiaren kontra xerthatua; zenbatez hobeki hekiek beren ethorkiaren arabera izanen dire beren olibondoari xerthatuak.
25. Ezen, anaiak, misterio hortaz argitu gabe etzaitzuet utzi nahi (etzaitzeten zuen idurira zuhur izan), itsumendua erori dela Israelgo zathi baten gainera, jendaia guziak sar ditezen arteo;
26. Eta gero Israel guzia salbatua izanen dela, hala-nola iskribatua baita: Siondik ethorriko da, Jakob en ganik tzarkeria khenduko eta irazi-ko duena.
27. Eta hori da hekiekin eginen dudana batasuna, ezeztatu ditukedanean hekien bekhatuak.
28. Ebanjelioaren arabera, hala da, etsai dire zuen ariaz; bainan hautespenaren arabera, xitezko maiteak dire beren arbasoen gatik.
29. Urrikigabeak dire alabainan Jainkoaren emaitza eta deitpena.
30. Ezik nola lehen Jainkoaren baithan ez baitzinduten sinheterik, eta orai Juduen sinhesgogortasunaren ariaz urrikalpen ardietsi baituzue;
31. Hala hekiek ere ez dute sinhetsi zuen alderako urrikalpena, beren aldian urrikalpen ardiets dezaten.

32. Jainkoak ezen oro sinhesgaiztasun batean hertsitu, guziak gero urrikalmendutan hartzea gatik.

33. Oi Jainkoaren zuhurtzai jakitateen murrugoa: zeinen diren ezin-nabarituzkoak haren erabakiak, eta ezin-ikhartuzkoak haren bideak!

34. Nork ezen ezagutu ditu Jainkoaren asmuak, edo nor sarthu da haren kontseiluko?

35. Edo nor haritu zaio lehenik ematen, gero izan dezan sari?

36. Alabainan oro dire haren ganik, haren bidez, haren baithan. Ospe hari menderen mendez. Halabiz.

XII. KAP.

1. Jainkoaren urrikalmenduaren izenean beraz, anaiak, othoizten zaitzuet eskain detzatzuen zuen gorphutzak, hala-nola bitima bizi, saildu, Jainkoaren gogarako bat; adimenduzkoak izan ditezen zuen errekeiak.

2. Ez bezaitzete jar mende hunen eredurako, bainan zuen izpiritua- ren berritapenaz aida zaitzete bizitze berri batera, ezagut dezazuen nola-koa den Jainkoaren nahia, haren begietako zer den on, gogaragarri eta perfet.

3. Niri emana izan zaitan graziaz derratzuet beraz zuen arteko guziei: Zuen buruez ez izan premia den baino gehiagoko eskerrik; bainan zuen buruei eskerra emozue zuhur, Jainkoak bakhotxari neurtu dioen fedearan arabera.

4. Alabainan, nola gorphutz bakharrean asko alderdi baititugu, alderdi bakhotxak ordean ez baitute egiteko bera;

5. Hala Kristoren baithan askok egiten dugu gorphutz bakhar bat; bakhotxa ordean bata bertzearen alderdi gare.

6. Bada, batzuek bertzeek ez bezalako dohainak ditugunaz geroztik, emana izan zaikun graziaren arabera; profeziako dohaina duenak, fedeko ariaren arabera balia beza;

7. Elizan kargu bat duenak, bere eginbideak bethe betza; irakhaste dena, irakhasten hari bedi;

8. Dei egileak, solas onez dei egin beza; amoina emailea, lainotasunean ematen hari bedi; buruzagitasuna duenak, ardurarekin hotseman beza; urrikalmenduzko eginkarietan hari dena, goihereki hari bedi.

9. Amodioa alegiagabea izan bedi. Higuin gaizkia, itxik ongiari;

10. Karitate anaiakinaz elkhar maitha; ohore ekhartzera bata bertzeari aitzin;

11. Eginbidean ez izan nagiz; izan izpirituz khartsu, Jaunaren zerbitzatzaile,



12. Pheskizan boz, ordu gaitzean jasankor, othoitzari jarraiki,
13. Sainduei beharretan laguntza egile, arrotzari leihor emaile.
14. Benedika zatzue jazarka hari zaizkitzuenak; benedika zatzue, eta berautzue madarikatzetik.
15. Bozten direnekin boz zaitetzte; nigarrez daudenekin nigar egizue.
16. Izan zaitetzte elkharren artean gogo bereko; ez lakhet izan asmu gorak, bainan aphaltak onhetsatzue. Zuen buruak gurbiltzat ez iduk.
17. Gaizkia gaizkiarentzat nihori ez bihur; ongiaren egitera erne zauzete, ez ezik Jainkoaren aitzinean, bainan gizon guzien aitzinean ere.
18. Nihondik ahal bada, zuetan den bezenbatean, guziekin izan zazue bakea.
19. Anaia guziz maiteak, ez izan zuen buruei asper emaile, bainan hasarreari goateko emozue bide. Iskribatua da ezen: Niri aspertzea; nik sarizta, dio Jaunak.
20. Aitzitik, baldin goseak badaduka zure etsaia, jaterat emozu; ega-ri bada, edaterat; ezen horrela eginez, suko ikhartzak bilduko diozkatzu buruaren gainera.
21. Gaizkiaz zure burua azpiratzerat ez utz, bainan ongiar harrozu gaina.

XIII. KAP.

1. Edozein, gaineko buruzagien azpian ethordun egon bedi: buruzagitasunik alabainan ez da Jainkoaren ganik ez dathorrenik; direnak beraz, Jainkoak ezarriak dire.
2. Hargatik buruzagiari bihurtzen denak, Jainkoaren arrimuari egiten dio bihurri; bihurri egileek berriz, kondenamendua biltzen dute;
3. Ezen ez da aitzindarien beldurrik izateko egin den ongiaren gatik, bainan-bai gaizktaren ariaz. Beraz buruzaiaren beldurrik ez duzu izan nahi? Egizu ongia, eta haren ganik laudorio izanen duzu.
4. Alabainan Jainkoaren ministro da zure onerako. Aldiz, gaizkia egiten baduzu, beldur izan zaitezi; ezen ez du ariarik gabe ekhartzen buruzagiak ezpata. Alabainan Jainkoaren ministro da, haren hasarreari asper emateko gaizkia egiten duenaren gainean.
5. Hargatik premia den bezala izan zaitetzte ethordun, ez ezik beldurrez, bainan eginbide jakinez ere.
6. Aria hortaz halaber ematen ditutzue zergak buruzagiei, Jainkoaren ministro direlako, kargu hortan haren zerbitzatuile.

7. Batbederari beraz zor diozuen a bihurroze; figoa zor zaioenari, figoa; zerga hartze duenari, zerga; beldurra zor zaioenari, beldurra; ohorea bada, ohore.

8. Nihoren alderat deusez zordun ez geldi, non-ez elkharri zor dugun amodioaz; ezen laguna maithatzen duenak, legea bethetzen du.

9. Alabainan: Etzare bertzeren emaztearekin khutsaturen; Ez duzu hilen; Ez duzu ebatsiko; Lekhukotasun gezurrezkorik eginen ez duzu; Bertzerenaz irrtsik izanen ez duzu, eta bertze zerbait manamendu balin bada, oro hitz huntan sartzen dire: Maithaturen duzu laguna zure burua bezala.

10. Lagunarentzateko amodioa ez da gaizki egiterat hari. Lagunarentzateko amodioa da beraz legearen bethetasuna.

11. Eta badakigu hau dela ordua; zeren ja lotarik atzartzeko muga ethorria baitugu. Ezen orai, sinheste hartu dugunean baino hurbilago da gure salbamendua.

12. Goan hurrana da gaua, eguna berriz hurbildua. Utz detzagun beraz ilhunbetako eginkariak, eta soinera har detzagun argitako harmak.

13. Egunaz bezala onhestki ibil gaitezen; ez aseketetan, ez hordikerietan, ez oheetan, ez likhiskerietan, ez eskatimetan, ez bekhaizgoetan;

14. Bainan jauntzi zaitetzte Jesu-Kristo Jaunaz, eta haragiaz ez dezazuela izan artha, hunen zalhekerien bethetzeko.

XIV. KAP.

1. Fedean malbu dena har zazue, ustekerien gainean eztabadarik erabili gabe.
2. Alabainan uste du batek edozein gaua jan dezakeela; malbu denak berriz, baratzekaririk baizen ez dela jan behar.
3. Jaten duenak jaten ez duenari ez biozo baiarik eratzik, eta jaten ez duenak ez beza jua jaten duena; zeren Jainkoak berekilako hartu baitu.
4. Nor zare zu, bertzeren zerbitzariaren juitzeko? Gothor badago, edo erortzen bada, bere nausiarentzat egiten da. Bainan gothor egonen da, zeren haren gohortzeko ahaldun baita Jainkoa.
5. Alabainan batek egunen artean egunak berezten ditu; bertze batek berriz, oro bardintzat daduzkitza; zeinek bere ustearen arabera egin beza.
6. Egunzale dena, Jainkoaren gatik da zale. Eta jaten duenak, Jaunaren gatik jaten du; ezen Jainkoari eskerrak bihurtzen diozka. Eta jaten ez duenak, Jaunaren gatik ez du jaten, eta harek ere eskerrak bihurtzen diozka Jainkoari.



7. Alabainan gutarik nihor ez da bere arietan bizitzen, eta nihor ez da bere arietan hiltzen.

8. Ezik, edo bizi gaitezen, eta Jaunaren ariaz gare bizitzen; edo hil gaitezen, eta Jaunaren ariaz gare hiltzen. Beraz, ala bizi, ala hil gaitezen, bethi Jaunarenak gare.

9. Horren gatik alabainan hil eta biztu izan da Kristo, hilen eta bizien Jaun izateko.

10. Zu beraz zer hari zare anaiaren juiatzen? edo zuk anaiari nolaz baiarik eratzikitzen diozu? Ezik Kristoren tribunalera agertzekoak gare guziak.

11. Iskribatua da ezen. Ala ni! dio Jaunak, ene aitzinean lurra joko duela belhaun edozeinek; eta Jainkoari aithor, edozein mihik dioela bihurturen.

12. Horreletan gutarik batbederak beretzat Jainkoari garbitasun emanen dio.

13. Elkhar ez dezagun beraz gaurgero juia; bainan lehenago juia zazue, ez diozuela anaiari behaztopagailurik edo gaizbiderik aitzinerat eman behar.

14. Badakit, eta Jesus Jaunaren arabera gerthu dadukat, deusere ez dela berenez arrontekorik; non-ez arronteko dadukanarentzat, harentzat dela arronteko.

15. Bainan jaten duzunaren ariaz zure anaiak izaten badu atsekabe, etzabiltza geroztik karitatearen arabera. Jaten duzunaz ez gal haina, zeinarentzat hil izan baita Kristo.

16. Ez bedi beraz gure ona elhe gaixtoen bidetan izan.

17. Ezik Jainkoaren erresuma ez dago jan-edanetan; bainan-bai zuzenbidean, bakean eta Izpiritu sainduaren ganikako bozkarioan;

18. Alabainan Kristo horreletan zerbitzatzen duena, Jainkoaren gogarako da eta gizonen aithorreko.

19. Hargatik detzagun bilha bakeari datxikoten gauzak, eta batzuek berteen alderat begira detzagun onbideari dagozkionak.

20. Jateko baten gatik ez urra Jainkoaren gana. Guziak, hala da, bardin xahu dire; bainan gaizbide emanez jaten duen gizonak, gaizki egiten du.

21. Ongi da haragirik ez jatea, arnorik ez edatea, eta zure anaia behaztoparazten, edo gaizbidetan ematen, edo eritzen duenik deusere ez egitea.

22. Fedearen jabe zare? zure baithan izan zazu Jainkoaren aitzinean: Dohatsu gizona, onhesten duen gauzaz bere burua kondentzen ez duena.

23. Bainan berezten, eta halere jaten badu, kondentua da; zeren ez duen bere sinhestearen arabera egiten. Bada, sinhestearen araberrako ez diren guziak, bekhatu dire.

XV. KAP.

1. Hazkarrago garenek beraz, herbalen ahulkeriak jasan behar ditugu, eta ez gure gogarat egin.

2. Ongian onbide emateko, zuetarik bakhotzak lagunari gogarat egin biozo.

3. Alabainan ere kristo ez da bere gogarat egiten haritu, iskribatua den bezala: Zuri irainka hari zirenen irainak ene gainerat erori dire.

4. Ezen iskribatuak diren guziak, gure argitzeko iskribatuak dire, Iskribuetarik dathorzkgigun jasankortasunaren eta gozoaren bidez pheskizatsu izan gaitezen.

5. Bada, jasankortasun eta gozakarietako Jainkoak demazuela elkharrekilako gozo hartzea Jesu-Kristoren arabera;

6. Bihotz eta aho berez ohore bihur diozozuen Jainkoari, Jesu-Kristo gure Jaunaren aitari.

7. Hargatik elkhar onhetsazue, Kristok ere Jainkoaren ohoretan onhetsi izan zaituzten bezala.

8. Diot ezen Jesu-Kristo izan dela ingurebakien ministro, hekien arbasoei eginak ziren agintzen bethapenez agerrarazteko Jainkoaren zintasuna.

9. Jendaiak berriz, ohoratu behar dute Jainkoa, haren urrikalkortasunaren ariaz, iskribatua den bezala: Hargatik, Jauna, aithor bihurturen darotzut jendaien erdian, eta kantaturen dut zure izenaren ospatzeko.

10. Eta errana da oraino: Jendaiak, boz zaitezte haren populuarekin.

11. Eta oraino ere: Jendaiak, lauda zazue guziek Jauna, eta goretsazue populu guziek.

12. Eta dio Isaiasek ere: Jeferen errotik ilkhiko da gando bat, eta jendaien gainean erreginatzeraz jaikiko denaren baithan idukiko dute jendaiak beren pheskiza.

13. Bada igurikitako Jainkoak bozkario guziez eta bakez bethe betzaiztate zuen sinhestean; zuen baithan nasai ditezen igurikimena eta Izpiritu sainduaren ganikako indarra.

14. Neroni berriz, segur naiz, anaiak, karitatez betheak zaretela, eta jakitate orotaz aberastuak, batak bertzea argi dezakezen bezala.



15. Halere, anaiak, horien orhoitzapenera zuen bihurrazteko xedetan, ausarkixe bezala iskribatu darotzuet, Jainkoak eman izan darotan graziaren ariaz,

16. Jesu-Kristoren ministro jendaien artean izateko, sailduetsiz Jainkoaren Ebanjelioa, jendaien eskaintza izan dadien onhetsia eta Izpiritu sailduaz sailduetsia.

17. Jesu-Kristoren baithan dut beraz Jainkoaren begietako ospea.

18. Ezen ez naiz ausartatzen deuseren aiphatzera Kristok ene bidez egin ez dituenetz, ethorkortasunaren azpira jendaien biltzeko hitzaz eta eginkariez,

19. Sendagailen eta mirakuluen indarraz, Izpiritu sailduaren eragintzari esker; haletan non, Jerusalemetik Iliriara, inguruan hedatu baitut Kristoren Ebanjelioa.

20. Bada, huna nola erantzun dudan Ebanjelio hau: ez dut egin, Kristoren izena aiphatua zen tokietan, bertzeek arthiki asentuen gainean altxatzen ez haritzea gatik; bainan iskribatua den bezala:

21. Haren berri izan ez dutenek ikhusiko dute, eta entzun ez dutenek adituren dute.

22. Horra zerk askotan egin darotan poxelu, zuen ikhustera ethortzeko gogotan nintzelarik, eta trabatu nau orai arteo.

23. Bainan orai gehiago ez baitut aurkhintza haukietan egoteko ariarik, eta aitzineko hainitz urthe haukietan zuen ganat ethortzeko lehietan bainaiz;

24. Pheskiza badut ikhusiko zaituztedala Espainiarako bidaiari lothuko naizenean, eta harat lagunduko nauzuela, behin zuekin gozo aphur bat hartzen ahal badut.

25. Orai beraz Jerusalemara abian naiz, sailduei laguntza zerbaiten egiteko.

26. Ezen Mazedoniak eta Akaiak, Jerusalemen diren sailduen arteko beharrei laguntza aphur baten emateko xedea hartu dute.

27. Hola izan dute gogarako, eta zor ere badiote. Alabainan hekien ontasun ispiritualetan phartedun egin badire paganoak, haukiek ere mendekoetarik laguntza eman behar diote.

28. Gauza hori egin dukedanean beraz, eta hekiei erran den laguntza phartiturik, zuen baithan gaindi Espainiara goanen naiz.

29. Badakit aldiz, zuen ganat ethortzean, Kristoren Ebanjelioko benedizionearen nasaizian ethorriko naizela.

30. Othoizten zaituztet beraz, anaiak, Jesu-Kristo gure Jaunaz eta Izpiritu sailduaren ganikako karitateaz, laguntza nezazuen Jainkoari enetzat eginen diozkatzuen othoitzez,

31. Judean diren fedegabekoen aztaparrei itzur nadien, eta Jerusalemen sailduiek onhetsiz izan diren laguntzen eskaintza;

32. Gero zuen ganat, Jainkoaren nahiarekin, bozkariotan ethortzeko, eta zuekin gozo aphur baten hartzeko.

33. Jainko bakezkoa berriz, zuekin ororekin izan bedi. Halabiz.

XVI. KAP.

1. Gomendatzen darotzuet berriz, gure arreba Phebe, Zenkreako Elizaren zerbitzuan dena;

2. Jaunaren izenean har dezazuen, sailduei dihoakioten bezala, eta laguntza dezazuen edozein egitekotan, zeintan baitu izanen zuen beharra; alabainan berak askori eta niri ere laguntza egin izan daroku.

3. Ene izenean agur egiozute Priskari eta Akilari, zeinek Jesu-Kristoren zerbitzuan lagundu izan bainaute

4. (Ene biziarentzat beren buruak galbidetan ezarri dituzte; ez naiz bakharrak eskerrak hekiei bihurtzeko, bainan jendaietako Eliza guziak ere),

5. Eta hekien etxeko Elizari. Agur egiozute Epeneto ene adiskide maiteari, zeina baita Asiako Elizaren pikaina Kristoren baithan.

6. Agurrak Mariari, zeinak zuen artean nekhe handiak erabili baititu.

7. Agurrak ene ahaide eta presondegiko lagun Andronikori eta Juniari, zeinak apostoluetan aiphatuak baitire, eta ni baino lehen Kristoren legean jarriak.

8. Agurrak Anpliasi, Jaunaren baithan ene guziz maiteari.

9. Agurrak Urbanoris Jesu-Kristoren, zerbitzuan ene laguntzaileari, eta Estakisi, ene maiteari.

10. Agurrak Apelesi, Kristoren baithako prestuari.

11. Agurrak Aristobuloren etxekoei. Agurrak ene ahaide Herodioni. Agurrak Narzisoreren etxeko, Jaunarenak direnei.

12. Agurrak Triphenari eta Triphosari; zeinek Jaunarentzat nekhe hartzen baitute. Agurrak Perfida maite-maiteari, zeina Jaunarentzat nekhe handitan sarthu baita.

13. Agurrak Errufori, Jaunaren hautetsiari, eta haren amari, enea bezala dadukanari.

14. Agurrak Asinkritori, Phlegoni, Hermasi, Patrobari, Hermesi, eta hekiekin diren anaiei.



15. Agurrak Philologori eta Juliari, Nereori eta haren arrebari, eta Olinpiari, eta hekiekin diren sailu guziei.

16. Musu sailu batez agur egizue elkarri. Kristoren Eliza guziek goraintziak igortzen darozkitzue.

17. Othoizten zaituztet bada, anaiak, zuek ikhasi duzuen irakhasmenaren kontra makhur eta gaizbide atheratzen hari direnei berautzue, eta hekietarik aldera zaitzete.

18. Ezen horrelako jendeek, ez Kristo gure Jauna, bainan beren sabe-la zerbitzatzan dute; eta lainoak, beren elhe ezti eta legunkeriez balakatzan dituzte.

19. Bada, orotan aiphatua da zuen ethorkortasuna. Bozten naiz beraz zuen ariaz. Bainan ikhasi nahi zaituztet ongiko jakintsun, eta laino gaizkiko.

20. Bakezko Jainkoak berriz, laster zuen oin-petan leher beza Satan. Jesu-Kristo gure Jaunaren grazia zuekin izan bedi.

21. Agur egiten darotzue Timotheo ene lagunak, eta ene ahaide Luziok, Jasonek eta Sosipaterrek.

22. Jaunaren izenean agur nik, Terziok, gutun hau iskribatu dudanak.

23. Kaio ene arrotzak eta Eliza guziak agur. Erasto hiriko khutzazainak eta anaia Kuartok agur egiten darotzue.

24. Jesu-Kristo gure Jaunaren grazia zuekin orekin izan bedi. Halabiz.

25. Aldiz, ospe ahaldun denari zuen gogortzeko nik erantzuten ditudan Ebanjelio eta Jesu-Kristoren legean, egundainoko mendeetan gordea egonik, jendaia guzietan ezagutua den misterioaren agertzapenaren araber

26. (Zeina orai agertu baita profeten Iskrituren bidez, egundainotik Jainkoak manatu bezala, fedearen azpira guzien biltzeko);

27. Jainko baxharrik zuhurrari, Jesu-Kristoren bidez, ospe eta ohore menderen mendetan. Halabiz.

KORINTHOARREI JAUN DONE PAULO APOSTOLUAREN LEHENBIZIKO GUTUNA

I. KAP.

1. Paulo, Jainkoaren nahiaren bidez Jesu-Kristoren apostolu deithua, eta Sosthenes anaia;

2. Korinthon den Jainkoaren Elizari, Jesu-Kristoren baithan sailduetsiei, saildu deithuei, hekien eta gure tokietan non-nahi Jesu-Kristo gure Jaunaren izenari dei egiten diotenei.

3. Jainko gure Aitaren ganik eta Jesu-Kristoren ganik grazia eta bake zuei.

4. Ene Jainkoari esker bihurtzen hari natzaio bethi, Jesu-Kristoren bidez zuei emana izan zaitzuen Jainkoaren grazia gatik;

5. Jesu-Kristoren bidez aberastuak izan baitzarete dohain guziez, zer-nahi mintzaia eta jakitatez;

6. Kristoren lekukotasuna zuen baithan zin atheratu den bezala;

7. Haletan non dohainik batere ez baituzue eskas, Jesu-Kristo gure Jaunaren agerpenari begira zaudeztenek.

8. Jainkoak halaber azkeneraino finkaturen zaituzte, hobengabe aurkhi zaitzeten, Jesu-Kristo gure Jauna ethorriko den egunean.

9. Zina da Jainkoa, zeinak deithu baitzaituzte Jesu-Kristo bere seme gure Jaunaren lagunkhidetasunera.

10. Bada, Jesu-Kristoren izenean errekeitzen zaituztet, anaiak, mintzaia berbateg mintza zaitzeten oro, eta ez dadien zuen artean izan bereztamenik, bainan izan zaitzeten bat, gogo eta sinheste berekin.

11. Ezen, anaiak, Kloeren etxekeok ene ezagutzara ekharri dute, eskatimak zuen artean badirela.

12. Bada, hori diot, zeren zuetarik baxhotxak erraten duen: Ni Paulorekilako naiz; ni berriz, Apoloren aldeko; ni aldiz Zephasekilako; eta ni, Kristorena.

13. Erdizkatzen da Kristo? Zuentzat gurutzefikatua izan othe da Paulo? ala Pauloren izenean bathaiatuak izan othe zarete?

14. Eskerrak Jainkoari bihurtzen diozkat, zuetarik ez dudalokoz nihor bathaiatu, Krispo eta Kaio baizik;

15. Nihork ez dezan erran ene izenean bathaiatuak zaretela.



16. Berriz bathaiatu izan dut Estephanasen etxea ere; eta gainerakoan ez dakit hean bertze nihor bathaiatu dudanez.
17. Kristok ezen ez nau bathaiatzera igorri, baina Ebanjelioaren erantzutera, eta ez solasaren zuhurraz, ezdeustua izan ez dadien Kristoren gurutzea.
18. Galtzen direnei alabainan zorokeria bat zaiote gurutzearen ariazko solasa; salbatzen direntzat berriz, erran nahi da guretzat, Jainkoaren indarra da.
19. Haletan da iskribatua: Urmariaturen dut zuhurren zuhurtasuna, eta eragotziren umoen umotasuna.
20. Non da zuhurra? non legearen irakhaslea? non da mende huntako gizon argiketaria? Jainkoak ez othe du zoro atherarazi mundu hunen zuhurtasuna?
21. Ezik munduak bere zuhurtziarekin ez baitu Jainkoa ezagutu, Jainkoaren eginkarien zuhurtasunean; Jainkoak bere gogarako izan du erantzupenaren zorokenaz sinhestunen salbatzea.
22. Nola Juduek sendagailak galdatzen baitituzte, eta Greziarrek zuhurtzia bilhatzen;
23. Guk berriz, Kristo gurutzefikatua erantzuten dugu, Juduentzat gaizbide, jendaiantzat zorokeria;
24. Baina deithuak diren Judu eta Greziarrentzat, Kristo Jainkoaren indarra eta Jainkoaren zuhurtzia;
25. Zeren Jainkoaren baithan zoro dirudiena, zuhurrago baita gizonen asmu guziak baino; eta malbu dirudiena, gizonen ahal guziak baino hazkarrago.
26. Alabainan ikhusazue, anaiak, nola zaretan deithuak, gutiak zaretela gizonaren arabera zuhur, gutiak ahaldu, gutiak handi.
27. Baina munduaren begiko zoro direnak hautatu ditu Jainkoak zuhurren ahalkatzeko; eta herbal direnak, hazkarren ahalkatzeko;
28. Eta munduaren begiko ahal, eta erdeinagarri, eta ezdeus direnak, zerbait direnen ezeztatzeko;
29. Arren-eta ez dadien izan gizonik bere buruaz haren aitzinean espantu eginen duenik.
30. Bada, zaretan guzia, haren ganik zarete Jesu-Kristoren bidez, zeina eman baitaroku Jainkoak gure zuhurtziatzat, zuzenbide, sainduespen eta berrerospentzat;
31. Arren-eta, iskribatua den bezala, bere burua gorestan duenak, Jaunaren bidez goretz dezan.

II. KAP.

1. Eta ni, anaiak, zuetara ethorri naizenean, ez natzaitzue solas eta zuhurtzia zoragarriekin ethorri Kristoren lekhukotasunaren erantzutera.
2. Ez dut ezik zuen aitzinean buruioperik erakhutsi zerbait badakidala, Jesu-Kristo baizik, eta hura gurutzefikatua.
3. Eta ni, zuen artean, herbaltasun, beldur eta ikhara handitan izatu naiz;
4. Eta ene solasa eta ene irakhaspena ez zauntzan gizonen zuhurtziaren arabera hitz sarkorretan, baina izpiritu eta eraginduraren erakuspenean;
5. Zuen fedea ez dadien izan gizonen zuhurtziaren gainean jarria, baina-bai Jainkoaren indarrean.
6. Guziaz gatik gaienei aiphatzen diotegu zuhurtzia, ez ordean mende hunen arabera, ez-eta mende huntako handien zuhurtzia, zeinak iraungitzen baitire;
7. Baina erantzuten dugu Jainkoaren misteriozko zuhurtzia, gordea dagoena, Jainkoak egundainotik gure osperako berezia,
8. Mende huntako handietarik nihork ezagutu ez duena; ezen ezagutu izan balute, nihoiz etzuketengurutzefikatu osperaren Nausia.
9. Baina iskribatua den arren: Begiak ez du ikhusi, beharriak ez du aditu, gizonaren bihotzak ez du nabaritu zer aphaindu duen Jainkoak hura maithatzen dutenentzat;
10. Guri ordean bere Izpirituaz agertu daroku Jainkoak; Izpirituak ezen ikhartzen ditu guziak, Jainkoaren barne minenak ere.
11. Alabainan gizonaren baithan zer den, gizonetarik zeinek daki, baizik-ere gizonaren izpiritu bere baithan duenak? hala ere nihork ez du eza gutzen Jainkoaren baithan dena, Jainkoaren Izpirituak berak baizik.
12. Guk aldiz ez dugu mundu huntako izpiritua izatu, baina-bai Jainkoaren ganikako Izpiritua, ezagut detzagun Jainkoak eman darozkigun dohainak,
13. Zeinak erantzuten ere baititugu, ez gizonkarako zuhurtziaren solas jakintsunez, baina Izpirituaren irakhasmenaren arabera, ispiritualak ispiritualki xehatuz.
14. Bada, gizon abereak bere aditzan ez ditu ardiesten Jainkoaren Izpirituaren arako gauzak; ezen erhokeriak zaizko, eta ez da aditzeko gai, zeren ispiritualki behar baitzaiote begiratu.
15. Baina ispiritual denak oro juiatzen ditu, eta bera ez da nihortaz juiatua.



16. Alabainan nork ezagutzen du Jaunaren Izpiritua, nork hari irak-hats? Bada guk, Kristoren aditza dugu.

III. KAP.

1. Eta ni, anaiak, ezin mintzatu natzaitzue gizon izpiritutsu batzuei bezala, bainan haragitsu batzuei bezala. Hala-nola Jesu-Kristoren baithan haurtto direnei,

2. Esnea eman darotzuet edatera; ez darotzuet jatekoa eman, ez baintzineten oraino gai; eta orai ere etzarete hala, zeren haragitsu baitzarete oraino.

3. Alabainan bekhaizgo eta makhurrak zuen artean bizi direnaz geroztik, ez othe zarete haragitsu, eta ez othe zabiltzate gizarara?

4. Ezen batek dioenaz geroztik: Ni Paulorekilakoa naiz; berteze batek berriz; Ni Apolorekilakoa; ez othe zarete gizon? Zer da bada Apolo? aldiz, zer da Paulo?

5. Hainaren ministroak, zeinaren baithan sinhetsi baituzue, eta Jaunak bakhoxari eman izan dioenaren arabera.

6. Ni landatzen haritu naiz, Apolo urztatzen; bainan Jainkoa handiarazten.

7. Hargatik, ez landatzailea, ez urztatzailea, ez dire zerbait; bainan handiarazten duena, Jainkoa, hura da guzia.

8. Berriz, landatzailea eta urztatzailea, biak bat dire. Bakhoxak ordean bere saria izanen du, bere lanaren eredura.

9. Alabainan Jainkoaren laguntzaileak gare gu; zuek, Jainkoaren laborantza, Jainkoak egiten dituen etxeak zarete.

10. Nik, emana zaitan graziaren arabera, etxegile zuhur batek bezala jarri du asentua; berteze batek berriz, gainean altxatzen du etxea. Batbederak ordean ikhus beza nola daraman gaineko lana.

11. Ezen nihork asenturik ezin arthik dezake, jarria denaz bertzerik, zeina Jesu-Kristo baita.

12. Baldin norbaitek asentu horren gainean altxatzean, ezartzen badu urhe, zilhar, harri balios, zur, belhar, edo lasto,

13. Ageriko da bakhoxaren lana; ezen Jaunaren egunak ezagutaraziko du, zeren suak agertuko baitu, eta suak erakhutsiko du nolakoa den bakhoxaren lana.

14. Norbaitek asentuaren gainean eginduen lana gelditzen bada, hainak izanen du saria.

15. Erretzen bada norbaiten lana, hainak kaltea jasanen du; bera ordean salbatua izanen da; hunela bizkitartean, sua gaindi bezala.

16. Ez dakizue Jainkoaren tenplo zaretela, eta zuen baithan dagola Jainkoaren Izpiritua?

17. Bada, norbaitek khutsatzen badu Jainkoaren tenploa, haina galduko du Jainkoak. Alabainan saindua da Jainkoaren tenploa, eta zuek zarete tenplo hura.

18. Nihork ez beza bere burua engana. Zuen artean balin bada norbait zuhur iduririk mende hunen arabera; erho bedi, zuhur izatekotzat.

19. Ezen mundu hunen zuhurtzia, erhokeria bat da Jainkoaren begiko. Iskribatua da alabainan: Zuhurrak beren zuhurkeriaz atzemanen ditut.

20. Eta oraino: Ezagutzen du Jainkoak, hutsalak direla zuhurren asmuak.

21. Nihork ez beza beraz gizonetarik lelo athera.

22. Zuenak dire alabainan nahiz Paulo, nahiz Apolo, nahiz Zephas, ala mundua, ala bizia, ala heriotzea, ala oraiko gauzak, ala gerokoak; zuek dire alabainan oro.

23. Zuek berriz, Kristorenak zarete; Kristo aldiz Jainkoarena.

IV. KAP.

1. Hunela har begaitzate gizonen, Kristoren ministroak eta Jainkoaren misterioen erabiltzaileak bezala.

2. Bada, gauzen erabiltzaileetan hau nahi da, haina fidel aurkhitzea.

3. Aldiz, axola guti da enetzat, zuetaz edo gainerako gizonen juiatzen; halabadore ez dut ene burua juiatzen.

4. Barneak ezen ez darot arrangurarik egiten; bainan ez naiz horren gatik garbi; ezen ene juiie dena, Jauna da.

5. Aria hortaz, muga baino lehen juiatzera ez abia, Jauna ethorri arteo; harek argituko ditu ilhunbetan gordeak diren gauzak, eta agerira emanen ditu bihotzetako asmuak; eta orduan izanen du batbederak zor zaion laudorioa.

6. Solas hau, anaiak, erakhutsi dut Apoloren eta ene artean zuen gatik, gure gainean ikhas dezazuen, batzuek bertzeen kontra buruioperik ez atheratzen norbaiten izenetik, aitzinean errana den bezala.

7. Nork ezen bereztamenik egiten du zuen artean? Zer duzu alabainan ez duzunik? Duzuna beraz izana baduzu, nolaz hantzen zare, izana ez bazindu bezala?

8. Oraikoz betheak, oraikoz aberats zarete; erreginatzen zarete gu gabe; eta oxala erregina bazindezte, gu ere zuekin erregina gintezen!



9. Iduritzen zait Jainkoak gu, apostoluak, azken lerroko erakusten gaituela, hiltzeko xedatuak direnak bezala; ezen munduari, aingeruei eta gizonei ikhskaritan emanak gare.

10. Gu Kristoren gatik erho, zuek ordean Kristoren baithan gurbil zarete; gu hebain, zuek aldiz hazkar; zuek ohoragarri, gu berriz arbuigarri.

11. Oraidino gose-egarriek gabiltzate gu, buluz gare, zaflakoak hartzen ditugu, eta ez dugu non bara;

12. Eta gure eskuz nekherekin hari gure lanean; bertzeek gu madarika, guk benedikak; bertzeek guri jazar, guk egar;

13. Guri burhoak, guk othoitzak; mundu huntako samatsa bezala, guzien xahukina iduri, eginak gare orai arteo.

14. Haukiek ez darozkitzuet ahalkearen emateko iskribatzen; bainan ohartematen darotzuet ene bihotzeko ume maiteei bezala.

15. Ezen hamar mila irakhasle Kristoren baithan balin bazinituzte ere, ez duzue ordean asko aita. Ni naiz ezen Ebanjelioaz Kristo-Jesusen baithan aitatu zaituztedana.

16. Othoi beraz ene imitari izan zaitezte, nola ni Kristorena.

17. Hargatik bidali darotzuet Timotheo, ene seme guziz maite eta zina Jaunaren baithan, harek ezagutaraziko baitarozkitzuetene bideak Kristo Jesusen legean, orotan, eliza guzietan irakhasen dudanaren arabera.

18. Gehiago zuetara ethortzekoa ez banintz bezala, haletan handituak zarete zenbait.

19. Laster ordean zuetaratuko naiz, Jaunak nahi balin badu; eta ez dut begiratuko hantuk direnen solasei, bainan hekien eginkariei.

20. Ezen ez datza hitzetan Jainkoaren erresuma, bainan-bai egintzetan.

21. Zer nahi duzue? Zaharoarekin ethor nakizuen, ala karitatez eta eztitasuneko izpirituz betherik?

V. KAP.

1. Garbiki entzuten da lohikeria zuen artean dabilala, eta halako lohikeria, nolakorik paganoen artean ere ez baita, huntarainokoan non baita norbait bere aitaren emazteaz gozatzen dena.

2. Eta hantuk zarete; eta lehenago, ez duzue nigarririk izan, zuen erditik khen dadien lan horren egilea

3. Bada nik, gorphutzez urrun, bainan izpirituz zuekin, hor banintz bezala juiatu dut holako lana egin duena,

4. Jesu-Kristo gure Jaunaren izenean zuek eta ene izpiritua bildu ondoan, Jesus gure Jaunaren indarraz,

5. Holako gizona izan dadien satani emana, hil dakion haragia, ari-maren salbatzeko Jesu-Kristo gure Jaunaren egunean.

6. Ez duzue zeren zuen buruez espantu athera. Ez dakizue altxagarri izpi batek galtzen duela orhe guzia?

7. Altxagarri zaharretik garbi zaitezte, orhe berri izateko, airisak zaretan bezala. Alabainan gure Bazkotzat imolatu da Kristo.

8. Hargatik besta egin dezagun, ez altxagarri zaharrenekin, ez-eta maltzurkeria eta tzarkeriako altxagarriarekin, bainan zintasuneko eta egia-ko airisekin.

9. Ene gutunean iskribatu darotzuet: Lohiekin ez nahas.

10. Hori ez dut erran mundu huntako lohi, jaraman, harrapari, edo idola zerbitzaileez; bertzela mundu huntarik ilkhi behar zintezkete.

11. Ez nahastekatzeaz orai iskribatu darotzuedana hau da: balin bada anaia deitzen den bat, edo lohi, edo jaraman, edo idola zerbitzari, edo ahapaldikari, edo hordi, edo harrapari; ez jan halako gizonarekin.

12. Ezen zer ikhusteko dut kanpoan direnen juiatzeko? Ez dire barnekoak juiatzeko ditutzuenak?

13. Alabainan kanpo direnak, Jainkoak juiatuko ditu. Zuek, tzarkeria khen zazue zuen erditik.

VI. KAP.

1. Zuetarik norbaitek anaiaren kontra xuritzeko bat duenean, nolaz ausartatzen da gaixtaginen aitzinera justizian deitzera, eta ez sainduen aitzinera?

2. Ala ez dakizue sainduak juiatzekoa dela mundu hau? Eta zuek juiatu behar baduzue mundu hau, ez othe zarete orai gauza aphurtto batzuen juiatzeko?

3. Ez dakizue aingeruen beren juiate izanen garela? Zenbatez hobeki mendeko gauzen?

4. Balin badituzte mendeko egitekoz hauziak, elizan aphaltto direnak ezar zatzue juiatzen.

5. Zuen ahalketara diot: Zuetan nihor ez othe da zuhurrik, anaien artean juiate izateko?

6. Bainan anaia anaiarekin hauzitan hari da, eta hori fedegabekoen aitzinean.



7. Zuen artean hauziak izatea bera, jadanik bekhatu garbia da. Zergatik lehenago ez duzue bidegabea jasaiten? Zergatik lehenago maula ez egar?

8. Bainan zerorrek zarete bidegabe eta maula egileak, eta hori anaiei.

9. Ez dakizue bidegabe egileek ez dutela Jainkoaren erresuma gozatu? Berautzue engana: ez lohiek, ez idola zerbitzatzaileek, ez bertzeren emaztearekin khutsatzen direnek,

10. Ez beratzek, ez muthilkoiek, ez ohoinek, ez jaramanek, ez hor-diek, ez ahapaldikariek, ez harrapariak ez dute gozatuko Jainkoaren erresuma.

11. Eta halako izanak zarete zenbait; bainan garbituak izan zarete, bainan saindutuak, bainan zuzen eginak zarete, Jesu-Kristo gure Jaunaren izenean, eta gure Jainkoaren Izpirituaren eragintzaz.

12. Oro bai zu zaizkit, bainan ez dire guziak on; oro haizu bai, bainan ez naiz niholazko ahalaren azpian jarriko.

13. Jakia sabeleko, sabela jakia; Jaunak ordean biak xahutuko. Gorphutza berriz, ez da lohikeriaren, bainan Jaunaren, eta Jauna gorphutza.

14. Jainkoak bada, hiletarik biztu du Jauna; eta gu ere bere ahalaz bizturen gaitu.

15. Ez dakizue zuen gorphutzak Kristoren alderdi direla? Kristori beraz bere alderdiak khendurik, eginen othe ditut lilitxo baten alderdi? Ez holakorik.

16. Ez dakizue lilitxoari iratxikitzen dena, harekin gorphutz bat egi ten dela? Ezen errana da: Bia izanen dire gorphutz batean.

17. Aldiz Jaunari iratxikitzen dena, harekin izpiritu bat da.

18. Ihes lohikeriari. Gizonak eginen duen bertze edozein bekhatu, gorphutzetik kanpoan da; bainan lohitz denak bere gorphutzari egiten dio hoben.

19. Ala ez dakizue zuen gorphutza Izpiritu sainduaren tenplo dela; zuetan dagoela Izpiritu saindua, Jainkoaren ganik duzuela, eta zuen buruak ez dituzuela zerorrenak?

20. Handia da alabainan zuek erosiak zaretan saria. Jainkoa goretz eta zuen gorphutzean erabil zazue.

VII. KAP.

1. Niri iskribatu daroztadatzuenen gainean erranen dut: On du gizonak emaztekiari ez hurbiltzea;

2. Bainan lohikerian ez khutsatzeko, gizon bakhotxak izan beza bere emaztea, emazteki bakhotxak bere senharra.

3. Zor duena gizonak emazteari bihur biozo, eta halaber emazteak ere gizonari.

4. Emaztea ez da bere gorphutzaren nausi, bainan senharra da nausi; gizonak ere halaber ez du eskuko bere gorphutza, bainan emazteak.

5. Elkharri ez egin ukho, non ez onezgonean ephe batentzat, othoitzari zuen buruen emateko; gero itzul zaitzete lehengo urhatsera, satanek ez dezazuen gaitzerat eragin zuen zalekoitasunaz baliatuz.

6. Bainan beraztasunez derratzuet hori, ez manatuz.

7. Nahi nuke ezen guziak ni bezala izaten bazinezte; bainan batbederak Jainkoaren ganik du bere dohaina, bata hula, bertzeak berriz hala.

8. Diot aldiz ezkongei eta alhargun direnei, hala egotea on dutela, ni neroni ere nagoen bezala.

9. Ezin iduk badetzazkete beren buruak, ezkont beitez; erretzea baino ezen, hobe da ezkontzea.

10. Ezkontzaz batuak direnei berriz, ez diotet nik manatzen, bai ordean Jaunak, emazteak ez dezan utz senharra;

11. Uzten badu, ezkondu gabe geldi, edo bere senharrarekin bake dadien. Eta gizonak ere ez beza igor bere emaztea.

12. Bertzeei aldiz, ni mintzo natzaiote, ez Jauna. Anaia zenbaitek emaztea balin badu fedegabea, ez beza igor, egon nahi bazaio.

13. Eta emazte fededun batek senhar fedegabea balin badu, eta hura, egon nahi bazaio, ez beza utz.

14. Senhar fedegabea alabainan emazte fededunaz sainduesten da, eta emazte fedegabea senhar fededunaz; bertzela zuen haurrak lohi litezke, orai, ordean saindu dire.

15. Baldin fedegabe dena goaten bada, bihoa; ezen horrelako gerthakarian, anaia edo arreba ez da zorraren azpiko gelditzen; bainan bakean bizitzera deithu gaitu Jaunak.

16. Alabainan, emaztea, zer dakizu hean salbaraziko duzun senharra? edo zuk, gizona, hean salbaraziko duzun emaztea?

17. Bainan batbedera ibil bedi Jaunak eman dioenaren arabera, Jainkoak bakhotxa deithu duen bezala, eta holakoa da eliza guzietan ene irakhaspena.

18. Ingurebakia den norbait federa deithua da? ez beza itu ingurephaitzako hatza. Ingurebakigabe bat deithua da? ez bedi ingurebak.

19. Deusere ez da ingurephaitza, deusere ez da ingurebakigabetasuna; bainan Jainkoaren manamenduen begiratzea, hura da guzia.



20. Batbedera geldi bedi deithua izan denean zen bezala.
21. Gathibu zinelarik deithua izan zare? ez hortaz khexurik izan; bainan libratzen ahal balin bazare are hobeki balia zaite.
22. Jaunak deithu duen gathibua ezen, Jaunaren pelut da; halaber deithua izan den peluta, Kristoren gathibu da.
23. Hainitz gostaiak zarete; ez jar gizonen gathibu.
24. Zer heinetan ere, anaiak, batbedera deithua izan baita, hartan geldi bedi Jainkoaren aitzinean.
25. Ezkongeez denaz, ez dut Jaunaren ganik manamendurik; bainan kontseilu ematen dut, fidel izateko grazia Jaunaren ganik ardietsi dudan bezala.
26. Uste dut beraz hori on dela, egun orotako premiaren ariaz, gizonak on duela hola egotea.
27. Emazte baten lokharria hartu duzu? urratzea ez bilha. Emazte lokharririk gabe zare? emazterik ez bilha.
28. Aldiz emazte bat hartu baduzu, ez duzu bekhaturik egin; eta neskatxa bat ezkondu bada, ez du bekhaturik egin. Izanen dituzte hargatik gorphutzeo atsekabeak. Nik bada, guphide zaituztet.
29. Anaiak, hau diot beraz: Laburra da denbora; geroz-goiti emaztedun direnak, bizi beitez gabe balire bezala;
30. Eta nigarrez daudezenak, nigarririk egiten ez balute bezala; eta bozten direnak, bozten ez balire bezala; eta erosten dutenak, gozatten ez balute bezala;
31. Eta munduko gauzak eskuetan erabiltzen dituztenak, erabiltzen ez balituzte bezala; ezen iragaiten da mundu hunen itxura.
32. Nik nahi dut bada, grinarik ez dezazuen izan. Emazterik gabe denak Jaunaren gauzez du ardura, hean nola eginen dioen atsegin.
33. Ezkondua denak aldiz, munduko gauzez du ardura, atsegin emazteari nola egin, eta bi aldetara dago erdizka.
34. Eta emazteki ezkondegabe batek eta birjina batek, Jaunaren gauzak dituzte gogoan, gorphutzez eta izpirituz saindu izatea gatik. Aldiz eskonduak munduko gauzez du asmu, hean nola aurkhituko dioen bere senharrari.
35. Bada, zuen onetan naiz horrela mintzo; ez zuei sare baten arthikitzeo, bainan zuen ekhartzea gatik bizitze sainduago batera, eta Jaunari poxelamendurik gabe othoitzeo egiteko ahala emanen darotzuenetara.
36. Norbaiti ordean iduritzen bazaio laido duela alaba ezkondu gabe adinetan goan dakioen, eta aria hortaz ezkondu behar dela; nahi duena egin beza; ez du bekhaturik, ezkontzen bada ere.

37. Bainan nihondik premiarik ez, eta bere nahiaren nausi izaki, eta bere bihotzean gogo sendo bat harturik bere baithan erabaki duenak ezkondu gabe alaba begiratu behar duela, ongi egiten du.

38. Horreletan, bere alaba ezkontzen duenak ongi egiten du; eta ezkontzen ez duenak, hobeki.

39. Senharra bizi duena, legearen lokharrietan da; emaztea hiltzen bazaio, libratua da; nahi duenarekin ezkont bedi; Jaunaren arabera egiten den ber.

40. Dohatsuago izanen da ordean hala-hala geldituz, ene kontseiluen arabera: uste dut bada, nik ere Jainkoaren Izpiritua badudala.

VIII. KAP.

1. Idolei sakrifikatzen diren gauzez denaz aldiz, badakigu guziak jakitate badugula. Jakitateak hantzen du, karitateak ordean onbidatzen.

2. Bada, norbaitek uste badu badakiela zerbait, ez du oraino ezagutzen nola behar ere den jakin.

3. Bainan norbaitek Jainkoa maite badu, haina ezagatua da Jainkoaz.

4. Idolei imolatzen diren jateko bezenbategian, badakigu idola deusik ez dela munduan, eta nihor ez dela Jainko, bat bakharra baizik.

5. Ezen, nahiz zeruan, nahiz lurtean balin badire ere jainko deitzen direnak (hola balitezke asko jainko eta asko nausi);

6. Guretzat halere Jainko bat da, Aita, zeinaren ganik heldu baitire gauza guziak, eta zeinak beretzat egin baikaitu; eta Jaun bakhar bat, Jesu-Kristo, zeinaren bidez baitire gauza guziak, eta gu ere haren bidez.

7. Bainan ez da guzien baithan jakitatea. Ezen batzuek, oraino ere idola zerbait badela ustez, idolari eskaini haragitik jaten dute, eskainia izan delakoan; eta malbu baitute kontzientzia, khutsaturik gelditzen da.

8. Ez gare bada, janaz Jainkoaren gogarako. Ezik janez ez gare ontzen, jan gabez ez gare aphurtzen haren begiko.

9. Begira ordean zuen trebekeria hori egin dadien malbuen behaztopagailu.

10. Alabainan norbaitek ikhusten badu argitua den bat idolategian mahainen jarria; kontzientzia malbu izan-eta, ez othe da hura ere ekharrria izanen idolei eskainirikako gauzetariki jatera?

11. Eta zure jakintasunari esker galduko da zure anaia malbu dena, zeinarentzat hil izan baita Kristo.

12. Bada, horreletan anaien kontra bekhatu eginez, eta hekien kontzientzia malbuak zaurhuz, Kristoren kontra egiten duzu bekhatu.



13. Hargatik janak behaztoparazten badu anaia, bizioan ez dut haragirik janen, ez dadien gaitzerat eror ene anaia.

IX. KAP.

1. Ez naiz libro? Ez naiz apostolu? Ez dut ikhusi Jesu-Kristo gure Jauna? Ez zarete haren baithan ene lana?

2. Bertzeentzat ez banintz ere apostolu, zuentzat bederen hala naiz; ezen zuek zarete Jaunaren baithan ene apostolutasuneko zigilua.

3. Bilhatzen nautenei hau idardesten diotet:

4. Ez dugu jan-edanen zuzenik?

5. Emazteki arreba baten garekin inguruan erabiltzeko zuzenik ez dugu, hala-nola apostoluek, eta Jaunaren anaiek, eta Zephasek?

6. Ala nik eta Barnabasek ez dugu baxharrik horren egiteko eskurik?

7. Nor egundaino bere gustuz hari da gerlan? Nork landatzen du mahastia, eta hartako fruituetarik ez jaten? Nork alhatzen du arthaldea, eta ardien esnetik ez edaten?

8. Hola ez othe naiz gizonaren arabera mintzo, edo legeak ere ez othe du hori erraten?

9. Ezik Moisesen legean iskribatua da: Bihi jotzen hari den idiari, ez ahoa traba. Idiez othe du Jainkoak bere ardura?

10. Ala hobeki, ez othe du gure gatik erran hori? Bai, gure gatik dire horiek iskribatuak. Ezen iraultzen hari denak, geroko phekizan behar du irauli; eta bihitzailea, fruitu atheratzeko phekizan bihitzen hari.

11. Ontasun ispiritualak zuen baithan erain baditugu, handia othe da zuen mendeko onetarik biltzen badugu?

12. Bertzeak zuen ahaletan phartedun badire, zeren ez gu hobeki? Ez gure ordean ahal hortaz baliatu; bainan zernahi jasaiten dugu, den-gutieneko trabarik ez emateko Kristoren Ebanjelioari.

13. Ez dakizue tenploan lanean hari direnek, tenploko gauzetarik jaten duela; eta aldareko eginbideak egiten dituztenak, aldarearekin phartedun direla?

14. Horrela ere manatu diote Jaunak ebanjelioaren erantzuleei, ebanjeliotik ditezen bizi.

15. Ni ordean ez naiz batere horietaz baliatu. Bada, ez darozkitzuet horiek iskribatzen, hola egin dadientzat ene alderat; ezen nahiago nuke hil, ene ospea norbaitek galaraz lezakedan baino lehen.

16. Alabainan Ebanjelioaren erantzuten hari balin banaiz, ez da enentzat ospe bat; ezik premiak hertsatzen nau; eta zorigaitz niri ez banaiz erantzuten haritzen

17. Alabainan gogo onez egiten badut hori, badut ene saria; ordean gogo gaitzez hari banaiz, karguz izanaren ematea egiten dut.

18. Zer da bada ene saribidea? Ebanjelioaren erantzutean, urrurik hedatzea ebanjelioa, baliatu gabe ebanjeliotik dudana ahalaz.

19. Ezen nihoren lokharririk ez izan-eta, ororen zerbitzari egin naiz, gizon gehiagoren biltzea gatik.

20. Juduekin Juduekilako egin naiz, Juduen irabaztea gatik.

21. Legearen azpiko direnekin egin dut legearen azpian banintz bezala (ez nintzen arren legearen azpiko), legearen azpian zirenen irabaztea gatik; legegabekoekin egin dut, legerik izan ez banu bezala (ez nintzen arren Jainkoaren legerik gabe, aitzitik Kristoren legearen azpian nintzen), legerik gabe zirenen irabaztea gatik.

22. Malbuekin malbu egin naiz, malbuen irabaztea gatik. Guziekin guziekilako egin naiz, guzien salbatzea gatik.

23. Berriz, oro egiten ditut ebanjelioaren ariaz, hartan phartedun iza-tea gatik.

24. Ez dakizue lasterkatokia laster egiten dutenek, orok laster egiten dutela, batek ordean daramala saria? Haletan laster egizue beraz, non atzemanen baituzue.

25. Berriz, plazetako borrokari guziak, gauza orotan xuhur egoten dire; eta bada, hekiek andeakor den khoro bat izaten dute; guk ordean ezin-galduzkoa.

26. Nik bada, hunela laster egiten dut, ez itsu-mandoka bezala; hunela gudukatzen naiz, ez aireari joka bezala;

27. Bainan zehatzen dut ene gorphutza, eta gathibu ezartzen dut; beldurrez-eta bertzeei erantzun ondoan, neroni Jainkoaz irazia geldi nadien.

X. KAP.

1. Bada, ez dut nahi, anaiak, ez dezazuen jakin, gure arbasoak hedoian azpian izatu eta itsasoa iragan dutela guziek;

2. Eta guziak, Moises buruzagi, izan direla hedoiean eta itsasoan bat-haiatuak;

3. Eta orok janhari ispiritual bera jan izan dutela;

4. Eta orok edari ispiritual beretik edan izan dutela (edaten zuten bada ondotik zarrakioten harri ispiritualetik, harri hura Kristo baitzen);

5. Etziren ordean gehietarik gehienak Jainkoaren gogarako izatu; ezik mortuan eroriak gelditu ziren.



6. Bada, gauza horiek gutaz denaren iduripenetan egin izan dire, gu ez gaitezen izan zalekeria tzarrei aiher, hekiek izatu diren bezala.
7. Ez-eta ez bilhaka idola adoratzaile, hekietarik batzu bezala, hala-nola iskribatua baita: Populua jarri zen jaten eta edaten, eta dostatzera jaiki zen.
8. Lohikeriara ere ez gaitezen lerra, hekietarik batzu erori ziren bezala, eta egun bakharrean hogoi eta hirur milak jo baitzuten lurra.
9. Eta ez dezagun behar Kristo, hekietarik batzuek egin zuten bezala eta sugeek hil izan baitzituzten.
10. Ez-eta arranguraka ez abia, hekietarik batzu arranguratu ziren bezala, eta aingeru xahutzailearen eskutik galdu baitziren.
11. Bada, horiek oro itxurapen aretan gerthatzen zitzaizkoten, eta iskribatuak izan dire mendeen buruan bizi garenen argitzeko.
12. Hargatik gogor dagoela uste duenak, begira beza ez dadien eror.
13. Gizontasunari darraizkion tentazionez bertzerik ez bekizue loth; aldiz, zina da Jainkoa; etzaitzute zuen indarrez goiti tentatzerat utziko, baina oraino tentazionetik irabazia atheratuko du, izan dezazuen ihar-dukitzeko ahala.
14. Hargatik, ene guziz maiteak, idolen adoratzeari ihes egiozue.
15. Gizon umoei bezala mintzo natzaitzue; zerorrek ikhusazue zer diodan.
16. Benedikatzen dugun benedizionezko kalitza, ez othe da Kristoren odoleko komunioea? eta hausten dugun ogia, ez othe da Jaunaren gorphutuko komunioea?
17. Ezen asko garelarik, ogi bat eta gorphutz bat gare, ogi batetik pharte hartzen dugun guziak.
18. Haragiaren arabera ikhusazue Israel: bitimetarik jaten dutenak, ez othe dire aldarean phartedun?
19. Zer beraz? idolei imolatua, zerbait dela othe diot, edo zerbait dela idola bera?
20. Ez, baina paganoek imolatzeko dutena, debruei imolatzeko dutena, eta ez Jainkoari. Ez dut bada nahi debruen phartzuner egin zaitezten; ezin edan dezakezue Jaunaren kalitza eta debruen kalitza;
21. Ezin izan zaitezketek phartedun Jaunaren mahainean eta debruen mahainean.
22. Ala Jauna bekhaitzarazi beharrez hari gare? Hura baino hazkarrago othe gare? Oro haizu ditut, baina ez dire guziak on.
23. Oro haizu ditut, baina ez dute guziak onbidatzen.

24. Nihor ez bedi bere oldearen ondok ibil, baina bertzeenaren ondoan.
25. Merkhatuan saltzen diren guzietarik jan zazue, barneko arranguraz deusere galdatu gabe.
26. Jaunarenak dire lurra eta hartan direnak oro.
27. Fedegabekoetarik norbaitek mahainera deitzen bazaitzute, eta goan nahi baduzue, jan zazue zer-ere aitzinera emanen baitzaitzue, barneko arranguraz deusik galdatu gabe.
28. Norbaitek ordean erraten balin badu: Hau idolei imolatua izana da; ez jan errailearen ariaz, eta barneko arranguraz;
29. Ez diot zuenaren, baina bertzeenaren ariaz. Alabainan zergatik hobendun egin ene libertatea bertzeen begira?
30. Eskerrak emanez harmen badut jaten dudana, zergatik ene kontra elhe gaixtoei emanen diotet bide, eskerrak bihurtzen ditudan gauzen burutik?
31. Beraz, edo jan, edo edan, edo bertze zerbait egin dezazuen, oro Jainkoaren ospetarako egizkitzue.
32. Behaztopabiderik ez eman ez Juduei, ez paganoei, ez Jainkoaren Elizari;
33. Hala-nola neronei ere gauza guzietan guzien gogarako izatera hari bainaiz, ez enetzat on dena bilhatuz, baina hainitzentzat on dena, salba ditezen ariaz.

XI. KAP.

1. Ene imitari izan zaitezte, neronei ere Kristoren imitari naizen bezala.
2. Laudatzen zaitzute, berriz, anaiak, zeren orotan nitaz orhoitzen zareten, eta nik eman bezala begiratzen dituzten ene manamenduak.
3. Baina nahi dut jakin dezazuen Kristo dela gizonaren burua; gizona berriz, emaztearen burua; aldiz Jainkoa Kristoren burua.
4. Edozein gizonek othoitz egin, edo profetisa dezan burua estalirik, laidatzen du bere burua.
5. Edozein emaztekik ordean othoitz egin, edo profetisa dezan burua estali gabe, bere burua itsusten du, ezen murriztua balitz bezala da orobat.
6. Haletan, estaltzen ez bada emaztekoa, murriztua izan bedi. Baina itsus bazaio emaztekiari murriztua edo khartzoildua izatea, estal beza burua.



7. Gizonak ez du estali behar burua, zeren den Jainkoaren itxura eta ospea; emaztekoa ordean, gizonaren ospea da.
8. Gizona alabainan ez dathor emaztekitik, bainan-bai emaztekoa gizonetik.
9. Izatez-ere gizona ez da emaztekiaren gatik izan kreatua, bainan emaztekoa gizonaren gatik.
10. Aria hortaz emaztekiak behar du aingeruen gatik buruan ekharri gizonaren nausitasunaren ezagutkaria.
11. Guzia gatik gizona ez da Jaunaren baithan emaztekoa gabe, ez-eta emaztekoa gizona gabe.
12. Alabainan nola emaztekoa gizonaren ganik ethorri baita, hala emaztekiaren ganik dathor gizona; aldiz guziak Jainkoaren ganik.
13. Zerrorrek ikhusazue: emaztekiari othe dagokio, estali gabe Jainkoaren othoiztea?
14. Ethorkiak berak ez darotzue erakhusten ahalkegarri litekeela gizonarentzat bere ile guziaren haztea?
15. Emaztekiarentzat ordean eder da ilaiaren haztea, zeren ileak belatzat emanak dituen.
16. Aldiz khimerari iduri badu norbaitek, ez guk, ez Jainkoaren elizak ez dugu horrelako azturarik.
17. Berriz, ez baitzait ongi ibil zaitezten ez zuen onetan, bainan zuen gaitzetan, hau manatzen dut.
18. Behintzat elizara biltzen zaretenean, berezgoak zuen artean badi-rela aditua naiz, eta hein bateraino sinhesten dut.
19. Ezik heresiak izan ditezen premia da, zuen artean alfer ditezen berthute frogatukoak direnak.
20. Horrela elkharretara biltzea, ez da geroz-goiti Jaunaren afariaren jatea.
21. Alabainan bakhotxa aitzinka abiatzen da bere afariaren jaten. Eta horreletan, bat gosez, eta bertzea hordia dago.
22. Jateko eta edateko, ez ditutzue zuen etxeak? ala Jainkoaren elizari arbuio, eta beharrei ahalkearen ematera hari zarete? Zer erranen darotzuet? Laudatzen zaituztedala? etzaituztet hortan laudatzen.
23. Alabainan Jaunaren ganik ikhasia dut zuei irakhatsi ere dudana, Jesus Jaunak ezen, saldua izatera zihoan gauean hartu zuela ogia,
24. Eta eskerrak bihurturik hautsi zuela, eta erran: Har zazue eta jan, hau da ene gorphutza, zuentzat emana izanen dena; hau egizue ene orhoitzapenetan.

25. Orobataz afaldu-eta, kalitza hartu zuen, zioelarik: Hau da batasun berriko kalitza ene odolean. Edanen duzuen aldi oroz, hau egizue ene orhoitzapenetan.
26. Ezen ogi hau janen eta kalitza hau edanen duzuen guzian, Jaunaren heriotzea erantzunen duzue, ethor dadien eguneraino.
27. Hargatik edozeinek ogi hura jan, edo Jaunaren kalitza edan dezan gaizki, Jaunaren gorphutza eta odolaz hobendun izanen da.
28. Gizonak beraz ikhar beza bere barnea, eta hala jan beza ogi hura eta edan kalitza hartarik.
29. Ezen gaizki jaten eta edaten duenak, bere kondenamendua du jaten eta edaten; bertze janharien bardineko ezarrit Jaunaren gorphutza.
30. Aria hortaz asko zuen artean eri dire eta iraungi, eta asko heriotzeko loaz daude lo.
31. Bada, geronek juiatzen bagintu gure buruak, ez gintezke juiatuak.
32. Bainan juiatuak garenean, Jaunak kridantzaten gaitu, ez gaitezen izan mundu hunekin juiatuak.
33. Hargatik, anaiak, jateko biltzen zaretenean, elkhar igurikazue.
34. Baldin gosez badago norbait, etxean jan beza, zuen kondenamendurako etzaitzeten bil. Gainerakoak berriz, ethorriko naizenean xuxenduko ditut.

XII. KAP.

1. Aldiz, dohain ispiritualez, ez dut nahi, anaiak, argirik gabe izan zaitezten.
2. Badakizue, pagano zinetean idola mutuetara goaten zinetela, eramaten zinduzteten bezala.
3. Hargatik erraten darotzuet nik, Jainkoaren Izpiritutik mintzo den nihork ez dioela Jesusi anathema arthikitzen. Eta nihork ezin erran dezake: Jesus Jauna, non ez Izpiritu sainduaren ganik.
4. Bada, dohainak asko dire, bainan Izpiritua ber bat;
5. Karguak asko, bainan Jauna ber bat;
6. Zerutikako eragintzak asko, bainan Jainko ber bat, oro orotan eragiten dituen.
7. Bada, Izpirituaren dohain agertzen dena, bakhotxari ematen zaio guzien onetan.
8. Batek Izpirituaren ganik izaten ditu zuhurtziatzeko hitzak; bertzeak berriz, Izpiritu beraren ganik jakitatezko hitzak;
9. Bertze batek Izpiritu beraren ganik, fedea; bertze batek Izpiritu beraren ganik sendatzeko dohaina;



10. Bertze batek mirakulu egitekoa; bertze batek profeziakoa; bertze batek izpirituen ezagutza; bertze batek mintzaia moten jakitatea; bertze batek hekien adiarazteko dohaina.

11. Bada Izpiritu ber batek egiten ditu horiek oro, bakhotxari eman ez nahi duenaren eredura.

12. Eta nola bat baita gorphutza, eta asko alderdi baititu; eta gorphutzeko alderdi guziak, asko diren arren, halarik-ere gorphutz bakhar bat baitire, hala-hala da Kristo ere.

13. Guziak ezen Izpiritu berean bathaiatuak izan gare gorphutz bakhar bat izateko, nahiz Juduak, nahiz paganoak, nahiz gathibuak, nahiz pelutak; eta Izpiritu berean eradanak izan gare guziak.

14. Haletan ere gorphutza ez da alderdi bat, bainan alderdi asko.

15. Oinak erran baleza: Ez naizenaz geroztik eskua, ez naiz gorphutzekoa; gorphutzekoa ez othe da halere?

16. Eta beharriak erran baleza: Ez naizenaz geroztik begia, ez naiz gorphutzekoa; ez othe da halere gorphutzekoa?

17. Gorphutz guzia begi balitz, non liteke adia? Dena adi balitz, non liteke usna?

18. Bainan asko alderdi ezarri ditu Jainkoak, eta heketarik bakhotxa gorphutzean berak nahi izan duen bezala.

19. Hekiek oro alderdi bat balire, non liteke gorphutza?

20. Alderdiak ordean asko dire, bainan oro gorphutz bat.

21. Bada, begiak ez diozoke eskuari erran: Ez diat hire lanaren beharrik; aldiz, buruak oinei: Etzaizkidate premia.

22. Bainan aitzitik, gorphutzeko alderdi, iduriz ahulenak, hekiek dire premienik;

23. Eta putrusenentzat daduzkagun alderdiak, hekiek inguratzen ditugu hobekienik; eta gure alderdi ahalkizunek dute ikhustaterik ederrena.

24. Zein-ere gutan baitire onhestak, hekiek ez dute estalgi beharrik; bainan Jainkoak gorphutzari eman diozka bere heinak, alderdi eskasari bihurtuz ohore gehiago;

25. Gorphutzean aldebandarik ez dadien izan, bainan alderdiak elkarrentzat ardura izan dezaten.

26. Eta atsekabe badu alderdi batek, atsekabe dute guziak; edo batek atsegin balin badu, harekin bozten dire guziak.

27. Bada, zuek Kristoren gorphutza zarete, eta batzu bertzeen alderdi.

28. Eta horreletan Jainkoak elizan ezarri ditu, lehenbizikorik apostoluak, bigarrenkorik profetak, hirugarrenkorik irakhasteak, gero miraku-

lu egileak, gero sendatzeko dohaina dutenak, laguntza egileak, hotzemai-leak, mintzaietako dohaina dutenak, mintzaien adiarazleak.

29. Oro apostolu dire? oro profeta? oro irakhasle?

30. Orok othe dute mirakulu egiteko dohaina? sendatzekoa? mintzaia guzietan mintzatzekoa? mintzaien adiaraztekoa?

31. Bada, dohainik hoberenetara lehia zaitzete. Eta nik bide bat oraino hobea irakhastera daramakizuet.

XIII. KAP.

1. Gizonen eta aingeruen mintzaia oroz mintza banintz ere, bainan karitaterik ez badut, soinu egiten duen kobre bat edo zinbala burrunbari bat iduri dut.

2. Eta balin banu ere profeziako dohaina, eta ezagutzen banitu ere misterio guziak eta jakitate guziak, eta balin banu ere fede osoa, haletan non mendiak tokiz aldatuko baitituz; ez badut ordean karitatea, deusik ez naiz.

3. Beharren janharitan pharti banetza ere ene ahal guziak, eta erretzera eman banetza ere ene gorphutza, bainan karitatea ez badut, etzait deusere baliatzen.

4. Karitatea jasanakor da, ongikoi da. Karitatea ez da bekhaizten, ez da ozarki jokhatzen, ez da hantzen;

5. Ez da irritis-handidun, ez du bere probetxua bilhatzen, ez da gaitzikor, ez idurikor;

6. Tzarkeriak ez du bozten; goiheretzen du egia;

7. Oro jasaiten, oro sinhesten, oro igurikitzen, oro egartzen ditu.

8. Karitatea behin-ere ez da ahitzen; profeziak ordean iraungiko dire, mintzaietako dohainak geldituko, jakitateak ezeztatuko.

9. Ezen hein bat dakigu, eta hein batean profetisatzen dugu.

10. Bainan argitasun osoa ethorri daitekeenean, hein bateko dena itzaliko da.

11. Haurtto nintzenean, haur arara mintzo nintzen, haurrak bezala ardiesten nuen, haur gogoetak nerabilzkan. Bainan gizondurik naizenean, haur lanak utzi ditut.

12. Orain mirail batetik asmakaritan ikhusten dugu; bainan orduan bekoz beko. Orain hein bat ezagutzen dut; bainan ezagutuko dut orduan, neronek ere ezagutua naizen bezala.

13. Bada, fedea, igurikimena, karitatea, hirur horiek badaudezi orain handiena ordean, karitatea da.



XIV. KAP.

1. Bilha zazue karitatea; dohain ispiritualetara aiher izan zaitezte; aiherrenik ordean profetisatzera.
2. Ezen mintzaia arrotzez mintzatzen dena, ez da gizonei mintzo, bainan Jainkoari; alabainan nihork ez du aditzen. Izpirituaren eragintzaz ordean misterioak erraten ditu.
3. Ezen profetisatzen hari dena, gizonei mintzo da, hekiei ongira eragiteko, berotzeko eta gozakari emateko.
4. Mintzaia arrotzez mintzo dena, beretzat mintzo da; profetisatzen hari dena aldiz Jainkoaren elizarentzat.
5. Nahi nuke bada, zuek guziak mintzaia oroz mintza bazintezte, bainan nahiago profetisa bazinezate. Alabainan gehiago da profetisatzailea, ezen-ez asko mintzaiaz mintzo dena, non ez dioten bere solasei argitasun ematen elizaren onbidetan.
6. Orai bada, anaiak, heldu banintzaitzue mintzaia arrotz bat ahoan, zer on ekhar narokezue, ez banintzaitzue mintzatzen gauzak agertuz, jakitateak emanez, profetisatuz edo irakhatsiz?
7. Haletan bizirik ez duten tresna ozenek, hala-nola xirola edo gitarrak, ez balute asko soinu berezi ematen, nola jakin xirolan edo gitarran zer aire jotzen den?
8. Nola-nahika hari bada turuta, nor abiatuko da gudura?
9. Orobat zuek ere mintzaia batez mintzatzean, non ez dituzuen ematen aditzen diren solasak, nola jakinen da zer diozuen? Alabainan hai-zeari hariko zarete mintzatzen.
10. Izatez-ere, hanbat mintzaia mota mundu huntan bada, eta bat ez da bere arako hitzak ez dituenik.
11. Bada, ez badakit zer erran nahi duten hitzek, mintzo natzaioenarentzat arrotz izanen naiz, eta mintzatzen zaitana enetzat arrotz.
12. Haletan zuek ere, dohain ispiritualen lehiatsu zaretenez geroztik, elizaren onbidetan nasai izatea bilha zazue.
13. Hargatik mintzaia batez mintzatzen denak, adiarazteko dohaina galda beza.
14. Ezen mintzaia batez othoitz egiten badut, ene gogoak othoitz egiten du, bainan ez da baliatzen ene adimendua.
15. Zer egin beraz? Gogoz eginen dut othoitz, adimenduz ere bai; kantatuko dut gogoz, eta kantatuko dut adimenduz.
16. Bertzela, gogoz laudatzen baduzu Jauna, jende xehearen tokian denak nola erranen du Amen zure othoitzaren gainera? ezen ez daki zer diozun.

17. Halabadore onak dire zure eskerrak, bainan bertzeek onbiderik ez dute.
18. Eskerrak diozkat ene Jainkoari zeren zuen ororen mintzaiaz naitzen mintzo.
19. Bainan nahiago dut elizan erran aditzen ditudan borts hitz bakhar, bertzeak ere argi detzadan; ezen-ez hamar mila erran mintzaia arrotzez.
20. Anaiak, ez izan adimenduz haur, bainan gaixtotasunean haurtto izan zaitezte; adimenduz berriz, gizon helduak.
21. Legean iskribatua da: Mintzaia arrotzez, hitz arrotzez populu horri mintzaturen natzaio; eta hala ere ez naute entzunen, dio Jaunak.
22. Hargatik mintzaian dohaina, ez fededunentzat, bainan fedegabe-koentzat da ezagutkari; aldiz profeziena, ez da fedegabe-koentzat, bainan-bai fededunentzat.
23. Beraz baldin eliza guzia batera bil, eta bakhotxa mintzaiez abiatzen bada; sar ditezen berriz, beren mintzaia baizik ez dakitenak edo fedegabeak, ez othe dute erranen erhotu zaretela?
24. Bainan orok profetisatzen badute, sar dadien berriz, fedegabe bat edo tokiko mintzaia baizik ez dakiena, guziek egia erakhusten diote, guziek juiatzen dute.
25. Hainaren bihotzeko gauza gordeak agerira heldu dire; eta haletan ahuspez eroririk adoratuko du Jainkoa, Jainkoa zinez zuen erdian dela ait-hortuz.
26. Anaiak, zer duzue beraz egiteko? Bilduak zaretenean, bati heldu bazaio psalmo baten deia, bertze bati irakhasteko deia, bertzeari agerpen baten egitekoa, mintzaia batez mintzatzekoa, mintzaian adiaraztekoa; oro onbidetan egin beitez.
27. Mintzaietako dohaina dutenak balin badire, mintza beitez bia edo gehienera hirur, eta aldizka, eta bat izan bedi solasaren adiarazteko.
28. Bainan adiarazlerik ez bada, bertzea ixilik egon bedi elizan; bere baithan eta Jainkoari mintza bedi.
29. Profetak berriz, bia edo hirur mintza beitez, eta bertzeek jua beza.
30. Jarria den bertze bati agerpen bat heldu bazaio, lehenbizikoa ixil bedi.
31. Alabainan guziek aldizka profetisa dezakezue, oro argi ditezen eta ongira bero;
32. Eta profeten izpirituak, profeten eskuko dire.
33. Jainkoa ezen ez da lipixtari, bainan baketiari, sainduen eliza guzietan irakhasten ere dudana bezala.



34. Emaztekiak elizan ixilik egon beitez, ezen etzaiote mintzatzea haizu; bainan ethorkor izan behar dire, legeak ere dioen bezala.

35. Zerbaitez ordean argitu nahi badute, etxean senharrei galda biote; emaztekiarentzat ezen itsusi da elizan mintzatzea.

36. Zuen ganik ilkhi othe da Jainkoaren hitza? ala zuen gana bakharrik heldu izan othe da?

37. Norbaitek bere burua profeta edo izpirituduntzat idukitzen badu, ezagut beza nik zuei iskribatzen darozkitzuedan gauzak Jaunaren manuak direla.

38. Bada, norbaitek hori ezagutzen ez badu, bera ere ez da ezagutua izanen.

39. Hargatik, anaiak, lehia zaitetzte profeta dohainaren ardiestera, eta ez debeka mintzaiez mintzatzea.

40. Bainan gauza guziak, egoki den bezala eta moldez egin beitez.

XV. KAP.

1. Orhoitarazi behar zaituztet, anaiak, erantzun darotzuedan ebanjelioaz, zeina ere hartu baituzue, zeintan ere baitzaudezte,

2. Zeinaren bidez ere salbatuko baitzarete, nik erantzun bezala idukitzen baduzue, non ez duzuen alferretan sinhetsi.

3. Ezen lehenik irakhasi darotzuet neronek ere ikhasi dudana, erran nahi, gure bekhatuen gatik hil izan dela Kristo, Iskrituren arabera;

4. Eta ehortzia izan, eta hirugarren egunean biztu dela, Iskrituren arabera;

5. Eta Zephasi agertu zaiola, eta gero hamekei;

6. Gero agertu dela aldian bortz ehun anaiari baino gehiagori, zeinetarik hainitzak oraino bizi eta zenbait hilak baitire;

7. Gero agertu zaiola Jakoberi, eta gero apostolu guziei;

8. Azkenekoz berriz, agertu zaitala niri, guzien artean ilhora bezala naizenari.

9. Ni naiz alabainan apostoluetarik xumeena, apostolu deithua izateko dina ere ez naizena, zeren jazarri izan diodan Jainkoaren elizari.

10. Bainan Jainkoaren graziari esker naiz naizen hau, eta haren grazia ene baithan ez da alferra izatu; aitzitik bertze guziek baino lan gehiago erabili dut, ez bada nik, bainan Jainkoaren graziak enekin;

11. Ezen edo nik, edo hekiek, hori bera erantzuten dugu, eta hori bera sinhetsi duzue.

12. Bada, Kristo hiletarik biztu dela erantzun bazaitzue, nolaz diote zuetarik batzuek, hilen bizterik ez dela?

13. Beraz hilen bizterik ez bada, Kristo ere ez da biztu.

14. Berriz, Kristo biztu ez bada, hutsala da beraz gure erantzutea, hutsala da zuen fedea;

15. Berriz, Jainkoaren alderat ere gezurrezko lekhuko aurkhitzen gare, Jainkoaren kontra lekhukotasun egin dugulako, biztu duela Kristo, zeina ez baitu biztu, hilak bizten ez badire.

16. Alabainan hilak ez badire bizten, Kristo ere ez da biztu.

17. Kristo biztu ez bada, hutsala da zuen fedea, ezen oraino zuen bekhatuetan zarete.

18. Galdu dire beraz Kristoren baithan hil izan direnak.

19. Bizitze huntako baizen ez badugu Kristoren baithan igurikime-nik, gizon guzietarik urrikalgarrienak gare.

20. Bainan orai biztua da Kristo, heriotzean lohakartu direnen pikain,

21. Zeren gizon baten bidez ethorri delakoz heriotzea, gizon baten bidez ere heldu da hilen biztea.

22. Eta nola Adamen gatik hiltzen baitire guziak, hala ere guziak biztuko dire Kristoren gatik;

23. Bainan bakhotxa bere aldian, Kristo pikain, gero Kristorenak direnak, haren ethorpenean sinhetsi dutenak.

24. Orduan izanen da akhabantza, Jainko Aitaren eskura eman dukeenean erresuma, ezeztatu ditukeenean buruzagigo, nausigo eta indar guziak.

25. Erreginatatu behar da ezen, oinen azpira eman diotzon arteo bere etsai guziak.

26. Berriz, xahutua izanen den azken etsaia, herioa da. Alabainan haren oinpeko ezarri ditu guziak. Bainan errana da:

27. Guziak haren-peko ezarriak dire; dudarik gabe lekhat haina, zeinak oro ezarri baititu haren azpiko.

28. Gauza guziak izanen direnean beraz haren azpian ezarriak, Semea ere hainaren azpiko izanen da, zeinak azpikotu baitiozka guziak, Jainkoa izan dadien oro ororen gainean.

29. Bertzela zer egingen dute hilentzat bathaiatzen direnek, hilak niholaz-ere bizten ez badire? zertako bathaiatzen dire hilentzat?

30. Zertako geror noiz-nahi galmentetan gabiltza?

31. Anaiak, Jesu-Kristo gure Jaunaren baithan zuetarik dudan ospez, egun oroz hiltzen hari naiz.

32. (Gizonen arara mintzatzeko), Epheson basabereen kontra gudukatu banaiz, zer baliatzen zait baldin ez badire hilak bizten? Dugun jan eta edan, bihar hilen garenaz geroz.



33. Berautzue utz zuen buruak zoratzera: hizketa tzarrek tzartzen dituzte aztura onak.
34. Prestuak, ernerik zaudezte eta berautzue bekhatu egin; ezen badire zuetan batzu Jainkoa ezagutzen ez dutenak; zuen ahalkarazteko mintzo naiz.
35. Bainan norbaitek erranen du: Nola biztuko dire hilak, edo nola-gorputzetan ethorriko dire?
36. Zoroa! eraiten duzuna ez da bizten, non ez den hiltzen lehenik.
37. Eta eraiten duzunean, ez duzu ethorri behar den gorputza eraiten, bainan hazi hutsa, hala-nola ogiarena edo bertze zerbaitena.
38. Bainan hari Jainkoak nahi duen bezalako gorputza ematen dio, eta hazi bakhotxari, berari dagokion gorputza.
39. Haragi guziak ez dire haragi ber bat; bainan bat da gizonena, bertze bat abereena, bertze bat hegastinena, bertze bat arrainenena.
40. Badire gorputz zerutarrak, badire lurtarrak; bainan bat da zerutarren argidura, bertze bat aldiz lurtarrena.
41. Bat da iguzkiaren argitasuna, bertze bat ilhargiarena, eta bertze bat izarrena. Izarretan berriz, bat bertzea baino argiagoa da.
42. Hilen bizteaz ere orobat da. Ustel ehortzi gorputza, ezin-ustel-uzko bizturen da.
43. hara gaitzean da ehorzten, ospetsu da bizturen; iraungi da ehorzten, indartsu da bizturen;
44. Abere gorputz da ehorzten, izpirituzko da bizturen. Hala-nola abere gorputz bat baita, izpirituzko bat ere bada, iskribatua den bezala:
45. Adam, lehenbiziko gizona, arima biziarekin egina izan da; bigarren Adam, arima biziarekin.
46. Ez da ordean izpirituzko dena izan lehenik egina, bainan abere dena, eta gero izpirituzkoa.
47. Lehenbiziko gizona, lurretikakoa lurtar da; bigarren gizona, zerutikakoa zerutar da.
48. Nola lehenbizikoa lurtar, hala haren umeak ere lurtar; eta nola bigarren zerutar, haren umeak ere zerutar.
49. Beraz lurtarraren itxura erabili dugun bezala, erabil dezagun zerutarrena ere.
50. Hau da bada, anaiak, nik diodana: Odolak eta haragiak ezin goza dezaketela Jainkoaren erresuma, ez-eta andeakorrak ez duela ezin-andeatzuko gozaturen.
51. Huna misterio baten erratera nohakizuela: Guziak biztuko gare, bainan guziak ez gare aldatuak izanen.

52. Aphur batez, begi itzuli batean, azken turutaldira (joko du ezen turutak, eta hilak biztuko dire ezin andea ditazkeen bezala), gu ere aldatuak izanen gare.

53. Alabainan gorputz andeakor hunek jauntzi behar du andea ezintasuna, eta gorputz hilkor hunek hilezintasuna.

54. Eta gorputz hilkor hunek jauntzi dukeenean hilezintasuna, orduan betheko da iskribatua den hitz hau: Garhaiziak itho du herioa.

55. Oi herioa, non duk hire garhaizia? oi herioa, non duk hire eztena?

56. Bada, bekhatua da herioaren eztena; legea berriz, bekhatuaren indarra.

57. Eskerrak beraz diotzogun Jainkoari bihur, zeren Jesu-Kristo gure Jaunaz darokun eman garhaizia.

58. Hargatik, ene anaia maiteak, gogor eta khordokatu gabe zaudezte, bethi Jaunaren lanean hazkarki hariz, baitakizue alferra izanen ez dela zuen nekhea Jaunaren baithan.

XVI. KAP.

1. Aldiz sailduentzat egiten diren bilketez bezenbatean, nola nik Galaziako elizei manatu, zuek ere hala egizue.

2. Zuetarik bakhotxak asteko lehen egunean bere etxean bazterrerat eman beza zerbait, batbederak nahi duena aldaratuz; arren-eta ni ethorri arteo egon ez ditezen bilketen egiteko.

3. Eta hor izanen naizenean, zuen gutunek berezi dituzketen gizonak Jerusalemara bidaliren ditut zuen amoinen eramatera.

4. Eta gauzari balin badohakio goan nadin ni ere, enekin ethorriko dire.

5. Bada horrako naiz zuen gana, Mazedonia iragan dukedanean, ezen han gaindi iraganen naiz.

6. Berriz, zuen artean geldituko naiz beharbada, edo emanen ere dut negua, lagunt nezazuen gero goanen naizen edozein tokitara.

7. Ezen etzaitzuet bide nabar ikhusi nahi, bainan uste dut zuekin egon aphur bat, Jaunak ene eskuko uzten badu.

8. Aldiz Mendekosteraino Epheson egonen naiz.

9. Ezen han badut zabaldua athe bat handia eta ageri dena, eta etsai hainitz ere.

10. Berriz, Timotheo zuen gana heldu bada, izan zazue artha deuse-ren beldurrik izan ez dezan; ezen ni bezala, Jaunaren lanari buruz hari da.

11. Ez biozo beraz nihork arbuiorik egin, lagunt zazue ordean bakezki, eneganat ethor dadien, ezen igurikitzen dut anaiekin.



12. Aldiz Apolo anaiatz, zinez derratzuet othoitz asko egin diodala, anaia zenbaitekin zuen ikhustera ethor dadien; bainan ez du gogoan orai ethortzea; artea izanen duen batez ethorriko da ordean.

13. Zaudezte atzarriak eta fedean gogor, gizonki egizue eta hazkartuz zohazte.

14. Karitatea zuen egintza guzietan sar bedi.

15. Badakizue, anaiak, Estephanasen, eta Fortunatoren, eta Akaikoren etxeakoak direla Akaiako pikainak, eta sainduen zerbitzatzeko kargua hartu dutela;

16. Othoizten zaituztet zuek ere ethordun izan zaitezten horrelako gizonen alderat, eta beren lan eta nekheez laguntzen gaituztenen alderat.

17. Bozten naiz, berriz, ethorri baitire Estephanas, Fortunato eta Akaiko, zeren zuen eskasa bethe baitute;

18. Alabainan gozakari ekharri diote ene izpirituari eta zuenari. Ezagut zatzue beraz horrelako direnak.

19. Asiako eliza guziek agur egiten darotzue. Akilak eta Prizilak, zeinen baithan leihorrez bainago, eta hekien etxeko elizak xitki agur egiten darotzue Jaunaren baithan.

20. Anaia guziek agur. Musu saindu batez elkharri agur egizue.

21. Nik, Paulok, ene eskuz iskribatu dut ene agurra.

22. Norbaitek ez badu maite Jesu-Kristo gure Jauna, anathema izan bedi, Maran Atha.

23. Zuekin guziekin da ene karitatea Kristo Jesusen baithan. Halabiz.

KORINTHOARREI JAUN DONE PAULO APOSTOLUAREN BIGARREN GUTUNA

I. KAP.

1. Paulo, Jainkoaren nahitik, Jesu-Kristoren apostolua, eta Timotheo anaia, Korinthon den Jainkoaren elizari, eta Akaia guzian diren saindu guziei.

2. Jainko gure Aitaren ganik, eta Jesu-Kristo Jaunaren ganik zuei grazia eta bake.

3. Benedikatua izan bedi Jainkoa, Jesu-Kristo gure Jaunaren Aita, urrikalmenduetako Aita, eta gozakari guzietako Jainkoa,

4. Zeinak gozaten baikaitu gure atsekabe orotan; guk ere goza ahal detzagun hesturetan diren guziak, geronek Jainkoaren ganik izaten dugun gozakari beraz.

5. Ezen Kristoren eramankizunak gure baithan nasaitzen diren eredura, halaber Kristoren bidez nasaitzen dire gure gozakariak.

6. Bada, atsekabeak erabiltzen bagaitu, hori zuen argitzeko eta salbatzeko; eta gozo balin badugu, hori zuen gozatzeko; eta berotuak balin bagare, hori zuen berotzeko eta zuen salbamenduko, zeinaren ariak egiten baitu jasaiten dituzuela geronek ere jasaiten ditugun eramankizunak;

7. Haletan non zuentzat igurikimen sendo bat baitugu, dakigulakoz jasankizunetan zaretan bezala, halaber gozakarietan ere izanen zaretela.

8. Ezen ez dugu nahi izan zaitezten jakin gabe zer atsekabe gerthatu zaikun Asian; alabainan neurritz eta gure indarrez goiti ehoak gaude, hartarainokoan non bizia bera higuintzen baitugu.

9. Bainan herioaren larderiak gure baithan hauteman ditugu, ez dezagun gure buruen gainean ezar gure sinhestea, bainan-bai hilak bizten dituen Jainkoaren gainean;

10. Zeinak hanbateko galmentetarik atheratu eta atheratzen baikaitu; zeinak oraino ere atheratuko gaituela uste baitugu,

11. Zuek ere zuen othoitzez laguntzen gaituzelarik; arren-eta hainitzen ariaz izan dugun dohainaz hainitzek esker bihur dezaten guretzat.

12. Alabainan gure ospea hau da, gure barneak egiten darokun lekukotasuna, bizi izan garela mundu huntan, eta gehienik zuentzat, biho-



tzeko lainotasunean, eta zintasun jainkotiar batean, ez haragiaren zuhur-
tziaren arabera, bainan Jainkoaren grazian.

13. Ez darotzuet izatez iskribatzen, lehenago irakurtu eta ezagutu
ditutzuenez bertzerik. Ene igurikimena da berriz, azkeneraino ezaguturen
duzuela,

14. Erdi ezagutu ere duzuen bezala, gu garela zuen ospea, hala-nola
zuek ere gurea, Jesu-Kristo gure Jaunaren eguneko.

15. Eta fidantzia hortan nahi izan dut orai baino lehen zuen ganat
ethorri, bigarren grazia bat izan zinezaten,

16. Eta zuetan gaindi Mazedoniara iragan, Mazedoniatik berriz zue-
tara itzuli, eta zuetaz lagundua izan Judeara.

17. Xede hori nuenean beraz, arinkerian ibili othe naiz? Ala asmu zer-
bait dudanean, haragiaren arabera othe da ene asmua, haletan non
baia eta eza ene baithan aurkhitzen baitire?

18. Bainan Jainko zina lekhuko, zuei eman hitzean ez dela ez-bairik.

19. Ezen nitaz, Silbanoz eta Timotheoz zuen erdian erantzuna izan
den Jesu-Kristo Jainkoaren Semea, etzen bai eta ez; baia da ordean haren
baithan.

20. Ezen zenbat-ere baita Jainkoaren agintza, bai da haren baithan;
hargatik ere Jainkoari haren bidez Amen da gure ospetan.

21. Berriz, gu zuekin Kristoren baithan finkatzen gaituena, eta gu
gantzutu gaituena, Jainkoa da;

22. Eta hura da gu zigilatu gaituena, eta gure bihotzetan Izpiritua
bahi ezarri duena.

23. Aldiz, nik Jainkoa lekhuko deitzen dut ene arimaren gain, zuen
guphidez ez naizela oraino Korinthorat ethorri; ez, zuen fedearen gainean
nausitasunik erabiltzen dugulako ariaz, bainanbai zuen bozkarioari eragi-
le baikare, fedean gogor zaudeztelakoz.

II. KAP.

1. Ene baithan gogoan hartu dut beraz, zuen gana ez dudala ethorri
behar, beldurrez zuen bihotzak eri berriz.

2. Ezen ilhunduran ezartzen bazaituztet, nor da niri bozkarioari
eman dezakeena, non ez neronek ilhunduran ezarri dukedan hura bera?

3. Eta hori da ere iskribatu darotzuedana, ez izatea gatik, ethorriko
naizenean, atsekabea atsekabearen gainera hainetarik, zeinetaz boztu
behar bainuke, zuen guzien baithan sinheste baitut ene bozkarioa zuen
guzien bozkarioa dela.

4. Alabainan bihotzeko atsekabe eta hesturan eta nigar hainitzekin
iskribatu darotzuet, ez zuei uhertasunik eman beharrez, bainan jakin
dezazuen zer karitate nasaia dudan bereziki zuentzat.

5. Zuetarik batek atsekabe eman izan badarot, ez nau hanbateraino
atsekabetu, non zuen guzien gain eginen baitut.

6. Horrelako izan denak aski du baten baino gehiagoren ganik izan
duen azurrialdi hori;

7. Haletan non hoberena baita barkha diozozuen eta gozakari eman,
beldurrezeta atsekabe handiegiak azpira dezan horrelako lanaren egilea.

8. Hargatik othoizten zaituztet haren alderat erakhuts dezazuen zuen
karitatea.

9. Aria hortaz ezen iskribatu darotzuet ere, zuek frogatuz, ezagutzea
gatik hean gauza guzietan ethordun zareten.

10. Berriz, zerbait barkhatu diozuenari, nik ere egiten diot; izatez
barkhatu dudana nik ere, zerbait barkhatu balin badut, zuen gatik egin dut
Kristoren izenean;

11. Atzeman ez gaitzan satanek, ezen badakizkigu haren asmuak.

12. Bada, Kristoren ebanjelioaren ariaz Troadera ethorri naizenean,
eta Jaunak zabal zezadan arren athea,

13. Grina ezin khendu dut ene gogotik, zeren ez nuen aurkhitu Tito
ene anaia; bainan hangoei agur eginik, Mazedoniara jo dut.

14. Bada, eskerrak bihurtzen diozkat Jainkoari, zeinak Jesu-Kristoren
bidez garaia ematen baitaroku bethi, eta gure bidez toki orotan agerra-
razten baitu bere ezagutzaren usaina;

15. Ezen gu gure Jainkoaren aitzinean Kristoren usain ona, salbatzen
direnzat, bai-eta galtzen direnentzat;

16. Batzuentzat herio usaina hilarazteko; bertzeentzat berriz, bizi
usaina biziarazteko. Eta horietako nor da hain egoki?

17. Ezen ez gare asko bezala Jainkoaren hitzaren andeatzaile; bainan
zintasunean, bainan Jainkoaren ahotik bezala, Jainkoaren aitzinean,
Kristoren izenean gare mintzo.

III. KAP.

1. Berritan abiatzen othe gare gure buruak gomendatu beharrez?
edobertze zenbait bezala, zuetara edo zuen ganik gomendiozko gutun
beharretan othe gare?

2. Zuek zarete gure gutuna, gure bihotzetan iskribatua, gizon guziek
ezagutzen eta irakurtzen dutena;



3. Erakhutsi baituzue, Kristoren gutuna zaretela, gure arartekoz egina, eta iskribatua ez thinduz, bainan Jainko biziaren izpirituarekin; ez harlauzetan, bainan haragizko bihotzetan.

4. Kristoren bidez dugu berriz, hanbateko fidantzia Jainkoaren baitan;

5. Ez doi garelakoan gure burutarik asmu zerbaiten egiteko, geronen ganikakoa balitz bezala; bainan gure doitasuna dathor Jainkoaren ganik,

6. Zeinak halaber egoki egin izan baikaitu batasun berriko ministro izateko, ez hitzaren arabera, bainan Izpirituaren arabera; hitzak ezen hiltzen du, Izpirituak ordean bizia ematen.

7. Baldin heriotzea ematen zuen hitzaren ministerio harlauzetan iskribatua, hanbateko ospez bethea izan bada, non Israelen umeek Moisesi ezin begira baitziozoketen bekhoz bekho, haren begitharteak zuen ospe iragankorren ariaz;

8. Nolaz ez da Izpirituaren ministerioa ospetsuago izanen?

9. Alabainan ospedun izan bada kondenamendurako ministerioa, zuzenpenerako ministerioa ospez hainitz nasaia go da.

10. Ezik zerk-ere orduko gauzetan argitu izan baitu, ez daiteke aipha oraiko ospe guzizkoaren aldean.

11. Iraungitzen den gauza alabainan ospetsu izan badaiteke, hainitzez ospetsuago irautekoa dena.

12. Horrelako igurikimena dugunaz geroztik, fidantzia handitan mintzo gare;

13. Eta ez dugu egiten Moisesek bezala, zeinak bela bat ezartzen baitzuen begithartean, Israelen umeek ezin jasan zezaketelakoz haren begitharteko argi iragankorra;

14. Eta hala thoil gelditu da hekien aditza. Ezen egungo eguna arteo bela hura bera, testament zaharra irakurtzen dutenean, altxatu gabe gelditzen da (Kristo baita hura khentzen duena);

15. Bainan egungo eguna arteo, irakurtzen zaiotenean Moises, bela hedatua egoten da hekien bihotzen gainean.

16. Bainan Jaunaren gana itzuliko denean Israel, khenduko da bela ere.

17. Bada, Izpiritu da Jauna; berriz, non-ere baita Jaunaren Izpiritua, han ere da libertatea.

18. Gu ordean, begitharteak ageririk Jaunaren ospeari begira gaudezenak, iduri berera aldatzen hari gare argitasunetik argitasunera, Jaunaren Izpirituaren eragintzaz bezala.

IV. KAP.

1. Hargatik, ardietsi dugun urrikalmenduaren arabera, kargu bat dugunek ez dugu amor egiten,

2. Bainan urhats itsu ahalkagarriei ukho egiten diotegu, amarrurik gabe ibiliz eta Jaunaren hitza andeatu gabe, bainan Jainkoaren aitzinean egiaren garbitasunaz gure buruak gomendatuz gizon guzien kontzientziari.

3. Baldin itzalean bada oraino gure ebanjelioa, galtzen direnentzat da itzalean,

4. Fedegabe horientzat, zeinen izpirituak, mende huntako Jainkoak itsutu baititu, Jainkoaren iduria den Kristoren ospezko ebanjelioaren argiak argi ez dezan hekien begietara.

5. Guk ezen ez ditugu gure buruak erantzuten, bainan Jesu-Kristo gure Jauna erantzuten dugu; gu berriz, zuen zerbitzari egiten gure Jesusen gatik;

6. Zeren argiari, ilhunbeetarik argi dezala erran dioen Jainkoak berak izarniatu baitu gure bihotzetan, Jesu-Kristoren begitharteaz argiarazteko Jainkoaren argiaren jakitatea.

7. Bada lurrezko untzitan dakharzkagu aberastasun horiek, ezagun izan dadientzat gure baithan den handitasuna Jainkoaren ahaletik dathorla eta ez gure ganik.

8. Hesturak orotan aurkhitzen ditugu, bainan ez gure athekan gelditzen; poxeluen erdian gare, bainan ez gare sarthuak baratzen;

9. Jasaiten dugu jazarkunde, bainan ez gure laguntzarik gabe; lurre-rat arthikiak gare, bainan ez gare galtzen;

10. Gure gorphutzetan Jesusen heriotzea derabilkagu bethi, Jesusen bizia ere ager dadientzat gure gorphutzetan.

11. Ezen bethi gu, bizi garenak, heriotzeari Jesusen gatik emanak gare, gure gorphutz hilzikunean ager dadien Jesusen bizia ere.

12. Herioa beraz guri hari zaiku, zuei berriz, bizia.

13. Eta fedezko izpiritu bera dugulakoz, iskribatua den bezala: Sinhetsi dut, hargatik naiz mintzatu; sinhetsi dugu guk ere, eta hargatik gare mintzo,

14. Zeren baitakigu Jesus biztu duenak, gu ere Jesusekin biztuko gaituela, eta zuekin ospetan ezarriko.

15. Zuentzat dire alabainan horiek oro; arren-eta berhatuz dihoan grazia, hainitzen eskerren bidez berha dadien oraino Jainkoaren ospagarri.

16. Hargatik ez du gure gogoak amor egiten; bainan gal dadien arren gutan kanpotikako gizona, halere egunetik egunera berrituz dihoa barne-tiakakoa.



17. Ezen gure atsekabeari oraiko orduan darraikion jasankizun labur eta axitak, neurritz goiti gure baithan eraginen du nihonereko ospe baten hazta bethi iraunen duena,

18. Zeren ez baitiotegu ikhuskizun diren gauzei begiratzan, bainan-bai ikhuskizun ez direnei; ageri direnak alabainan oraietakoak dire, ageri ez direnak ordean bethirainokoak.

V. KAP.

1. Badakigu ezen, urratzera heldu bada gauden toki huntako etxe lurrezkoa, leihor bat emanen darokula Jainkoak, ez eskuz eginikakoa, bainan bethi iraunen duen etxe bat zeruetan.

2. Hargatik-ere auhnetan gaudezi, zerutikakoa den gure leihor hura soinera beharrez,

3. Baldin bizkitartean jauntziak aurkhitzen bagare, eta ez larru gorritan.

4. Alabainan ere etxola huntan garenak, kargaren azpian auhendatzan gare, zeren ez baitugu nahi biluziak izan, bainan gainetik jauntziak, gutan hilkizun dena biziak izan dadien iretsia.

5. Bada, hortakotzat egin gaituena, Jainkoa da, zeinak eman baitaroku izpiritua bahi.

6. Gogoak bethi hazkar daduzkagu beraz, dakigulakoz, gorphutz huntan garenorotz gabiltzala.

7. (Fedearan argitara gabiltza ezen, eta ez begienetara);

8. Gogoak hazkar ditugu beraz, eta lehiatzen gare gehiago gorphutz huntarik ilkhitzera Jaunaren aitzinean egoteko.

9. Hargatik-ere haren gogoko izatera bermatzen gare, nahiz izan gaitzen harekin, nahiz ez.

10. Ezen oro behar gure Kristoren tribunalaren aitzinera agertu, bat-bederak bere gorphutzean zelarik egin ongien edo gaizkien araberako saria izan dezan.

11. Ezagutzen baitugu beraz Jainkoaren beldurra, gizonen baithan sarraraztera hari gare. Bada, Jainkoak badaki nor garen, eta uste dugu zuen barneek ere ezagutzen gaituztela.

12. Oraikoan ere ez gabiltza gure buruak zuen sinhestean sarrarazi beharrez, bainan gure ariaz zuen buruen goratzeko bidea ematen darotzuegu, izan dezazuen zer ihardets ageriko gauzez khe dutenei eta ez barnekoez.

13. Ezen edo jauz ditezen gure izpirituak, hori Jainkoaren ariaz da; edo jabal egon gaitezen, hori zuen gatik da.

14. Alabainan Kristoren amodioak hertsatzen gaitu; hau baitadukagu ezen, bat hil izan balin bada guzientzat, hil izan direla beraz guziak;

15. Eta guzientzat hil dela Kristo, bizi direnak ez ditezen gaurgero berentzat bizi, bainan hekien gatik hil eta biztu denarentzat.

16. Hargatik gehiago ez dugu nihor haragiaren arabera ezagutzen. Eta baldin haragiaren arabera ezagutu izan badugu Kristo, orai ez dugu hala ezagutzen.

17. Beraz Kristorena balin bada nihor, kreatura berri bat da; beihalako gauzak goanak dire, huna non berrituak diren oro.

18. Bada, oro heldu dire Jainkoaren ganik, zeinak Kristoren bidez berekin baketu baikaitu, eta guri eman daroku bakepeneko kargua.

19. Alabainan Kristoren baithan zen Jainkoa, berekin baketzen zue-nean mundua, gizona gehiago beren hobenak iratxiki gabe; eta gutan ezarri du bakepeneko hitza.

20. Kristorentzat bidalkin eginbidea bethetzen dugu beraz, Jainkoak gure ahoz hertsatzen bazintuzte bezala. Kristoren izenean errekeitzen zaituztegu, Jainkoarekin bake zaitezten.

21. Bekhatua ezagutzen etzuenaren gain ezarri du gure gatik bekhatua, haren bidez guri emateko Jainkoaren araberako zuzentasuna.

VI. KAP.

1. Jainkoaren laguntzaile garen bezala, hertsatzen zaituztegu ez dezazuen alferretan har Jainkoaren grazia.

2. Dio berak ezen: Ordu onean entzun zaitut, eta salbamenduko egunean lagundu. Huna orai dela ordu on hura, huna orai salbamenduko eguna.

3. Gaizbiderik ez diogu nihori ematen, baiarik ez diozoten iratxik gure lanari;

4. Bainan gauza guzietan gure buruak Jainkoaren ministro bezala erakuts detzagun jasankortasun handi batez, atsekabe, premia, hesturetan;

5. Ukhaldi, presondegi, bihurrialdi, nekhe, beila, baruretan;

6. Garbitasunaz, jakitateaz, eztitasun iraunkorraz, Izpiritu sainduaren dohainez, karitate alegiagabekoaz;

7. Egiazko hitzaz, Jainkoaren ganikako khabuaz, zuzentasuneko harmez ezker eta eskuin;

8. Ospe, laidotan; aiphamen on eta tzarretan; batzuen ahotan engatzaile, bertzeenetan egiami; behin ezagutugabeak, bertzean ezagutuak,

9. Batean hiltzera dohazenen iduri, bertzean hara bizi; joak bezala, eta hara ez hilak;



10. Ilhun direnak iduri, bainan bethi bozkariotan; beharrak iduri, bainan askoren aberasle; buluz hutsak iduri, eta ororen jabe.

11. Zuentzat, oi Korinthoarrak, idekia dago gure ahoa, zabaldua gure bihotza.

12. Gure bihotzean etzarete hertsiki, zuena da ordean enetzat hertsiki.

13. Bihur darotadazuet bada ordaina; ume batzuei bezala derratzuet, zuek ere zabal zatzue bihotzak.

14. Ustarri ber bat ez erabil fedegabekoekin. Alabainan zer phartzu-nergo daiteke zuzentasunaren eta tzarkeriaren artean? Edo zer baltsa argiaren eta ilhunbeen artean?

15. Zer patu Kristoren eta Belialen artean? Edo zer ikhusteko fededunaren eta fedegabearen artean?

16. Zer aria Jainkoaren tenploaren eta idolen artean? Zuek zarete ezen Jainko biziaren tenploak, Jainkoak berak dioen bezala: Horien baitan egonen; horien erdian ibiliko naiz; eta ni izanen naiz horien Jainkoa, eta horiek ene populua.

17. Hargatik ilkhi zaitezte gaixtaginen artetik; beraz zaitezte, dio Jaunak, eta lohi denik berautzue uki;

18. Eta nik besoetara hartuko zaituztet; eta ni izanen natzaitzue aita, eta zuek izanen zarozkidate seme eta alaba, dio Jaun ahalorotakoak.

VII. KAP.

1. Horrelako agintzak ditugunaz geroztik, oi anaia guziz maiteak, gure baitharik haragiko eta izpirituko khutsadura tzar guziak xahu detzagan, Jakikoaren beldurrean osatzen dugularik gure sainduespena.

2. Har gaitzatzue. Nihori ez diogu bidegaberik egin, nihor ez dugu galdu, nihor ez dugu enganatu.

3. Hori ez dut zuen kontra erraten. Aitzinean erran darotzuegu ezen, hileko eta biziko gare bihotzetan zaretela.

4. Zuen baithan fidantzia handia dut, zuen ganik ospe handia dat-horkit, gozoz ez nagoke, bozkarioak gaindi egiten darot gure atsekabe guzien erdian.

5. Alabainan ere Mazedoniara ethorri garenean, niholazko phausurik ez du gure haragiak izatu, kanpoan guduak, ikharak barnean.

6. Aphalei ordean gozakari emaille denak, Jainkoak gozo erran daroku Titoren ethortzeaz;

7. Eta ez ezik haren ethortzeaz, bainan oraino zuen erdian aurkhitu duen gozameduaz, ezagutarazi baitarozkigu zuen lehia, zuen nigarrak, ene alderat duzuen kharra, haletan non gehiago boztu bainaiz oraino.

8. Ezen atsekabe eman balin badarotzuet ere, ez naiz urrikitan; urriki izan badut ere, ikhususirik atsekabe eman zarotzuetela ene gutunak (nahiz aphur batentzat),

9. Bozkario dut orai, ez atsekabe zindutelakoz, bainan zeren urrikita ekharri zaituztetzen zuen atsekabeak. Ezen Jainkoaren arabera izatu da zuen atsekabea, gure ganik niholazko bidegaberik jasan ez duzuen bezala.

10. Jainkoaren arabera atsekabeak alabainan, salbamendurako iraukondak urrikia deragi; mendeko atsekabeak aldiz, heriotzea dakhar.

11. Horra ezen, Jainkoaren arabera atsekabe hartzeak berak, zenbaterko grina duen bizitu zuen baithan; eta oraino, zer khexua zuen buruen xuritzeko, gaizkiaren kontra zer sumindura, Jainkoarentzat zer beldurra, zer lehia, zer kharra, tzarkeriaren kontra zer asperra. Alde oroz erakhutsi duzue etzinetela halako lanean khutsatzen.

12. Beraz, iskribatu balin badarotzuet ere, ez dut egin, ez gaizkia egin duenaren ariaz, ez-eta jasan duenaren gatik; bainan-bai erakhustekotzat zer ardura dadukagun zuentzat

13. Jainkoaren aitzinean; horrek eman dio gure barneari gozo. Bainan gure gozoan, Titoren bozkarioaz gurea gehiago berhatu da oraino, ikhusiz, guziek onthu diozuela gogoa.

14. Eta zuetaz ongi zerbait erran izan badiot, ez dut hortaz ahalkerik; bainan nola egiazen arabera erran baitarozkitzuegu gauza guziak, haletan ere zuetaz Titori erran diogun ona, egiazko atheratu da;

15. Eta zuen alderat gehiago eragiten dio bihotzak, orhoitzearekin zuen guzien ethorkortasunaz, eta nolako beldur eta ikharetan hartu duzuen.

16. Bozten naiz beraz zeren gauza guzietan fida naitekeen zuen gainean.

VIII. KAP.

1. Berriz, zuen egazutzara ekhartzen dugu Jainkoak Mazedoniako Elizei eman dioten grazia,

2. Atsekabearen frogapen handiaren erdian, nasaia izan baita hekien bozkarioa, eta hekien behartasun gaitza, lainotasuneko aberastasunetan gainditu baita;

3. Ezen lekhukotasun bihurtzen diotet, beren ahalaren arabera eta ahalaz goitiko oldea ere erakhutsi dutela,

4. Othoitz errekeika hertsatu gaituztenean har ginetzan hekien amoi-nak eta sainduei egiten zaizkoten laguntzetako phartea.



5. Eta egin dute, ez ezik igurikitzen ginduena, bainan beren buruak ere eman dituzte, Jaunari lehenik, eta gero guri, Jainkoaren nahiaren arabera,

6. Haletan non othoiztu baitugu Tito, hasi duen bezala, zuen artean akhaba dezan eginkari on hori;

7. Arren-eta, gauza oroz aberats zaretan bezala, fedez, hitzez, jakitatez, zernahi arduraz, eta bertzalde gure ganako amodioz, horrelako graziaz ere orobat izan zaitezten aberats.

8. Ez naiz mintzo manatuz bezala; bainan zuei erakhutsiz bertzeek duten ardura, halaber eraginez zuen karitatearen jaidura onari.

9. Ezagutzen duzue alabainan Jesu-Kristo gure Jaunaren karitatea; aberats zelarik, gure gatik behar egin dela, haren behartasunaren bidez izan zintezten aberats.

10. Eta hortan kontseilu bat ematen darotzuet; hori ezen ona da zuentzat, zeinak jazdanik abiatu baitzarete, ez ezik egiten, bainan nahi izaten ere.

11. Orai beraz akhaba zazue lan hori; arren-eta, lehiatzera erne izatu den bezala zuen oldea, duzuenetik akhabatzera ere orobat izan dadien.

12. Ezen nahikari bizi bat denean, Jainkoak onhesten du, batbederak duenaren, eta ez ez duenaren arabera.

13. Ez dut nahi alabainan bertzeek izan detzazten eztitasun guziak, zuek aldiz hesturak, bainan oro bardin izan zaitezten.

14. Oraiko orduan, zuen nasaiziak estal beza hekien eskasia; zuek eskas duzuen halaber estalia izan dadien hekiek nasai dutenetik, eta egin dadien bardintasuna, iskribatua den bezala:

15. Hainitz bildu zuenak, etzuen gaindi; eta guri bildu zuenak, etzuen eskas.

16. Bada, eskerrak bihurtzen diozkat Jainkoari, zeinak ezarri baitu Titoren bihotzean nik zuentzat dudan ardura bere;

17. Onhetsi du ezen ene othoitza, bainan ardura handiagoa zuelakoz, bere baitharik lothu da zuen ganateko bideari.

18. Harekin bidali dugu halaber anaia bat, zeinak ebanjelioaren ariaz laudorioak baititu eliza guzietan;

19. Eta ez hori bakharrik, bainan oraino elizez berezia izan baita gure laguntzat derabilzkagun urhatsetan, anaientzat amoina biltzeko Jainkoaren ospetan eta olde onari bide ematean,

20. Horrela begiratzen garelarik nihork erratekorik ez dezan aurkhi, gure eskuz egiten diren amoina handi haukietan.

21. Atzarriak gaude ezen ongiaren egitera, ez ezik Jainkoaren aitzinean, bainan gizonen begietan ere.

22. Hekiekin igorri dugu bada, bertze anaia bat ere, maiz asko gauzetan ezagutu duguna arduratsu, oraikoan aldiz hainitz arduratsuago dena, zuen gaineko sinheste handiaren ariaz

23. Ongi ethorri eginen diozuetela, nahiz Titoren gatik, zeina ene laguna baita, eta zuen onetan laguntzen nauena; nahiz bertze anaien gatik, zeinak Elizetako Apostolu eta Kristoren ospe baitire.

24. Elizen aitzinean erakhutsozue beraz nolako den zuen karitatea, eta ospe atheratzen ahal dugula zuetarik.

IX. KAP.

1. Alfer liteke luzekiago zuei iskribatzea sainduentzateko laguntzaren gainean;

2. Ezagutzen dut ezik zuen gogo suharra, zeintaz ospe atheratzen baitut Mazedoniarren aitzinean, Akaia jazdanik eginbidetan jarria zelakoz, eta zuen kharrak atzari dituelakoz bertze asko.

3. Bada, bidali darozkitzuet gure anaiak, buru hortarik urmaria ez dadien zuetarik atheratu dudan sendagaila, eta neurritan izan zaitezten, erran izan dudan bezala;

4. Beldurrez-eta, enekin ethorriko direnean Mazedoniarrek, eta zuek neurritan ez aurkhitu, gauza hortan ahalkea gure gainera eror dadien (zuen gainera ez errateko).

5. Uste izan dut beraz premia zela anaiak othoiztea, aitzina har zezaten zuen ganat, eta izan dezaten agindu amoinaren xuxentarazteko artha, egiazko karitate bat bezala, eta ez zekhenkeria bat iduri.

6. Hau diot bada: Xuhur eraiten duenak, xuhur ere bilduko du; eta nasai eraiten duenak, nasai ere du bilduko.

7. Bakhotxak beraz gogoan hartu duen hura eman beza, ez ilhunik, edo ezin bertzez bezala; Jainkoak ezen emaila goiherea du maite.

8. Bada, Jainkoak zuen baithan grazia guziak nasaiaraz detzazke; arren-eta, gauza guzietan izanez bethi behar den guzia, eginkari on guzietako izan dezazuen nasai,

9. Iskribatua den bezala: Barraiatzen haritu da; beharrei laguntza egin diote; menderen mendetan iraunen du haren zuzentasunak.

10. Berriz, eraileari hazia ematen dioenak, ogia ere jateko emanen darotzue, eta popularaziko du zuen hazia, eta berharaziko ditu zuen zuzentasunaren fruituak;



11. Arren-eta, orotaz aberats, karitatea lainotasun osoarekin egiteko ahala izan dezazuen, horrek gure ahotik Jainkoarentzat atheratzen baititu esker onak.

12. Ezen amoina haukien emaitzak, ez ezik estaltzen ditu sainduen beharrak, baina oraino Jainkoari bihurrazten dio esker on hainitz;

13. Gure arartekoz egiten den ongiaren frogantzaren ariaz, sainduak ospatzen baitute Jainkoa, Kristoren Ebanjelioari ekhartzen diozuen aithor ethorkorraren gatik, eta hekiei eta bertze guziei lainoki egiten dituzten karitateen gatik;

14. Eta zuentzat egiten dituzten othoitzez erakusten dute zenbat diren zuen alderat ekharriak, Jainkoak eman darotzuen grazia ederreste-koaren ariaz.

15. Eskerrak Jainkoari haren ezin-erranezko dohainaren gatik.

X. KAP.

1. Bada, Kristoren eztitasun begiratuaren izenean errekeitzen zaituztet nik Paulok, zuen artean, diotenaz, itxuraz eme, baina urrundik buruiopetsu agertzen naizenak zuen alderat.

2. Othoizten zaituztet bada, ez nezazuen bortxa hor izanen naize-
nean erraten duten buruiopea erabiltzera gizon batzuen kontra, zeinek uste baitute haragiaren arabera gabiltzala.

3. Halabadere haragian gabiltzalarik, ez gure haragiaren arabera gudukatzen.

4. Ezen gudutako gure harmak ez dire haragizkoak, baina Jainkoaren ganik indar dutenak hazkargailuen urratzeko, hekiekin urmariazten baititugu gizonen asmuak,

5. Eta Jainkoaren jakitatearen kontra goratzen diren buruiope guziak; eta Kristoren azpian gathibu ezartzen baititugu izpiritu guziak,

6. Eta bihurrikeria guzieren gaztigatzeko ahala baitugu, zuek ethorduntasuneko eginbideak bethe dituzketzuen ondoan.

7. Ageri diren bezala ikhusatzue gauzak. Norbaitek Kristorena bada-duka bere burua, hau ere gogoan iragan beza, ezen bera Kristorena den bezala, gu ere hala gabela.

8. Ezen ene buruari eman banezo ere esker zerbait gehiago Jaunak zuen onbidetan eta ez galbidetan eman izan darokun ahalaz, ez nuke bate-re ahalkatzeko.

9. Baina gutunez zuek izitu beharrez bezala nabilalako ustekeriarik ez dadien izan

10. (Ezen Pauloren gutunak, diotenaz, zorrotzak dire eta borthitzak; baina bera ikhusten denean, itxuraz txar eta solasez erdeinagarri),

11. Hortako denak burutan iragan beza ezen, nolakoak baikare urrundik hitzez gutunetan, hala-halakoak gabela aldetik egintzetan.

12. Ez gare ausartatzen beren buruak edertzen dituztenen arteko jartzera, edo gure buruak hekien aldeko ezartzera; baina garenarekin neur-tzen ditugu gure buruak, eta gure burua gure buruarekin erkhatzen dugu.

13. Ez ditugu bada gure buruak neurritz goiti ederretsiko, baina Jainkoak eman izan darokun neurriaren heinean zuen ganat heldu izan gabela, hori da gure ospearen neurria.

14. Ez gure alabainan gure zedarrietarik haratago hedatzen, iduri ez gabela zuen ganat heldu izan, ezen zuetaraino heldu izan gare Kristoren Ebanjelioarekin.

15. Ez gare, bertzeen lanez jabetuz, neurritz goiti handitzen; baina gure pheskiza da, berhatuz goanen dela zuen fedea, eta zuen ariaz ospe nasaia atheratuko dugula, emana zaikun eremuan,

16. Eta zuen ganik haratago diren aurkhintzetan en: erantzunen dugula ebanjelioa, bertzeen eremuetan eginak diren lanez jabetu gabe.

17. Ospe atheratzen duenak beraz, Jaunaren baithan athera beza.

18. Ez da ezen bere buruaren aithorra duena ontzat ezagutua, baina-bai haina zeinari Jainkoak aithor ematen baitio.

XI. KAP.

1. Oxala aphur bat jasan bazinezate ene sendokeria! baina ni ere jasan nezazue;

2. Ezen Jainkoaren gatik ekhartzen darotzuet amodio bekhaizkorrena. Alabainan nik senhar bati ezkontzaz agindu zaituztet, neskatxa garbi bat bezala emateko Kristori.

3. Baina beldur naiz, sugeak Eba amarruka enganatu zuen bezala, andea ditezen zuen izpirituak ere, eta makhur ditezen Kristoren arabera-ko lainotasunetik.

4. Ezen heldu den batek erantzun balezazuete bertze Kristo bat guk erantzun ez duguna; edo izan bazinezate izpiritu bat izatu ez duzuen, edo Ebanjelio bat zuek izatu gabea; zuzenbidean jasan zinezakete.

5. Ez dut ordean uste apostolu handiek baino deusere gutiago egin izan dudala.

6. Mintzatzeko, antzegabea banaiz ere, ez naiz jakitategabea; eta gauza guzietan zuen artean erakhusi ditugu gure buruak.



7. Ala gaizki egin othe dut, zuen goratzeko ene buruaren beheratzea, zeren urrurik erantzun darotzuedan Jainkoaren Ebanjelioa?

8. Bertze elizei khendu diotet, hekien ganik hartuz zuen zerbitzatzeko saria.

9. Eta zuen baithan nintzenean, eta beharretan, ez naiz nihoren bizkar izatu, ezen Mazedoniatik ethorri anaiek estali dituzte ene eskasak; eta deusetan-ere zuen behargarri izan gabe, zerbitzatu zaituztet, eta oraino eginen ere.

10. Kristoren egia ene baithan denaz hitz darotzuet, ospe hori ez dudala galduko Akaiako eremuetan.

11. Zergatik? Zeren etzaituztedan maite? Jainkoak badaki.

12. Bainan egiten dudana, eginen ere dut; arren-eta hauts diozotedan bidea bideketa dabiltzanei, ospe atheratzen duten gauzetan hekiek gure iduriko aurkhituak izateko.

13. Ezen halako apostolu-aizunak, langile amarrutsu batzu dire, Kristoren apostoluen itxura jaunzten dutenak

14. Eta ez da harritzeko; ezik satanek berak ere hartzen du aingeru argidunaren itxura.

15. Ez da beraz handia, haren zerbitzariak ere hartzen badute zuzenaren zerbitzarien itxura; bainan beren egintzen araberako akhabantza izanen dute.

16. Diot berriz ere (nihork ez beza uste izan buru harro bat naizela, bertzenaz buru harro bezala har nezazue, nik ere ene buruari lelo zerbaite eman diozodan),

17. Lelo aria hortan erraten dudana bihoa ez dudala Jainkoaren arbera erraten, bainan buru harrokeriaz bezala.

18. Askok haragiaren araberako espantuak dituztenaz geroztik, nik ere hala eginen dut.

19. Alabainan zuhurak zareten arren, gogo onez jasaiten dituzte harroak.

20. Jasaiten duzue ezik, norbaitek azpikotzen bazaituzte, norbaitek iresten, norbaitek larrutzen, norbaitek burgoiki erabiltzen, norbaitek begighthartean jotzen.

21. Laidoaren ariaz diot, horren gainean ilhaun izan bagine bezala. Bertzeak ausartatzen diren gauzetara (harrokerian mintzo naiz) ausartatzen naiz ni ere.

22. Hebrearrak dire? Ni ere bai. Israeldarrak dire? Ni ere bai. Abrahamen odoletik dire? Ni ere bai.

23. Kristoren ministro dire? (Zoroa bezala mintzo naiz), ni hobeki; izatu naiz nekhe gehiagotan, presondegitan maizago, zaurthua eragabeki, ardura heriotzearen menean.

24. Juduen ganik azote ukhaldiak hartu ditut berrogoi, bat guti.

25. Hiruretan zaharoz joa izan naiz; behin harrikatua; itsasoan kostako joa dut hiruretan; gau bat eta egun bat eman ditut itsaspean.

26. Maiz izatu naiz bide gainetan, galmentetan ibaien gainean, galmentetan ohoinen artean, ene herritarren aldetik galmentetan, jendaien aldetik galmentetan, hirian galmentetan, mortuan galmentetan, itsasoan galmentetan, anaia maltzurren artean galmentetan.

27. Ibili naiz nekhe, akhidura, beila, gose, egarri, barur asko, hotz, buluztasunen erdian.

28. Kanpotikakoak diren gaitz horiez bertzalde, egun guzietako egitekoak, Eliza guzien grina enekin erabili ditut.

29. Nor eritzen da, eta ni ere ez banaiz eritzen? nor da bidakhaizten, ni ere ez banaiz erretzen?

30. Espantu egin behar bada, jasan ditudan gaitzez sendagaila eginen dut.

31. Jainkoak, Jesu-Kristo gure Jaunaren Aitak badaki ez naizela gezurrez mintzo.

32. Aretas erregearentzat Damaseko populuaren buruzagi zenak, ene harrapatzeko zaintzen zuen Damaseko hiria;

33. Eta leiho batetarik saski batean jautsi ninduten hiriko harrasia behera, eta haletan itzuri nintzen haren eskuetarik.

XII. KAP.

1. Lelo atheratu behar bada (ez da bada on ere), Jaunaren ganikako ikhuspene eta agerpenen aiphatzen abiatuko naiz.

2. Kristoren baithan badakit halako gizon bat, duela hamalaur urthe hirugarren zeruraino altxatua izan dena; ala bere gorphutzarekin, ala gorphutzik gabe, hori ez dakit, Jainkoak daki.

3. Eta badakit halako gizon hura (edo bere gorphutzarekin, edo gorphutza gabe, ez dakit, Jainkoak daki),

4. Parabisura altxatua izan dela, eta solas gorde batzu aditu dituela, hekien erratea gizonari ez baitzaio zilhegi.

5. Halako gizonarentzat sendagaila egin dezaket; enetzat ordean, ene gaitzez baizik ez dut eginen batere.

6. Alabainan ene burua goratu nahi banu, ez liteke zorokeriarik ene baithan, zeren egia bainerrake; herabez uzten dut ordean, beldurrez-eta,



norbaitek, nitan ikhusten edo nitaz aditzen duenetik zerbait gehiago banaizela uste izan dezan.

7. Eta ez nezan hantaraz agerpenen handitasunak, haragian emana izan zait akhulo bat, Satanen aingeru, joka hari zaitan bat.

8. Hargatik hiruretan othoiztu dut Jauna, ene ganik urrun dezan;

9. Eta ihardetsi izan darot: Aski duzu ene grazia; ezen herbaltasunak ekhartzen du osotasunera indarra Gogotik eginen dut beraz ene herbale-riaz sendagaila, ene baithan egon dadien Kristoren indarra.

10. Aria hortaz lakhet naiz ene gaitz, laido, behar, jazarri, hesturetan Kristorengatik; ezen herbal naizenean, orduan naiz hazkar.

11. Zoratu naiz; zuek bortxatu nauzue. Zuei zen alabainan ene goratzea; ez dut ezen deusere egin apostolu handienek baino gutiago, deusik ez naizen arren.

12. Halabadore zuen artean agertu dire ene apostolutasuneko eza-gutkariak, ene jasankortasun osoaz, sendagaila, mirakulu eta harritzeko gauzez.

13. Ezen bertze elizek baino zer izan duzue gutiago, ez bada zuen bizkar ez naizela izatu? Hoben hori barkha dizadazuet.

14. Huna hirugarren aldia zuen ikhustera abian naizela; eta oraikoan ere ez naiz zuen bizkar izanen. Ezen ez nabila zuenaren ondoan, bainan zuek bilhatzen zaituztet. Halabadore ez da haurrei ontasun biltzea burhasoentzat, bainanbai burhasoei haurrentzat.

15. Nik aldiz zuen arimentzat, ditudanak eman netzazke, eta ene arima gainetik; nahiz gehiago maithatzen zaituztedanean, gutiago naizen maithatua.

16. Bainan bihoa! Zuen bizkar ez naiz izatu; xothila bainaiz, amarruka atzeman zaituztet.

17. Zuen gana bidali ditudanetarik norbaitez enganatu othe zaituztet bada?

18. Othoiztu dut Tito, eta harekin bidali dut bertze anaia bat. Titok enganatu othe zaituzte? ez othe gare izpiritu berean ibili? hatz berei jarraiki?

19. Uste othe duzue oraino, zuen begietan gure buruak garbitu beharrez han garela? Jainkoaren aitzinean Kristoren baithan mintzo gare; eta gure hitz guziak, anaia maiteak, zuen onetako dire.

20. Beldur naiz ezen, etzezaztedan aurkhi, ethorriko naizenean, nahi zintuzketedan bezalakoak; eta zuek ere ni aurkhi nezazuen nahi ez nindukezuen bezalakorik; beldur naiz zuen artean ikhus detzadan khimerak, bekhaizgoak, aiherkundeak, eskatimak, erauntsia gaixtoak, salhuak, hanpuruskeriak, bihurrialdiak;

21. Eta berriz zuen baithara ethorriko naizean, apha nezan Jainkoak, eta nigar beharko dudan egin askoren gainean hainetarik, zeinek, lehenago bekhatutan erori, eta penitentzia ez baitute egin erabili dituzten lohi-keria, khutsatze eta likhiskeriez.

XIII. KAP.

1. Huna hirugarren aldiko zuetara nathorla; bi edo hirur lekhukoren ahotik goanen da gauza guzia.

2. Lehenago erran dut, eta erraten dut oraino hor ez naizelarik, hor banintz bezala, berriz ethortzen balin banaiz, ez ditudala guphidetsiko aitzinean bekhatu egin izan dutenak, ez-etare bertze guziak.

3. Ala frogatu beharrez zabilzate Kristoren indarra, Kristo, zeina ene ahoz mintzo baita, zeina ez baita zuen artean hebain agertu, bainan-bai ahaldun zuen erdian?

4. Ezik haragiko herbaltasunaren arabera gurutzefikatua izan da; bainan Jainkoaren indarrak bizi da. Halaber gu ere harekin herbal gare, bainan harekin biziko gare, Jainkoak zuen artean erakhusten duen indarrak.

5. Ikhar zatzue zuen buruak, hean fedean zareten; froga zatzue zuen buruak. Ala ez duzue ezagutzen zuen baithan dela Kristo Jesus? ez bazarete bederen bide onetik makhurtuak.

6. Bainan uste dut ezagutuko duzuen, ez garela gu makhurtuak.

7. Bada, othoizten dugu Jainkoa, niholaz ez dezazuen gaizkirik egin; ez hori gu prestuztat ikhusiak izan gaitezen, bainan zuek egin dezazuen ongi dena; nahiz guk prestu itxurarik ez izan.

8. Alabainan ahalik ez dugu egiaren kontra, bainan-bai egiaren alde.

9. Halabadore bozten gare, zeren herbal garen gu, zuek aldiz hazkar. Hau ere galdegiten diogu Jainkoari, eman diezazuen perfetasuna.

10. Hemendik iskribatzen darozkitzuet gauza horiek, horratu-eta ez nahiz gogorki erabili Jaunak eman darotan ahala, altxatzeko eta ez arthikitzeke.

11. Gainerakoan, anaiak, boz zaitezte, izan perfet, bero elkhar, izan gogo bereko, bizi bakean, eta bakezko eta amodiozko Jainkoa zuekin izanen da.

12. Musu saindu batez elkharri agur egizue. Saindu guziek igortzen darotzue goraizti.

13. Zuekin guziekin izan beitez Jesu-Kristo gure Jaunaren grazia, eta Jainkoaren amodioa, eta Izpirituaren dohaina. Halabiz.



GALAZIARREI JAUN DONE PAULO APOSTOLUAREN GUTUNA

I. KAP.

1. Paulo apostolu dena, ez gizonek ezarririk, ez-eta gizon baten eskuz; bainan Jesu-Kristoren eta hura hiletarik biztu duen Jainko Aitaren eskuz;

2. Eta enekin diren anaia guziak, Galaziako elizei.

3. Grazia zuei eta bakea Jainko Aitaren ganik, eta Jesu-Kristo gure Jaunaren ganik,

4. Zeinak bere burua gure bekhatuentzat eman baitu, gure itzurrazteko oraiko mende gaixtoari, hala nahi zuen bezala Jainko gure Aitak,

5. Zeinari menderen mendetan ospe zor baitzaio. Halabiz.

6. Harritzen naiz nola hunen laster iragaiten zaretan Kristoren graziara deithu zaituztenaren ganik bertze ebanjelio batetara;

7. Zeren ez baita bertzerik, bainanbai halako gizon batzu nahasten zaituztetenak, eta Kristoren ebanjelioa gainazpikatu nahi dutenak.

8. Bainan guk, edo zerutik ethorri aingeru batek erantzun balezazute ere guk erantzun darotzuegun ebanjelioaz bertzerik, anathema izan bedi.

9. Erran izan darotzuegun bezala, orai ere erraten darotzuet berriz: Izatu duzuen ebanjelioaz bertzerik erantzuten badarotzute norbaitek, bedi anathema.

10. Orai ezik, gizoni aurkhitu beharrez othe nabila, ala Jainkoari? Ala gizonen gogoko izatea bilhatzen othe dut? Gizonen gogara egin baneza oraino, ez ninteke Kristoren zerbitzari.

11. Nik erranik jakizue, anaiak, nitaz erantzuna izan den ebanjelioa, ez dela gizonen araberakoa;

12. Ez dut ezen gizonaren ganik ez izan, ez ikhasi, bainan Jesu-Kristok agerturik.

13. Aditu duzue alabainan, nola Juduen legean bizi izan naizen lehen, ezin gehiago jazartzen niola Jainkoaren Elizari, eta gudukatzen nuela,

14. Eta ene burua Judu legean erakhusten nuela ene odoleko adinkhide gehienen gainetik, khar handiagoa ekharriz arbasoen ganikako irakhaspenentzat.

15. Bainan ene amaren sabeletik berezi eta bere graziaz deithu naunen gogarako izan denean

16. Niri ezagutaraztea bere Semea, jendaietan erantzun nezan haren izena; ordu beretik ez naiz begiratu ez haragiari, ez odolari;

17. Jerusalemerat ere ez naiz ethorri ene aitzineko apostoluen gana; bainan jo dut Arabiara, eta Damasera berriz itzuli naiz;

18. Gero, hirur urtheren buruan, Jerusalemera elhorri naiz Piarresen ikhustera, eta haren baithan eman ditut hamabortz egun.

19. Ez dut orduan bertze apostolurik nihor ikhusi, Jakobe baizik, Jaunaren anaia.

20. Eta huna, Jainkoa lekhuko, iskribatzen darozkitzuedanetan ez dela gezurrik.

21. Gero ethorri naiz Siriako eta Ziliziako aurkhintzetara.

22. Bada, Kristoren baithan sinhesten zuten Judeako elizez ez nintzen ikhustez ezagutua;

23. Bakharrik aditze hau zuten: Lehenago jazartzen zarokunak, orai erantzuten du bertze orduz gudukatzen zuen fedea.

24. Eta ene ariaz ospe bihurtzen zioten Jainkoari.

II. KAP.

1. Geroago, hamalaur urtheren buruan, Barnabasekin, eta Tito hariturik, berriz igan nintzen Jerusalemera.

2. Izatu nuen agerpen baten ariaz igan nintzen; eta orai jendaietan erantzuten dudan ebanjelioa xehatu nuen orduan hekien aitzinean, eta berezean ikhusienak zirenen aitzinean, beldurrez-eta urhats alferrak egin, edo lehenago eginak alferrak izan zitezen.

3. Bainan Tito, enekin zena, jendaietarikakoa zen arren, ingurebakia izatera etzuten bortxatu.

4. Eta nahiz han baziren anaia-aizunak, amarruz sarthuak ikhustera zer libertate dugun Jesu-Kristoren baithan, gu legearen uztarrian ezarri beharrez;

5. Aphur batentzat ere ez ginaroten amorrik egin, hekien nahia onhetsiz; arren-eta ebanjelioa zuen artean egon zadien bere egian.

6. Bada zerbait iduri zutenek (lehenago zer ziren ez da axola, nor-den Jainkoa ez da begiratzen), zerbait iduritzen zitzaizkitanek, berriagorik deusere etzarotedan irakhatsi.

7. Bainan aitzitik ikhusi zutenean jendaien ebanjelioaren erantzuteko kargua niri emana zela, hala-nola Piarresi ingurebakiei erantzutekoa:



8. (Ezen ingurebakien apostolutasunean Piarres ezarri duenak, ezarri nau ni ere jendaien artean apostolu);

9. Niri emana zitzaitan grazia ezautu zutenean beraz Jakobek, Zephasek eta Joanesek, zeinek habeak iduri baitzuten, lagunkhidetasuneko eskua eman zarokuten niri eta Barnabasi, gu jendaietan ibiltzeko, eta hekiek ingurebakietan.

10. Bakharrik mezutu gintuzten jende beharrez orhoitzeaz; horren egiterat ere arduratsu izan naiz.

11. Bada, Antiokiara ethorri zenean Zephas, begithartera ihardetsi nioen, gaizkien aditzeko bidetan jarri baitzen.

12. Ezen Jakoberen ganik gizon batzu ethorri aitzinean, jendaietari-kakoekin jaten zuen; bainan hekiek ethorri zirenean, itzaltzen zen eta jendaietarikakoetarik aldaratzen, ingurebaketarikakoen beldurrez.

13. Bertze Juduak halaber amarru hortara erori ziren, haletan non Barnabas ere hortara ekharria izan baitzen.

14. Bainan ikhusi nuenean etzabiltzala xuxen ebanjelioko egiazen bidez, guzien aitzinean erran nioen Zephasi: Baldin zu, Judua izan-eta, jendaien arara bizi bazare, eta ez Juduen arara, nolaz Juduek bezala egitera bortxatzen ditutzu jendaiak?

15. Juduak gare ethorkiz, eta ez jendaietarikako bekhatoreak.

16. Bada, dakigulakoz gizona ez dela legeko eginkariez garbitzen, baina bai Jesu-Kristoren baithako fedeaz, guk ere Kristo Jesusi sinheste eman diogu, Kristoren baithako fedearen bidez zuzentzat atheratzeko, eta ez legeko eginkariez, zeren gizonik ez baita legeko eginkariez garbituko.

17. Kristoren bidez zuzen atheratzea bilhatzen dugularik, bekhatore aurkhituak bagare geroni ere, bekhatuaren zerbitzari othe da bada Kristo? Ez holakorik.

18. Alabainan urratu dudana osatzen badut berriz, lege hauste ezartzen dut ene burua.

19. Ezen ni legeaz naiz legeari hila, Jainkoarentzat bizitzeko. Kristorekin gurutzeari josia naiz.

20. Eta bizi naiz; edo ez naiz ja bizi, bainan Kristo da ene baithan bizi; edo haragi huntan bizi banaiz ere, ni maithatu eta enetzat bere burua eman duen Jainko Semearen baithako fedean bizi naiz.

21. Ez dut hastantzen Jainkoaren grazia. Ezen legeak eman badezake zuzentasuna, alferretan hil da beraz Kristo.

III. KAP.

1. Oi Galaziar adimendugabeak, nork zoratu zaituzte egari horrela bihurtzeko, zuek, zeinen begien aitzinean ezarria izan baita Jesu-Kristo, zuentzat gurutzefikatua izan dena?

2. Hau bakharrik nahi dut zuen ganik jakin: Legeko eginkarietarik, ala fedearen entzutetik izan duzue Izpiritua?

3. Hain zoroak zarete, non izpiritutik hasi eta haragitik akhabatuko baituzue?

4. Alferretan jasan duzue horrenbertze? alferretan bada hargatik.

5. Zuei Izpiritua ematen eta zuen erdian sendagailak egiten dituen, legeko eginkarietarik, ala entzun duzuen fedetik hari othe da?

6. Iskribatua den bezala: Abrahamek sinhetsi zuen Jainkoa, eta hori zuzentasunerako iratxikia izan zitzaioen.

7. Jakizue beraz fedetikakoak direnak, hekiek direla Abrahamen ume.

8. Bada, aitzinetik ikhustenez Jainkoak fedetik iratxikiko ziotela jendaietarik zuzentasuna, Iskriurak agintza hau egin zioen Abrahami: Zure baitan benedikatuko dire jendaki guziak.

9. Fedetik direnak beraz, Abraham fededunarekin dire benedikatu.

10. Ezen legeko eginkariei datxikoten guziak, madarizionearen azpian dire, iskribatua da ezen: Madarikatua, legeko liburuan iskribatuak diren guzietan egonen ez den gizona, hekien bethetzeko.

11. Ageri da nihor ez dela Jainkoaren aitzinean legeaz garbitzen, fedetik bizi denaz geroztik gizon zuzena.

12. Legea berriz, ez da fedetikakoa, bainan erraten du: Haukiek egiten dituen, haukien bidez biziko da.

13. Kristok legeko madarizionetik atheratu gaitu, bere burua gure orde madarikatu egirik, iskribatua da ezen: Madarikatua habetik dilindan dena;

14. Jendaien gainera Kristo Jesusez itzul zadien Abrahami eman benedizioea, arren-eta fedearen bidez izan ginezan agindua zen Izpiritua.

15. Anaiak (gizon arara naiz mintzo), ageriz norbaitek egin badu testament bat, nihork ez dezake ez guti, ez berha.

16. Agintzak Abrahami eta haren ganik denari eginak dire. Ez du erraten: Eta haren ganikakoei, askorentzat balitz bezala; bainan batentzat bezala. Eta zure ganik iraulgiko denari; hura baita Kristo.

17. Hau diot bada: Jainkoak testamenta finkatu du; lau ehun eta hogoi eta hamar urtheren buruan egin izan den legeak ez du hutsaltzen hura, agintzaren ezeztatzeko.



18. Alabainan legetik heldu bada ondoregoa, ez dathor agintzatik. Bada, agintzaz eman dio Jainkoak Abrahami.

19. Zer da beraz legea? Legea ezarria izan da bekhatuen ariaz, sort-hu behar zena ethor zadin arteo, agintza hari baitzen egina, aingeruek ararteko baten bithartez eman erabakietan.

20. Bada, arartekoa etzen bakhar baten ararteko; aldiz bakharra da Jainkoa.

21. Legea beraz Jainkoaren agintzaren kontra othe doha? Urrun da. Ezen bizia eman dezakeen lege bat izan balitz emana, egiazki legetik lat-horke zuzentasuna.

22. Bainan Iskriurak oro bekhatuaren azpian hertsu ditu, agindua zena eman zakioten sinhestunei Jesu-Kristoren baithako fedearen bidez.

23. Bada, fedea ethorri aitzinean, legearen azpian hertsirik begiratuak ginen, agertzekoa zen fede hunentzat.

24. Haletan legea izatu da eskola nausi bat bezala, Kristoren gana gure biltzeko, fedearen bidez izan gintezen zuzen eginak.

25. Bainan fedea ethorriaz geroztik, ez gare gehiago eskola nausiaren azpiko.

26. Alabainan Jesu-Kristoren baithako fedez guziak Jainkoaren ume gare.

27. Ezen Kristoren izenean bathaiatuak izan zaretan guziek, Kristo jauntzi duzue.

28. Orai ez da ez Judu, ez Greziar, ez gathibu, ez pelut, ez gizonki, ez emazteki; ezen guziak bat zarete Kristo Jesusen baithan.

29. Bada, Kristorenak balin bazarete, Abrahamen ganikako iraulgia zarete, eta ondokoak agintzaren arabera.

IV. KAP.

1. Diot berriz: Haurtto deno ondokoa, sehtik ez da deusetan berez-ten, ororen nausia den arren;

2. Bainan zaintzaile eta arthatzailen azpiko da aitak erabaki orduraino.

3. Halaxe gu ere haur ginenean, munduaren lehenbiziko eskolari ginarraizkon.

4. Bainan muga ethorri deneko, Jainkoak bidali du bere Semea, emaztekiaren ganik egina, legearen azpiko ezarria,

5. Legearen azpian zirenen berrerosteko, seme-orde eginak izan gintezen.

6. Eta haren ume zaretelakoz, Jainkoak zuen bihotzetara igorri du bere Semearen Izpiritua, oihu egiten duena: Abba (Aita).

7. Hargatik etzarete gehiago sehi, bainan ume. Ume dena, ondoko ere da Jainkoaren graziaz.

8. Bainan zuek Jainkoa ezagutzen etzinduten orduan, beren izatez jainko ez diren batzu zerbitzatzan zinituzten.

9. Orai ordean, Jainkoa ezagutu duzuen ondoan, edo hobeki mintzatzeko, Jainkoak ezagutu zaituztetenean, nolaz itzultzen zarete berriz lehenbiziko irakhaspen erphil eta eskasetara, zeinen azpiko nahi baituzue oraino ere jarri?

10. Begiratzen ditutue egunak eta hilabeteak, mugak eta urtheak.

11. Zuentzat beldur naiz, nekhe alferrak erabili ditudala zuen artean.

12. Ni bezala egon zaitezte, ni ere zuek bezala naizenaz geroztik; othoizten zaituztet, anaiak. Ez darotadazue behin-ere gaizkirik egin.

13. Badakizue berriz; lehenik haragiaren gaitzen erdian erantzun darotzuedala ebanjelioa; eta ene haragian jasaiten nituenek etzaituztete hizitatu

14. Ez erdeinatzeraz, ez-etare nardatzera; bainan hartu nauzue Jainkoaren aingerua bezala, Jesu-Kristo bera bezala.

15. Non da bada orduko zuen zoriona? Ezen lekhukotasun hau bihurtuko darotzuet, zuen begiak, daitekeen gauza balitz, irazi eta niri emanen zintuzketela.

16. Zuei egia erratean bilhakatu naiz beraz zuen etsai?

17. Zuen ondotik dabiltzanak badire, ez bide onez; bainan ene ganik berezi nahi zaituztete, eta berei jarraikarazi.

18. Bada, ongiari ongi jarraik zakizkiote bethi, eta ez bakharrik ni zuekin nagoenean.

19. Ene haurttoak, zeinetaz berriz erditzen bainaiz, Kristo zuen artean jar dadien arteo,

20. Orai nahi nuke bada zuekin izan, eta buru orotara zuei itzuli ene solasa, ezik ahalketan nago zuen ariaz.

21. Erradazue legearen azpiko izan nahi duzuenek, irakurtu duzue legea?

22. Ezen iskribatua da: Abrahamek izatu zituen bi seme, bat sehiaren eta bertzea pelutaren ganik.

23. Bainan sehiaren ganikakoa, haragiaren arabera sorthu zen; aldiz pelutarena, agintzaren ariatik.

24. Horiek itxurapen baten azpian erranak dire. Bi emazteki horiek ezen, bi legeak dire; bata Sina mendikoa, gathibutasunera sorrarazlea, hura baita Agar;



25. Ezik Sina Arabiako mendi bat da, lureko Jerusalemeri ariaz era-
txikia dena, eta bere umeekin gathibu da.

26. Bertzea ordean, gaineko Jerusaleme, pelut da; hura da gure ama.

27. Iskribatua da ezen: Boz zaite, haurrik izaten ez dugun agorra;
jauz zaite, eta egizkitzu bozkariozko oihuak, haur minetan jartzen etzare-
na; zeren senhardunak baino, bazterrerat utzia zenak ume gehiago baitu.

28. Gu aldiz, anaiak, Isaaken ariatik agintzaren ume gare.

29. Eta nola orduan haragiaren arabera sorthua zenak, izpirituaren
arabera sorthua zenari jazartzen baitzioen; hala-hala da orai ere.

30. Bainan zer dio Iskriturak? Iraizatu sehia eta bere semea, ez da
ezik sehiaren semea pelutaren semearekin ondore izanen.

31. Horreletan, anaiak, ez gare gu sehiaren semeak, bainan-bai pelu-
tarenak; eta Kristok eman izan daroku gure pelutasuna.

V. KAP.

1. Zaudezte gogor, eta ez berriz jar gathibutasunaren uztarripean.

2. Huna nik, Paulok, erraten darotzuet, ingurephaiten bazarete, deu-
sik etzaitzuela baliaturen Kristo.

3. Berriz ere segurutzen diot ingurephaiten den gizonari, lege guzia-
ren bethetzea zor duela.

4. Zuen zuzenpena legean bilhatzen duzuenak, atzetuak zarete
Kristoren ganik; graziatik eroriak zarete.

5. Guk ordean izpirituaz fedetik igurikitzen dugu gure zuzenpena.

6. Alabainan ingurebaki edo ez, ez da Jesu-Kristoren baithan zerbait
baliatzen; bainan bakharrik karitateak derabilkan fedea baliatzen da.

7. Urhats ona zinaramaten; nork gibelatu zaituzte egari ethordun
izatetik?

8. Burutan ezarri darotzueten hori, ez da zuek deitzen zaituztenaren
ganikakoa.

9. Altxagarri guti batek mintzen du orhe guzia.

10. Ene buruari agintzen diot zuen ganik, ene irakhasmenaz bertze
bati ez diozuela eskerrik izanen; bainan zuen nahasten dabilanak, nor-
nahi izan dadien, zor zaion juiamendua izanen du.

11. Nik bada, anaiak, ingurephaitza erantzuten balin badut oraino,
egundainoko jazargoak nolaz ditut jasaiteko? Ezeztatua da beraz guru-
tzearen gaizbidea.

12. Oxala zuek nahasten zaituztenak oroz oro ebakiak balire

13. Ezen, anaiak, zuek libertatera deithuak zarete; bakharrik begira
har libertate hortarik haragiaren arabera bizitzeko bidea; bainan karitatez-
ko Izpirituz elkhar laguntzazue.

14. Alabainan hitz batean sartzen da lege guzia: Laguna maithatuko
duzu zure burua bezala.

15. Elkharri asikika eta janka hari bazarete, berautzue elkhar xahu.

16. Diot bada: Izpirituaren arabera ibil zaitetzte, eta haragiaren zale-
keriak ez ditutzue betheko.

17. Alabainan haragiak izpirituaren kontrako zalekeriak ditu, eta izpi-
rituak haragiaren kontrako lehiak; biek ezen elkharri zeiber egiten diote;
haletan non zer-ere nahi baitzindukete, hura ez baituzue egiten.

18. Baldin izpirituak bazeramatzate, etzarete legearen azpian.

19. Bada, agerikoak dire haragiaren eginkariak, khutsatzeak, likhiske-
riak, ahalkegabekeriak, lizunkeriak,

20. Idola adoratzeak, phozoindatzeak, etsaigoak, makhurrak, bek-
haizgoak, hasarreak, jokak, eskatimak, aldebandak,

21. Lehiakarreak, hiltzeketak, hordikeriak, aseketak, eta bertze horre-
lakoak, zeinetaz baiterratu, lehen ere erran izan darotzuedan bezala,
holako egileek ez dutela Jainkoaren erresuma ardietsiko.

22. Aldiz Izpirituaren eragintzak dire karitatea, bozkarioa, bakea,
jasankortasuna, emetasuna, ontasuna, luzakortasuna,

23. Eztitasuna, zintasuna, herabetasuna, begiratiartasuna, garbitasu-
na. Legea ez doha holako direnen kontra.

24. Bada, Kristorenak direnek, beren haragia gurutzefikatu dute
beren lehia tzar eta zalekeriekin.

25. Baldin izpirituaz bizi bagare, halaber izpirituaz ibil gaitezen.

26. Ez gaitezen egin lelo alfer baten guratsu, elkhar tarritatuz, elkh-
arri bekhaituz.

VI. KAP.

1. Anaiak, norbait oharkabean hoben zerbaitez atzemana balin bada,
zuek, izpiritudun zaretenek, argi zazue eztitasunezko izpiriturekin, zuen
buruen gainean gogoetak egin, beldurrez zuek orobat izan zaitetzen.

2. Eramazkitzue batak bertzearen sorthak, eta hala betheko duzue
Kristoren legea.

3. Ezen norbaitek bere burua zerbaitentzat hartzen badu, deusik ez
den arren, bere burua enganutzen du.

4. Bada, nork bere eginkariak hazta betza, eta hala izanen du bereaz
bakharrik lelo, eta ez bertzeen ariatik.



5. Batbederak ezen eramanen du bere sortha.
6. Nor-ere hitzaz argitzen hari baita, hainak argiak ematen diozkana-ri egin biozo bere ontasun orotarik laguntza.
7. Ez engana zuen buruak; Jainkoaz ez da truffatzerik.
8. Alabainan zer-ere erainen baitu gizonak, hura bera du bilduko. Ezik haragian erainen duenak, bilduko ere du haragitik usteldura; aldiz izpirituan erainen duenak, bilduko ere du izpiritutik bethirainoko bizitzea.
9. Ongiaren egitean ez gaitezen beraz akhi; ezik akhitzen ez bagare, uzta bere mugan altxaturen dugu.
10. Ordu deno beraz orori egin diozoguten ongia; bereziki ordean fedearen baldarnakoei.
11. Ikhusazue zer gutuna iskribatu darotzuetan ene eskuz.
12. Zein-ere baitire haragiari aurkhitu nahi diotenak, ingurephaitera hekiek hertsatzen zaituztete; aria huntaz baxharrik, ez jasan nahiz Kristoren gurutzeari darraizkion jazarketak.
13. Ezik ingurephaiten diren hekiek ez dute berek legea begiratzen; bainan ingurebakarazi nahi zaituztete, zuen haragitik beren buruei lelo emateko.
14. Bainan urrun ene ganik, lelorik nahi baituket, non ez Jesu-Kristo gure Jaunaren gurutzetik, Jesu-Kristo, zeintaz enetzat mundua gurutzefikatua baita, eta ni ere munduarentzat.
15. Alabainan ez da Kristoren baithan deusik baliatzen ingurephaitza edo ingurezephaitza, bainan baxharrik gizon berria.
16. Eta ere horri jarraikiko diren guzien gainera eta Jainkoaren Israelen gainera, bake eta urrikalmendu.
17. Gainerakoan nihork ez biazat atsekaberik eman, zeren ene gorp-hutzean baitakharzkat Jesus Jaunaren hatzak.
18. Anaiak, Jesu-Kristoren grazia zuen izpirituarekin izan bedi. Halabiz.

EPHESOARREI JAUN DONE PAULO APOSTOLUAREN GUTUNA

I. KAP.

1. Paulo, Jainkoaren nahiz Jesu-Kristoren apostolu dena, Epheson dauden saildu guziei, eta Kristo Jesusen baithan fededun direnei.
2. Grazia zuei eta bakea Jainko gure Aitaren ganik eta Jesu-Kristo gure Jaunaren ganik.
3. Benedikatua izan bedi Jainkoa, Jesu-Kristo gure Jaunaren Aita, zeinak benedizioe ispiritual guziez Kristo baithan zerurako benedikatu baikaitu,
4. Berak haren baithan hautetsi gaituen bezala mundua egin izan duen baino lehen, izan gaitezen karitateaz saildu eta nothagabe haren aitzinean.
5. Harek bere seme-orde izateko Jesu-Kristoren bidez aitzinetik berezi gaitu bere nahiko asmuaren arabera,
6. Bere Seme maitearen baithan eman darokun grazia izan dadien ospetsuki laudatua.
7. Jesu-Kristoren baithan dugu berrerospena haren odolaren bidez, eta bekhatuen barkhamendua haren graziako aberastasunen arabera,
8. Grazia, zeina gutan gaindiarazi baitu zuhurtziaren eta gurbiltasunaren nasaiziarekin;
9. Guri ezagutarazteko bere nahiaren misterioa, bere oldearen araber eta bere baithan xedatu zuen bezala,
10. Ordu berezia bethetzearekin, Kristoren baithan berrituko zituela gauza guziak, zerukoak eta lurkekoak.
11. Kristoren baithan halaber primantzara deithuak izan gare, gu, aitzinetik hautetsiak ginenak hainaren xedetik, zeinak egiten baititu gauza guziak bere nahiko asmuen arabera;
12. Haren ospearen laudabide izan gaitzentzat gu, Kristoren baithan lehenbizikoak izan garenak gure pheskizaren ezartzen.
13. Haren baithan zuek ere, entzun ondoan egiazko hitza, salbameduko ebanjelioa, zigilatua izan zarete agindua zen Izpirituz,
14. Zeina baita gure primantzaren bahia, Kristok beretu duen populuaren berrerospenerako, bere ospearen laudagarri.



15. Hargatik, entzunik nik ere nolakoa den Jesu-Kristoren baithan zuen fedea, nolakoa zuen amodioa guzientzat,

16. Ez naiz baratzen zuentzat eskerrak bihurtzetik, zuetaz ene othoiztetan eginez orhoitzapen;

17. Jainkoak, Jesu-Kristo gure Jaunaren ospezko Aitak, eman deza zuen zuhurtziatzko eta argizko izpiritua haren beraren ezagutzeko;

18. Argi detzan zuen bihotzeko begiak, arren-eta jakin dezazuen zer igurikimenera deithu zaituzten, eta nolako primantza aberats eta ospe-tsua dadukan bere sainduentzat,

19. Eta zer handitasun gaitza duen haren indarrak gure gainean, gu, zeinek sinhesten baitugu haren ahal guzizkoaren eragintzaren ariaz,

20. Eragintza, Kristoren gainean erabili duena, hura hiletarik biztuz eta zeruetan bere aldean ezarriz,

21. Gorago printzete guziak baino, bothere, indar, nausi, izen guziak baino, ez ezik mende huntan, bainan ethortzeko mendean izen bat dutenak baino.

22. Eta haren oinen azpiko ezarri ditu gauza guziak, eta hura eman dio gaineko buru eliza guziari,

23. Zeina baita haren beraren gorphutza, eta guziak guzietan bethetzen dituenaren bethetasuna.

II. KAP.

1. Eta zuek, hilak zinetenean zuen hoben eta bekhatuez,

2. Zeinen erdian baitzinabiltzaten lehen mundu hunen izpituaren arabera, aireko bothereen buruzagiaren arabera, fedegabeko umeen izpituaren arabera,

3. Zeinen erdian gu ere noizbait egotu baikare, gure haragiaren lehien arabera biziz, haragiaren nahikari eta gogoak eginez, eta ethorkiz bertzeak bezala arrearen ume baikinen;

4. Urrikalmenduz aberats den Jainkoak ordean, ekharri darokun amodioaren handiz,

5. Eta hilak ginaduzkanean bekhatuak, bizia bihurtu daroku Kristoren baithan (zeinaren graziaz salbatuak baitzarete),

6. Eta Jesu-Kristorekin batean bitzarazi eta zeruetan jarrarazi gaitu;

7. Erakhestekotzat, Jesu-Kristoren baithan guretzat agertu duen ontasunaz, bere graziazen aberastan nasaik.

8. Alabainan fedeari esker grazia salbatu zaituzte; eta hori ez da zuen ganik heldu, ezen Jainkoaren dohain bat da;

9. Ez dathor eginkarietarik, nihork ez dezan bere buruaz espanturik izan.

10. Ezen harek berak eginak gare, Jesu-Kristoren baithan kreatuak Jainkoak aphaindu dituen eginkari onetan, gu hekietan ibil gaitzentzat.

11. Hargatik orhoit zaitezte sortzez pagano zinetela lehen, ingurebakigabeak deitzen direnetarik, ingurebakiak deitzen direnen ariatik, eskuz hekien haragian eginikako ingurephaitzaren gatik;

12. Orhoit zaitezte, orduan Kristo gabe zinetela, Israelgo baldarnatik atze, agintzako patuetarik arrotz, igurikimenerik eta Jainkorik gabe mundu huntan.

13. Orai ordean, Jesu-Kristori esker, lehen urrun zinetenak, aldean ezarriak zarete Kristoren odolaz.

14. Ezen hura da gure bakea, bi populuatarik bat egin duena, bere haragian urraturik bien arteko harrasia, erran nahi etsaigoa;

15. Bere erabakiez manamenduetako legea ezetzaturik, bi populuatarik bere baithan gizon berri baten egiteko, hekien artean bakea ezarriz;

16. Eta gorphutz batean bien baketzeko Jainkoarekin gurutzaz, bere baithan ithorik hekien arteko etsaigoak.

17. Eta ethorriarik, ala urrun zinetenei, ala hurbil zirenei, orori erantzun darotzue bakea;

18. Ezen hari esker dugu batzuek eta bertzeek Aitaren ganat helbide Izpiritu beraren eragintzaz.

19. Etzarete beraz gehiago ez arrotz, ez atze; bainan sainduen herri-tarrak zarete, Jainkoaren etxeokak,

20. Apostoluen eta profeten asentuen gainean altxatuak, Kristo Jesus bera delarik izkinako horri handia,

21. Zeinaren gainean jarria den leihorra handitzen hari baita, tenplo saindu Jaunarentzat bilhakatzera;

22. Eta zuek ere tenplo haren zathi egiten hari zarete Jainkoaren egon-lekhutzat Izpituaren eragintzaz.

III. KAP.

1. Aria hortarako, ni Paulo, Jesu-Kristoren gatik preso naizena, zuentzat berezia izan naiz, paganoak;

2. Ezik aditu duzue, zuen gainera Jainkoaren graziazen hedatzeko kargua emana izan zaitala,

3. Agerpen batean izatu baitut misterio horren ezagutza, gorago hitz laburrez iskribatu darotzuedan bezala;



4. Eta irakurtuz ezagut dezakezue nola izan naizen argitua Kristoren misterioaz,
5. Zeina ez baita bertze gizaldietan gizasemei agertua izan, hala-nola Izpirituaz orai haren apostolu eta profetei;
6. Erran nahi, jendaiak ondorekide, gorphuzkide eta Jainkoaren agintzan phartedun direla Jesu-Kristoren baithan ebanjelioaz,
7. Zeinaren ministro egina bainaiz, Jainkoaren graziaren dohain niri emana izan zaitanaz, haren ahalak egin bezala.
8. Niri, saindu guzietatik ttipienari emana izan zait beraz Kristoren ezin-ikhartuzko aberastasunak jendaiei erantzuteko grazia,
9. Eta gizon guzien argitzekoa, hean zer den, mendeen hastetik Jainko gauza guzien kreatzailearen baithan gordea dagoen misterio horren emaitza;
10. Printzete eta bothereek zeruetan Elizaren bidez ezagut dezaten-tzat Jainkoaren asko moldetako zuhurtzia,
11. Egundainotik zuen eta orai bethe duen xedearen arabera Jesu-Kristo gure Jaunaren bidez,
12. Zeinaren baithako fedez baitugu Jainkoaren ganako fidantzia eta helbide fidantziakoa.
13. Hargatik othoi, ez gogoa gal, zuengatik ditudan atsekabeen ariaz, hekietan baita zuen ospea.
14. Gauza horri esker, belhaunez jotzen dut lurra Jesu-Kristo gure Jaunaren Aitaren aitzinean,
15. Zeinaren ganik deitzen baitire zeru-lurretan aita izena ekhartzen duten guziak;
16. Bere ospeko aberastasunen arabera eman dezazuen, bere Izpirituaren eragintzaz gizon barrentian gogortzeko indarra;
17. Eman dezazuen, Kristok fedearen ariaz zuen bihotzetan egitea bere egoitza; arren-eta karitatean zuen erroak eginik eta asentuak jarririk,
18. Saindu guziekin adi ahal dezazuekeen zer diren zabaltasuna, luzetasuna, goratasuna eta barrentasuna,
19. Eta ezagut Kristoren karitatea, jakitate guzietatik goragokoa, Jainkoaren bethetasuneko dohainez bethe zaitezten-tzat.
20. Galdatzen duguna, edo gure baithan eragiten duen indarrari esker aditzen duguna baino nasaikiago egiteko ahalduen denari
21. Ospe bihur bekio Elizaz eta Jesu-Kristoz, menderen mendetako gizaldi guzietan. Halabiz.

IV. KAP.

1. Hargatik othoizten zaituztet nik, Jaunaren gatik burdinetan naizenak, behar den bezala ibil zaitezten deithuak zareten bidean;
2. Aphal guratasun osorekin, eztitasunekin, jasankortasunekin, batak bertzea karitatearekin egarriz,
3. Ardura izanez bakearen lokharrian begiratzeko izpiritu beraren batasuna.
4. Izan zaitezte gorphutz bat eta izpiritu bat, igurikimen ber batera deithuak izan zaretan bezala.
5. Jaun bat da, fede bat, bathaio bat.
6. Jainko bat da eta guzien Aita, guzien gaineko dena, gauza orotara hedatzen dena, eta gure guzien baithan dagona.
7. Bada, gutarik bakhotxari grazia emana izan zaiku, Kristok eman neurriaren arabera.
8. Hargatik errana da: Goiti igaitean eraman ditu gathibu elemeniak; gizonen gainera ixuri ditu bere emaitzak.
9. Eta igan dela, zer erran nahi da, non ez lehenik jautsi dela lurreko aurkhintza beherenetara?
10. Jautsi dena, hura bera da zeina zeru guzietatik goiti igan ere baita, gauza guzien bethetzeko.
11. Harek berak eman ditu batzu apostolutzat, batzu berriz profetatzat, bertze batzu berriz ebanjelist-tzat, bertze batzu berriz, artzain eta irakhasletzat;
12. Hari ditezen sainduen perfet egiten, beren eginbideen bethetzen, Kristoren gorphutzaren egiten;
13. Guziak hel gaitezen arteo fedeko eta Jainko Semearen ezagutzako batasunera, gizon perfet izatera, Kristoren adineko bethetasunaren neurrira;
14. Arren-eta gehiago izan ez gaitezen haur aldakor batzuen iduriko, eta itzulika ez gaitezen irakhasmenetako haize orotara gizonen gaixtake-riaren bidez, eta enganatzeko duten xothiltasunaz.
15. Bainan karitateaz egiari bere bidea emanaz, Jesu-Kristo gure buruzagiaren baithan berha gaitezen;
16. Haren ganik, gorphutza oro batean iratxikia eta bildua giltzadura guziaren bidez, alderdi bakhotxak egiteko duen lanaren arabera, hari da berhatzen, karitateaz oso egin dadien arteo.
17. Hau erraten darotzuet beraz, eta Jaunaz errekeitzen zaituztet, gaurgero etzaitezten ibil, beren gogoko hutsalakerian dabiltzan bezala jendaiak,



18. Zeinek adimendua ilhunbez itsutua baitute; zeinak, beren bihotz zeko itsutasunaren gatik duten jakitate eskasaz Jainkoaren bizian atzetuak baitire;

19. Zeinek etsian beren buruak eman baitituzte lizunkeriari, zer-nahi lohikeriaren egiteari eta jaramankeriari.

20. Zuek ordean Kristoren ganik ez duzue horrelakorik ikhasi;

21. Baldin bizkitartean hura entzun baduzue; eta Jesusen baithako egiaren arabera, ikhasiak bazarete

22. Erauzten gizon zaharra, zeinaren arabera baitzineten beihala bizi, eta zeina andeatzen baita zalekerien zoramenduari jarraikiz.

23. Berri zaitezte bada izpirituz eta gogoz,

24. Eta jauntzazue gizon berria, zeina Jainkoaren arabera zuzentasunean eta egiazko saindutasunean kreatua baita.

25. Aria hortaz, utzirik gezurra, egiaz mintza zaitezte zein zuen lagunari, zeren batzu bertzeen zathi baitzarete.

26. Samurtzen bazarete, berautzue bekhaturat eror; zuen hasarrearen gainera ez bedi etzan iguzkia.

27. Debruari lophiderik ez utz;

28. Ohointzan zabilanak ez beza gaugereroz ebats; bainan hobeki, lanean hari bedi, bere eskuz on den zerbait eginez, izan dezan nondik eman behararen azpian denari.

29. Niholazko elhe gaixtorik zuen ahotik ez bedi athera; bainan fedearen goragarri izan bedi zuen solas bakhotxa, aditzen dutenei grazia-aren emateko.

30. Eta atsekaberik ez eman Jainkoaren Izpiritu sainduari, zeintaz zigilatuak baitzarete berrerospeneke egunerakotzat.

31. Uherdura, hasarre, sumindura, oihu, ahapaldiak, zuetarik irazit beitez maltzurkeria guziekin.

32. Elkharrentzat izan zaitezte on, urrikalmendutsu; barkha elkharri, Jainkoak ere zuei Kristoren baithan barkhatu darotzueten bezala.

V. KAP.

1. Ume maite batzu bezala, izan zaitezte Jainkoaren imitari;

2. Eta amodioan ibil zaitezte, Kristok ere gu maithatu gaituen bezala, eta bere burua guretzat eman baitu eskaintzetan eta bitimatzat, Jainkoari urrin gozotan.

3. Berriz, haragiko bekhatuaren eta edozein lohikeriaren edo jaramankeriaren izenik ere ez bedi zuen artean aipha, sainduei dagokiote bezala;

4. Ez itsuseria, ez elhe zoro, ez harrokeria eder ez denik ez bedi entzun; bainan hobeki, esker onezko solasak.

5. Jakizue ezen, ez haragikoi, ez lohi, ez jaramanik (halakoek idolak zerbitzaten dituzte) ez dela Kristoren eta Jainkoaren erresuman partedun.

6. Elhe huts batzuek nihork ez bezaitzate zoraraz, ezen holako gauzek jautsarazten dute Jainkoaren hasarrea fedegabeko umeen gainera.

7. Halako gizonekin ez izan beraz baltsarik.

8. Lehen ilhunbe zineten alabainan; orai ordean argi zarete Jaunaren baithan. Argiaren umeak bezala ibil zaitezte;

9. Ezen argiaren eragintza, ontasun, zuzentasun eta egiaren arabera-ko eginkarietan da.

10. Ikhasazue zer daitekeen Jainkoaren gogarako,

11. Eta ez bezaitzate khutsa ilhunbeetako egintza agorretan; aitzitik kondena zatzue.

12. Ezen halako gizonen itzalean egiten dutena, aiphatzeko ere itsusi da.

13. Bada, azurriagarri direnak oro, argiak ezartzen ditu agerian; argia da alabainan gauza guziak agertzen dituena.

14. Aria hortaz erraten da: Jaiki, lotan hagoena, jaiki hilen artetik, eta argituren hau Kristok.

15. Hargatik, anaiak, ikhasazue nola ibiliko zareten ernerik; ez zoroak iduri,

16. Bainan zuhurrak bezala, denborari atzemanez, gaitzak direlako oraiko egunak.

17. Ez beraz ergel izan, bainan ezagutazue zer den Jainkoaren nahia.

18. Eta arnoan ez sar, hartan baitago linburkeria; bainan Izpiritu sainduaz bethe zaitezte,

19. Zuen artean psalmoz, eta himnoz, eta kantika ispiritualen solas duzelarik, Jaunari zuen bihotzen erditik kantikak eta psalmoak kantatuz;

20. Orotaz bethi, Jesu-Kristo gure Jaunaren izenean, Jainko Aitari eskerrak bihurtuz.

21. Kristoren beldurrean elkharri amor ekharrazue.

22. Emazteak beren senharrei Jaunari bezala izan beitez ethordun;

23. Zeren senharra baita emaztearen burua, hala-nola Kristo Elizaren burua baita, haren gorphutzaren salbatzailea.

24. Eta nola Kristori ethordun baitzaio Eliza, emazteek ere beren senharrei orotan hala izan behar dute.



25. Gizonak, maitha zatzue zuen emazteak, Kristok ere Eliza maitatu eta bere burua harentzat eman duen bezala,
26. Haren saildutea gatik, urreko bathaioan biziko hitzaz garbiturik,
27. Bere aitzinera ospetsu agerraraz dezan, notharik, zimurrik, edo bertze holakorik gabe, bainan saildu eta notharik gabe.
28. Orobat senharrek ere beren emazteak maitatu behar dituzte beren gorputzak bezala. Bere emaztea maite duenak, bere burua maite du.
29. Alabainan egundaino nihork ez du bere haragia gaitzetsi; bainan hazten du, eta ahalik hobekiena egiten dio, Kristok ere Elizari bezala;
30. Haren gorputzeko alderdiak garelakoz, haren haragi eta hezurretarikakoak.
31. Hargatik gizonak utziko ditu bere ait-amak, eta iratxikiko da bere emazteari, eta haragi batean bia izanen dire.
32. Handia da sakramendu hori, diot bada, Kristoren baithan eta Elizan.
33. Zuek ere beraz maitha zatzue batbederak zuen emaztea zuen burua bezala; emaztea berriz, senharraren larderia bizi bedi.

VI. KAP.

1. Haurrak, Jaunaren ariaz zuen burhasoen alderat ethorkor izan zaitezte; ezik zuzen da hori.
2. Ohora ait-amak (manamendu hori da, sari agintza duen lehenbizikoa),
3. Lurraren gainean izan dezazun zorion eta bizitze luzea.
4. Eta zuek, aitak, sumintzera ez ekhar zuen haurrak; bainan altxa zatzue Jaunaren arabera irakhaspen eta kridantzatan.
5. Sehiak, haragiaren arabera zuen nausiei, Kristori bezala jauts zakizkiote, beldurrean eta agur ekharriz bihotzeko lainotasunean;
6. Ez baxharrik begiko zerbitzatuz, gizonei aurkhitzea gatik bezala; bainan hala-nola Kristoren zerbitzariak, Jainkoaren nahia bihotzetik eginez,
7. Gogotik zerbitzatuz, Jauna zerbitzatzan bazindute bezala eta ez gizon batzu,
8. Jakinez, zer ongi egin baitukezue baxhotzak, eta haren saria Jaunaren ganik izanen duzuela, ala gathibuak, ala pelutak.

9. Eta zuek, nausiak, halaber egiozute, larderia utziz, jakinez eta hekien eta zuen Jauna zeruetan dela, eta nor-nor-den hura ez dela begiratzan.
10. Gainerakoan, anaiak, Jaunaren baithan eta haren ahal handitako indarrean gohor zaitezte.
11. Jainkoaren harma guziak soinera har zatzue, ihardets ahal dezazuen debruaren maltzurkeriei.
12. Ez dugu ezen gudukatzeko haragiaren eta odolaren kontra, bainan-bai printzete eta bothereen kontra, mundu ilhun huntako buruzagien kontra, aireko izpiritu gaizkinen kontra.
13. Hargatik har zatzue Jainkoaren harmak, egun gaitzean ihardets ahal dezazuentzat eta sendorik egon gauza guzietan.
14. Zauzete beraz gogor, egiaz gerria tinkaturik, eta zuzentasuneko gerruntzea soinean,
15. Eta oinetakoak jauntzirik, bakezko Ebanjelioaren bidean aitzinatzeko;
16. Ordu oroz fedearen erredola eskuan, hartaz iraungi ahal detzazuen etsai gaixtoaren suzko geziak;
17. Eta har zatzue salbamenduko kaska, eta ezpata ispirituala (hura baita Jainkoaren hitza),
18. Noiz-nahi gogoz othoitz eta errekeika hariz, ardura handirekin atzarriak egonez othoitz egitera saildu guzientzat
19. Eta enetzat; arren-eta, ahoa idekitzen dudanean, Jainkoak hitza eman dezadan, heraberik gabe erantzuteko Ebanjelioaren misterioa,
20. Zeintako izan kargua, burdinetan. bethetzen baitut orai; haletan non mintzo bainaiz behar den khabu guziarekin.
21. Berriz, zuek ere jakin detzazuen ene inguruko egitekoak eta zer hari naizen, horietaz orotaz argituko zaituzte Tikikok, anaia guziz maite eta Jaunaren zerbitzari zinak;
22. Zeina hortako bereko igorri baitarotzuet, jakintsun izan zaitezten gure inguruko gauzez, eta gozakari eman diozoten zuen bihotzei.
23. Bakea anaiei, eta fedearekin karitatea Jainko Aitaren eta Jesu-Kristo gure Jaunaren ganik.
24. Amodio garbiz Jesu-Kristo gure Jauna maite duten guziekin izan bedi grazia. Halabiz.



FILIPESTARREI JAUN DONE PAULO APOSTOLUAREN GUTUNA

I. KAP.

1. Paulo eta Timotheo, Jesu-Kristoren zerbitzariak, Jesu-Kristoren baithako saindu Filipesen diren guziei, aphezpiku eta diakreekin.
2. Grazia zuei eta bakea, Jainko gure Aitaren ganik, eta Jesu-Kristo gure Jaunaren ganik.
3. Zuetaz orhoitzen naizen aldi oroz, ene Jainkoari bihurtzen diozkat eskerrak,
4. Bethi ene othoitz guzietan zuentzat ororentzat bozkariorekin othoitz eginez,
5. Kristoren Ebanjeliokotzat lehenbiziko egunetik orai arteo egiten dituzuen laguntzen ariaz;
6. Sinhestea dudalarik ezen, zuen baithan lan ona hasi duenak osatueren duela Kristo Jesusen eguneraino,
7. Zuzen den bezala zuetaz orotaz sinheste hori izan dezadan, bihoztean zaituztedalakoz, zeren Ebanjelioaren geritzatzeko eta gogortzeko ariaz burdinetan izateaz dudan bozkarioan sarthu baitzarete guziak.
8. Alabainan lekhuko dut Jainkoa, zuek oro Jesu-Kristoren galtzarran zenbat zaituztedan maite.
9. Eta huntaz othoizten dut, argiz eta adimendu osoz geroago eta gehiago aberastuz dihoala zuen karitatea;
10. Ezagut dezazuen zer den hoberenik, egon zaitezten zin eta hobetik gabe Kristoren eguneraino,
11. Eta zuzentasuneko fruituez betheak Jesu-Kristoren eragintzaz, Jainkoaren ospe eta laudoriotarako.
12. Nahi dut bada jakin dezazuen, anaiak, niri gerthatu zarozkidanak, Ebanjelioaren gehiago hedarazteko ethorri direla;
13. Haletan non ene burdinak pretorio guzian eta bertze lekhu orotan Kristoren ospagarri baitire aiphutan;
14. Eta Jaunaren baithako anaietarik askok, ene burdinen ariaz bihotz harturik, khabu gehiago baitute beldurrik gabe Jainkoaren hitzaren erantzuteko.

15. Batzu, hala da, bekhaizgoz eta eskatimako izpirituz mintzo dire; bertzeek ordean gogo zabalez erantzuten dute Kristo;

16. Eta badire karitateak derabilzkanak, dakitelakoz Ebanjelioari geriza egiteko naizela ezarria;

17. Badire berriz, liphixtaz, zintasanik gabe Kristo erantzuten dutenak, niri ene burdinetan atsekabe eman ustez.

18. Bainan zer axola da? nahiz gerthakariz, nahiz kharraren zintasanek, Kristo nolazbait erantzuten den ber, hortaz bozten eta bozturen ere naiz oraino.

19. Badakit alabainan hori ene salbamendurako baliaturen dela, zuen othoitzei esker eta Jesu-Kristoren Izpituaren eragintzaz;

20. Igurikitzen eta uste dudan bezala, ez naizela deusetan ahalketara eroriko; bainan sinheste osoa baitut, bethi bezala orai ere ene gorphutzean, edo ene bizitzeaz, edo heriotzeaz goretsiren dela Kristo.

21. Ezik enetzat Kristo bizitzea da, eta hiltzea probetxu.

22. Gorphutz huntan bizitzeaz ene lanak zerbait onik eman behar badarot, ez dakit orduan zer hauta.

23. Horreletan bi aldeetarik hestura dut; ezen hiltzeko eta Kristorekin izateko lehietan naiz, hori bailliteke hoberenik;

24. Bizirik egon nadien, hori berriz zuentzat premienik.

25. Eta uste horrekin, buruan dut egonen naizela eta iraunen dudala zuen guzien onarentzat eta fededunen bozkarioarentzat;

26. Arren-eta, ni berriz zuetara ethorriko naizenean, ene ariaz Jesu-Kristori nasai bihur diozotzuen eskerrak.

27. Bakharrik, Kristoren Ebanjelioari dagokion bezala bizi zaitezte; edo ethorrikerik ikhus, edo urrundik zuetaz adi dezadan, guziak izpiritu batean gogor zaudeztela, guziak Ebanjelioko fedearentzat bermatuz;

28. Eta etsaiek etzaituztela batere lotsatzen, hori baita hekien galpeneko aria, zuentzat aldiz salbamendukoa, eta hori Jainkoaren ganik;

29. Zeren Kristori esker emana izan baitzaitzue, ez ezik haren baithan sinhestea, bainan jasaitea ere haren gatik;

30. Duzuenaz geroz ene baithan ikhusi eta nitaz aditu duzuen gudu bera.

II. KAP.

1. Balin bada beraz gozorik Kristoren baithan, on zerbait karitatean; balin bada izpirituzko batasunik, bihotzeko urrikalmendurik,

2. Oso egizue ene bozkarioa, gauza berei gozo hartuz, karitate bera izanez, gogo berean eta olde beretan egonez,



3. Hisiaka eta espantuka deusere ez eginez; bainan aphaltasuneko izpirituz bertzeak bera baino handiagotzat idukiz;
4. Ez bakhotxa bereari, bainan bertzeenari begiratzu.
5. Zuen baithan olde berak izan zatzue nola Jesu-Kristok,
6. Zeinak, Jainkoaren iduriko zelakoz, baitzakien zuzenbidez Jainkoaren bardin zela,
7. Eta halere bere burua ezdeustu baitu, sehi baten itxura hartuz, gizona bezalakatuz, eta ageri zenetik gizontzat iraganez.
8. Aphaldu du bere burua, ethordun eginez heriotzeraino; bada, gurutzeko heriotzeraino.
9. Hargatik-ere altxatu du Jainkoak, eta eman dio izen bat izen guziez goragokoa;
10. Jesusen izenera, beheiti ditezen belhaun guziak zeru-lur-ifernuetan;
11. Eta aho guziek aitor dezaten Jainko Aitaren ospean dela Jesu-Kristo Jauna.
12. Hargatik, ene guziz maiteak (bethi ethordun izan zareten bezala), hari zaitzete, ez ezik ene aitzinean, bainan hobeki oraino zuekin ez naize-nean, beldur eta ikharekin zuen salbamenduaren egiten.
13. Alabainan Jainkoa da, bere olde onaren arabera, zuen baithan sorrarazten dituen nahi izatea eta egitea.
14. Gauza guziak egizkitzue bada arrangurarik eta duda-mudarik gabe;
15. Estakurugabeak izan zaitzeten eta Jainkoaren ume lainoak, errateko gabeak jendaki tzar eta gaixtagin baten erdian, zeinaren artean distiratzten baituzue, hala-nola argizagi batzuek munduan,
16. Zuen baithan baitekharrazue bizitzeko hitza, ene ospetarako Jaunaren egunean, ez naizelakoz alferretan ibili ez-eta alferretan lanean haritu.
17. Bainan imolatu ere behar banaiz zuen sakrifizioaren eta eskaintzaren gainera, bozten naiz eta zuekin ororekin atsegin hartzen dut.
18. Aldiz, zuek ere boz zaitzete eta enekin atsegin har zazue.
19. Bada, uste dut, Jesus Jaunak nahi duelarik, laster bidaliko darotzedala Timotheo; arren-eta nik ere, zuen berriak jakinez izan dezadan bihotza onik.
20. Ez dut ezen bertze bat, enekin hain gogo batekorik, zuetaz amodio zinez arduratsu denik.
21. Alabainan guziak beren onaren ondoan dabilta, ez Jesu-Kristoren ondoan.

22. Iklusazue, berriz, nola frogatua izan den, ezik Ebanjelioaren hedatzean, zerbitzatu nau seme batek bere aita bezala.
23. Uste dut bada, hau zuei igor, ene inguruko egitekoak ikhusi ditukedan bezain sarri.
24. Berriz, Jainkoaren ganik ene buruari agintzen diot, neroni ere zuen ganat ethorriko naizela laster.
25. Berriz, Epaphrodito anaia, lan eta udutan ene laguna, aldiz zuen apostolua eta ene behar-orduetan zerbitzatu nauena, uste izan dut premia zela zuetara bidal nezan,
26. Zeren zuen guzien ikhusteko lehan baitzen, eta khexuz baitzagon, eritu zela aditu zindutelakoz.
27. Izatez-ere, hiltzeko heineraino izatu da eri; bainan hartaz urrikaldu da Jauna; eta ez hartaz bakharrik, bainan nitaz ere, izan ez nezan atsekabea atsekabearen gainera.
28. Hargatik beraz igorri darotzuet lehen-bai-lehen, hura ikhusiz bozkario har zinezaten berriz, eta ni ere atsekaberik gabe izan nindadien.
29. Har zazue beraz Jaunaren araberako bozkario guzietan, eta ohore emozuete horrelako gizonei.
30. Ezen Kristorentzateko lanaren ariaz hiltzeko heinean izan da, bethetzea gatik zerorrek niri ezin bihur zinetzazketen zerbitzuak.

III. KAP.

1. Gainerakoan, anaiak, boz zaitzete Jaunaren baithan. Gauza beren iskribatzea, niri etzait damu; bainan axola da zuentzat.
2. Berautzue zakhurrei, berautzue langile tzarrei, berautzue ingurebaki gaixtoei.
3. Ezen ingurebaki onak, gu gare, izpirituz Jainkoa zerbitzaten dugunak, eta Jesu-Kristoren baithan espantatzen garenak, eta haragian gure gogoa ontzen ez dugunak,
4. Nahiz haragitik ere athera dezakedan lelo. Norbaitek uste badu haragiaz badukeela sendagaila, nik gehiago,
5. Naizenaz geroz zortzigarren egunean ingurebakia, Israelen odoletik, Benjaminen aldakatik, Hebrearra Hebrear aitetarik, lege arara Farisaua;
6. Khar arara, Jainkoaren Elizari jazarlea; legetikako zuzen arara, notharik gabe bizi izan naizena.
7. Bainan orduko onak, gaiztat daduzkat orai Jesu-Kristoren ariaz.



8. Eta gehiago dena, gaiztatzat daduzkak guziak Jesu-Kristo ene Jaunaren ezagutza oroz gaineko hunen aldean; haren gatik ezen utzi ditut oro, eta gorotzaren bardin daduzkat, irabaztea gatik Kristo,

9. Eta haren baithan aurkhitua izatea gatik, ez legetikako ene zuzentasunaren gabe, baina Jesu-Kristoren baithako fedetik heldu denarekin, zeina fedearen bidez Jainkoak ematen duen zuzentasuna baita,

10. Ezagutzeko Jesu-Kristo eta haren heriotzearen indarra, eta haren oinhazeen phartzunergoa, haren heriotzearen ereduko bilhakaturik,

11. Nolazbait hiletarikako arrebiztera heltzen ahal banaiz.

12. Ez bada ardietsi dudala oraino, edo oraikoz perfet naizela; banarraikio ordean, hean nondik helduko naizen buru hartara, zeintarako hartu bainau Jesu-Kristok.

13. Ez, anaiak, ez dut uste heldua naizela oraino. Baina bati narraio; ene gibelean direnak ahantziz, eta aitzinean ditudanetara eginez,

14. Xede burura laster egiten dut, Jainkoak Jesu-Kristoz zeruetan erakhutsi saria atzeman beharrez.

15. Bizkitartean, ardietsi ditugunez bezenbatean, gauden gure huntan, eta iduk diozogun gure erregelari.

16. Perfet garenek beraz hori haute-eman dezagun, eta bertzelako asmutan bazarete, haren gainean ere argituko zaituzte Jainkoak.

17. Anaiak, izan zaitezte ene imitari, eta hainei begira zaitezte, zeinak baitabiltza gure baithan ikhusten duzuen moldearen arabera.

18. Alabainan badire, maiz aiphatzen narozkitzuen asko (eta orai ere nigarrekin erraten dut), Kristoren gurutzearen etsai dabiltzanak,

19. Zeinen azken burua heriotzea baita, zeinen Jainkoa beren sabela, zeinek beren leloa beren ahalkean baitadukate, zeinek lurreko gauzei baidzik ez baitiote gozorik hartzen.

20. Gure bizia ordean zeruetan da; handik ere igurikitzen dugu Salbatzailea, Jesu-Kristo gure Jauna,

21. Zeinak aldaturen baitu gure lurrezko gorputza bere gorputz ospezkoaren moldera, ahal haren eragintzaz, zeinaren bidez gauza guziak bere azpiko ezar baitetzazke.

IV. KAP.

1. Hargatik, anaia guziz maite, guziz onhetsiak, ene bozkario, ene khoroak, horrela gogor zaudezte, maiteak, Jaunaren baithan.

2. Othoizten dut Ebodia eta errekeitzen Sintika, gogo ber batean egon ditezen Jaunaren baithan.

3. Othoizten zaitut zu ere, ene lagunkhide zina, lagunt detzatzun, enekin Ebanjelioarentzat lanean haritu diren emaztekiak, enekin, Klementekin eta bertze ene laguntzaileekin, zeinen izenak bizitzeko liburuan iskribatuak baitire.

4. Bozkaria zaitezte Jaunaren baithan; berriz ere diot, bozkaria zaitezte.

5. Zuen modestia gizon guziez ezagutua izan bedi. Hurbil da Jauna.

6. Ez izan deusetaz khexu; baina gauza orotan zuen galdeak Jainkoaren aitzinera hel zatzue zuen othoitz eta errekeiez, zuen esker onekin.

7. Eta Jainkoaren bake, iduripen guziak gaintitzen dituenak zaint betza zuen bihotz eta izpirituak Kristo Jesusen baithan.

8. Gainerakoan, anaiak, zer-ere baita egiarik, zer-ere onhestik, zer-ere zuzenik, zer-ere saindurik, zer-ere maithagarririk, zer-ere omen onekorik, zer-ere berthutezkorik, zer-ere laudagarririk, hekiez alha zatzue zuen gogoak.

9. Zer-ere ene gatik baituzue ikhasi, hartu, entzun, ikhusi, hura egizue, eta zuekin izanen da bakezko Jainkoa.

10. Bada, bozkario handia izatu dut Jaunaren baithan, zeren noizbait bederen zuen baithan atzari den berriz ene alderako gogoa, lehenago zinduten bezala; baina poxelatuak zineten.

11. Ez dut erraten hori zerbaitez eskas banintz bezala; ikhasi dut ezen dudana doi egiten.

12. Badakit aphurki bizitzen; badakit nasaiean nasaieko arara egiten; non-nahi eta gauza orotara jarria naiz, aseari eta goseari, nasaiziaren eta eskasaren egartzeari.

13. Orotako gai naiz indar ematen darotadanaren baithan.

14. Guzia gatik ongi egin duzue ene hesturari laguntza ekhartzea.

15. Etzarete berriz, Filipestarrak, zuek ere jakin gabe, Ebanjelioaren hastapenean, Mazedoniatik goan naizenean, nihongo Elizak, eman eta hartuaren ariaz, ez darotadala bere onetarik eman, zuek berek baizik;

16. Ezen behin eta bietan ere Thesalonikara igorri darotadazue behar nuena.

17. Ez nabila bada emaitzen ondoan; baina zuentzat sari on baten lehia dut.

18. Bada, orai hemen ditut oro, eta nasaitasunean naiz. Gainti naiz, Epaphroditoren eskutik izanik zuek igorri ditutzuenak, usain oneko eskaintza bat bezala, Jainkoak onhesten duen eta haren gogorako den bitima bat bezala.



19. Aldiz, ene Jainkoak, bere aberastasunen arabera, zuen nahikari guziak bethe betza bere ospean Jesu-Kristoz.
20. Berriz, ospe Jainkoari, gure Aitari, menderen mendetan. Halabiz.
21. Saindu guziei ene izenean agur egiozue te Jesu-Kristoz.
22. Enekin diren anaiek agur egiten darotzue te. Agur egiten darotzue te saindu guziek, bereziki Zesarren etxekoek.
23. Jesu-Kristo gure Jaunaren grazia zuekin izan bedi. Halabiz.

KOLOSTARREI JAUN DONE PAULO APOSTOLUAREN GUTUNA

I. KAP.

1. Paulo, Jainkoaren nahitik Jesu-Kristoren apostolua, eta Timotheo anaia,
2. Kolosen diren saindu eta anaia zinei Kristo Jesusen baithan.
3. Grazia zuei eta bake Jainko gure Aitaren ganik eta Jesu-Kristo Jaunaren ganik. Eskerrak bihurtzen diozkagu Jainkoari, Jesu Kristo gure Jaunaren Aitari, zuentzat bethi othoitz egiten dugularik,
4. Jakin dugunaz geroztik zuen fedea Kristo-Jesusen baithan, eta saindu guzien alderat duzuen karitatea,
5. Zeruetan zuentzat dauden ontasunen igurikimenaren ariaz, zeinen gainean argitu baitzaituzte Ebanjelioko egiaren hitzak;
6. Ebanjelioa zuetara heldu izan baita, hala-nola mundu guzirat ere, eta orotan fruitu ematen baitu, eta berhatzen baita, zuen artean bezala, Jainkoaren grazia egiaren arabera entzun eta ezagutu duzuen egunetik,
7. Ikhasi duzuen bezala gure lagun guziz maite Epafrasen ganik, zeina baita zuentzat Jesu-Kristoren ministro zina,
8. Zeinak ezagutarazi ere baitaroku zuen karitate izpirituzkoa.
9. Hargatik gu ere, aditu dugun egunetik ez gure baratzen zuentzat othoitz egitetik eta Jainkoari galdatzetik bere nahiaren eragutzaz bethe zaitzazten zuhurtzia oso eta izpirituko adimenduarekin;
10. Jainkoari dagokion bezala ibil zaitezten, orotan haren gogara eginenez, eginkari on guzietan fruitu ekharriz, Jainkoaren ezagutzan aitzinatuz,
11. Haren ospezko ahalaren eragintzaz hazkarturik indarrean, jasan-kortasun eta ez-titasun iraunkor eta bozkariotsu batean;
12. Eskerrak bihurtuz Jainko Aitari, zeinak bere argiaz egin baikaitu sainduen primantzan pharte hartzeko bethe;
13. Zeinak ilhunbeen nausitasunaren azpitik atheratu eta bere Seme maitearen erresumara iraganarazi baikaitu;
14. Seme, zeinaren odolari esker baititugu gure berrerospena eta bekhatuen barkhamendua;
15. Hura baita ezin-ikhusizko Jainkoaren itxura, kreatura guzietarik lehen-sorthua;



16. Ezen harek eginak dire zeru-lurretan gauza guziak, ikhuskizun direnak eta ez direnak, ala tronu, ala nausite, ala printzete, ala bothere, oro harek eta harentzat eginak dire.

17. Eta bera oro baino lehenagokoa da, eta orok haren bidez diraute.

18. Eta bera da Elizaren gorphutzeko burua, hastapena, hiletarik lehen-sorthua, bera izateko guzien buruzagi.

19. Ezen Aitaren gogarako izatu da haren baithan datzan bethetasun osoa,

20. Eta bere baithan haren bidez gauza guzien baketzea, haren gurutze-ko odolaz baketuz, ala lurrean, ala zeruetan direnak.

21. Eta zuek lehen atzetuak zineten arren, eta izpirituz etsai zuen egintza gaixtoen ariaz,

22. Orai aldiz, bere haragizko gorphutzean heriotzeaz baketu zaituzte, zuek bere aitzinean saildu, garbi eta estakurugabe atheratzea gatik;

23. Baldin bizkitartean fedean asentatuak eta gogor egoten bazarete, eta Ebanjelioko igurikimenetik higitu gabe, zuek entzun eta zeruaren azpian diren kreatura guzietara heldua izan den Ebanjeliotik, zeinaren ministro ezarria bainaiz ni, Paulo,

24. Zuen gatik jasaiten ditudan gaitzez bozten naizena, Kristoren oinhazeek eskas zutena ene gorphutzean bethetzen dudana, haren gorphutza-oren orde, hura baita Eliza,

25. Zeinaren ministro ezarria izan bainaiz, Jainkoak niri zuen gainean eman karguaren arabera, bethe dezadantzat Jainkoaren hitzaren erantzuteko eginbidea,

26. Ezagutaraziz egundainotik eta gizamende guzietan gordea egon den misterioa, eta orai agertua dena haren sailduei,

27. Zeinei Jainkoak ezagutarazi nahi izan baitiozkate jendaletan misterio hartako aberastasun ospezkoak, misterio hura baita Kristo, zuen ospeko phekiza.

28. Guk hura erantzuten dugu, gizon guziak kridantzatzuz, eta gizon guziak zuhurtzia oso batean argituz, Jesu-Kristoren baithan perfet eragiteko gizon guziak.

29. Hargatik-ere lanean hari naiz, gudukatuz haren eragintza-aren arabera, zeinak hazkarki eragiten baitu ene baithan.

II. KAP.

1. Nahi dut alabainan jakin dezazuen nolako ardura dudan zuzentzat, Laodizean direnentzat, eta ene begithartea haragitan ikhusi ez dutenentzat,

2. Gozakari izan dezaten hekien bihotzek, karitateaz argiturik eta adimenduaren bethetasunaz aberasturik, ezagut dezaten ongi Jainko Aitaren misterioa eta Jesu-Kristorena,

3. Zeinaren baithan bilduak baitire zuhurtziaren eta jakintasunaren aberastasun guziak.

4. Bada, hori erraten dut, nihork solasen edertasunaz engana etzetza-

5. Ezen gorphutzez hor ez banaiz ere, gogoz zuekin naiz, bozkario-ekin ikhusten dudalarik zuen arrimu ederra, eta Kristoren baithan duzuen fedearen hazkartasuna.

6. Jesu-Kristo Jauna onhetsi duzuen bezala, ibil zaitetze beraz haren bideetan,

7. Haren gainean zuen erroa eginik, eta zuen asentuak ezarririk, fedean gogorturik, ikhasiak ere zareten bezala, eta zuen esker onen bidez haren baithan aberastuz.

8. Berautzue nihork amaina zetzazten filosofiaz eta itxurapen huts zerbaitez, gizonen arteko errankizunen arabera, munduko sinhesteen arabera, eta ez Kristoren arabera;

9. Ezen jainkotasunaren bethetasun guzia gorphutzez datza haren baithan;

10. Eta haren baithan betheak zarete, hura denaz geroztik printzete eta bothere guzien burua.

11. Haren baithan ere ingurebakiak zarete, ez eskuz eginikako ingurephaitzaz, haragia biluziz eginaz, baina Kristoren ganikako ingurephaitzaz;

12. Harekin ehortziak izanik bathaioaz, zeintan ere berriz biztu baitzarete zuen fedearen bidez Jainkoaren eragintzan, zeinak hiletarik biztu baitu Kristo.

13. Eta zuek bekhatupean eta haragiko ingurephaitzarik gabe hilak zinaudeztenean, Jesu-Kristok berekin bitzarazi zaituzte, bekhatu guziak barkhatzen zarozkitzuetelarik,

14. Urratuz gure kontra zena, gure kontrako erabakiaren ageria, eta gurutzeari itzatzuz khendu du gure erditik;

15. Eta printzete eta bothereei ahal guziak khendurik, munduaren ikhusgarri ezarri ditu, ageriki bere indarrak trionfan eramanez.

16. Nihork ez bezaitzate beraz juia jan-edanen ariaz, edo besta egunen, edo ilhargi berrien, edo larunbaten ariaz,

17. Zeinak ethorkizuneko gauzen itxurapen batzu baitire, Kristo aldiz izantza.



18. Nihork ez bezaitzate engana alegiazko aphalturasun eta ain-geruen alderako erlijione batez, ez dakienaz mintzatuz, bere izpiritu hara-gitarraz hutsalki hantuz,

19. Eta iratxikia ez egonez buruari, zeintarik gorphutz guzia, giltzez eta lotkurez bildua eta zerbitzatua, handitzen baita Jainkoak ematen dioen berhatzapenaz.

20. Baldin beraz munduaren lehenbiziko irakhaskariei hilak bazarete Kristorekin, nolaz oraino, munduaz bizi bazinete bezala erabakitzen duzue,

21. Diozuelarik: Hau ez uki, hori ez dasta, ez khutsa hartan?

22. Horiek oro, erabiliz galtzen diren gauza batzu dire, gizonen erra-netik eta ustekerien arabera debekatuak,

23. Zuhur itxura zerbait halabadore dutenak, sino eta sardunazko aphalturasun batzuen bidez, bainan gorphutza urrikari ez dutenak, eta haragiari hazteko behar duena ematen ez diotenak.

III. KAP.

1. Beraz Kristorekin bizitu balin bazarete, zeruko gauzen ondoan ibil zaitezte, zeruan baita Kristo Jainkoaren aldean jarria;

2. Zeruko gauzei gozo har biozozuete, eta ez lurrekoei.

3. Ezen hilak zarete, eta zuen bizia Kristorekin Jainkoaren baithan gordea dago.

4. Kristo, zuen bizia, agertuko denean, orduan zuek ere harekin ager-tuko zarete osparen erdian.

5. Hilarazkitzue beraz zuen baithan den gizon lurtiarraren alderdiak, lohikeria, likhiskeria, muthilkoikeria, zalekeria tzarrak, eta jaramankeria, zeina idola zerbitzu bat baita.

6. Horiek jautsarazi dute Jainkoaren hasarrea sinhestegabeko umeen gainera;

7. Eta horietan zuek ere ibili zarete beihala, horietan bizi zinetenean.

8. Orai ordean, halaber utzatzue guziak, hasarre, gaitzirizko, mal-tzurkeria, ahapaldi, solas itsusiak zuen ahotik.

9. Elkharri gezurrik ez egin; erauntz gizon zaharra bere eginkariekin,

10. Eta jauntz gizon berria, bere kreatzailearen idurira berritzen dena haren ezagutzan aitzinatuz;

11. Han ez baita, ez pagano, ez Judurik; ez ingurephaitzadun, ez inu-rephaitzagaberik, ez Basatarrik, ez Eskiarrik, ez gathiburik, ez pelutik; bainan oro eta orotan Kristo da.

12. Beraz Jainkoaren hautetsi, saindu eta maiteek bezala, jauntzatzue barneko urrikalkortasuna, aphalturasuna, herabetasuna, jasankortasuna;

13. Elkhar egarriz, batzuek bertzei barkhatuz balin baduzue elkha-rren arteko arranguririk; nola Jaunak ere barkhatu baitarotzue, hala egi-zue zuek ere.

14. Bainan horien ororen gainetik, izan zazue karitatea, zeina baita perfetasunaren lokharria;

15. Eta zuen bihotzetan gaina emozue Kristoren bakeari, zeintara deithuak izan baitzarete, guziek gorphutz bakhar bat baizik ez egiteko; eta izan zaitezte eskerdun.

16. Kristoren hitza zuen aho-mihitan izan bedi usu, zuhurtzia oso batekin, elkhar argitzen eta berotzen duzuelarik psalmo, himno eta kanti-ka ispiritualez, Jainkoari eskerrekin bihotzetik kantatuz.

17. Edozein gauza egin dezazuen edo hitzez, edo egitatez, oro Jesu-Kristo Jaunaren izenean egizkitzue, haren bidez Jainko Aitari eskerrak bihurtuz.

18. Emaztekiak, zuen senharrei jauskor izan zakizkiote, behar ere den bezala Jaunaren arabera.

19. Gizonak, maitha zatzue zuen emazteak, eta ez izan hekien alde-rat uher.

20. Haurrak, zuen burhasoei orotan izan zakizkiote ethorkor; hori da ezen Jaunaren gogarako.

21. Aitak, ez sumintaraz zuen haurrak, ez dakioten hil gogoa.

22. Sehiak, haragiaren arabera zuen nausiek manatua egizue, ez begiko zerbitzatuz, gizoni aurkhitu beharrez bezala; bainan bihotzeko lainotasunean Jainkoaren beldurrarekin.

23. Edozein gauza egin dezazuen, bihotzetik egizue, Jaunarentzat bezala, ez gizonentzat,

24. Baitakizue Jaunaren ganik izanen duzuela primantzako saria. Kristo Jauna zerbitza zazue.

25. Alabainan gaizkia egiten duenak, gaizki saria izanen du; eta nor-nor-den begiratzerik ez da Jainkoaren baithan.

IV. KAP.

1. Nausiak, zuzen eta bidezko dena bihurrozuete sehiei, baitakizue zuek ere Nausi bat baduzuela zeruan.

2. Jarraik othoitziari eta hartara atzarriak egon, eskerrak bihurtuz;



3. Batean guretzat ere othoitz eginez, Jainkoak idek dezagun hitzaren bidea erantzutekotzat Kristoren misterioa (zeinaren gatik ere bainaiz burdinetan),

4. Eta erantzun ahal dezadan, mintzatu behar naizen moldean.

5. Kanpoan direnekin ibil zaitezte zuhurki eta denborari atzemanetz.

6. Zuen solasak izan betza bethi esker ederra eta zuhurtziaren gatza, jakin dezazuen nola baxhotxari behar diozuen ihardetsi.

7. Ene inguruko gauza guziez jakintsun eginen zaituzte Tikiko anaia guziz maiteak, ministro zin eta Jaunaren baithan ene lagunkhide denak.

8. Nola zareten jakitera, eta zuen bihotzei gozakari ematera bidali darotzuet,

9. Onesimo anaia guziz maite eta zinarekin, zeina zuen herritarra baita. Horien ahotik jakinen ditutzue hemengo gora-beherak.

10. Agur egiten darotzue Aristarkok, burdinetako ene lagunak, eta Markok, Barnabasen kusiak, zeinaren gainean zer bait gaztiatu baitarotzuet; zuen ganat heldu bada, egiozue ongi-ethorri.

11. Jesus, Justua deitzen denak ere goraintzi. Ingrebaketarik dire horiek, eta baxharrak Jainkoaren erresumaren aitzinarazten laguntzen nautenetan ene gozagarri izatu direnak.

12. Agur egiten darotzue Epafrasek, zeina zuen herritarra baita, Jesu-Kristoren zerbitzaria, bere othoitzetan bethi zuetaz ardura duena, Jainkoaren nahi guzietan egon zaitezten osoki eta betheki.

13. Ezen lekhukotasun ekhartzen diot nekhe hainitz baderabilala zuen gatik, Laodizear eta Hierapolistarren gatik.

14. Agur egiten darotzue Luk, midiku guziz maiteak, eta Demasek.

15. Agur egiozue Laodizeako anaiei, Ninphasi eta haren etxeko elizari.

16. Eta gutun hau zuen artean irakurtu ondoan, irakurraraz zazue Laodizearren elizan; eta zuek irakurratzue Laodizearrentzatekoa.

17. Eta Arkipori errozute: Jaunak zer kargu eman darotzun ikhasazu, bethi dezazun ongi.

18. Ene agurra, Pauloren eskutikakoa. Orhoit zaitezte ene burdinez. Grazia dela zuekin. Halabiz.

THESALONIKARREI JAUN DONE PAULO APOSTOLUAREN LEHENBIZIKO GUTUNA

I. KAP.

1. Paulo, Silbano eta Timotheo, Thesalonikarren elizari, Jainko Aitaren eta Jesu-Kristo Jaunaren baithan.

2. Grazia eta bakea beitez zuekin. Zuentzat Jainkoari eskerrak bihurtzen diozkagu bethi, hutsik gabe gure othoitzetan zuetaz orhoitzapen eginez,

3. Jainko gure Aitaren aitzinean orhoituz zuen fedearen eginkariez, zuen karitateaz, eta Jesu-Kristo gure Jaunaren baithan duzuen igurikimena sendotasunaz;

4. Zeren baitakigu, anaia Jainkoaz maithatuak, nola hautetsiak izan zareten;

5. Etzaitzue alabainan agertua izan gure Ebanjelioa hitzaz baxharrik, baina mirakuluez ere, Izpiritu sainduaren dohainez eta grazien bethetasun osoaz, dakizuen bezala zuen alderat nolakoak izan garen zuen onetan.

6. Eta zuek egin zarete gure eta Jaunaren imitari, asko atsekabean erdian onhetsiz Jainkoaren hitza Izpiritu sainduaren bozkarioarekin;

7. Haletan non Mazedonian eta Akaian sinhestun guzien ikhuskari egin baitzarete.

8. Ezen ez duzue baxharrik Mazedonian eta Akaian lelotan ezarri Jaunaren hitza, baina oraino Jainkoaren baithan duzuen fedeak toki orotan hanbateko bidea egin du, non zerbaiten erratea ere ez baitzaiku premia.

9. Alabainan orok erraten dute goraki nolako sartzea izan dugun zuen baithan, idoletarik nola itzuli zareten Jainkoaren ganat, Jainko bizi eta egiazkoaren zerbitzatzeko,

10. Eta zerutik igurikitzeke Jesus haren Semea, hiletarik biztu duena, eta ethorkizuneko hasarrearen menetik atheratu gaituena.

II. KAP.

1. Ezik zerorrek badakizue, anaia, zuetara ez garela alferretan sarthu;

2. Baina lehenik Filipesen asko jasanik eta hidoi egarririk, dakizuen bezala, gure Jainkoak lagunduz, uzkuratun gabe, asko borroken erdian erantzun darotzuegu Jainkoaren Ebanjelioa.



3. Ezen gure erantzupena ez da, ez makhurretikakoa, ez lohikeriazkoa, ez zimarkhutsua izatu;
4. Bainan Jainkoak ezagutu gaituen bezala, Ebanjelioaren kargua emateko guri, hala mintzatzen gare, ez gizona aurkhitzeko gogoarekin, bainan Jainkoari, zeinak ikhusten baititu gure bihotzak.
5. Ezen, dakizuen bezala, ez gare egundaino balakuzko solasetan aurkhitu, ez-eta jaramankeriako bidean, Jainkoa lekhuko da,
6. Ez-etare gizonen ganik lelo beharrez, ez zuen, ez bertzeen ganik.
7. Zuen bizkar egoten ahal ginelarik, Kristoren apostolu bezala, xumetto egin gare zuen artean, bere haurrak mainatzen dituen unhide bat iduri:
8. Hain lehiatsuki maite zintuztegun, non-nahi baikindukeen zuei eman, ez ezik Ebanjelioa, bainan gure biziak ere, hanbat baitzineten gure bihotzetan barna sarthuak.
9. Ezen orhoit ahal zarete, anaiak, gure lan eta nekheez, nola zuetarik nihoren behargarri ez izatea gatik, gau eta egun lanean hariz, zuen artean erantzun dugun Jainkoaren Ebanjelioa.
10. Lekhuko zarete, eta Jainkoa ere bai, zein sainduki, zein zuzen eta errateko biderik gabe ibili garen sinheste hartu duzuenekin;
11. Eta badakizue nola (aita batek bere haurra bezala) zuetarik batbedera
12. Othoiztuz eta gozatuz, errekeitu zaituztegun ibil zintezten, bere erresumara eta ospera deithu zaituzten Jainkoari dagokion bezala.
13. Hargatik guk ere Jainkoari baratu gabe diozkagu eskerrak bihurtzen, zeren gure ahotik onhetsi zindutenean Jainkoaren aiphameneko hitza, hartu zinduten hura, ez gizonen solasa bezala, bainan (hala ere baita egiazki) sinhetsi duzuenen baitan eragiten duen Jainkoaren hitza bezala.
14. Alabainan, anaiak, Kristoren baithan sinhetsi duten Judeako Jainkoaren Elizen imitari egin zarete; zuek ere ezen zuen herritarren ganik hala-halako atsekabeak jasan dituzue, nola hekiek Juduen aldetik,
15. Zeinek Jesus Jauna bera eta profetak hil izan baitituzte, eta guri jazarri; zeinak ez baitire Jainkoaren gogoko, eta gizon guziei bidegabe egi-ten baitiote
16. Gu debekatuz jendaiei erantzutetik salbatu behar dituen hitza; hola baratu gabe bethetzen baitute beren bekhatuen neurria; ezen Jainkoaren hasarrea hekien gainera jautsi da azkeneraino.
17. Guk bada, anaiak, zuen ganik aphur batentzat urrunduak izanik begithartez, ez bihotzez, hanbatenez lehia gehiago ginduen zuen ikhusteko.

18. Hargatik nahi izan dugu zuen ganat ethorri; eta nik Paulok gogotan izan dut behin eta bietan ere, bainan satanek poxelu eman daroku.
19. Alabainan zer da gure pheskiza, gure bozkarioa, gure ospeko khoroa? Ez othe zuek Jesu-Kristo gure Jaunaren aitzinean, ethorriko den eguneko?

20. Ezen zuek zarete gure ospe bozkarioak.

III. KAP.

1. Hargatik, gehiago ezin ihardukiz, burutan hartu ginduen Athenesen bakharrik gelditzea;
2. Eta bidali ginarotzuegun Timotheo, gure anaia eta Jesu-Kristoren Ebanjelioko Jainkoaren ministroa, zuen gogortzera eta fedean berotzera;
3. Nihor etzadien hestura haukietan khordoka; zerorrek ezen bada- kizue hortako bereziak gara.
4. Alabainan zuekin ginenean ere, aitzinetik erran ginarotzuegun atsekabeak hertsaturen gintuztela, eta hala gertatu ere da, dakizuen bezala.
5. Hargatik nik ere, gehiago ezin ihardukiz, bidali dut Timotheo zuen fedearn ezagutzera, beldurrez-eta tentatu zintuzketen tentatzaileak, eta hutsal zadien gure lana.
6. Orai ordean, zuetarik gutaratu denean Timotheo, eta jakintsun egin gaituenean zuen fedeaz eta karitateaz, eta gutazko orhoitzapen ona dadukazuela bethi, gure ikhusteko lehietan zaretela, hala-nola gu ere zuen ikhustekoan;
7. Hargatik, anaiak, zuen fedeak gozakari eman daroku gure premia eta atsekabe guzien erdian;
8. Ezen orai bizi gare, Jaunaren baithan gogor zaudeztenaz geroztik.
9. Alabainan nolako eskerrak Jainkoari bihurtzen ahal diozkagu zuen ariaz, gure Jainkoaren aitzinean zuen gatik bozten gaituen bozkarioaren erdian,
10. Gau eta egun othoitz nasaiak egiten ditugularik zuen begithartearn ikhusteko, eta zuen fedeak eskas duenaren bethetzeko?
11. Jainkoak berak, gure Aitak, eta Jesu-Kristo gure Jaunak, aphain biatzategu beraz zuetarako bidea.
12. Berriz, Jaunak berha eta gaindiaraz beza elkharentzat eta guzien- tzat zuen karitatea, hala-nola gurea ere baita zuentzat;
13. Zuen bihotzak hazkar ditezen, saindutasunean itzalik gabe izateko Jainkoaren aitzinean, Jesu-Kristo gure Jauna bere saindu guziekin ethorriko den egunekotzat. Halabiz.



IV. KAP.

1. Gainerakoan, anaiak, Jesus Jaunaz othoizten eta errekeitzen zaituztegu, gure ganik ikhasi duzuen bezala nola behar zareten ibili, hala ere ibil zaitezten, geroago eta gehiago aitzinatzekotzat;

2. Badakizue ezik zer manamendu eman izan darotzuetan Jesus Jaunaren izenean.

3. Hau da ezen Jainkoaren nahia, izan zaitezten saildu, lohikeriatik begira zaitezten,

4. Jakin dezan zuetarik batbederak bere gorphutzaren saildu eta garbi idukitzen,

5. Ez zalhekerien oldarrari jarraikiz, Jainkoa ezagutzen ez duten jendaia bezala;

6. Eta nihor ez dadien bere anaiaren gainetik ibil, eta ez diozon egitekoetan bidegaberik egin; zeren Jaunak horietaz orotaz asperkunde atzeratzen baitu, lehenago erran eta lekhukotasun egin darotzuegun bezala.

7. Alabainan ez gaitu lohitasunera deithu Jainkoak, bainan-bai saildutasunera.

8. Hori arbuiatzen duenak beraz ez du gizon bat arbuiatzen, bainan Jainkoa, Izpiritu saildua ere eman izan darokuna.

9. Anaien arteko amodioaz berriz, iskriba dezazuegun premiarik ez da; ezen Jainkoaren ganik zerorrek ikhasi duzue elkhar maitha dezazuela.

10. Halabudere anaien guzien alderat hori egiten duzue Mazedonia guzian. Othoizten zaituztegu ordean, anaia maiteak, aitzinago goan zaituzten amodio hortan,

11. Eta egin dezazuen bakean bizitzera, zeinek zuen egitekoei hotsematera, eta manatu darotzuegun bezala, zuen eskuez hari zaitezten lanean; eta azkenekoz behar den bezala ibil zaitezten kanpokoekin, eta bertzeren gauzaren lehiarik izan ez dezazuen.

12. Bada, ez dugu nahi, anaiak, heriotzeko loan daudenez deusere jakin gabe izan zaitezten, ez dezazuen ilhundurarik har, igurikimenik ez duten bertzeek bezala.

13. Sinhesten badugu alabainan hil eta bizitu izan dela Jesus, sinhesteko dugu halaber Jesusen baithan lokhartu direnak, harekin erakharriko dituela Jainkoak.

14. Haletan Jaunaren hitzetik derratzuegu, ezen gu bizi garenak, eta Jauna ethortzen deneko azken gelditu gaiztekeenak, lo daudenei ez garela aitzinduko.

15. Ezik arkanjeluaen manura eta oihura eta Jainkoaren turutara, Jauna bera zerutik jautsiko da, eta Kristoren baithan hil direnak lehenbizikorik biztuko dire.

16. Gero gu, bizi eta geldituak gainteeenak, hekiekin batean airetan eramanak izanen gare hedoietan gora Jaunaren bidera, eta haletan bethiraino Jaunarekin izanen gare.

17. Hitz horietaz elkharri emozue beraz gozakari.

V. KAP.

1. Bada, mugez eta orduetz, ez duzue, anaiak, nik iskribatu beharrik.

2. Zerorrek ezen badakizue ongi, nola gabaz ohoina, hala ethorriko dela Jaunaren eguna.

3. Ezik noiz-ere erranen baitute: Bakea, deskantsua, orduan batbateko xahupena gainera ethorriko zaiote, erdiminak izorra denari bezala, eta ez dire itzuriko.

4. Zuek ordean, anaiak, etzarete ilhunbetan, egun harek ohoinak bezala atzemateko;

5. Alabainan argiaren umeak zarete guziak eta egunaren umeak; ez gure ez gauaren ez ilhunbeen umeak.

6. Ez gaitezen beraz bertzeak bezala lo egon; bainan izan gaitezen atzarri eta begiratu.

7. Ezen lo egileek, gabaz egiten dute lo; eta hordiak gabaz mozkortzen dire.

8. Gu ordean, egunaren ume garenak, izan gaitezen begiratu, fedeko eta karitateko gerruntzea soinean, eta salbamenduko pheskiza kaskatzat buruan;

9. Zeren Jainkoak ez baikaitu bere hasarregailu ezarri, bainan-bai salbamenduaren ardietsarazteko Jesu-Kristo gure Jaunaz,

10. Zeina guretzat hil baita, arren-eta, nahiz gaudezen lo, nahiz atzarriak, harekin batean bizi gaitezen.

11. Hargatik bata bertzeari emozue gozakari, eta elkhar onbida zazue, egiten ere duzuen bezala.

12. Berriz, anaiak, othoizten zaituztegu, ikhustate izan dezazuen zuen artean lanean, hotsematen eta atzar ematen hari direnentzat,

13. Eta karitate nasaia goa ekhar diozozueten, beren lanaren ariaz; bakea izan zazue hekiekin.

14. Oraino, anaiak, othoizten zaituztegu, kridantza zatzue khexuak, hazkar khabugabeak, soinka herbalak; guzien alderat izan jasanakor.



15. Begira nihork nihori bihur ez diozon gaizkia gaizkiarentzat; bainan jarraik zaitezte bethi elkharrri eta guziei ongiaren egiteari.

16. Izan zaitezte bethi goihere.

17. Baratu gabe jarraik othoitzari.

18. Gauza guziez eskerrak bihur; ezen hori da Jainkoak zuen ganik Jesu-Kristo gure Jaunaren bidez nahi duena.

19. Ez iraungi izpiritua.

20. Ez arbuia profeziak.

21. Oro hazta, on dena iduk.

22. Bego gaitz itxura duen guzia.

23. Berriz, bakezko Jainkoak orotan sainduets zaitzatela, zuen izpiritu-arima-gorphutzak, garbi eta notharik gabe egon ditezen, Jesu-Kristo gure Jauna ethorriren deneko.

24. Zina da zuek deithu zaituztena; harek ere eginen du hori.

25. Anayak, othoitz egizue guretzat.

26. Musu saindu batez agur egiozue te anaia guziei.

27. Jaunaren izenean othoizten zaituztet, gutun hau anaia guziei irakur dadien.

28. Bedi zuekin Jesu-Kristo gure Jaunaren grazia. Halabiz.

THESALONIKARREI JAUN DONE PAULO APOSTOLUAREN BIGARREN GUTUNA

I. KAP.

1. Paulo, Timotheo eta Silbario, Thesalonikako Elizari Jainko gure Aitaren eta Jesu-Kristo Jaunaren baithan.

2. Grazia zuei eta bake Jainko gure Aitaren eta Jesu-Kristo Jaunaren ganik.

3. Zuen ariaz, anaiak, eskerrak bethi bihurtzeko ditugu, zeren zabalduz dihoan bethi zuen fedea eta handituz batbederak elkharentzat duzuen amodioa;

4. Haletan non geronek ere zuetaz lelo atheratzen baitugu Jainkoaren elizetan, zuen jasankortasunaren eta fedearen ariatik, eta egartzen dituzuen jazarpen guzien eta atsekabeen gatik,

5. Jainkoaren erabaki zuzenaren erakhuskari, merezdun izan zaitetzen Jainkoaren erresumaz, zeinaren gatik ere oinhazetan baitzarete.

6. Halabadere Jainkoaren aitzinean zuzen da atsekabe ematen darozuetenei bihur diozoten atsekabea sari,

7. Eta zuei, atsekabetan zaretenei, phausua gurekin, Jesus Jauna zerutik agertuko denean bere armadako aingeruekin,

8. Su garren erdian asperkunde atheratzera, Jainkoa ezagutu ez dutenen eta Jesu-Kristo gure Jaunaren Ebanjelioari ethordun ez direnen gainean.

9. Jaunaren eta haren armada ospetsuaren aitzinetik goanen dire galpeneko gaztigu bethirainokoetara,

10. Ethorriko denean izatera bere sainduetan ospatua, eta haren baithan sinhetsi dutenetan ederretsia, egun haren gainean egin darotzuegun lekhukotasuna sinhetsi duzuenaz geroztik.

11. Hargatik-ere zuentzat othoitzean gaude bethi, gure Jainkoak bere deithpenaren merezdun egin zetzazten, eta bethe dezan bere nahikunde ona eta bere ahalaz akhaba zuen fedearen lana;

12. Arren-eta zuen baithan distira dadien Jesu-Kristo gure Jaunaren izena, eta zuek haren baithan, gure Jainkoaren eta Jesu-Kristo Jaunaren graziaz.



II. KAP.

1. Bada, othoizten zaituztegu, anaiak, Jesu-Kristo gure Jaunaren ethorpenaz eta harekilako gure batpenaz,
2. Etzaitezten nola-nahi aldara zuen sinhestetik, eta ez profezia, ez solas, ez guk igorri dukegulako gutunez etzaitezten izi, gainera heldu balitz bezala Jaunaren eguna.
3. Berautzue nihork engana niholaz-ere, ezen ez da ethorriko egun hura, non ez den lehenik ethorri arnegamendua eta agertu bekhatuko gizona, galpeneko umea,
4. Zeina etsai atheratuko baita, eta Jainko deitzen edo adorutzen den guziaren kontra alxtatuko; haletan non Jainkoaren tenploan jarriko baita, bere burua Jainko balitz bezala erakhutsiz.
5. Etzarete orhoit, zuekin nintzenean oraino, horiek erraten narozkitzuela?
6. Eta orai badakizue, agertzetik zerk dadukan bere orduraino.
7. Ezen oraidanik xuxentzen hari da tzarkeriazko misterioa; bakharrik orai ihardukitzen duenak, iharduk beza hura xahutu arteo.
8. Eta orduan agertuko da gaixtagin hura, zeina Jesus Jaunak bere ahoko hatsaz, hilen eta bere ethorpeneko argiaz ezeztatuko baitu;
9. Zeina satanen eragintzaz, bothere guzitan, sendagaila eta gezurrezko mirakuluen erdian,
10. Eta tzarkeriaren zoragarrikeria guzietan ethorriko baitzaiote galdu bear direnei, ez dutelakoz salbatzekotzat ardietsi egia amodioa. Hargatik Jainkoak igorriko diote enganiozko eragintza bat, gezurra sinhetsaraziko diotena;
11. Kondenatuak izan ditezen egia sinhetsi ez duten guziak eta gaixakeriari esku eman diotenak.
12. Guk ordean, anaia Jainkoaz maithatuak, Jainkoari zuentzat eskerak behar diozkagu bihurtu bethi, zeren zaituzteten pikain hautatu zuen salbatzeko izpirituko saindupenaz eta egia gainera fedez,
13. Zeintara gure Ebanjelioaz deithu ere baitzaituzte, Jesu-Kristo gure Jaunaren legea irabaz dezazuentzat.
14. Hargatik, anaiak, zaudezte gogor, eta idukatzue hitzez eta gure gutunaz irakhatsi darozkitzuegun gauzen gainera irakhatsienak.
15. Aldiz Jesu-Kristo gure Jaunak, eta Jainko Aitak, zeinak maithatu baikaitu eta bere graziaz eman baitarozkigu bethirainoko gozakaria eta phekiza ona,
16. Suzta betza zuen bihotzak, eta gogor zaitzatela eginkari eta solas on guzietan.

III. KAP.

1. Gainerakoan, anaiak, othoitz egizue guretzat, heda dadien Jainkoaren hitza, eta ospe izan dezan zuen artean bezala;
2. Eta libratuak izan gaitezen gizon makhur eta gaixtoetarik, fedea ezen ez da guziei emana.
3. Zina da ordean Jainkoa; harek gogortuko eta gaitzetik zainduko zaituztete.
4. Bada, zuetaz denaz, uste dugu, Jaunaren graziarekin egiten eta egiten ere dituzuela guk manatu darozkitzuegunak.
5. Jaunak aldiz, Jainkoaren amodioan eta Jesu-Kristoren jasankortasunean bida betza zuen bihotzak.
6. Zuei berriz, anaiak, Jesu-Kristo gure Jaunaren izenean manatzen darotzuegu, barraiatuki eta ez gure ganik izan duten irakhatsienaren araber dabilzan anaia guzietarik gibela zaitezten.
7. Zerorrek badakizue alabainan zer egin behar duzuen gure iduriko izatekotzat; ez dugu ezen nahaskeriarik zuen artean erabili;
8. Nihoren eskutik ez dugu urrurik jan ogia, bainan-bai gau eta egun lan-nekheak erabiliz, zuetarik norbaiten behargarri izan beldurrez.
9. Ez da bada hortako eskurik ez ginduela; bainan gure buruak irakhaskari zuei ematea gatik, gero zuek guk bezala egin dezazuen.
10. Haletan-ere zuekin ginenean erraten ginarotzuegun, lanean hari nahi ez duenak, ez duela ere jan behar.
11. Bada, adituak gare, zuen artean zenbait nahaskerian, deusik hari gabe, non zer ikhus dabiltzala.
12. Halako direnei manatzen diotegu beraz eta othoizten ditugu Jesu-Kristo Jaunaren izenean, ixilik lanean hariz jan dezaten beren ogia.
13. Zuek berriz, anaiak, ongi egiten ez akhi.
14. Baldin norbait, gutun huntako gure hitzetara ethordun ez bada, nabarmen erakhatsazue eta ez iharduk hainarekin, ahalka dadientzat;
15. Guzia gatik ez etsaitzat iduk, bainan anaia bat bezala kridantza zazue.
16. Bada, bakea non-nahi eman biazazue bakezko Jaunak. Zuekin ororekin izan bedi Jauna.
17. Nik Paulok ene eskuz iskribatzen dut agurra; gutun guzietan hori baita ene seinalea. Hola iskribatzen dut.
18. Jesu-Kristo gure Jaunaren grazia zuekin ororekin izan bedi. Halabiz.



TIMOTHEORI JAUN DONE PAULO APOSTOLUAREN LEHENBIZIKO GUTUNA

I. KAP.

1. Paulo, Jesu-Kristoren apostolua, Jainko Salbatzailearen, eta Jesu-Kristo gure igurikimenaren manuz;
2. Timotheori, fedetikako seme maiteari. Grazia, urrikalmendu eta bake zuri Jainko Aitaren eta Jesu-Kristo gure Jaunaren ganik.
3. Othoizten zaitut, lehen ere Mazedoniarakoan egin zaitudan bezala, Epheson egon zaitezten, eta mezu detzatzun zenbait gizon ez ditezen hari gutaz bertzela irakhasten,
4. Eta beren ardura ez dezaten ezar elhe xahar eta burugabeko iraulgi bilhaketat, zeinak hobeak baitire eztabada bizteko, ezen-ez Jainkoaren lanaren aitzinarazteko, hori fedez egiten baita.
5. Bada, manamenduen azken burua karitatea da, bihotz garbi bate-tik, kontzientzia on eta fede itxurazkoa ez denetik heldu dena.
6. Batzu, hekietarik makhurtuz, elhe alferretara itzuli dire,
7. Legearen irakhasle izan nahiz, berek ez dakitelarik ez zer derasaten, ez zer segurutzen duten.
8. Bada, legea ona dela badakigu, zuzen den bezala erabiltzen badu norbaitek,
9. Ezagutuz legea ez dela prestuarentzat ezarria, baina-bai gaizkian eta bihurrierian dabilzanentzat, inpio eta bekhato-reentzat, gaixtagin eta khutsatuentzat; aita, ama eta gizon hiltzaileentzat;
10. Emakoi, muthilkoi, gathibuen harrapari, gezurti eta zin haus-teentzat, eta irakhaspen onari hoben egiten diotenentzat;
11. Irakhaspen hau baita Jainko dohatsuaren ospearen araberako Ebanjelioa, eta erantzutera niri emana izan dena.
12. Eskerrak diozkat bihurtzen ni hazkartu nauenari, Jesu-Kristo gure Jaunari, zeren nauen zintzat iduki, kargu huntan ezartzean
13. Ni, aitzinean arnegu, jazarpen eta irain egile izan naizena; baina Jainkoaren urrikalmendua ardietsi dut, zeren jakin gabez eta federik ez izanez hari bainintzen.
14. Ene gainera ordean graziak gaindi egin du federekin eta Kristo Jesusen baithan den karitatearekin.

15. Gauza egiazkoa eta aria oroz onhestekoa da, mundu huntara ethorri dela Kristo Jesus bekhato-reen salbatzera, hekien artean ni bainaiz lehena.

16. Baina huna zertako ardietsi dudan urrikalmendu: Kristo Jesus-ek ene gainean lehenik erakhuts zezan jasankortasun oso bat, haren baithan sinhetsiko dutenen argigarri, bethiereko bizitzera heltzekotzat.

17. Bada, mendeetako Errege, ezin hil, ezin ikhus daitekeenari, Jainko bakharrari, ohore eta ospe menderen mendetan. Halabiz.

18. Hau mezutzen darotzut, Timotheo ene semea, zutaz izan diren profezien arabera, hekiek nahi bezala guduka zaitezten gudulari onen arara,

19. Idukiz fedea eta kontzientzia ona, zeinetarik urrunduz batzuek fedean kosta jo baitute.

20. Hekietarik dire Himeneo eta Alexandro, zeinak eman baititut satani, ikhas dezaten burhoaren uzten.

II. KAP.

1. Beraz, gauza orotarik lehena, othoizten zaitut egin ditezen othoitz, errekei, galde, esker onak gizon guzientzat,
2. Erregeentzat eta kargutan gora diren guzientzat, bizitze jabal eta gozo bat izan dezagun, jainkotiartasun eta garbitasun osoekin.
3. Ezen hori gauza ona da eta onhetsia Jainko gure Salbatzaileaz,
4. Zeinak nahi baitu gizon guziak salba eta egiaren ezagutzara hel ditezen.
5. Ezen Jainko bakhar bat da, ararteko bakhar bat ere Jainkoaren eta gizonen artean, Jesu-Kristo gizona,
6. Zeinak guzien berrero-steko eman baitu bere burua, muga bereziari lekhukotasunetan.
7. Hargatik ni izan naiz ezarria (egiaz mintzo naiz eta ez gezurrez) erantzule, Apostolu, jendaien irakhaste fedean eta karitatean.
8. Nahi dut beraz gizonek toki orotan othoitz egin dezaten, esku garbiak altxatuz, hasarre eta eskatimarik gabe.
9. Orobat egin bezate emaztekiek ere, behar-bezalako jauntzian, beren buruak aphainduz ahalkesunekin eta zuhurki; ez ile kuskulatu-ekin, urhe, perla eta soineko balioekin;
10. Baina eginkari onez jainkotiartasun erakhusten duten emaztekiei dagokiote bezala.
11. Emaztekiek ikhasten egon bedi ixilik eta jauspen osoarekin.



12. Emaztekiari berriz, irakhasten haritzea ez diot zilhegi uzten, bainan ixilik egon bedi.

13. Ezen Adam lehenbizikorik egina izan da, gero Eba;

14. Eta Adam ez da enganatua izan; emaztekoa ordean, enganatua izanik, Jainko legearen haustera erori da.

15. Guzua gatik salbatuko da eginen dituen haurren ariaz, irauten balin badu fedean, karitatean, eta saindutasunean bizi-molde zuhur batekin.

III. KAP.

1. Egia da, norbaitek aphezpikutasunaren lehia balin badu, gauza onaren lehia duela.

2. Aphezpikua izan behar da beraz baiagabea, behin baizik ez ezkondua, sabel zuhurrekoa, umoa, gurbila, garbia, arrozkina, irakhasle ona;

3. Ez arnozalea, ez joslea, bainan modesta; ez khimeraria, ez dirukoia, bainan

4. Bere etxeari ongi hotsemanen dioena, haur ethorkor eta osoki garbiak dituena.

5. Norbaitek alabainan bere etxeari hotsematen ez badaki, nola hartuko ahal du artha Jainkoaren Elizaz?

6. Aphezpikutzat ez da kristau berria izan behar, beldurrez-eta hanpuruskerietan iganik debruaren kondenamendura eror dadien.

7. Bada, aithor ona ere behar du kanpoan direnetarik, laidotara eta debruaren arteetara ez dadien eror.

8. Diakreak halaber izan behar dire garbiak, ez bi hitzetakoak, ez arnoari emanak, eta irabazi itsusiei darraizkotanak;

9. Bainan fedeko misterioa bihotz garbian begiratzen dutenak.

10. Hekiek ere behar dire lehenik frogatu, eta gero kargutan sarthu, hobenik ez badute gainean.

11. Emaztekiak halaber izan dire garbiak, ez mihi gaixtokoak, bainan begiratuak eta orotan fidelak.

12. Diakreak izan beitez, emazte bat baizik hartu ez duten gizonak, beren haur eta etxeei ongi hotsematen dutenak.

13. Ezik beren eginbideak ongi betheko dituztenek, kargu handiak ardietsiko dituzte eta fidantzia hainitz Jesu-Kristoren baithako fedean.

14. Haukiek iskribatzen darozkitzut, uste dudan arren laster zure ganat ethorri;

15. Bainan berantzera heldu balin banintz ere, jakin dezazun zer duzun egin beharrik Jainkoaren etxean, zeina baita Jainkoaren Eliza, egia-aren habea eta asentua.

16. Eta ageri da zerbait handirik dela urrikalmenduzko misterio, haragian erakhutsia izan dena, izpirituaren aithorra duena, aingeruei agertu eta jendaiei erantzuten zaiotena, munduan sinhetsia eta ospetara altxatua izan dena.

IV. KAP.

1. Bada, garbiki dio Izpirituak, ethorkizunean izan direla fedetik gibelatuko diren batzu, jarraikiz enganiozko izpirituari eta debruaren irakhasmenei,

2. Gezurra itxura ederraren azpian erranen, eta kontzientzia orbainduak dituztenei,

3. Debekatuko dutenei ezkontza eta jatea haragietarik, fededunek eta egia ezagutzen dutenek esker onak bihurtuz jateko Jainkoak egin dituenetarik.

4. Ezen onak dire Jainkoak egin gauza guziek, eta esker onekin jaten direnetarik, ez da deusere uzteko;

5. Jainkoaren ganako hitzaz eta othoitzaz sainduesten dire alabainan.

6. Horiek anaiei irakhatsiz, izan den zare Jesu-Kristoren ministro on bat, fedeko eta ikhasi duzun irakhasmen oneko hitzaz hazia.

7. Berriz, elhe xahar eta xoroiei urrun egiozute, bainan jainkotiartasunari jarraik zaite.

8. Ezen deus-gutitako baliatzen da gorphutzaren erabiltzea, bainan orotako on da jainkotiartasuna, hunek baitu oraiko eta geroko bizitzearen agintza.

9. Egia garbia da hori, eta guziek onhetsi beharra.

10. Alabainan aria hortaz nekhe eta madarizoneak egartzen ditugu, gure pheskiza delakoz Jainko biziaren baithan, zeina gizon guzien Salbatzailea baita, eta bereziki fededunena.

11. Horiek erantzun eta irakhatsatu.

12. Egizu nihork etzaitzan arbuia zure gaztetasunaren ariaz; bainan fededunen ikhaskari izan zaite zure hitz, urhats, karitate, fede eta garbitasunaz.

13. Ni ethorri arteo, jarraik zaite irakurtzeari, eta bertzeen berotzeari eta argitzeari.

14. Ez utz ardurarik gabe zure baithan den grazia, profezia baten ariaz aphezek eskuak zure gainera emanik izan duzuna.



15. Horiez alha zazu zure gogo, horietan idukazu; zure aitzinamen-
dua guzientzat izan dadien ageri.

16. Erne zaude zure buruaren gainera eta bertzeen argitzera; horie-
tan berma zait; ezen hola eginez salbatuko dituztu eta zure burua eta
zure entzuleak.

V. KAP.

1. Ez azurria gizon zaharra, bainan errekei zazu aita bat bezala; gizon
gazteak, anaia batzu bezala;

2. Emazteki zaharrak, ama batzu bezala; neskatxak, arreba batzu
bezala, garbitasun osoarekin;

3. Ohora emazteki alhargun, zinez alhargun direnak.

4. Alhargun batek semeak edo arresemeak balin baditu, lehenik ikhas
beza bere etxeari hotsematen eta bere burhasoei ordainez eginbideen
bihurtzen; hori da ezen Jainkoaren gogarako.

5. Bainan egiazki alhargun eta zurtz denak, Jainkoaren baithan iduk
beza bere igurikimena, eta othoitz-errekeiei jarraik bedi gabaz eta egunaz.

6. Ezen gurikerien erdian bizi dena, bizi delarik hila da.

7. Eta hau mana zozute, estakurugabeak izan ditezela.

8. Norbaitek bere odolekoetz, eta bereziki etxekoez artharik ez badu,
ukho egin dio fedeari, eta fedegabeakoaz areago da.

9. Hautatzen den alharguna, ez bedi izan hirur hogoi urthez azpikoa,
eta senhar bat baino gehiago izan duena;

10. Izan beza eginkari onen aithorra, hean ongi altxatu dituen bere
haurrak, arrotzei leihorra eman, sainduen oinak garbitu, atsekabedunak
lagundu; hean eginkari on guziei jarraiki denez.

11. Bainan ez onhets alhargun gazteagorik; ezen Kristoren zerbitzuan
guriki bizi ondoan, ezkondu nahi dute,

12. Beren kondenamendua biltzen dutelarik, hutsaltzen dutelako
aitzinean eman fedea.

13. Hanbatean berriz, ikhasten dute alferrik etxez etxe ibiltzen; ez
ezik alfer, bainan oraino elhuntzi, eta oro jakin nahi, behargabeko gauzez
mintzatuz.

14. Nahi dut beraz ezkont ditezten, haurrak egin detzazten, ama
familiako izan ditezten, arren-eta ixterbegiei ez diozoten niholaz gaizki
mintzatzeko biderik eman.

15. Jadanik alabainan badire zenbait, satani jarraikitzeke itzuli direnak.

16. Fededun zenbaitek odolean balin baditu alhargunak, behar dute-
na eman biozote, Elizaren bizkar ez ditezten geldi, eta Elizak izan dezan
egiazki alhargun direnen doa.

17. Hotsemaile on diren aphezak, bietan izan beitez ohoratuak, bere-
ziki hitzaren eta irakhasmenaren erantzuten hari direnak.

18. Dio ezen Iskriturak: Bihi jotzen hari den idiari ez diozu muthu-
rrekorik ezarriko; langileak merezi du bere saria.

19. Aphezaren kontrako eratzikpenik ez onhets, bi edo hirur lekhu-
koren ahotik baizen.

20. Bekhatu egileak guzien aitzinean azurria zatzu, beldurra izan
dezaten bertzeek ere.

21. Jainkoaren aitzinean, Jesu-Kristoren eta aingeru hautetsien aitz-
nean errekeitzen zaitut, horiek iduk detzatzun, aitzinetikako iduripenik
gabe, eta batarentzat hartu gabe bertzearen alderat baino ixuri gehiago.

22. Nihoren gainean eskuak ez ezar berehalakoan, eta bertzeen bek-
hatuan ez khutsa. Idukazu zure burua garbi.

23. Ez egon oraino ur hutsa edanez; bainan arno xorta bat har zazu
zure urdailaren eta ardurako txarraldien gatik.

24. Gizon batzuen bekhatuak juiamendua baino lehen ageri dire; ber-
tze batzuenak berriz, hari darraizkola.

25. Halaber eginkari onak ere ageri dire; eta bertzela direnak, ez
ditezke gordeak egon.

VI. KAP.

1. Gathibutasuneko uztarriaren azpian direnek iduk bezate, ohore
guziak beren nausiei zor diozkatela; arren-eta Jaunaren izenak eta irak-
hasmenak ez dezaten ahapaldirik jasan.

2. Bada, nausi fededunak dituztenek, ez betzate gutiets, anaiak dire-
lakoan; aitzitik zerbitzu hobia egin biozote, fededunak direlako eta mait-
hatzekoak, zeren grazian phartedun baitire. Hori irakhatsozute eta horta-
ra deitzatzu.

3. Baldin norbaitek bertzela irakhasten badu, eta Jesu-Kristo gure
Jaunaren solas salbagarrietara eta jainkotiartasunaren araberrako irakhas-
menera erortzen ez bada,

4. Hanpurutsu bat da, deusik ez dakiena, bainan gogo eri bat dabila-
na hitzeko aria eta eztabaden ondoan, zeinetarik ilkhitzen baitire bek-
haizgo, makhur, ahapaldi, aiheru tzar,

5. Khimerak, barne galduko gizonen artean, halakoak egiaz gabetuak
baitire, eta uste baitute irabazbide bat dela Jainkoaren zerbitzua.



6. Bada, gutiaz doi egiten duen jinkotiartasunean datza irabazbide handia.
7. Alabainan ez dugu mundu huntara deusere ekharri, eta segurki ez dezakegu deusik eraman ere.
8. Dugunean beraz zer jan eta zertaz estal, aski izan behar zaiku.
9. Ezen aberastu nahi direnak erortzen dire tentazionera, debruaren arteetara, behargabeko lehia gaixto hainitzetara, zeinek heriotzean eta galpenean pulunpatzen baitituzte gizonak.
10. Alabainan aberastu nahia, gaitz guzien erroa da; eta hartaz atze-manak diren zenbait, fedetik zeihertu eta atsekabe hainitzen erdira sarthu dire.
11. Zuk ordean, oi Jainkoaren gizona, holako gauzei ihes egiozute; aitzitik zuzenbideari, jinkotiartasunari, fedeari, karitateari, jasankortasunari, eztitasunari zarraizkiote bethi,
12. Fedearen gudu onean guduka zaite; loth zakizkio bethiereko bizi-tzeari zeintara deithua baitzare, eta zeinaren gatik aithor ona eman baituzu hanbat lekhukoren aitzinean.
13. Jainkoaren aitzinean, zeinak gauza guziei ematen baitiote bizia, eta Jesu-Kristoren aitzinean, zeinak Ponzio Pilatoren aitzinean lekhukotasun eta aithor ona egitari bihurtu izan baitio, manatzen darotzut,
14. Iduk dezazun ene manamendua notharik gabe eta garbirik, ethor dadien arteo Jesu-Kristo gure Jauna,
15. Zeina agerraraziko baitu bere mukan dohatsu eta bakharrrik ahal-dun denak, erregeen Erregeak, jaunen Jaunak,
16. Zeinak bakharrrik baitu hilezintasuna, eta egiten baitu bere egoitza nihor ezin-hurbilduzko argiaren erdian; zeina gizonetarik nihork ez baitu ikhusi, ez-eta ikhus ahal ere; zeinarenak baitire bethi guzian ohorea eta nau-sitasuna. Halabiz.
17. Mende huntako aberatsei mana zozute, ez dezaten hanpuruske-rian har beren gozoa, ez-eta aberastasun galkorretan ezar beren pheskiza; bainan behar direnak oro nasai gozatzeraz ematen darozkigun Jainko biziaren arabera;
18. Ongi ibil ditezen, eginkari onez aberats egin, gogotik eman, dute-netik beharrak lagunt,
19. Eta gerokotzat beren buruei asentu on bat egin diotzoten, egiaz-ko bizitzearen ardiesteko.
20. Oi Timotheo, zaintzera emana begira zazu; ihes egiozute hitzeta-ko berrikuntza arrotzei, eta jakitate faltsu baten enferrei;
21. Haren hedatzen hari diren zenbait, fedetik zeihertu baitire. Grazia dela zurekin. Halabiz.

TIMOTHEORI JAUN DONE PAULO APOSTOLUAREN BIGARREN GUTUNA

I. KAP.

1. Paulo, Jesu-Kristoren apostolua, Jainkoaren nahitik, Jesu-Kristoren baithan dugun bizitzeko agintzaren arabera;
2. Timotheo seme guziz maiteari. Jainko Aitak eta Jesu-Kristo gure Jaunak eman biiazazute grazia, urrikalmendu eta bake.
3. Ene arbasoetarik nik ere bihotz garbiz zerbitzatzen dudan Jainkoari diozkat eskerrak bihurtzen, zeren gabaz eta egunaz hutsik gabe zutaz orhoitzen naizen ene othoizetan;
4. Ezik orhoit baititut zure nigarrak, zure ikhusteko lehian nago, bozkarioz bethe nadien,
5. Gogoratz zure baithan den fede zina, lehenik Loide zure amasoren eta Unize zure amaren baithan izan dena, eta zure baithan ere dago-ela segur naizena.
6. Hargatik berritan bitzaraz zazu othoi, Jainkoaren grazia, nik zure gainean eskuak ezarririk, zure baithan dena.
7. Jainkoak ezen ez daroku eman uzkuratasuneko izpiritu bat, bainan khabuzkoa, amodiozkoa eta zuhurtziakoa.
8. Ez izan beraz ahalkerik aithor emateko Jaunari ez-eta niri, haren gatik burdinetan naizenari, bainan jasan zazu zuk ere ebanjelioaren gatik, Jainkoak eman indarraren arabera;
9. Harek salbatu eta bere dei sainduaz deithu baikaitu; ez gure egin-tzen ariaz, bainan bere asmuz, eta mendeetako egunak baino lehen Jesu-Kristoren bidez emana izan zaikun graziaren arabera.
10. Bada, argitara ethorria da orai grazia hura, agertu denaz geroztik Jesu-Kristo gure Salbatzailea, zeinak heriotzea ezeztatu, bizia aldiz eta andea-ezintasuna ebanjelioaz agerrarazi baititu.
11. Hargatik ezarria naiz ni jendaien erantzule, apostolu eta irakhasle.
12. Aria hortaz ere jasaiten ditut burdina haukiek; bainan ez naiz ahalke. Badakit ezen nori fidatu naizen, eta segur naiz gai dela nik haren eskuetan ezarriaren begiratzeko egun handikotzat.
13. Modelatzat har zatzu ene ganik aditu ditutzun solas onak fedea-ren eta Jesu-Kristoren baithako amodioaren gainean.



14. Gure baithan dagoen Izpiritu sainduaren laguntzaz zain zazu zure baithan emana den depot baliosa.

15. Badakizue ene ganik aldaratu direla Asian diren guziak; hekieta-rik baitire Phiyelo eta Hermoienes.

16. Jaunak Onesiphororen etxearen gainerat ixur beza bere urrikal-mendua; zeren askotan hura izan baita niri gozakari eman darotadana, eta ene burdinez ez baitu ahalkerik izan;

17. Aitzitik, Erromara ethorri denean, ardurarekin bilhatu bainau eta kausitu.

18. Jaunak bere aitzinean urrikalmendu aurkhiaraz biozo bertze egun hartan; nihork baino hobeki ezen badakizu zenbateko laguntzak egin darozkidan Epheson.

II. KAP.

1. Zu beraz, ene semea, hazkar zaitezi Kristo Jesusen baithan den grazian;

2. Eta hainitz lekhukoren aitzinean ene ganik entzun ditutzun gauzak, mezu zatzu gizon fededun eta bertzeen argitzeko gai direnei.

3. Berma zaite Kristo Jesusen soldado on bat bezala.

4. Jainkoaren alde gudukatzen dena, ez da mendeko egitekoen poxe-luan sartzen, hainari aurkhi ahal diozon zeinari eman baitio bere burua.

5. Alabainan ere gudu-tokian gudukatu denak ez du khoroa izaten, non ez den bidezki gudukatu.

6. Lanean hari den laborariak lehenbizikorik behar du fruituetarik berea izan.

7. Adi zazu erraten darotzudana; ezen Jaunak gauza guzietan emanen darotzu adigarria.

8. Orhoit zaite Jesu-Kristo Jauna, Dabiden odoletik dena, hiletarik biztu dela, erraten dudana bezala ene ebanjelioan,

9. Zeinaren ariaz jasaiten baitut burdinetan izateraino, gaizki egile bat iduri; bainan Jainkoaren hitza ez da estekatua.

10. Aria hortaz zer-nahi jasaiten dut hautetsien gatik, hekiek ere ardiets dezaten Jesu-Kristoren baithan den salbamendua, zeruetako ospearekin.

11. Hitz segura da, Jesusekin hiltzen bagare, harekin biziko garela;

12. Harekin jasaiten badugu, harekin erreginatuko garela; ukhatzen badugu, harek ere ukhatuko gaituela;

13. Guk federik ez izanik ere, hura fidel egonen da; ezin ukha deza-ke bere burua.

14. Horiek ematzu begietara, lekhuko hartuz Jainkoa. Ez eraunts eztabadaka, hori ez baita on deusetako, ez bada entzuleen galgarri.

15. Ardurarekin berma zaite zure burua Jainkoari aithorkizun erak-hustera, hala-nola ahalkagarri ez den langile, egiaren hitza zuzenki dera-bilkana.

16. Solas arrotz eta huts erraleei urrun egiozute, ezen lasterrean daro-mate tzarkeriara;

17. Eta hekien elhea, min-bizia bezala emeki-emeki bide eginez dihoa: halakoetarik dire Himeneo eta Phileto,

18. Zeinak egiatik aldaratu baitire, hilen biztea jadanik egin dela erranez, eta zeinek fedea galarazi baitiote zenbaiti.

19. Bainan gogorrik dago Jainkoaren asentua, zigilutzat duelarik hitz hau: Jaunak ezagutzen ditu zein dituen bereak; eta hau ere: Edozeinek dei egin diozon Jaunaren izenari, ihes egin biozo gaizkiari.

20. Bada, etxe handi batean badire ez ezik urrezko eta zilharrezko untziak, bainan zurezkoak eta lurrezkoak ere, eta batzu dire ohorezko zer-bitzuetako, eta bertzeak eder ez direnetako.

21. Baldin beraz gaizki hekiatarik norbaitek zaintzen badu bere burua, izanen da ohorezko zerbitzuetako sainduetsia den untzi bat, Jaunaren zerbitzuko on dena, eginkari on guzietako aphaindua.

22. Ihes egiozute bada gogo gazteei, eta Jaunari bihotz garbiz dei egi-ten dutenekin zarraizkiote zuzentasunari, fedeari, karitateari eta bakeari.

23. Urrun zaite aldiz solasbide zoro eta zuhurtzia gabekoetarik, daki-zulakoz ez direla eskatimen sorrarazteko baizik.

24. Bada, Jaunaren zerbitzaria ez da izan behar eztabadakari, bainan guzien alderat ezti, irakhasle gai eta jasankor,

25. Egari bihurtzen direnen kridantzazaila eme, Jainkoak noizbait emanen diotelakoan urrikia, egiaren ezagutzeko,

26. Eta debruaren artearik itzuriko direlakoan, harek gathibu baita-dukza, hekietaz nahi duenaren egiteko.

III. KAP.

1. Bada, hau jakizu, azken egunetan jautsiko direla aldarte gaitzak;

2. Izanen direla beren buruak baizik maite ez dituzten gizon batzu, jaraman, hanpurutsu, mihi gaixto, burhasoei bihurri egile, eskergabe, gaixtagin,

3. Bihotz gogor, bakearen etsai, belztaile, barriatu, mokhor, pres-tuen etsai,



4. Traidore, ozar, beren buruaz hantuak, eta Jainkoa baino atsegina maiteago dutenak;

5. Jainkotiartasunaren itxura dutenak bai, haren indarra ordean haus-ten dutenak. Hekiei ere ihes egiozute;

6. Hekietarik dire ezen etxeetara sartzen direnak eta gathibu daramazkatenak ematxar batzu, bekhatuz maldatuak, beren lehiek derabilzka-tenak;

7. Bethi ikhasten hari, eta egiaren ezagutzara behinere heltzen ez direnak.

8. Bada, nola Janesek eta Manbresak beihala iharduki baitzioten Moisesi, orobat ere ihardesten diote egari, izpiritu galduko gizon fedetik zeihertu hekiek ere.

9. Bainan ez dute hobeagorik atheratuko; ezen guzientzat ageri iza-nen da haukien erhokeria, bertze hekiek ere izan zen bezala.

10. Zuk ordean badakizkitzu nolakoak diren ene irakhasmena, bizitzea, xedeak, fedea, jasan kortasuna, amodioa, pairua;

11. Egarrri ditudan jazargo, atsekabeak; nolako gogorkeriak eginak izan zaizkidan Antiokian, Ikonion, Listran; nolako jazargoak ditudan jasan, eta orotarik athera nauela Jaunak.

12. Halabadere jainkotiarki Jesu-Kristoren baithan bizi nahi dutenek izanen dute jazargo egartzeko.

13. Bainan gizon tzar eta enganatzaileak gaizkian barnago sarthuko dire, berak makhurrean ibiliz eta bertzeei makhurrerat eraginez.

14. Zu ordean zaude gogorrik ikhasi dituzun eta zure gomendioko emanak diren gauzetan, orhoituz noren ganik ikhasi dituzun,

15. Eta haurretik jakintsun egin zarela Iskritura sainduetan, zeinek salbamendukotzat argi ahal baitzezazkete, Kristo Jesusen baithako fedea-ren bidez.

16. Jainkoaren ganikako helduratik diren iskritura guziak on dire irak-hasteko, azurriatzeko, kridantzatzeko, eta zuzenbidean argitzeko;

17. Jainkoaren gizona izan dadientzat perfet eta lan on guzietarako ikhasia.

IV. KAP.

1. Jainkoaren aitzinean, eta Jesu-Kristoren aitzinean, zeinak bere ethorpeneko eta bere erreinuko egunean juiaturen baititu hilak eta biziak, errekeitzen zaitut,

2. Erantzun zazu hitza, alde-ta-molde hertsu zatzu gizonak; azurria, errekeit, larderia zatzu behar den emetasunarekin eta ongi argituz.

3. Ezen egun bat ethorriko da non ez baitute jasanen irakhasmen ona; bainan beren beharri kilikatu nahien gatik, bilaraziko dute irakhasle oste bat,

4. Eta egiatik beren beharriak aldaratuko eta elhe xaharretara itzuli-ko dituzte.

5. Zu ordean, zaude gauza guzietara atzarria, jasan zazu, egizu eban-jelist on baten lana: bethe zatzu zure eginbideak. Gurbil izan zaite.

6. Jadanik ezen ni imolatzeru noha; gainean dut hilen naizen ordua.

7. Gudu onean egin dut gudu, akhabatu dut bidea, fedea begiratu dut.

8. Gainerakoan, enetzat berezia dago zuzentasuneko khoroa, Jaunak, juie zuzenak egun hartan emanen darotana, ez bada niri bakharrik, bainan ere haren ethorpena maite dutenei. Higi zaite ene gana laster ethortzera.

9. Ezen utzi nau Demasek, maite baitu mende hau, eta Thesalonikara goan da;

10. Krezente berriz Galatiara, Tito Dalmatiara.

11. Luk da bakharrik enekin. Har zazu Mark eta erakhar zurekin; ezen hainitz on zait eginbidekotzat.

12. Tikiko berriz, Ephesora bidali dut.

13. Hunatekoan zurekin ekhar zazu, Troaden, Karporen baithan utzi dudana kapa; liburuak ere bai, eta-bereziki paperak.

14. Alexandro kobreginak asko bidegabe jasanarazi darozkit; Jaunak bihurtuko dio bere egintzen arabera.

15. Bazterrerat egiozu zuk ere; ezen gogorki enferra egin diote gure hitzei.

16. Nihork ez nau lagundu ene egitekoaren xuritzen lehenbiziko aldian; bainan utzi naute guziek: hori ez bekiote iratxik.

17. Jaunak ordean lagundu eta hazkartu nau, ene bidez bethe dadientzat erantzupena, eta adi dezaten, jendaia guziek; eta lehoinaren ahotik libratua izan naiz.

18. Eskukhaldi gaixto guzietarik libratu nau Jaunak, eta salburik era-manen nau zeruetako bere erresumara; hari ospe menderen mendetan. Halabiz.

19. Agur egiozute Priskari eta Akilari, eta Onesiphororen etxekoei.

20. Korinthon gelditu da Erasto. Trophimo berriz, Mileton utzi dut eri.

21. Higi zaite, negu aitzinean ethortzeko. Eubulok, Pudentek, Linok, Klaudiak eta anaia guziek goraintzi.

22. Jesu-Kristo Jauna zure izpirituarekin izan bedi. Grazia zuekin izan bedi. Halabiz.



TITORI JAUN DONE PAULO APOSTOLUAREN GUTUNA

I. KAP.

1. Paulo, Jainkoaren zerbitzaria, eta Jesu-Kristoren apostolua, Jainkoaren hautetsien argitzeko fedean eta egiaren ezagutzan, zeina jainkotiartasunaren arabera baita,

2. Eta zeinak baitakhar, Jainko gezurrik ez duenak mende guziak baino lehenagotan agindu duen bethiereko bizitzearen igurikimena;

3. Ezen muga ethorri denean, bere hitza agerrarazi du erantzupenaz, zeinaren kargua, Jainko gure Salbatzailearen manuz niri emana izan baitzait:

4. Titori, batasunean dugun fedearen araberako seme maiteari, erazia eta bake Jainko Aitarene eta Jesu-Kritto gure Salbatzailearen ganik.

5. Kretan utzi zaitut, makhur direnak xuxen detzatzun, eta hirietan gairi ezar detzatzun aphezak, manatu ere darotzudan bezala.

6. Hartako nihor izan behar da estakurugabea, behin baizik ez ezkondua; haurrak fededunak, zabarkeriako errankizunik gabeak eta ethordunak dituenak.

7. Aphezpiku bat ezen, Jainkoaren ministro den bezala, hobengabea izan behar da; eta ez hanpurutsu, jauzkor, arnozale, joile, irabazi itsusien gose;

8. Bainan arrozkin, eme, gurbil, zuzen, saildu, begiratu,

9. Fedeko hitzak daduzkana, irakhatsi zaizkon bezala; gai izan dadiantzat, irakhasmen onaz bertzeen argitzeko eta bihurtzen direnen ixilarazteko.

10. Ezen asko badire, ingurebakikakoetan bereziki, bihurriak, elhe huts erraleak eta enganatzaileak,

11. Ixilarazi behar direnak, etxe osoak nahasten dituztenak, irabazi zikhin baten gatik behar ez dena irakhatsiz.

12. Hekietarik batek, hekien beren profetak erran izan du: Kretarrak bethi gezurti, abere tzar, trinpoil alfer batzu dire.

13. Egiazkoa da lekhukotasun hori. Aria hortaz, garrazki azurria zatzu, garbi egon ditezen fedean,

14. Beharria eman gabe Juduen elhe xaharrei, eta egiatik gibelatzen diren gizonen manamenduei.

15. Garbientzat, gauza guziak garbi dire; khutsatuentzat berriz, eta fedegabekoentzat, deus ez da garbirik; bainan lohitsuak dire hekien gogobarneak.

16. Jainkoa ezagutzen dutela, ahoz aithortzen, beren egintzez ordean ukhatzen dute, hasgarri direnaz geroztik, sinhesgogor eta eginkari onetako ez gai.

II. KAP.

1. Zuk ordean irakhasmen onari dagozkion gauzak irakhatsatu.

2. Zaharrak izan beitez gurbil, xahu, umo; fedean, karitatean, jasan-kortasunean garbi;

3. Atsoak halaber egon beitez bizitze saildu batean, ez gaizkikari, arnozale, bainan ongiaren irakhaste,

4. Neskatxei irakhasteko zuhur izaten, beren senharren eta umeen maithatzen;

5. Umo, garbi, begiratu izaten; etxeaz artha hartzen; eme eta beren senharrei ethordun izaten, Jainkoaren hitzak ez dezan burhorik jasan.

6. Hertsa zatzu gizon gazteak ere begiratu izatera.

7. Gauza guzietan zure burua eginkari onen irakhasbide emazu, zure irakhasmenaren garbitasunaz, zure bizitze itzalgabeaz, zure sentontasunaz;

8. Zure irakhasmena izan bedi narriorik eta erratekobiderik gabea, ahalketan geldi dadien ixterbegia, guretzat gaizki mintzatzeko biderik ez izanez.

9. Ekhar zatzu sehiak beren nausiei ethordun izatera, orotan hekien gogara egitera, deusetan ez bihurtzera,

10. Maularik ez egitera, bainan gauza guzietan fideltasun oso baten erakhustera; arren-eta guzien begietara eder agerraraz dezaten gure Jainkoaren irakhasmena.

11. Ezen gizon guziei agertu zaiote Jainko gure Salbatzailearen grazia,

12. Argitzen gaituelarik, arren-eta tzarkeriari eta mendeko lehiei ukho eginik, mende huntan bizi gaitezen begiratuki, zuzentasunean eta jainkotiarki,

13. Igurikiz guk igurikitzen dugun Jainko handiaren eta Jesu-Kristo gure Salbatzailearen ospezko ethorpena;



14. Jesu-Kristok bere burua guretzat eman baitu, bekhatu orotarik gure berrerosteko, eta gutarik beretzat egiteko populu garbi, onhesgarri, eta egintza onei jarraikitzen den bat.

15. Horiek adiaraz zatzu; eta eskudantzia osoarekin hari zaite hertsatzen eta kridantzatzen. Nihork ez bezaitza erdeina.

III. KAP.

1. Ohartaraz zatzu buruzagi eta kargudunei ethordun izatera, hekien hitzari jaustera, eta eginkari on guzietara abian egotera;

2. Nihori ahapaldirik ez arthikitsera, hauzilari ez izatera, bainan-bai baketiar, emetasun oso bat erakhutsiz gizon guzien alderat.

3. Bertze orduz alabainan geror ere ginen zoro, sinhesgaitz, makhu-rrean ginabiltzanak, asko lehien eta zalekerien gathibu, maltzurkerian eta bekhaizgoan hari ginenak, hastiagarriak, eta elkhar hastiatzen ginuenak.

4. Bainan agertu direnaz geroztik Jainko gure Salbatzailearen ontasuna eta gizonen alderako amodioa,

5. Salbatu gaitu, ez gure egintzen zuzentasunari esker, bainan bere urrikalmenduaren arabera, bizitze berri bat emanez bathaioaz eta geroni berrituz Izpiritu sainduaz,

6. Zeina gure gainera nasaiki hedatu baitu Jesu-Kristo gure Salbatzailearen bidez;

7. Arren-eta haren graziaz zuzentasuna ardietsirik, izan gaitezen, uste dugun bezala, bethiereko bizitzearen premu.

8. Egia garbiak dire horiek, eta nahi nuke finka bazinetza jendeetan; Jainkoaren baithan sinhesten dutenek artha izan dezaten eginkari on guzien buruan agertzeko. Horiek dire gizonentzat gauza on eta behar bezalakoak.

9. Bazterrerat egiozute ordean solasbide ahulei, iraulgiketei, eskatima eta legearen gaineko eztabadei; alferrak dire ezen eta deusetako baliatzen ez direnak.

10. Heretikoaren ganik aldara zaite, behin eta bietan kridantzatu ondoan;

11. Baitakizu halako dena galdua dela, eta bekhatu egiten duela, bere ahoko juiamendutik beretik kondenatua dela.

12. Bidali darotzuketanean Artemas edo Tikiko, higi zaite Nikopolisera ene ganat ethortzera; burutan dut ezen negua han iragaitea.

13. Zenas lege-jakina eta Apolo aitzinean igorratzu artharekin, deuseren eskasik izan ez dezaten.

14. Bada, gure anaiek ere ikhas bezate eginkari onen buruan agertzen behar diren gauzetako, fruiturik gabeak izan ez ditezen.

15. Enekin diren guziek agur egiten darotzute. Agur egiozute fedean maite gaituztenei. Jainkoaren grazia zuekin ororekin izan bedi.



PHILEMONERI JAUN DONE PAULO APOSTOLUAREN GUTUNA

1. Paulo, Jesu-Kristoren gatik burdinetan dena, eta Timotheo anaia, Philemon gure maite eta laguntzaileari,
2. Eta arreba guziz maite Apiari, eta gure gduetako lagun Arkipori, eta zure etxean den elizari.
3. Jainko gure Aitaren eta Jesu-Kristo gure Jaunaren ganik zuei grazia eta bake.
4. Ene Jainkoari diozkat eskerrak bihurtzen, ene othoitzetan zutaz orhoitzapen eginez bethi,
5. Aditzen baitut nolako fedea duzun Jesus Jaunaren baithan, eta zer karitatea saindu guzien alderat;
6. Hanbatean non Jesu-Kristoren gatik zuen artean egiten den ongiak, guzian ezagutzara ethorritz, agerian ematen baitu zure fedearen bizartasuna.
7. Ezen atseginez eta bozkarioz bethe nau zure karitateak; zeren zuk, anaia, jbaldu baituzu sainduen baithan gosea.
8. Aria hortaz, zenbat-nahi esku dudan Jesu-Kristoren ganik, zer-ere baitagoki gauzari eta hura zuri manatzeko;
9. Halere, zuretzat dudan amodioaren ariaz, nahiago zaitut othoiztu nik, naizen bezalakoak, Paulo zaharrak, orai Jesu-Kristoren gatik burdinetan naizenak.
10. Ene othoizta ene seme Onesimorentzat da, burdinetan naizelarik ene haur egin dudanarentzat;
11. Zeina lehen deusetako ez baitzaitzu izatu; orai ordean on izanen da bai zuretzat eta bai enetzat.
12. Gibelerat bidali darotzut. Zuk aldiz begithartez har zazu ene bihotza bere bezala.
13. Nahi nuen enekin iduki, zure ordainez zerbitza nintzan, ebanjelioaren gatik jasaiten ditudan burdina haukietan;
14. Bainan ez dut zure aithorra gabe nahi izan deusere egin, arren-eta galdatzen darotzudan ongia ez dadien ethor ezin-bertzetik bezala, bainan zure oldetik.

15. Ezen beharbada zure ganik aphur batentzat urrundu izan da, gero bil dezazun bethikotzat,
16. Ez gehiago gathibu bezala, bainan gathibuaren ordainez, anaia guziz maite bat bezala, bereziki enetzat; zenbatenaz bada zuretzat hobeki, nahiz haragiaren, nahiz Jaunaren legez?
17. Baldin beraz zure laguntzat banadukazu, neroniri bezala egiozu begitharte.
18. Aldiz bidegabe egin edo zerbait zor badarotzu, ene gainera emazu.
19. Nik Paulok iskribatu darotzut ene eskuz; nik bihurturen darotzut ordaina, zuri ez errateko, zure burua niri zor duzula;
20. Hola, anaia. Jaunaren gatik gozo hau ethor bekit zure ganik: Jaunaren izenean bizia emozu ene bihotzari.
21. Zure ethorkortasunaz fida izanez iskribatu darotzut, baitakit erraten dudan baino gehiago ere eginen duzula.
22. Hanbatean berriz, leihor bat xuxen dizadazut othoi; ezik zuen othoiztei esker, zuei emana izanen natzaitzuelako pheskizan bizi naiz.
23. Agur egiten darotzute Epafrasek, enekin Kristo Jesusen gatik preso denak,
24. Eta Markek, Aristarkok, Demasek eta Lukek, ene laguntzen hari direnek.
25. Jesu-Kristo gure Jaunaren grazia zuen izpituarekin izan bedi. Halabiz.



HEBREARREI

JAUN DONE PAULO APOSTOLUAREN GUTUNA

I. KAP.

1. Beihala asko aldiz eta asko moldez gure arbasoei profeten ararteko mintzatu zaioten ondoan Jainkoa, azkenik
2. Egun haukietan mintzatu izan zaiku bere Semearen ahoz, zeina ezarri baitu gauza guzien premu, zeinaren bidez egin baititu mendeak ere;
3. Zeina, haren ospearean distiradura eta haren izantzaren itxura den bezala, gauza guziak bere hitzaren indarrak jasaiten dituena; bekhatuen xahupena eginik, jarria baitago maiestatearen eskuinean zeru gorenetan,
4. Hanbatenez aingeruen garai, zenbatenez-ere harek izatu duen izenak aingeruenaren gainean baiteramaka.
5. Ezen aingeruetarik zeini egundaino erran izan dio Jainkoak: Ene Semea zare, egun aitatu naiz zutaz? Eta oraino: Ni izanen natzaio Aitatzat, eta hura semetzat izanen zait?
6. Eta oraino ere, lurrera dakharrenean bere lehen-sorthua, erraten du: Adora bezate Jainkoaren aingeru guziek.
7. Eta aingeruez, hau dio: Izpirituak egiten ditu bere aingeru, eta su garrak bere zerbitzari.
8. Baina Semeari: Jainkoa, zure tronua menderen mendetako izanen da; zure errege makhila, zuzenbideko makhila.
9. Maithatu duzu zuzena, eta bigundu makhurra; hargatik, oi Jainkoa, zure Jainkoak zaitu bozkariozko olioaz gantzutu, zurekin partedun direnen gainetik.
10. Eta oraino: Hastapenean, Jauna, zuk egin duzu lurra bere asentuen gainean, eta zure eskuetako lanak dire zeruak.
11. Galduko dire hekiek; zuk ordean iraunen duzu, eta hekiek oro soineko bat bezala ihetxetuko dire;
12. Eta aldagarri bat bezala aldaturen dituzu, eta aldatuak izanen dire; zu ordean bethi bat zare, eta ez dire akhituren zure urtheak.
13. Berriz, aingeruetarik zeini egundaino erran izan dio: Jar zaite ene eskuinean, zure etsaiak ezar detzadan arteo zure oinpeko alkhi?
14. Aingeruak ez othe dire izpiritu zerbitzariak, salbamenduko primantza ardietsiko dutenen gatik bidaliak, eginbide zerbaiten bethetzera?

II. KAP.

1. Hargatik behar ditugu entzun ditugunak hobeki begiratu, ez gaitzen ura bezala suntsi.
2. Ezen aingeruek erran hitza gogor egotu balin bada, eta lege haus-eta bihurrialdi guziek izan badute beren saria;
3. Nola itzuriko gare gu, baldin bazterrerat uzten badugu irakhaspen hain salbagarria, zeina Jaunak berak erantzuten abiatu ondoan hastean, aditu dutenek baitute gure baitan seguratu;
4. Jainkoak lekhukotasun egiten zuelarik, hanbat ezagutkariz, senda-gailaz, eta mirakuluz, eta Izpiritu saindua berak nahi duenaren gainerat ixuriz?
5. Jainkoak alabainan ez du aingeruen azpiko ezarri, aiphatzen dugun mundu ethorkizuneko.
6. Bertze toki batean berriz, norbaitek lekhukotasun hau egiten du, dioelarik: Zer da gizona, hartaz orhoit zaitezentzat; edo gizasemea, ikhustera ethor zakizkioentzat?
7. Aingeruak baino aphur batentzat gutiago egin duzu; ospez eta ohorez khoroatu, eta zure eskuetako lanen gainean nausi ezarri duzu.
8. Oinen-peko ezarri diozkatzu gauza guziak. Bada, haren-peko ezarri dituenaz geroz gauza guziak, ez du deusere utzi hari azpikotua ez denik. Orai ordean ez dugu ikhusten oraino haren azpian direla guziak.
9. Baina Jesus, aingeruak baino aphur batentzat aphanagotua izan zena, ospez eta ohorez khoroatua ikhusten dugu, jasan duen heriotzearen ariaz; Jainkoak, bere ontasunean, nahi izan baitu guzientzat hil zadien.
10. Bazagokion ezen Jainkoari, zeinarentzat eta zeintaz baitire gauza guziak, zeinak ospera nahi baitzuen eraman bere haurren ostea, beharamendutik ospera oinhazearen bidez altxa zezan salbamenduaren eragilea.
11. Alabainan saindutaile eta saindutua dena, guziak ethorki batetarik dire. Hargatik ahalkerik ez du, hekiek anaia izenaz deitzeko, dienean:
12. Ene anaiei erantzunen diotet zure izena, Elizaren erdian zaitut laudaturen.
13. Eta berriz: Haren gainean fida izanen naiz. Eta oraino: Huna ni, eta Jainkoak eman darozkidan haurrak.
14. Nola beraz odolean eta haragian phartedun baitziren haurrak, hura ere hala izatu da; arren-eta bere heriotzeaz xahu zezan heriotzearen botherea zuena, erran-nahi-da debrua;
15. Eta libra zetzan, beren bizi guzian heriotzearen larderiaren azpian bizi behar zirenak.



16. Ezen ez ditu aingeruak hartu, bainan Abrahamen umeei lothu zaiote.

17. Hargatik gauza guzietan behar izan da bere anaien iduriko, egin zadiantzat urrikalmendutsu eta Jainkoaren aitzinean zinezko aphez nausi, populuaren bekhatuen barkhamenduaren ardiesteko.

18. Ezen jasan duenaren eta frogatua izan denaren aria beraz da ahal-dun frogetan direnei laguntza egiteko.

III. KAP.

1. Hargatik, anaia saindu, zeruetarako deiean barne zaretanak, begien aitzinean idukazue Jesus, guk aihortzen dugun fedeko apostolu eta aphez nausia.

2. Zeina ezarri duenari fidel baitzaio, hala- nola Moises ere haren etxe guzian.

3. Ezen hanbatenaz ospe handiagoren merezdun idukia izatu da, zenbatenaz ohore gehiago baitu etxea egin duenak, etxeak berak baino.

4. Alabainan etxe bakhotzak badu norbait egile; bainan gauza guzien egilea, Jainkoa da.

5. Moisesez denaz, fidel izan da Jainkoaren etxe guzian, zerbitzari bezala, erran behar ziren gauza guzien lekhukotasunaren egiteko;

6. Kristo fidel izan da ordean, semea bere etxean bezala; eta etxe hura gu gare, baldin azkeneraino gogorrik idukitzen badugu gure fidantzia eta igurikimen ospetsua.

7. Hargatik, Izpiritu sainduak dioen bezala: Baldin egun, haren mintzoa entzuten baduzue,

8. Ez gogor zuen bihotzak, hala-nola mortuko sumintaldian, tentazioneko egunean;

9. Noiz-ere tentatu baininduten zuen arbasoek, eta ene egintzak frogatu eta ikhusi baitzituzten

10. Berrogoi urthez; aria hortaz sephan egon natzaio populu horri, eta erran dut: Makhur dabila bethi horien bihotza. Ene bideak berriz, ez dituzte horiek ezagutu;

11. Horrela ere ene hasarrean zin egin dut: Ala! ene phausuan sartzen badire.

12. Berautzue, anaiak, zuetarik norbaiten baithan ez dadien gertha sinhesgogorkeriako izpiritu gaixtoa, Jainko biziaren ganik urrunarazteraino;

13. Bainan egun oroz elkhar bero zazue, Egun deitzen den mugak diraueno; zuetarik nihor gogor ez dezan bekhatuaren zoramenduak.

14. Ezen Kristoren phartzuner eginak gare, baldin bizkitartean azkeneraino gogorrik idukitzen badugu haren izantzaren hastapena.

15. Erraten deno: Egun, haren mintzoa entzun badezazue, ez gogor zuen bihotzak, hala-nola sumintaldi hartan.

16. Ezen aditzaileetarik batzuek sumintarazi zuten Jainkoa, bainan ez Moisesekin Egiptotik abiatu ziren guziek.

17. Nori bada, gaizturik egon zen berrogoi urthez? Ez othe bekhatu egin zutenei, hekien gorphutzak mortuan etzanak gelditu baitziren?

18. Nori berriz, zin egin zuen etzela haren phausan sarthuko, ez bazen sinhesgogor gelditu zirenei?

19. Eta ikhusten dugu ezin sarthu zirela beren sinhesgogortasunaren gatik.

IV. KAP.

1. Beldur izan gaiten beraz ezen, Jainkoaren phausuan sartzeko agintzaz ardurarik ez eginez, kanpo geldi dadien zuetarik norbait.

2. Alabainan erantzuna izan zaiku guri ere hekiei bezala; bainan hekiei etzaiote deusere baliatu aditu duten hitza, etzelakoz lagundua aditzaileen fedez.

3. Gu bada, sinhetsi dugunak, sarthuko gare phausuan, hekiez errana izan zaiotenaz geroztik: Ene hasarrean zin egin dudak bezala, ala! sartzen badire ene phausuan; erran nahi da mundua eginik, lan guziak akhabatu ondoko phausuan.

4. Ezen hau errana izan da nonbait zazpigarren egunaz: Eta Jainkoa bere lan guzietarik phausatu zen zazpigarren egunean.

5. Eta dio berriz ere: Ala! sartzen badire ene phausuan.

6. Direnaz geroztik batzu hartan sartzekoak, eta lehenbiziko aditzaileak ez direnaz geroz sarthu beren sinhesgogortasunaren ariaz;

7. Berezen du Jainkoak halako egun bat, Egun deitzen duena, Dabiden ahoz dioenean hanbat denboren buruan, gorago errana den bezala: Egun entzuten baduzue ene mintzoa, ez gogor zuen bihotzak.

8. Josuek alabainan eman izan baliote phausua, ez liteke geroz-goiti bertze egunik aipha.

9. Jainkoaren populuari gelditzen zaio beraz bestatzeko phausua.

10. Ezen Jainkoaren phausuan sarthua denak, harek ere bere lanetarik phausu hartu du, Jainkoak bereetarik bezala.

11. Lehia gaitezen beraz phausu hartan sartzera, gutarik nihor ez dadien eror halako sinhesgogorkeriara.



12. Ezen Jainkoaren hitza bizia da eta eragilea, eta bi ahotako edozein ezpata baino sarkorragoa, eta heltzen dena arimaren eta gogoaren arteraino, giltzetara ere eta muinetara, eta bihotzeko asmu eta xedeak berezten dituena.

13. Eta haren aitzinean ez da ezin-ikhusizko kreaturarik, eta gauza guztiak ageriak eta zabalduak dire guk aiphatzen dugunaren begien azpian.

14. Dugunaz geroz aphez handitzat zeruetan sarthu dena, Jesus Jainkoaren Semea, gogorrik gaudezen gure aithorreko fedeari.

15. Ez dugu ezen gure malbutasunez urrikal ez dezakeen aphez nauririk; bainan badugu gu bezala gauza guzietan tentatua izan dena, bekhatuan bertzalde.

16. Lotsarik gabe hurbil gaitezen beraz graziazko tronuaren aitzinera, ardiets dezagun urrikalmendu eta gure behar-orduetan aurkhi dezagun grazia.

V. KAP.

1. Alabainan ere gizonen artetik hartua den edozein aphez nausi, gizonentzat ezarria da Jainkoa ukitzen duten gauzetan, bekhatuentzat eskaini detzan emaitzak eta sakrifizioak,

2. Eta urrikal ahal dakioten jakingabetasunean eta makhurrean dabiltzanei; zeren-eta malbutasunez baita inguratua bera ere;

3. Eta hargatik, populuarentzat bezala beretzat ere eskaini behar ditu bekhatuarentzateko sakrifizioak.

4. Eta nihor ez da ohore hortaz jabetzen, baizik-ere Aaron bezala Jainkoaz deithua dena.

5. Haletan ere Kristok ez du berak hartu apheznausitasuneko kargu ohoragarria; bainan hainak eman dio, zeinak erran baitio: Zu zare ene Semea, nik egun aitatu naiz zutaz.

6. Hala-nola ere baitio bertze toki batean: Bethiko zu zare aphez Melkisedeken arara.

7. Harek, bere gizotasuneko egunetan, heriotzetik itzurraraz zeza-keenari eskaini baitzozkan bere othoitz-errekeiak, oihu-min eta nigarrekin, entzuna izan da Aitari ekhartzen zioen agurraren gatik.

8. Eta Jainkoaren Seme zen arren, jasan dituen gauzen bidez ikhasi du ethorkortasuna;

9. Eta bere sakrifizioan ahituz bilhakatu da ethordun zaizkion guzientzat bethiko salbamenduaren eragile,

10. Jainkoak deithu zuen bezala Melkisedeken araberako aphez nausia.

11. Hortaz baginduke hitz handi eta ederrik, bainan gaitzegiak errateko, ilhaunduak zaretelakoz aditzeko.

12. Alabainan-ere aspaldi duelakoz argitzen zaituztetela, oraiko nausi izan behar bidean, Jainkoaren hitzaren lehenbiziko abiaduren ikhasteko beharra duzue oraino; eta egin zarete halako, non esnez haztekoak baitzarete eta ez jaki sendoz.

13. Bada, esnez hazten dena, zuzentasunaren gaineko solasaren ardiesteko ez da gai; haurregi da ezen.

14. Bainan gizon eginentzat da jan sendoa, hainentzat zeinen adimenduak ohiduraz ikhasiak baitire on-gaitzen ezagutzen.

VI. KAP.

1. Utziz beraz Kristoren legearen irakhaspeneko abiadurak, goazen bethetasunera, berriz hari gabe asentutzat ematen egingari hilen urrikia, eta Jainkoaren baithako fedea,

2. Bathaioaren gaineko irakhasmena, eskuen ema tekoa, hilen biztekoa eta bethiko juiamendukoa.

3. Eta hori eginen dugu, Jainkoak uzten bagaitu.

4. Alabainan ezina da, behin argitu izan direnak, zeruko dohainak ere dastatu dituztenak, eta Izpiritu sainduan phartedun egin izan direnak,

5. Jainkoaren hitz onari eta ethorri behar den mendeko gauza harri-garriei gozo hartu diotenak,

6. Eta gero erori direnak, oraino itzul ditezen urrikiaz berritzera, noiz-ere berritan hari baitire beren buruei gurutzefikatzen Jainkoaren Semea, eta laidagarri erakhusten.

7. Ezen lur batek edaten duenean gainera maiz heldu zaioen uria, eta ematen duenean hura lantzen dutenentzat on den belharra, Jainkoaren benedizioena izaten du.

8. Bainan elhorri eta astokharlorik baizen ez dakharrenean, gaitzetsia eta madarizioneari hurbil dago; sutik goanen zaio azken burua.

9. Bainan, guziz maiteak, horrela mintzo garen arren, zuetaz eta zuen salbamenduaz sinheste hobia dugu.

10. Ezen Jainkoa ez da makhurri ahanztekotzat zuek egin duzuen, eta haren izenean sainduei egin eta egiten dituzuen laguntzez erakhutsi duzen karitatea.

11. Bada, gure lehia da zuetarik batbederak azkeneraino erakhutsi dezan ardura bera, bethe dadien zuen pheskiza,

12. Eta etzaitzten nagi, bainan beren fede eta jasankortasunaren bidez agintzen premu egin direnen imitari izan zaitzetzen.



13. Alabainan-ere Abrahami agintzen egitean, Jainkoak ez baitzuen nihor bera baino handiagorik hartaz zin egiteko, bere buruaz zin egin zuen,

14. Zioelarik: Ala benedikatzuz benedikaturen eta berhatuz berhatu-
ren zaitudala.

15. Eta horrela jasankorki igurikiz, Abrahamek ardietsi du agindua izan zitzaioena.

16. Izatez-ere gizonek berak baino handiagoaz egiten dute zin, eta zina ere da hekien makhur guzien akhabantza, gauzaren finkatzeko.

17. Hala-hala Jainkoak agintzaren premuei erakutsi nahiz ezin-khor-
dokatuzkoa zela haren xedea, hitzari eratxiki zioen zina,

18. Arren-eta Jainkoak ukha ez detzazkeen bi gauza ezin-khordoka-
tuzko horien bidez, gozakaririk sendoena izan dezagun, aitzinerat emana
zaikun pheskiza ihestokitzat hartzen dugunek,

19. Hura baitugu arimaren aingura hazkar eta segur bat bezala, bela-
rneraino sartzen dena,

20. Jesus gure aitzin-bidaria sarthu den tokiraino, Melkisedeken arara
egina zelakoz bethiereko aphez nausi.

VII. KAP.

1. Ezen Melkisedek hura, Salengo errege, Jainko handiaren apheza,
zeina biderat atheratu baitzitzaioen Abrahami, erregeak xahaturik itzul-
tzen zenean, eta benedikatu baitzuen;

2. Zeinari ere Abrahamek eman baitzizkan harrapakin guziaren
hamarrenak, zeinaren izenak behintzat erran nahi baitu zuzenbidezko
errege, eta gero baitzen Salengo errege, erran nahi bakezko errege;

3. Zeinari ez baitzaio aiphatzen ez aitarik, ez amarik, ez iraulgirik, ez
biziaren haste eta akhabantzarik, horrela Jainkoaren Semearean iduriko
egina, bethiereko aphez gelditzen da.

4. Iklusazue bada zenbat handi zen haina, zeinari Abraham patriar-
kak eman baitzizkan bere gauza hoberenen hamarrenak.

5. Haletan Lebiren umeetarik apheztasunera heltzen direnek, zuzen
dute legearen arabera hamarrenen altzatzea populuairean ganik, erran nahi
da beren anaien ganik, nahiz haukiek ere Abrahamen sabeletik ilkhitzen
diren.

6. Bainan hekien iraulgian aurkhitzen etzenak Abrahamen ganik
hartu zituen hamarrenak, eta benedikatu zuen agintzen jabe zena.

7. Ezin ukha daiteke bada, xumeago denak handiago denaren ganik
hartzten duela benedizioena.

8. Eta hemen, hamarrenen hartzaileak gizon hilkizun batzu dire; han
berriz, lekhukotasun egiten da bizi dela.

9. Eta (errateko moldez) Lebig, zeinak altxatzen baititu hamarrenak,
berak ere eman izan ditu Abrahamen bidez;

10. Ezik oraino bere aitaren sabelean zen, haren bidera goan zenean
Melkisedek.

11. Bada, Lebiren apheztasunaren bidez (ezik haren azpian izan zuen
populuak legea) gizonak hel balin bazitezkeen zuzentasun osora, gero-
goiti zer premia zen bertze aphez bat altxa zadien Melkisedeken arakoa
eta ez Aaronen arakoa?

12. Alabainan aldatu denaz geroztik apheztasuna, premia da egin
dadien legearen aldapena ere.

13. Ezen nortaz-ere horiek erranak baitire, bertze leinu batetarik da,
hartarik egundaino nihor ez baita aldarean zerbitzatu.

14. Ageri da alabainan gure Jauna ilkhi dela Judaren leinutik, zeina-
rentzat Moisesek ez baitu apheztasunean ikhustekorik batere aipatu.

15. Eta hori ageriago da oraino, Melkisedeken arara ilkhitzen denaz
geroztik bertze aphez bat,

16. Ezarria ez dena haragiari manatzen duen legearen arabera, bai-
nan-bai ezin-ahituzko bizitzearen berthuteak agintzen duen bezala.

17. Errana da ezen: Bethiko aphez zare zu, Melkisedeken arara.

18. Khendua da beraz aitzineko legea, hutsal eta alferra delakoz;

19. Ez du alabainan deusik osotasunera ekharri; ethorri zaiku ordean
igurikimen hobe bat, Jainkoaren ganat hurbilarazten gaituena.

20. Eta zenbatenez-ere baita jarria, ez zinik gabe (bertzeak bada zinik
gabe aphez eginak izan dire,

21. Hau ordean zinekin egina izan da hainaz, zeinak erran baitio: Zin
egin du Jaunak eta etzaio urrikituren; bethiko aphez zare zu);

22. Hanbatenez batasun hobearen berme jarri izan da Jesus.

23. Bertzeetarik orai arteo izatu da asko aphez, zeren-eta heriotzeak
ez baitzituen bethi irautera uzten;

24. Hunek ordean dirauelakoz bethi, bethirainoko apheztasuna badu.

25. Hargatik, gure ararteko izateko bethi bizi denak, bethi salba
detzazke haren bidez Jainkoaren ganat hurbiltzen direnak.

26. Egoki zen alabainan izan ginezan halako aphez nausi bat, sain-
dua, hobengabea, khutsatugabea, bekhatoreetarik berezia, eta zeruetarik
gorago altxatua;



27. Zeinak ez baitu bertze aphezek bezala egun oroz bitimark eskaini behar, lehenik bere bekhatuentzat, eta gero populuarentzat; ezen hau behin egin izan du bere burua eskaintzean.

28. Legeak aphez egin ditu alabain gizon erphil batzu; bainan legeaz geroztik zinekin atheratu den hitzak, Seme perfet dena.

VIII. KAP.

1. Horren gaineko solas guzia huntan da: Halako aphez nausi bat dugula, non zeruetan jarria baitago Guziz-Handiaren tronuaren eskuinean,

2. Saindute giko eta Jaunak (ez gizonak) egin duen egiazko tabernakle hartako ministro delarik.

3. Ezik edozein aphez nausi emaitza eta bitima eskaintzeko ezartzen da; aria hortaz premia da izan dezan hunek ere eskaintzekorik zerbait.

4. Izan ez balitz beraz lurraren gainekotzat baizik, etzen batere izanen aphez, emaitzak legearen arabera eskaintzen zituztenak bazirenez geroztik,

5. Zeinen zerbitzuak erakhusten baititu zeruko gauzen itxurapen eta itzalak, Moisesi errana izan zitzaioen bezala akhabatzen zuenean tabernaklea: Ohartemazu gauza guziak egin dedatzun mendi gainean erakhutsi zaitzun moldearen arabera.

6. Orai ordean hanbatenaz izatu du gure aphezak ministerio hobia, zenbatenaz-ere baita batasun hobearen, eta batasun agintza hobeen gainean jarria denaren bitharteko.

7. Ezen baiarik gabe izan balitz lehenbiziko batasuna, bigarren baten ezar beharrik etzitekeen.

8. Bada, Israeldarre gaizkiak erratean, hunela mintzo da Jainkoa: Hara ethorriko direla egunak, dio Jaunak, eta batasun berri bat eginen dut Israelgo etxearekin eta Judako etxearekin;

9. Ez horien aitekin (eskutik hartu nituenean Egiptoko lurretik atteratzeko) egin nuen batasuna bezalakoa; ezen ez dire enekilako batasunean egotu, eta bazterrerat utzi ditut nik ere; dio Jaunak;

10. Ezen hau da egun haukien ondotik Israelgo etxearentzat xuxendu dudan batasuna, dio Jaunak: Ene legeak sarthuko ditut horien gogotan, eta iskribatuko ditut horien bihotzean; eta ni izanen naiz horien Jainkoa eta horiek ene populua;

11. Eta batbedera ez da hariko bere lagunari irakhasten, eta bere lagunari erraten: Ezagut zazu Jauna; zeren xumeenetik handienera orok eza gutuko bainaute;

12. Barkhatuko diozkatet ezen beren gaizkiak, eta hekien bekhatuez ez naiz gehiago orhoituren.

13. Aldiz batasun berriaz aipatu duenean, zahar erakhutsi du lehenekoa; eta zahartzen eta noizbaitkotzen hari den gauza, akhabantzatik hurbil da.

IX. KAP.

1. Egia da ere lehenbiziko batasunak izan dituela Jainkoaren zerbitzuko legeak eta mendeko saindute gija.

2. Tabernakleari ezen egin izan zioten aitzindegi bat, Saindua deitzen zena, zeintan baitziren ganderailua, mahaina eta ogi eskainiak.

3. Berriz, bigarren belaren gibelean zen sainduen Saindua deitzen zen bertze tabernakle bat;

4. Han baitziren urhezko isentsuntzia, batasuneko arkha, alde orotarik urhez estalia, eta haren barnean urhezko untzi bat manaz bethea, Aaronen zigor hostatu zena eta batasuneko lauzak,

5. Eta gainean ziren Kerubin ospetsuak, propiziatorioari itzal egiten ziotenak; bainan ez da hemen gauza bakhotxaz aldizka mintzatu beharrik.

6. Horiak hola xuxendu ondoan, aphezak, sakrifizioetako eginbideen bethetzean, noiz-nahi sartzen ziren aitzineko tabernaklean.

7. Bainan bigarren tabernaklean, aphez nausia bakharra sartzen da urthean behin, ez odolik gabe, zeina eskaintzen baitu bere eta populuaren bekhatuentzat;

8. Hortaz erakhusten baitzuen Izpiritu sainduak, egiazko saindute giaren bidea etzela oraino idekia, lehenbiziko tabernakleak ziraueno.

9. Horiak ziren oraiko denboraren itxurapena, zeinaren arabera eskaintzen baitire emaitzak eta bitimak, ohore hekien bihurtzailea kontzientziaren arabera garbitasun osoan ezin eman zezaketenak, janhari eta edari batzuez bakharrak,

10. Eta garbiketa eta bertze zeremonia, legearen berritzeko orduraino ezarriak ziren batzuez.

11. Bainan ethorri denean Kristo, ethorkizuneko ontasunetako aphez nausia, tabernakle handiago eta perfetago batetarik, ez eskuz eginetik, erran nahi da hemen egiten direnak bezalakotik,

12. Saindute gian sarthu da behin, eta ez akher edo aratxeen odolaren bidez, bainan ber-beraren odolaren bidez, bethiereko berrerospena guretzat ardietsirik.

13. Ezen baldin akher eta zezenen odolak eta miga hauts urztatuak, haragiaren garbipenetan sainduesten baditu khutsatu direnak;



14. Zenbatez hobeki Kristoren odolak, Kristo zeinak bere buru not-hagabea Izpiritu sailduaz eskaini baitio Jainkoari, gure kontzientzia gar-bituko du eginkari hiletarik, Jainko biziaren zerbitzatzera gure ekhartzea gatik.

15. Eta haletan da testament berriaren ararteko; arren-eta, testament zaharraren azpian egin diren bekhatuen berreroskotat jasan duen herio-tzeari esker, deithuak direnek ardiets dezaten agindua den primantza bet-hierekoa.

16. Ezen testament bat den tokian, premia da hiltzera ethor dadien testamentaren egilea.

17. Heriotzeak alabainan ematen dio testamentari bere indarra; bertzela ez da balios, testamentaren egilea bizi deno.

18. Hargatik lehenbiziko testamenta ere etzen odolik gabe finkatua izan.

19. Ezen, populu guziari irakurtu ondoan legeko manamendu guziak, Moisesek urarekin harturik aratxeen eta akherren odola, eta batean ile eskarlatez gorritua eta hisopoa, ihinzatu zituen liburua bere eta populu guzia,

20. Zioelarik: Hau da Jainkoak begiratzera eman darotzueten testa-menteko odola.

21. Tabernaklea ere eta Jainkoaren zerbitzuko tresna guziak odolez ihinzatu zituen.

22. Eta legearen arabera, hurren gauza guziak odolarekin garbitzen dire, eta odol ixurketarik gabe ez da barkhamendurik egiten.

23. Premia zen beraz zeruko gauzen itxurak izan zitezen holako bitimen bidez garbituak, baina zeruko gauzak berak horiek baino bitima hobegoez.

24. Jesus ezen, ez da eskuz eginikako saildutegian sarthu, egiazko Saildutegiaren itxura zen hartan; baina zeruan berean sarthu da, orai guretzat agertzeko Jainkoaren aitzinera;

25. Eta ez askotan eskaintzeko bere burua, hala-nola aphez nausia urthe bakhotx saildutegian sartzen baita bereaz bertzeen odolarekin;

26. Bertzela, behar zitekeen Kristok askotan jasan zezan munduaren hastetik hunat; orai ordean behin mendeen akhabantzan agertu da, bitimatat bere burua eskainiz bekhatuaren ezeztatzeko.

27. Eta nola gizonei erabakia baitzaiote behin hiltzea, horren ondolik berriz juiamendua;

28. Halaber Kristo ere behin izan da eskainia, hainitzen bekhatuen iraungitzeko; bertze aldi bat agertnko da, bekhatu ariarik gabe, haren iguri daudezenen salbatzeko.

X. KAP.

1. Legeak alabainan ethorkizuneko ontasunen itzala baitzuen, eta ez gauzen moldea bera; urthe oroz baratu gabe eskaintzen dituzten bitima berez ez ditezke garbitasun osorat ekhar hurbiltzen direnak;

2. Bertzenaz, baratuko ziren eskaintzetik, zeren-eta eskaintzaileek ez baitzuten, behin garbituz geroztik, beren baithan gehiago hautemanen bekhatua;

3. Eta bizkitartean urthe oroz sakrifizio hekietan egiten da bekhatuen orhoitzapena.

4. Alabainan zezenen eta akherren odolaz bekhatuen khentzea, ezin den gauza da.

5. Hargatik dio Kristok mundura sartzean: Ez duzu nahi izan ez bitimarik ez eskaintzarik, baina gorphutz bat egin darotadazu;

6. Bekhatuarentzateko holokaustak ez dire zure gogarako izatu.

7. Erran dut orduan: Huna heldu naizela, nitaz liburuaren buruan iskribatua den bezala: Heldu naiz, Jainkoa, zure nahiaren egitera.

8. Behin erran ondoan: Ez duzu nahi izan bekhatuarentzateko bitimarik, eskaintzarik eta holokaustarik, eta legearen araberako sakrifizioak ez dire zure gogarako;

9. Erran dut orduan: Huna non heldu naizen, oi Jainkoa, zure nahiaren egitera. Jainkoak haletan khentzen du lehenbiziko sakrifizioa, bigarrenaren jartzeko.

10. Jainkoaren nahi horrek sailduetsi gaitu, Jesu-Kristoren gorphutzaren eskaintza behingorearen bidez.

11. Eta noiz-ere egun oroz aphez guziak sakrifizio egitera goaten baitire, askotan eskainiz, bekhatua niholaz-ere ezin khen dezaketen bitima ber batzu;

12. Hura aldiz, bitima bakhar bat bekhatuarentzat eskaini ondoan, Jainkoaren eskuinean bethikotzat jarria dago,

13. Gainerako bethetzekoak direnen iguri, bere etsaiak oimpeko alkhi ezarriak izan dakizkion arteo.

14. Alabainan eskaintza bakhar batez osoki garbitu ditu bethiko sailduetsi dituenak.

15. Bada, Izpiritu sailduak berak hortaz ematen daroku lekhukotasun. Ezik erran ondoan:



16. Hau da berriz, horiekin eginen dudan batasuna egun hekien buruan, dio Jaunak: Ene legeak ezarriko ditut horien bihotzetan eta iskribatuko horien gogoetan;

17. Eta horien bekhatu eta gaixtakeriez ez naiz ordutik orhoituren gehiago.

18. Bada, bekhatuak barkhatuak direnean, bekhatuarentzat ez da gehiago eskaintzarik egiteko.

19. Beraz, anaiak, gogoia ondurik, Kristoren odolaren bidez sar gaiztekeela sainduteagian

20. Bide bizi eta berritik, zeina berak lehenik ideki baitu belaren itxuran, hura baita haren gorphutza;

21. Eta badugula aphez handi bat Jainkoaren etxearen buruan;

22. Hurbil gaitezen bihotz laino batekin eta fede zabalean, kontzientzia gaixtoaren khutsuetarik xahaturik bihotzak, eta ur garbiz garbiturik gorphutza;

23. Gure pheskizaren aithorra iduk dezagun khordokatuko ez den bezala (zina da ezen guri agintzak egin darozkiguna),

24. Eta elkharri begira dezagun, batak bertzearen berotzeko karitate-ra eta egintza onetara;

25. Ez utziz gure bilkhuak, zenbaitek ohi duten bezala; bainan elkhar berotuz, eta hanbatenaz hobeki, zenbatenaz-ere ikhusten baituzue hurbiltzen eguna.

26. Alabainan egiaren ezagutza izanez geroztik, egiten badugu bera-riaz bekhatu, bekhatuarentzat ez da gehiago bitimarik gelditzen;

27. Bainan-bai juiamenduaren igurikitze ikharagarri bat, eta Jainkoaren etsaiak iretsi behar dituen su gaitza.

28. Moisesen legea hausten duena, guphiderik gabe heriotzera igortzen da bi edo hirur lekhukoren erranaren gainean;

29. Zenbat uste duzue oinhaze garratzagoak dituela merezi hainak, zeinak oinkatu baituke Jainkoaren Semea, gauza zikhin bat bezala erabili batasuneko odola, zeintaz izan baita sainduetsia, eta hidoi egin baitio graziatzko izpirituari?

30. Ezen badakigu nork erran duen: Niri dago aspertzea; nik bihur saria. Eta oraino: Jaunak juiaturen du bere populua.

31. Ala izigarri baita erortzea Jainko biziaren eskuen artera!

32. Gogorat erakhar zatzue bada beihalako egunak, argituak izanik jasaiten zintutenean atsekabeen gudu gogorra;

33. Alde batetik zinetenean laido eta jazarketen ariaz munduaren ikhugarri eginak; bertzetik berriz, halako hesturetan zaudezenen lagun bilhakatuak.

34. Alabainan ere burdinetan zirenei urrikaldu zatzaizkiote, eta bozkariorekin ikhusi ditutzue zuen buruak zuen ontasunetarik larrutzen, baitzinakiten izate hobearen eta irauten duenaren jabe zaretela.

35. Ez beraz gal, sari handia izanen duen zuen fidantzia hori.

36. Jasankortasuna ezen premiazkoa da zuentzat; arren-eta Jainkoaren nahia eginez, ardiets dezazuen agindua zaitzuen.

37. Ezik oraino aphurto bat, eta ethortzekoa dena ethorriren da, eta ez du beranduko.

38. Bada, fedetik bizi da enea den prestua; baldin gibelerat egiten badu, ez da ene arimaren gogarako izanen.

39. Gu ordean, ez gare gure galpenetan gibelerat hari garen umeak; bainan arimaren salbatzeko fedeari garraizkionak gare.

XI. KAP.

1. Bada, fedea da igurikitzeo diren gauzen izantza, eta ageri ez direnen erakhuspena.

2. Haren ariaz ezen ardietsi dute zaharrek lekhukotasun ona.

3. Fedeaz dakigu Jainkoaren hitzak egin duela mundua; haletan non ageri etzirenetarik egin baitire ageri diren gauzak.

4. Fedearen ariaz Abelek Jainkoari eskaini zioen Kainek baino bitima hobea; hartaz ardietsi zuen prestua zelako lekhukotasuna, Jainkoak erakhutsi baitzuen onhesten zituela haren eskaintzak; eta fedeaz, hila den arren, mintzo da oraino.

5. Fedearen ariaz altxatua izan zen Henok, etzezan ikhus heriotzea; eta etzen gehiago ageri, zeren-eta Jainkoak eraman baitzuen; ezik tokiz aldatua izan baino lehen izan zuen Jainkoaren gogara ibili zelako lekhukotasuna.

6. Bada, Jainkoaren gogara egitea, fedea gabe ezin den gauza da. Alabainan Jainkoari hurbiltzen denak sinhetsi behar du, badela Jainkoa, eta bilhatzen dutenen sariztatzaile dela.

7. Fedearen ariaz Noek, zerutik oraino ageri etziren gauzez mezu izanik, beldurra hartu eta arkha bat egin zuen bere etxearen salbatzeko, hartaz kondenatu baitzuen mundua, eta egin baitzen fedetik heldu den zuzentasunaren premu.



8. Fedearen bidez, Abraham deitzen denak onhetsi zuen goatea primantzaz izan behar zuen toki batetara, eta ilkhi zen norat zihoan jakin gabe.

9. Fedearen ariaz, lur arrotz batean bezala egotu zen lur aginduan, olhetan eginez bere egoitza Isaakekin eta Jakobekin, agintza beraren pre-mukhideekin.

10. Igurikitzen zuen ezik asentuak dituen hiria, zeinaren egilea eta aphaintzailea Jainkoa baita.

11. Fedeari esker Sarak ere, agorra zelarik, izan zuen amatzeko ahala, nahiz adinetan iragana ere zen, sinhetsi zuelakoz zina zela agintzaren egilea.

12. Hargatik gizon bakhar baten ganik (eta ezindua zelarik hura) ilkhi ziren zeruan izar den bezenbat ume, eta itsas-bazterrean diren ezinkhondatuzko legar izpiak bezenbat.

13. Hekiek oro fedean hil izan dire, agindu gauzak izatu gabe; bainan urrunera ikhusten eta agur egiten ziotelarik, eta aithortuz lurraren gainean arrotz eta bideant zirela.

14. Alabainan hala mintzo direnek erakhusten dute beren herriaren bilha dabiltzala.

15. Eta zein herritarik ere ilkhiak baitziren, hura izan balute gogoan, segurki bazuketen itzultzeko astia.

16. Bainan hobeago baten, erran nahi da zerukoaren lehia zuten. Hargatik Jainkoa ez da ahalke, hekien Jainkoa deithua izateaz, zeren hiri bat hekientzat aphaindu baitu.

17. Isaak fedearen ariaz eskaini zuen Abrahamek, frogapenaren azpian zelarik, eta bere seme bakharra eskaintzen zuen agintzen jabe zenak,

18. Zeinari errana izan baitzitzaioen: Isaaken ganik ilkhiko da zure izeneko iraulgia.

19. Bainan Abrahamek bere baithan egiten zuen Jainkoak hilen arte-tik ere bitzaraz zezakeela; hargatik ere hartu zuen gero gerthatuko zena- ren itxurapen bat bezala.

20. Fedearen eragintzaz Isaakek ere eman zioten Jakoberi eta Esauri ethorkizunari zagokion benedizione bat.

21. Fedearen eragintzaz Jakobek hiltzerakoan aldizka benedikatu zituen Josepen semeak, eta agur ekharri zioen haren manamenduko mak-hilari.

22. Fedearen eragintzaz Josep mintzatu zen Israelen umeen ilkhipe-naz, eta mezutu zituen bere hezurrez.

23. Fedearen eragintzaz, sorthu zenean Moises, haren burhasoek ikhusirik haren edertasuna, gorde zuten hirur hilabetez, eta etzituen erregeren erabakiak lotsatu.

24. Fedearen ariaz Moisesek, handitu zenean, ukho egin zioen Faraonen alabaren seme izenari,

25. Nahiagoz Jainkoaren popularekin atsekabetan egon, ezen-ez bekhutuko atsegin iragankorraz gozatu;

26. Egiptoarren aberastasunak baino ontasun handiagotzat baitzadu- kan Kristoren laidoa; ezik sariari begiratzen zen.

27. Fedearen bidez, utzi zuen Egipto, erregen sephaz axolarik gabe; ezik egotu zen gogor, ikhus ez daitekeena ikhusten balu bezala.

28. Fedearen ariaz egin zituen Bazko besta eta odolaren ixurpena; arren-eta lehen-sorthuak xahutzen zituenak etzetzan uki Israelen umeak.

29. Fedearen eragintzaz iragan zuten itsaso Gorria, leihor idor bat bezala; eta Egiptoarrak, bide beraz abiatu- rik, iretsi zituen itsasoak.

30. Fedearen eragintzaz erori ziren Jerikoko harrasiak, zazpi egunez Israeldarre- kien ingurua egin zuten ondoan.

31. Fedearen ariaz etzen sinhestegabekoekin galdu Errahab lilitxoa, zelatariak gorde zituena.

32. Eta zer erranen dut oraino? Astiak eskas egin legiket aipha bane- tza Jedeon, Barak, Sanson, Jephthe, Dabid, Samuel eta profetak,

33. Zeinek fedearen eragintzaz garhaitu baitituzte erresumak, zuze- nari eman bere bidea, agintzen ondoreak ardietsi, lehoinen ahoak hertsu,

34. Suaren indarra iraungi; zeinak ezpataren ahoari itzuri baitire, gaitze- tarik sendatu, gerlan hazkar egin; zeinek xahutu baitituzte etsaien armadak;

35. Zeinek emaztekiei beren haur hilak bizturik bihurtu baitiozkate. Batzu estiretan erabiliak izan dire, etzutelakoz beren bizia erosi nahi, hobeago baten aurkhitzeko berriz biztearekin.

36. Bertze batzuek aldiz jasan dituzte trufak, azoteak, burdinak eta presondegiak;

37. Izatu dire harrikatuak, zathikatuak, frogatuak, ezpataz hilak; ihes- ka ibili izan dire, ardi eta ahuntz larruz jauntziak, orotaz gabetuak, hestu- retan eta atsekabeetan;

38. Mundua etzelarik hekien dina, mortu, mendi, harpe, lureko zil- hoketan gaindi gordeka zabiltzan.

39. Eta hekiek guziek, fedearen lekhukotasunaz frogatuak izan ondo- an, ez dute halere ardietsi agindu saria;

40. Jainkoak guretzat baitzadukan hoberik zerbait, gu gabe etzeza- ten izan zorion osoa.



XII. KAP.

1. Aitzinean dugunaz geroztik hanbateko lekhuko araldea, athera gaiten sortha guzien azpitik; utz dezagun inguratzen gaituen bekhatua; eta jasan kortasunaren bidez dugun laster egin guretzat dagoen gudura;

2. Begiratzuz Jesusi, fedearen emaileri eta bethetzaileari, zeinak bizitze gozo bat bere eskuko zuelarik, ahalkea arbuatuz jasan baitu gurutzea, eta orai jarria baitago Jainkoaren tronuaren eskuinean.

3. Bekhatoreen ganik hanbateko bihurrikeria jasan duena ekharrazue beraz gogoan; beldurrez eta eror dakizuen bihotza eta ahiturik geldi zaitetzen.

4. Ezen ez duzue oraino, bekhatuaren kontra gudukatuz, odolera ino iharduki;

5. Eta ahanzi duzue zuei, ume batzuei bezala, errana den hitz gozagarri hau: Ene haurra, Jaunaren ganikako kridantzamenduaz ez izan axo-lagabe; eta akiduran ez eror azurriatzen zaituenean.

6. Ezen Jaunak gaztigatzen du maite duena, eta azotatzen bere umetzat aithortzen duena.

7. Ihardukazue kridantzamenduko orduan. Jainkoak ume batzuei bezala erakhusten darotzue bere burua; zein da ezen haurra bere aitak azurriatzen ez duena?

8. Baldin ez bazarete azurriatuak, bertze guziak hala direnean, bazterrekoak zarete beraz, eta ez zuzenbideko umeak.

9. Gure gorphutzaren aitei, azurriatu gaituztenean, ikhustate ekharri badiotegu, zenbatez jautsiago ez dugu izateko izpirituen Aitaren alderat, hala ardietsiko baitugu bizia?

10. Bada, gure aitek, egun laburretako bizi hunen arietan, kridantzatzen gintuzten, iduritzen zitzaientenaren arabera; Jainkoak ordean, on denaren arabera, kridantzatzen gaitu, gu bere saindutasunean sarraraztea gatik.

11. Bada, kridantzaldiak orduaren gainean ez du bozgarri iduri, baina bai atsekabegarri; gerorat ordean hartaz froatuak direnei ekhartzen diote zuzentasuneko fruiturik soseguzkoenak.

12. Goiti zatzue beraz zuen esku ahituak eta zuen belhaun eroriak,

13. Eta zuen oinei eragiozute urhatsa xuxen; arren-eta nihork ez dezan mainguturik zeherrerat egin, baina lehenago finka dadien onean.

14. Guziekin bakea bilha zazue eta biziaren saindutasuna, zeina gabe nihork ez baitu ikhusingen Jainkoa;

15. Begiratzuz nihork ez diozon Jainkoaren graziari hutsegini; beldurrez-eta erro kharats zenbaitek, aldaskak arthikiz goiti, poxelu egin dezan, eta hartaz khutsatuak izan ditezen hainitzak.

16. Berautzue nihor izan ez dadien lizunik edo tzarrik hala-nola Esau, zeinak jaki batentzat saldu baitzuen bere premutasuna.

17. Jakizue ezen, nola ondoan nahi baitzuen benedizionearen primantza, hastandua izan zela; etzuen alabainan aitaren urrikarazteko biderik aurkhitu, nigarrekin galda zezan arren.

18. Etzarete hurbildu uki daitekeen mendi bati, erretzen duen su bati, xirimola, hedoi eta phesia batzuei,

19. Turuta baten durrundari, eta halako mintzo bati, non aditu zutenek galdatu baitzuten hitza etzakioten gehiago berei buruz athera.

20. Alabainan ezin jasan zezaketen solas hau: Abere batek berak ukitzen badu mendia, harrikatua izanen da.

21. Eta ageri zena hain zen lazgarri, non Moisesek erran baitzuen: Iztua eta ikharatua nago.

22. Zuek ordean hurbildu zarete Siongo mendiari, eta Jainko biziaren hiriri, zeruko Jerusalemari, eta asko miletako aingeru multzoaren gana,

23. Eta zeruetan iskribatuak diren lehen-sorthuen Elizara, eta guzien juie den Jainkoaren gana, eta zorionera helduak diren prestuen izpirituen gana,

24. Eta batasun berriko arartekoaren gana, Jesusen gana, eta ixuri den odolera, zeina mintzo baita Abelena baino gorago.

25. Berautzue arbuia mintzo zaitzuen. Alabainan lurraren gainean mintzo zenean arbuia zutenak ezin itzuri badire, hanbatez gutiago, zerutik mintzo denean baztertzen garenak.

26. Haren mintzoak orduan ikharatu zuen lurra; orai aldiz agintza berri bat egiten du, diolarik: Oraino behin ikharatuko dut, ez bakharrik lurra, baina zerua ere.

27. Bada, dioenean: Oraino behin, garbiki dio aldakizun diren gauzak aldatuko dituela, beren aldia egin duten bezala, ezin-aldatuzkoak direnak iraun dezaten bakharrik.

28. Hargatik ezin-aldatuzko erresumaren gozamina hartzean, badugu grazia zeinaren bidez Jainkoa bere gogara zerbitzatu behar baitugu beldur eta ikhararekin.

29. Ezen su erregarri bat da gure Jainkoa.



XIII. KAP.

1. Anaien alderako karitatea zuen baithan egon bedi.
2. Ez ahantz arrotzei lehor ematea; ezen haletan batzuek jakin gabeen aingeruak etxerat hartu dituzte.
3. Orhoit zaitezte burdinetan direnez, hekiekin burdinetan bazinete bezala; eta borroketan nekhatzen direnez, zerorrek ere gorphutz behar-kor batean zaudezten bezala.
4. Niholere ezkontzak iduk beza bereedertasuna, eta espos ohea bedi notharik gabe. Jainkoak ezen juiaturen ditu lohiak eta bertzeen oheen khutsatzaileak.
5. Zuen bizia jaramankeriarik gabea izan bedi, duzuenaz gogoari doi eginez; ezen Jainkoak berak erran du: Etzaitut utziko, ez-eta bazterrerat emanen.
6. Aria hortaz derragu gogoa zabalik: Jainkoa dut laguntzaile; gizonak egin diazakedanaren beldur ez naiz izanen.
7. Orhoit zaitezte zuetaz kargutuak zirenez, zeinek erantzun baitarotzuet Jainkoaren hitza; eta begiratz nolakoa izan den hekien biziaren akhabantza, imita zazue hekien fedea.
8. Jesu-Kristo atzo zen, egun ere da, eta hura bera mendeetan izanen da.
9. Irakhaspen askotara eta atzetara ez utz zuen buruak. Alabainan hoberenik da graziaz gohortzea bihotza, eta ez bermatzea janhari berezietan, zeinak deusetako ez baitire baliatu hekien arabera ibili direnei.
10. Aldare bat dugu, zeintarik beren buruen hazteko eskua ez baitute tabernaklean zerbitzatzen direnek.
11. Alabainan olhetarik kanpoan erretzen dire azienden gorphutzak, zeinen odola bekhatuarentzat saildutegira eramaten baitu aphez nausiak.
12. Aria hortaz Jesusek ere, populua sailduets zezan bere odolaz, heriotzea athez kanpoan jasan du.
13. Ilkhi gaiten beraz olhetarik kanpo haren ganat, soinean daramagularik haren gurutzearen laidoa.
14. Ezen ez dugu hemen hiri iraungarririk, bainan ethortzekoa denaren bilha gabiltza.
15. Jesusen bidez baratu gabe eskain diozogun beraz laudoriozko sakrifizioa, erran nahi da haren izenari aithor bihurtzen dioten ezpainen fruitua.
16. Ez ahantz aldiz ongiaren egitea eta duzuenetik bertzeei ematea, ezen holako sakrifizioez merezitzen da Jainkoa.

17. Ethordun izan zakizkiote zuen buruzagi ezarriak direnei eta izan zaitezte hekien erranetara eroriak; ezen hekiek daude atzarriak, zuen ari-
mez on egin beharko duten bezala; arren-eta bozkarioarekin bethe dezaten beren eginbidea, eta ez hasbeherapenka, ezen hori ez liteke zuen onetan.

18. Othoitz egizue guretzat; ezik barneak lekhukotasun ona ematen daroku, gauza guzietan sailduki nahi garela ibili.

19. Eta oraino horren egiteaz minkiago othoizten zaituztet, Jainkoak zuei bihur nezan lasterrago.

20. Bakezko Jainkoak berriz, zeinak bethirainoko batasuneko odolari esker, hilen artetik atheratu baitu ardién artzain handia, Jesu-Kristo gure Jauna,

21. Eginkari on guzietarako aphain betza zuen izpirituak; egin dezauden haren nahia, berak zuen baithan bere gogarako duena egiten duelarik Jesu-Kristoz, zeinari ospe zor baitzaio menderen mendetan. Halabiz.

22. Bertzalde othoizten zaituztet, anaiak, onhets dezazuen gozakarizko solas hau, hitz gutirekin iskribatu darotzuedan arren.

23. Jakizue libratua dela gure anaia Timotheo; zeinarekin, laster heldu bada, ethorriko bainatzaitzue ikhustera.

24. Agur egiozute zuen buruzagi eta saildu guziei; Italiatik gorain-
tziak gaztiazten darozkitzute anaiak.

25. Zuekin ororekin izan bedi grazia. Halabiz.



JAUN DONE JAKOBE APOSTOLUAREN GUTUN KATOLIKOA

I. KAP.

1. Jakobek, Jainkoaren eta Jesu-Kristo gure Jaunaren zerbitzariak, hamabi leinu barriatuak direnei, agur.
2. Anaiak, guzizko bozkariotzat idukatuzue heltzen zaizkitzuen nolana hiko atsekabeak;
3. Zeren baitakizue jasankortasuna dakharla zuen fedearen frogape-nak.
4. Jasankortasunak berriz, obra perfeta dakhar, osoki perfet eta itzal-gabe izan zaitezten, deuseren eskas izanen etzareten bezala.
5. Zuetarik norbait zuhurtziaren eskasean bada, galda biozo Jainkoari, zeinak lainoki eta iroirik gabe guzien gainerat ixurtzen baititu bere dohainak, eta emana izanen zaio.
6. Bainan federekin galda beza, batere khordokatu gabe; khordokatzen denak ezen iduri du itsasoko uhina, haizeak erabiltzen eta inguruka eramaten duena.
7. Beraz halako gizona ez bedi igurik Jainkoaren ganik zerbaiten iza-tera.
8. Gogoia bi aldetara dadukan gizona, aldakor da bere bide guzietan.
9. Bada, aphala den anaiak ospe athera beza bere goratasunaz;
10. Aberatsak aldiz bere aphaltasunaz, zeren baita belharraren lorea bezala iraganen.
11. Ezen ilkhi da iguzkia bere khaldarekin; ihartzen du belharra, eror-tzen da lorea, eta histen da haren edertasuna; hala-hala bere bideetan iraungitzen da aberatsa ere.
12. Dohatsu gizona, tentazionea ongi jasaiten duena; zeren-eta, fro-gatua izan ondoan, emanen baitzaio Jainkoak bere maithatzaileei agindu dioten bizitzeko khoroa.
13. Nihork, tentatua denean, ez beza erran Jainkoak tentatzen duela; ezen Jainkoa ez da gaizkirat hizitatzaile; harek berriz, ez du nihor tentatzen.
14. Bainan batbedera bere zalekeriaz da tentatua, bildua eta amainatua.
15. Gero, gozo hartu ondoan, zalekeria bekhatuaz erditzen da; bek-hatuak aldiz, obratua denean, sortzen du heriotzea.
16. Hargatik, anaia guziz maiteak, makhurrean ez jo.

17. Gainetikakoak dire grazia guziz on eta dohain bethe guziak; argien Aitaren ganik jausten dire, haren baithan ez baita ez aldatze, ez aldarde itzalik.

18. Ezen bere oldetara aitatu da gutaz egiaren hitzaz, izan gaitezen haren kreaturen pikainak bezala.

19. Badakizue hori, anaia guziz maiteak. Berriz, gizona izan bedi aditze-rat erne, bainan mintzatzerat herabe, eta hasarretzerat nagü.

20. Alabainan gizonaren sepha ez dabila Jainkoaren araberako egin-kari zuzenetan.

21. Hargatik hastandurik lizunkeria guziak eta gaixtakeriako urhatsak oro, emetasunekin onhetsazue zuen baithan eraina den hitza, zeinak salba baitetzazke zuen arimak.

22. Berriz, hitzaren obratzaile izan zaitezte, eta ez bakharrik entzule, zuen buruak enganatuz.

23. Alabainan aditzaile denak, eta ez egile, iduri du mirail batean bere ahurpegiari begira dagoen gizona;

24. Ezik bere buruari begira egon, eta goan da, eta nolakoa den ahan-tzi du berehala.

25. Bainan nork-ere libertateko lege perfetari begiratuko baitio, eta hartan egonen baita, ez aditzaile ahanzkor, bainan lanaren egile bezala haina bere eginkarien bidez izanen da dohatsu.

26. Baldin norbaitek bere burua jainkotiar badaduka, bere mihia ez duelarik tratatzen, bai ordean bere bihotza enganatzen; alferra da hainaren jainkotiartasuna.

27. Jainko Aitaren aitzinean garbia eta nothagabea den jainkotiarta-suna, hau da: Umezurtz eta alhargunen ikhustera goatea beren atseka-beetan, eta mende hunen ganik bere burua garbi idukitzea.

II. KAP.

1. Anaiak, Jesu-Kristo gure Jaunaren ospean sinheste duzuen bezala, nor-nor-den niholaz ez begira.

2. Alabainan-ere zuen bilkhura sartzen bada gizon bat urhe erreztu-na erhian eta aldagarri eder bat soinean; berriz, behartto bat ere sartzen bada philda txarrekin;

3. Eta aldagarri ederra soinean duenari begira jarri, eta erraten badio-zue: Ohorezki jar zaite hemen; beharrari aldiz erraten badiozue: Hi, ago hor xutik; edo jar hadi ene oinetako alkhiaeren behereko aldean;

4. Ez othe duzue zuen baithan juiatzen, eta ez othe zarete gogoeta tzarretako juieak egin?



5. Adi zazue, anaia guziz maiteak, Jainkoak ez othe ditu mundu huntan beharrak hautatu, fedean aberats egiteko, eta maite dutenei agindu dioten erresumaren premutzat?

6. Zuek aitzitik, beharra arbuaitzen duzue. Ez othe dire aberatsak, beren ahalaren bidez zaphatzen eta juiéen aitzinera herrestatzen zaituztenak?

7. Ez othe dire hekiek, zuen gainera deithua den izen saindua burhoztatzen dutenak?

8. Baldin bada, Iskrituren arabera bethetzen baduzue errege legea: Zure laguna maitha zazu zure burua bezala; ongi egiten duzue.

9. Nor-nor-den begiratzen bazarete ordean, bekhatu egiten duzue, eta legeak lege hauste bezala kondenatzen zaituzte.

10. Bada, nork-ere lege guzia idukitzen baitu, bainan gauza batean dainatzen, guziaz hobendun egin da.

11. Alabainan erran duenak: Bertzeren emaztearekin etzare khutsatuko, erran du halaber: Ez duzu hilen. Baldin ez bazare khutsatzen, bainan hiltzen baduzu, legearen hausle zare.

12. Hala mintza eta hala egizue, nola libertateko legeaz juiatuak izatera bazindohazte.

13. Ezen urrikalmendu gabeko juiamendua dago, urrikalmendurik hartu ez duenarentzat; bainan urrikalmendua juiamenduaren garai da.

14. Anaiak, zer baliaturen da gizona, fedea baduela erranez, egintzarik ez balin badu? Haren salbatzeko gai othe da fedea?

15. Bada zure anaia eta arrea biluz balin badire, eta eskas badute egunean eguneko jatekoa;

16. Eta erran diozoten zuetarik norbaitek: Zoazte bakearekin, bero eta ase zaitezte; bainan gorphutzeko behar dutena ez badiozute ematen, zer baliatuko dire?

17. Horrela fedea ere, eginkaririk gabe bada, berenez hila dago.

18. Bainan erranen du norbaitek: Zuk fedea duzu, eta nik egintzak; erakhuts dizadazut zure fedea eginkaririk gabe, eta nik erakhutsiko darotzut egintzetarik ene fedea.

19. Zuk sinhesten duzu Jainko bakhar bat dela; ongi egiten duzu: debruek ere sinhesten dute, eta ikharatzen dire.

20. Oi gizon hutsala, nahi duzu bada jakin, fedea nola den hila eginkaririk gabe?

21. Abraham gure aita ez othe zen egintzen bidez zuzentzat atheratu, Isaak bere semea zuenean aldarearen gainean eskaini?

22. Ez duzu ikhusten fedea laguntzen zituela haren egintzak, eta egintzek fedeari ematen ziotela bethetasuna?

23. Eta orduan bethe zen Iskriturak dioena: Abrahamek sinhesti zuen Jainkoa, eta zuzentasuntzat iratxikia izan zitzaioen, eta Jainkoaren adiskide izan zen deithua.

24. Ikhusten duzue nola eginkarien bidez zuzen atheratzen den gizona, eta ez bakharrik fedearen bidez?

25. Errahab lilitoxa ere ez othe zen eginkariei esker zuzen atheratu, bere etxerat hartu zituenean berriketariak, eta bertze bide batetik gibelerat igorri?

26. Alabainan gorphutza nola, arima gabe hila baita, orobat egintzarik gabe hila da fedea.

III. KAP.

1. Anaiak, ez bezaitzte jar asko nausi, dakizuelakoz juiamendu garratzagoaren meneko zaretela jartzen.

2. Guziak ezen askotan gare behaztopatzen. Norbaitek mihitik ez badu hutsegiten, haina gizon perfeta da; gorphutz guzia ere inguruka erabil dezake kaprestutik bezala.

3. Bada, zaldiei ahoan ezartzen badiotegu muthurrekoa gure nahia- ren eginarazteko, itzulika erabiltzen dugu hekien gorphutz guzia.

4. Hara untziak ere, zenbat-nahi handiak izan ditezen, eta haize hazkarrek eragin diozoten, lema xumetto batek inguruan derabilzka, lema-zainak nahi izanen duen alderdira.

5. Halaber mihia ere gauza aphurra da, eta handiak eginarazten ditu. Hara zein phindar xumeak, zein oiha handia duen erretzen

6. Mihia ere su bat da, tzarkeriazko mundu bat. Mihia gure alderdien artean dago, gorphutz guzia nothatzen duena; eta ifernuak khaldaturik, sutan ezartzen du gure biziaren iraupen guzia.

7. Gizonak ezen, basabere, hegastin, zierpe eta diren bertze guziak hezten ditu eta heziak daduzka.

8. Bainan ez da gizonik hez dezakeenik mihia, gaitz khexu eta phozoin hilgarritz bethea.

9. Mihiarekin benedikatzten dugu Jainko gure Aita, eta mihiarekin madarikatzten ditugu gizonak, Jainkoaren idurira eginak direnak.

10. Aho beretik ilkhitzen dire benedizioea eta madarizioea. Anaiak, ez dire horiek hola behar.

11. Ithurri batek zirritu beretik ixurtzen othe ditu ur ezta eta ur kharatsa?

12. Anaiak, pikondo batek ekhar ahal othe detzazke mahatsak, eta aihen batek pikoak? Hala-hala ithurri gaziak ez dezake ur ezirik eman.



13. Nor da zuen artean zuhurrik eta jakinik? Hainak erakhuts betza bere eginkariak bizitze on batetik zuhurtziaren eztitasunaz.

14. Bainan bekhaizgo uherra, eta eskatimak balin badaude zuen bihotzetan, espanturik ez erabil, eta egiaren kontra ez izan gezurti.

15. Ez da hori gainetik jausten den zuhurtzia; bainan-bai lurtiarra, abereen eta debruen araberakoa.

16. Ezik non-ere baitaude bekhaizgoa eta khimera, han ere dire nahaskeria eta lan tzar guziak.

17. Bainan gainetik heldu den zuhurtzia, behin garbia da, gero bake-tiarra, emea, bil-errea, ongirat erorkor, urrikalmenduz eta eginkari onez bethea, ez juiatzaile, ez alegiakari.

18. Bada, zuzentasuneko fruitua, bakean eraiten dute, bakezko lanak egiten dituztenek.

IV. KAP.

1. Nondik heldu dire zuen arteko gerla-hauziak? Ez othe huntarik, zuen baithan borrokan hari diren zalekerietarik?

2. Zale zarete, eta ez duzue izaten; hiltzen duzue, eta bekhaizti zarete, eta ezin ardiets; baderabilazue hauzi eta gathaska, eta ez duzue izaten, zeren-eta ez baituzue galdatzen.

3. Galdatzen duzue, eta etzaitzue heldu, zeren gaizki galdatzen baituzue, zuen zalekerien asetzeari gatik.

4. Bertzeen oheen khutsatzaileak, ez dakizue mundu hunekilako adiskidegoa, Jainkoarekilako etsaigoa dela? Nor-ere beraz mundu hunen adiskide izan nahi baita, Jainkoaren etsai jartzten da.

5. Ala uste duzue alferretan dioela Iskriturak: Bekhaiztiki du maite zuen baithan dagoen izpirituak?

6. Grazia handiagoea ematen du ordean. Hargatik erraten du: Burgoiei gogor egiten diote Jainkoak; aphalei aldiz ematen diote grazia.

7. Jauskor izan zakizkiote beraz Jainkoari; aitzitik bihur zaitezte debruari, eta zuen ganik ihes eginen du.

8. Jainkoaren ganat hurbil zaitezte, eta hurbilduko zaitzue. Garbi zatzue eskuak, bekhatoreak; eta xahu zatzue bihotzak, bi aldetara zaudetzenek.

9. Jar zaitezte minez, auhen eta nigarretan; zuen irria nigarretara itzuli bedi, zuen bozkarioa kuintetara.

10. Aphal zaitezte Jaunaren aitzinean, eta harek goratuko zaituzte.

11. Anaiak, elkharrentzat ez mintza gaizki; anaiarentzat gaizkika, edo haren juiatzen hari dena, legearentzat gaizkika eta legearen juiatzen hari da. Bada, legea juiatzen baduzu, etzare legearen bethetzaila, bainan jui.

12. Lege emaile bat bakharra da, eta jui bat, zeinak gal edo salba baitetzake.

13. Nor zare ordean zu, laguna juiatzen duzuna? Huna orai, erraten duzenak: Egun edo bihar hulako hirira goanen gare; han egonen gare urthe bat, eta hariko gare tratuan, eta eginen dugu irabazi;

14. Ez dakizue-eta zer izanen den bihar.

15. Zer da ezen zuen bizia? aphur bat agertzen den bafada, eta gero iraungiko dena, hargatik erran dezazuentzat: Jainkoak nahi izaten badu; eta hau ere: Bizi izaten bagare, eginen dugu hau edo hori.

16. Orai aitzitik zuen hanpuruskerietan goratzen zarete. Gaixtoak dire horrelako burgoikeria guziak.

17. Dakienak beraz zer ongi behar duen egin, eta ez egiten halere, hainak bekhatu egiten du.

V. KAP.

1. Hean orai, aberatsak, nigarrari eman zaitezte, orrobiak eginez gertatzerari dihoazkitzuen gaitzen ariaz.

2. Usteldu dire zuen aberastasunak; biphiek jan dituzte zuen aldagarriak;

3. Herdoildu dire zuen urhe-zilharrak; eta hekien herdoila lekhuko zuen kontra izanen da, eta suak bezala iretsiko ditu zuen haragiak. Zuen azken egunen gainera murrukatu duzue Jainkoaren hasarrea.

4. Hara zuen lurretan uzta egin duten langileei ebatsi diozueten sariak oiheri egiten duela, eta hekien deihadarrak jo du armadetako Jaunaren beharria.

5. Gozo-pean bizi izan zarete lurraren gainean, eta atsegin-pean hazi izan dituzte zuen bihotzak sakrifizioko egunekotzat.

6. Prestua kondenatu eta hil duzue eta etzaitzue bihurtu.

7. Zuek bada, anaiak, jasankor izan zaitezte, Jauna ethorriko den eguneraino. Hara laboraria badagoela lurreko fruitu baliosaren iguri, emeki jasanez izan arteo uri goiztiarra eta berantarokoa.

8. Zuek ere beraz jasankor izan zaitezte, eta hazkar zatzue zuen bihotzak, zeren hurbil baita Jauna ethorriko den eguna.

9. Anaiak, kuintarik ez egin batak bertzearen kontra, izan etzaitzeten kondenatuak. Hara juieta athe aitzinean xutik.



10. Anaiak, jaunaren izenean mintzatu diren profetak har zatzue, ondorio gaitzen, nekheen eta jasankortasunaren irakhaskari.

11. Hara jasaileak dohatsu deithuko ditugula. Aditu duzue Joben jasankortasuna, eta ikhusi Jaunaren akhabantza, ezen urrikalkor eta urrikalmendutsu da Jauna.

12. Bainan, anaiak, oro baino lehen, zinik ez arthik ez zeruaz, ez lurraz, ez-eta edozein bertze gauzaz. Bainan hau izan bedi zuen hizkuntza: Hola da, ez da hola; eror etzaitetzen juiamenduaren azpira.

13. Ilhutzen da zuetarik norbait? othoitz egin beza. Gozoan da? kantikak kanta betza.

14. Zuetarik norbait eritzen da? deith betza Elizako aphezak, eta othoitz egin bezate haren gainera, Jaunaren izenean olio gantzutzen dutelarik;

15. Eta fedezko othoitzak salbatuko du eria, eta Jaunak arinduko du; eta bekhatutan balin bada, barkhatuak izanen zaizko.

16. Elkharrri egiozue zuen bekhatuen aithorra, eta elkharrentzat othoitz egizue, salba zaitetzen; ezik indar handia du prestuaren othoitz jarraikiak.

17. Elias gizon bat zen gu bezala gaitzaren meneko; eta minki othoitz egin zuen uririk etzadien lurraren gainerat eror, eta hirur urthe eta sei hila-bethez etzen uririk egin.

18. Eta berriz egin zuen othoitz, eta zeruak eman zuen uria, eta lurrak ekharri bere fruitua.

19. Anaiak, zuetarik bat egiatik makhurtzen bada, eta norbaitek handik itzularazten badu;

20. Jakiteko du, bekhatorea bere bide zeisherretik itzularaziko duenak, heriotzetik salbatuko duela haren arima, eta bekhatu murru bat estaliko duela.

JAUN DONE PETRI APOSTOLUAREN LEHENBIZIKO GUTUNA

I. KAP.

1. Piarressek, Jesu-Kristoren apostoluak, Ponton, Galatian, Kapadozian, Asian eta Bithinian barraiatuak diren arrotz,

2. Jainko Aitaren egundainotikako jakitatearen arabera, Izpirituaz, ethorduntasunaz eta Jesu-Kristoren odol ixuriaz saildutzeko hautetsiei: Grazia eta bakea gairi bekizkitzue.

3. Benedikatua izan bedi Jainkoa, Jesu-Kristo gure Jaunaren Aita, zeinak bere urrikalmendu handiaren arabera, hiletarik bitzaraziz Jesu-Kristo, geroni sortherritu baikaitu pheskiza bizi batetara,

4. Ardiesteko ezin-andea, ezin-narria, ezin hits daitekeen primantza, zeruetan begiratu dena zuentzat,

5. Zeinak, fedeari esker, Jainkoaren eragintzaz zainduak baitzarete, azken egunetan agertzekotzat aphaindua den salbamendurako.

6. Hargatik boztuko zarete, orai aphur bat hestutuak izan behar bazarete ere asko frogapenez,

7. Arren-eta frogatua izanen denean zuen fedea, suaz frogatzen den urhea baino baliosagoa dena, aurkhi dadien laudorio, ohore eta osperen merezdun, noiz-ere agertuko baita Jesu-Kristo,

8. Zeina baituzue maite, nahiz ez duzuen ikhusi; zeinaren baithan orai ere, nahiz ez duzuen ikhusten, sinhesten baituzue; sinhesten duzue-lakoz ordean boztuko zarete ezin-erranezko bozkario ospetsuaz,

9. Irabaziz zuen fedearen azken saria, hura baita arimen salbamendua.

10. Salbamendu hari zarraizkion eta hartaz bilhatzen ziren, zuek izatekoa zinduten graziaz aitzinetik aiphatu duten profetak,

11. Ikhartuz noiz edo nolako ordua seinatalzen zuen hekien baithan Kristoren Izpirituak, aitzinetik ezagutaraztean Kristok jasan behar zituen oinhazeak eta ondoko ospeak.

12. Agertua izan zitzaizoten etzituztela berentzat, bainan-bai zuentzat ezagutarazten, orai zuei erantzunak zaizkitzuen gauzak, Ebanjelioa ekharri darotzueten gizonez, zerutik bidalia izan den eta aingeruek ikhusi nahi duten Izpiritu sailduaren eragintzaz.

13. Aria hortaz, gogoak berorik, atzartasun oso batean igurikazue, Jesu-Kristo agertuko denean ekharriko zaitzuen grazia;



14. Ume ethordun batzu bezala zaretelarik, ez eroriak, argituak etzi-
neteneko zuen lehia zaharretara,
15. Bainan zuek deithu zaituztena Saindu den bezala, zeronek ere
zuen bizi-molde guzian saindu izan zaitezte;
16. Zeren-eta iskribatua baita: Saindu izan zaitezte, zeren ni saindu
bainaiz.
17. Eta nor-nor-den begiratu gabe, batbedera bere egintzen arabera
juiatzen duena Aitatzat deitzen duzenaz geroztik, beldurrean bizi zaitez-
te zuen arrozgoko egunetan;
18. Dakizuelakoz etzaretela gauza andeakor batzuz, urhe edo zilha-
rrez berrerosiak izan bizitze hutsal zuen aiten ganik zinutenetik;
19. Bainan-bai Kristoren odol baliosaz, Kristo bildots garbi eta not-
hagabea den bezala,
20. Mundua egin baino lehen ezagutua, azken denboretan berriz,
agertu dena zuen gatik,
21. Zeinak haren bidez fededun baitzarete Jainkoaren baithan, harek
biztu duelakoz hilen artetik, eta ospetan ezarri, Jainkoaren baithan egon
ditezen zuen fedea eta igurikimena.
22. Garbitasuna zuen arimei ematen diozuelarik karitatearen ethor-
kortasunaz, anaien arteko amodioaz, ardura handirekin elkhar maitha
zazue bihotz lainoz,
23. Berritan sorthuak zareten bezala, ez hazi andeakizun batetarik,
bainan ezin-andeatuzkotik, Jainko biziaren eta bethi guziko dirauenaren
hitzaz.
24. Alabainan belharra bezala da gizona, eta haren ospe guzia belhar
lorearen iduriko; eta ihartu da belharra eta erortzen lorea;
25. Jaunaren hitzak ordean iraunen du bethi guzian. Hitz hura berriz,
zuei erantzun den Ebanjelioa da.

II. KAP.

1. Utzirik beraz maltzurkeria guziak, zimarkhu guziak, alegia, bek-
haizgo eta mihi ukhaldi guziak,
2. Haur sorthu-berri batzu bezala, lehia zaitezte esne ispiritual garbi-
ra, haren bidez handi zaitezten salbamendurako;
3. Baldin bizkitartean dastatu baduzue zein gozoa den Jauna.
4. Hurbiltzen zaretelarik harri bizi hartara, zeina gizonaz bazterrerat
utzia baita, Jainkoaz ordean hautatua eta ohoratua,

5. Zeronek ere harri bizi batzu bezala haren gainean altxa zaitezte
etxe ispiritualetan, aphez saindu, eskaintzekotzat bitima ispiritualak,
Jainkoari Jesu-Kristoren bidez gogaragarri izanen zaizkonak.

6. Hargatik da Iskirituran errana: Huna Sionen jartzen dudala izkina-
ko harri handi, hautatu, baliosa; eta hartan sinhetsiko duenak ez du ahal-
kerik ikhusiko.

7. Hura beraz sinhesten duzuenentzat ohore da; bainan sinhesten ez
dutenez bezenbatean, etxe egileek hastandu harria, hura egin da izkina
buruko harri,

8. Eta behaztopa harri, eta gaizbide harri hitzaren gainean behazto-
patzen direnentzat, eta berak jarriak diren harrian sinhesterik ez dutenen-
tzat.

9. Zuek zarete ordean jendeki hautatua, errege-aphezak, jendaia
saindua, berrerospeneko populua, erantzun detzatzen hainaren senda-
gailak, zeinak ilhunbeetarik bere argi ederresgarrirat baitzaituzte deithu;

10. Zuek, lehenago haren populu etzinetelarik, orai ordean
Jainkoaren populu zaretenak; urrikalmendu ardietsi etzinutelarik, orai
aldiz urrikalmendu ardietsi duzuenak.

11. Othoizten zaituztet, guziz maiteak, mundu huntan arrotz eta
bideant zareten bezala, arimari gerla egiten dioten zalekeria haragikoietar-
rik begira zaitezten,

12. Bizi-molde saindu bat jendaien artean idukiz; arren-eta zuentzat
gaixtagin batzuentzat bezala gaizki mintzatzeko bidean, zuen eginkari
onetarik zuentzat hartuz ikhustate, ospe bihur diozoten Jainkoari, agertu-
ko den egunean.

13. Jainkoaren gatik beraz jauspén ekharrozuete edozein gizoni,
nahiz erregeri, buruzagi den bezala,

14. Nahiz kargudunei, harek bidaliak direnei bezala gaixtaginen gaz-
tigatzeko, eta onei ohore emateko;

15. Zeren hori baita Jainkoaren nahia, ongi eginez herts dezazuen
jakitategabeko gizon zoroen ahoa;

16. Pelutak zareten bezala, eta ez zuen pelutasuna gaizki estalgizat
bazindute bezala, bainan-bai Jainkoaren zerbitzari bezala egiteko.

17. Guziei bihurrozuete ohore, anaiatiartasuna maitha zazue,
Jainkoaren beldur izan zaitezte, ohora zazue errege.

18. Sehiak, behar den herabetasun guziarekin izan zaitezte jauskor
zuen nausiei, ez ezik on eta ezti direnei, bainan ekhargaitzei ere.

19. Ezen hunek du esker, norbaitek Jainkoaren ariaz egartzen baditu
zuzengabeko atsekabeak.



20. Alabainan zer ospe izanen duzu, baldin bekhatu eginik eta joak izanik egartzen baduzue? Bainan ongi egiten duzuelarik, jasanorki egartzen balin baduzue, horrek du esker Jainkoaren aitzinean.

21. Ezen hortara deithuak izan zarete; Kristok ere alabainan guretzat jasan du, uzten zarotzuetelarik irakhasbide bat haren urhatsei jarraitzeko;

22. Harek, zeinak ez baitu bekhatu egin, zeinaren ahoan ez baita gezurrik aurkhitu;

23. Zeinak, madarikatzen zutenean, ez baitzuen madarizioneka ihardesten; gaizki erabiltzen zutenean, ez baitzuen dixidurik arthikitzen, aitzitik bere burua ematen baitzuen gaizki juiatzen zuenaren eskura;

24. Zeinak gure bekhatuak bere gorphutzean eraman baititu gurutzearen gainera; arren-eta bekhatuarentzat hilik, zuzentasunarentzat bizi gaitezen; zeinaren zauriez sendatuak izan baitzarete.

25. Alabainan ardi errebelatuak bezala zineten, orai ordean itzuliak zarete zuen arimen artzain eta aphezpikuaren gana.

III. KAP.

1. Emaztekiek ere beren senharrei jauspen ekhar biozote; arren-eta hekietan balin bada hitzari sinheste ematen ez dioenik, emaztekiek bizi-molde onaz izan ditezen hitza gabe irabaziak,

2. Ikhustearekin, Jainkoaren beldurrez dadukazuen bizitze garbia.

3. Emaztekiek aphaindura ez bedi kanpotikakoa izan, hala-nola ile kuskuilatu, urhe gathe, soineko ederrak;

4. Bainan-bai bihotzeko gizon gordea, izpiritu baketiar eta eme baten garbitasun ezin-andeatuzkoan, hura baita Jainkoaren begietan aberats.

5. Ezen beihala, Jainkoaren baithan beren pheskiza zadukaten emazteki sainduak ere, horrela berregintzen zituzten beren buruak, beren senharren manuko egonez;

6. Hala-nola jauspen ekhartzen baitzioen Abrahami eta bere jaun deitzen baitzuen Sarak, zeinaren alaba baitzarete, ongi egitearekin nahasleriaren lotsarik batere gabe.

7. Gizonak, zuek halaber zuhurki bizi zaitezte zuen emazteekin, untzi floxago bati bezala emaztekiei ikhustate ekharriz, diren ere bezala biziaren grazian zuekin ondorekhide; arren-eta traba ez ditezen zuen othoitzak.

8. Azkenaz-goiti izan zaitezte guziak gogo bateko, urrikalkor, anaia-tiar, urrikalmendutsu, eme eta aphaltura;

9. Gaizkia gaizkiaren ez bihurtuz, ez-eta ahapaldia ahapaldiaren, bainan aitzitik ongi mintzatuz, zeren hortara deithuak baitzarete primantzaz, benedizionearen gozatzeko.

10. Ezen bizia maite duenak, eta egun onak nahi dituenak ikhusi, elhe gaixtoetarik zaint beza bere mihia, eta haren ezpainez ez bezate maltzurkeriako solasik athera.

11. Baina gaizkitik aldara bedi, eta egin beza ongia; bilha beza bakea eta hari jarraik bekio.

12. Alabainan Jaunaren begiak emerik daude prestuen gainean, eta haren beharriak ererik hekien othoitzei; bainan Jaunaren bekhurundea landatua dago gaizkia egiten dutenen gainera.

13. Eta nor izanen da zuei gaizkiaren egiteko, zuek ongirat arduratsu bazarete?

14. Bainan zuzenbidearen gatik zerbait jasaiten baduzue ere, zorian zuei Ez lotsa beraz gaizki egileen larderiez, eta ez bezaitezte asalda.

15. Bainan zuen bihotzetan bihurrozue Kristo Jaunari bere saindutasunaz ospe, bethi zaudeztelarik ihardesterat erne, zuen baithan den fedearen ariaz galdeka hariko zaitzuenari;

16. Bainan emetasunekin eta herabeki, zuen barnea garbirik idukiz; arren-eta Kristoren baithan daramazuen bizi-molde sainduaren belzten hari direnak ahalka ditezen beren erasia tzarrez.

17. Hobe da ezen jasaitea (Jainkoak hala nahi badu) ongia eginez, gaizkia eginez baino.

18. Alabainan gure bekhatuen gatik, behin hil izan da Kristo ere, prestua gaixtaginentzat, arren-eta Jainkoari eskain gintzan gu, bera hil ondoan bere haragian, bainan biztu izpirituan,

19. Zeinaren eragintzaz goan baitzen erantzutera presondegian zauden izpirituei,

20. Zeinak beihala sinhesgogor gelditu baitziren, Jainkoaren jasan-kortasunari igurikitzen zirelarik Noeren egunetan, egiten hari zenean arkha, zeinaren barnean guti bat, erran nahi da zortzi arima salbatu baitziren uraren erdian.

21. Zuek ere bathaioak orai orduko gauzen itxurapenaren azpian salbatzen zaitzute; bathaio hau ez da haragiko zikhinak khentzen dituen, bainan Jainkoaren aitzinean kontzientzia onari lekukotasun egiten dioena, hiletarik biztu delakoz Jesu-Kristo,

22. Zeina Jainkoaren eskuinean jarria baitago herioa xahaturik, gu bethiereko bizitzeaz premu egitekotzat; eta zerurat igan baita, eta bere azpiko baititu aingeruak, bothereak eta berthuteak.



IV. KAP.

1. Kristok heriotzea gorphutzean jasan duenaz geroztik, zuek ere harma zaitezte gogorapen huntaz, ezen haragiari hila dena, bekhatutik baratua dela;

2. Ez gizonen zalekerien arabera, baina Jainkoaren nahiaren arabera bizitzeko haragian eman behar duen ephe hondarra.

3. Ezik iragan denbora paganoek nahi bezala xahutu izatea aski dute ibili direnek lohikeria, lehia tzar, hordikeria, jan-edanetan eta idolen zerbitzu debekatueta.

4. Orai harritzen dire, zeren ez duzuen hekiekin itsuskeria beretara laster egiten, eta ahapaldika hari dire.

5. Baina ihardetsi beharko diote hilen eta bizien juiatzeko jarria denari.

6. Hargatik ezen hilei ere erantzun zaiote ebanjelioa, arren-eta gizonen aitzinean haragiaren arabera juiatuak izanik, Jainkoaren baithan bizi ditezen Izpirituaren arabera.

7. Hurbildua da bada, gauza guzien akhabantza. Izan zaitezte beraz zuhur, eta othoitzetan atzarririk zaudezte.

8. Baina, ororen lehen, elkharentzat izan zazue baratzen ez den karitatea, karitateak ezen bekhatu murruek estaltzen ditu.

9. Erasiarik gabe izan zaitezte elkharren alderat ostatu emaile.

10. Batbederak, izan duen dohainaren arabera zerbitza betza ber-teak, Jainkoaren asko moldetako grazien hedatzaile on zareten bezala.

11. Norbait mintzo bada, haren solasa izan bedi Jainkoaren ahoko hitza iduri; kargu bat bethetzen duenak, egin beza Jainkoak ematen duen indarretik hari balitz bezala; arren-eta gauza guzietan Jainkoa izan dadien ohoratua Jesu-Kristoren bidez, zeinarenak baitire ospea eta ohorea menderen mendetan. Halabiz.

12. Guziz maiteak, zuen frogatzeko heldu zaizkitzuen khexaldietan, zuen gogoa ez bedi norapait barraia, iduri nihoiz-ez-bezalako zerbaite gerthatzen zaitzuela;

13. Aitzitik boz zaitezte Kristoren eramankizunetan phartedun iza-teaz, zuek ere bozkarioz gaindi zaituzten, haren ospea agertuko den orduan.

14. Baldin Kristoren izenaren gatik arbuiatzen bazaituzte, dohatsu zarete; zeren Jainkoaren ohore, ospe, indar guziak eta haren Izpiritua zuen gainean baitaude

15. Baina zuetarik nihork ez beza jasan, gizon hiltzaile, edo ohoin, edo bertzeren onaren harrapatzaile bezala.

16. Baina Kristau bezala jasaiten badu, ez bedi ahalka; izen hortaz ordean ospe bihur biozo Jainkoari.

17. Ezen huna Jainkoaren etxetik juiamendua hastera dohan muga; eta lehenik gure gatik hasten bada, zer izanen da Jainkoaren ebanjelioa sinhesten ez dutenen akhabantza?

18. Eta baldin nekhez salbatuko bada prestua, norako dire gizon tza-rra eta bekhatorea?

19. Hargatik-ere Jainkoaren nahiaren arabera egartzeko dutenek, beren ongi eginez gomenda biotzote beren arimak kreatu dituen Jainko zinari.

V. KAP.

1. Othoizten ditut beraz zuen artean diren aphezak, nik, hekiek bezala aphez naizenak, eta Kristoren eramankizunez lekhuko, eta egun batez agertzekoa den ospean phartedun;

2. Alha zazue Jainkoaren arthalde zuen eskuetan dena, arthatuz, ez bortxaka, baina zuen oldez, Jainkoaren arabera; ez irabazi zikhin baten gatik, baina gogo onez;

3. Ez nausitasun erabiliz Jaunaren primantzen gainean, baina bihotzetik arthaldearen irakhaskari bilhakatzu.

4. Eta agerturen denean artzainen buruzagia, ospezko khoro bat izanen duzue ezin hits daitekeena.

5. Gazteak, zuek halaber zaharrei jauspen ekharrozuete. Berriz, guziek elkharren bihotzetara sarraraz zazue aphalguratasuna, zeren burgoiei bihurtzen baita Jainkoa, eta aphalei ematen baitu grazia.

6. Aphal zaitezte beraz Jainkoaren esku ahaldunaren azpian, goiti zaitzazten ethorriko den egunean.

7. Zuen grina guziak haren gainera utzatzue, zeren harek berak artha baitu zuetaz.

8. Jan-edanetan izan zaitezte zuhur, eta atzarriak zaudezte, zeren debrua, zuen etsaia, lehoina orroaz bezala, inguruka baitabila nor irets.

9. Hari buru egiozue, fedean gogor egonez, dakizuelakoz hestura beretan dabilzala munduan dituzten anaia guziak.

10. Baina grazia guzietako Jainkoak, bere bethiereko ospera Kristo Jesusen bidez deithu gaituenak, aphur bat jasan dukezuen ondoan, berak eginen zaituzte perfet, finkatuko eta gogortuko zaituzte.

11. Hari ospe eta jauntasuna menderen mendetan. Halabiz.



12. Laburzki iskribatu darotzuet ene ustez Silbano gure anaia zinaz, seguratuz eta lekhukotasun eginez, hau dela Jainkoaren egiazko grazia, zeintan-ere sendorik baitzaudezte.

13. Babilonan den Elizak, zuekin bautatuak, eta Mark ene semeak agur egiten darotzuet.

14. Musu saindu batez elkharri agur egizue. Grazia izan bedi zuekin ororekin, Jesu-Kristo baithan zaretenak.

JAUN DONE PETRI APOSTOLUAREN BIGARREN GUTUNA

I. KAP.

1. Simon Piarres, Jesu-Kristoren zerbitzari eta apostolua, guk bezala bardin fedea izan dutenei gure Jainko eta Salbatzaile Jesu-Kristoren zuzentasunari esker.

2. Zuen baithan grazia eta bakea bethe ditezela Jainkoaren eta Jesu-Kristo gure Jaunaren ezagutzaren bidez.

3. Haren jainkozko berthutearen dohain biziari, eta jainkotiartasunari dagozkioten guziak emanak zaizkigun bezala hainaren ezagutzaren bidez, zeinak deithu baikaitu bere ahal ospetsuaz,

4. Eta zeinaren bidez Jainkoak eman baitarozkigu, guri aginduak ziren grazia guziz handi eta baliosak, hekien ariatik egin zaitezten jainkozko izantzan phartedun, ihes eginez munduko lehia tzarren galdukeriari;

5. Zuek ere beraz artha osoa ekharriz, eratxikazue fedeari berthutea, berthuteari berriz jakitatea,

6. Jakitateari berriz begirakortasuna, begirakortasunari berriz jainkotiartasuna,

7. Jainkotiartasunari berriz anaiartasuna, anaiartasunari berriz karitatea.

8. Horiek alabainan zuen baithan izaten eta gaintitzen balin badire, zuetan ez dute hutsik utziko ez-eta fruiturik gabe Jaunaren ezagutza.

9. Ezen horiek ez dituen, itsu bat da haztaka dabilana, eta leheneko bekhaturez nola garbitu den, ardurarik gabe ahanzten duena.

10. Hargatik, anaiak, geroago eta gehiago berma zaitezte, eginkari onez seguratzera zuen deitpena eta hautespena; ezen hori eginez, nihoiz etzarete bekhaturat eroriko.

11. Haletan ezik sartze zabala emanen zaitzue Jesu-Kristo gure Jaun eta Salbatzailearen bethiereko erresuman.

12. Aria hortaz hariko natzaitzue bethi gauza horietaz orhoitarazten, nahiz argituak eta finkatuak zareten oraiko egian.

13. Uste dut ordean ene eginbidea dela, olha hunen barnean nagoe-no, orhoitzapen hortan zuek atzarriak idukitzea;

14. Garbiki baitakit, Jesu-Kristo gure Jaunak ere ezagutarazi darotan bezala, laster utzi beharko dudala ene olha.



15. Bainan artha hartuko dut, horietaz maiz orhoitzapen egin ahal dezazuen ni hil ondoan ere.

16. Ez darozkitzuegu izatez, khondera eder zenbaiti jarraikiz ezagutarazi Jesu-Kristo gure Jaunaren botherea eta ethorpena; bainan geror haren ospaeren ikhulse izanik.

17. Ezen Jainko Aitaren ganik izan zuen ospe eta ohore, argizko hedoietik jautsi zenean hitz hau: Hau da ene Seme maitea, zeinaren bait-han ezarri baitut ene gogo guzia; hau entzun zazue.

18. Eta guk aditu ginduen zerutik atheratu zen mintzo hori, harekin mendi sailduaren ginela.

19. Eta badugu oraino profeten hitz hobea, zeinari ongi egiten baituzue begiratzea, lekhu ilhunean argitzen duen argiari bezala, eguna zabal, eta artizarra zuen bihotzetara ilkhi arteo,

20. Lehenbizikorik burutan duzuelarik, Iskriturako edozein profezia ez dela atheratu duenaren burutik ethorria.

21. Ezen beihalako profeziak ez dire gizonaren nahitik ethorri; bainan Jainkoaren gizon sailduak Izpiritu sailduaren eragintzaz dire mintzatu.

II. KAP.

1. Bada, profetaizunak ere populuaren artean izatu dire, hala-nola izanen baitire zuen artean nausi gezurtiak, alde-banda galgarriak sorraraziko dituztenak; eta berak berrerosi dituen Jauna arnegatzen dute, beren gainera jautsarazten dutelarik xahupen lasterra.

2. Eta asko jarraikiko dire hekien galdukeriei, eta halakoen ariaz burroztatua izanen da egiazen bidea;

3. Eta beren jaramankerian zuetaz tratu eginen dute beren gezurrezko solasekin, bainan heldu da hekientzat aspaldidanik dagoen kondena-mendua, eta ez dago lotan xahutuko dituen eskua.

4. Jainkoak ezen guphidetsi ez baditu bekhaturat erori diren aingeruak, bainan lezerat arthiki baditu, ifernuko gatheetara igorrorik estiratze-ra, juiamenduraino begiratuak izateko;

5. Eta guphidetsi ez badu mundu zaharra, bainan zortzigarren begiratu badu Noe, justiziaren erantzulea, gaixtaginen munduaren gainerat erakharri zuenean uholdea;

6. Eta herrautsetaratuz Sodomarren eta Gomorharren hiriak, xahupenera kondenuatu baditu, tzarkerian ibiliko direnen ikhugarri eginenez;

7. Eta itzurrarazi badu Loth prestua, hasgarri hekien irain eta bizi-molde itsusiak hesturan zadukatena;

8. Begiak ezen eta beharriak xahu zituen egoten zenean gaixtagin hekiekin, zeinek egunetik egunera atsekabetan baitzadukaten arima zuzen hura;

9. Jainkoak badaki gaitzetarik atheratzen jainkotiar direnak, eta berriz gaixtaginen idukitzen juiamenduko egunerakotzat, estiratuak izan ditezen;

10. Gehienik ordean, haragiaren ondotik atsegin lohietan dabilzta-nak, nausitasuna arbuiatzen dutenak, ozarrak, beren buruez hantuak, burho egileak eta heresien sorrarazteko beldur ez direnak;

11. Noiz-eta-ere aingeruek, ahalez eta indarrez handiago diren arren, ez baitute elkharren kontra burhozko juiamendurik ekhartzen.

12. Bainan haukiek, adimendugabeko abere batzu iduri, berenez harrapatuak izateko eta galtzeko sorthuak, ezagutzen ez dituzten gauzen kontra burhoka hariz, beren tzarkerian galduko dire,

13. Izaten dutelarik beren gaixtakeriaren saria, egun bateko atsegina nihonereko gozotzat baitadukate, beren atseginetan khutsapen eta likhiskeriaz bethetzen baitire, zabarkeria guzietan sartzen baitire zuekilako bazkarietan,

14. Begiak bertzeen emazteen ganako lehiaz betheak eta bekhatuzko ithurriak bezala baitituzte. Amainatzen dituzte izpiritu zuziak; bihotza jaramankerian trebatua dute; madarizionezko umeak dire;

15. Bide zuzena utziz, makhurtu dire, jarraikirik Balaami, Bosorren semeari, zeinak gozo hartu baitzioen tzarkeriaren sariari;

16. Bainan azurriatua izan zen bere zorokeriatik, abere hezi mutuak, gizon bat bezala mintzaturik, sarrarazi baitzioen profetari bere erhokeria.

17. Hekiek ur gabeko ithurriak dire, eta haize xirimolak derabilzkan lanho batzu, zeinentzat baitaude ilhunbe beltzak.

18. Ezik beren espantu hutsalekin, haragiko irrits lizunez amainatzen dituzte, makhurrean bizi direnetarik berriki urrundu zirenak;

19. Hekiei aginduz libertatea, berak galdukeriaren gathibu diren arren; ezik garhaitua dena, garhaitzailearen gathibu izaten ohi da.

20. Alabainan baldin Jesu-Kristo gure Jaun eta Salbatzailearen eza-gutzari esker behin atheratu badire munduko likhiskerietarik, eta berriz hekietan biribilkaturik garhaituak izaten badire, ondoko asturugaitzak lehenbizikoak baino areago egiten zaizkote.

21. Ezik hobe zuketzen ez balute zuzenbidea ezagutu, ezen-ez ezagutu ondoan gibelerat egitea emana zitzaioten lege saildutik.

22. Bainan erran-zahar egiazko batek dioena gerthatu zaiote: Zakhurra bere goiti-eginera itzuli da; eta bertze hau: Urdea, garbitu ondoan itzuli da bere lohian ihauskatzera.



III. KAP.

1. Huna bigarren gutuna iskribatzen darotzuedala, eta bietan atzar ematen diot zuen gogo zinari;
2. Burutan iduk detatzuen profeta sailduen ganikako hitz aitzinean aiphatu darozkitzuedanak, eta zuen apostoluenak, zeinak Salbatzaile Jaunaren manamenduak baitire.
3. Jakizue behintzat, azken egunetan ethorriko direla zorratzaile amarrutsu batzu, beren zalekerien oldera ibiliko direnak,
4. Diotelarik: Non da agintza, edo haren ethorpena? ezen heriotze-ko loan sarthu direnaz geroztik lehenbiziko burhasoak, gauzek hola-hola diraute munduaren hastapenetik.
5. Bainan ez dakite, hala nahi baitute, Jainkoaren hitzak egin zituela zeruak lehenik, eta lurra, uretik atheratua eta uraz dirauena;
6. Hekiek galdu baitzuten urez estalirik orduko mundua.
7. Bada, hitz berak idukitzen ditu oraiko zero-lurrak, eta juiamenduko eta gaixtaginen xahupeneko eguneraino begiratuak dire, suz erreak iza-teko.
8. Bainan, guziz maiteak, etzarete behar hau jakin gabe, Jaunaren aitzinean egun bat dela mila urthe bezala, eta mila urthe egun bat bezala.
9. Jaunak bere agintzaren bethetzea ez du luzatzen, zenbaitek uste duten bezala; bainan ephetz dago zuen alderat, ez nahiz gal dadien nihor, bainan guziak urrikitarat itzul ditezen.
10. Bada, ohoin bat iduri ethorriko da Jaunaren eguna; orduan karraska gaitzaren erdian goanen dire zeruak, suaren khaldak urraturen ditu gauzen geiak, eta erreko dire lurra eta hartan diren obrak oro.
11. Horiek guziak xahutzeakoak direnaz geroztik, nolakoak etzarete izan behar zuen bizitze saildu eta eginkari jainkotiarretan,
12. Iguri zaudeztelarik eta lehian Jaunaren egunaren ethorpenari; noiz-eta-ere zeruak khaldan ezeztatuko baitire, eta suaren indarrak iraungiko baititu gauza guzien geiak?
13. Guk bada, agintzen arabera igurikitzen ditugu zero berriak eta lur berri bat, zeintan izanen baitu zuzentasunak bere egoitza.
14. Hargatik, guziz maiteak, horien iguri zaudeztenaz geroztik, berma zaitezte Jaunaz aurkhituak izatera bakearekin, xahu eta baiarik gabe.
15. Eta uste izan zazue Jaunaren luzakortasuna, zuen salbamenduari dagoela; Paulo gure anaia guziz maiteak, emana zaioen zuhurtziaren arabera iskribatu darotzuen bezala,

16. Egiten ere duen bezala horietaz aiphatzen duen gutun guzietan, zeinetan baitire gauza batzu aditzeko gaitzak, jakitate gabeko gizon ergel zenbaitek beren galgarri makhurrerat itzultzen dituztenak, hala-nola bertze Iskriturak ere.

17. Zuek beraz, anaiak, aitzinetik argituak baitzarete, begira zatzue zuen buruak, beldurrez-eta zoro hekien makhurrerat bildurik, eror zaitzten oraiko zuen sendotasunetik.

18. Aitzitik grazian eta Jesu-Kristo gure Jaunaren eta Salbatzailearen ezagutzan aitzina zaitezte. Hari ospe orai eta bethiko egunean. Halabiz.



JAUN DONE JOANES APOSTOLUAREN LEHENBIZIKO GUTUNA

I. KAP.

1. Hastapenetik izan dena, aditu duguna eta gure begiz ikhusi, begira egotu gatzaiarena eta gure eskuek ukitu dutena, bizitzeko hitzaz;
2. Ezen agertu da bizia bera, eta ikhusi dugu, eta lekhukotasun egi-ten diogu, eta erantzuten darotzuegu bethiereko bizia, Aitaren baithan zena, eta guri agertu zaikuna;
3. Ikhusi eta aditu duguna erantzuten darotzuegu; zuek ere gurekin phartzunergoan izan zaitezten, eta gure phartzunergoan izan dadien Aitarekin eta haren Seme Jesu-Kristorekin batean.
4. Eta hau iskribatzen darotzuetegu, boz zaiteztentzat, eta bethea izan dadien zuen bozkarioa.
5. Eta hau da Jesu-Kristoren ganik entzun duguna, eta guk ere zuei erantzuten darotzueguna: Jainkoa argia dela, eta niholazko ilhunberik ez dela haren baithan.
6. Eta erraten balin badugu harekin phartzunergoan gabela, eta ilhunbetan ibilki, gezurrez mintzo gare, eta ez da gure ahoan egia.
7. Bainan argian balin bagiltza, hura ere argian den bezala, elkharrekilako phartzunergoan badugu, eta Jesu-Kristo haren Semearen odolak bekhatu guzietarik garbitzen gaitu.
8. Baldin erraten badugu bekhatuik ez dugula, enganatzen ditugu gure buruak, eta ez da gure baithan egia.
9. Aithortzen baditugu gure bekhatuak, zina eta zuzena da Jainkoa, guri barkatzeko gure bekhatuak eta gaizki orotarik gure garbitzeko.
10. Erraten badugu ez dugula bekhatuik egin, gezurti egiten dugu Jainkoa, eta ez da gure baithan haren hitza.

II. KAP.

1. Ene haurttoak, hau iskribatzen darotzuet, ez dezazuen bekhatuik egin. Bainan norbaitek bekhatu egin baleza ere, Aitaren aitzinean badugu ararteko bat, Jesu-Kristo justu dena;
2. Eta hura da gure bekhatuentzat jabalpeneko bitima; ez ezik bada, gureentzat bakharririk, bainan mundu guziarenentzat ere.
3. Eta huntarik dakigu ezagutzen dugula, baldinetaria haren manamenduak idukitzen baditugu.

4. Nork-ere baitio ezagutzen duela, eta haren manamenduak ez begiratzen, gezurti bat da, eta hortan egiarik ez da.
5. Norbaitek ordean begiratzen badu haren hitza, hortan da egiazki oso Jainkoaren ganako amodioa; eta hortarik ezagutzen dugu haren bait-ghan gabela.
6. Zeinak-ere baitio haren baithan dagoela, haina ere, hura dabilan bezala behar da ibili.
7. Guziz maiteak, ez darotzuet manamendu berri bat iskribatzen, bainan manamendu zaharra, hastetik izatu duzuen; manamendu zaharra, aditu duzuen hitza da.
8. Guziaz gatik manamendu berria iskribatzen darotzuet, haren eta zuen baithan egia dena, zeren ilhunbeak iragan baitire, eta egiazko argiak oraikoz argitzen baitu.
9. Nork-ere baitio argian dela, eta bere anaia higuin izaki, haina ilhunbeetan da oraidino.
10. Nork-ere maite baitu bere anaia, haina argian dago, eta behazto-pabiderik ez da haren baithan.
11. Bainan nork-ere higuin baitu bere anaia, ilhunbetan da haina, eta ilhunbetan dabila, eta ez daki norat dohan, zeren ilhunbeek itsutu baitiozkate begiak.
12. Haurttoak, iskribatzen darotzuet, zeren-eta Jesu-Kristoren ize-
nean barkhatuak baitzaizkitzue bekhatuak.
13. Aitak, zuei iskribatzen darotzuet, ezagutu duzelakoz hastapene-
tik dena. Gizon gaztettoak, zuei iskribatzen darotzuet, zeren garhaitu
duzuen izpiritu gaixtoa.
14. Haurrak, zuei iskribatzen darotzuet, zeren ezagutu duzuen Aita.
Gizon gazteak, zuei iskribatzen darotzuet, hazkarrak zaretelakoz, eta
zuen baithan dagoelakoz Jainkoaren hitza, eta garhaitu duzelakoz izpi-
ritu gaixtoa.
15. Ez maitha mundua, ez-eta munduan diren gauzak. Norbaitek
maite badu mundua, Aitarentzateko amodioa ez dago haren baithan;
16. Ezen munduan den guzia da, edo haragiaren zalekeria, edo
begien zalekeria, edo biziko hanpuruseria; horiek ez dire Aitaren gani-
kakoak, bainan mundutikakoak.
17. Eta iragaiten dire mundua eta hartako zalekeriak. Bainan
Jainkoaren nahia egiten duenak, bethiraino badirau.
18. Haurttoak, hau da azken ordua; eta nola aditu baituzue heldu dela
antekristo, oraidanik ere atheratu da antekristo bat baino gehiago, horta-
rik dakigu azken ordua dela.



19. Guthartetik ilkhi dire, bainan etziren gutarikakoak. Ezen gutarikakoak izan balire, gurekin egotu zitezkeen; bainan hola da, ageri izan zadien ez direla guziak gutarikakoak.

20. Zuek ordean Sainduaren ganik izatu duzue gantzudura, eta orotaz jakintsun zarete.

21. Ez darotzuet egia ezagutzen ez dutenei bezala iskribatu, bainan bai dakitenei bezala; eta dakizuelakoz, egiatik ez dela den-gutieneko gezurrik atheratzen.

22. Nor da gezurti, non ez Jesus Kristo dela ukhatzen duena? Baina da antekristo, zeinak ukhatzen baititu Aita eta Semea.

23. Nork-ere ukhatzen baitu Semea, Aitaren baithan eta sinhesterik ez du; Semea aihortzen duenak, sinhesten du Aitaren baithan ere.

24. Hastetik aditu duzuen baithan egon bedi. Zuen baithan egoten bada hastetik aditu duzuen, zuek ere Semearen eta Aitaren baithan egonen zarete.

25. Eta hau da berak egin darokun agintza, bethiereko bizia.

26. Horra zer iskribatzen darotzuedan, zuen amainatzen dabilzanen gainean.

27. Eta zuek haren ganik izan duzuen gantzudura, zuen baithan egon bedi. Eta ez duzue beharrik nihork irakhats dezazuen; bainan haren gantzudurak orotaz argitzen zaituzteten bezala, eta egiazkoa baita, eta ez gezurrezkoa; zer-ere irakhatsi baitarotzuet, hartan zaudezte.

28. Eta orai, ene haurttoak, haren baithan egon zaitetze; hura agertuko denean, gogoan on izan dezagun, eta ez gaitzan, ethorriko denean, ahalketan ezar.

29. Balin badakizue zuzena dela, jakizue zuzenbidean dabilana ere, haren ganik dela sorthua.

III. KAP.

1. Ikhusazue zer amodioa Aitak ixuri duen gure gainera, guri emate-raino Jainkoaren umeen izena, eta hala ere izan gintezen. Hargatik ez gaitu ezagutzen munduak, zeren ez baitu hura ere ezagutzen.

2. Guziz maiteak, orai gure Jainkoaren unie; eta zer izanen garen, ez da oraino ageri. Badakigu hura agertuko denean, haren iduriko izanen garel, den bezala ikhusiren baitugu.

3. Eta igurikimen hori duena, saindutzen da, hura bera ere saindu den bezala.

4. Nork-ere bekhatu egiten baitu, legea hausten du; ezen bekhatua, lege haustea da.

5. Badakizue Jainkoa agertu dela gure bekhatuen hartzeko, eta haren baithan bekhatuik ez da.

6. Haren baithan dagoenak ez du bekhatuik egiten; eta bekhatu egiten duenak ez du ikhusi hura, eta ez du ezagutu.

7. Haurttoak, berantzue nihork engana. Zuzenbidean dabilana, zuzena da, hura ere zuzena den bezala.

8. Bekhatu egilea, debruaren umea da; zeren debruak hastedanik egiten baitu bekhatu. Debruaren lanen urratzeko agertu da Jainkoaren Semea.

9. Jainkoaren ganik sorthu denak ez du bekhatuik egiten, haren baithan gelditzen delakoz Jainkoaren hazia; eta bekhatuik egin ez dezake, zeren den Jainkoaren ganik sorthua.

10. Hortan dire ezagun Jainkoaren umeak eta debruaren umeak. Zuzena ez den edozein, ez da Jainkoaren ganikako, ez-eta bere anaia maite ez duena ere;

11. Hau da ezen hastetik aditu duzuen erantzupena, maitha dezazuen elkhar.

12. Ez egin Kainek bezala, zeina debruaren ganikakoa baitzen, eta hil baitzuen bere anaia. Eta zergatik hil zuen? Zeren berak eginkari tzarrak baitzuiten, anaiak berriz onak.

13. Anaiak, ez harri higuin balin bazaituzte munduak.

14. Guk badakigu heriotzetik bizitzera iraganak garel, zeren maite baititugu anaiak. Maithatzaile ez dena, heriotzean egoten da.

15. Bere anaia gaitzeste dena, gizon hiltzaile da. Eta badakizue gizon hiltzailerik ez dela, bethiereko bizitza bere baithan duenik.

16. Huntan ezagutu dugu Jainkoaren amodioa, harek guretzat eman baitu bere bizia, eta guk ere gure anaientzat eman behar ditugu gure biziak.

17. Norbaitek mundu huntako ontasunetarik izaki, eta bere anaia beharretan ikhusten, eta hertsiko badio bere bihotza, hainaren baithan nola egonen da Jainkoaren amodioa?

18. Ene haurttoak, ez dezagun maitha hitzez eta mihiz, bainan egin-kariz eta zintasunean.

19. Hortarik ezagutzen dugu, eta gure bihotzei Jainkoaren aitzinean seguramendua harrarazten diotegu egiaren umeak garel.

20. Alabainan jazartzen badaroku gure bihotzak, Jainkoa gure bihotza baino handiagoa da, eta badakizki gauza guziak.

21. Guziz maiteak, ez badaroku gure bihotzak jazartzen, fidantziarekin gogoan gaitzke Jainkoaren ganat;



22. Eta edozein gauza galda dezagun, ardietsiko dugu haren ganik; zaintzen ditugulako haren manamenduak, eta egiten haren aitzinean gogaragari diren gauzak.

23. Eta hau da haren manamendua: Jesu-Kristo haren Semearen ize-
nean eman dezagun sinheste, eta elkhar maitha, manatu darokun bezala.

24. Eta Jainkoaren manamenduak zaintzen dituen, Jainkoaren bait-
han dago, eta Jainkoa hainaren baithan; eta hortan eman darokun
Izpirituaren ganik ezagutzen dugu gure baithan dagoela.

IV. KAP.

1. Guziz maiteak, edozein izpirituri sinhesterik ez eman, bainan fro-
gazatzue izpirituak hean Jainkoaren ganikakoak diren; ezik profetaizun
asko ilkhi dire mundura.

2. Huntarik ezagutzen da Jainkoaren ganikako izpiritua: edozein izpi-
rituk aithor dezan Jesu-Kristo haragitan ethorri dela, Jainkoaren ganika-
koa da;

3. Eta edozeinek berezkuntza zerbait egin dezan Jesusen baithan,
hura ez da Jainkoaren ganikakoa, eta hura da antekristo, zeintaz adituak
baitzarete heldu dela, eta oraikoz munduan da.

4. Ene haurttoak, zuek Jainkoaren ganikakoak zarete, eta garhaitu
duzue antekristo, zeren den handiagoa zuen baithan dena, munduan dena
baino.

5. Mundutikakoak dire hekiei; hargatik-ere munduko hizkuntzaz dire
mintzo, eta entzuten ditu munduak.

6. Gu, Jainkoaren ganikakoak gare. Jainkoa ezagutzen duenak, entzu-
ten gaitu gu; Jainkoaren ganikakoa ez denak, ez gaitu entzuten; hortarik
ezagutzen ditugu egiatikako izpiritua eta gezurretikakoa.

7. Guziz maiteak, elkhar dezagun maitha, zeren Jainkoaren ganika-
koa baita amodioa. Eta edozein izan dadien maithatzaile, haina Jainkoaren
ganik sorthua da, eta ezagutzen du Jainkoa.

8. Ez denak maithatzaile, ez du ezagutzen Jainkoa, amodio da ezen
Jainkoa.

9. Huntan agertu da Jainkoaren guretzateko amodioa, zeren Jainkoak
mundura igorri baitu bere Seme bakharra, haren bidez bizi gaitzentzat.

10. Eta huntan datza amodio hori, ez guk maithatu dugulakoan
Jainkoa, bainan harek gu lehenik maithatu, eta bere Semea gure bekha-
tuentzat bitima jabalgarri bidali izan baitu.

11. Guziz maiteak, Jainkoak horrela maithatu izan bagaitu, guk ere
elkhar maithatu behar dugu.

12. Egundaino nihork ez du ikhusi Jainkoa. Baldin elkhar maithatzen
badugu, gure baithan dago Jainkoa, eta osoa da gure baithan Jainkoaren
amodioa.

13. Eta huntarik ezagutzen dugu, Jainkoaren baithan gaudezela, eta
hura gure baithan, zeren bere Izpiritutik eman izan baiaroku.

14. Eta guk ikhusi eta lekhukotasun bihurtzen dugu, Jainkoak bere
Semea munduaren Salbatzailetzat igorri duela.

15. Edozeinek aithor dezan Jainkoaren Seme dela Jesus, haren bait-
han dago Jainkoa eta hura Jainkoaren baithan.

16. Eta guk ezagutu eta sinhetsi dugu Jainkoak guretzat duen amo-
dioa. Amodio da Jainkoa; eta amodioan dagoena, Jainkoaren baithan
dago, eta Jainkoa haren baithan.

17. Huntan da oso gure baithan Jainkoaren amodioa; fidantziak bet-
heak garenean juiamenduko egunekotzat, hura bera den bezalakoak gare-
lako gu ere mundu huntan.

18. Beldurra ez dabila amodioarekin, bainan amodio osoak kanporat
igortzen du beldurra; ezen beldurra ez da gogoan-beharrik gabe; eta bel-
dur dena ez da perfet amodioan.

19. Maitha dezagun beraz Jainkoa, Jainkoak lehenik maithatu gaitue-
naz geroztik.

20. Norbaitek erraten badu: Maite dut Jainkoa; eta higuin badu bere
anaia, gezurti bat da. Ezen ikhusten duen anaia maite ez duenak, nola
maitha dezake ikhusten ez duen Jainkoa?

21. Eta Jainkoaren ganik dugu manamendu hau: Jainkoa maite due-
nak, maitha beza bere anaia ere.

V. KAP.

1. Edozeinek sinhets dezan Jesus Kristo dela, Jainkoaren ganik sort-
hua da. Eta nork-ere aita maite baitu, haren ganik sorthua dena ere maite
du.

2. Maite ditugula Jainkoaren umeak, huntan ezagutzen dugu: Jainkoa
maithatzen, eta haren manamenduak bethetzen ditugunean.

3. Ezen halakoa da Jainkoaren amodioa, non haren manamenduak
zaintzen baititugu; eta ez dire gaitzak haren manamenduak.

4. Alabainan Jainkoaren ganik sorthuak diren guziek, garhaitzen dute
mundua; eta gure fedea da munduari garhaizia hori eramaten dioena.

5. Nor da munduaren garhaitzaile, non ez haina, zeinak Jesus
Jainkoaren Semea dela sinhesten baitu?



6. Jesu-Kristo hura bera da, zeina urarekin eta odolarekin ethorri baita; ez bakharrik urarekin, baina urarekin eta odolarekin. Eta Kristo egia dela, Izpirituak egiten du lekhukotasun.

7. Ezen hirur dire lekhukotasun egiten dutenak zeruan: Aita, Hitzza eta Izpiritu saindua; eta hirur haukiek bat dire.

8. Eta hirur dire lekhukotasun egiten dutenak lurrean: Izpiritua, ura eta odola; eta hirur horiek bat dire.

9. On hartzen badugu gizonen lekhukotasuna, Jainkoaren lekhukotasuna handiagoa da; eta lekhukotasun handiena den hori da Jainkoak bere Semeari bihurtu dioena,

10. Jainkoaren Semearen baithan nork-ere baitu sinhesten, hainak bere baithan du Jainkoaren lekhukotasuna. Semeari sinheste ematen ez dioenak, Jainkoa egiten du gezurti, zeren ez baitu sinhesten Jainkoak bere Semeaz egin duen lekhukotasuna.

11. Eta hau da lekhukotasuna, baizik-ere Jainkoak eman darokula bethiereko bizitzea. Eta haren Semearen baithan datza bizitze hura.

12. Semea dadukanak, bizitzea daduka; Semea ez dadukanak, ez daduka bizitzea.

13. Horiek iskribatzen darozkitzuet, jakin dezazuen Jainkoaren Semearen baithan sinhesten duzuenek baduzuela bethiereko bizitzea.

14. Eta huna zer fidantzia dugun Jainkoaren baithan: Haren nahiaren arabera edozein gauza galdegin diozogun, entzuten gaituela orotan.

15. Eta badakigu entzuten gaituela galdatuko ditugun gauza guzietan, zeren ardietsi baititugu egin diozkagun galde guziak.

16. Norbaitek balin badaki bere anaiak egin duela heriotzera ez daraman bekhatu bat, galda beza, eta heriotzera ez daraman bekhatua egin duenari emanen zaio bizia. Bada heriotzera daraman bekhatua ez dut erratan harentzat behar dela othoitz egin.

17. Edozein gaizki, bekhatu da; baina bada heriotzera daraman bekhatua.

18. Badakigu ez dela bekhaturatzen Jainkoaren ganik sorthua dena; baina Jainkoaren ganik iraulgi izateak zaintzen du eta izpiritu gaixtoak ez du ukitzen.

19. Badakigu Jainkoaren ganikakoak garela, eta mundu guzia izpiritu gaixtoaren azpiko dela.

20. Badakigu ere ethorri dela Jainkoaren Semea, eta adimendua eman darokula, ezagut dezagun egiazko Jainkoa, eta bizi gaitezen haren egiazko Semearen baithan. Hura da egiazko Jainkoa eta bethiereko bizitzea.

21. Ene haurttoa, jainko-moldeetarik begira zaitetze. Halabiz.

JAUN DONE JOANES APOSTOLUAREN BIGARREN GUTUNA

1. Zaharra, andre Elektrari eta haren hurrei, zeinak egian maite baititut; eta ez nik bakharrik, baina egia ezagutzen duten guziek ere;

2. Gure baithan dagoen eta bethi egonen den egia haren gatik.

3. Jainko Aitaren ganik eta Aitaren Seme Jesu-Kristoren ganik, grazia, urrikalmendu eta bakea zuekin izan beitez egian eta karitatean.

4. Bozkario handia izan dut, zure haurretarik aurkhitu ditudalakoz egia bidean dabilzanak, Aitaren ganik manua izan dugun bezala.

5. Eta orai othoizten zaitut, andrea, ez iskribatzen banarotzu bezala manamendu berri bat, baina bai hastetik izan duguna, maitha dezagun elkhar.

6. Eta Jainkoaren manamenduen arabera ibiltzea, hori da karitatea;

7. Ezen mundurat ilkhi dire asko enganatzaile, aithortzen ez dutenak Jesuristo haragitan ethorri dela. Holakoa da enganatzaile eta antekristo.

8. Zaudezte zuen buruen gainean erne, ez galtzeko erabili dituzuen lanak, baina izateko hekien sari bethea.

9. Nork-ere gibelerat egiten baitu eta ez baita Kristoren irakhasmenegoten, hainak ez du bere baithan Jainkoa; irakhasmenegotenak, haretzek ditu, eta Aita, eta Semea.

10. Zuetara norbait heldu balin bada, eta irakhasinen hori ez badu ekhartzten, etzazuela etxerat har, eta agurrik ere hainari ez egin.

11. Ezen agur egiten dioena, phartedun egiten da haren eginkari tzarretan.

12. Askok gauza ditudan arren zuei iskribatzeko, ez dut nahi izan paperarekin eta thinduarekin egin; zeren zuetara ethorriren naizelakoz pheskiza baitut, eta ahotik ahora mintzatuko natzaitzuela, osoa izan dadien zuen bozkarioa.

13. Zure ahizpa Elektraren hurrek agur egiten darotzute.



JAUN DONE JOANES APOSTOLUAREN HIRUGARREN GUTUNA

1. Zaharra, zintasunean maite dudan Gaio guziz maiteari.
2. Guziz maitea, othoitz egiten dut zure egitekoak eta osasuna hain onak izan ditezen, nola ontsa baita zure arima.
3. Handizki boztu naiz, ethorri direnean anaiak, eta lekhukotasun egin diotenean zure egiazko fedeari, eta egiaren arabera zabiltzala.
4. Enetzat bozkario handiagorik ez da jakitea baino, egiaren arabera dabiltzala ene haurrak.
5. Guziz maitea, fededun ona bezala hari zare, anaientzat egiten dituzun gauza guzietan, eta bereziki arrotzentzat,
6. Zeinek Eliza guziaren aitzinean zure karitateari lekhukotasun bihurtu baitiote; eta ongi eginen duzu hekien laguntzea bideetan Jainkoari dagokion bezala.
7. Ezen haren izenaren gatik abiatu dire bideari, paganoen ganik deusik ez hartuz.
8. Behar ditugu beraz horrela dabiltzanak gure ganat hartu, egiarentzateko lanetan sar dezagun eskua guk ere.
9. Iskribatu nukeen beharbada Elizari, bainan Diotrefesek, horko en gainean buruzagitasuna erabili nahi duenak, ez gaitu onhesten.
10. Hargatik, ethortzen balin banaiz, ezagutaraziko diot zer lana daraman, gure kontra elhe gaixtoak barraiatuz; eta hori aski ez balitzaio bezala, ez ditu anaiak bere ganat hartzen; eta hartzen dituztenei, debekatzen diote, eta Elizatik iraitzen ditu.
11. Guziz maitea, gaizkia ez imita, bainan-bai ongia. Ongiaren egilea Jainkoaren ume da; gaizki egileak ez du Jainkoa ezagutzen.
12. Demetriori guziek lekhukotasun bihurtzen diote; egiak berak ere bihurtzen dio; aldiz guk ere bihurtzen diogu, eta badakizu egia dela gure lekhukotasuna.
13. Asko gauza banituen zuri iskribatzeko, bainan ez darozkituzt thinduz eta lumez nahi izan iskribatu.
14. Pheskiza badut ordean laster ikhusiko zaitudala, eta buruz burutan mintzatuko gare. Bakea izan bedi zurekin. Adiskideek agur egiten darotzute. Adiskideei zeini bere izenean agur egiozute.

JAUN DONE JUDA APOSTOLUAREN GUTUN KATOLIKOA

1. Juda, Jesu-Kristoren zerbitzari eta Jakoberen anaia, Jainko Aitak maithatu eta Jesu-Kristok deithu eta begiratu dituenei.
2. Urrikalmenduaren, bakearen eta karitatearen bethetasuna zuen baita egin bedi.
3. Zuen guzien salbamenduaren gainean, guziz maiteak, zuei iskribatzeko ardura handiena bainuen, orai premia dadukat zuei iskribatzea, zuen othoiztea gatik guduka zaitetzten sailduei behin emana izan zaioten fedearen alde.
4. Zuen artera lerratu dire ezen gizon gaixto batzu (zeinak, kondenuatuak izateko, aspalditik bereziak baitire), gure Jainkoaren grazia zabarkerietara bihurtzen, eta Jesu-Kristo, gure Nausi eta Jaun baxharra ukhazten dutenak.
5. Bada, orhoitarazi nahi zaituztet, horiek oro lehendanik dakizkitzuen arren, Jesusek populua Egiptoko lurretik eraiki zuen ondoan, galdu zituela gero sinhesterik etzutenak;
6. Aingeruak aldiz, beren lehenbiziko urhatsean egotu ez direnak, bainan beren egoitzako tokia utzi dutenak, ilhunbeen azpian daduzkala, bethiko burdinetan egun handiko juiamenduraino.
7. Nola Sodoma eta Gomorra eta hiri mugakhideak hala-halako lohikerietan sarthu baitziren; eta haragi arrotzaren ondoan zabiltzalako, bertzeen ikhusgarri bilhakatu baitire, bethiereko suaren gaztigua jasaiten dutelarik;
8. Gizon tzar haukiek orobat khutsatzen dute beren haragia, eta arbuizatzen Jainkoaren nausitasuna, eta burhoztatzen haren maiestatea.
9. Moisesen gorphutzaren gainetik debruarekin gudukatu zenean Mixel arkanjelua, etzen atrebitu hari burhozko kondenamenduaren arthikitza; bainan erran zioen: Jaunak bere nausitasuna hire gainean erakhuts beza.
10. Haukiek ordean burhoka aiphatzen dituzte ezagutzen ez dituzten gauzak; eta zer-ere ethorkiz ezagutzen baitute, hartan beren buruak andeatzen dituzte adimendugabeko abere batzuek bezala.
11. Zorigaitz horiei, zeren Kainen bidez baitohazi; Balaam bezala sariaren irrisak amainatzen baititu; eta Kore bezala bihurtuz, orobat galitzen baitire.



12. Horiek, beren bazkarietako laidagarri dire, mahainetan ahalkerik gabe jaten eta beren buruen asetzen hari direnak; hedoi agorrak, haizeek inguruka derabilzkatena, udazkeneko arbola fruitu gabeak, bietan hilak eta erroetarik goanak;

13. Itsasoko tirain muthiriak, beren itsuskeriak harrapoa bezala arthikitzen dituztenak; izar bidetik makhurtuak, zeinentzat bethi guziko baitaude ilhunbeetako xirimolak.

14. Horietaz profetisatu du Enokek, Adamen ganik zazpigarren patriarkak, erran duenean: Hara non heldu den Jauna, bere sailduen elementiaz inguratua,

15. Gizon guzien kontra juiamenduaren ekhartzera, gaixtagin guziei frogatzera, gaixtoki erabili dituzten tzarkeriazko egitate guziak, eta behatortze tzarrek Jainkoaren kontra athera dituzten ahapaldi gaixtoak.

16. Hekiek dire marmazikari arranguratiak, beren lehien oldera dabil-tzanak; eta espantuz bethea da hekien ahoa, gizon batzuez sendagaila egi-nez, zerbaiten irabazteko ariaz.

17. Zuek ordean, guziz maiteak, orhoit zaitezte zer profetisatu daro-tzueten Jesu-Kristo gure Jaunaren apostoluek,

18. Zeinek erran baitarotzute, azken denboran ethorriko direla enganatzaile batzu, beren lehien oldera tzarkerietan ibiliko direnak.

19. Halakoak dire, berak berezten direnak, aberekarako gizonak, Izpiritua ez dutenak.

20. Zuek ordean, guziz maiteak, zuen fede guziz sailduaren gainean zuen buruak altxatuz, eta Izpiritu saildua ararteko othoitz eginez,

21. Begira zaitezte Jainkoaren ganako amodioan, bethiereko bizira heltzekotzat igurikiz, Jesu-Kristo gure Jaunaren urrikalmendua.

22. Batzu, kondenamenduaren azpiko jarri direnak, kridantza zatzue;

23. Bertze batzu, sutik atheraz, salba zatzue. Bertzeei berriz, lotsa handirekin urrikal zaitezte; higuinduz haragitikakoa den soineko nothatu hura ere.

24. Bekhaturik gabe zuen begiratzeko, eta Jesu-Kristo gure Jauna ethorriko denean, bere ospearen aitzinera notharik gabe eta bozkarioz betheak zuen agerrarazteko ahaldun denari;

25. Gure Jainko Salbatzaileari bakharririk, Jesu-Kristo gure Jaunaren bidez, ospe, handiespen, nausitasun eta bothere, mende guzien aitzinean, eta orai, eta menderen mendetan. Halabiz.

JAUN DONE JOANES APOSTOLUAREN APOKALIPZA

I KAP.

1. Jesu-Kristoren Apokalipza, Jainkoak eman dioena, laster gerthatu behar direnen agertzekotzat bere zerbitzari; eta ezagutza eman dio, bere Aingerua igorritz, Joanes bere zerbitzariari,

2. Zeinak lekhukotasun ekharri baitio Jainkoaren hitzari, eta Jesu-Kristoren lekhukotasuna ikhusi duen guziari.

3. Dohatsu profezia huntako hitzak irakurtzen eta entzuten dituen, eta huntan iskribatuak direnak begiratzeko dituen; hurbil da ezen ordua.

4. Joanesek Asian diren zazpi elizei. Grazia eta bake zuei, denaren, zenaren eta ethortzekoa denaren ganik, eta haren tronuen aitzinean daudezen zazpi izpirituen ganik;

5. Eta Jesu-Kristoren ganik, zeina baita lekhuko zina, hiletarik lehen-sorthua, eta lurreko erregeen buruzagia; gu maithatu eta bere odolean gure bekhatuetarik garbitu gaituena,

6. Eta egin gaituena Jainko bere Aitaren erresuma eta aphez: hari ospe, buruzagitasunak, menderen mendeetan. Halabiz.

7. Huna non heldu den hedoiekin; eta edozein begik ikhusiko du, eta hura zilhakatu dutenek ere bai. Eta lurreko jendaki guziak auhenetan jarriko dire haren aitzinean: Bai: Halabiz.

8. Ni naiz alfa eta omega, hastea eta akhabantza, dio Jainko Jaunak, denak, zenak, ethorriren denak, ahalorotakoak.

9. Ni, Joanes, zuen anaia eta laguna atsekabea, eta erresuman, eta jasarteetan Kristo Jesusen ariaz; Patmos deitzen den irlan izatu naiz Jainkoaren hitzaren gatik, eta Jesusen gaineko lekhukotasunaren gatik;

10. Igande egun batez gogotan eraikia izan nintzen, eta ene gibelean aditu nuen mintzo gaitz bat, hala-nola turuta batena,

11. Zeinak baitzioen: Ikhusten duzuna ezar zazu liburu batean iskribuz, eta bidalazu Asian diren zazpi Elizei, Epheson, Smirnan, Pergamon, Thiatiran, Sardesen, Philadelphian eta Laodizean.

12. Eta itzuli nintzen ikhustekotzat niri hari zitzaitan mintzoa; eta itzuli nintzanean, ikhusi nituen urhezko zazpi ganderailu;

13. Eta zazpi ganderailu urhezkoen erdian, gizonaren Semea iduri zuen norbait, soin luzeaz jauntzia, eta urhezko gerriko batez bulhar azpian tinkatua;



14. Haren burua berriz, eta ileak xuriak ziren ardi ile xuria bezala eta elhurra bezala, eta haren begiek su garra iduri zuten;

15. Haren oinek iduri zuten letoina labe gorrian bezala, eta haren mintzoak iduri zuen ur handien orroa;

16. Eta esku eskuinean bazituen zazpi izar; eta haren ahotik ilkhitzen zen ezpata bat bi aldeetarik zorroztua; eta haren begitharteak argitzen zuen hala-nola iguzkiak bere indarrean.

17. Eta hura ikhusi nuenean, hila bezala erori nintzen haren oinetara. Eta bere esku eskuina gainean ezarri zarotan, erraten zuelarik: Ez izi; ni naiz lehena eta azkena,

18. Eta bizi naizena; eta hila izatu naiz, eta huna non bizi naizen menderen mendetan, eta nik daduzkat heriotzearen gakhoak eta ifernukoak ere.

19. Ezarzkitzu bada iskrribuz ikhusten ditutzunak, eta direnak, eta haukien ondolik gerthatu behar direnak.

20. Ene eske eskuinean ikhusi dituzun zazpi izarren misterioa, eta zazpi urhezko ganderailuena: zazpi izarrek zazpi elizetako aingeruak dire; eta zazpi ganderailuak zazpi elizak dire.

II. KAP.

1. Iskriba zozu Ephesoko elizaren aingeruari: Huna zer dioen zazpi izarrek esku eskuinean daduzkanak, eta zazpi urhezko ganderailuen artean dabilanak:

2. Badakizkit zure eginak eta nekheak, eta egartzeak, eta ezin jasan dezazketzula gaixtaginak; eta haztatu ditutzula beren buruak apostoluztat ematen dituztenak, eta hala ez direnak; eta gezurretan atzeman dituztu;

3. Eta jasankor zare, eta egarri izan duzu ene izenaren gatik, eta ez duzu amor egin.

4. Baina badut zuretzat errateko bat, utzi baituzu zure lehenbiziko karitatea.

5. Orhoit zaite beraz nondik zaren erori, eta egizu penitentzia eta bihur zaite leheneko egintzetara. Ezen bertzela, heldu natzaitzu, eta bere tokitik aldaratuko dut zure ganderailua, egiten ez baduzu penitentzia.

6. Hau ordean baduzu, hastio ditutzula Nikolastiarren egitateak, zeinak neronek ere higuin baitituz.

7. Beharrik duenak entzun beza Izpirituak elizei diotena: Garhaileari emanen diot jatera bizitzeko arbolatik, zeina ene Jainkoaren parabisuan baitago.

8. Eta Smirnako elizaren aingeruari iskriba zozu: Hau dio lehena eta azkena denak, hil izan eta bizi denak:

9. Badakizkit zure atsekabea eta behartasuna, baina zare aberats; eta zuretzat ahapaldika hari dire beren buruak Judutzat ematen dituzten batzu; eta ez dire hala, baina satanen bilkhua dire.

10. Jasaitera zohazenez beldurrik ez izan batere. Huna non debruak presondegira igorriko dituen zuetarik zenbait, zuek gaizkirat ekharri beharrez; eta hamar egunez izanen duzue atsekabe. Heriotzeraino zaude gogor, eta emanen darotzuz bizitzeko khoroa.

11. Beharrik duenak entzun beza Izpirituak elizei diotena: Garhaile atherako denak, bigarren heriotzetik ez du bidegaberik izanen.

12. Eta iskriba zozu Pergamoko elizaren aingeruari: Hau dio, bi aldeetarik ezpata zorroztua dadukanak:

13. Badakit non duzun egoitza, satanen alkhia dagoen tokian; eta idukitzen duzu ene izena, eta ez duzu ukhatu ene sinhestea. Ez-etare egun hekietan, zeinetan Antipas, ene aithorle zina, hila izan baita zuen artean, non baitaduka satanek egoitza.

14. Baina zuretzat badut errateko zerbait, zeren dituzun hor Balaamen irakhaspenarentzat dadukaten batzu, harek Balaki irakhaspen baitzioen Israelen, umeei aitzinera behaztopagailu atheratzen, sori etziren gauzetarik janarazten, eta lohikeriara lerrarazten.

15. Halaber badituztu ere Nikolastiarren irakhaspenarentzat dadukatenak.

16. Orobat egizu penitentzia; bertzela horrako natzaitzu laster, eta gudu emanen diotet ene ahoko ezpatarekin.

17. Beharrik duenak adi beza Izpirituak elizei diotena: Garhaizia daramanari emanen diot mana gordea, eta emanen diot harri xuritto bat, eta harriaren gainean iskribatua izen berri bat, hartzaileak baizik nihork ez dakiena.

18. Eta iskriba zozu Thiatirako elizaren aingeruari: Hau dio Jainkoaren Semeak, zeinak baititu begiak suko garra bezala, eta zangoak letoina iduri:

19. Ezagutzen dituzte zure egitateak eta fedea, zure karitatea eta eginbideen bethetzea, zure jasankortasuna, eta azkeneko eginkariak, lehenekoak gaintzen dituztenak.

20. Baina zuretzat badut errateko zerbait, uzten duzulakoz Jezabel, bere burua profetatzat ematen duen emazteki bat, irakhaspen egitera eta ene zerbizarien enganatzera, hekien linburraraztera eta jainko-moldeei eskainietarik hekiei janaraztera.



21. Eman izan diot penitentzia egiteko astia, eta ez du nahi urrikitarra ethorri.

22. Huna bada ohatuko dudala; eta harekin khutsatzen direnak, hes-turarik gaitzenezan izanen dire, baldin beren tzarkeriez ez badute penitentzia egiten.

23. Eta haren umeak heriotzez hilen ditut, eta jakintsun izanen dire eliza guziak, ni naizela bihotzak eta barneak ondoraino haztatzen ditudana; eta zuetarik batbederari eginen diot bere egitateen arabera. Zuei berriz, erraten darotzuet,

24. Eta Thiatiran zareten gainerakoei: Irakhaspen hau ez dadukaten guziei, eta ezagutu ez dituztenei satanen barnatasunak, berek dioten bezala, bertze kargarik ez darotzuet gainerat emanen.

25. Behintzat hargatik, duzuen idukazue ni ethorri bizkitartean.

26. Eta garai atherako denari eta ene egintzak azkeneraino begiratu ditukeenari, nausitasuna emanen diot jendaien gainean;

27. Eta burdinazko zigorraz erabiliko ditu, eta lurrezko untzi bat bezala izanen dire zathikatuak,

28. Neronek ere ene Aitaren ganik izan dudana ahalaren arabera; eta emanen diot artizarra.

29. Beharirik duenak adi beza Izpirituak elizei diotena.

III. KAP.

1. Eta Sardeseko elizaren aingeruari iskriba zozu: Hau dio Jainkoaren zazpi Izpirituak eta zazpi izarrak dituenak: Badakizkit zure egitateak, baduzula bizi zarelako izena, eta hila zarela.

2. Zaude atzarri, eta hazkar zatzu hiltzera zihoazen bertzeak. Ez ditut ezen zure egintzak betheak aurkitzen ene Jainkoaren aitzinean.

3. Gogoan idukazu beraz zer izan eta zer aditu duzun; eta begira zazu, eta penitentzia egin. Ez bazaude ordean atzarria, ethorriko natzaitzu ohoina bezala, eta ez duzu jakinen zein orduz ethorriko natzaitzun.

4. Sardesen hargatik, baditutzu izen bakhar batzu, beren soinekoak zikhindu ez dituztenak, eta hetxek enekin soineko xuritan ibiliko dire, zeren merezdun baitire.

5. Garhaizia eramanen duena, horrela izanen da soineko xuriz jauntzia; eta haren izena ez dut bizitzeko liburutik ezeztatuko, eta aithortuko dut haren izena ene Aitaren aitzinean eta haren aingeruen aitzinean.

6. Beharirik duenak adi beza Izpirituak elizei diotena.

7. Eta iskriba zozu Philadelphiako elizaren aingeruari: Hau dio Sainduak eta Egiatiak, Dabiden gakhua dadukanak, zeinak idekitzen baitu, eta nihork ez hersten; zeinak hersten baitu, eta nihork ez idekitzen.

8. Badakizkit zure eginak. Huna non aitzinean zabaldurik ezarri darotzudan nihork ezin herts dezakeen athea; indar guti duzulakoz, eta ene hitza duzulakoz begiratu, eta ez duzulakoz ukhatu ene izena.

9. Huna non Satanen bilkhotik emanen darozkitzudan Juduak direla erraten duten batzu; eta ez dire hala, eta gezurrez mintzo dire: Huna non ethorraziko ditudan, eta khurtuko dire zure oinen aitzinean, eta jakintsun eginen dire nola zaitudan maite.

10. Zeren begiratu duzun ene jasanpeneko hitza, nik ere begiraturen zaitut frogetako orduan, zeina mundu guzirat ethortzekoa baita, lurreen bizi direnen frogatzera.

11. Huna non heldu naizen berehala: idukazu eskuan duzuna, nihork har ez dezan zure khoroa.

12. Garhaile atheratzen denaz habe bat eginen dut ene Jainkoaren tenploan, eta ez da gehiago kanporat ilkhiren; eta haren gainean iskribatuko dut ene Jainkoaren hiriaren izena, Jerusaleme berriarena, zerutik jausten dena ene Jainkoaren ganik, eta ene izen berria.

13. Beharirik duenak adi beza Izpirituak elizei diotena.

14. Eta iskriba zozu Laodizeako elizaren aingeruari: Hau dio Egiak, lekhuko zin eta egiazkoak, zeina baita Jainkoaren kreaturen ethorburua.

15. Badakizkit zure egitateak, etzarella ez hotza, ez beroa: balin ba bazine edo hotz, edo bero!

16. Bainan ephela baitzare, eta etzarelakoz ez hotza, ez beroa, hasiko natzaitzu ene ahotik arthikitzen.

17. Diozu ezen: Aberats naiz eta ontasundun, eta ez naiz nihoren behar; eta ez dakizu zarela erromes, eta urrikaltzeko, eta behar, eta itsu, eta buluz.

18. Sinhets nezazu, eros dizadazut suan garbiturikako urhea, aberats egin zaitezten, eta jauntz detzatzun soineko xuriak, eta alfer ez dadien zure buluztasunaren abalkeria; eta begi-urez busti zatzu zure begiak, ikhus ahal dezazun.

19. Nik, maite ditudanak azurriatzen eta gaztigatzen ditut. Erna zaite beraz, eta egizu penitentzia.

20. Huna athe aitzinean nagoela, eta jotzen dut: nihork aditzen badu ene oihua, eta idekitzen badarot athea, sarthuko naiz haren gana, eta afalduko naiz harekin, eta hura enekin.



21. Garhaile atheratuko denari emanen diot jartzea enekin ene tronuan; hala-nola garhaitu baitut nik ere, eta jarri bainaiz ene Aitarekin haren tronuan.

22. Beharrik duenak adi beza Izpirituak elizei diotena.

IV. KAP.

1. Gero ikhusi izan nuen: eta hara athe bat zabaldua zeruan; eta turuta bezala niri mintzatzen aditu izan nuen lehenbiziko mintzoak erran zarotan: Igan zaite hunat, eta erakhutsiren darozitzut horien ondotik gertatu behar direnak.

2. Eta ordu berean gogoz han nintzen; eta hara jartoki bat ezarria zela zeruan, eta jartokian bazela norbait jarririk;

3. Eta jarria zenak begira iduri zuen jaspe eta sardio harria; eta jartokiaren inguruan bazen ortzadar bat esmeraldaren itxurakoa.

4. Eta jartokiaren inguruan baziren bertze hogoi eta lau jarlekhu; eta alkhiaren gainean hogoi eta lau zahar jarriak, soineko xuritan, eta urhezko khoroak buruan.

5. Eta tronatik ilkhitzen ziren ximistak, heiaz, ora eta ihurtzuriak, eta tronuaeren aitzinean baziren zazpi argi biztuak, zeinak baitire Jainkoaren zazpi Izpirituak.

6. Eta bazen tronuaeren aitzinean berinazko itsaso bat bezala, kristaila iduri; eta jarlekuaren erdian eta jarlekuaren inguruan lau abere, aitzin gibeletan begiz betheak.

7. Eta lehenbiziko abereak iduri zuen lehoina, eta bigarrenak aratxea, eta hirugarren abereak begitharte bat zuen gizonarena bezalakoa, eta lau garren abereak iduri zuen hegaldaka dohan arranoa.

8. Eta lau abereek bazituzten seira hegal, eta inguruan eta barneko aldean betheak ziren begiz; eta ez egunaz ez gabaz, hats hartu gabe erraten zuten: Saindu, Saindu, Saindua Jainko Jaun guziz ahaldua, zeina baitzen, zeina baita, eta zeina ethorriren baita.

9. Eta abere hekiek ospe, ohore eta benedizione ematen haritzen zirenean tronuaeren gainean jarria zagoenari, menderen mendetan bizi denari,

10. Ahuspez hogoi eta lau zaharrak erortzen ziren tronuan jarria zagoenaren aitzinean, eta adoratzten zuten menderen mendetan bizi dena, eta beren khoroak tronuaeren aitzinera arthikitzen zituzten, ziotelarik:

11. Badagokizu, gure Jainko Jauna, izan dezazun ospe, ohore eta indar; zeren zuk egin izan baititutzu guziak, eta zure nahiz baitziren eta eginak baitire.

V. KAP.

1. Eta tronuan jarririk zagoenaren esku eskuinean ikhusi nuen liburu bat, barnetik eta kanpotik iskribatua, eta zazpi zigiluz zigilatua.

2. Eta ikhusi nuen aingeru indardun bat, goraki oihu egiten: Liburuaren idekitzeko eta zigiluen urratzeko bethe denik nor da?

3. Eta nihor etzen ez zeruan, ez lurraen, ez luphean ere liburu zabal, ez-etare hari begira zezakeenik.

4. Eta ni, nigar minetan nindagoen, nihor etzelakoz aurkhitu liburuaren zabaltzeko bethe, ez-etare hari begiratzeko.

5. Eta zaharretarik batek erran zarotan: Ez egin nigarrik: huna non Judaren iraulgiko lehoina, Dabiden gandoa, garaitiar atheratzten dela liburuaren zabaltzeko, eta zazpi zigiluen urratzeko.

6. Eta ikhusi nuen; eta hara tronuaeren erdian, eta lau abereen artean, eta zaharren erdian, Bildots bat xutik, imolatua iduri; bazituen zazpi adar, eta zazpi begi, zeinak baitire Jainkoaren zazpi Izpiritu, lurraren hedadura-ira igorriak direnak.

7. Eta ethorri zen; eta tronuan jarria zagoenaren esku eskuinetik hartu zuen liburu.

8. Eta zabaldu zuenean, lau abereak eta hogoi eta lau zaharrak ahuspez erori ziren Bildotsaren aitzinean, guziek eskuetan zaduzkatelarik gitarra, eta urhezko unti batzu betheak usain gogoz, zeinak baitire sainduen othoitzak.

9. Eta kantika berri bat kantatzen zuten ziotelarik: Badagokizu, Jauna, liburuaren zabaltzea eta hortako zigiluen urratzea; zeren izan baitzare heriotzez hila, eta Jainkoarentzat zure odolaz erosi baikaituzu leinu, eta mintzaia, eta populu, eta jendaki guzietarik.

10. Eta egin izan gaituzu gure Jainkoarentzateko errege eta aphez; eta erreginaturen gure lurraren gainean.

11. Eta ikhusi nuen, eta aditu hainitz aingeruren mintzoa, tronuaeren, abereen eta zaharren inguruan; eta mila eta milaka zen ostea,

12. Oihuka erraten zutenena: Badagokio hila izan den Bildotsari izan dezan ahal, jainkotasun, zuhurtzia, indar, ohore, ospe eta benedizione.

13. Eta zeruan, eta lurraren gainean eta luphean diren kreatura guziei, eta itsasoan eta haren barnean direnei, orori aditu nioten erraten: Tronuan jarria denari eta Bildotsari, benedizione, ohore, ospe eta bothere menderen mendetan.

14. Eta lau abereek erraten zuten: Halabiz. Eta hogoi eta lau zaharrak ahuspez erori ziren, eta adoratu zuten menderen mendetan bizi dena.



VI. KAP.

1. Eta ikhusi nuen, Bildotsak ideki zuela zazpi zigiluetarik bat; eta aditu nuen lau abereetarik bat, ihurtzuria bezalako mintzo batekin erraten: Zato eta ikhusazu.

2. Eta ikhusi nuen; eta hara zaldi zuri bat, eta haren gainean jarria zenak bazuen arrarbela bat, eta eman zioten khoro bat; eta garhaile, garhaitzerat atheratu zen.

3. Eta ideki zuenean bigarren zigilua, bigarren aberea aditu nuen erraten: Zato eta ikhusazu.

4. Eta athera zen bertze zaldi bat gorrasta; eta haren gainean jarria zenari eman izan zitzaioen lurretik bakearen khentzea, eta gizonak beren artean hilka hariaraztea, eta ezpata handi bat eman zitzaioen.

5. Eta ideki zuenean hirugarren zigilua, aditu nuen hirugarren aberea erraten: Zato eta ikhusazu. Eta hara zaldi beltz bat; eta haren gainean jarria zenak, balantza bat zadukan eskuan.

6. Eta mintzo bat bezala aditu nuen lau abereen erditik erraten: Bi laurden ogi denario batean, eta sei laurden garagar denario batean; eta ez andea arnoa eta olioia.

7. Eta ideki zuenean laugarren zigilua, aditu nuen laugarren aberearen mintzoa erraten: Zato eta ikhusazu.

8. Eta hara zaldi hits bat; eta haren gainean jarria zenak izena zuen Herioa, eta zarrakioen ifernua, eta esku eman zitzaioen lurraren lau bazterren gainean, hiltzeko ezpataz, eta gosetez, eta heldez, eta lurreko basabereez.

9. Eta ideki zuenean bortzgarren zigilua, aldarearen azpian ikhusi nituen, Jainkoaren hitzaren gatik eta ekharri zuten lekhukotasunaren gatik hilak izan zirenen arimak;

10. Eta deihadar handitan hari ziren, ziotelarik: Noiz arteo, Jauna (saindu eta egjati zarena), egonen zare zuzenari bere bidea eta gure odolari asperkunde emateko, lurraren gainean bizi diren horien kontra?

11. Eta bakhotxari eman zitzaioen soin xuri bana; eta errana izan zitzaioten, igurik zezaten aphur bat oraino, hekien zerbitzari lagun eta anaia, hekiek bezala hiltzekoak zirenen andana osa zadien arteo.

12. Eta ikhusi nuen, ideki zuenean seigarren zigilua; eta hara, lur ikhara handi bat egin izan zen, eta iguzkia belztu zen ilezko zakhu bat bezala, eta ilhargia dena odola bezala egin izan zen.

13. Eta izarrak erori ziren zerutik lurrera, hala-nola pikondoak ixurten baititu bere pikoak, haize handi batek iharosten duenean.

14. Eta zerua bildu zen, liburu bat biribilkatzen den bezala; eta mendi guziak eta irlak higitu ziren beren tokietarik.

15. Eta errege, buruzagi, soldado aitzindari, aberats, botheredun, gathibu eta pelut, guziak gorde ziren har-ziloetan eta mendietako harkadietan.

16. Eta mendiei eta harkadiei erraten zioten: Eror zaitezte gure gainera, eta gorde gaitzatzue tronuaren gainean jarria dagoenaren ikhusemetik eta Bildotsaren hasarretik;

17. Zeren ethorri baita hekien hasarrezko egun gaitza, eta nork iraun oinen gainean?

VII. KAP.

1. Horiatarik lekhora, ikhusi nituen lau aingeru lurraren lau izkinetan xutik, lurreko lau haizeak atxikitzen zituztela, eman etzezaten lurraren gainera, ez-eta itsasora, ez-etare arbola bakhar baten gainera.

2. Eta ikhusi nuen bertze aingeru bat iguzki sortzetik igaiten, Jainko biziaren zigilua zadukalarik; eta lurrari eta itsasoari bidegabe egiteko eskua zuten lau aingeruei oihu handi bat egin zioten,

3. Zerrotelarik: Kalterik ez egin lurrari, ez itsasoari, ez-eta arbolei, kopetan zigiluaren hatza ezar diozotegun artean gure Jainkoaren zerbitzariari.

4. Eta aditu nuen zenbat ziren zigiluaren hatzaz joak, zazpitan hogoi eta lau mila zigilatuak Israelen semeen leinu guzietarik.

5. Judaren errotik hamabi mila zigilatu; Errubenen errotik hamabi mila zigilatu; Gaden errotik hamabi mila zigilatu;

6. Aserren leinutik hamabi mila zigilatu; Nefthaliren errotik hamabi mila zigilatu; Manaseren errotik hamabi mila zigilatu;

7. Simeonen errotik hamabi mila zigilatu; Lebiren errotik hamabi mila zigilatu; Isakarren errotik hamabi mila zigilatu;

8. Zabulonen errotik hamabi mila zigilatu; Josepen errotik hamabi mila zigilatu; Benjaminen errotik hamabi mila zigilatu.

9. Ikhusi nuen gero nihork ezin khondatuzko oste handi bat, jendaki, leinu, populu, mintzaia guzietarik, tronuaren eta Bildotsaren aitzinean xutik, soineko xuritan eta palmak eskuan;

10. Eta goraki oihuz zauden, erraten zutelarik: Agur gure Jainko tronuaren jarria dagoenari eta Bildotsari.

11. Eta aingeru guziak xutik zauden tronuaren, eta zaharren, eta lau abereen inguruan; eta ahuspez erori ziren tronuaren aitzinean, eta adora-tu zuten Jainkoa,



12. Ziotelarik: Biz. Benedizioe, ospe, zuhurtzia, esker, ohore, bot- here eta indar gure Jainkoari menderen mendetan: Halabiz.

13. Eta zahar bat mintzatu zen, eta erran zarotan: Nor dire soineko xuritan dauden horiek? eta nondik ethorri dire?

14. Eta ihardetsi nioen: Jauna, zuk badakizu. Eta erran zarotan: Horiek dire hestura handien artetik hunat ethorri direnak, eta beren soi- nekoak Bildotsaren odolean garbitu eta xuritu dituztenak.

15. Hargatik daude Jainkoaren tronuaren aitzinean, eta gau eta egun zerbitzatzen dute bere tenploan; eta tronuan jarria dena egonen da horien gainean;

16. Eta ez dute gehiago goserik ez egarririk ikhusiko, eta ez da horien gainera eroriko ez iguzkia, ez-eta niholazko berorik;

17. Zeren tronuaren erdian dagoen Bildotsak hotsemanen baitiote eta bizitzeko ithur-uretan eradanen baititu, eta Jainkoak horien begietarik xukhatuko baititu nigar guziak.

VIII. KAP.

1. Eta ideki zuenean zazpigarren zigilua, zerua ixiltasunean gelditu zen oren erdi bat bezala.

2. Eta ikhusi nituen Jainkoaren aitzinean xutik zazpi aingeru; eta eman ziozkaten zazpi turuta.

3. Eta ethorri zen bertze aingeru bat, eta gelditu zen aldarearen aitzinean, urhezko isentsuntzi bat eskuan; eta eman zioten isentsu hainitz, ezar zezan saindu guzien othoitzetarik Jainkoaren tronu aitzinean den urhezko aldarearen gainean.

4. Eta aingeruaren eskutik Jainkoaren aitzinera igan zen sainduen othoitzetarikako isentsuen khea.

5. Eta aingeruak hartu zuen isentsuntzia, eta bethe zuen aldareko sutik; eta lurraren gainera arthiki zuen, eta jauzi ziren ihurtzuri, deihadar, ximista eta lur ikhara gaitzak.

6. Eta zazpi turutak zituzten zazpi aingeruak abiatu ziren turuta jotzera.

7. Eta lehenbiziko aingeruak jo zuen turuta, eta egin izan zen harria eta sua, odolarekin nahaste; eta arthikia izan zen lurraren gainera, eta lurraren herena erre izan zen, eta arbolen herena kiskailia eta belhar ferde guzia xigortua.

8. Eta turuta jo zuen bigarren aingeruak; eta sutan den mendi handi bat bezala itsasora arthiki zen, eta itsasoaren herena odol bilhakatu zen,

9. Eta itsasoan bizia zuten kreatoretarik herena hil izan zen, eta xahutu zen untzietarik herena.

10. Eta hirugarren aingeruak jo zuen turuta, eta zerutik erori zen izar handi bat su garretan, zuzi bat bezala, eta erori izan zen ibaien hereneta, eta ithur-uretara.

11. Eta izar haren izena zen Zizari-belharra; eta uren herena zizari-belharra bilhakatu zen, eta gizon hainitz hil izan zen ur hekietarik, kharastu zirelako.

12. Eta turuta jo zuen laugarren aingeruak; eta joak izan ziren iguzkiaren herena, eta ilhargiaren herena, eta izarren herena; haletan non ilhundu baitzitzaioten hirugarren zathia, eta hirugarren zathiak ez baitzioen gehiago argirik ematen ez egunari, ez halaber gauari.

13. Eta ikhusi nuen, eta aditu nuen zeruaren erditik hegaldaka zihan arrano baten boza, zeinak hazkarki oiuhu egiten baitzuen: Zorigaitz! zorigaitz! zorigaitz lurrean bizi direnei, turutaren jotzekotan diren bertze hirur aingeruak erranen dutenaren gatik!

IX. KAP.

1. Eta bortzgarren aingeruak jo zuen turuta; eta ikhusi nuen izar bat zerutik lurrera erori zela, eta emana izan zitzaioen lezeko putzuaren gakhoa.

2. Eta ideki zuen lezeko putzua, eta igan zen putzuko khea, labe handi bateko khea bezala; eta iguzkia, eta airea ilhunduak izan ziren putzuko kheaz;

3. Eta putzuko khetik ilkhi ziren lurrera xartalak; eta emana izan zitzaioten ahala, lurreko harrobiek duten bezalako ahala;

4. Eta manatu zitzaioten bidegaberik ez egiteaz ez lurreko belharri, ez berde den guziari, ez-eta arbola bakhar bati ere; bainan-bai Jainkoaren hatza kopetan ez duten gizonen;

5. Eta eskua eman izan zitzaioten, ez hekien hiltzeko, baizik-ere hekiei bortz hilabetez oinhaze emateko; eta hekien ganikako oinhazeak ziren harrobiak gizona asikitzen duenean bezalako oinhazeak.

6. Eta egun hekietan heriotzea bilhatuko dute gizonak, eta ez dute aurkhituren; eta nahiko dute hil, eta ihes eginen diote herioak.

7. Eta xartalak bezalako hekiek iduri zuten zaldi gudukotzat aphainduak; eta buruan bazituzten khoroak bezalako batzu, urhearen idurikoak; eta hekien muthurra, gizon begithartea bezalakoak zen.

8. Eta zituzten ileak, emazteki ileak iduri; eta hortzak lehoinen hortzak bezalakoak;



9. Eta bazituzten bulharretakoak, burdinazko bulharretakoak iduri; eta hekien hegaleen harrabotsak iduri zuen zaldi haintzekin gerlara tarripatan dihoazen orga-lasterren harrabotsa,

10. Eta zituzten buztanak harrobiek iduri, eta eztenak baziren hekien buztanetan; eta bazuten gizonei bortz hilabetez kalte egiteko ahala; eta zuten beren gainean

11. Erregetzat lezeko aingerua, hebrearaz Abaddon deitzen dena, greziaraz Apollyon, latinez Exterminans.

12. Ondiko bat iragan zen; eta huna non haren ondotik heldu diren oraino bertze bi ondiko.

13. Eta seigarren aingeruak jo zuen turuta; eta Jainkoaren begithartean aitzinean den urhezko aldarearen lau izkinetarik aditu nuen mintzo bat,

14. Seigarren aingeru turutadunari erraten: Ufratako ibai handian estekatuak diren lau aingeruen lokharriak urra zatzik.

15. Eta estekatik atheratuak izan ziren lau aingeruak, zeinak abian baitzauden oreneko, eta eguneko, eta hilabetezko, eta urheko, gizonen herenaren hiltzekotzat.

16. Eta zaldizko armada, hogoi miletan hamar miletara heltzen zen. Aditu nuen ezik zenbat ziren.

17. Eta hula ikhusi nituen zaldiak ikhusaldi haran; eta hekien gainean jarriak zirenek bazituzten suzko, moredinezko eta sufrezko bulharretakoak; eta zaldien buruak ziren lehoin buruak bezalakoak; eta hekien ahotik ilkhitzen zen su, khe eta sufre.

18. Eta hekien ahotik ilkhitzen ziren su, khe eta sufrez, hirur izurri horietaz hila izan zen gizonen herena.

19. Ezen zamari hekien ahala datza ahoan eta buztanetan; zeren hekien buztanak, sugeen idurikoak, buruekin dire; eta hekietaz zauritzen dute.

20. Eta izurri hekiek hil etzituzten gizonak, etziren halere beren eskuetako egitatez urrikitan sarthu, gehiago ez adoratzeko debruak, urhezko, zilharrezko, kobrezko, harrizko eta zurezko jainko-moldeak, zeinek ezin baitezakete, ez ikhus, ez adi, eta ezin ibil baititezke.

21. Eta etzuten penitentziarik egin beren gizon hiltze, phozoindatze, lizunkeria eta ohointzez.

X. KAP.

1. Eta ikhusi nuen bertze aingeru hazkar bat zerutik jausten, hedoi batez jauntzia, eta ortzadar bat buruan; eta haren begithartea zen iguzkia iduri, eta haren zangoak suzko habe batzu bezala;

2. Eta eskuan bazuen liburutto bat zabaldua; eta eskuineko zangoa ezarri zuen itsasoaren gainean, eta ezkerrekoa lurraren gainean;

3. Eta hazkarki oihu egin zuen, lehoinak marruma egiten duenean bezala. Eta oihu egin zuenean, zazpi ihurtzurik adiarazi zituzten beren mintzoak.

4. Eta zazpi ihurtzuriek adiarazi zituztenean beren mintzoak, ni iskribatzeraz nindohan; eta zerutik aditu nuen mintzo bat niri erraten: Zigila zatzu zazpi ihurtzurien erranak, eta ez iskriba horiek.

5. Eta itsasoaren eta lurraren gainean xutik ikhusi nuen aingeruak zerura goititu zuen eskua,

6. Eta zin egin zuen menderen mendetan bizi denaz, zeinak egin baititu zerua eta hartan direnak, lurra eta hartan direnak, itsasoa eta hartan direnak: Gaur-geroz denborarik ez da gehiago izanen;

7. Bainan zazpigarren aingerua mintzatuko den egunetan, turutaka hasiko denean, betheko da Jainkoaren misterioa, bere zerbitzari profeten ahoz erantzun duen bezala.

8. Eta zeruko mintzoa aditu nuen berriz niri mintzatzen eta erraten: Zoaz, eta itsasoaren eta lurraren gainean xutik jarria den aingeruaren eskutik har zazu idekia den liburua.

9. Eta goan natzaioen aingeruari, erraten niolarik eman zezadan liburua. Eta ihardetsi zarotan: Har zazu eta irets; eta kharats eginen darotzu sabela, bainan ahoan gozo izanen duzu ezta bezala.

10. Eta aingeruaren eskutik hartu nuen liburua, eta iretsi nuen; eta gozo zen ene ahoan ezta bezala; eta iretsi nuenean, kharastu zen ene sabela.

11. Eta erran zarotan: Oraino ere profetisatu behar duzu jendaien, eta populuen, eta mintzaien, eta errege askoren aitzinean.

XI. KAP.

1. Eta eman zarotedan neurtzeko makhila bezalako khanabera bat; eta errana izan zitzaitan: Jaiki zaite, eta neur zatzu Jainkoaren tenploa eta aldarea, eta hor adoran daudezenak.

2. Aldiz kanpoan den lorioa, bego kanpo, eta etzazula neur; zeren-eta jendaki atzei emana izan baitzaio; eta hekiek, berrogoi eta bi hila-bethez oin-petan erabiliko dute hiri saildua.

3. Eta ene bi lekhukori esku emanen diotet, eta zurdatzak jauntzirik profetisatuko dute hamabi ehun eta hirur hogoi egunez.



4. Hekiek dire lurraren Jaunaren aitzinean dauden bi olibondo eta bi ganderailu.

5. Eta norbaitek gaizkirik egin nahi badiote, sua ilkhiko da hekien ahotik, eta iretsiko ditu hekien etsaiak; eta norbaitek bidegabe ekharri nahi badiote, hainak hala behar du izan hila.

6. Hekiek badute zeruaren hersteke eskua, uririk egin ez dadien, berak profetisatzen hariko diren egunetan; eta eskua badute uren gainean, odoletara hekien bihurrazteko, eta edozein izurritz lurraren jotzeko nahiko duten aldi guzietz.

7. Eta akhabatu duketenean beren lekhukotasuna, lezetik igaiten den basabereak gerla eginen diote, eta garhaituko, eta hilen ditu.

8. Eta hekien gorphutzak hedaturik egonen dire hiri handiko plazetan, zeina ispiritualki Sodoma eta Egipto deitzen baita, non ere hekien Jauna izan baita gurutzefikatua.

9. Eta asko leinu eta populu, eta mintzaia eta jendakietako gizonek, hirur egun eta erdiz ikhusiren dituzte hekien gorphutzak, eta ez dituzte hobitan ezartzerat utziko.

10. Eta lurrean bizi direnak boztuko dire hekien heriotzeaz, eta gozo hartuko dute, eta ekharri emaitza bidaltzen hariko dire, bi profeta hekiek atsekabetan iduki zituztelakoz lurrean egoten zirenak.

11. Eta hirur egun eta erdiren buruan, biziaren hatsa Jainkoaren ganik sarthu zen hekien baithan. Eta oinen gainera jaiki ziren, eta izialdura gaitza erori zen hekien ikhusleen gainera.

12. Eta zerutik aditu zuten mintzo hazkar bat, hekiei erraten: Igan zaitezte hunat. Eta hedoi batean igan ziren zerura; eta ikhusi zituzten beren etsaiak.

13. Eta ordu berean egin izan zen lur ikhara handi bat, eta hiriaren hamargarren bat lehertu zen; eta lur ikhara hartan hil izan ziren zazpi mila gizon; eta lastuak gelditu ziren bertzeak, eta zeruko Jainkoari ospe bihurru zioten.

14. Iragan da bigarren ondikoa; eta huna laster ethorriko dela hirugarrena.

15. Jo zuen turuta zazpigarren aingeruak; eta zeruan egin ziren boz handi batzu, erraten zutenak: Gure Jaunaren eta haren Kristorena egin da mundu huntako erregegoa, eta menderen-mendetan da erreginaturen. Halabiz.

16. Eta Jainkoaren aitzinean beren alkhiatan jarriak dauden hogoi eta lau zaharrak, ahuspez erori ziren, eta adoratu zuten Jainkoa, erraten zutelarik:

17. Eskerrak bihurtzen darozkitzugu, Jainko Jaun guziz ahaldua, zarena, eta zinena, eta ethorriko zarena, zeren zure indar handiaz jabetu baitzare, eta zure erregetasunean jarri.

18. Eta sumindu dire jendaiak, eta jauzi da zure hasarrea, eta ethorri da hilen juiatzeko ordua; eta zure zerbitzari profetei, eta sainduei, eta zure izenaren beldur direnei, ttipiei eta handiei, beren sariaren bihurtzekoa, eta lurra gaizkindu dutenen kalitzekoa.

19. Eta zabaldu izan zen Jainkoaren tenploa zeruan, eta ikhusi izan zen haren batasuneko khutxa haren tenploan; eta egin izan zen ximista, eta oihu, eta lur ikhara, eta harrite handia.

XII. KAP.

1. Eta sendagail handi bat agertu zen zeruan: Andre bat zen iguzkiar inguratua soin batez bezala, eta haren oinen azpian ilhargia, eta hamabi izarretako khoro bat haren buruaren gainean;

2. Eta sabelean haurdu baitzen, oihuz zagoen haur minetan, eta oinhazetan erditzeko.

3. Zeruan agertu zen bertze ikhaskari bat ere; eta hara erainsuge handi gorra bat, zazpi buru eta hamar adar zituena, eta zazpi belharreko zazpi buruetan;

4. Eta bere buztanarekin herrestan zaraman zeruko izarretarik herena, eta erorraziti zituen lurraren gainera; eta erainsugea gelditu zen haur minetan zagoen andrearen aitzinean, hura erditzen zenean irestekotzat haren haurra.

5. Eta erdi zen muthikoki batez, zeinak burdin zigorrarekin hotsemanen baitiote jendaia guziei; eta haur hori eraikia izan zen zerura, Jainkoaren gana, haren tronuaren aldera;

6. Eta andreak ihes egin zuen mortu batera, non baitzuen Jainkoak aphaindurikako toki bat, han hamabi ehun eta hirur hogoi egunez hazia izateko.

7. Eta egin zen gudu handi bat zeruan: eta Mixelek eta bere aingueruek gudu ematen zioten erainsugeari, eta erainsugea gudukatzen zen eta harekilako aingeruak ere bai;

8. Eta etziren nausitu, eta hekientzat etzen gehiago zeruan tokirik aurkhitu.

9. Eta irazia izan zen erainsuge handi hura, suge zaharra, debrua eta satan deitzen dena, mundu guzia enganatzen duena; eta anbidua izan zen lurrera, eta haren aingeruak harekin batean izan ziren iraziak.



10. Eta mintzo handi bat aditu nuen zeruan, erraten zuena: Orain egin dire salbamendua, eta indarra, eta gure Jainkoaren erresuma; eta haren Kristorena; zeren irazioa izan baita gure anaien iratxikitzailea, eta gau eta egun hekientzat Jainkoaren aitzinean iratxikika hari zena.

11. Eta hura berek garhaitu dute Bildotsaren odolaz, eta hitzari egin dioten lekhukotasunaz; eta beren biziak ez dituzte maite izan heriotzeari ihes egiteraino.

12. Hargatik boz zaitezte, zeruak, eta zuek ere zeruetan zaudezenak. Zorigaitz lur-itsasoei, zeren debrua zuetara jautsi baita, sepha gaitza bihoztzean dakielakoz labur duela ephea.

13. Eta ikhusi zuenean erainsugeak bere burua lurrerat arthikia, seme batez erdi zen andreari oldartu zitzaioen.

14. Eta arrano handi baten bi hegala emanak izan zitzaizkon andreari, hegaldak zadiantzat mortuko bere tokira, non hazia baita ephe bat, ephetan, eta ephe baten erdia, sugearen ganik urrun.

15. Eta sugeak ahotik ura ibaia bezala arthiki zioen andreari gibeletik, ibaiak eraman zezan nahiz.

16. Baina lurrak lagundu zuen andrea; eta bere ahoa idekirik, iretsi zuen erainsugeak ahotik igorrikako ibaia.

17. Eta andreari sumindu zitzaioen erainsugea; eta goan zen gudu ematera haren odoletikako bertze umeei, zeinek Jainkoaren manamenduak begiratzen baitituzte, eta Kristori lekhukotasun egiten.

18. Eta baratu zen itsasoko legarraren gainean.

XIII. KAP.

1. Eta ikhusi nuen itsasotik igaiten basabere bat, zazpi buru eta hamar adar zituena, eta hamar adarretan hamar belharreko, eta zazpi buruetan burhozko izenak.

2. Eta ikhusi nuen basabereak, iduri zuen lehoinabarra; eta haren hatzak hartzairenak bezalakoak ziren, eta haren ahoa lehoinarena bezalako. Eta erainsugeak eman zioen bere indarra eta ahal handia.

3. Eta ikhusi nuen haren buruetarik bat joa hiltzekotan bezala; eta haren sakhi hilgarria sendatua izan zen. Eta lur guziaz ederretsirik zohan basaberearen ondolik.

4. Eta adoratu zuten erainsugea, zeinak basabereari eman baitzioen ahala; eta adoratu zuten basaberea ere, ziotelarik: Nor da basaberearen iduriko? eta nork eginen ahal dio guduka?

5. Eta emana izan zitzaioen aho bat espantuz eta burhoz bethea; eta berrogoi eta bi hilabetez gaizki egiteko ahala eman zitzaioen.

6. Eta Jainkoari, eta haren izenari, eta haren tabernakleari, eta zeruan daudezenei burhoka haritzeko ideki zuen ahoa.

7. Eta emana izan zitzaioen sainduei gerla egiteko eta hekien garbaitzeko ahala. Eta leinu, eta populu, eta mintzaia, eta jendaki guziren gainean esku eman zitzaioen;

8. Eta adoratu zuten lurreko egoiliar hainek orok, zeinen izenak ez baitire munduaren hastapenetik iskribatuak izatu hila izan den Bildotsaren bizitzeko liburuan.

9. Nihork beharrik balin badu, adi beza.

10. Gathibu eramaile dena, bera gathibu goanen da; ezpatatz hiltzaile dena, bera ezpatatik goan behar da. Hortan datza sainduen jasankortasuna eta fedea.

11. Eta ikhusi nuen lurretik igaiten bertze basabere bat, eta bazituen bi adar Bildotsarenak bezalakoak; baina erainsugea bezala mintzo zen.

12. Eta lehenbiziko basaberearen eskudantzia bera bazerabilan haren aitzinean; eta lurrari eta lurrean daudezenei adorarazi zioten lehenbiziko basaberea, zeinaren heriozko sakha sendatua izan baitzen.

13. Eta egin zituen sendagaila handiak, sua gizonen aitzinean zerutik jautsarazterainokoan.

14. Eta basaberearen aitzinean egiteko ahala zuen sendagailen ariaz, liluratu zituen lurreko egoiliarak, erraten ziotelarik, ezpataren sarraskia izanik bizi zen basaberearen itxura bat egin zezaten.

15. Eta basaberearen itxurari biziaren emateko ahala eman zitzaioen, eta itxura haren mintzaraztekoa, eta itxura adoratuko etzuten guziren hilaztekoa.

16. Eta eginen du, guziek, ttipi eta handiek, aberats eta beharrek, pelut eta gathibuek izan dezaten esku eskuinean edo belharrean basaberearen hatza;

17. Eta nihork saltzerik edo erosterik ez dezan egin ahal, non ez duen basaberearen hatza, edo izena, edo izenaren zenbatekoa.

18. Huntan da jakin-beharra. Duenak adimendu, berez beza zenbaterara heltzen den basaberearen zenbatekoa. Ezik gizon baten hanbatekoa da; eta haren hanbatekoa, sei ehun eta hirur hogoi eta sei.

XIV. KAP.

1. Eta ikhusi nuen; eta hara Siongo mendiaren gainean xutik zagoe-la Bildotsa, eta harekin zazpitan hogoi eta lau mila, haren izena eta haren Aitaren izena belharrean iskribaturik zakhartenak.



2. Eta zerutik aditu nuen mintzo bat, ur handien harrabotsa iduri, eta ihurtzuri gaitz baten burrunba bezalako; eta nik aditu nuen mintzoa, gitarrarien gitarrak hari direnean bezalako zen.

3. Eta tronuaren eta lau abereen eta zaharren aitzinean kantatzen zuten kantika berri bat bezala; eta nihork ezin eman zezakeen kantu hura, zazpitan hogoi eta lau mila lurretik erosiak izan ziren hekiek baizik.

4. Horiek dire emaztekiarekin khutsatugabeak, ezik birjina dire. Horiek dire, Bildotsa, nora-nahi goan dadien, haren ondotik ibiltzen direnak. Horiek gizonetarik erosiak izatu dire, Jainkoari eta Bildotsari pikain bezala;

5. Eta gezurra ez da horien ahoan aurkhitu; alabainan notharik gabe dire Jainkoaren tronuaren aitzinean.

6. Eta bertze aingeru bat ikhusi nuen zeru erdia gaindi hegaldaka zihoala, Ebanjelio bethierekoa zadukalarik, irakhasteko lurrean daudezenei, eta jendaki, eta leinu, eta mintzaia, eta populu guziei;

7. Deihadarka zioelarik: Zaitetzen Jaunaren beldur, eta ohore ekharrozue, ezen ethorria da haren erabakietako ordua; eta adora zazue zeru, lur, itsaso eta ithur-uren egilea.

8. Eta ondotik ethorri zen bertze aingeru bat, zioena: Erori da, erori Babilona handia, jendaia guziei edanarazi diotena bere linburkerien arno hasarretik.

9. Eta hirugarren aingeru bat bertzei jarraiki zen, deihadarka zioelarik: Norkere basaberea eta haren itxura adonatu, eta belharrean edo eskuan hartu baituke haren hatza;

10. Hainak edanen du Jainkoaren hasarrezko arnotik, zeina huts-hutsa xuxendua baitago Jainkoaren hasarrezko untzian; eta suz eta sufrez oinhaztatua izanen da aingeru sailduen eta Bildotsaren aitzinean;

11. Eta menderen mendetan iganen da hekien oinhazeetako khea; eta ez egunaz ez gabaz onik izanen ez dute basaberea eta haren itxura adonatu, eta haren izenaren hatza ekharri duketenek.

12. Huntan datza sailduen jasankortasuna, Jainkoaren manamenduak eta Jesusen baithako sinhestea begiratzen dituztenena.

13. Eta zerutik aditu nuen mintzo bat, erraten zarotana: Iskriba zazu: Dohatsu hilak, Jaunaren baithan hiltzen direnak. Oraidanik, dio Izpirituak, hats har dezaten beren nekheetarik, badarraizkiote ezen beren eginkariak.

14. Eta ikhusi nuen, eta hara hedoi zuri bat, eta hedoiaren gainean jarririk norbait, gizonaren Semearen idurikoa, urhezko khoro bat buruan, eta sega zorrotz bat eskuan.

15. Eta tenplotik atheratu zen bertze aingeru bat, hedoiaren gainean jarria zenari goraki oihu egiten zioena: Jo segaz, eta ebakitzen hari zaitte; zeren ethorri baita ephai aroa, zorhitu da ezen lurreko uzta.

16. Eta hedoiaren gainean jarria zenak lurrari arthiki zioen bere sega, eta ebakia izan zen lurra.

17. Eta bertze aingeru bat ilkhi zen zeruan den tenplotik, hura ere sega zorrotz bat eskuan.

18. Eta aldaretik athera zen bertze aingeru bat, suaren gainean esku zuena; eta sega zorrotza zadukanari hazkarki oihu egin zioen, zerralarik: Jo zure sega zorrotzaz, eta motz lurreko aihenetako molkhoak, ezen ont-huak dire hango mahatsak.

19. Eta aingeruak lurrera hedatu zuen bere sega zorrotza; eta bildu zituen lurreko mahatsak, eta arthiki zituen Jainkoaren hasarreko thina handira;

20. Eta hiriz kanpoan oinkatua izan zen thina, eta handik odola atheratu zen zaldien kabrestuetaraino hamasei ehun estadioren eremuan.

XV. KAP.

1. Eta zeruan ikhusi nuen bertze ezagutkari gaitz eta ederresgarri bat; zazpi aingeru, azkeneko zazpi izurriak zaduzkatenak; hekiek bethetzen baitute Jainkoaren hasarrea.

2. Eta ikhusi nuen berinazko itsaso bat bezala, suarekin nahasia; eta basaberearen, eta haren itxuraren, eta haren izeneko zenbataren garhaitzaileak berinazko itsasoaren gainean xutik, Jainkoaren gitarrak eskuetan;

3. Eta kantatzen zuten Moises Jainkoaren zerbitzariaren kantika, eta Bildotsaren kantika, ziotelarik: Handi eta ederresgarri dire zure egintzak, Jainko Jaun guziz abalduna; zuzenak eta zinak dire zure bideak, oi mendeetako Erregea.

4. Nor ez da zure beldur izanen, Jauna, eta nork ez du goretsiren zure izena? ezen zu zare bakharririk urrikalmendutsu, ethorriko baitire jendaki guziak, eta zure aitzinean adoran jarriko baitire, ageriratu direlakoz zure erabakiak.

5. Eta gero ikhusi nuen, eta hara zeruan ideki zela lekhukotasuneko tabernaklearen tenploa;

6. Eta tenplotik ilkhi ziren, zazpi izurriak daduzkaten zazpi aingeruak, liho xuri eta garbiz jauntziak, eta urhezko gerrikoz bulharretan tinkatuak.

7. Eta lau abereetarik batek zazpi aingeruei eman ziozkaten zazpi untzi, Jainko menderen mendetan bizi denaren hasarrez betheak.



8. Eta khez bethe zen tenploa Jainkoaren handitasunaren gatik, eta haren indarraren ariaz; eta tenploan, zazpi aingeruen zazpi izurriak iragan artean, nihor ezin sar zitekeen.

XVI. KAP.

1. Eta tenplotik mintzo hazkar bat aditu nuen zazpi aingeruei erraten: Zoazte, eta Jainkoaren hasarreko zazpi untxiak lurraren gainera ixur zatzue.

2. Eta goan zen lehenbizikoa, eta lurraren gainera hustu zuen bere untxia, eta basaberearen hatza zutenei, eta haren itxura adoratu zutenei egin zitzaizkien zauri bat gaixtoa eta ahalik gaitzena.

3. Eta bigarren aingeruak itsasora hustu zuen bere untxia, eta itsasoa egin zen hil baten odola bezala; eta itsasoan bizi zuen guzia, hil izan zen.

4. Eta hirugarrenak bere untxia ixuri zuen ibaietara eta ithur-uretara, eta odol egin ziren.

5. Eta aditu nuen uretako aingerua erraten: Zuzena zare, Jauna, saindu zarena eta zinena, huneletan erabaki duzuna;

6. Sainduen eta profeten odola dutelako izuri, zuk ere odola eman diozute edatera; ezik hala zuten merezi.

7. Eta aditu nuen bertze bat, aldaretik erraten: Bai, Jainko Jaun, guziz ahalduna, zinak eta zuzenak dire zure erabakiak.

8. Eta laugarren aingeruak iguzkiaren gainera ixuri zuen bere untxia, eta emana izan zitzaizkien gizonak beroaz eta suaz jotzea.

9. Eta beroak xigortzen zituen gizonak; eta izurri horien gainean esku duen Jainkoaren izena burhoztatzen zuten; eta etziren urrikitan sartu, ospe hari bihurtzeko.

10. Eta bortzgarren aingeruak basaberearen jarlekhura ixuri zuen bere untxia; eta ilhundu zen haren erresuma; eta minaren minez, gizonak jaten zituzten bere mihiak.

11. Eta burhoka haritu zitzaizkon zeruko Jainkoari beren oinhaze eta zaurien gatik; eta beren egitatez etzuten penitentziarik egin.

12. Eta seigarren aingeruak bere untxia hustu zuen, Ufratako ibai handi hartara; eta agortu zuen hango ura, bidearen aphaizteko iguzkialdetikako erregeei.

13. Eta erainsugearen ahotik, eta basaberearen ahotik, eta profetaizunaren ahotik atheratzen ikhusi nituen hirur izpiritu lohi igelen idurian.

14. Ezen debruen izpirituak dire hekiek, harrizteko sendagailak egi ten dituztenak, eta lurreko errege guzien gana badohazi, gudura hekien biltzeko, Jainko guziz ahaldunaren egun handikotzat.

15. Huna non heldu naizen ohoina bezala. Dohatsu atzarririk dagoena eta bere soinekoak begiratzen dituen, bulusik ibil ez dadien, eta ikhus ez dezaten haren ahalkea.

16. Eta hebrearaz Armagedon deitzen den tokira bilaraziren ditu.

17. Eta zazpigarren aingeruak airera hustu zuen bere untxia, eta tenploko tronutik ilkhi zen mintzo hazkar bat, zioena: Egin da.

18. Eta jauzi ziren ximistak, eta deihadarrak, eta ihurtzuriak, eta egin zen lur ikhara handi bat, halako lur ikhara, non hain handirik ez baitzen egundaino gerthatu gizonak lurraren gainean bizi direnaz gerotzik.

19. Eta hirur zathitan egin zen hiri handia, eta lehertu ziren jendaien hiriak. Eta Jainkoaren aitzinean orhoitzapenetara ethorri zen Babilona handia, edatera eman zakioen Jainkoaren sumindurako hasarrearen arno-ko untxia.

20. Eta ihes egin zuten irla guziek, eta etziren aurkhitu mendiak.

21. Eta harrite handi bat, pikorra talendua bezalakoa, zerutik erori zen gizonen gainera; eta gizonak Jainkoari burhoka erauntsi zioten, harrizko izurriaren gatik, zeren ikharagarri handia baitzen.

XVII. KAP.

1. Eta zazpi untxiak zaduzkaten zazpi aingeruetarik bat ethorri zen, eta mintzatu zitzaitan, zielarik: Zato, ur handien gainean jarria dagoen ematzar handiaren kondenamendua erakhutsiko darotzut;

2. Zeinarekin khutsatu baitire lurreko erregeak, eta hor horditu haren linburkeriako arnoz lurrean bizi direnak.

3. Eta gogotan eraiki ninduen mortura. Eta emazteki bat ikhusi nuen jarria, eskarlata kolorezko basabere, burhozko izenez bethea zen baten gainean, zeinak baitzituen zazpi buru eta hamar adar.

4. Eta emaztekoa zagoen purpuraz eta eskarlataz inguratirik; eta urhez, eta harri baliosez, eta perlaz aphaindurik, eta eskuan zadukan urhezko ophor bat, dena hasgarrikeriaz eta bere linburkeriako zikhinez bethea;

5. Eta haren belharrean iskribatua zen izen bat: Misterioa: Babilona handia, lurreko linburkerien eta hasgarrikerien ama.

6. Eta ikhusi nuen emaztekoa, sainduen odolaz eta Jesusen martiren odolaz hordi. Eta harrigarriki lastu nintzen haren ikhustez.

7. Eta erran zarotan aingeruak: Zerk harritzen zaitu? Nik erranen darozkitut emaztekiaren egia gordea, eta hori dakharkan zazpi burutako eta hamar adarretako abarearena.



8. Ikhusi duzun basaberea, izatu da, eta ez da; eta lezetik igaitekoa da, eta hiltzerat goanen da; eta harrituko dire lurrean bizi direnak, zeinen ize-nak ez baitire munduaren hastetik bizitzeko Liburuan iskribatuak, ikhus-teaz bazela basaberea, eta gehiago ez dela.

9. Eta huna zer erran nahi duen, zuhurtziaz bethea den gauza horrek: Zazpi buruak dire zazpi mendi, zeinen gainean baitago jarririk emaztekoa; eta erregeak ere zazpi dire.

10. Bortz eroriak dire, bat badago, eta bertzea ez da oraino ethorria; eta ethorri daitekeenean, guti egotekoa da.

11. Eta basaberea, zena eta ez dena, huraxe da zortzigarren; eta zaz-piekilakoa da, eta hiltzera dihoa.

12. Eta ikhusi dituzun hamar adarrak, dire hamar errege, erresuma izatu ez dutenak oraino, baina basaberearen ondotik botherea ordu berean izanen dute errege bezala.

13. Horiak asmu ber-bateko dire guziak; eta basabereari emanen diozkate beren indar-ahalak.

14. Horiak Bildotsari eginen diote gudu; baina garhaituren ditu Bildotsak; zeren jaunen Jauna baita, eta erregeen Erregea; eta harekilako-ak dire deithuak, hautetsiak eta zinak.

15. Eta erran zarotan: Ikhusi dituzun urak, zeinen gainean jarria bai-tago ematzarra, dire populuak, eta jendaiak, eta mintzaiak.

16. Eta basabereari ikhusi diozkatzun hamar adarrak, hekiek gaitze-tsiren dute linburkoia; bakharrik eta buluzik ezarriren dute; janen diozka-te haragiak, eta bera suan erreko dute.

17. Jainkoak ezen berak nahi duena egitea ezarri diote bihotzean, basabereari eman diozoten beren erresuma, bethe ditezen arteo Jainkoaren hitzak.

18. Eta zuk ikhusi emaztekoa, da lurreko erregeen gainean erregina-zen den hiri handia.

XVIII. KAP.

1. Eta gero zerutik jausten ikhusi nuen bertze aingeru bat, ahal han-ditakoa; eta haren ospeak argitan ezarri zuen lur guzia.

2. Eta indarrekin oihu egin zuen, erraten zuelarik: Erori da, erori Babilona handia; eta debruen egon-lekhu egin da, eta izpiritu lohi guzien ihes-lekhu, eta hegastin lohi eta higuingarri guzien zilho;

3. Zeren jendaia guziek haren linburkeriaren hasarrezko arnotik edan baitute, eta lurreko erregeak harekin khutsatu baitire, eta lurreko tra-tulariak haren gozokerietako indarretik baitire aberastu.

4. Eta zerutik bertze mintzo bat aditu nuen erraten: Ilkhi zaite hor-tik, ene populua, beldurrez-eta phartedun egin zaiten horren tzarkerietan, eta atzeman dezazun horren gaitzatarik.

5. Ezen horren bekhatuak zeruraino heldu izan dire, eta horren gaix-takeriez orhoitu da Jauna.

6. Bihurrozue, berak ere eman izan darotzueten bezala; bikhun egio-zue bere behingo egintzen arabera; eta edatera eman izan darotzueten untzi berean, edanaraz zozue bietan.

7. Zenbat-ere goretsi baita eta gozatu, hanbat emozue oinhaze eta atsekabe; zeren erraten duen bere bihotzean: Erregina jarria nago eta ez naiz alhargun, eta dolurik ikhusiren ez dut.

8. Hargatik egun batean ethorriko dire horren gaitzak, heriotzea, eta nigarrak, eta gosea, eta erreko da suan; zeren indardun baita hori juiatu-ko duen Jainkoa.

9. Eta horren gatik nigarrez eta deithoretan egonen dire horrekin khutsatu eta atsegin-pean bizi izan diren lurreko erregeak, ikhusiko dute-nean horren erretzeko khea;

10. Eta horren oinhazeek lasturik, urrunera xutik erraten hariko dire: Zorigaitz, zorigaitz, Babilona, hiri handi, hiri hazkar horrentzat; oren batik barnean ethorri baita hire kondenamendua.

11. Eta lurreko tratulariek horren gainean nigar eta auhen eginen dute, zeren gehiago nihork ez baititu erosiko hekien saltzekoak;

12. Eta urhezko, eta zilharrezko, eta harri baliosezko, eta perlazko, eta liho mehezko, eta purpurazko, eta sedazko, eta eskarlatazko saltze-koak, eta zur usain gozodun guziak, eta bolizko eta, harri baliosezko untzi guziak, eta kobrezkoak, eta burdinazkoak, eta marmolazkoak,

13. Eta zinamoma, eta usain onak eta gantzugailuak, eta isentsua, eta arnoa, eta olioia, eta irin lorea, eta ogi bihia, eta kargako abereak, eta ardiak, eta zamariak, eta orga-lasterrak, eta gathibuak eta gizonen arimak.

14. Eta goan ditun hire ganik hire arimaren irritseko fruituak; eta gauza gori, eder guziak galdu zaizkin, eta hekiek ez dire gehiago aurkhi-turen.

15. Hekien salerosle aberastu direnak, horren oinhazeek lasturik, auhen eta nigarretan horren ganik urrun egonen dire,

16. Diotelarik: Ai zer zorigaitza hiri handi horrentzat, zeina liho mehez, eta purpuraz, eta eskarlataz jauntzia, eta urhez estalia, eta harri baliosez, eta perlaz aphaindurik baitzagoen;



17. Zeren oren batik barnean galdu baitire hanbateko aberastasuak, eta lemazain guziak, eta itsasoan dabiltzan guziak, eta itsasturuak, eta itsasoko lanetan hari direnak urrun gelditu baitire,

18. Eta ikhustearekin horren erre lekhua, oiuhuka hasi baitire, diotelarik: Zein hiri egundaino izatu da hiri handi horren bardin?

19. Eta herrautsez estali dituzte buruak, eta heiagoraka haritu dire, nigar eta auhenetan diotelarik: Zorigaitz, zorigaitz hiri horrentzat, zeinak bere ontasunez aberastu baititu itsasoan untzirik zuten guziak; ezen oren batik barnean mortu egin izan da.

20. Zerua, bozkarioz jauz zaite, eta zuek ere apostolu sailduak eta profetak; zeren Jainkoak horri jazarri baitio zuei eginikako gaizkia.

21. Eta aingeru hazkar batek goititu zuen harri bat, ihara harri handi bat bezalakoa, eta itsasora arthiki zuen, zioelarik: Holako oldarrean eragotziko da Babilona, hiri handi hori, eta ez da gehiago aurkhituren.

22. Eta ez da gehiago hire baithan entzunen gitarrarien, kantarien, xirolarien eta turutarien otsik; eta hitan ez da gehiago aurkhituren niholazko langilerik niholazko lanetan; eta ez du iharaharriak gehiago hire erdian adiaraziko bere harrabotsa;

23. Eta ez du gehiago hire baithan argituren kriseluaren argiak; eta gaur-gero ezkonberrien mintzorik ez da hire baithan entzunen; zeren hire tratulariak baitziren lurreko buruzagi, eta hire sorginkeriek zorarazi baitituzte jendaia guziak.

24. Eta hartan aurkhitu da sailduen eta profeten odola, eta lurrean heriotzez hilak izatu diren guziena.

XIX. KAP.

1. Gero aditu nituen oste handi batzuen mintzoak bezala, zeruetan erraten: Alleluia: Agur, ospe eta indar gure Jainkoaren baithan da;

2. Zeren baitire zinak eta zuzenak haren erabakiak, juiatu baitu lilitxo handia, lurra bere tzarkeriez galarazi duena, eta aspertu baitu bere zerbitzarien odol, haren eskuek ixuri dutena.

3. Eta berriz ere erran zuten: Alleluia. Eta menderen mendetan igaiten da haren erretzeko khea.

4. Eta hogoi eta lau zaharrak eta lau abereak ahuspez erori ziren, eta adoratu zuten tronuaren gainean jarria dagoen Jainkoa, erraten zutelarik: Biz: Alleluia.

5. Eta tronutik ilkhi zen mintzo bat zioena: Ospa zazue gure Jainkoa, haren zerbitzari guziek, eta haren beldur zareten ttipi-handiek.

6. Eta oste handi baten haroa bezala, eta ur handien harrabotsa bezala eta ihurtzuri gaitzen burrunba bezala aditu nuen erraten: Alleluia, zeren bere erregetasunean jarri baita gure Jainko Jaun ahalorotakoa.

7. Boz gaitezen, jauz gaitezen, eman diozogun ospe; zeren ethorri baitire Bildotsaren ezteiak, eta hekiatarakoz aphaindu baita haren andre beharra.

8. Eta emana izan zaio liho mehe, xuri eta distiragarritz jauntzia izatea. Ezen liho mehezko jauntzia, sailduen eginkari zuzenak dire.

9. Eta erran zarotan: Iskriba zazu: Dohatsu Bildotsaren ezteietako afarira deithuak izan direnak. Eta erran zarotan: Egiazkoak dire Jainkoaren hitz haukiek.

10. Eta haren oinetara erori nintzen haren adoratzeko. Eta erran zarotan: Berautzu holakorik egin; zure zerbitzari laguna naiz, eta Jesusez lekhukotasun egiten duten anaiena. Jainkoa adora zazu. Ezen Jesusen lekhukotasunean datza profeziatzko izpiritua.

11. Eta zabaldua ikhusi nuen zerua, eta hara zaldi zuri bat, eta haren gainean jarria zena deitzen zen Leiala eta Egatia, zuzenki erabakitzen duena eta gudukatzen dena.

12. Aldiz, haren begiak ziren su garra iduri, eta buruan bazituen beharreko hainitz, eta bazuen iskribatua izen bat, berak baizik nihork ez dakiena.

13. Eta jauntzia zen soin odoleztatu batez; eta haren izena zen Jainkoaren Hitzia.

14. Eta zeruan diren armadak, zaldi zuritan jarraitzen zitzaizkon, liho mehezko soin xuri eta garbiz jauntzirik.

15. Eta haren ahotik atheratzen zen ezpata bat bi aldeetarik zorroztua, hartaz populuen jotzeko. Eta berak hotsemanen diote burdinazko zigorrarekin; eta Jainko guziz ahaldunaren hasarre gaitzeko arnoaren thina oinkatzen du berak.

16. Eta du iskribaturik soinekoan eta ixterrean: Erregeen Erregea, eta jaunen Jauna.

17. Eta bertze aingeru bat ikhusi nuen iguzkian xutik, eta hazkarki oiuhu egin zuen, erraten ziotelarik zeru erdia gaindi hegaldaka zabiltzan hegastinei: Zatozte eta bil Jainkoaren afari handira,

18. Jan detzatzuen erregeen haragiak, eta armadetako aitzindarien haragiak, eta hazkarren haragiak, eta zaldien haragiak, eta hekien gainekoenak, eta pelut eta gathibu guzien haragiak, eta ttipienak eta handienak.



19. Eta zaldi zuriaren gainean jarria zagoenari eta haren armadari gudu emateko bilduak ikhusi nituen basaberea, eta lurreko erregeak eta hekien armadak.

20. Eta harrapatua izan zen basaberea eta harekin profetaizuna, zeinak haren aitzinean egin baitzituen sendagailak, eta hekien bidez enganatu basaberearen hatza hartu zutenak eta haren itxura adoratu zutenak. Eta hekiek biak, sufrez irakitzen dagoen osinera izan ziren arthikiak.

21. Eta zaldiaren gainean jarria dagoenaren ahotik ilkhitzen den ezpataz hilak izan ziren gainerakoak, eta hekien haragiz ase ziren hegastin guziak.

XX. KAP.

1. Eta ikhusi nuen zerutik jausten aingeru bat, lezeko gakhoa eta gathe handi bat eskuetan.

2. Eta atzeman zuen erainsugea, suge zaharra, zeina baita debrua eta satan, eta estekatu zuen mila urtherentzat;

3. Eta anbildu zuen lezera, eta han hertsu zuen, eta gainera zigilatu zioen athea, jendaia etzetzan gehiago engana, mila urtheak bethe arteo; gero aphur batentzat behar baita estekatik atheratu.

4. Eta ikhusi nituen jarlekhu batzu, eta hekien gainean jarri ziren, eta hainei emana izan zitzaioten erabakitzeke eskuak; eta ikhusi nituen Jesusi egin lekhukotasunaren ariaz eta Jainkoaren hitzaren gatik buruak moztuak izan zituztenen arimak, basaberea eta haren itxura adoratu etzutenak, eta haren hatza beren belhar edo eskuetan hartu etzutenak; eta Kristorekin bizi eta erreginatatu ziren mila urthez.

5. Bertze hilak etziren bizitzera itzuli mila urtheak bethe arteo: Hau da lehenbiziko birphiztea.

6. Dohatsu eta saindu lehenbiziko birphiztean phartedun dena: ez du bigarren heriotzeak halakoen gainean eskurik; bainan Jainkoaren eta Kristoren aphez izanen, eta harekin mila urthez erreginatuko dire.

7. Eta bethe ditezkeenean mila urtheak, presondegiko esteka hautsiko zaio satani, eta ilkhiko da, eta enganatuko ditu lurraren lau izkinetan diren populuak, Gog eta Magog, eta gudurako bilduko ditu hanbat, non hekien ostea itsasoko legarra bezala izanen baita.

8. Eta hedatu ziren lurraren zabalera, eta inguratu zituzten sainduen kanpak eta hiri maitea.

9. Eta Jainkoaren ganik jautsi zen zerutik sua, eta iretsi zituen; eta debrua, hekien enganatzen hari zena, arthikia izan zen suzko eta sufrezko osinera, zeintan basaberea ere

10. Eta profetaizuna gau eta egun menderen mendetan izanen baitire oinhazetan erabiliak.

11. Eta ikhusi nuen tronu zuri handi bat, eta haren gainean jarririk zagoena, zeinaren aitzinetik ihes egin baitzuten zeru-lurrek, eta hekien tokirik ere etzen aurkhitu.

12. Eta ikhusi nituen hilak, ttipi-handiak tronuaire aitzinean xutik; eta liburuak zabalduak izan ziren; eta zabaldua izan zen bertze Liburu bat ere, zeina baita bizitzekoak; eta hilak juiatuak izan ziren liburuetan iskribatua zenetik, nor bere egintzen arabera.

13. Eta itsasoak bihurtu zituen berekin zaduzkan hilak, eta herioak eta ifernuak beren hilak, berekin zaduzkatena; eta juiatuak izan ziren, nor bere eginkarien arabera.

14. Eta ifernua eta herioa arthikiak izan ziren suzko osinera. Hori da bigarren heriotzea.

15. Eta bizitzeko Liburuan iskribatua aurkhitu etzena, suzko osinera arthikia izan zen.

XXI. KAP.

1. Eta ikhusi nituen zeru berri bat eta lur berri bat; goan ziren ezik lehenbiziko zerua eta lehenbiziko lurra; eta itsasoa ez da gehiago.

2. Eta nik, Joanesek, ikhusi nuen hiri saindua, Jerusaleme berria, zerutik jausten Jainkoaren ganik, aphaindua hala-nola andre ezkonberria bere senharrarentzat berregintzen baita.

3. Eta mintzo handi bat aditu nuen tronutik erraten: Gizonekilako huna Jainkoaren egon-lekhua, eta hekiekin egonen da. Eta izanen dire haren populu, eta Jainkoa bera hekien artean hekien Jainko izanen da;

4. Eta Jainkoak nigar oro hekien begietarik xukhaturen du; eta hiltzerik ez da izanen gehiago, ez-eta nigarrak, ez hegiogorarik, ez oinhazerik gehiago, zeren goan baitire lehenbizikoak.

5. Eta tronuan jarria zagoenak erran zuen: Huna non berri egiten ditudan gauza guziak. Eta erran zarotan: Iskriba zazu, ezen hitz haukiek osoki dire zinak eta egjak.

6. Eta erran zarotan: Egin da. Ni naiz alfa eta omega, hastea eta akhabantza. Egarki denari nik urrurik emanen diot bizitzeko uraren ithurritik.

7. Garaitiar atheratuko denak izanen ditu horiek; eta ni izanen naiz haren Jainko, eta hura izanen da ene seme.

8. Uzurrentzat ordean, eta sinhetsgaitz, eta hasgarri, eta gizon hiltzaile, eta lohi, eta phozoindatzaile, eta jainkoaizuntiar, eta gezurti



guzientzat, hekien zathia izanen da suz eta sufrez khaldatua den osi-
nean; hura baita bigarren heriotzea.

9. Eta azken zazpi izurriez untziak betherik zaduzkaten zazpi ainge-
ruetarik bat ethorri zen, eta enekin mintzatu zen, zioelarik: Zato eta erak-
hutsiko darotzut ezkonberria, Bildotsaren andrea.

10. Eta gogotan eraiki ninduen mendi handi eta gora batetara, eta
erakhutsi zarotan hiri saindua, Jerusaleme zerutik jausten Jainkoaren
ganik,

11. Jainkoaren argiaz argitua; eta haren argia zen harri baliosarena
bezalakoa, hala-nola jaspe harriarena, kristaila iduri.

12. Eta inguruan bazuen harrasi handi gora bat, hamabi atherekin;
eta atheetan hamabi aingeru, eta iskribatuak izen batzu, zeinak baitire
Israelgo semeen hamabi leinuen izenak.

13. Hirur athe ziren iguzki sortzetik, eta hirur ipharretik, eta hirur
hegoatik, eta hirur iguzki sartzetik.

14. Eta hiriko harrasiak zituen hamabi asentu, eta hamabi hekietan,
Bildotsaren apostoluen hamabi izenak.

15. Eta enekin mintzo zenak bazuen urhezko khanabera bat neurri-
tzat, hiriaren, eta hango atheen eta harrasiaren neurtzeko.

16. Eta hiria lau izkinetakoa zen, eta haren luzetasuna zabaltasunaren
bethe zen; eta urhezko khanaberarekin neurtu zuen hiria hamabi estadio;
eta haren luzetasuna, goratasuna eta zabaltasuna bardinak ziren.

17. Eta neurtu zuen harrasia zaspitan hogoi eta lau beso, gizon neu-
rri, zeina baitzen aingeruarena ere.

18. Eta jaspe harriz egina zen harrasia; aldiz, hiria bera zen ume gar-
biz, berina arrasoa iduri.

19. Eta hiriko harrasiaren asentuak harri balios orotaz berreginduak
ziren. Lehenbiziko asentua zen jaspez, bigarrena zafirrez, hirugarrena kal-
zedonioz, laugarrena esmeraldaz,

20. Bortzgarrena sardonizez, seigarrena sardioz, zazpigarrena kriso-
litaz, zortzigarrena beriloiz, bederatzigarrena topazaz, hamargarrena kri-
soprasaz, hamekagarrena moredinez, hamabigarrena ametistaz.

21. Eta hamabi atheak hamabi perla dire bakhotxa, perla batez egina
athe bakhotxa; eta hiriko plaza zen urhe garbiz, berina argia iduri.

22. Eta ez nuen hartan tenplorik ikhusi. Alabainan Jainko Jaun guziz
ahalduna eta Bildotsa dire hango tenplo.

23. Eta hiriak, argitua izateko, ez du ez iguzki ez ilhargi beharrik.
Ezen Jainkoaren argiak argitzen du, eta Bildotsa da haren zuzia.

24. Eta haren argitara ibiliko dire jendaki guziak, eta lurreko erregeek
hartara ekharriko dituzte beren ospe-ohoreak.

25. Eta hango atheak ez dire egunaz hertsiko, ezen ez da han gaurik
izanen.

26. Eta harat ekharriko dituzte jendaien ospe-ohoreak.

27. Eta ez da han sarthuko deus khutsaturik, ez-eta itsuskeria egile-
rik, ez-eta gezurtirik, baizik-ere Bildotsaren bizitzeko Liburuan iskriba-
tuak direnak.

XXII. KAP.

1. Eta erakhutsi zarotan bizitzeko uraren ibaia, kristaila bezain argi,
Jainkoaren eta Bildotsaren jarlekhitik atheratzen dena.

2. Hango plazaren erdian, eta ibaiaren bi aldeetarik, dago bizitzeko
arbola, zeinak ekhartzen baititu hamabi fruitu, hilabete oroz ekhartzen
duelarik bere fruitua, eta arbolaren hostoak jendaien sendatzeko dire.

3. Eta ez da gehiago niholazko madarizionerik izanen; bainan han
izanen dire Jainkoaren eta Bildotsaren jarlekuak, eta zerbitzatuko dute
bere zerbitzariak.

4. Eta ikhusiren dute haren begithartea, eta beren belharretan ekha-
rriko dute haren izena.

5. Eta ez da gehiago gaurik izanen; ez dute kriselu argirik ez-eta iguz-
ki argirik beharko, zeren Jainko Jaunak argituren baititu, eta menderen
mendetan erreginaturen dire.

6. Eta erran zarotan: Hitz horiek osoki zinak dire eta egiak. Eta pro-
feten izpirituen Jainko Jaunak igorri izan du bere aingerua bere zerbitza-
riei erakhustera zer gerthatu behar den laster.

7. Eta huna non heldu naizen zalhuki. Dohatsu liburu huntako pro-
feziaren hitzak idukiko dituena.

8. Eta Joanes naiz ni, horiek aditu eta ikhusi ditudana. Eta horiek
aditu eta ikhusi ondoan, lurrerat erori nintzen adoratzekotzat, horiek
erakhutsi zarozkidan aingeruaren oinetan.

9. Eta erran zarotan: Berautzu holakorik egin; zeren zure zerbitzari
laguna bainaiz, eta zure anaia profetena, eta liburu huntako profeziaren
hitzak begiratzen dituztenena; Jainkoa adora zazu.

10. Eta erran zarotan: Ez zigila liburu huntako profeziako hitzak;
ezen hurbil da muga.

11. Bidegabe egiten duenak, oraino ere egin beza; eta lohikerian
dagoena, lohi bedi oraino; eta zuzena dena, zuzen bedi oraino; eta saindu
dena, saindu bedi oraino.



12. Ezen huna non heldu naizen laster; eta enekin dut ene saria, batbederari bere eginen arabera bihurtzeko.

13. Ni naiz alfa eta omega, lehena eta azkena, hastea eta akhabantza.

14. Dohatsu beren soinekoak Bildotsaren odolean garbitzen dituztenak; zuzen izan dezaten bizitzeko arbolan, eta atheatarik sar ditezen hirian.

15. Kanporat zakhurrak, eta phozoindatzaileak, eta lohiak, eta gizon hiltzaileak, eta jainkoaizuntiarak, eta gezurra maite eta egiten duten guziak.

16. Nik, Jesusek, bidali dut ene aingerua, horien lekhukotasuna zuei egitekotzat elizetan. Ni naiz Dabiden ganikako aldaska eta ethorkia, izar argi, goizekoa.

17. Eta izpirituak eta andre esposak diote: Zato. Eta aditzen duenak erran beza: Zato. Eta bethor egarri dena; eta ururik izan beza nahi duenak bizitzeko uretik.

18. Bainan hitz diot liburu huntako profeziako hitzak aditzen dituen edozeini: Baldin nihork iratxikitzen badiote zerbait, berari Jainkoak iratxikiko diozkala liburu huntan iskribatuak diren izurriak.

19. Eta baldin norbaitek gutitzen badu liburu huntako profeziaren hitzetarik, Jainkoak khenduko duela haren ikhustekoa bizitzeko liburutik, eta hiri saindutik, eta liburu huntan iskribatuak direnetarik.

20. Dio haukien lekhukotasuna egiten duenak: Bai, heldu naiz laster: Halabiz. Zato, Jesus Jauna.

21. Jesu-Kristo gure Jaunaren grazia bedi zuekin ororekin. Halabiz.

BIBLE SAINDUAREN AKHABANTZA